


ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2019



ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

www.ararteko.eus



URTEKO TXOSTENAK



Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2019

Vitoria-Gasteiz 2020

Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa](#) (CC BY 4.0) lizentziapean dago



Lan honen **bibliografia-erregistroa** [Arartekoko liburutegiaren katalogoan](#) kontsulta daiteke

Formatuak eta edizioak:

Paperean ere bai

Gaztelaniazko edizioa: [Informe anual al Parlamento Vasco 2019](#)

Dibulgaziozko edizioa: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2019. Laburpena](#)

Bereizitako liburukian argitaratua: [Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena 2019](#)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

- [web](#) gunean
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)


ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa: Eps-Comalpa-Irudi, UTE

ISSN-e 2255-4939

Aurkibidea



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	15
I. ATALA	
Ararteko erakundearen jarduera kopurutan	19
II. ATALA	
Euskal herriko administrazio publikoen jarduera ikuskatzea.....	43
III. ATALA	
Arartekoaren jarduerak arreta publikoa behar duten taldeak babesteko.....	193
IV. ATALA	
Arartekoaren beste tresna batzuk administrazio ona izateko eskubidea sustatzeko.....	279
V. ATALA	
Gizartearekiko harremanak eta erakundeen arteko lankidetzarako jarduerak.....	289
VI. ATALA	
Arartekoaren jardueraren garrantzia Europa eta mundu mailan	299
VII. ATALA	
Arartekoaren gomendioak eta iradokizunak zenbateraino bete diren	315
ERANSKINAK	
Eman diren ebazpenak	333
Grafikoen eta taulen aurkibidea	343
Arartekoaren argitalpenak.....	349

AURKEZPENA	15
-------------------------	----

I. ATALA

Ararteko erakundearen jarduera kopurutan	19
---	----

1. Oharrak eta datu orokorrak.....	21
2. Arreta zuzeneko bulegoen jarduera (aurrez aurreko kexak eta telefono bidezko aholkuak).....	23
3. Erregistratutako kexa idatziak.....	23
4. Estatistika alorrez alor.....	24
5. Estatistika, eragindako administrazioen arabera.....	25
A. Eusko Jaurlaritzaren aurka bideratu diren espedienteak.....	26
B. Foru erakundeen aurka bideratutako espedienteak.....	27
C. Tokiko administrazioaren aurka bideratutako espedienteak.....	28
D. Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka bideratutako kexa-espedienteak.....	29
6. Lurralde estatistika (kexa idatzien banaketa lurraldeen arabera).....	30
7. Prozedurari buruzko estatistika (kexa idatzien espedienteen egoera).....	31
8. Ofiziozko espedienteak.....	32
9. Estatistika soziologikoa. Kexagileen tipologia eta kexen formatua.....	34
10. Erabiltzaileen iritzia.....	35
10.1. Erabiltzaileei egindako inkestaren emaitzak.....	35
10.2. Zerbitzu Kartarekin lotutako kexak eta iradokizunak, eta Arartekoak daukan informazioa eskuratzeko eskaerak.....	37
11. Informatzeko betebeharra.....	37
11.1. 2019an kexak izanda ere, errekerimendurik jaso ez duten administrazioak eta bestelako organismoak.....	38
A. Eusko Jaurlaritza.....	38
B. Foru aldundiak.....	38
C. Udalak eta administrazio batzarrak.....	39
D. Beste erakunde publiko batzuk.....	40
11.2. Kexak direla-eta, 2019an errekerimenduren bat jaso duten administrazioak eta bestelako organismoak.....	40
A. Eusko Jaurlaritza.....	40
B. Foru aldundiak.....	41
C. Udalak eta administrazio batzarrak.....	41
D. Beste erakunde publiko batzuk.....	42

II. ATALA

Euskal Herriko administrazio publikoen jarduera ikuskatzea	43
1. Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola	47
2. Hezkuntza	57
3. Ogasuna.....	65
4. Gizarteratzea	73
5. Justizia	85
6. Ingurumena	97
7. Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	107
8. Jarduera ekonomikoaren antolamendua	115
9. Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	125
10. Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	135
11. Osasuna.....	143
12. Segurtasuna	151
13. Gardentasuna, herritarren partaidetza, gobernu ona eta datuak babestea	161
14. Lana eta Gizarte Segurantza	171
15. Hirigintza eta lurralde antolamendua	175
16. Etxebizitza	183

III. ATALA

Arartekoaren jarduerak arreta publikoa behar duten taldeak babesteko	193
1. Familiak.....	197
2. Emakumeen berdintasuna eta osotasuna.....	205
3. Ezintasunen bat duten pertsonak	217
4. Espetxeratuak	227
5. Ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk	237
6. Etorkinak eta kultura aniztasuna.....	245
7. Lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak eta intersexualak (LGBTI pertsonak)	257
8. Adinekoak eta menpekotasun egoeran dauden pertsonak.....	263
9. Talde terroristen biktimak	271

IV. ATALA

Arartekoaren beste tresna batzuk administrazio ona izateko eskubidea sustatzeko	279
1. Txosten bereziak.....	282
– 2019an argitaratutako txostena: <i>Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekotza egitea</i>	282
2. Ikerketa bekak	282
2.1. EAEko errefuxiatuei buruzko Arartekoaren ikerketa-beka	283
2.2. Arartekoaren beka, sexu-esplotazioa helburu duen pertsona-salerosketari buruzko ikerketa egiteko.....	283

3. Arartekoaren udako ikastaroa	283
4. Ararteko erakundea jarduten hasi zenetik 30 urte bete direla eta burututako jarduerak	284
4.1. Apirilaren 2ko ekitaldiak Bizkaiko Abokatuen Elkargoan: hitzaldia Helena Malenorekin, giza eskubideen defendatzailea eta “Caminando Fronteras” elkartearen sortzailea baita, eta “Ikuspuntuak” giza-eskubideei buruzko argazki erakusketa.....	284
4.2. Abenduaren 9an Eusko Legebiltzarrean eta Europa Jauregian antolatutako jarduerak.....	285
5. Beste topaketa eta jardunaldi batzuk	286
5.1. Ararteko erakundearen ekitaldia eta adierazpen instituzionala, zainketa aringarrien nazioarteko eguna dela eta....	286
5.2. Zigor Arloko Zuzenbideari buruzko XVI. Jardunaldiak José María Lidónen omenez	286
6. Arartekoaren argitalpenak	287
6.1. Arartekoak argitara eman ditu 2019ko uztailean egin ziren XXXVIII. Uda Ikastaroetako ponentziak eta materialak. Pertsonen eskubideak bizitzaren bukaeran	287
6.2. Arartekoaren jarduera 30 urteko ibilbidean biltzen duen argitalpena	287
7. Aldizkari digitala	288

V. ATALA

Gizartearekiko harremanak eta erakundeen arteko lankidetzarako jarduerak.....

1. Gizarte erakundeekiko harremanak	291
– 2019. urtean erakundearekin bilerak egin dituzten elkarteak eta taldeak.....	291
2. Estatuko herriaren defentsa-erakundeei loturiko jarduketak	292
2.1. Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXXIV. Jardunaldiak	292
2.2. Bilera egin du Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren Emakumeen Defentsa-erakundearen Sareko Europako eskualdeak: <i>Sexu- eta ugalketa-eskubideak eta indarkeria obstetrikoa</i>	294
2.3. Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren XXIV. Kongresua: “Genero-indarkeria eta berdintasuna”	294
3. Beste jarduera batzuk	295
– Arartekoaren eta haren ondokoaren jarduerarik esanguratsuenak, hitzaldiak emateari dagokionez, eta administrazioek eta gizarte erakundeek antolatutako ekitaldietan parte hartzeari dagokionez	295

VI. ATALA

Arartekoaren jardueraren garrantzia Europa eta mundu mailan.....

1. Testuingurua eta kontzeptu-esparrua: Europa mailako eta nazioarteko agertokia 2019an	301
1.1. Sarrera	301
1.2. Nazio Batuen mailan.....	302
1.3. Europako Kontseilu mailan	304
1.4. Europar Batasunaren mailan.....	305
1.5. Estatu mailan	307
2. Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaiaren Bulegoa: 2019an helburuak eta estrategia-ardatzak garatzea	307
3. Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaiaren Bulegoaren (EIADen) jarduerak 2019an	308
3.1. Ingurumen egokirako eskubideari buruzko eremuan	308
3.2. Haurren eskubideak babesteari buruzko eremuan.....	309
3.3. Europako errefuxiatuen eta migratzaileen eskubideen eremuan.....	309

3.4. Kulturaren eta hizkuntza eskubideen eremuan.....	309
3.5. Datu pertsonalak babesteari buruzko eremuan.....	310
3.6. Gizakien salerosketaren eremuan.....	310
3.7. Genero indarkeriaren aurkako borrokaren eta berdintasunaren eremuan.....	310
3.8. Erakundeen arteko lankidetzaren eremuan eta Ombudsman erakundeei dagozkien eginkizunetan sakontzeko sare-lanaren eremuan.....	310
3.9. Erakundeen arteko lankidetzaren eremuan, harreman estrategikoak ezartzeko, erakunde publikoen gobernantza eta funtzionamendua hobetze aldera.....	311
3.10. Justiziaren eremuan.....	312
4. Arartekoak Europako eta nazioarteko dimentsioko jardueretan parte hartu izanaren balorazioa.....	312
4.1. Arartekoaren konpromiso aktiboa defentsa erakundeen nazioarteko sareetan: emakumeen, migratzaileen eta haurren eskubideak babestea, baita hizkuntz eskubideak ere.....	313
4.2. Ezagutzak eta jardunbide egokiak nazioartean trukatzeko: Veneziako Printzipioak eta defentsa erakundeen arteko kolaborazioa, erakunde gisa dagozkien funtzioak etengabe hobetzeko.....	313

VII. ATALA

Arartekoaren gomendioak eta iradokizunak zenbateraino bete diren..... 315

1. Onartutako gomendioak eta iradokizunak.....	318
A) Eusko Jaurlaritza.....	318
B) Foru administrazioa.....	319
C) Tokiko administrazioa.....	320
2. Onartu ez diren gomendioak eta iradokizunak.....	321
A) Eusko Jaurlaritza.....	321
B) Foru administrazioa.....	324
C) Tokiko administrazioa.....	325
3. Erabaki gabe dauden gomendioak eta iradokizunak.....	326
A) Eusko Jaurlaritza.....	326
B) Foru administrazioa.....	327
C) Tokiko administrazioa.....	328
D) Beste erakunde publiko batzuk.....	329
4. Bertan behera utzitako gomendioak eta iradokizunak.....	329
A) Eusko Jaurlaritza.....	329
B) Foru administrazioa.....	329
C) Tokiko administrazioa.....	329

VIII. ATALA

Eranskinak..... 331

Eman diren ebazpenak..... 333

Grafikoen eta taulen aurkibidea..... 343

Arartekoaren argitalpenak..... 349



AURKEZPENA

Giza eskubideak errespetatzeko kultura eraikitzea diferentzia errespetatzea da

Niretzat atsegin handia da aurten ere Arartekoaren urteko txostena aurkeztea. Bertan, 2019. urtean barrena erakunde honek egin dituen jardueren berri ematen dugu eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko giza eskubideen egoera orokorraren ikuspegia eskaintzen dugu.

2019an Arartekoak 30 urte bete zituen jardunean, 1989ko martxoaren 8an lehenbiziko arartekoak, Juan San Martínek erakunde abian jarri zuenetik. Ordurako tankera bereko erakundeak zeuden herrialde askotan, Ombudsman edo Herriaren Defendatzailea izenekin. Jarduten hasi zenetik, egiaztatu da erakunde honen jarduera-eremuak —Arartekoak sortu eta arautzeko 3/1985 Legean ezarritakoa— bere izaera ebolutibo eta moldakorra nabarmentzen duela, eta, aldi berean, bere partaidetza sustatzen duela formalki aldarrikatutako eskubideak benetan gauzatzen. Erakundearen ibilbidearen antzera, Estatu sozial eta demokratikoa aldatu egin da eta eskubide-askatasunak bermatzean ikusten diren gabeziei erantzun behar zaie, haiek ez baitira adierazpen formal hutsak, baizik eta egiazko betebeharrak positiiboak botere publikoentzat, lehen adierazi dudanez.

Urtean zehar hainbat jarduera planifikatu ziren urtemuga hori ospatzeko. Horrela, apirilaren 2an, Arartekoak Helena Malenoren hitzaldi bat antolatu zuen Bizkaiko Abokatuen Elkargoan. Maleno andrea giza eskubideen defendatzailea da, kazetaria, Caminando Fronteras taldearen sortzailea, eta “El naufragio de los derechos humanos” izenburuko hitzaldia eman zuen. Egun berean, “Ikuspuntuak” zeritzan argazki-erakusketa egin zen, Winnipeg-eko (Manitoba) Giza Eskubideen Kanadako Museotik ekarritakoa. Argazki

hazietan erakutsi zen gizaki aniztasunaren adierazpen ugari eta askotarikoak, baita giza eskubideak ezarri behar diren testuinguru ezberdinak ere. Aldi hartan, Arartekoak salatu zuen etorkinak eta errefuxiatuak kriminalizatzeko joera dagoela eta araudiek modu interesatuan nahasten dituztela migratzaileei edo errefuxiatuei emandako laguntza eta pertsonen salerosketa, aintzat hartu gabe alde izugarriak bereizten dituela lehendabizikoaren eragingarri solidarioa eta pertsonak salerosketa delituaren azpian dagoen irabazteko asmoa. Portaera guztiz desberdin horien arteko nahasketak arazoak eta errepresio handiagoa sortzen ditu giza eskubideen defendatzaileen kontra. Arartekoak bat egin du gai horretaz Europan aspalditxo hasi zen eztabaida irekiarekin.

EHUren Uda Ikastaroen XXXVIII. edizioan, Arartekoak “**Pertsonen eskubideak bizitzaren bukaeran**” izenburuko ikastaroa antolatu zuen uztailearen 4an eta 5ean, Donostiako Miramar jauregian. Haren bidez, hausnarketa eta profesionalen arteko trukea sustatu nahi izan zen pertsonen bizitzaren bukaeran dituzten eskubideen gainean, beraien duintasuna eta burujabetasuna babestearen ikuspegitik begiratuta.

Arartekoaren 30. urtemugaren ospakizun nagusia abenduaren 9an burutu zen. Hasteko, protokolo-ekitaldi bat izan zen **Eusko Legebiltzarrean**, non Bakartxo Tejeria Ganberako lehendakariak eta mahaikideek harrera egin zieten ararteko guztiei eta Espainiako jarduneko herriaren defendatzaileari, Francisco Fernández Marugán jaunari. Gero, Gasteizko Europa jauregian erakunde-ekitaldi bat gauzatu zen, **Iñigo Urkullu** lehendakaria buru izan zuela; euskal erakundee-tako anitz agintari eta ordezkari bertaratu ziren, baita gizarteko ordezkari ugari eta Arartekoan lan egin duten edo lanean ari diren zenbait lagun.

Atzera begirako ariketa horretan, saihestezina baita urtemuga orotan, atseginez ikusten da Arartekoa bezalako erakunde batek bere ibilbidean izan duen proiektzioa, bai jardueran, bai emaitzetan, eraginkortasunean, erakundearen artean eta gizartean izan duen garrantzian. Horregatik, nire mintzaldian adierazi ahal izan nuen 30 urte hauetan, Arartekoak 180.000 jarduera baino gehiago bultzatu dituela: horietatik 140.000 inguru kexak izan dira, 164 gomendio orokorrak, 36 txosten bereziak eta 174 argitalpenak.

Era berean, erakunde honek harremanak izan ditu 700dik gora gizarte elkarterekin. Gizartearen arlo desberdinen ordezkariak dira horiek, eta erakunde honi herritarren benetako arazoak identifikatzen laguntzen dioten antenak.

Ekitaldi hartan, gizarte zibil antolatuko 10 ordezkariak ere parte hartu zuten, baita arartekoek eta ararteko ohiek ere. Beraien mintzaldietan, erakundearen ibilbideko hainbat gertaera gogoangarri kontatu zituzten, non beraien jarduerak baliagarriak eta gizartearentzat erreferenteak izan ziren.

Amaierako nire mintzaldian, erakundearen etorkizuneko erronkak adierazi nituen, azaleratzen ari diren honelako arazoak zehaztuz: desberdintasuna; behartutako migrazioak eta gure herrialdera iristen diren gizarteratzea; klima-aldaketaren ondorioak; edo bizi izan dugun krisi finantzarioak ahalbidetako gizarte-eskubideak bete daitezzen zainzea.

Arartekoak urteko txosten honetan bere jardueraren berri ematearen ikuspuntutik, adierazi behar dut 2019an guztira 13.650 jarduera egin direla, horietatik 7.800 inguru kexak eta kontsultak, eta 5.100 lagun baino gehiago etorri direla gure bulegoetara. Gainera, Arartekoak 5.500dik gora kontsultari erantzun die telefonoz; horietan informazioa eta orientazioa eskatzen ziren. 69 bilera egin dira gizarte erakundeekin eta 71 zenbait administrazioekin, eta beste ekimen batzuk ere bai: adibidez, kanpoko jardueretan parte hartu dugu, jardunaldiak antolatu ditugu, lankidetzan aritu gara beste defentsa-erakunde batzuekin, elkarlanean nazioartean; 191 jarduera izan dira guztira. Horrez gain, Arartekoko langile batzuek ikuskatzeko 8 bisita egin dituzte. Horien bitartez, funtzionamendua, baliabideak, kudeaketa-programa, Arartekoaren gomendioen betetze-maila, eta abar ebaluatu dira Gernikako Ertzain-etxean, Basauriko Udaltzaingoa, lehen harrerako eta emantzipaziorako prestatzeko Bideberriko zentroetan, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako Zornotza eta Viveroko zentroetan, portaera-arazoak dituzten nerabeentzako Estibaliz eta Sansohetako zentroetan eta Andoiu-Gorbeako gizarte eta hezkuntza zentroan.

Aztergai dugun urtean, Arartekoaren txosten berezi hau aurkeztu zen: *Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekotza egitea*. Horren bidez ebaluatu nahi da zenbateraino ezartzen diren EAEko bitartekotza programak eta zerbitzuak, baita ere bitartekotza, berez, ohiko justiziaren ordezkari bide edo bide osagarri gisa.

Bestalde, atseginez gogorarazten dut ibilbide luze honetan administrazio publiko eskudunak Arartekoaren esku-hatzeekiko gero eta harkorrakoak izatea lortu dela. Kasuetatik %85tan, gutxi gorabehera, Arartekoak ebazpenik edo gomendiorik egin behar izan gabe zuzendu dute beren jarduera euskal administrazioek.

Balantze hau egitean, bereziki azpimarratu nahi dut giza eskubideen kultura indartzen jarraitu behar dela, hala herritarrek nola euskal administrazio publikoek gure zibilizazioa funtsezko balioak iraunaraz ditzaten eta horietan sakondu dezaten. Halako balioak dira, esaterako, norbanakoaren duintasuna eta berezko dituen eskubide-askatasunak errespetatzea, edozein dela ere haren jatorri etniko edo geografikoa (batez ere beraien herrialdeetan jazarpenetik ihes egiten duten pertsonak badira), sexu-joera edo genero-identitatea, ekonomia-egoera eta aniztasun funtzionala, eragozpenak. Horretarako, trabak, mugak eta inertziak kendu behar dira, bada, batzuetan, horiek galarazi egiten dute eskubide-askatasunak baliatzea. Horren haritik, beharrezkoa iruditzen zait honako hau nabarmentzea: bermatu eta indartu egin behar dira gizarte-bazterketaren nahiz emakumeen eta gizonen artean adierazpen ugari oraindik bizirik dirauen desberdintasunaren kontrako tresnak; neska-mutikoen eskubideak ere bermatu behar dira, bereziki sexu-abusua egon litekeen kasuetan. Hain zuzen ere, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenean, Arartekoak berriro adierazi du arretaz aztertu behar dela haur edo nerabeen kontrako edozein sexu-abusu, eta umeen aurkako sexu-abusua aztertzeko asmoz 2019an erakundearen artean protokolo bat diseinatu eta adosteko egin diren lanak zabaltzen lagundu du. Protokolo horren proposamen teknikoa ia bukatuta zegoen urtearen amaieran.

Arartekoak, esku hartzean, erabat bereganatu du bere lanaren Europako eta nazioarteko alderdia. Alderdi hori gehitzean, Arartekoak ez du soilik legeaz dagokion agindua bikaintasunez betetzen; aitzitik, Europan zein nazioartean honelako erakunde bati eskatzen zaionarekin bat dator. Europako Kontseiluan, hain justu, gertatu diren gauza berriak aztertzean, aipatu beharra dago **Veneziako Printzipioak artatu direla, herriaren defendatzailearen erakundea babestu eta sustatzeari buruz**. Printzipio horiek kontsulta-prozesu baten ondoren onartu dira, eta bertan parte hartu zuten Arartekoak eta erakundea sartuta dagoen nazioarteko sare batzuek. Goi mailako tresna da hori, eta 2020. urtean Arartekoaren hainbat ekimenen katalizatzaile izango da. **Printzipio horiek defentsa-erakundeei eskatzen diete giza eskubideak babestu eta sustatzeko eginkizuna beren gain har dezatela eta, horrela, gainditu dezatela Ombudsmanaren ikuskerarik klasikoena, administrazio txarra ikuskatzeari buruzkoa**. Iaz jarduera askok izan dute zerikusia nazioarteko alderdi horrekin, bai errefuxiatu eta migratzaileek Europan dituzten eskubideen arloan, bai datu pertsonalak, kultura eta hizkuntza-eskubideak babestearen arloan. Beste arlo batzuetan ere bai: pertsonen salerosketa, berdintasuna eta

genero-indarkeriaren kontrako borroka, erakundeen arteko elkarlana eta sarean egindako lana, Ombudsman erakundeek berezko dituzten betekizunetan sakontzeko.

Bereziki azpimarratu behar dira umeen eskubideak babestearen arloarekin lotutako jarduerak; horien artean, hauek dira aipagarriak: Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarearen (ENOC) 23. urteko bilera, inguru digitaleko eskubideei buruzkoa, Belfasten egina; 2019ko ENYA proiektu honetan parte hartzea: “Let’s Talk Young, Let’s Talk about Children’s Rights in the Digital Environment”; lanean jarraitzea Greziako eta Holandako Ombudsmanekin egiten ari garen txostenean (asilo eskatzaileak eta errefuxiatuak gizarteratzeari buruzkoa da eta Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuaren Europako ataleko jardueren esparruan hasi zen); Europako Batzordeak antolatzen dituen lantegietako batean parte hartzea, Malmö, pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko asmoz, “haurrentzako berme bat” sortzeari buruzko azterlan batean.

Denon giza eskubideak eta duintasuna defendatzea, batez ere kalteberenena, arnas luzeko ahalegina da, eta helburu hori lortzera bideratuta dago defentsa-erakunde hau. Aurrerantzean ere Arartekoak etengabe egingo du apustu gizartea eraldatzeko bultzadaren alde, beharrezkoa baita. Eraldaketa

hori giza eskubideen kultura bat eraikitzen bideratuko da, berdintasuna defendatuko duena eta aniztasuna errespetatu eta balioetsiko duena, gure aberastasun handietako bat delako. Orobat, kultura horrek aniztasunaren garrantzia nabarmenduko du gizarte demokratiko kohesionatuak eraikitzen orduan.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi ditut. Eskerrik asko herritarrei, 30 urteotan Ararteko erakundearen uste ona izateagatik. Milesker Arartekoan lan egin duten edo lanean ari diren guztiei, beren lan onagatik eta pertsonetikiko eta giza eskubideekiko erakusten duten konpromisoagatik. Eskerrik asko gizarte-erakundeei, beren lankidetzagatik. Esker mila administrazio eta erakunde publikoei, Arartekoa herritarrak zerbitzatu eta artatzeko erakunde eraginkorra egiteagatik. Eskerrik asko legebiltzar talde guztiei, pertsonen eskubideak babesteko goi ordezkari honi eusten jarraitzeagatik, izan ere, Cynthia McKinney parafraseatuz, “Askoz indartsuagoak gara elkarri eskua ematen diogunean, (...) gure aniztasuna ospatzen dugunean, (...) eta elkarrekin bidegabekeriaren haresiak lurrera botatzen ditugunean”.

Manuel Lezertua Rodríguez
ARARTEKOA





I.

atala

Ararteko

erakundearen jarduera kopurutan

◀ Aurrekoa ikusi

I. Atala

ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN

1. Oharrak eta datu orokorrak

Estatistikazko kapitulu honetan barrena, Ararteko erakundearen jardueraren ikuspegi orokorra eskaintzen ahalegin-duko gara, zifratan. Horrela, erakundeari bide ezberdinak erabiliz egin dizkieten kexei buruzko datuak bereiziko ditugu, baita zuzeneko arretarako hiru bulegoen jarduera ere, euskal herri-administrazio bakoitzari dagozkion kexen gaineko datuak bilduko ditugu, eta horiek lurraldeen arabera nola banatuta dauden eta prozeduraren zein fasetan dauden adieraziko dugu.

Era berean, euskal herri-administrazioak Arartekoarekin lan-kidetzan zenbateraino aritu diren jakiteko informazioa ematen da.

Kapitulu honetan beste atal bat sartu dugu, alegia, erakundera etortzen diren pertsonen profilaria buruzkoa, baita inkestetan gure lanaz ematen diguten iritzia ere.

Laburbilduz, informazio sistematizatu horren bidez, kapitulu honetan 2019ko jarduerari buruzko informazio kuantitatibo guztia agertzen da.

Arartekoak garrantzizkotzat jotzen du jardueren kontzeptu zabalaren barruan bi alderdiok ikusaraztea: batetik, herritarren erreklamazioen esparruan egiten duen lana, hau da, kexak eta aholkularitza hainbat modalitatetan, eta, bestetik, bestelako jarduerak, politika publikoak ebaluatzeke egiten direnak, eta, beraz, Arartekoan eskuarki planteatzen diren kasu konkretuez harago doazenak.

Horretarako, hainbat tresna erabiltzen dira, denak ere lan-arlo bakoitzaren urteko jarduera-planean egituratuak: bilerak administrazioekin, bilerak gizarte zibileko elkarteekin eta erakundeekin, ikuskapen-bisitak eta ofiziozko jarduerak.

Arartekoak 2019an egin duen jardueraren zenbakizko gutxi gorabeherako datuak estatistikari eskainitako kapitulu honetan kontsulta daitezke.

Arartekoaren web orrialdea sendotu egin da euskal herritarrei informatzeko eta haiekin harremanetan egoteko bide bezala; horren erakusgarri, aurtan 195.000 bisita jaso dira eta 100.000 erabiltzaile baino gehiago izan dira.

Era berean, Ararteko erakundearen presentzia indartu da gizarte-sareetan; horixe egiaztatzen dute, txosten hau ixteko datan, Twitterren ia 4.900 jarraitzaile, eta Facebookeko orrian (2014an zabalduko) 930 pertsonak jarraitzea Arartekoari.


Oro har, 2019an, herritarrentzako laguntzarekin eta administrazioen kontrolarekin lotutako 13.648 jarduera zenbatu dira.

1. grafikoa. Arartekoari 2019an egindako kexak eta kontsultak



2019an herritarrek 7.751 kexa eta kontsulta egin dizkio- te Arartekoari eta ofiziozko 30 espediente bideratzen hasi gara.

2. grafikoa. Arartekoaren jarduera guztiak 2019an



GUZTIRA
13.650

2019. urtean, informazioa eta orientabidea eskatzeko egin diren 5.523 telefono-kontsultari erantzun diegu eta 71 bilera egin ditugu era askotako gizarte-erakundeekin (horien gaineko xehetasunak urteko txostenaren V. kapituluaren kontsulta daitezke, gizartearekiko harremanei buruzkoa baita). Era berean, 69 bilera egin ditugu zenbait administrazioekin: Eusko Jaurlaritzaren sail eta zuzendaritzekin, aldundiekin, udalekin eta beste erakunde batzuekin.

Ikuskatzeko 8 bisita ere egin dira. Horien bitartez, funtzio-namendua, baliabideak, kudeaketa-programa, Arartekoaren gomendioen bilakaera, eta abar ebaluatu dira Gernikako Ertzain-etxean, Basauriko Udaltzaingoan, lehen harrerako eta emantzipaziorako prestatzeko Bidebarriko zentroetan, bakarrik dauden adingabe atzeritarrentzako Zornotza eta Viveroko zentroetan, portaera-arazoak dituzten nerabeentzako Estibaliz eta Sansohetako zentroetan eta Andoiu-Gorbeako gizarte eta hezkuntza zentroan.

Gainera, eraginkortasunez parte hartu dugu hainbat ekitaldi, jardunaldi eta gertakizunetan; horiek batik bat administrazioek, gizarte-erakundeek eta defentsa-erakundeek sustatu dituzte, autonomia erkidegoetan nahiz Estatuan. 2019an,

horrelako 171 jardueratan esku hartu dugu. Era berean, aipagarriak dira Arartekoak egindako 20 ekitaldi: horiek nolabaiteko eragina dute Europan edo nazioartean eta ez dira aipatu adierazitako gainontzeko kontzeptuetan. Horrek guztiak halako arrasto bat ematen du Arartekoak egiten dituen jarduera ugari eta askotarikoen inguruan, batez ere erakunde osatzen duten 28 lan-arloetako arduradunen ekimenez. Horiek zehatzago azaltzen dira II. eta III. ataletan, arlo horietako urteko jarduera-planaren berri ematean.

2019an kexa idatzien gaineko 2.081 espediente ebatzi dira. Gainera, 1.519 ebazpen eman dira. Gainontzeko kasuak gero onartu ez diren kexak dira (beste herriaren defendatzaile batzuekiko bikoiztasuna, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak, epai irmoa dutenak, auzibideari ekin diotenak eta abar).

Kexa-prozedurek batez beste 65 egun iraun dute 2019an.

lax, kexa eragin zuen administrazioaren jarduera aztertu eta gero, **jarduera okerren bat** zegoela iritzi diegu aztertutako kexa idatzien % **49tan** (gutxitu egin da 2018koaren aldean, ordukoa % 53koa izan baitzen), eta **jarduera ez zela okerra** kexen % **51 baino gehiagotan**.

Eragindako administrazioak kexa sorrarazi zuen jarduera zuzendu eta aldatu du kasuetatik % **85** baino gehiagotan. Gehienetan ez da gomendio formalik egin behar izan administrazioak Arartekoaren proposamena onartzeko. Datu horrek argi erakusten du, berez, erakunde honen esku-hartzea oso eraginkorra dela.

1. taula. Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun-maila

	%	%
Konpondutako jarduera okerra		85,10
Gomendiorik gabe	94,16	
Gomendio onartua	5,52	
Irakokizun onartua	0,32	
Konpondu gabeko jarduera okerra		14,90


2. Arreta zuzeneko bulegoen jardura (aurrez aurreko kexak eta telefono bidezko aholkuak)

1996tik, Ararteko erakundeak arreta zuzeneko bulegoak dauzka Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan. Horri esker, administrazioen batekin arazoak dituzten herritarrei hobeto lagun diezaiekegu. Bulegoetan hartutako eskarmentuak erakusten du, gainera, bertan jasotzen aurrez aurreko kexez gain, telefono bidezko kontsulta ugari ere egiten direla, eta erakundeko langileek erantzuten dituztela.

Horregatik, egiten dizkiguten kexak ez ezik, telefonozko kontsultak ere zenbatzen ditugu, ziur baikaude horien bitartez informatzeko lan interesgarria egiten dela pertsonen administrazioekin dituzten harremanetan zein eskubide dituzten adierazten. Horrela, 2019. urtean guztira 10.647 zerbitzu egin ditugu herritarren arretarako bulegoetan. Horietatik 5.124 hiru bulegoetako batean aurrez aurre egindako kexak eta kontsultak izan dira, eta 5.000 baino gehiago telefono bidezko aholkularitza eta informazioa eman da.

3. grafikoa.

Aurrez aurreko kexak eta kontsultak eta telefono bidezko aholkuak arreta zuzeneko bulegoetan



3. Erregistratutako kexa idatziak

2019. urtean 2.627 kexa idatzi erregistratu ditugu euskal herritarrek hala eskatuta. Gainera, ofiziozko 30 jardura hasi ditugu.


Onartu gabeko kexa idatziak

Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legearen 21. artikuluan adierazten dira zein zertzelada gertatu behar duten herritarren kexak ez onartzeko. Horrela, hainbat arrazoiengatik onartu ez diren kexak bereizi behar dira: norbanakoen arteko gatazka zelako, ordurako auzitegian azalduta zegoen arazoren bati buruzkoa zelako (epai irmoa jasota edo epailearen ebazpenaren zain), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo zegoelako.

Nolanahi ere, kexei ahalik eta babes juridikorik handiena eskaintzeko irizpidea mantentzen da; horrela, ahalegina egiten da prozedurazko arauak herritarrek egindako kexa onartzearen alde interpretatzeko. Onartu ez diren kexetan, erakundea kexagileari aholku ematen ahalegintzen da beti, azaldutako arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei dagokienez.

4. grafikoa.

Onartu gabeko kexa idatziak eta egoerak



GUZTIRA
180

Estatuko Herriaren Defendatzaileari edo beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak

Estatuko administrazioaren jardueraren kontrako kexak ez ditu zuzenean Ararteko erakundeak bideratzen, administrazio hori ez baitago erakunde honen kontrolpean. Kexa horiek Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidaltzen dizkiogu. Gainera, zenbait kexa Kataluniako Sindic de Greuges-i, Galiziako Valedor do Pobo-ri, eta Mexikoko Giza Eskubideen Batzorde Nazionalari bidali dizkiegu, haien eskumen-eremuko administrazio publikoei zegozkielako.

Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexak	75
Beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak	3

4. Estatistika alorrez alor

Kontuan hartzen badugu kexa idatziak zein arlo tematikoekin dauden lotuta, hauxe ikusten dugu: aurreko urtearen aldean, oro har, zertxobait behera egin dutela izapidetutako kexa idatziek, eta gauza bera gertatu dela gizarte arloarekin lotutakoekin (kexa gehien eragiten dituen arloa da, oraindik ere). Gizarte arloko kexak ez dira kategoria bakarrean bilduta agertzen, hainbat arlotan azaltzen dira, ez bakarrik gizarteratze arloan, baizik eta baita ere etorkinen eta kultura aniztasunaren, buru-gaixoen, haur eta nerabeen, adinekoen, etxebizitzaren, espetxeratuak, ezinduen, eta abarren arloetan.


Horrela, 2019an behera egin dute gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko bitartekoekin loturiko kexak: 713 izan dira (2017ko 829 kexen aldean), baina 2012ko 1.100etik urrun dago oraindik. 713 kexa idatzi horietatik **687k** (hau da, ia %97k) **Lanbideren** jarduera txarrarekin loturiko hainbat arazorekin dute zerikusia, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) kudeatzerakoan egindako jarduerekin.

Gizarteratze arloan ez ezik, jarduera bizia nabari da arlo hauetan: hezkuntza, herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak, osasuna, etxebizitza, ogasuna eta herri-administrazioen zerbitzuko langileak.

2019an kudeatutako kexa idatzien artean, ugariak dira, orobat, **arreta publikoa behar duten taldeei** buruzkoak.

Arartekoak bideratu dituen kexa-espeditenteetatik **%55ek baino gehiagok eskubide sozialekin** dute lotura (hezkuntza, osasuna, gizarteratzea, etxebizitza, e.a.).

2. taula. Hasitako kexa-espeditenteen banaketa, jarduerar- arloaren arabera*

Arloa		%
Osasuna	660	27,86
Gizarteratzea	468	19,76
Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	148	6,25
Arreta publikoa behar duten taldeak: desgaituak, adinekoak, berdintasuna, etorkinak eta kultura aniztasuna, espetxeratuak, e.a.	125	5,27
Etxebizitza	123	5,19
Hezkuntza	120	5,07
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	113	4,77
Ogasuna	101	4,26
Hirigintza eta lurralde antolamendua	101	4,26
Segurtasuna	93	3,93
Ingurumena	99	4,18
Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	50	2,11
Jarduera ekonomikoaren antolamendua	45	1,90
Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola	36	1,52
Justizia	33	1,39
Haurrak eta nerabeak	26	1,10
Lana eta Gizarte Segurantzza	15	0,63
Familiak	7	0,30
Gardentasuna, partaidetza, gobernu ona eta datuak babestea	6	0,25
Guztira	2.369	100

* Azpiarloen arabera xehatutako datuak Arartekoaren web orrian kontsulta daitezke, [estatistika osoan](#).

5. Estatistika, eragindako administrazioen arabera

Bideratutako kexa-espedituek administrazio bakoitzari zer proportziotan eragiten dioten adierazten duten datuak aztertuta, aurreko urteetan bezala, 2019an Eusko Jaurlaritzaren kontra egin dira kexa idatzirik gehienak (% 53 baino gehiago), gehitu egin dira autonomia erkidegoko udalen jardueri buruzkoak (ia % 35) eta % 10ek baino gehiagok izan dute zerikusia foru aldundiekin.

Edonola ere, espeditueetan nahastutako administrazioak ikertzeak ez du esan nahi jardura okerrik egin dutenik, baizik eta haien jardueraren batek erreklamazioa sorrarazi duela.


Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexen kopurua zuzen interpretatzeko era

Hasiera batean, administrazio jakin baten jarduerak kexa asko eragiten badituzte edo arlo zehatz batean kexa anitz jotzen badira, pentsa liteke horrek estua duela herritarrek administrazio horren funtzionamenduaz duten iritzi txarrarekin, zabarkeria, gehiegikeriak edo legez kontrako jarduerak egoteari dagokionez.

Hala ere, ñabardura garrantzitsuak egin behar zaizkio kexa-kopuruaren lehen pertzepzio eta interpretazio horri, ondorioak presaka ez ateratzeko, ondorio horiek okerrak eta bidegabeak izan baitaitezke eragindako administrazioei dagokienez.

Horrela, nahiz eta administrazio jakin baten jarduerak sortutako kexa-kopurua hasiera batean esanguratsua izan, are esanguratsuagoa da —eta hori da egiaz garrantzitsua— zenbat kexatan izan zituen kexagileak erakunde honetara etortzeko moduko arrazoiak, administrazio batek oker jokatu zuelako. Halaber, erakunde honen iritzi, kexa-kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean informatzeko betebeharra betetzeko orduan, bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, administrazioak oker jokatu duela antzeman denean.

5. grafikoa.
Bideratutako espeditueen banaketa, eragindako administrazioen arabera



A) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteak

Banaketa arloka

Eusko Jaurlaritzak eskumen zabala duen arloetan (gizarte babesa eta enplegua, osasuna, etxebizitza, hezkuntza eta herri-administrazioen zerbitzuko langileak) egon da kexa idatzien espediente kopururik handiena.

3. taula.


Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteen banaketa, arloen arabera

Arloa	📄	%
Gizarteratzea	384	43,10
Osasuna	175	19,64
Etxebizitza	82	9,20
Hezkuntza	80	8,98
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	48	5,39
Segurtasuna	32	3,59
Justizia	12	1,35
Jarduera ekonomikoaren antolamendua	12	1,35
Lana eta Gizarte Segurantzza	11	1,24
Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola	8	0,90
Ingurumena	8	0,90
Ezgaitasunen bat duten pertsonak	7	0,79
Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonak	6	0,67
Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	5	0,56
Familiak	4	0,45
Ogasuna	4	0,45
Gardentasuna, partaidetza, gobernu ona eta datuak babestea	4	0,45
Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	2	0,22
Hirigintza eta lurralde antolamendua	2	0,22
Emakumeen berdintasuna eta osotasuna	1	0,11
Haurrak eta nerabeak	1	0,11
Espetxeratuak	1	0,11
Etorkinak eta kultura aniztasuna	1	0,11
Adinekoak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak	1	0,11
Guztira	891	100

Sailen arabera banaketa

6. grafikoa.

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteen banaketa, sailen arabera



Enplegu eta Gizarte Politikak	399	(% 44,78)
Osasuna	198	(% 22,22)
Hezkuntza	109	(% 12,23)
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	89	(% 9,99)
Segurtasuna	33	(% 3,70)
Lana eta Justizia	20	(% 2,24)
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	12	(% 1,35)
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	11	(% 1,23)
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	8	(% 0,90)
Kultura eta Hizkuntza Politika	6	(% 0,68)
Ogasuna eta Ekonomia	6	(% 0,68)

GUZTIRA

891


B) Foru erakundeen aurka bideratutako espedienteak

Banaketa lurraldeka

Foru erakundeen kontrako kexen artean, nabarmentzekoa da gora egin dutela Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka bideratutako kexa idatziek; hori normala da, lurralderik jendetsuena baita.

7. grafikoa.

Foru erakundeen aurka bideratutako espedienteen banaketa, lurraldeen arabera



Banaketa arloka

Foru eremuko kexa idatzien tipologiari begira, mantendu egin da azken urteko joera: zertxobait gutxitu egin dira ogasun arlokoak, eta ugartu adinekoekin eta mendetasun egoeran dauden pertsonekin zerikusia dutenak, baita gizarteratze arlokoak ere.

4. taula.

Foru erakundeen aurka bideratu diren espedienteen banaketa, arloen arabera

Arloa	ARABA ALAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	%
Adinekoak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak	10	12	4	26	15,30
Ogasuna	10	7	5	22	12,94
Haurrak eta nerabeak	1	12	8	21	12,35
Gizarteratzea	4	14	–	18	10,59
Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	8	5	5	18	10,59
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	10	2	4	16	9,41
Ezgatutasun bat duten pertsonak	6	8	2	16	9,41
Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola	2	6	5	13	7,65
Ingurumena	2	1	1	4	2,35
Espetxeratuak	2	1	1	4	2,35
Jarduera ekonomikoaren antolamendua	2	1	–	3	1,76
Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	–	2	1	3	1,76
Familiak	–	–	2	2	1,18
Emakumeen berdintasuna eta osotasuna	–	–	2	2	1,18
Hezkuntza	1	–	–	1	0,59
Etorkinak eta kultura aniztasuna	–	1	–	1	0,59
Guztira	58	12	40	170	100

C) Tokiko administrazioen aurka bideratutako espedienteak


Banaketa lurraldeka

Banaketa lurraldeka

Espediente gehienak Bizkaiko udalen aurka bideratu dira, baina kontuan hartu behar da horixe dela lurralderik jendetsuena.

5. taula.



Tokiko administrazioen aurka bideratutako espedienteen banaketa

		%
Bizkaiko udalak	216	47,74
Gipuzkoako udalak	171	29,79
Arabako udalak	102	17,77
Bizkaiko mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak	12	2,09
Arabako administrazio batzarrak	8	1,39
Gipuzkoako mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak	6	1,05
Arabako mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak	1	0,17
Guztira	574	100

6. taula.

Autonomia erkidegoko udalen eta administrazio batzarren aurka bideratutako espedienteak

Arabako udalak 	
Vitoria - Gasteiz	71
Amurrio	9
Laudio / Llodio	5
Asparrena	3
Iruña Oka / Iruña de Oca	2
Laguardia	2
San Millán / Donemiliaga	2
Beste batzuk*	8
Guztira	102

Bizkaiko udalak 	
Bilbao	81
Barakaldo	21
Getxo	18
Erandio	15
Sestao	11
Sopela	10
Santurtzi	9
Bermeo	8
Portugalete	8
Durango	6
Galdakao	6
Leioa	6
Mungia	6
Gorliz	5
Barrika	3
Basauri	3
Karrantza Harana / Valle de Carranza	3
Ermua	3
Valle de Trápaga - Trapagaran	3
Zamudio	3
Arantzazu	2
Bakio	2
Derio	2
Gatika	2
Igorre	2
Meñaka	2
Muxika	2
Ondarroa	2
Urduña / Orduña	2
Plentzia	2
Urduliz	2
Zalla	2
Beste batzuk*	22
Guztira	274

Gipuzkoako udalak		
Donostia / San Sebastián		50
Errenteria		13
Hondarribia		10
Zarautz		10
Arrasate / Mondragón		9
Lasarte - Oria		7
Pasaia		6
Tolosa		6
Azpeitia		4
Hernani		4
Irun		4
Ordizia		4
Beste batzuk*		40
Guztira		171

* Zerrenda osoa Arartekoaren web orrian kontsulta daiteke [estatistika osoan](#).

Banaketa arloka¹

Normalean gertatzen den bezala, tokiko administrazioen jarduerak eragindako erreklamazioak modu nahiko homogeneoan banatuta daude udalek eskumen garrantzitsuak dituzten arloen artean. Honako arloak nabarmentzen dira: araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak, hirigintza eta lurralde antolamendua, segurtasuna, ingurumena, ogasuna, gizarteratzea.

D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka bideratutako kexa-espedienteak

EAEko beste administrazio batzuen aurkako kexak areagotu egin dira aurreko urtekoen aldean. Halaxe gertatu da Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Haurreskolak-en kontra egindako kexekin; bere horretan mantendu dira URA-Uraren Euskal Agentziaren kontrakoak; eta gutxitu egin dira korporazio juridikoen aurkakoak, batez ere Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuarekin zerikusia zutenak.


7. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka bideratutako kexa-espedienteak

	
Euskal Herriko Unibertsitatea	9
URA – Ur agentzia	6
Haurreskolak	6
Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsua	2
VISESA	1
Bizkaiko-Soro Administrazioaren Lurralde-Kolegio Ofiziala	1
Gipuzkoako Albaitarien Legezko Elkarte Gorena	1
Euskal Herriko Prokuradoreen Kontseilua	1
Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestua	1
Guztira	28

¹ Toki erakundearen kontra egindako kexa idatziak arloen arabera banatzen dituzten datuak Arartekoaren web orrian kontsulta daitezke, [estatistika osoan](#).

6. Lurralde estatistika (kexa idatzien banaketa lurraldeen arabera)

8. grafikoa.
Erregistratutako kexa-espediten lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera (2008-2019)*




* Arartekoaren web orrian kontsulta daitezke, [estatistika osoan](#), Arartekoaren jardueraren hasi zenetik (1989) izan duen bilakaerari buruzko datuak.

Erreklamazioak lurraldez lurralde, 10.000 biztanleko

Lurralde historikoen arabera erregistratu diren kexa idatzien jatorriaren konparaziozko azterketa egiteko, lurralde bakoitzetik jasotako kopuru osoa lurralde horretako biztanleriarekin lotuko dugu. Hurrengo koadroan bildu ditugu lurralde bakoitzetik 10.000 biztanleko multzo bakoitzeko jaso ditugun kexei buruzko datuak.

Aurreko urteetan ez bezala, egiaztatu dugu Bizkaiko Lurralde Historikoan egin direla kexa idatzi gehien; hori normala da, biztanle gehien dituen baita.

9. grafikoa.
Erregistratutako erreklamazio idatziak lurraldez lurralde, 10.000 biztanleko (2005-2019)*



* Arartekoaren web orrian kontsulta daitezke, [estatistika osoan](#), Arartekoaren jardueraren hasi zenetik (1989) izan duen bilakaerari buruzko datuak.

Banaketa lurralde bakoitzean

Kexagileak lurralde historikoko hiriburuan ala beste udalerrri batzuetan bizi diren, herritarren jokabidea ez dela berdina erakusten du kexa-espediten banaketak. Egiaz, Bizkaian eta Gipuzkoan, handiagoa da hiriburutik kanpo bizi diren kexagileen kopurua, Araban, ordea, kexetatik % 75 baino gehiago Gasteizen bizi direnek egin dituzte.

8. taula.

Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek egin dituzten kontuan hartuta

Araba/Álava			%
Vitoria-Gasteiz	378		80,25
Beste udalerrri batzuk	93		19,75
Guztira	471		100
Bizkaia			%
Bilbao	502		29,77
Beste udalerrri batzuk	1.184		70,23
Guztira	1.686		100
Gipuzkoa			%
Donostia/San Sebastián	152		35,68
Beste udalerrri batzuk	274		64,32
Guztira	426		100

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo etorritako kexak

Urtean zehar, beste autonomia erkidego batzuetatik etorritako 44 kexa jaso ditugu, euskal herri-administrazioen kontrakoak.


7. Prozedurari buruzko estatistika (kexa idatzien espedienteen egoera)

Jarraian, 2019an bideratutako espedienteak tramitazioaren zein fasetan dauden aztertuko dugu.

2019. urtean 2.081 kexa-espediente bukatu dira eta 1.519 ebazpen eman dira. Arartekoak hartu dituen erabakiak aztertuta, eragindako administrazioaren jarduera okerreren bat zegoen 742 kasutan, hau da, ia % 49tan; ehuneko hori iazkoa baino (% 53) txikiagoa da. Aitzitik, ez da jarduera okerrik antzeman azterturiko espedienteetatik % 51 baino gehiagotan (iaz % 47 izan ziren).


Izapidetzen ari ziren espediente batzuetan, kexa aztertzen hasi ondoren, azterketa jarraitzea eragozten duten hainbat inguruabar agertu dira: beste defendatzaile batzuekiko bikoiztasuna, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak, epai irmoa dutenak, epai bideari ekin diotenak eta abar. Espediente horiek *Gerora ez dira onartu* izenpean jaso dira ondoko grafikoetan.

10. grafikoa. 2019an bukatu diren espedienteak



Kexen egoera: euskal administrazio publikoen jarduera zuzenak eta okerrak

11. grafikoa. Kexa-espedienteen egoera



Aurreko datuetatik ondorioztatzen denez, Arartekoak 2019. urtean sakonki aztertu dituen erreklamazio guztietatik 742 kasutan, hau da, ia % 49tan ondorioztatu da jarduera okerraren bat egin dela.

8. Ofiziozko espedienteak

Herritarren kexak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, bere kabuz, hainbat gai ikertzeari ekiten dio: batzuetan, euskal administrazio publikoren batek agian oker jokatu duela iruditu zaigulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako.

Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak— ofizioz jarduteko aukera xedatu zuen 17.1 artikuluan. Horri esker, Arartekoak bere kabuz esku har dezake, administrazioaren irregulartasunen edo akatsen baten ondorioz kalteturiko herritarren kexen zain egon barik.

2019an ofiziozko 30 espediente bideratzen hasi gara. Arloen arabera, aipatzekoak dira Haur eta Nerabeentzako Bulegoari, gizarteratzeari, ingurumenari eta segurtasunari dagozkionak.

9. taula. Ofiziozko espedienteen banaketa, arloen arabera

Arloa	📄	%
Haurrak eta nerabeak	11	36,67
Gizarteratzea	6	20
Ingurumena	5	16,67
Etorkinak eta kultura aniztasuna	3	10
Segurtasuna	3	10
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	2	6,66
Guztira	30	100

Ikus daitekeenez, iaz, Haur eta Nerabeen Bulegoko lana nagusitu zen ofiziozko jardueren kopuruan. Antzeman ziren zenbait egoera edo arazorekin lotuta zeuden jarduera horiek.

Horien artean garrantzitsuak dira zenbait egoitza-baliabidetara egindako ikuskapen-bisitak, adibidez, portaera-arazoak dituzten nerabeentzako Sansohetako zentrora eta Estibalizko behin-behineko unitatera.

Azken urteotan adingabe atzerritar gehiago iritsi dira Euskadira familiarik gabe; horregatik, baliabide horietan nola artatzen dituzten jakiteko, bisitan joan gara bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako Zornotzako eta Viveroko zentroetara eta lehen harrerako eta emantzipazioarako prestatzeko Bideberria zentrora.

Ikuskatzeko bisiten atalean aipatzekoa da, halaber, Andoia-Gorbea gizarte eta hezkuntza zentrora egindakoa eta neurri judizialak betetzeko Uribarri gizarte- eta hezkuntza-zentrora egindakoa. Bisita hori Tortura Prebenitzeko Mekanismo Nazionalarekin batera egin genuen, hark hala eskatuta.

Era berean, Bilboko familien elkargunea ikuskatzera joan gara.

Ofiziozko espedienteak hasi ditugu, halaber, hiru foru aldundietan tutoretzapeko neska-mutilen naziotasuna lortzeko tramitazioa nola egiten den jakiteko; beste ekimen bat ere burutu dugu Urduñako Udalarekin, udalerrri horretan haur babesgabeentzat dagoen baliabidea uzten duten pertsonen ofizioz baja emateko prozedura dela eta.

Orobat, ofiziozko jarduerak egin ditugu *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak* txosten berezian bakarrik dauden adingabe atzeritarrei buruz egin genituen gomendioen bilakaera aztertzeke. Horrela, informazioa eskatu diegu hiru foru aldundiei, lehen aipaturiko ikuskatze-bisitetan lortutako informazioa osatzeko.

Etorkinen eta kultura-aniztasunaren arloaren ekimenez hasitako jarduerak ere aipatzen dira. Bi Espainiako Defensor del Pueblori bidali zaizkio. Lehenbizikoan gai hau aztertu zen: Polizia Nazionalaren Atzeritartasun Bulegoan atzerapena gertatzen zela atzeritar egoiliarraren txartela lortzeko hitzorduak ematean, lan- eta bizileku- baimena emateko ebazpena jakinarazi ondoren; baliteke horien inguruan irregulartasun batzuk gertatzen aritzea. Bigarrena, berriz, agian pertsonen salerosketaren biktima izaten ari diren emakumeek pairatzen dituzten arazoei buruzkoa zen, izan ere, emakume horiek nekez lor ditzakete Espainian bizileku eta lan baimena eskatu ahal izateko edo errolatzeko beharrezkoak diren identifikazio-agiriak; horrek berekin dakar identitaterik ez izatea.

Gizarteratze arlotik bultzatutako ofiziozko beste jardura batzuk Lanbideri dagozkio. Horietako batean aztertu zen Lanbideek zer administrazio-prozedura eskatzen dituen diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) aldatu, eten, amaitu eta erreklamatzeko orduan. Beste batean, aldiz, hauxe aztertu zen: pertsonen prestazioen titular izateari utzi diotenean, Lanbideek ebazpenak jakinarazteko zer sistema erabiltzen duen DSBE eta EPO erreklamatzeko prozeduretan.

Lanbideri zuzendutako beste jardura batean, zenbait kexatan antzemandako arazo hau jorratu zen: prestazioen eskatzaileek edo titularrek biziarteko gozamenarekin kargatutako ondasun higiezin baten jabetza soila —osoa edo partziala— jaraunsi dute, eta ondare-mugari buruzko aurreikuspenak aplikatu zaizkie; beraz, ez dute betetzen baliabide nahikorik ez izateari buruzko baldintza.

Ofiziozko beste jardura bat ere hasi genuen, Lanbideren 1/2015 Zirkularrean —bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko baldintzak zehazteari buruzkoa— erabilitako irizpideak aztertzeke asmoz. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari irizpide horiek alda zitzan iradoki genion.

Ingurumen arloan ofizioz bultzatutako jarduerak, nagusiki, ibaietara baimenik gabe egindako isurketak kontrolatzeari buruzkoak izan dira, Administrazioak horrelako gertakariak prebenitzeko eta konpontzeko zer neurri hartzen dituen jakiteko.

Era berean, esku hartu genuen lurralde historikoetan baso-suteak ikertzeko eta horien egileak zehazteko zer prozedura erabiltzen den jakiteko. Beste jardura bat ere egin zen Hernaniko airea kontrolatzeko estazioaren funtzionamenduz.

Segurtasun arloan, 2019an ikuskatzeko bisitak egin dira Ba-sauriko Udaltzaingora eta Gernikako Ertzain-etxera.

Osakidetzaren 2016-2017ko deialdiko LEPe-an, medikuntza-espezialitate batzuetan irregulartasunak salatu zirenez gero, Arartekoak gomendioa egin zuen. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak zer neurri hartu zituen ikertzeko asmoz, Arartekoak ofiziozko jardueraren bilakaera aztertzeke espediente bat hasi zuen, eta hori izapidetu zuen bitartean, sail horrek aldizka informazioa eman zion Osakidetzaren hurrengo LEPetan egingo ziren hobekuntzez.

Ofiziozko jardura horiek eta beste zenbait —horietako batzuk aztergai dugun urtean bukatu dira, beste batzuk bideratzen ari dira— zehatzago kontsulta daitezke txosten honen II eta III. kapituluetan, baita horri erantsitako Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenean ere.


9. Estatistika soziologikoa. Kexagileen tipologia eta kexen formatua

Gure zerbitzuetara jotzen duten pertsonei harrera egiteko modu naturalak Arartekoaren esku hartzea eskatzen duten pertsonen ezaugarriak eta baldintzak ezagutzearekin zuzeneko zerikusia dauka.

Kexagileen ezaugarriak

2019. urtean egindako kexen analisi soziologikoak ez du al-daketa esanguratsurik erakusten aurreko urteen aldean, baina emakumeek egindako kexak areagotu direla ikusten da.

12. grafikoa.
Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera




Kexa idazteko erabilitako hizkuntza

Gaur egun gaztelania da kexak idazteko gehien erabiltzen den hizkuntza. Euskaraz eta bi hizkuntzetan aurkeztutakoek gorakada txiki bat izan dute. Halere, Arartekoaren erakundearen herritarrei bi hizkuntza ofizialetan arreta emateko gai diren pertsonak daude.

Ararteko erakundeak erreklamazioak herritarrek aukeratu-tako hizkuntzan izapidetzen ditu, irizpide modura. Arartekoa kexa eragindako administrazioekin harremanetan jartzean, eta ofiziozko espedienteren bat abiatzen duenean, komunikazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiten da.


13. grafikoa.
Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera



Kexak egiteko era

2018. urteko joerari eutsi zaio. Horrela, aurrekoetan ez bezala, kexak batez ere aurrez aurre egin dira, Arartekoaren herritarrek artatzeko hiru bulegoetan, ia %60ra iristeraino. Aldi berean, %34 inguru Internet bidez egin dira, eta oso gutxi postaz.

14. grafikoa.
Kexen banaketa, herritarrek erabili duten bidearen arabera



10. Erabiltzaileen iritzia

10.1. Erabiltzaileei egindako inkestaren emaitzak


Duela zenbait urte, herritarrengana hurbiltzeko bidea hasi genuen, esku hartzeko eskatu diguten pertsonen iritzia jakiteko. Erakundearen jardunbidean ahulguneak zeintzuk diren jakitea eta eskaintzen dugun zerbitzua hobetzen saiatzea ditugu helburu.

Horregatik, kexa-espeditate baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera-sorta bat bidaltzen diogu, nahi izanez gero eta izena ipini barik, galdera batzuei erantzuteko eskatuz, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioa jakiteko.

Emaitzak balioztatzean, garrantzitsua da honako hau kontuan hartzea: 2019an zenbait kexaren biderapen-lana amaitu da; kexa horien artean, gutxi gorabehera % 49tan uste izan da eragindako administrazioak jardura okerren bat burutu zuela.


Herritarrek Arartekoaren esku-hartzeaz 2019an egin duten balorazioa oso ontzat jo behar da. Horixe ondoirozta daiteke Arartekoaren zerbitzuak erabili dituzten pertsonetatik galdera-sortari erantzun diotenen erantzunetatik.

15. grafikoa.
Nolakoa iruditu zaizu Ararteko erakundeko langileek eman dizuten arreta (laguntzeko prest egotea, tratua, enpatia...)?




Arartekoak egiten duen zerbitzuari buruzko balorazio onaren adierazgarririk nabarmenena da kexagileen % 77k baino gehiagok ontzat edo oso ontzat jo duela jasotako arreta.

16. grafikoa.
Oro har, nolakoa iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)




Hau da, galdera-sortari erantzun dioten pertsonetatik ia % 67k baino gehiagok oso ontzat edo ontzat jo dute Arartekoaren esku-hartzea.

17. grafikoa.
Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekora joateko gomendatuko zenioke?




Beraz, kasuetatik ia % 79tan Arartekora jotzea gomendatuko litzateke, administrazioarekin arazorik edukiz gero.

18. grafikoa.
Nolakoa iruditu zaizu kexa egin zenuenetik tramitazioa bukatu arteko denbora?



Erantzuna jasotzeko denborari dagokionez, %47 baino gehiagok uste dute denbora laburra edo oso laburra izan dela.

19. grafikoa.
Nolakoa iruditzen zaizu Ararteko erakundearen pertsonen profesionaltasuna?



Elnekstari erantzun dioten herritarren %72 baino gehiagok (165 lagunek) uste dute erakundearen langileen profesionaltasun irudia ona edo oso ona dela; beraz, Ararteko erakundearen zuzenbidearen aintzatespena da.

Era berean, azken urte hauetan Arartekoaren funtsezko bi tresnari buruz galdetu dugu: alde batetik, gure web orriaz, funtsezko tresna baita gure zerbitzuez informatzeko eta herritarrekin elkarri eraginez jarduteko (orri hori erabiltzaileen %54k ezagutzen dute); eta bestetik, Arartekoaren zerbitzuzkartaz. Bertan biltzen dira kalitateko konpromiso guztiak eta erabiltzaileek erakundearekiko dituzten eskubideak, baita eskubide horiek baliatzeko modua ere (tresna hori galdera-sortari erantzun dioten %43k ezagutzen dute). Inkestaren emaitzetan oso ontzat jotzen da Arartekoarekin gestioak egiteko erraztasuna (%74 inguruko ehuneko positiboa).

Beraz, emaitza horiek denek —aurreko urteetako antzekoak— ondorio hau aterazten digute: Arartekoaren zuzenbidearen esku-hartzearekin —bere jardueraren eta giza baliabideen araberakoa— lotutako iritziak aztertzen direnean, oso ontzat jotzen da egindako lana.

Bestelako emaitza lortzen da Ararteko erakundearen erabakitze edo jarduteko ahalmenetik kanpo geratzen diren alderdiez galdetzen denean. Alderdi horiek gehienbat administrazioaren laguntzeko edo ez laguntzeko jarrerarekin dute zerikusia: prozesuaren iraupena (ia %48k uste dute igarotako denbora luzea edo oso luzea izan dela), nahiz eta Arartekoaren espedienteak, batez beste, 65 egunetan bideratzen diren.

Inkestetan lortzen diren datuez gain (jada azaldu direnak), kexagileek galdera-sortaren ataletako baten bidez bidal diezazkiokete Arartekoari beren iritziak eta iradokizunak.

Erakundearen jardunaz jaso diren iritzien eta hobetzeko iradokizunen artean, honako hauek agertzen dira: tratu ona jaso dutela, langile teknikoak profesionalak direla, erraza dela kexak egitea eta izapidetzea, Arartekoaren esku-hartzeari esker arazoa konpontzea lortu dela.

Gainera, erakundearen eta bere funtzioen berri ematea proposatu dute, uste baitugu jendeak gutxi ezagutzen duela erakundearen pertsonarik ahulenak babesteko egiten duen jardueraren.

Era berean, pertsona batzuek proposatu dute erakunde honen erabakiak nahitaz bete beharrekoak izan daitezkeen.

Beste zenbaitetan, iradoki dute harreman pertsonal gehiago eduki daitezela, edo aurrez aurreko elkarriketak egin daitezela, eta administrazioak emandako agiriak eskura diezazkietela. Kasuren batean, kexagilea ez zegoen ados Arartekoaren jarduerarekin.

Herritarrek Arartekoaren lanaren inguruan eskaintako iritziak datu horiek erantzukizun handia dira eta are pizgarriagoak eguneroko lanean.

10.2. Zerbitzu Kartarekin lotutako kexak eta iradokizunak, eta Arartekoak daukan informazioa eskuratzeko eskaerak

2012. urteaz geroztik, Ararteko erakundeak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen inguruko iradokizunak edo irizkiak emateko aukera erraztu da. [Arartekoaren Zerbitzu-Kartan](#) egindako aldaketan ondorioz, Arartekoaren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea sartu da, baita ere [ARCO eskubideak](#) erabiltzeko aukera ere.

Iaz 4 kexa eta iradokizun egin ziren.

Horietako bitan, ez zeuden konforme Arartekoak emandako arretarekin lotutako alderdi batzuekin; beste kexa batean Arartekoaren web orriko gai teknikoak aipatu ziren; eta beste batean, kexagilea ez zegoen ados esku hartzerik ez geneukala zioen erakunde honen jakinarazpenarekin.

Horiek guztiak oso baliagarriak izan dira Arartekoarentzat, izan ere, zenbait kasutan gure zerbitzuak hobetu ahal izan ditugu, Arartekoaren Zerbitzu Kartan ezarritako moduan.

Arartekoak daukan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatea (Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko Legetik eratorria) indartu egin da 2019an, 8 eskaera egin baitziren. Eskaera horiek berehala kudeatu ziren, legezko modu eta epeetan eskatutako informazioa emanez. Horietako batean norberaren espedienteko agiriak eskatu zituzten, eta gainerako 7etan era askotako informazioa galdegin zuten azterlanei, txostenei eta abarri buruz. Batzuetan, informazio hori jada eskuragarri zegoen Arartekoaren web orrian, publizitate aktiboko elementu gisa.

11. Informatzeko betebeharrak

Lege antolamenduak Ararteko erakundearen modukoei esleitzen dizkien kontrol eginkizunak betetzeko ezinbestekoa da erakunde horien jardura esparruetan sartzen diren herri administrazioen laguntza. Izan ere, administrazio horiek espedienteen ebazpen oinarritua lortzeko behar den informazio guztia eman behar dute eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa- eta kontrol-lanek gutxieneko eragingarritasuna izan dezaten.

Errealitate horretaz jabetuta, Ararteko erakundeak sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, 23. artikuluan, bere kontrolpean jarritako herri administrazioen betebeharrak hori espresuki aipatzen du, administrazio horiei eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten eta argitasun guztiak lehentasunez eta premiaz aurkeztu behar dutela dioenean. Era berean, 26. artikuluan adierazten du informazioak, espedienteak edota bestelako datuak bidaltzeko eskatzen zaizkionean, erakundeak eskatutakoari erantzun dakion epe bat ezarri beharko duela. Betebeharrak hori sendotzeko, lege berberak dio, 24.2 artikuluan, herri Administrazioaren zerbitzura ari den edozein organismo, funtzionario, zuzendari edo pertsonak Arartekoaren ikerketa lanaren aurrean jarrera ezkorra edo oztopatzailea erakusten tematzekotan, txosten berezia egin ahal izango da, urteko txostenean dagokion atalean aipatzeaz gain.

Hain zuzen ere, urteko txosten honetan atal hau sartzearen helburua da Eusko Legebiltzarrak eta, era berean, iritzi publiko orokorrak jakitea zein izan diren erakundearekin lankidetzan jarduteko arreta eta gogo berezia eskaini dituzten administrazio eta organismoak, baita lankidetzara hori ukatu edo atzeratzeagatik herritarrek azaldutako kexak dagokien epean konpontzeko ezintasuna eragin dutenak ere.

Komeni da azpimarratzea lankidetzan aritu beharra gogoratzeko funtzioa zehazki egiten dela, administrazioen kudeaketan eragina duten aldagaiak kontuan hartuta, eta kexa bat azaldu duen pertsonari erantzun eraginkor eta azkarra emateko ageriko helburuarekin. 2019. urtean, nolabaiteko normaltasunez aritu gara lankidetzan informazioa eskatu diegun administrazioekin, salbuespenak salbuespen. Dena den, azpimarratu beharra daukagu, tamalez, zenbaitetan arduragabekeria nabarmena jartzen dela agerian, eta jarrera horrek begirunerik eza erakusten duela erakunde honen ikuskatze-lanarekiko eta, hortaz, kexagileen eskubideekiko. Kasu horietan, hain zuzen, erakundeak, azken baliabide gisa, ohartarazpena egin behar izaten du, ez laguntzeak eragin litzakeen ondorio penalak jakinarazteko (Zigor Kodeko 502.2 artikulua).

Jarraian erantsitako zerrendetan agertzen dira, alde batetik, 2019. urtean lankidetzan aritzeko prest egon diren administrazio edo beste erakunde batzuei buruzko datuak (1). Horregatik, ez da beharrezkoa izan horiei errekerimendurik egitea.

Era berean, beste alde batetik, 2019. urtean errekerimenduak bidali behar izan zaizkien administrazio eta erakundeen gaineko datuak jaso dira (2).

11.1. 2019an kexak izanda ere, errekerimendurik jaso ez duten administrazioak eta bestelako organismoak

Zerrenda honetan jaso dira errekerimendurik egin behar izan gabe, ebatzi ahal izateko 2019. urtean gutxienez informazio-eskaera bat eragin duten **administrazio** eta bestelako **organismo** guztietan izapidetutako espedienteak. Sailak zehazki azaltzen dira EAeko administrazio orokorraren eta foru aldundien kasuan. Beraz, adierazi bezala, ardura eta **arreta berezi** eskainiz lankidetzan jardun duten **administrazioak eta erakundeak dira**.

A) Eusko Jaurlaritza



Saila	
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura	7
Euskotren	4
Euskal Trenbide Sarea	1
Ogasuna eta Ekonomia	3
Segurtasuna	31
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	1
Kontsumobide	20

B) Foru aldundiak



Arabako Foru Aldundia	
Nekazaritza	4
Kultura eta Kirola	2
Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erroka	1
Diputatu Nagusia	1
Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak	4
Ingurumena eta Hirigintza	1

Bizkaiko Foru Aldundia	
Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	2
Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna	5
Euskara eta Kultura	2
Ogasuna eta Finantzak	7
Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzea	4
Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa	2



Gipuzkoako Foru Aldundia	
Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirola	4
Gobernantza	4
Ogasuna eta Finantzak	1
Bide Azpiegiturak	2
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	1
Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka	2

C) Udalak eta administrazio batzarrak**Arabako Lurralde Historikoa**

Arabako udalakak		
Agurain / Salvatierra		1
Amurrio		7
Asparrena		1
Añana		1
Baños de Ebro / Mañueta		1
Labastida		2
Ribera Baja / Erribera Beitia		1
San Millán / Donemiliaga		1

Arabako administrazio batzarrak		
Baranbio		3
Izarra		1
Murgia		1

Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko udalak		
Abanto y Ciérvana – Abanto Zierbena		1
Bilbao		40
Busturia		1
Durango		4
Elantxobe		1
Errigoiti		1
Etxebarri		1
Gorliz		7
Igorre		2
Karrantza Harana / Valle de Carranza		2
Lekeitio		1
Lezama		1
Mallabia		1
Meñaka		2
Mundaka		1
Mungia		4
Muxika		2
Ondarroa		1
Orozko		1
Ortuella		1
Sopuerta		1
Urduña / Orduña		3

Gipuzkoako Lurralde Historikoa



Gipuzkoako udalak		
Aia		1
Anoeta		2
Beasain		1
Deba		2
Elgoibar		1
Eskoriatza		1
Getaria		3
Hernani		2
Itxasondo		1
Mutriku		1
Oiartzun		1
Orio		1
Tolosa		3
Urnietza		2
Usurbil		1
Villabona		1
Zarautz		5

D) Beste erakunde publiko batzuk

	
Bizkaiko-Soro Administrazioen Lurralde-Kolegio Ofiziala	1
Kantauriko Urkidetza	1
Busturialdeko Ur Patzuergoa	1
Mungialdeko Gizarte Zerbitzuko Partzuergoa	1
Haurreskolak	5
Arabako Abokatuen Elkargo Ohoretsua	1
Gipuzkoako Albaitarien Legezko Elkarte Gorena	1
Loatzo Udalerrien Mankomunitatea	1
Txingudiko Zerbitzuak S.A.	2
URA – Uraren Euskal Agentzia	4

11.2. Kexak direla-eta, 2019an errekerimenduren bat jaso duten administrazioak eta bestelako organismoak

Zerrenda honetan jaso dira ebatzi ahal izateko gutxienez informazio-eskaera bat eta **errekerimendu bat** egitea eragin duten **administrazio** eta bestelako **organismo** guztietan izapidetutako espedienteak, **sailen arabera**, EAEko administrazio orokorraren eta foru administrazioen kasuan. Zerrendak honako ezaugarriak ditu:

-  (1) Zenbat espedientetan egin den 2019. urtean informazio eskariren bat.
-  (2) 2019an informazioa eskatu deneko espedienteetatik zenbatetan egin den errekerimendua.
- % (3) Errekerimendua egin zaien espedienteen ehunekoa, 2019an informazio eskaririk egin zaieneko guztirako espedienteen aldean

A) Eusko Jaurlaritza



Saila	(1) 	(2) 	(3) %
Kultura eta Hizkuntza Politika	3	1	33,33
Hezkuntza	110	31	28,18
Enplegua eta Gizarte Politikak	382	181	47,38
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	15	2	13,33
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	62	17	27,42
Osasuna	32	1	3,13
Osakidetza	87	25	28,74
Lana eta Justizia	11	1	9,09

B) Foru aldundiak**Arabako Foru Aldundia**

	(1)	(2)	(3)
			%
Ekonomia Garapena eta Lurralde Oreka	2	2	100
Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna	6	1	16,67
Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapena eta Foru Administrazioa	4	1	25
Gizarte Politikak	32	8	25

Bizkaiko Foru Aldundia

	(1)	(2)	(3)
			%
Gizarte Ekintza	25	6	24
Ekonomi eta Lurralde Garapena	1	1	100

Gipuzkoako Foru Aldundia

	(1)	(2)	(3)
			%
Gizarte Politikak	12	1	8,33

C) Udalak eta administrazio batzarrak**Arabako Lurralde Historikoa**

	(1)	(2)	(3)
Arabako udalak			%
Artziniega	3	3	100
Iruña de Oca / Iruña Oka	2	2	100
Laguardia	2	1	50
Laudio / Llodio	3	1	33,33
Vitoria-Gasteiz	46	17	36,96

	(1)	(2)	(3)
Arabako administrazio batzarrak			%
Aretxabaleta	2	2	100
Salmanton	1	1	100

Bizkaiko Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)
Bizkaiko udalak			%
Amorebieta - Etxano	1	1	100
Arantzazu	2	1	50
Artea	1	1	100
Balmaseda	2	1	50
Barakaldo	14	2	14,29
Barrika	2	1	50
Basauri	4	2	50
Bermeo	3	2	66,67
Derio	2	1	50
Erandio	15	5	33,33
Ermua	5	4	80
Galdakao	5	1	20
Gernika - Lumo	1	1	100
Getxo	15	8	53,33
Güeñes	1	1	100
Leioa	4	2	50
Lemoiz	2	1	50
Muskiz	1	1	100
Plentzia	1	1	100
Portugalete	3	1	33,33
Santurtzi	9	3	33,33
Sestao	8	2	25
Sopela	9	2	22,22
Valle de Trápaga - Trapagaran	3	1	33,33
Zalla	1	1	100
Zamudio	1	1	100

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)
Gipuzkoako udalakk			%
Aretxabaleta	3	1	33,33
Arrasate / Mondragón	6	1	16,67
Azpeitia	4	3	75
Bergara	1	1	100
Donostia / San Sebastián	28	9	32,14
Eibar	1	1	100
Errenteria	10	3	30
Hondarribia	8	6	75
Irun	2	1	50
Lasarte - Oria	7	2	28,57
Legazpi	2	1	50
Ordizia	3	1	33,33
Pasaia	3	1	33,33
Urretxu	1	1	100
Zaldibia	1	1	100

D) Beste erakunde publiko batzuk

	(1)	(2)	(3)
			%
Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoa	5	2	40
Durango Merindadearen Amankomunazgoa	1	1	100
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea	6	1	16,67

II.

atala

Euskal Herriko

administrazio publikoen jarduera ikuskatzea

[◀ Aurrekoa ikusi](#)

II. Atala

EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN JARDUERA IKUSKATZEA

EAEko herritarren eskubideak babesteko ardua esleitu diote Arartekoari, EAEko herri-administrazioen irregulartasunen, akatsen, gehiegikeriaren eta jardun okerraren aurrean jardun dezan. Horretarako, oinarrizko bi lanabes erabiltzen ditu:

- herritarrek egiten dituzten kexa-espeditenteak ebaztea. Kexa jartzeko, aurrez ezarritako bide hauek erabil daitezke: Arartekoaren hiru bulegoetako batera joan, postaz baliatu, edo internetez, Arartekoaren web orriaren bidez.
- ofiziozko jardunen bitartez (halakoetan, Arartekoak jarrera proaktiboa hartzen du), ofiziozkoa, jardun administratibo batek funtsezko eskubideren bat kaltetu dezakeela hautematen badugu, eta indarrean dagoen legeria urratu dezakeela iruditzen bazaigu.

2019. urtean era guztietako **7.779** kexa eta kontsulta egin dituzte herritarrek. Gainera, urtean zehar **ofiziozko 28 espeditente** hasi dira. Arloen arabera, nabarmentzekoak dira Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren ekimenez hasitakoak, baita ere ingurumen eta segurtasun arloei buruzkoak.

Kapitulu honetan egituratuta daude jarduera guztiak, Arartekoaren bulegoa antolatzeke dauden 16 arloen arabera multzokatuta. Arlo bakoitzean jarduerarik adierazgarrienak aztertuko ditugu, eta arlo horretan bideratu diren kexarik garrantzitsuenak azalduko ditugu, gai multzoetan bereizita. Era berean, urtean barrena gertatutako lege-aldaketak aipatuko ditugu, halakorik izan bada.

Kexak zer arloekin lotuta dauden kontuan hartuta, 2019. urtean gora egin dute osasun arloko kexek eta behera —nahiz eta goi-mailetan mantentzen diren— gizarte bazterketaren kontra borrokatzeke bitartekoekin zerikusia dutenak. Berezik

gailentzen dira Lanbideren funtzionamendu-arazoei dagozkien kexak, baita ere erakunde horrek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren arloan burutu dituen jarduerekin lotutakoak.

Aurten, berriz ere, aurrez garatutako jarduera-planaren inguruan egituratu da arlo bakoitzeko lana. Arlo guztietan lana planifikatzeko eta homogeenagoa egiteko tresna da eta arloen plangintza estrategikoa egiteko tresna gisa erabiltzen ari da. Era berean, arlo bakoitzaren bukaeran, arlo horrekin lotutako herritarren eskubideak baloratzeko atala agertzen da. Horri esker, begiratu azkar batean, 2019. urtean gaikako arlo bakoitzean kontua nola dagoen ikus daiteke.

Merezi du Arartekoaren lan-mekanika aipatzea, bai Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexa idatziei dagokienez, bai onartzen ez diren kexei dagokienez, izan ere, horietan denetan izapide laburtua egiten da, baita bideragarritasuneko eta eskumenezko azterketa ere. Horrela, kexa bakoitza banaka aztertuz, Arartekoaren jarduerarekiko bikoiztasunak ekidingo direla bermatzen da.

Horregatik, bideratzen ez diren kexetan ere dedikazio hori egiazta daiteke. Kasu askotan, horren osagarri, kexagileari aholku ematen zaio jarduteko modurik egokienaz, edo konponbide zehatzak bilatzen dira azalduetako arazo zehatzetarako —hori da Arartekoarentzat garrantzitsuenaz—, egin daitekeen edo egin nahi den izapidea edozein izanda ere, edo eragindako administrazioari luzatutako gomendioa alde batera utzita. Alegia, administrazio-prozeduraren aurretik, benetako konponbideak lortzea lehenesten dugu eta nolabait bitartekaritza informala egiten dugu. Bitartekotza horrek oso emaitza onak izaten ditu eta kexagileak gogobetetzen ditu.





II. atala

1








**Hizkuntz eskubideak,
kultura eta kirola**

1. Arloa kopurutan

2019an idatzizko 36 kexa aurkeztu dira arlo horretan, eta Arartekoak urte osoan jaso dituen kexa guztien % 1,52 da hori. Eragindako herri-administrazioak eta azpiarloak kontuan hartuta, honakoa izan da kexen banaketa:

• Kirol jarduerak.....	16
• Herritarren hizkuntz eskubideak euskal administrazioekiko harremanetan.....	10
• Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa.....	7
• Beste alderdi batzuk.....	2
• Kultura, industria eta arte ondarearen babesa.....	1

Txostena itxi zen egunean, honako hau izan zen 2019an iza-pidetutako kexen egoera:

GUZTIRA	Izapidetzen	Anaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
95	11	84	29	30	14	11

Euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasunaren eskubideei buruzko kexei dagokienez, kasu gehienetan, kexagileak hizkuntzagatik diskriminatuta sentitu dira, administrazio-egintzak edo zerbitzu publikoak edota partikularrei egindako jakinarazpenak edo eskubideez baliatzeko informazio garrantzitsuei buruzko informazioak EAEko hizkuntza koofizial bakar batean izan direlako. Aurten, 2019. urtean, bi instantziarekin koordinatuta ebatzi dira:

- **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Politika Sailburuordetza,** erakunde honetan kexa jartzeko zioak izan diren aneuneko kasuak —bai euskal administrazioen ingurukoak, bai estatuko administrazioen gainekoak— ebazten laguntzeko prest agertu da. Ildo horretan, indarrean dagoen lankidetzaren hitzarmena betetz, Arartekoak **Elebide Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuarekin** elkarlanean egin duen lana nabarmendu behar dugu.

- **Hizkuntz Eskubideen Behatokia.** Erakunde horrekin koordinazio zuzena eta azkarra daukagu, erakunde bietara heltzen diren kexei dagokienez; ikus daiteke, besteak beste, telefono eta e-posta bidez norabide bietan egiten diren kontsultetan, baita erakundeen arteko koordinazio orokorrean ere, helburu estrategikoei zein lan-ildoei dagokienez. Bestalde, eskertze-koa da su erakunde honen gomendioak zabaltzen eta betetzen emandako laguntza eta gaian adituak diren aholkularien laguntza teknikoak, kexaren bat tramitatzearan kasua egiaztatze balio izan zaiguna.

Euskararen ezagutza sustatzeko eta egiaztatzeko politikei dagokienez, Arartekoak esku hartu du Irakurketa-idazketarako Zailtasun Espezifikoa (DAL) delako arazoa duen pertsona baten kexan; izan ere, **HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearekin** elkarlanean aztertu dugu kexa.

Ondorioz, ikusi ahal izan dugu HABEK, sarbide-azterketei eta maila egiaztatze koei dagokienez, azterketak DAL duen pertsonentzat egokitzeko protokolo bat ezarrita duela. Hala ere, gaiaren azterketa juridikoa eginda, konturatu gara eskolak emateko egin behar den curriculumaren egokitzapena, legez, curriculum zehazteko hirugarren mailan —programazioan eta ikasgelan— egin behar dela; hau da, euskaltegi bakoitzaren ardura izango litzateke. Nolanahi ere, HABEK erabaki du aurkeztutako erreklamazioa aukera dela programa behar bereziak dituzten pertsonen begira ikasgela mailako taxutzeko irizpideak ezartzeko bidean aurrera egiteko, komunikatzeko gaitasunaren maila egiaztatzearen arloan indarrean dauden aurreikuspenak aplikazio-esparru horretara hedatuz. Horretarako, aukera horiek azterte aldea, HABEko Zuzendaritza Nagusia harremanetan jarriko da desgaitasunaren sektorean erreferentzia diren erakundeekin eta euskal erakundeetako sail eskudunekin, egokitze jotako egokitzapenak elkarren artean prestatzeko.

Kirol federazioek kultura eta kirola sustatzeko egiten duten lanari dagokionez, Arartekoak behin baino gehiagotan gogorarazi die foru-aldundiei eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkien eginkizunak, kirol-federazioak ikuskatzeari eta kontrolari dagokienez, federazioek, Euskadiko kirolari buruzko **ekainaren 11ko 14/1998 Legearekin** bat, beren funtzio publikoak betetzen dituztela bermatze aldera. Kirol federazioen funtzio publiko garrantzitsuen artean (EAEkoak Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean eta lurraldekoak foru-aldundien kontrolpean) *“federazio-lizentziak ematea eta tramitatzea”* dago, aipatu legearen 25 c) artikuluan.

Gainera, erakunde honek gogorazi izan behar du kirol federazioetan esku hartzeko eta funtzio publikoak erabiltzen dituztenean ikuskatzeko betebeharrak hori konpondutzat jo genuen, baina aurten bi aldiz berriz agertu den kontu batean. Izan ere, **familia batzuek arazoak izan dituzte adopzioan hartutako seme-alabak federatzeko**, atzerrian jaio direnez, seme-alaba biologikoak ez bezala tratatzen direlako: futbol-federazio batzuek kide bihurtu baino lehenago denbora batez errolatuta egotea (edo horren gaineko zinpeko aitortpena, askotan errealtatearekin zerikusirik ez duena) eskatzen dute, eta baldintza bete ezean, ez diete jokatzeko uzten.

FIFAK ezarritako prebentzioa da hori, futbol-klub handiek gehiegikeriazko praktika zehatz batzuk egitea saihesteko xedea duena. Hala ere, kirol agintaritzen aurrean urtero errepikatzen dugunez eta Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostenean agerian utzi genuenez, saihestu behar da neurria kasu guztietan —bereizi gabe— aplikatzea, baldin eta egoera horiek halako jardunbideekin zerikusirik ez badute. Izan ere, adingabearen interesarekiko disfuncionala izateaz gain, ilegala ere bada, adopzioaren eta horren ondorioen esanahi juridikoa ezezaguna baita.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kirol Zuzendaritza arduraz aritu da lankidetzan Arartekoarekin salatutako kasu guztiak ebazteko. Hala ere, lurraldeko federazioen arloan kexak behin eta berriz agertzen direnez, aipatu sailak eta foru-organismoek beren jardura- eta kontrol-eremuko kirol federazioak behar bezala informatzeko beste urrats bat egin behar dutela proposatu behar izan dugu, informazio zehatza helaraz dadin eta diskriminazio-kasu gehiago egon ez dadin. Horretarako, erakunde hau Arabako Foru Aldundiko diputatuarekin eta arduradunekin bildu da, gaiaren berri emateko eta eskola-kirolaren egoeraz hitz egiteko. Era berean, hiru lurralde historikoetako foru-arduradunekin bilera bat egiteko aukera proposatu diogu Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kirol Zuzendaritzari; bilera horretan, Arartekoak adingabe adoptatuak federatzeko orduan ez diskriminatzea bermatzeko ezarritako irizpideak gogoraziko genituzke, eta ekintza-plan koordinatu bat ezarri ahal izango genuke, informazioa futbol-federazio guztiek —bai euskal federazioek, bai lurralde mailakoek— jasotzea bermatzeko.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuaren (Elebide) jarduna

Salatutako egoera

Herritar batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan, Elebideren jarduna salatuz. Izan ere, pertsona horrek kexa bat jarri izan zuen Elebiden, banku-erakunde ezagun batek herritarren eskubideak urratu zituela saltzeko; hain zuzen,

banku-erakundeak ez zion euskaraz arreta eman, eta, gainera, aurkeztutako kexari erantzun zion ez zuela arreta euskaraz emateko betebeharrak. Herritarrek Elebideri azaldu zionez, [123/2008 Dekretuan](#), [uztailaren 1ekoan](#), Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoan, eta [aurrekoa aldatzen duen 204/2010 Dekretuan](#), [uztailaren 20koan](#), xedatutakoa urratzen ari zela bankuari jakinarazi izan zion arren, behar zuen dokumentazioa bankuak euskaraz bidaltzeko aukera eskaintzea baino ez zuen lortu, eta hori ere, baldin eta hiru egun baino lehenago eskatzen bazuen. Kexagileak salatu zuen Elebiden aipatu araudiak bezeroari ahozko eta idatzizko arreta —aurrez aurre zein Internet bidez— Euskadiko hizkuntza ofizial bietako edozeinetan emateko betebeharrak ezartzen ziola bankuari, enpresaren tamaina, Euskadin finkatuta egotea eta herritarrei irekitako bulegoak zituela kontuan hartuta.

Arartekoaren esku-hartzea

Arartekoak, bere jarduketan, aipatu araudia aztertu zuen, kexagileak zioena egiaztatzeko: banku-erakundeak ahozko eta idatzizko komunikatuak bezeroak aukeratutako hizkuntzan —euskaraz edo gaztelaniaz— ematera behartuta zegoela, ez bakarrik dokumentazioa hizkuntza ofizial bietan egotera¹. Bestalde, Elebidek kexaren inguruan burututako jarduketa aztertu zuen Arartekoak, Elebide —Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua— sortu eta kontsulten, iradokizunen eta kexen araubidea ezartzen dituen [150/2008 Dekretua](#), [uztailaren 29koa](#), kontuan hartuta.

Emaitza

[Arartekoaren 2019ko maiatzaren 21eko ebazpenaren](#) bidez, Arartekoak gomendatu zion Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari Elebide zerbitzuak jardun bat berriz abiaraztea, banketxe batek arreta euskaraz eman ez izanaren harira; halaber, gomendatu zitzaion kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeari buruzko ordenamenduak ezartzen dizkion eginkizunak betetz, kexan aipatutakoa egin zuen banku-erakundera zuzen zekion, jarduna urraketa zela helarazteko, baita antzemandako ga-

¹ Hain zuzen, 123/2008 Dekretuak, uztailaren 1ekoak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoak, 204/2010 Dekretuaren bidez aldatutakoak, honako hau dio 13. artikuluan: "Bezeroarentzako arretaren hizkuntza-betebeharrak

1.- Bezeroarentzako arretatzat hartuko da kontsumitzaile eta erabiltzaileari zuzenean ematen zaion edozein informazio edo aholku, aurrez aurre, telefonoz edo bide elektronikoz, idatzita nahiz ahoz, ondasun, produktu edo zerbitzuen kontsumoarekin loturik, baita errekamazioak egiteko lagungarri dena, ordainketa-moduei eta finantziarioari buruzkoa, eta saldu osteko zerbitzu eta merkataritza-bermeei buruzkoa ere.

2.- Dekretu honen aplikazio-eremuaren barnean hartutako erakunde eta establezimenduek bezeroarentzako ematen duten arreta ez da kaltetu, atzeratu, ezta eragotziko ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileak bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzen duelako.

.../...

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko jendeari begirako establezimenduak zerbitzu unibertsalak, interes orokorrekoak edo antzeko beste kategoriatan bateko zerbitzuak egiten dituzten erakundeak badira- eta Dekretu honen 2. artikuluan 3. idatz-zatian aipatzen diren produktuak saldu edo zerbitzuak emateko establezimenduak artikuluan honetan ezarritakoa betetz eman behar dute arreta kontsumitzaile eta erabiltzaileei, hizkuntza ofizialetako edozeinetan arituta ere.

beziak zuzentzeko hartuko dituen neurrien berri eman zezan eskatzeko ere. Era berean, gomendatu zitzaion, akats horiek sistemikoak direla ikusirik, zerbitzua eratzeko dekretuaren 9.2 artikulua aipatzen duen hobekuntza-prozedura has zezan, Euskadin dauden banku-zerbitzuetako erabiltzaileen hizkuntza eskubideak gauzatzeko aldera.

2.2. Amorebieta-Etxanoko Udaleko langile batek euskaraz lan egiteko eskubidea aldarrikatzen du

Salatutako egoera

Amorebieta-Etxanoko Udaleko langile batek Arartekora jo zuen euskaraz lan egiteko eskubideaz baliatzeko zailtasunen berri emateko; hori, soziolinguistikoki, Zornotza udalerrri euskalduna dela kontuan hartuta. Langilearen arabera, tresna informatikoak, idazki-ereduak eta hauteskondeei buruzko jakinarazpenak gaztelaniaz bakarrik egotea zen zailtasun horien arrazoia; gainera, ataleko arduradun teknikoak euskaraz ez jakiteak ere zaila egiten zuen euskaraz lan egitea. Horrez gain, udal langileak azaldu zuen zailtasun horiek herritarrei ematen zitzaion zerbitzu publikoan eragina zutela, ez baitzen bermatzen arreta EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan emateko aukera.

Arartekoaren esku-hartzea

Egoera egiaztatzeko eta langilearen eskubidea —bere lana euskaraz egiteko— bermatzen laguntzeko asmoz, Arartekoak Amorebieta-Etxanoko Udalaren laguntza eskatu zuen alkatearen bitartez, [azaroaren 24ko 10/1982 Legeak](#), euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, 5. artikuluan ezarritako euskaraz lan egiteko eskubidea eta hura bermatzeko botere publikoaren betebeharra gogorazita.

Era berean, Arartekoak argudio gisa aipatu zuen udal langileei beren lana euskaraz betetzeko eskubidea bermatzea eta udal zerbitzuak euskaraz ematea zuzenean lotuta daudela, beraz, lehenengoa behar bezala bermatuta ez badago, urratu egingo da herritar euskaldunen eskubidea udal zerbitzuak aukeratzeko duten hizkuntzan jasotzeko.

Emaitza

Amorebieta-Etxanoko Udalak, kexa eta Arartekoaren errekerimendua jasota, bilera antolatu zuen euskara-teknikariarekin eta langilearekin arazoa sakonki aztertzeko asmoz; bertan, egitateak eta egoera udaleko Euskara Erabiltzeko Planarekin konparatuta, arazoak non sortzen ziren egiaztatu zuten, plana hobetze aldera. Era berean, udalak, euskaraz komunikatzeko eskubidea (bai herritarrena, bai langileena) bermatze aldera, hainbat proposamen egin zituen, Euskara Erabiltzeko Plana zehaztu eta garatzeko, eta gero, gauzatu ahal izateko. Azkenik, udalak hizkuntza-protokolo bat prestatu du, Euskara Erabiltzeko Plana egiazkoa eta eraginkorra izan dadin, eta hura langileen eta sailen artean, baita arduradun politikoan ere, zabaltzeko plan bat abian jarri du, euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzeko, herritarren mesederako.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Arartekoak hizkuntza-eskubideen inguruan jasotzen dituen kexak aurreko urteekin konparatuta 2019an nabarmen aldatu ez badira ere, testuinguruan jartzeko, bi gertaera garrrantzitsu aipatu beharra dago, euskara udal esparruan normalizatzeari dagokionez:

- Batetik, Euskararen Gizarte Erakundearen [Kontseiluak](#) (euskararen garapen osoa helburu duten hainbat elkar-terren plataformak) [Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Udal Garapena](#) aurkeztu du. Aurkezpena Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean izan zen, azaroaren 6an. Aipatu protokoloa Donostian 2016an aurkeztu zen, Europa osoko eremu urriko hizkuntzen alde lan egiten duten gizarte-erakundeek adituen laguntzarekin urte eta erdiko prozesu bateratua burutu ondoren. Hizkuntza-eskubideak bermatzeko 185 neurri konkretu jasotzen zituen protokoloak. Toki-erakundeek hizkuntza-politikaren arloko eskumen berriak ematen dizkien [2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeek buruzkoa](#), onartu ondoren, udaletan egin den protokoloaren garapena udal mailan egon daitezkeen egoera desberdinei aurre egiteko gidaliburua izaten saiatzen da. Kontuan izan behar da bai Kontseiluarentzat, bai Arartekoarentzat, udal esparrua estrategikoa dela euskararen garapenerako, herritarrengandik gertuen dagoen administrazio publikoa delako, are gehiago, ahal bada, aipatu [2/2016 Legea](#) onartu ondoren. Hortik dator baita erakunde honek udalerrri euskaldunen mankomunitatearekin ([UEMA](#)) aspalditik daukan lankidetzaren harremana.
- Bestetik, [179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa](#), Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, onartu du Eusko Jaurlaritzak. Hemendik aurrera, udal bakoitzak erabaki eta argi eta garbi azaldu beharko du hizkuntza bien erabilera nola antolatu barne-harremanetan zein publikoetan. Dekretuak amaitzat jotzen du toki-erakunde guztiek arau bakarra izateko garaia, eta aldi berria irekitzen du, non erakunde bakoitzak erabakiko baitu zer hizkuntza erabiltzen duen egoera soziolinguistikoaren arabera. Dekretuak, funtsean, aipatu Euskadiko Toki Erakundeek buruzko [apirilaren 7ko 2/2016 Legea](#) kokatuta dago, baita [Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutun](#) ere, Espainiak 2001eko otsailaren 2an berretsian.

Dekretuaren lehenetsuneko helburuetako bat (1., 9., 13. eta 20. artikulua) euskara administrazioko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa normaltasunez eta orokorrean erabiltzen hastea da, baita udalerrria euskaraz funtzionatzeko aukera ematea ere. Horretarako, toki-erakundeek euskara barne-jardueretan gero eta gehiago erabiltzea lortzeko erabakiak hartu beharko dituzte. Hori dela eta, udalak hala erabakitzen badu, euskara nahitaezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan lan-hizkuntza izango dela

erabaki ahal izango du. Era berean, toki-erakundeek betebeharra izango dute —prestakuntzaren bidez— langile publikoen eta hautatuen ahozko eta idatzizko gaitasuna bermatzeko. Helburua hauxe da (21. artikulua): toki-erakundeetan itzulpengintza- eta interpretazio-zerbitzuak era arrazionalizatuan erabiltzea; bestalde, saihestu nahi da egoera soziolinguistikoagatik udal langileek harremanak euskaraz dituzten udaletan dokumentuak itzultzea, gaztelaniaz lan egiten duten zona soziolinguistikoetan egiten den moduan.

Halaber, euskararen erabilera harreman instituzionaletan sustatu nahi du dekretuak (40. artikulua); izan ere, dekretua onartzen denetik aurrera, euskaraz komunikatzea hautatu duen udal batek administrazio batera bidaltzen diren dokumentuak eta kopiak euskaraz izan beharko dira.

Onartutako dekretua, gainera, udalek euskararen sustapenaren arloak dituzten eskumenak aitortzeko bultzada da. Horrela, udalek egokitzat jotzen dituzten laguntza, dirulaguntza edo zerga-salbuespenak ezarri ahal izango dituzte (58. artikulua), euskararen erabilera eta zabalkundea sustatzeko. Hemendik aurrera, udalek hizkuntza-plangintza egiteko tresnak eduki beharko dituzte, non une guztietan egokienak diren neurriak eta horiek erabiltzeko maiztasuna ezarriko baitituzte, baita emaitzak ebaluatzeko modua ere.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Arartekoak arlo honetan duen jarduketa eraentzeko planaren garapenean, nabarmentzekoa da **antolaturiko gizartearekin izan dugun lankidetzak**:

- Kirol-taldeak.
- Bizkaiko Abokatuen Elkargoko Euskara Batzordea.
- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua
- Hizkuntz Eskubideen Behatokiarekin lankidetzan aritzen gara aktiboki, 1. puntuan jada xehetasunez azaldu dugun moduan. 2019an, EAEn, kezka eta esku-hartze nagusiek Ertzaintza eta udaltzaingoekin izan dute zerikusia (adibidez, Bilboko Udaltzaingoarekin), baita Osakidetzarekin, hezkuntza-sektorearekin eta EITBko programazioarekin ere; azken horri dagokionez, salatu da, batetik, euskarazko albistegiak gaztelaniazkoak baino laburragoak direla eta eduki gutxiago dutela, eta bestetik, EITBk antolatzen dituen haur-jardueretan gaztelaniaz bakarrik dakiten monitoreak daudela.

Herritarren hizkuntza-eskubideen arloko **nazioarteko jarduerari** dagokionez, *International Association of Language Commissioners* (IALC, Hizkuntza Ordezkariei Nazioarteko Elkarte) delako nazioarteko erakundearen egindako lana nabarmendu behar da. Izan ere, Arartekoa elkarte horren eskubide osoko kidea da. Beste elkartekideekin urtean zehar

linean egindako lan-saioez gain, 2019ko ekainaren 26 eta 27an, **Nazioarteko VI. Biltzarra** eta Ontarioko (Kanada) Ombudsmanek (Herriaren Defendatzaileak) antolatutako batzar orokorra ospatu zen Toronton (Kanada), *Protecting Linguistic Minorities, Building Stronger Societies* (Hizkuntza-gutxiengoak babesten, gizarte sendagoak eraikitzen) izenburupean. Jorratutako gai garrantzitsuenak honako hauek ziren:

- Antolakundearen finantzaketa.
- Hizkuntza-politikaren inguruko eztabaidetan parte hartzea, elkarteko kideak diren erakundeak dituzten herrialdeetan eta halakorik ez dutenetan.
- Elkartearen hedapena.

Arartekoak aipatu nazioarteko biltzarrean esku-hartzeari dagokionez, interes handia piztu zuen **Euskaraldiaren** espe-rientziari eta emaitza positiboei buruzko aurkezpenak (Euskaraldia 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean burutu zen gizarte-ekimena da, euskararen erabilera bultzatzea helburu duena). Erakundearen bidez zein herri-ekimenez sustatu da, eta 220.000 parte-hartzaile baino gehiago izan ditu; % 74 hiztun aktiboak ziren eta gainerako % 26 ezagutza pasiboak erabili zituzten parte hartzean. Ekimenak arrakasta handia izan zuenez, edizio berri bat aurreikusita dago, eta hainbat berrikuntza sartzeko eta herritar zein erakunde gehiago inplikatzeke asmoa dago. 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da, eta erronka berri bat izango du, euskaraz lan egitearekin zerikusia duena. Hurrengo apartatuan aztertzen dugu aipatu erronka: lantokietan euskaraz hitz egiteko esparruak sortzea.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Eskualdeko eta Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko Gutuneko Adituen Batzordearen bosgarren txostena, gutuna Espainian aplikatzeari buruzkoa

Euskarak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) duen egoerari dagokionez, Batzordeak adierazi du hiztunen kopuruak gora egin duela (biztanleen % 33,9taraino), eta 14-25 urte bitartekoen % 71,4 direla euskaldunak, seigarren inkesta soziologikoko datuen arabera (2016). Batzordearen iritziz, iguera horrek lehen eta bigarren hezkuntzan D ereduak gero eta lehenetasun handiagoa izatearekin du zerikusia.

Txostenak honako gogoeta hauek jasotzen ditu, besteak beste: Sistema judizialari dagokionez, euskararen erabilera prozedura zibiletan, kriminaletan eta administratiboetan erabiltzea bermatuta ez dagoela kritikatzeko du; izan ere, ez da euskaraz ematen arretarik, ezta epairik ere. Txostenak zehazten duenez, Euskadiko 343 magistratuetatik 16 bakarrik dira elebidunak. Bestalde, estatuko Administrazio Orokorrean

diharduten langile elebidunen portzentajea EAEn oso baxua da oraindik (% 14) eta horrek ez du bermatzen arreta euskaraz ematea. Osasun-sistemari (Osakidetza) dagokionez, txostenaren arabera, profesional elebidunen kopuruak gora egin du, hain zuzen, % 34taraino (2006an % 11 zen), portzentaje hori zer proportziotan administrazioko langileei eta zer proportziotan osasunaren arloko langileei dagokien argi ez badago ere. Osakidetzako lanpostuen % 37k bakarrik du derrigorrezko hizkuntza eskakizuna. Aldi berean, Osakidetzan arreta euskaraz jaso nahi dutenen portzentajeak % 5etik (2015) % 11,9ra (2016) pasatu da; Osakidetzako langile eta bulego euskaldunak identifikatzea errazteko kanpainak behar bezala joan direla erakusten du horrek. Azkenik, telebistei dagokionez, txostenak dio EITBn euskararen erabilera behar bezalako dela, nahiz eta esleitzen zaizkion denbora-tarteak txikiagoak izan, gaztelaniaz ematen diren programekin konparatuta. RTVen euskararen erabilera minimoa da, eta estatu mailako kate pribatuetan euskara ez da batere agertzen. Azken horrek, zalantzarik gabe, ez du hizkuntza normalizatzen laguntzen.

5.2. DAL (Irakurketa-idazketarako Zailtasun Espezifiko) duten pertsonen euskara eskalategi-sarean ikasteko aukera

Euskara bere zailtasunei (DAL edo Irakurketa-idazketarako Zailtasun Espezifiko) egokitutako moduan ikasteko aukera eskaini diezaiokeen eskalategirik ez dagoela salatu duen herritar baten kexa dela eta, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko HABEK, *Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak*, curriculum zailtasunak dituzten pertsonen beharren arabera egokitzeko aukera aztertu ahal izan du Arartekoak, kexan aipatutakoa bezalako zailtasunak edo ikasteko berariazko beste zailtasun batzuk (DEA) dituzten pertsonen euskara ikasteko aukera izan dezaten, euskaldun nahi dutelako edota lanpostu publiko bat edo euskaraz jakitea eskatzen duen beste edozein arlotan lanpostu bat lortu nahi dutelako.

Hortaz, euskararen erabilera normalizatzeko prozesua bideratzea eta helduak eskalategi-sarearen bidez euskalduntzeko ardura HABEren eginkizunen artean daude.

Ondorioz, Arartekoak 2019ko irailaren 19ko ebazpena eman zuen.

Bidez batez, HABEren laguntzeko prestasuna azpimarratu zuen Arartekoak, zuzendari nagusiak esan baitzuen kexa aztertzeak behar bereziak dituzten pertsonentzako ikasge-lan programazio irizpideak ezartzeko orduan aurrera egiteko aukera ematen duela, aplikazio eremu horretara zabalduz komunikazio gaitasunaren maila egiaztatzeko alorrean indarrean dauden aurreikuspenak; adierazi zuen, halaber, HABEko Zuzendaritza Nagusia ezintasun-sektoreko erreferentziazko erakundeekin nahiz EAEko erakundeetako sail eskudunekin harremanetan jarriko dela egokiak diren egokitzapenetan era aktiboan laguntzeko.

Gauzak horrela, Arartekoak uste du HABEK beharrezkoak diren urratsak egin beharko lituzkeela curriculum irakurketa-idazketarako zailtasun espezifikoak duten pertsonentzat egokitzeko irizpide orokorrak ezartze aldea, eta etorkizunari begira, komenigarria izango zela ere HABEK jardunen bat egitea premia horiek dituzten pertsonen kopurua zehazteko; horrekin batera, xede horretarako eskalategien finantzaketa-plan bat eta denbora nahiz lurralde mailako plan-gintza bat egitea (adibidez, hasteko, egokitzapen horiek dituzten eskalategi bat jarri lurralde historiko bakoitzaren hiriburuan).

5.3. Eskubideak eta defentsa-gabezia: euskaraz lan egiteko eskubidea

Euskaraz lan egiteko eskubideari buruzko kexa asko jasotzen ez badira ere (seguruenik euskaldunek eskubidea ulertzen ez dutelako eta eraginkortasunez gauzatzeko zailtasunak direla medio), Amorebieta-Etxanoko Udaleko langile baten kexa dela eta, euskaldunen ehuneko handiko udalerrian, Arartekoak aukera izan du eskubide horren eta herritarrek udal zerbitzuak EAEko hizkuntza ofizial bietako edozeinetan jasotzeko eskubidearen arteko zuzeneko lotura ezartzeko.

Euskaraz lan egiteko eskubidea eta horren korrelatiboa den botere publikoen betebeharra —eskubidea bermatzeko— euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko legearen², hau da, [azaroaren 24ko 10/1982 Legearen](#) 5. artikuluan aitortuta dago; izan ere, Eusko Legebiltzarrean adostasun handiena izan duten legeetako bat da (bertaratutako legebiltzarkideen % 95 agertu da legearen alde).

Gaia aztertzean, Arartekoak egiaztatu zuen nekez bermatzen dela langileen eskubidea —lana euskaraz egiteko—, batetik, arduradun teknikoek, eta bestetik, arduradun politikoek hizkuntza hori ez badakite edo baztertu egiten badute eguneroko udal eginkizunetan. Langile publikoek beren baliabide guztiak (inprimakiak, aplikazio eta programa informatikoak, hizkuntza-paisaia...) euskaraz erabiltzeko aukera izan behar dute. Era berean, arduradun teknikoek zein politikoek euskaraz komunikatzeko gai izan behar dute edo lan-ingurunean euskara normaltasunez erabiltzeko baliabideak jarri behar dituzte, langileei dagokien euskaraz lan egiteko eskubidea aginte-kate osoan bermatzeko, horrek, gainera, zuzeneko

² 5. artikulua: Azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legea, Euskararen erabilpena arauzkotzekoa

“1. Euskal Herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz eza-gutzeko eta erabiltzeko eskubide.

2. Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Arduralaritzarekin eta Autonomia-Elkartean kokatutako edozein Ihar-duze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.

b) Ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.

c) Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideetako emankizunak euskaraz aritzeko eskubidea.

d) Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritzazko ekintzetan euskaraz aritzeko eskubidea.

e) Edozein bilkuran euskaraz egiteko eskubidea.

.../...

3. **Eskubide hauek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen, herri agintesailek beroien erabilpena bermatuko dute.”**

eragina baitu herritarrei zerbitzuak normaltasunez —euskaraz zein gaztelaniaz— emateko aukeran.

5.4. Hizkuntzen koofizialtasuna, testu elebidunak eta itzulpen automatikoak

Euskara nagusi duten tokietan bizi diren gaztelaniadunen kekek jaso dira azken urtean; diskriminatuak sentitzen direla salatu dute, udalek udal web orrian edo elementu bisual jakin batzuetan testu elebidunak (euskaraz eta gaztelaniaz) jartzen ez dituztelako. Horrelakoetan, herritar horiei aholkuak eman zaizkie hizkuntzen koofizialtasunaren erregimenaren inguruan. Izan ere, koofizialtasunak esan nahi du euskaraz zein gaztelaniaz dagoen edozein testu ofiziala dela eta ez duela itzulpenik behar; hala ere, arau-esparruak hizkuntza dela eta baztertea debekatzen duenez, hartzaile talde zehaztugabeari zuzendutako arau-xedapenak, administrazio-egintzak, abisuak, jakinarazpenak eta abarrak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu behar dira³.

Arau-esparruak jarduteko tarte zabala uzten die administrazioei euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5. artikuluan jasotako eskubideak bermatzeko. Eskubide horiek, hainbat lege-tresnatan, besteak beste, administrazio bakoitzak —aipatu legea beren jarduketa-eremuan aplikatuz— onartzen duen euskararen erabilera normalizatzeko planean zehaztuta daude, baita udal batzuetan onartu diren euskararen erabilerrari buruzko ordenantzetan ere. Tresna juridiko bi horiek aurkara daitezke, diskriminatzaileak badira. Izan ere, hala jokatu du Estatuko Abokatutzak administrazio bat gai jakin batzuk —hala nola, ahalmen publikoak baliatuz, herritarrei zuzentzea edo jurisdikziopeko administratuentzako xedapen orokorrak euskaraz bakarrik ematea— arautzen saiatzen ari dela ulertu duen bakoitzean.

Hala ere, euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasun-erregimenak Euskadin esan nahi du hizkuntza biak neurri berean ofizialak direla, eta, beraz, botere publikoek euskaraz idatzitako testu bat gaztelaniaz idatzitakoa bezain ofiziala dela. Legeriak egintza batzuk euskaraz eta gaztelaniaz egiteko betebeharrak aipatzen du (hala nola arau-xedapen orokorrak edo jakinarazpenak), baina, oro har, jarduketa-eremu oso zabala uzten dio administrazio bakoitzari, bere eremuko beharren eta egoera soziolinguistikoaren arabera hizkuntza-politika propio bat gara dezan, are gehiago, [179/2019 Dekretua](#), [azaroaren 19koa](#), Euskadiko toki-erakundeetan

hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administrati-boa normalizatzeari buruzkoa, onartu ondoren.

Toki-administrazioaren esparruan, hizkuntza-politika propioak eta ingurune soziolinguistikoari egokituak garatu eta aplikatzeko gaitasun hori honako hau onartuz indartu zen lehenago: [2/2016 Legea](#), [apirilaren 7koa](#), [Euskadiko Toki Erakundeena](#)⁴; izan ere, lege horrek lehenago autonomia-erkidegoko administrazioak bakarrik zituen eskumenak —hizkuntza-politikaren ingurukoak— toki-erakundeei ematen dizkie.

Hori dela eta, Arartekoak aholkatu du kasu horietan euskararen aldeko diskriminazio positiboko neurriak hartzea, euskara gutxiengoaren hizkuntza denez, *per se* ez dela gure ordenamendu juridikoan debekatuta legokeen hizkuntza-diskriminazioa gaztelaniazko hiztunentzat, eta kasuak banan-banan baloratu beharko lirakeela, diskriminazioa gertatu den ala ez jakiteko.

Ildo horretan, azpimarratu behar da hizkuntza dela eta diskriminatze debekuak beste hizkuntza batzuetan garatzen diren itzultzaile automatikoekin izan dezakeela zerikusia; euskararen kasuan, oraindik ere arazo ugari egoten dira itzultzaile horien funtzionamenduan. Izan ere, bai [Euskal Jaurilaritzak](#), bai [Elhuyar](#) Fundazioak, itzultzaile automatikoak jarri dituzte herritarren eskura. Elhuyarrek [itzultzaile automatiko eleaniztuna](#) (euskara, gaztelania, frantsesa, katalana eta galegoa) aurkeztu du, ordenagailuetan eta telefono mugikorretan doan erabiltzeko. Proiektu biak aurrerakada handia dira etorkizunean testu elebidunen disfuntzioa saihesteko,

⁴ Legearen hitzaurreak (xedapenezko izaerarik ez badu ere, interpretatzeko orduan zentzu hori duenez, argigarria da), honako hau dio:

“euskara babestu eta normalizatzeko lana, Euskal Herriaren hizkuntza berezkoa eta komuna denez, lehenik, euskal botere publiko guztiei dagokie, baina euskal udalak bide-erakusle izan behar dira eginkizun horretan. Ondorioz, lege honen asmoa da aitzindari izatea prozesu batean non botere publiko guztiek apustu irmoa egin behar baitute euskararen alde, haren normalizazioa desiratu eta erabateko garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak erazuz. Hala, lege honek, zeinak uneoro errespetatzen baitu toki-araubidea, aldeztu du, kasuan kasuko toki-erakundeak hala erabakitzen badu, euskara erakunde horretako lan-hizkuntza izatea. Era berean, modu berriazko, funtsezko eta zuzenean aurreikusten du udalek eskumenak edukitzea euskararen erabilerrari eta normalizazioari buruzko planen arloan, bai «ad extra», hau da, beraien jardunaren lurralde-eremuan, bai «ad intra», hau da, toki-erakundearen bertan artikulatzeko antolamendu bakoitzak erabakitzen dituen jasotzaileekin.

.../...

*Alabaina, hori esan ondoren, adierazi behar da ere, alde batetik, euskal toki-administrazioaren euskalduntzearen aldeko apustu irmo horrek ezin dituela inola ere ahaztu herritarren hizkuntza-eskubideak, herritarrek uneoro izango baitute hautatzen duten hizkuntza ofizialean artatuak izateko eskubidea eta bi hizkuntza ofizialekoren bat ez jakiteagatik inolako babesgabetasunik ez noitzeko eskubidea. Eta beste alde batetik, toki-agintarien jardunak eskatuko du neurri bereziak hartzea euskararen alde, egoera kaxkarragoan dagoen hizkuntza ofiziala baita. Izan ere, euskara faboratzeak bilatzen duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, [Euskaldekretu edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 7.2 artikuluan](#) jasotakoaren zentzuan —karta hori 1992ko azaroaren 5ean onetsi zen Estrazburgon eta indarrean dago gure ordenamendu juridikoan, 2001eko otsailaren 2an berretsia izan ondoren—, non bere helburu eta printzipioen artean esaten duen ezen «**hizkuntza erregionalen edo gutxituen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hiztunen eta gainerako biztanleen artean berdintasuna sustatzera zuzenduta daudenak eta beraien egoera berezia kontuan izatea bilatzen dutenak, hori ez da hartuko hizkuntza hedatuagoen hiztunekiko diskriminazio-egintzat**».*

³ Ildo horretan, gogorazi behar da Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak, azaroaren 24koa, honako hau adierazten duela:

Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legea, Euskararen erabilpena arautzeko

“3garren Atala

Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen hizkuntza-ofizialak euskera eta gaztelania dira.

4garren Atala

Euskal Herriko Autonomia-Elkartean hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, Herri-Agintesailek ardura izan eta behar daitezen neurriak hautuko dituzte.”

eta herritarrei edukia hautatutako hizkuntzan irakurtzeko aukera emateko. Gainera, hizkuntza-normalkuntzarako udal teknikariekin harremanetan egonda, Arartekoak aipatu fundazioa Orioko Udaleko web orriarentzat prestatzen ari den proiektu pilotuaren berri izan du; hain zuzen ere, etorkizun hurbilean aukera hori emango du proiektuak.

Izan ere, [Espainiako Herriaren Defendatzaileak](#) unean-unean ematen dio Arartekoari estatu osoko gutxiengoaren hizkuntzei buruzko kexen egoeraren berri. Hain zuzen, orain dela gutxi helarazi digute Zerga Administrazioako Estatu Agentziari egin dioten gomendioa: itzulpen automatikoko aplikazioaren kontratazio berrian euskara gehi dezan, egun arte, estatuko hizkuntzen artean, sistema horren bidez eskuratu ezin izan den bakarra izan delako. Hori dela eta, uste dugu datozen urteetan aurrerapauso handia egingo dela testu elebidunen arazoak konpontzeko, horiek, funtzionalak ez izateaz gain, ez baitira batere lagungarriak euskara gutxiengoaren hizkuntza gisa normalizatzeko. Hortaz, Administrazio Publikoek aztertu beharko dituzte, batetik, teknologia horren aukerak, eta bestetik, erabilera arautzeko beharra (edo halakorik eza), EAEko herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatze aldera.

5.5. Eskola kirola balioen eskola gisa

Beste urte batez, agerian utzi behar dugu kezagarria dela haurrek egiten duten kirolaren modalitate ezagunenetan (batez ere futbolekin), federazio eta kirol-klub jakin batzuek egiturari hartzen duten garrantziaren ondorioz, nabaritzen hasi den lehiakortasuna. Erakunde hau azken urteetan egiaztatzen ari denez, egoera horrek, eskola-kirolaren esparruan, horren berezkoak diren balio hezitzaileak eta parte-hartzea sustatu beharrean, lehiaketa-errendimenduarekin zerikusia duten jardunbideak ezartzea ekarri du.

Pribatuak izan edo ez, kirol klubek ezin dituzte hartu beraiek egokitzen dituzten neurriak. Izan ere, erabaki horiek, eta batik bat horiek eragin ditzaketen ondorioak kontuan hartu behar dituzte gure administrazioek, dagokion erakundeak titulartasun publikoko instalazioak erabili nahi dituzte, edo Programan parte hartzeko dagokion baimena behar duenean. Hori horrela den neurrian, ezarritako printzipioei jarraitu behar diete, izan ere, botere publikoak proaktiboki jardutera behartzen ditu, behin-behineko urratzea prebenitzeko eta zuzentzeko.

Gauzak horrela, jasotako kexek agerian jartzen dute lehiaketa arloko jardunbide jakin batzuk kontraesanetan daudela inklusibotasuna eta lehiarik eza bezalako balioekin, baita, haurren nortasuna kirolaren bidez garatzeko helburuz, **foru-aldundiek ezartzen dituzten eskola-kirola sustatzeko programekin** ere. Dagoeneko 2018an ezarri zituen Arartekoak hainbat irizpide, eskola-kirolaren inguruan; hain zuzen, [Arartekoaren 2018ko ekainaren 13ko ebazpenean](#).

Izan ere, aurtan, 2019an, aipatu kontraesana agerian utzi duten bi kexa jaso ditugu, bata Bizkaian eta bestea Araban, batzuetan gerta baitaiteke eskola-kirola sustatzeko programako dirulaguntzak jasotzen dituzten kirol-klubek, eskola-

kirola sustatzeko programan sartu aurretik, lehiaketa-irizpideak erabili dituztela haurrak hautatzeko. Horrela, aipatu programetako dirulaguntzak jasotzeko asmoz taldeak aurkezten dituztenean, haurrak dagoeneko lehiakortasun-irizpideak erabiliz hautatuak izan dira eta “txarragoak” baztertu egin dira, beraz, dagoeneko urratu egin da eskola-kirola sustatzeko foru-programen espiritua. Hori dela eta, Arartekoak 2020an ofiziosko jarduera bat hasteko asmoa duela jakinarazi die foru-aldundi biei. Horretan, aipatu kontraesana aztertuko dugu eta ager daitezkeen kasuei juridiko hutsa baino ikuspegi zabalago batetik helduko diegu, lehiakortasunean oinarritutako hautaketa-irizpideak klub pribatuen eskuetan eta kontrol publikorik gabe geratzea saiheste aldera, klub horiek eskola-kirola sustatzeko foru-programetan parte hartzen dutenean.

Horrela adierazi die Arartekok udal eta foru agintariei, horren inguruko kexak jaso dituen lurraldeetan, eta bakoitzak bere eskumen esparruan jardun dezala eskatu die, haur eta nerabeek egiten duten kirola, hezkuntza-parametroen barruan gara dadin, une eta testuinguru guztietan. Zehazki:

- Udalei, beren udalerriko kirol klubei ematen dizkien laguntzak, bai instalazioak utziz, bai dirulaguntza ekonomikoa emanez edo sustatuz, arlo horretako lege-aurreikuspenak errespetatzea ekar dezaten.
- Aldundiei dagokienez, lurralde historiko bakoitzean Eskola Kirolaren arduradun gisa, aurreko puntuan adierazitako ekintzez gain, legeak esparru horretan eman dizkien ikuskapen eta kontrol eginkizunak egin ditzaten, ikastetxeek eta kirol klubek Programa horren jarduerak egitean, azken buruan zentzua ematen dieten printzipioei jarraituz egin ditzaten.

5.6. Udal eskolak kirol entrenamenduetarako erabiltzea, eskolaz kanpoko ordutegian

laz bezala, urtean zehar, udal eskoletan kirol-entrenamenduak egiteko ordutegia ikastorduetatik kanpo ezartzeak gatazka sortzen jarraitzen dituela jakin du Arartekoak. Egoera horien guztien arrazoia arau-desoreka bera zen, ez baitzegoen zehaztuta noiztik aurrera aurkeztu behar diren, ikasturte bakoitzean, instalazio horiek erabiltzeko eskaerak. Gaia Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eraikin eta instalazioak ikastetxe horien urteko programazioan sartuta ez dauden jarduerak egiteko erabiltzea arautzen duen [maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuan](#) dago araututa; izan ere, dekretuaren 4. artikulua horretarako aurkezten diren eskaerak sailkatzeko lehentasun-irizpideak aipatzen ditu, baldin eta eskaerak elkarren artean bateraezinak badira. Horren arabera, bertan jasotako gainerrako irizpideak erabilia eskaerak berdin sailkatu direnean, lehenago aurkeztutakoak izango du lehentasuna. Arazoa ez da denboraren arabera lehentasun-irizpidea bera, aipatu dekretu arautzaileak, irizpidea haztapeneko hondar-klausula gisa ezarrita, dagokion eskaera noiz aurkeztu behar den ez aipatzea baizik.

Datu hori ez zehazteak ziurgabetasun juridikoa sortzen du, eta legegileak seguruenik nahi izan ez dituen abusu-egoerak ekartzen ditu ondorioz. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, hala ere, ez zion era positiboan erantzun Arartekoak 2018ko urriaren 24ko ebazpenean bideratu zion gomendioari. Izan ere, horren bidez, erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Bilboko Udalarari gomendatu die neurriak har ditzatela eskolak kirol entrenamenduetarako eta eskolaz kanpoko ordutegian erabiltzearen inguruan.

Ondorioz, ez dira desagertu udal instalazioak erabiltzeko orduen banaketari lotutako gatazkak, kirol-kluben artean sortzen direnak. Are gehiago, Bilboko Udalean, banaketan zuzentasun-irizpide objektiboak hartzeko udal betebeharra alde batera utzi da. Gainera, klubaren artean adostasunik ez zegoen kasu batean, udalak udal instalazioak ez uztea erabaki du, irizpide objektiboak ezartzen dituen udal ebazpena eman beharrean. Izan ere, honako hauek aintzat hartu

ahal izan ditu: klub horietako kirolarien adina (haurrei eta adin txikienekoei kirola egiteko erraztasunak emate aldera); klubek ordaindu behar dituzten gastuak eta joan-etorriak, udal instalaziorik ezean instalazio pribatuak alokairuan hartu behar izaten dituztenetan; eta beste batzuk, kirola batez ere adingabeen osasunaren eta nortasun-garapenaren sustatzailea den heinean, berez dagozkion balioekin bat datozenak.

Hori dela eta, berriz esan behar diogu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari premiaz aldatu behar dela aipatu maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretua, helburu bikoitza ezarrita: batetik, interesa agertzen duten pertsonak edo erakundeek jakin dezaten noiz hasten den eskaerak aurkezteko epea; eta, bestetik, haien artean egon daitekeen lehia, aplikatu beharreko gainerako faktoreak erabilia ebatzi ezean, eskaera behar den epean eta forman aurkeztu dutenen arteko berdintasunean oinarritutako irizpideekin bat ebatz dadin.



II. atala

2

Hezkuntza

◀ Aurrekoa ikusi

1. Arloa kopurutan

2019an, hezkuntza arloan, guztira, 120 kexa izapidetu dira. Kopuru hori erakunde honen jarduera arlo guztietan jaso diren kexen % 5,07 da.






Honakoa izan da eragindako administrazioen araberako banaketa:

• Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza).....	80
• UPV/EHU.....	5
• Tokiko administrazioa.....	2
• Foru administrazioa.....	1

Kexen edukiari dagokionez, hurrengo azpiarloei buruzkoak izan dira jasotako kexak:

• Bekak eta bestelako laguntzak.....	29
• Beste alderdi batzuk.....	27
• Hezkuntza-premia bereziak.....	16
• Ikasleen onarpena.....	13
• Eskubideak eta betebeharrak.....	9
• Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa.....	7
• Unibertsitateko irakaskuntza.....	5
• Hizkuntzen irakaskuntza.....	3
• Eskola-jantokia.....	2
• Pertsona helduen hezkuntza.....	2
• Irakaskuntza artistikoak.....	2
• Eskolako tratu txarrak edo jazarpena.....	2
• Lanbide heziketa.....	1
• Hezkuntzako plangintza/programazioa.....	1
• Eskola-garraioa.....	1

Aurten kudeatutako kexen izapidetze xehetasunei dagokionez, nabarmendu behar da 2019an zehar jasotako kexa guztiak, 2019ko urtarrilaren 1ean izapidetze fasean zeudenak barne, honako egoera hauetan daudela txosten hau idazteari ekin zaion unean:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
123	27	96	23	56	3	14

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Ordiziako funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen arteko eskolatzeko desorekak

2019ko apirilean, Arartekoak Ordiziako Urdaneta HLHIko gurasoen elkarteko eta EHIGEko ordezkariak bidalitako lehenengo kexa jaso zuen. Kexa horretan argi eta garbi zailantzen jarri zituzten hezkuntza-administrazioaren erabakiak, hau da, epez kanpo Haur Hezkuntzako ikasle-talde bat tokiz aldatu eta Jakintza Ikastola HLBHIPn matrikulatzea eta 2019-2020 ikasturterako bi ikasgela berri ituntzea. Kexan adierazi zuten beraien iritziz, erabaki horiek Ordiziako udalerrian azkeneko urteetan gertatzen ari den eskola-banaketa arazo garrantzitsua areagotzen dutela.

Aurrerago, ordezkari horiek arrazoi gehiago eman zituzten, eta Urdaneta HLHIko ordezkari-organoren gorenak sinatutako txostena entregatu zuten. Helburua [Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak](#) hartutako erabakiak balioztatzeko txostena egitea eta ikasleen banaketa-egoera bideratzen saiatzeko neurri zuzentzaileak proposatzea zen, eta hain zuzen, hori eskatu zioten Arartekoari.

Arartekoak, eskari horri erantzunez, [2019ko azaroaren 6ko ebazpena](#) eman zuen.

Ebazpen horretan, xehetasunez aztertu genituen arazo guztiak, eta esku-hartzerako jarraibide ezberdinak proposatu genituen. Laburtze aldera, ebazpenaren honako ondorioak jaso genituen:

- 2018-2019 ikasturterako ikasleak onartzeko ohiko prozesuan familiek egindako eskaeren arabera, Ordizian 3 urtekoen mailan programatutako plazak nahikoak ez zirela argi gelditu zen. Hala eta guztiz ere, egoera horren aurrean, Hezkuntza Sailak Urdaneta HLHIko eta Jakintza Ikastola HLBHIPko zuzendaritzek eta gurasoen elkarteek unitateak gehitzeko eskaerei ez zien erantzun eta onarpen-prozesuaren ebazpenaren bidez bideratu zuen egoera. Hala, bigarren eta hirugarren aukerak esleitu ziren, bi ikastetxeen arteko desoreka ez areagotzeko.
- Dena den, Jakintza Ikastola HLBHIPko zuzendaritzak bigarren eta hirugarren aukeren esleipenak praktikan gauzatzea saihestu zuen, Sailari baimena eskatu ondoren, plaza lortu ez zuten ikasleen matrikula formalizatu baitzuten, ikastetxe baimendua zela adierazita.

- Ohiko onarpen-prozesuan Jakintza Ikastola HLBHIPn eskolatzeko lehenengo aukera ez ase arren, ondoren matrikulatzeko erabakia hartu zuen eta Sailak beti defendatu du baimenari ezin ziola uko egin, izan zitzakeen ondorioen gorabehera, adibidez, itunik ez izatea. Nolanahi ere, erabaki hori ez da axolagabea suertatu, plangintza berria egin eta ituntzeko oinarritzat hartu baita eta, gainera, azkenean, 2019-2020 ikasturterako unitateak gehitzea erabaki baita.
- Jakintza Ikastola HLBHIPn planifikatutako unitateak gehitzearen erabakia familien borondatean oinarrituta justifikatu da, baina erabaki horrek bi ikastetxeen arteko desoreka areagotzen du.
- Aurrekoari eutsiz, hezkuntza-programazioa zehaztean familien borondatea ezin daiteke irizpide bakarra izan. Hezkuntza Sailak neurtu behar du plangintza egiturean irizpide horren ondorioa. Familien borondateak ikasleak eskolatzeko desorekara eraman dezake eta ikastetxeen eraketan oreka eta eskola-sistemaren kohesio handiagoa sustatzearen helburua arriskuan jar daiteke.
- Horregatik, Hezkuntza Sailak etorkizunean Ordiziako desoreka-egoera berriz landu beharko luke. Hala, ikasturte honetan sortutako egoera aztertu eta udalerriarren berezitasunak kontuan hartuta, ikastetxeen artean ikasleen banaketa orekatuagoan laguntzeko plangintza-neurriak ebaluatu beharko lituzke.
- Halaber, argibideak eman beharko lizkieke eskolatzeko batzordeei, ohiko onarpen-prozesutik at eskolatu behar diren ikasleak (matrikula bizia) behar bezala kudeatzeko eta udalaren eskola kontseiluaren funtzionamendua bultzatu beharko luke.

Aurretik azaldutako ondorioak direla-eta erakunde honek gomendioa egin dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, Ordiziako Haur eta Lehen Hezkuntzan funts publikoekin finantzatzeko diren ikastetxeetan 2019-2020 ikasturterako dagoeneko onartu diren plangintza-erabakien eragina ebalua dezan eta ikastetxe horien artean eskolatutako ikasleak banatzean oreka handiagoa sustatzen laguntzeko neurri zuzentzaileak har ditzan.

Txosten hau bukatzeko unean, Arartekoa egindako gomendioari buruzko erantzuna jasotzeko zain zegoen, eta erantzun horren arabera baloratuko du esku-hartze berrien beharra zein den.

2.2. Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) lortzeko azterketetako ahozko probaren grabaketaren kopia eskatzea

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) lortzeko egindako deialdian parte hartu zuen pertsona batek «ez gai» emaitza izan zuen ahozko proban. Horren ondorioz, erreklamazioa egin zuen, kalifikazio horren kontra egiteko aldera, bai eta azterketa berrikusi zedin eta

probaren grabaketa entzun zezan eskatze aldera ere. Azken eskaera horri behar bezala eman zitzaion arreta.

Erreklamazioa egiteko lehenengo izapide horri amaiera eman zitzaion aurretiaz egindako ebaluazioa berretsi zuen jakinarazpen baten bitartez. Horrenbestez, eta aldi berean, errekurtsioa aurkeztu zen, baina errekurtsio hori ere ezetsi egin zen ebazpen baten bitartez. Ebazpen horretan, ebaluatzeko lan orok eskatzen duen aukerabide teknikoaren alde egin zen.

Erabaki horren berri izan zuenean, kexagileak ahozko probaren grabaketaren kopia bat eskatu zuen. Eskaera hori administrazio bidean ezetsi zuten, eta horrenbestez, kexagileak erakunde honetara jo zuen.

Azaldu beharra dago kexagilea interesduna zenaren egoeraz baliatu zela erakunde honetan kexa aurkezteko eta ahozko probaren grabaketaren kopia eskuratzeko asmoaren oinarria justifikatzeko orduan. Horrez gain, egoera hori dutenei aitortutako eskubideez ere baliatu zen, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen [urriaren 1eko 39/2015 Legearen](#) (hemendik aurrera, 39/2015 Legearen) 53.1 a) artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Halaber, interesdunak bere eskubidearen eraginkortasunerako balizko mugarik eza justifikatu zuen, besteak beste, eraginpeko beste batzuen datu pertsonalak babesteko betebeharrak ezarritako mugak, betiere aintzat harturik datu horiek bereizteko lana egin ahal izango dela, nahiz eta datu horiek haztatzeke beharra aitortu.

Kexaren lehenengo balorazioa egitean, erakunde honek bat egin zuen interesatuaren arrazoiekin, eta halaxe jakinarazi zien Hezkuntza Saileko arduradunei.

Hala ere, erakunde honen esku-hartzearen ondoren emandako administrazio ebazpen baten bidez, hezkuntza berrikuntzako zuzendariak honako hau nabarmendu zuen: interesdunak ahozko probaren grabaketaren kopia bat eskuratzeko eskaera egin zuenean, prozedura jada amaituta zegoen, eta, horrenbestez, eskaera baloratzeko orduan, ez zaio 39/2015 Legearen 53.1 a) artikuluan ezarritakoari jarraitu behar, baizik eta lege-xedapen beraren 13 d) artikuluari; artikulua horrek, aldi berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko [abenduaren 9ko 19/2013 Legearen](#) araudira jo du.

Gainera, azpimarratu zuen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ez dela erabateko eskubidea, eta errespetatu beharreko gainerako eskubideekin batera egikaritu behar dela, besteak beste datu pertsonalak babesteko eskubidearekin batera. Horrez gain, sinatu zuen administrazio jarduketaren proportzionaltasuna egon behar zela, azken finean, ukatu egiten baitzen kexagileak egikaritu nahi zuen eskubidea.

Ebazpen berri horrekin, Arartekoak onartu zuen bazirudiela egindako lehenengo ohartarazpena bat zetorrela 19/2013 Legearen lehenengo xedapen osagarrian xedatutakoarekin, hitzez hitz honakoa dioena: “*Abian den administrazio-prozedura batean interesdun direnek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio-prozedura arautuko duen araudia*”, nahiz eta bereziki garrantzitsua ez izan kexaren ondorioetarako.

Era berean, onartu zuen 19/2013 Legearen 15.3. artikulua ezarri duela beharrezkoa dela haztapen arrazoitua egitea informazioa hedatzeko interes publikoa bateraezina izan baliteke ukitutako pertsonen —zeinen datuak eskatutako informazioan ageri baitira— datu pertsonalak babesteko funtsezko eskubidearekin.

Hala ere, erakunde honek txundituta zegoela adierazi zuen. Izan ere, haztapen-lan horren baitan, antza denez, 19/2013 Legearen 15.3. artikuluan beren-beregi sartutako lehenengo irizpide horri beste bat gehitu zaio, hain zuzen ere, administrazio jardunean balizko proportzionaltasuna izateko beharra. Gure ustez, irizpide hori ez da batere egokia.

Bestalde, 19/2013 Legearen 15.4. artikuluan xedatutakoa gogorarazi eta nabarmendu zen baita ere, hauxe: *“Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikatu beharko informazioa eskuratu aurretik datu pertsonalak bereizi badira eta, modu horretan, eragiten zaien pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada”*. Gainera, azpimarratu zen uko egite horrek kontraesan argia zuela sailak benetako proben grabaketak EGaren atarian normaltasunez argitaratzearekin. Orokorrean, grabaketa horiek manipulatu egiten dira azterketa egileak identifikatzeko datuak ezabatze eta haien ahotsak distorsionatze aldera.

Horregatik guztiagatik, eta esku-hartzearekin bukatzeko, Arartekoak gomendioa ([2019ko martxoaren 21eko ebazpena](#)) bidali zuen Hezkuntza Sailera, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko azterketetako ahozko probaren grabaketen kopia emateko kopiok eskatzen dituzten pertsonen, betiere datu pertsonalen beharrezko babesak eskatzen duen nahitaezko arretarekin.

Aipatu behar dugu gomendio hori onartu egin zuela Hezkuntza Sailak, baina jakinarazi zuen 2019ko uztailetik aurrera, egiaztapen proba horien deialdia Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (HABE) gauzatuko duela.

2.3. Bitarteko funtzionario diren irakasleen funtzioen etete iragankor egoera, eta haurreskoletan umeak onartzeko gurasoen edo legezko tutoreen lan egoerari buruz xedatutako puntuazioa

Arartekoak Haurreskolak Partzuergoko menpeko eskoletan ikasle berriak onartzeko prozesuan parte hartu zuen familia batek egindako kexa jaso zuen. Kexa hori eta aurretiaz administrazio bidean egindako errekurtsioa gauzatzearen arazoia izan zen beraien iritziz, ez zirela kontuan hartu gurasoen lan-egoeragatik (biak lanean daude) aplikatu beharreko puntuak. Arazoa da partzuergoak ez zuela kontuan hartu adingabearen ama berriz ere lanean hasi izana bitarteko irakasle funtzionario gisa etete iragankor egoeran egon ondoren.

Partzuergoaren kudeatzaileak, erabaki horiek justifikatzeko, bi argudio nagusi eman zituen. Lehenengo argudioa haurreskoletan umeak onartzeko arautegiari eta irizpideei buruz indarrean dagoen erabakiaren ([07/10-2018 erabakia](#))

ingurukoa da; bigarrena, berriz, formari dago lotuago, eta onarpen-prozesuak kudeatzeari begira ezarri diren prozedura-arauei buruzkoa da.

Alde batetik, kudeatzaileak azpimarratu du umearen amak onartze-eskaera egin zen unean zuen funtzioen etete iragankor egoeraren ondorioz (egoera horretan zegoen bitarteko irakasle funtzionarioa delako), ez zela zerbitzuen emate eraginkor egoera ezta zerbitzu aktiboko administrazio egoera gertatzen, eta horregatik baieztatu zutela egoera hori ezin zela kontuan hartu lan egoerari buruzko atalean puntuazioa jasotzeko.

Bestalde, kudeatzaileak aitortu du, eskaerak eta erreklamazioak egiteko epeak bukatu ondoren, lanpostuaz jabetzeko eginbidearen kopia aurkeztu zela, hezkuntzako lurralde ordezkariak ziurtatua; agiri horrek egiaztatzen zuen haurren ama zerbitzu aktibora itzuli zela, uztailearen 1a izanik ondorioetarako data. Hala ere, kontu hori dela-eta, honako hau adierazi da: *“Izen-ematearen araudiak agintzen duenari jarraituz, eskaerarekin aurkeztutako dokumentazioa bakarrik hartzen da aintzat, eta, beraz, ez da onartzen eskaerak jasotzeko epea bukatu ondoren aurkeztutako dokumentaziorik. Gauzak horrela, familiak epe barruan bidalitako dokumentazioak egiaztaturiko baldintzak bakarrik zenbatu zituen Partzuergoak. Behin betiko zerrenden argitaratzean, ezin izan zen uztaileak 4an aurkeztu zen dokumentazioa kontutan hartu, izen emate epea itxi eta 55 egun beranduago eta erreklamazio epea amaitu ondoren aurkeztu baitzen.”*

Haurreskolak Partzuergoaren helburuetako bat familia eta lana kontziliatu ahal izatea erraztea da. Horregatik, ume berriak onartzeko prozedura arautzeko onetsitako irizpideen artean dago gurasoen edo legezko tutoreen laneko egoera kontuan hartzea. Horri buruz, Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordeak emandako 07/10-2018 erabakia kontsultatu daiteke, 2018ko urriaren 18koa, zeinaren bidez onartu ziren 2019tik aurrera Haurreskolak Partzuergoak ume berriak onartzeko aplikatuko zuen araubidea eta irizpideak. Erabaki horretan, egoera posibleen puntuazioak azaldu ondoren, 3.6. artikuluan hauxe dago jasota hitzez hitz: *“Eszedentzia egoerak kontutan hartuko dira baldin eta lan-bizitzaren ziurtagiriarekin batera enplegatzaileak emandako ziurtagirian lanpostura itzultzeko data zehazten bada eta data hori gehiezin haurra haurreskolan hasi eta hilabete bat beranduagokoa bada.”*

Bestalde, zerbitzuen etete iragankorra da [Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen erabakian](#) (62. artikulua) jasota dauden egoera berezietako bat. Horren bidez, hezkuntza administrazioak erraztu egin nahi izan du bitarteko irakasleek adingabe seme-alabak zaindu ahal izatea, eta nahiz eta irakasle horiek izendatzeko prozesuan berezitasunak egon (ikasturterok izendatzen dira), erabaki horrekin Auzitegi Konstituzionalak 1999ko abenduaren 20ko 240. epaian zehaztutako irizpideak jarraitu nahi izan dira. Epai horretan egiaztatzen bitarteko funtzionarioei beren seme-alabak zaintzeko eszedentzia ukatzeak urratu egiten zuela [Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan](#) bermatzen den berdintasunerako eta diskriminazioa debekatzeko eskubidea.

Aipatu beharra dago erakunde honek uste zuela udalak ez zuela eragozpenik bitarteko irakasle funtzionarioen etete-egoera onarpen-araudi eta irizpideetan berariaz jasota dagoen eszedentzia-egoerarekin parekatzeko, beste inguruabar garrantzitsu batzuei buruzko —hala nola, ama, aita edo legezko tutorearen lan-egoera— baremoaren atalean aurreikusitako puntuazioa emateari begira. Erakunde honetan aurretik aurkeztutako beste kexa batzuen harira egin genituen izapide informalen ondorioz ziur geunden hori horrela zela.

Nolanahi ere, hala ez denez, Arartekoak partzuergo horri gomendatzen dio ez dezala trabarik jarri bi egoera horiek parekatzeko onarpen-prozesuko baremo horri buruzko atalerako aurreikusitako puntuazioa aitortzeari begira. Izan ere, erakunde honen iritziz, funtzioen etete iragankor egoeran dauden irakasle funtzionarioen egoera berezi hori indarrean dauden onartze arauetan ez agertzeak ez du esan nahi ez jakitea errealitatean egoera hori seme-alabak zaintzeko eszedentzia boluntarioaren antzekoa dela arrazoiei dagokienez (hau da, lana eta familia kontziliatzeko aukerak erraztea), eta hala, gure iritziz, baremoaren aurreikuspen hori derrigorrez aplikatu beharko litzateke funtzioen etete iragankor egoeran dauden irakasle funtzionarioen kasuan ([Kode Zibilaren 4.1. artikulua](#)).

Onartze-prozesuak kudeatzeko ezarri diren prozedura-arauei buruzko alderdi formalei dagokienez, erakunde honek onartzen du parte-hartzaile kopuru handiko prozesuen kudeaketan ohikoa izaten dela eskaerak zuzentzeko eta hobetzeko epea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen [Legearen \(39/2015, urriaren 1ekoa\)](#) 68.1. artikuluan araututakoa, bat etortzea mota horretako prozesuak izapidetzeko ezarri ohi diren erreklamazio-epeetako batekin. Kasu honetan, bat datoz erreklamazioak egiteko epea eta behin-behineko zerrendak zuzentzeko epea.

Nolanahi ere, epe horiek bat etortzea guztiz eraginkorra izan dadin, errekerimendua egin behar da, berariaz adieraziz zein diren zuzendu beharreko alderdiak. Hizpide dugun kexan, baina, ez zen horrelako errekerimendurik egin.

Horri dagokionez, kexagileek behin eta berriro esan dute une oro jakinarazi zitelako haureskolako langileei zein zen beren egoera, eta haiek ez zitelako eman eskaera zuzentzeko edo hobetzeko zituzten aukeren berri. Inolaz ere ez da errekerimendurik egin hobetzeko alderdiak azpimarratuz. Haiek aurkeztu dute, aurrerago, zerbitzu aktibora itzuli izana egiaztatzeko dokumentazioa.

Azken horri dagokionez, jarraitutako prozeduraren ezaugarriak ikusita, erakunde honi neurritz kanpoko irudituko litzaiokelako udal horrek prozeduraren legearen 68.1. artikuluan araututako eskaerak zuzentzeko eta hobetzeko epea eta behin-behineko zerrendak erreklamatzeko epea bat etorraraztea, hain zuzen ere, interesdunak aurkeztutako dokumentazioa aintzat hartzeari uko egiteko, epez kanpo aurkeztu dela jota. Arartekoaren iritziz, horrela jokatzeko gero, babesgabetasun-egoera argian jarriko lirateke interesdunak, ez litzaikeelako aukerarik emango hautemandako akatsak zuzentzeko administrazioak horren inguruko errekerimendua formala egin aurretik. Horixe adierazi izan du Auzitegi

Gorenak zenbait erabakitan, ekonomia-, lastertasun- eta eraginkortasun-printzipioak aplikatuz, baita ofizioz bultzatzearena ere ([2000ko uztailaren 17ko epaia; errekurtsio-zenbakia: 4621/1995](#)).

Horregatik guztiagatik, txosten hau bukatu zen unean, erakunde hau Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailari zuzendutako gomendio bat izapidetzen bukatzen zegoen, hain zuzen ere bitarteko irakasle funtzionarioen funtzioen etete iragankorreko egoera eszedentzia egoerarekin parekatzeko ume berriak onartzeko prozesuetan gurasoen edo legezko tutoreen puntuazioari dagokionez, eta horrez gain, familia kexagile horri buruz hartutako erabakia berrikusteko baita ere.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Berariaz aipatu behar da 2019an gizarte ekimeneko irakas-kuntza itunduak sustatutako grebak sortutako arazo larria. Arartekoak hainbat familiek egindako kexa asko jaso zituen, beraien seme-alabek etengabeko greba deialdiak zirela-eta jasan zitzaizketen ondorioak zirela-eta kezkatuta zeudelako.

Arartekoak bazekien arazoaren oinarria irakasleek beraien laneko baldintzak defendatzeko zuten greba egiteko eskubidea egikaritzeko legezko jarduna zela, eta Arartekoaren iritziz, eskubide hori egikaritzearen ondorioz ezin zen albo batera utzi itundutako eskolen sareko ikasleek hezkuntza jasotzeko duten eskubidea. Hala, Arartekoa, bere jarduteko aukerak egikaritzuz, harremanetan jarri zen [Eusko Jauriaritzako Lan eta Justizia Sailarekin](#) eta [Lan Harremanetarako Batzordearekin](#), arazoa konpontzeko bitartekari lana gauzatu ahal izateko aukera aztertzeke hain zuzen ere.

Lankidetzaren horretan nabarmendu zen arazoak zituzten alderdiek eskatu behar zutelako indarrean dagoen araubide esparruan eskaintzen diren bitartekaritza zerbitzuek esku hartzea. Horretako, Arartekoak deialdi publiko bikoitza egiteko bere jarduna mugatu zuen. Lehenengoa, gutxienezko zerbitzu egokiak ezartzeko lan egitea zen, eta bigarrena alderdiei eskatzeko, bakoitzaren autonomia guztiz errespetatuz, baloratzeko bitartekaritza mekanismo horiek erabiltzeko aukera. Eta halaxe izan zen, 2019-2020 ikasturte hasieran Lan Harremanetarako Batzordearen bitartekaritza eta Hezkuntza Sailaren inplikazioari esker 2018-2019 ikasturteko konpondu gabe zegoen egoera konpondu baitzen.

Bestalde, 2019ari buruz azpimarratu behar da Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailak [Euskal Hezkuntza Sistemaren diagnostikoa](#) argitaratu zuela. Horren bitartez balorazio tresna bat eskaini nahi izan zen, eragile guztiei laguntza eskaintzeko etorkizunean Hezkuntzaren Euskal Legea onesteko prozesuari buruzko hausnarketak egiteko eta prozesuan parte-hartzea sustatzeko.

Diagnostikoan jasota dagoenaren arabera, azken urteetan indartu egin da euskal eskola inklusiboa. Hala ere, aldi

berean, bizikidetzeta positiboa eta ekitatea ezarri behar dira hezkuntza politiken eta programen oinarri gisa, kontuan hartu behar baita eskola eremuan gehitzen doan aniztasuna. Adibidez, 2. atalean azaldutako Ordiziako bezalako egoerak. Hori egiaztatzen dute hainbat kekek.

Edonola ere, ezin da ukatu egindako azterketaren bidez kalitatea eta bikaintasuna hobetzeko eta modernizatzeko lan egiten jarraitu behar dela, hala, euskal hezkuntza sistemak bere potentzial eraldatzaile guztia garatzeko eta gaur egun-gego erroenkei aurre egiteko.

Izan ere, hurrengo atalean jasotako balorazioen bidez Arartekoak ekarpenak egin nahi ditu herritarrek aurkeztutako keketan oinarrituz derrigorrez gauzatu beharreko hobekuntza helburu hori lortzeko.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

4.1. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurkeztutako diagnostikoan egiaztatu zen EAeko hezkuntza sistemak zenbait bikaintasun adierazle dituela, besteak beste eskolaratze tasa altua adin txikietan eta derrigorrezko hezkuntza adinaz geroko eskolaratzeetan. Erakunde honen esperientzia dela-eta baieztatu dezakegu ehuneko handi batean, ikastetxeetan ikasleak onartzeko ohiko prozeduren bidez prozesuak gauzatzean, lehenetsi egiten direla familiek nahigo dituzten ikastetxeak.

Hala, horri buruz jasotako kekek jada ez dira asko, eta jaitsi egin dira urte askoan arazoak sortu dituzten ohiko alderdiei buruzkoak ere, besteak beste erroldako datuak gehiegikeriaz erabiltzeari buruzkoak. Izan ere, kexa bakarra jaso genuen, eta horren bidez Onartze Bermeen Batzordearen jarduketaren baten aurka agertzen ziren, hain zuzen ere etxebizitzaren hurbiltasuna zela-eta emandako puntuazioa berrikusteari buruzkoa, baina kexa horrek ez zuen zalantza jartzen egiaztatze prozesua, eta gaur egun, herritarrek prozesu hori normaltasunez onartzen dute.

Hala ere, 2018ko txostenean adierazi genuen bezala, **gaur egun jasotzen ditugun kekek epe kanpo umeak eskolaratzearekin lotuta daude**, bereziki berandu eskolatzen diren ikasleei dagokienez.

4.2. Ikasleak onartzeko araubide berrian ([1/2018 Dekretuan](#), [urtarrilaren 9koan](#)) honako hau ohartarazi da: ikasle horiek eskolatzean, familiek adierazitako lehentasunaz eta erabilgarritasunaz gain, kontuan hartu behar dira eskola-plangintzari eta orekari lotutako beste faktore batzuk, aniztasuna ikastetxeen artean banatzeko uanean.

2019an azken faktore hori (aniztasuna banatzean oreka egoitea) erabili izan da baita ere ikasle horiek ikastetxe itunduetan matrikulatzeko, eta familia asko horren aurka daude, izan ere, ikastetxe itundu asko erlijiosoak dira edo familiek gastu

asko ordaindu behar izaten dituzte horrelako ikastetxeetan. Horregatik, familia askok umeen ikastetxea aldatzen dute aukera dutenean.

Hori ikusirik, erakunde honek azpimarratu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ebaluatu egin behar duela banaketa politika horren eraginkortasuna.

Eskola inklusiboa garatzeko esparru planak (2019-2022)
1.2. helburu espezifikoak lortuko dela adierazten du, hau da, ikasle guztiak eskolatzea, mantentzea, garatzea eta egiaztatzea bermatzea, eta ikasle horien guztien artean daude baita ere **Ikasle Etorkinentzako Hezkuntza Arretarako II. Plana, 2016-2020ko eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren esparruan** izeneko planean aurretiaz xedatutako ekintza zehatzetan sartutakoak.

Plan horretako ekintza lerroetako bat da prozedura bat ezartzea epe kanpo iritsitako ikasleen jarraipena egiteko, eta horrekin batera adierazle batetik lotura ezartzen da, hain zuzen ere ikasleen % 80 baino gehiago esleitutako ikastetxeetan mantendu direla hurrengo hiru ikasturteetan zehar (2016-2020). Baina egia da une honetan oraindik ez dagoela balorazio zehatzik eskolaratze irizpide honek ikasleak modu orekatuagoan banatzea lortzearekin izan ditzakeen ondorioei buruz.

4.3. Epe kanpo egindako ikasleen eskolaratzeari lotuta, arazoak sortzen dituen beste alderdietako bat da hizkuntza ereduaren aukeraketa.

2018ko txostenean Arartekoak adierazi zuen zalantza zituela, ez zekiela lurreko eskolaratze batzordeek irizpide berdinak aplikatzen zituzten edo ez. Xedatutako **antolamendu eta funtzionamendu arauetan** adierazita dago ikasleak lehentasunez D edo B ereduaren ikastetxeetan eskolatuko direla; baina batzordeak egokitzat jotzen dituen kasuetan, beste faktore batzuk kontuan hartu daitezke, besteak beste adina eta ikaslea bizi den inguruko ikastetxeetako hizkuntza ereduak. Normalean arazoak sortzen dira familiek beren seme-alabak A ereduaren eskolatu nahi dituztenean, eta kasu horietan egiaztatu da ustez lurralde batzordeek ez dituztela irizpide berdinak aplikatzen.

4.4. Horrekin lotuta, Arartekoak uste du bereziki jorratu behar direla A ereduaren seme-alabak eskolatu nahi dituzten familien kasuak.

Batzuetan, A ereduaren eskolatu nahi izaten dituzte ikaskuntzarako hezkuntza behar bereziak eta/edo zailtasunak dituzten adingabeak direlako. Aurretiaz azaldu dugun moduan, kexa horiek egiaztatzen dute kezka dagoela, eta kezka hori hezkuntza administrazioak konpondu behar duela beharrezko laguntzak eta baliabideak eskuragarri jarri, eta zenbait kasutan, orientazio zerbitzuek (Berritzeguneek) proposatutako eskolaratze gomendioak jarraitu behar dituztela.

Hala ere, beste batzuetan, zenbait familiek beren seme-alabak A ereduaren eskolatu nahi izaten dituzte ustez urratzen zaien eskubide bat egikaritu nahi dutelako.

Horrelako kexak aztertzean, hezkuntza arduradunek ez dute zalantzan jartzen familiek gure antolamendu juridikoan onartutako hizkuntza eruedetan beren seme-alabak eskolatzeko duten eskubidea, A erudian barne, nahiz eta era berean badirudien hezkuntza administrazioak ez duela eredu horretan plaza bat esleitzeko betebeharririk. Modu horretan, B erudian plaza eskaintzeko legezko obligazioa dago, besterik gabe. Eredu horretan, curriculum euskaraz eta gaztelaniaz irakatsiko da, eta bidezkoa izango da bi hizkuntzak erabiltzea irakats-hizkuntza gisa. Bestalde, bereziki nabarmendu nahi izan dute ikastetxeetako hizkuntza errealitatea zein den, albo batera utzita ikastetxeok ofizialki “A, B, D edo eredu misto” gisa “saillkatuta” egotea.

Egia da, hizkuntzen tratamenduari dagokionez, gure ikastetxeen errealitatea askotan ez datorrela bat bere garaian hizkuntza-ereduei lotuta onartutako erregulazioarekin ([Euskal Eskola Publikoaren Legeko](#) hamargarren xedapen gehigarrian jasotako A, B eta D ereduak). Erakunde honek badaki hori. Hala ere, beharrezkoa da baita ere konturatzera ikasleak onartzeko araubidean aldaketarik gertatu ezean, bakarrik aipatutako ereduak ezarri daitezkeela, are gehiago Euskal Eskola Publikoaren Legearen bidez hezkuntza administrazioari eskumenak eman zitzaizkiolako hizkuntza ereduak planifikatzeko, eta hori guztia gurasoek eta ikasleek nahi duten hizkuntza ereduak aukeratzeko duten eskubidea eraginkor egiteko, baita aukeraketa hori askatasunez egitea bermatzen duten administrazio mekanismoak garatzeko ere (5e artikulua).

Horregatik, eta urteko beste txosten batzuetan jaso dugun moduan, erakunde honek babestu egin ditu zenbait familiek eskolatzeari buruz egindako eskaerak ([Arartekoaren ebazpena, 2014ko urriaren 30koa](#)), baita ondoren egindako eskola garraioko esleipen indibidualizatuetakoko eskaerak ere ([Arartekoaren ebazpena, 2017ko maiatzaren 4koa](#)), izan ere, ikastetxe itunduetan eskolatzera beharrezkoa izan da, sare publikoaren eskaintza ez baita nahikoa.

4.5. Eskola garraioari dagokionez, 2019an aipatu behar da **onetsi egin zela azaroaren 26ko 186/2019 Dekretua, unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen garraioari buruzkoa**, eta lehenengo aldiz, dekretu horren aplikazio eremuaren barne daude Haur Hezkuntzako hirugarren mailako ikasleak (2 urte dituztenak) eta oinarrizko prestakuntza profesionaleko ikasleak. Horren bitartez, herritarrek askotan egindako eskaerari erantzuna eman zitzaion.

4.6. Eskoletako jantokiei dagokienez, **Arartekoa kexa espedientea izapidetzen ari da**, eta izapidetze hori babestu egiten du Euskadiko Diabetes Elkartearen Federazioak, izan

ere I. mailako diabetesa duten ikasleak diskriminatu egiten dira, bereziki zerbitzu hori erabiltzeari dagokionez.

Erakunde honek ezarritako prozeduraren jarraipena egingo du, hezkuntza arduradunen arabera modu koordinatuan ezarri dutena Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin batera dektatutako kasuei erantzuna emateko, are gehiago beraien arabera, kexa sustatu dutenek lurraldeen arteko tratamendu ezberdina gauzatzen dutelako ikasleek behar dituzten arretak ematerako orduan.

Era berean, Arartekoak premiaz jarduketara bat martxan jarri du menu edo dieta espezializatuak bermatze aldera (gai hori baita ere [Eusko Legebiltzarraren 51/2019 Legez Besteko Proposamenean](#) jaso zen), jantokiko zerbitzua kudeatzeko hurrengo lizitazioa kontuan hartuz.

4.7. Horrez gain, erakunde honek beharrezkotzat jotzen du jasota geratzea **hainbat pertsona oso kezkatuta daukela nagusien irakaskuntzan ezarri nahi dituzten aldaketak direla-eta, eta halaxe jakinarazi dietela Arartekoari**.

Urteko balantze hau bukatzean Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean sortutako txostenaren berri izan zen, eta ondorio horiek, erakunde honek adierazitakoen arabera, kontuan hartuko ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, nagusien hezkuntzari buruzko curriculum dekretua sortzen duenean.

4.8. Hizkuntzen irakaskuntzan ezarritako aldaketen ondorioz ([maiatzaren 21eko 80/2019 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duena](#), irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera) zenbait kexa puntual jaso ditugu, hasieran aurreikusitako ikasketa plana aldatu dela ikusi duten zenbait pertsonen egindakoak.

4.9. Bukatzeko, Auzitegi Gorenak bekei eta ikasketa laguntzei buruz hartutako erabakiak aipatu behar dira ([2019ko martxoaren 8ko epaiak](#) (1240/2016) eta [2019ko maiatzaren 21ekoak](#) (2458/2016)). Horietan, Estatuko Abokatutzak [abenduen 21eko 1721/2017 Errege Dekretua](#) eta [ekainaren 13ko 472/2014 Errege Dekretua](#) oinarrizkoak eta derrigorrez aplikatu beharrekoak direla esaten duten tesiak defendatzen ditu Auzitegi Gorenak, eta estatuak, inolako oztoporik jarri gabe, dirulaguntzen sistema propioa defendatu izan du 1980tik, EAEko aurrekontu orokorren kargura.



II. atala

3

Ogasuna

◀ Aurrekoa ikusi

1. Arloa kopurutan








2019an 101 kexa aurkeztu dira ogasun arloan, eta erakunde honetan izapidetu diren kexa guztien % 4,26 izan da hori. Honakoa izan da eragindako administrazioen araberako banaketa:

• Tokiko Administrazioa.....	50
• Foru Administrazioa.....	22
• Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz).....	4

Aztertzen diren gaiak edo azpiarloak kontuan hartuta, honela sailka daitezke kexa horiek:

• Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa.....	35
• Tokiko zergak.....	32
• Foru zergak.....	19
• Tasak.....	10
• Beste alderdi batzuk.....	3
• Prezio publikoak.....	2

Urtea ixtean aipatu arloan aztertu ditugun kexen izapidearen xehetasunari dagokionez, 2019ko abenduan honakoa izan da informazio estatistikoa:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
211	113	98	14	43	33	8

2. Kexarik aipagarrienak

Arlo horri dagokionez, herritarren kexetan azaldutako arazoak askotarikoak direnez, oso zaila da batzuk bakarrik hautatzea. Hala ere, kexa gehienak tokiko zerga-ordainketari buruzkoak direla esan daiteke. Izan ere, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa tokiko administrazioa da. Era berean, 2019an, PFEZaren kudeaketari buruzko kexen igoera ere azpimarratu behar da; horren arrazoa Gizarte Segurantzaren erregimen publikoetatik jasotzen den amatasun eta aitatasun prestazioari dagokion errenta zergatik salbuesita dagoela onartzea izan da.

Tokiko zergei dagokienez, gero eta gehiago dira bi zerga-figuraren inguruko kexak, **hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren** (HLBGZ) eta ondasun higiezinaren gaineko zergaren (OHZ) ingurukoak, hain zuzen ere.

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga Gipuzkoan zein Araban erregulatzen zuten foru-arauak, baita hura Nafarroan eta lurralde erkidean erregulatzen zutenak ere⁵, partzialki Konstituzioaren kontraketat jo izanak ekarri du bere garaian igorritako likidazioak zalantzan jarri ez zituzten zergadun askok, orain, erreklamazioak aurkeztea, esanez egindako eskualdaketak ez zuela eragin lursailaren balioa gehitzea.

⁵ 2017an, Konstituzio Auzitegiak bost epairen bidez jarri zituen zalantzan, zati batean bada ere, zerga hori arautzen duten foru arauak, bai Gipuzkoako Lurralde Historikokoak (26/2017 Epaia, 2017ko otsailaren 16koa, 2017ko martxoaren 25eko BOEn argitaratua), bai Arabako Lurralde Historikokoak (37/2017 Epaia, 2017ko martxoaren 1ekoa, 2017ko apirilaren 7ko BOEn argitaratua eta 48/2017 Epaia, 2017ko apirilaren 27koa, 2017ko maiatzaren 27ko BOEn argitaratua); era berean, zalantzan jarri zituen, batetik, Estatuko toki-ogasunak arautzen dituen Legea (59/2017 Epaia, 2017ko maiatzaren 11koa, 2017ko ekainaren 15eko BOEn argitaratua), eta bestetik, Nafarroako toki-ogasunei buruzko Foru Legea (72/2017 Epaia, 2017ko ekainaren 5koa, 2017ko uztailaren 15eko BOEn argitaratua).

Udalek ukatu egin dituzte jarritako errekursoak, epez kanpo aurkeztu direla-eta; izan ere, errekursoak ez ziren aurkeztu likidazioak jakinarazi eta hilabeteko epean.

Epai horietan, Konstituzio Auzitegiak (KA) neurri batean baietsi zituen mahaigaineratutako konstituzio-kontraktasunari lotutako kontuak, eta, ondorioz, konstituzio-kontraktotzat eta balio-gabetzat jo zituen arau horietan jasotako artikuluetako batzuk; hala ere, balio-gehitzerik ez zegoen kasuetan bakarrik izan zen horrela, subjektu pasiboari egoera hori egiaztatzeko aukera kentzen zitzaien.

Epai horiek, halaber, hauexek adierazten zuten: *“que la forma de determinar la existencia o no de un incremento susceptible de ser sometido a tributación es algo que sólo corresponde al legislador, en su libertad de configuración normativa, a partir de la publicación de esta Sentencia, llevando a cabo las modificaciones o adaptaciones pertinentes en el régimen legal del impuesto que permitan arbitrar el modo de no someter a tributación las situaciones de inexistencia de incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.”*

Hiru lurralde historikoetan, lurralde erkidean ez bezala, Bartzar Nagusiek jarraitu egin diote Konstituzio Auzitegiak agindutakoari eta, ondorioz, aldatu eta egokitu egin dute zergaren araudia, ahalmen ekonomikorik adierazten ez duten egoerak zergatik kanpo uzteko; horretarako, bide bat ezarri da, zergaren subjektu pasiboak lurren balioa ez dela handitu egiaztatzen duten frogak aurkezteko aukera izan dezan⁶.

Hala, lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga-betebehar nagusia sor dadin, beharrezkoa izango da lurren balio-gehikuntza bat gertatzea, haien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzeagatik edo lur horien gaineko jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreala eratu edo eskualdatzeagatik.

Horrek, hasteko, lurren balio-gehikuntza gertatu dela zehaztu behar izatea eskatzen du; foru-arauei jarraikiz, horretarako, honako hauek konparatuko dira printzipioz: ondasunaren erosketa-balioa edo, hala badagokio, jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreala eraketa edo eskualdaketa balioa eta eskualdaketa balioa. Toki-erakundeek ezin izango diete balio horiei gastu, hobekuntza eta kontzepturik gehitu, ez eta balioa denbora igarotzearen ondorioz eguneratu ere. Balio-gehikuntzarik egon ez bada, zerga-betebehar nagusia ez da sortzen.

Hala ere, lurren balio-gehikuntzarik ez dagoen kasuetan ere zergapekoek obligazio formalak bete beharko dituzte, hau da, eragiketaren berri eman beharko dute, eta, batez ere, erosketa balioa zein eskualdaketa balioa justifikatzen dituzten dokumentuak erantsi beharko dituzte.

⁶ – 2/2017 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 28koa, hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aldatzen duena. (GAO 64, 2017-03-31)
– Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 28koa, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen zergarekin lotua. (ALHAO 40, 2017-04-05)
– 3/2017 Foru Dekretu Arauemaile, ekainaren 20koa; honen bidez, Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Araua aldatzen da. (BAO 119, 2017-06-22)

Lurren balio-gehikuntzarik eza zergari ez lotzeko arrazoi-tzat hartzen bada ere, zergapekoak —araudiak esanbidez hala ezartzen duelako— zergari lotuta ez dagoen egitatearen berri eman behar du, eragiketa “lotu gabe” gisa kalifikatuz, eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar du.

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga likidazio-sistemaren edo autolikidazio-sistemaren bidez likida daiteke. Hautatutako sistemak garrantzi handia hartzen du, eragina baitu likidazio edo autolikidazioa zuzentzeko eskaera aurkezteko epean eta, beraz, bidegabeko diru-sarrerak itzultzean. Arazoaren arrazoia hauexek da: HLBGZaren autolikidazioaren kasuan autolikidazioa zuzentzeko eta bidegabeko diru-sarrerak itzultzeko eskaera egiteko epea lau urtekoa⁷ da; zergaren likidazioa aurkaratzeko epea, berriz, hilabetekoa.

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota likidoari aukerako errekaratu bat aplikatzeak eragindako zergadunen gaitzespena eragin du. Arabako eta Bizkaiko udalerrietan, errekaratu zergaren kuota likidoaren % 50 ere izan daiteke; Gipuzkoako udalerrietan, berriz, % 150era irits daiteke.

Errekaratu bizitegi-erabilera duen ondasun higiezinaren kasuetan soilik aplikatzen da, ondasun higiezina subjektu pasiboaren edo, errentamenduz edo lagapen bidez, beste pertsona batzuen ohiko bizilekua ez denean. Zergaren kuotaren ordainagiriarekin batera bidaltzen da.

Herritarrek desadostasuna adierazten dute, toki-erakundeek, zenbaitetan, ez baitute onartzen udal eroldako datuetatik ondorioztatutako *iuris tantum* presuntzioa indargabetzen duten aurkako frogak aurkezterik; beste batzuetan, berriz, errealitateak agerian uzten du, egunerokotasunean, askotariko egoera objektiboak eta arazoizkoak jasotzen direla, inondik inora ere gaitzetsi ezin direnak eta higiezinaren titularraren urtarillaren 1ean (zergaren sortzapen eguna) OHZaren ondorioetarako subjektu pasibo den etxebizitzaren erroldatuta ez egotea justifikatzen dutenak.

Lehen azaldutakoaren erakusgarri dira Ararteko erakundeak 2019an toki-erakundeak egin dizkion hiru gomendio eta iradokizun bat; horietako hiru [Barakaldoko Udalak jaso ditu](#):

2019ko ekainaren 11ko ebazpena. Horren bidez, Barakaldoko Udalaririk iradoki zaio OHZ arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa abiaraz dezala; hain zuzen, mendekotasuna jasotzeko errekaratuen aplikazioa salbuesteko kausa objektibo gisa eta, horrez gain, familia ukituari konpentsazio ekonomikoko neurriak ezartzeko aukera azter dezala iradoki zaio.

Nahiko maiz gertatzen da zerga-ordenantzek mendekotasuna duten eta egoitza batera bizitzera joaten diren pertsonak errekaratu ordaintzeko betebeharretik salbuesten dituztela, gutxienez aldi baterako. Hala ere, zenbaitetan, ez da kontuan izaten EAEn, mendekotasuna duten gehienek ez

⁷ 5 urtekoa Arabako Lurralde Historikoan (Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 65. artikulua, preskripzio epea aldatzeari buruzko martxoaren 11ko 8/2013 Foru Arauaren 1. artikuluko lehenengo zenbakia emandako idazketa duena; ALHAO, 2013-03-20).

dutela egoitza plazarik, eta behar dituzten zainketak eta arreta familia ingurunean jasotzen dituztela.

2019ko ekainaren 13ko ebazpena. Horren bidez, Barakaldoko Udalari gomendatzen zaio, kexagilearen OHZaren kuotari aplikatutako %40ko errekaru gehigarria berrikuz dezala; izan ere, herritarren jarduna ez da era gehigarrian kargatu beharreko gaitasun ekonomiko handiago baten adierazle (errekaru baten bidez), higiezin baten jabetzan egon beharreko helburu sozial baten barnean sartzen baita, eta alokairuko merkatuan 7 urtez egoteaz gain, titularraren ohiko bizilekua da.

Errentaria urtarrilaren 1ean etxebizitzan erroldatuta ez egotea beste kexa batzuen arrazoia izaten da. Batzuetan, etxebizitza bati loturiko alokairu-kontratuak bata bestearen atzetik datozenean, segida ez da perfektua; besteetan, errentariak, errentatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, bere kabuz hartzen du etxebizitzan ez erroldatzeko erabakia, bere ohiko bizilekua izan arren.

Kontuan izan behar da etxebizitzaren jabea dela ondasun higiezinaren gaineko zergaren subjektu pasiboa, eta ondorioz, errekarua ordaindu behar duena, eta errekaruaren justifikazioa gure ordenamendu juridikoak etxebizitza bat jabetzan izateari esleitzen dion funtzio sozialean aurki daitekeela.

Horri dagokionez, **2019ko abenduaren 2ko ebazpena** aipatu behar da. Horren bitartez, Barakaldoko Udalari gomendatzen zaio berriz azter dezala hartutako erabakia, eta ofizioz baliogabetu dezala OHZaren kuota likidoaren gaineko errekarua dela-eta kexagileei igorritako likidazioa, etxebizitza 2014. urtetik egon zela alokatuta.

Era berean, **2019ko azaroaren 12ko ebazpena** aipatu behar da. Horren bidez, **Hondarribiko Udalari** gomendatzen zaio ofizioz baliogabetu ditzala OHZ zela-eta kexagileari igorritako likidazio errekarugudunak, etxebizitza errentan emanda zegoela egiaztatu ahal zelako eta jabeak zegozkion betebeharrak guztiak bete zituelako.

Udal tasa eta prezio publikoen arloan, **erroldatuta izateari buruzko irizpidearen erabilera orokortzea** azpimarratu behar da; izan ere, zerbitzu publikoak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifak kuantifikatzeko faktore bihurtu da. Udalerrian erroldatuta daudenentzat eta ez daudenentzat tarifa desberdinak ezartzeak desberdintasunak sortzen ditu zerbitzu publiko bera erabiltzen dutenen artean. Desberdintasun horiek, printzipioz, ez dute zerikusirik kontribuzio-ahalmenari buruzko irizpide orokorrekin, eta printzipio konstituzional batzuen kontrakoak dira (hala nola berdintasun printzipioaren, diskriminaziorik ezaren eta botere publikoen arbitrariotasunaren debekua ezartzen duen printzipioaren kontra daude); hori dela eta, erroldatzeari buruzko aipamenak ezabatu beharko lirakeke udal zerbitzu publikoen erabiltzaileek ordaindu behar dituzten prezio publikoak eta tasak kuantifikatzeko irizpideen zerrendatik.

Arartekoak, **2019ko abuztuaren 8ko ebazpenean**, gomendatu die **Durangoko Udalari** eta **Bartolome Ertzilla musika eskola** kudeatzen duen administrazio-erakunde autonomoari

udalaren musika-eskolako tarifak ikuskatzeko, eta erroldaren erreferentzia erabiltzaileek ordaindu beharreko prezioak berdinak ez izatea justifikatzen duen elementu gisa ez erabiltzeko.

Aurreko ekitaldietan bezala, zerga-garrantzia duten harreran juridiko pribatuen esparruko ez-ordaintze egoerak aipatu behar ditugu, zehazki, alokatutako ondare higiezinaren jabeen ezjakintasuna **zergadunaren ordezkioak** izanik higiezin horietako bizilagunei eragiten edo mesede egiten dieten tasen ordainketari dagokionez (ur-, saneamendu-, zabor-eta estolderia-tasak).

Batzuetan, gainera, honako paradoxa hau ematen da: jabeek —zergadunaren ordezkioa izateagatik— etxebizitzaren errentariak edo lagapen-hartzaileek ordaindu ez dituzten ordainagiriak ordaintzeko eskatzen dieten administrazio berberak ez diete ordainagiriak begiratzeko aukerarik ematen, babestutako datutzat jotzen dituztelako. Hala ere, ondasun higiezin baten jabea prozeduran interesduna dela onartu beharko litzateke, errentariak, okupatzaileek eta abarrekoek egindako zorra jabeari eskatu ahal zaion unetik aurrera. Ondorioz, jabeak, prozeduran interesduna denez, honako eskubide hau du: *“Noiznahi jakitea interesdun diren prozeduren izapidetzea nola doan; (...) prozeduretan jasotako dokumentuak eskuratzeko eta haien kopia lortzeko.”* (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen **urriaren 1eko 39/2015 Legearen** 53.1.a artikulua).

Kexa ugari aurkeztu dira foru-zergen kudeaketaren inguruan, batik bat, **pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ)** inguruan. 2019an, amatasun prestazioa dela eta ordaindutako zerga itzultzeko eskaera aurkeztuta ezezkua jaso duten zergadunen kexak nabarmentzen dira. Kasu batzuetan, mutualismo administratiboan (batez ere, MUFACE, MUGEJU eta ISFASen) integraturik zeuden funtzionarioak zirelako izan da; beste batzuetan, eskaera irimo bihurtu zen, eskatzaileak, salbuespen egoera onartzea lortu nahian, lehenago autolikidazioa zuzentzeko eskaera aurkeztu zuen, eta hori ez zen onartu.

Administrazioarekiko Auzien Salaren Bigarren Atalaren epaiak, 2018ko urriaren 3koak, honako hau ezarri zuen lege-doktrina gisa, lurralde erkidean indarrean dagoen legediarekin bat: *“Las prestaciones públicas por maternidad percibidas de la Seguridad Social están exentas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas”*.

Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak (EZKO), urriaren 18an izandako bileran, Auzitegi Gorenak emandako doktrina Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu behar zela erabaki zuen. Erabakia hartu zen, nahiz eta epai horrek PFEZaren estatuko legea aipatu, gai horri buruzko testua —PFEZaren Legean eta foru-arauetan— antzekoa zelako. Ondorioz, aldatu egin ziren PFEZa arautzeko foru-arauak, eta salbuespenaren errentatza hartu ziren Gizarte Segurantzaren erregimen publikoetatik jasotzen diren amatasun eta aitatasun prestazioak, **Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginaren** II. tituluko VI. eta VII. kapituluaren araututakoak. Erabaki horren ondorioak aurreko ekitaldietara hedatu ziren, baldin eta ekitaldi horiek preskribatu gabe bazeuden.

Egindako aldaketaren esanahia kontuan hartuta, onuratik kanpo —eta hortaz, amatasun eta aitatasun prestazioak dirrela eta ordaindutako zerga kopuruak berreskuratzeko aukerarik gabe— geratu ziren, besteak beste, Arartekora jo zuten zergadunen bi taldeak, preskribatu gabeko ekitaldietan.

Hala ere, azkenean, estatuko zein lurralde historikoetako indar politikoen akordioak onura administrazio-mutualismoan⁸ dauden zergadunei eta irimo bihurtutako⁹ eskaerak aurkeztu izan zituzten amei ere aplikatzea ahalbidetu zuen; horretarako, kasu batzuetan, PFEZa arautzeko foru-arauak aldatu egin dira: bi aldiz 2019. urtean zehar.

Zehaztu behar da salbuetsitako zenbatekoa, Gizarte Segurantzaren erregimenean ez dauden zergadunen kasuan, mugatuta dagoela; hain zuzen, Gizarte Segurantzak kontzeptu horretan onartzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa da muga, beraz, soberakinak lan etekin moduan ordainduko du zerga.

Zerga-administrazioaren funtzionamenduari dagokionez, herritarrek aurkeztutako errekurtsioak eta erreklamazioak berariaz eta dagokion epean ez ebaztea da, erreklamazio askotan, herritarrek Arartekora jotzeko hasierako arrazoia. Halaber, nabarmentzekoak dira bai ordainketa zatiatzeko eskaerak ukatzeari, bai ondasunen enbargoa beteazteari buruzko erreklamazioak.

Zerga-administrazioak, une guztietan, aukera eman behar luke pilotutako zorrak zatiketan ordaintzeko, zordunaren ekonomia-egoera zehatza aintzat hartuta, batez ere, zorduna zaurgarritasun-egoeran badago. Halaber, **Prozedura Zibilarren Legean** ezarritako mugak errespetatu behar ditu bere jardunean. Izan ere, lege hori eman da zordunak bere zorrak ordain ditzan, dituen baliabideak hondatu gabe.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Zergen inguruko ordenamendu juridikoa da, beharbada, administrazio-zuzenbidearen alorrik dinamikoenetako bat. Izan ere, ekitaldi guztietan, zerga-arauak **etengabe aldatu**, eguneratu eta berrikusi egiten dira, eta zuzenketa teknikoak ere egiten zaizkie, zerga-sistema ahalmen ekonomikoaren printzipioari hobeto egokitzeko eta zerga-iruzurraren aurkako borroka indartzeko.

⁸ – 10/2019 Foru Araua, martxoaren 27koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aldaketari buruz (ALHAO 2019-04-10).
– Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2019. urteko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 27ko 8/2018 Foru Araua. (BAO 2018-12-31)
– 3/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa, 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituena. (GAO 2019-02-20)

⁹ – 19/2019 Foru Araua, azaroaren 20koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldatzeko martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauaren ondorioak zehazten dituena. (ALHAO 2019-11-29)
– 8/2019 Foru Araua, abenduaren 9koa, 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituen otsailaren 11ko 3/2019 Foru Araua aldatzeko, (GAO 2019-12-13), idatzketa berria aurreko zergaldiei ere aplikatuko zaie, baldin eta egun horretan preskribatu gabe badaude.

Azken urteetan, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren inguruko auzien kopuru handiak auzitegiek tokiko zerga-ordainketaren arloan ematen duten doktrinaren zati oso garrantzitsua biltzen du. 2019an, Konstituzio Auzitegiaren bi erabaki nabarmen daitezke, zergaren gaur egungo konfigurazioaren alde batzuk kontribuzio-ahalmenaren printzipiotik urruntzean eragina dutenak.

2019ko urriaren 31ko KAE, non Konstituzio Auzitegiaren osoko bilkurak zergaren konstituzio-kontraktasunaren kasu berri bat deklaratzeko duen, EKren **31.1** artikuluan ezarritako ahalmen ekonomikoaren printzipioa eta konfiskatzeko debekua urratzeagatik, ordaindu beharreko zenbatekoa zergadunak lortuko lukeen ondare-gehikuntza den kasuetan.

Epai horretan, Konstituzio Auzitegiak zehaztu egin du epaiaren eragina eta honako hau adierazi du: *“Por exigencia del principio de seguridad jurídica (art. 9.3 CE), y al igual que hemos hecho en otras ocasiones (por todas, SSTC 22/2015 de 16 de febrero, FJ 5; y 73/2017, de 8 de junio, FJ 6), únicamente han de considerarse situaciones susceptibles de ser revisadas con fundamento en esta Sentencia aquellas que, a la fecha de publicación de la misma, no hayan adquirido firmeza por haber sido impugnadas en tiempo y forma, y no haber recaído todavía en ellas una resolución administrativa o judicial firme.”*

Konstituzio Auzitegiaren Bigarren Salaren epaiak, 2019ko irailaren 30ekoak, babes-errekurtsio bat dela eta, deklaratu du urratu egin dela errekurtsogilearen oinarritzko eskubidea —zaintza judizial eraginkorra izateko—, ondasun higiezinaren eskualdaketan izandako balio-galerari buruzko alegazioa baztertu zuen ebazpen judizialak ez baitzuen aintzat hartu aurkeztutako dokumentu-froga. Errekurtsogileak ondasun higiezinaren erosketa-eskritura eta salmenta-erosketa erantsi zizkion eskaerari, eta horiek agerian uzten zuten izandako balio-galera. Hori dela eta, ondorioz, jarduketan atzera egitea eta epaia eman aurretiko unera eramatea agindu du Konstituzio Auzitegiak.

Era berean, **2019ko azaroaren 21eko AGE** aipatu behar da. Horren bidez, onetsi egin da Estatu legegilearen ondare-erantzukizunari buruzko eskaera eta, ondorioz, kondenatu da Estatua hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga dela eta bere garaian likidatutako eta kobratutako zerga-kuota erreklamaziogileari itzultzeko, baita erreklamazioa jarri zen egunetik aurrera sortutako legezko interesak ordaintzeko ere.

Epai horretan, Auzitegi Gorenak gogorarazi du Estatu legegilearen erantzukizuna —Konstituzioaren kontrako arau bat aplikatzeak eragindako kalteak direla eta— eskatzeko aukera Sektore Publikoaren araubide Juridikoari buruzko **urriaren 1eko 40/2015 Legearen** 32. artikuluan jasota dagoela. Zehaztu duenez, kalte-ordaina ordaintzeko betebeharra sor da-din, ondare-erantzukizunaren baldintza orokorrak bete behar dira: a) legea aplikatzeak partikularrek legez jasan beharrik ez duen kalte bat eragin izana, eta b) alegatutako kalteak benetan gertatutakoa izan behar du, diru aldetik zenbagarria eta bana-banakoa, pertsona edo pertsonen talde bati mugatua. Halaber, gehitu duenez, kaltea ordaindu beharra sortzeko, auzialdi judizialak agortu behar dira, horietan gero

deklaraturako konstituzio-kontrakotasuna alegatu ondoren. Era berean, agerian utzi du kaltearen antijuridikotasuna aitortu behar dela, arau orokor gisa, kalte hori Estatuaren jarduketara antijuridiko batek —Konstituzio-kontrakotasunaren deklarazioak egiaztatutakoa— eragin duen neurrian.

Auzitegi Gorenak aitortu du kasu konkretuan bete egin direla premisak Estatu legegilearen ondare-erantzukizunak ondorioak izan ditzan, eta gaineratu du: *“en el caso enjuiciado el obligado tributario presentó la escritura pública, donde se reflejaba una disminución de valor del terreno, mientras que la Administración presentó la evolución positiva de las referencias al valor catastral del suelo. Pues bien, el Tribunal no estima que esa prueba aportada sea eficaz para desvirtuar el decremento de valor, y no solo por cuanto no se justifica la correspondencia de dichos valores catastrales con el valor de mercado del suelo en las fechas de compra y venta —dichos valores se apartan claramente de los precios declarados de compra y venta, siendo en no pocas ocasiones la discrepancia entre valor catastral y de mercado manifiesta— sino porque parece sorprendente que pueda sostenerse que entre 2006 y 2014, con la crisis inmobiliaria padecida entre dichas anualidades, y sin que se aporte ninguna circunstancias justificativa de ello, el valor del suelo haya subido la cantidad que se alega. En atención a lo expuesto, ha de concluirse que se estima producido el decremento patrimonial entre adquisición y transmisión del inmueble, tal y como se hace constar en la correspondiente escritura y, en consecuencia, procede estimar el recurso interpuesto.”*

Azkenik, **2019ko urriaren 31ko AGE** aipatu behar da: horretan zehaztu da ondasun higiezinaren erosketa-prezioari ez zaio la gehitu behar eraikuntzan egindako hobekuntzen zenbatekoa. Hain zuzen ere, auzitegi horrek esan du: *“corresponde al obligado tributario probar la inexistencia de incremento de valor del terreno onerosamente transmitido”* y que *“procede recordar que el IIVTNU lo que grava son los incrementos de valor de los terrenos, y de la prueba practicada se desprende que tales obras de ampliación han afectado a la construcción, que no al suelo, de suerte que debemos entender que no se ha acreditado, en contra de lo que se pretendía por la hoy recurrida, que se haya producido una disminución del valor del terreno.”*

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Espainiako Konstituzioak 31.1. artikuluan hauxe xedatzen du: *“Guztiek gastu publikoei aurre egiten lagunduko dute, bakoitzak bere ahalmen ekonomikoaren arabera; horretarako, zerga-sistema zuzena ezarriko da, berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarriturik; sistema hori ez da inoiz konfiskagarri izango.”*

Horrek esan nahi du, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan¹⁰: *“de conformidad con el art. 31.1 CE, los ciudadanos no solo*

tienen el deber constitucional de contribuir al sostenimiento de los gastos públicos, sino también el derecho de hacerlo y no de cualquier manera, sino únicamente «con arreglo a la ley» y exclusivamente «de acuerdo con su capacidad económica»”.

Aipatu printzipioa urratu egiten dela **hiri-lurren balio-gehi-kuntzaren gaineko zerga** gisa ordaindu beharreko kuotak zergadunak lortutako ondare-gehiakuntza gainditzen duenean.

Erosketa-eskrituran eta eskualdaketa-eskrituran ezarritako balioak frogatzen sendoa dira lurren balio-gehiakuntzarik ez dela egon esateko, itxurazkoak ez badira behintzat. Jasandako higiezinaren krisiaren ondorioz, oso zaila da zerga-administrazioak lurzoruaren balioa areagotu dela esatea, justifikagarri osagarri aurkezten ez bada.

Titularraren ohiko bizilekua ez diren etxebizitzaren gaineko **OHZaren errekarria** ezartzeko gaitasuna gure antolamendu juridikoan jabetzari esleitzen zaion funtzio sozialean oinarritzen da (Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua).

Ondasun bat ez erabiltzeak edo ezohiko erabilerak karga berezia justifikatzen duen benetako aberastasuna edo izan daitekeen aberastasuna erakusten du, ez baitira homogeneoak honako egoera bi hauek: pertsona batek bere etxebizitza ohiko bizileku gisa erabiltzea (bere bizilekua izan zein alokairuan edo beste titulu baten bidez ematen dion beste batena izan) eta halakorik ez egitea. Hori dela eta, errekarria aplikatzea ikuspegi horretatik aztertu behar da.

Data zehatz batean, hain zuzen ere zergaren sortzapen-datan (urtarrilaren 1a), higiezinaren inor eroldatuta ez egoteak ezin du baldintzatu etxebizitza okupatu gabe dagoela edo hura ohiko bizilekua ez dela jotzea; izan ere, errekarria hain automatikoki aplikatuz gero, alde batera uzten da etxebizitza baten jabetzaren funtzio soziala.

Euskal ogasunen zerga-bilketa balio historikoetara iristen ari da. Hala ere, ez da eragozpena iruzurraren eta zerga-saihestearen aurkako borroka euskal ogasunen ikuskari-lanaren ardatz izaten jarrai dezan. Zerga-administrazioak beharrezkoak diren **erregulazio-prozedurak** burutu behar ditu, herritar guztiek modu eraginkorrean bete dezaten konstituzioak ezarritako betebeharrak.

Era berean, foru-ogasunek arreta handiagoz prestatu behar dituzte beren bulegoetan egiten diren edo zergadunen etxeetara autolikidazio-proposamen gisa bidaltzen diren errenta-aitorpenak, eta, gainera, ahaleginak egin behar dituzte aitortzen aurkeztu eta berehala ekiteko berrikuspen-prozesuei.

Zerga-erregulazioaren prozesu batean likidazio berriak jaulkitzeak ez du bazter uzten zigortzeko prozedurak izapidetzea.

Prozedura horiek barnean hartzen dituzte hainbat berme, zergadunaren alde. Izan ere, zergadunak espediente begiratzeko aukera eska dezake, han jasotako dokumentazioaren kopia egin (beharrezkotzat jotzen dituen alegazioak

¹⁰ 2019-10-31ko KAE, 5. OJ

aurkezteko bere eskubideak defendatze aldera), bere eskubideak eta interesak defendatzeko egokiak iruditzen zaizkion frogak egin daitezzen proposa dezake, likidazioen eta zigorren aurkako errekursoak jarri eta abar. Hala ere, jardun horiek prozesuaren une egokian egin behar dira, eta oso zailak izaten dira biztanleria sektore askorentzat.

Ekonomia-krisia gainditzeak ez dizkie onura berberak ekarri familia guztiei. Hori dela eta, jarraitu egin behar da **zorren ordainketa luzatzeko eta zatikatzeko** akordioak onartzeko aukerak sortzen, ekonomia apalak dituzten pertsonen bizimodua estatusunean ez jartzeko, aurretik hitzartutakoa bete ez badute ere eta egiturazko likidezirik gabe badaude ere.

Pertsona batzuen kalteberatasun egoerak oso zail egiten du zorraren ordainketari aurre egin ahal izatea, beren egoera ekonomikoa kontuan hartuta, ordainketa ez bazaie berriz geroratzen.

Gainera, zerga administrazioak aintzat hartu beharko luke, oro har, herritarrek ez dutela baliabiderik eta trebetasunik izaten, lehen unetik bertatik eskabideak eta erreklamazioak behar bezala oinarrituta eta dagokien dokumentazioarekin egiteko.

Ondasunak enbargatzean, zerga-administrazioak Prozedura Zibilaren Legeak ezarritako mugetan jardun behar du. Hala eta guztiz ere, zordunari dagokio muga horiek bete diren egiaztatzea eta, hala ez bada, errekursoa jartzea eta enbargoak ondasun enbargaezinei eragin diela agerian uztea.

Prozedura hori konplexua da eta baliabide sozial eta ekonomiko urriko pertsonak nekez egin diezaiokete aurre, aholkularitza eta laguntza egokirik ez badute. Halako kasuetan, ezinbestekoak bihurtzen dira zerga-administrazioaren eta gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzak eta lan koordinatua.

Zerbitzu publikoak erabiltzeagatik ordaindu beharreko zenbatekoa ezartzeko orduan, **auzotasun**-irizpidea orokortzeak, tarifak ezartzeko faktore gisa, desparekotasunak eragiten ditu erabiltzaileen artean, eta, beraz, berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta botere publikoen arbitrariotasun debekuari buruzko printzipio konstituzionalen kontrakoa da. Hau da, tarifetan bereizketarik egitekotan, onura jasotzen duten ordaintzaileek ahalmen ekonomiko txikia izateak justifikatu beharko luke bereizketa hori.

Familia-motetan izandako bilakaeraren ondorioz, herri-administrazio guztiek, baita zerga-administrazioak ere, lehenengo ahalegin bat egin behar dute familia-eredu berriak legitimotzat hartzeko eta familia-eredu tradizionalagoi bezalako tratu ematen zaiela bermatzeko. Horrela, arreta berezia eman behar zaie **oso egoera kalteberan dauden familiei**.

Halaber, botere publikoek jakin beharko lukete ezgaitasuna edo mendekotasuna duen kide bat edo batzuk dituzten familiek ahalegin ekonomiko handia egin behar dutela, eta aintzat hartu behar lukete hori, pertsona horien premiak politika publiko guztien plangintzan —besteak beste, zerga-politikarenean— aintzat har ditzaten, Espainiako Konstituzioaren 49. artikuluan jasotako konstituzio-agindua betetzeko asmoz.

Beste kontu batzuei buruz, zerga-administrazioak bere **jakin-arrazpenak** egokitu behar dizkie jakinarazpen horien hartzaile zehatzek eskatzen dituzten beharraznei. Zergapekoa, normalean, ez da teknikari juridikoa izaten, ez eta zergen araudia eta horren prozedura desberdinak ezagutzen eta ulertzen dituen aditua ere. Horregatik, ahaleginak egin beharko lirarteke jakinarazpenak argiagoak eta ulergarriagoak izan daitezken.

Ordainketa nola egin, ordaintzeko epeak, geroratzeak edo zatikatzeko aukera, errekurtsua jartzeko epea, hori jartzeak izan ditzakeen ondorioak eta abar oso gauza garrantzitsuak dira herritar zergadunarentzat, baina sarritan oharkabean pasatzen dira, oso letra txikiak idazten direlako eta azalpenetan terminologia tekniko juridikoa erabiltzen delako.

Epeak preklusiboak izaten dira tributu gaitan; horregatik, likidazioaren aurka egiteko ematen den epea igaro ostean likidazioa errekurritu ez bada, irmoa eta onartua izango da zergapekoarentzat, eta, hortaz, ezin izango zaio aurre egin errekurtsuaren ohiko bideak erabiliz.

Azkenik, errekurtsuak ebazteko epean berariazko **erantzun arrazoiturik ez ematea** zerga-prozeduraren patologia nagusietako bat da oraindik ere, eta administrazioaren funtzionamendu egokiaren kontrakoa.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da beharrezko neurriak hartzea erreklamazioak ebazteko epeak laburtzeko. Izan ere, herritarrei ondorio kaltegarriak eragiten dizkie administrazioak beren eskaeren gainean zer asmo duen ez jakiteak.



II. atala

4

Gizarteratzea

◀ Aurrekoa ikusi

1. Arloa kopurutan

2019. urtean 468 kexa-espeditu izapidetu dira gizarteratzearen arloan, alegia, erakunde honetan izapidetutako kexa guztien % 19,76. Horietatik 257 (%54,91) emakumeek egin zituzten, 207 (%44,23) gizonen eta 4 (%0,85) taldeek. 2018an 713 kexa-espeditu izapidetu ziren; beraz, haien aldean, kexak % 34,36 gutxitu dira (245 espeditu gutxiago).

Aurreko urteetan bezala, erreklamazio gehienak diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzerako [abenduaren 23ko 18/2008 Legearen](#) ondoriozko prestazio ekonomikoen, batez ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kudeaketa publikoari lotuta daude, herritar asko ez baitaude ados kudeatzeko moduarekin. Kexa horiek Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkie, hain zuzen ere, Lanbiderekin, hori baita prestazio ekonomikoak kudeatzen dituen antolakundea.

Udalek edo foru aldundiek kudeatzen dituzten beste prestazio ekonomiko eta zerbitzu batzuk eskatzeari buruzko kexak ere jaso dira, gutxiago izan badira ere, baita pertsonen zerbitzu publikoetatik jasotzen duten gizarteratze-erretari buruzkoak ere.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)..... 384
- Tokiko administrazioa..... 37
- Foru administrazioa..... 18

Bertan jorratutako azpiarloen arabera, honela sailka daitezke:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko eta gizarteratzeko legean jasotako prestazio ekonomikoak (diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta gizarte behar larrietarako laguntzak)..... 414
- Gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako prestazioak eta zerbitzuak..... 35
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura..... 17
- Herritarren eskubideak..... 2

Jasotako kexen tipologia azaltzeko, jarraian, gai aipagarrienak laburbildu, eta agerian jarri beharreko bi kontu aipatuko ditugu.

Lehenengoak [Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak](#) Arartekoak bidaltzen dizkion laguntza-eskaerei erantzuteko behar izaten duen denborarekin du zerikusia, [otsailaren 26ko 3/1985 Legeak](#), [Arartekoaren erakundea sortu eta arautzekoak](#) erantzuna lehenetsunez eta premiaz emateko beharra ezartzen duela kontuan hartuta. Aurreko urteko txostenetan agerian utzi denez, Lanbidek luzatzen du erakunde honek bidaltzen dizkion informazio-eskaerei erantzuteko epea. 2019. urtean, erantzuteko epeak laburtu direla ikusi da, hobetzeko tartea oraindik badago ere. Bestaldetik, Lanbidek bidaltzen duen informazioaren edukia nahikoa izaten da, hasierako informazio-eskaerei dagokienez.

Beste administrazio publikoen aldetik ez da atzerapen nabarmenik egon.

Bigarren kontuak Lanbidek, bere idazkietan, Arartekoaren iradokizun eta gomendioetan —Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari bidaltzen dizkion eta onartu gabe geratzen diren horietan— azaldutako argudioei erantzuteko erabiltzen duen arrazoibide eskasarekin du zerikusia.

Datu interesgarri gisa, adieraz daiteke **gutxitu egin direla** diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eta gizarte larrialdietako laguntzak kudeatzearekin zerikusia duten kexa-espedituek. 2019. urtean 414 kexa egin dira, 2018ko 687 kexen aldean (273 espeditu gutxiago). Horien artean, 384 kexa egin dira Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren aurka (Lanbide); aldez, 2018an 609 egin ziren.

Beraz, % 39,73 gutxitu dira prestazio ekonomikoei dagozkien kexa guztien kasuan, eta % 36,95 Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren aurka egindakoetan. Orduan, beste urte batzuetako datuekin alderatuta, egiaztatu egin da beharrezko joera hori.

Lanbidek hainbat arlo hobetu ditu, hala nola barne antolamendua eta koordinazioa, aplikazio informatikoak, talde

juridikoa indartzea, herritarrekiko harremanak eta informazioa; hobekuntza horiek guztiek zerbitzu hobea ematea ahalbidetzen dute. Hala ere, oraindik ere badago zer hobetu, alde jakin batzuei dagokienez. Izan ere, prozedura arloko kontuei dagokienez, berriz ere esan beharra dago herritarrei, administrazio-harremanean zehar, prestazioen titularrak direlako bere gain hartzen dituzten betebeharren inguruan ematen zaien **informazioa hobetu behar dela**, egokia eta ulergarria izan dadin. Oraindik ere ikusi da Lanbidek ezinbestekoa ez den edo dagoeneko eman den dokumentazioa aurkezteko eskatzen duela, eta atzerapen nabarmena dagoela alegazioei eta aukerako berraztertzeo errekurtsioei erantzuteko epeei dagokienez. Nabarmenezkoa da oso positiboki baloratu dela kexak izapidetzean prestazioen etetea-ri eta iraungitzea-ri lotutako hainbat arazo konpondu izana.

Jarraian, jasotako kexa nagusiak laburbilduko dira, batez ere, optimizatu beharreko aldeak dituzten kasuei buruzkoak eta Arartekotik kontrako iritzia jaso duten kasuei buruzkoak.

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak izateko eskatzen diren baldintzen inguruan egiten duen **interpretazioan** oinarrituta prestazioak ukatu, eten edo iraungitzea-ri lotuta daude kexa ugari. Arartekoak helarazi dio erakunde autonomo horri bere iritziz gehiegizko interpretazioa egiten ari dela baldintza batzuen inguruan, hala nola “eskubide ekonomiko bat baliaraztea” edo “nahikoa baliabide ekonomiko egiaztatzea” baldintzak egiaztatzean. Ildo horretan, aurreko arazo berri bat antzeman da: gizarte-bazterketan dauden pertsonen bizitzeko baliabideak egiaztatzeo eskatzen zaie, diru-sarrerarik ez dutenean.

Horrez gain, diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria “**lan bati uko egiteagatik**” iraungitzea izan da jasotako kexen arrazoa, prozedura bermatzailerik ez delako, eta seme-alabak zaintzeari lotutako egoera batzuk lanari uko egiteko arrazoi justifikatua dela onartu ez delako.

Beste kexa multzo batek prestazioak eskatu baino lehen jasotako **ezohiko diru-sareren zenbaketarekin** du zerikusia (langilea kaleratzeagatik ematen diren kalte-ordainak, jaraunspenak...); Arartekoaren iritziz, ez dago jardun hori oinarritzen duen lege-xedapenik. Lanbidek arazoa espediente berrietan zuzentzea ahalbidetzen duen barne-jarribide bat prestatu du, baina oraindik ere ez du behar bezala erantzun gaur egun baztertuta dagoen irizpidea aplikatu zitzaizkien espediente zaharren kasuetan.

2019. urtean zehar, Lanbidek jarraitu du **konpentsazio automatikoa** aplikatzen; izan ere, esleitutako prestazioak sortutako zorroekin konpentsatzen ditu, ordaintzean izandako atzerapenaren ondoriozko kredituak direla eta. Horrela jokatu du, Arartekoaren iritzia kontuan hartu gabe; izan ere, erakunde honen arabera, konpentsazio hori ez da aplikatu behar, araudiak esanbidez xedatzen baitu zor horiek aitortutako prestazioetatik kentzeko modua, prestazioak jasotzen dituzten pertsonen egoera aintzat hartzen duena, kasu gehienetan oinarri-oinarrizko gastuak ordaintzeko moduko diru-sarrerarik gabeko pertsonak direla kontuan hartuta. ([Arartekoaren ebazpena, 2018ko irailaren 24koa](#)).

Horrez gain, 2019. urtean, Arartekoak berriz adierazi du bere **desadostasuna diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriarako eskubidea iraungitzearen ondorioen datarekiko, ondorioz prestazioa urtebetez eskatu ezin izatea ekartzen duten kasuetan**. Epe hori aurreko etenaldiaren ondorioz prestazioa eten zen dataren arabera luzatzen da, nahiz eta iraupen handiagoak zigortutako jokabidearekin edo berariazko lege-xedapenarekin zerikusirik ez izan.

Jasotako beste kexa batzuek agerian utzi dute **gizarte-erakundearen tutoretzapeko pisuei** eragiten dien araudia hobetu beharra; hain zuzen, pisu horietan gizarte esku-hartzea egiten da eta diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak diren bizikidetzak unitate bi baino gehiago bizi dira, eta ez zaizkie aplikatzen bizileku kolektiboari buruzko aurreikuspenak, bizileku turistikoari ez bezala.

Bestalde, bizikidetzak unitatearekin zerikusirik ez duten **beste pertsona batzuen ez-betetzeen** ondoriozko zailtasunak, diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriarako eskubidean ondorio negatiboak izaten dituztenak. Adibidez, diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak bizi diren alokairuko etxebizitzaren jabeak alokairu kontratua Bizilagun programan inskribatzeko betebeharra betetzen ez duenean; edo, gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak ezartzeko prozeduratan, ofiziozko letratuak mantenu-pentsioa betearazteko demanda aurkezten ez duenean.

Kexa batzuetan salatu da Lanbide bulegoen **kokapenak** herritarrek nahastu egiten duela, batzuetan Lanbide eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa eraikin berean daudelako. Espainiako Herriaren Defendatzailearen Bulegoak jakinarazi duenez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak zirkular bat bidaliko die enplegu-bulegoetako langileei eta kudeaketa-teknikariei, erregistroko langileek bertara dokumentazioa aurkeztera jotzen duten herritarrekin egiaztatu dezaten dokumentazioa Lanbiden ala EEZPn aurkeztu nahi duten, erregistroan behar bezala jaso eta bideratzeko; era berean, zerbitzu desberdinetako espedienteak kudeatzen dituzten teknikariei eskatuko zaie dokumentazioa berrikerik ezazaten eta, EEZPn zuzenduta badago, ahalik eta lasterren erakunde horri bidal dezaten, ezarritako bideak erabiliz.

Halaber, honako gai hauekin zerikusia duten kexak aipatu behar dira: beste administrazio publikoari lotutako **gizarte larrialdietarako laguntzak ukatzea eta beste prestazio ekonomikoak ukatzea**. Gainera, buruko osasuneko arazoak dituzten pertsonen senideek aurkeztutako kexak aipatu behar dira, pertsona horien beharren arabera baliabide egoki batean sartzeko zailtasunak eta familia-ingurunean zaintzeko aukerarik eza salatzen dituztenak.

Buruko osasuneko arazoak dituzten eta familiaren laguntza jasotzeko aukerarik ez duten edota gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen gaiak kezkatzen du erakunde hau. Jasotako kexek agerian utzi dituzte gizarte-zerbitzuetan pertsona horiei arreta egokia emateko zailtasun handiak.

2. Kexarik aipagarrienak

Atal honetan, Arartekoak 2019. urtean Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari nagusiki zuzendutako ebazpen aipagarrienetako batzuk azalduko ditugu. Diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriaren gaian 2019. urtean egindako gomendio eta iradokizun guztien berri izateko, [2019ko bilduma-dokumentua](#) kontsulta daiteke.

Horrez gain, gizarteratzean eskudunak diren beste administrazio batzuei eragin dieten jarduketan berri ematen da.

Bonu elektriko eta termikoari buruzko kexak kapitulu honetan, ekonomia-jardueraren antolamenduari buruzko atalean aztertu dira.

Aurten, berriz ere, azpimarratu behar da Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari zuzendutako gomendio eta iradokizun gehienak ez direla onartu edo erantzunaren zain daudela oraindik. Izan ere, egindako gomendio eta iradokizun guztietatik (36), bi bakarrik onartu dira.

2.1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea

2.1.1. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu zituen, kexagilea muturreko premiagatiko harreraren egoeran zegoela iritzita, kexagilea —eskaerarekin batera— etxebizitzaren azpielementu-kontratua eta adostutako errenta ordaintzea egiaztatu zuen arren. Balorazioaren oinarri bakarra kexagileak gelaren alokairua ordaintzera bideratzen dituen bizitzeko baliabideak egiaztatu ez izana zen. Ararteko hau ez dator bat Lanbidek egindako interpretazioarekin, gizarte-bazterketaren aurka borrokatzea helburu duen eskubide subjektiboa araudiak berariaz aurrez ikusitako kasuetan bakarrik uka daitekeelako. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko uztailaren 23koa; ez da onartu.](#)

2.1.2. Lanbidek adingabe bat ardurapean duen guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bati ukatu zion diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea, semeari dagokion mantenu-pentsiorako eskubidea baliatu ez izanagatik, kexagileak 10 urtez baino gehiagoz pentsioa ez ordaintzea salatzen zuela jasota egon (25.836 eurotik gorako zorra dago) eta beste gurasoa auzi-ihesean dagoela deklaratu arren (urteak daramatza egonleku ezezagunean). Arartekoaren iritziz, kexagileak bete zuen eskubide ekonomiko guztiak baliatzeko betebeharra. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko uztailaren 30koa; ez da onartu.](#)

2.1.3. Lanbidek hiru adingabe ardurapean dituen guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bati ukatu zizkion diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria,

familiako kide guztiak genero-indarkeriaren biktimaren egiaztatzea izan arren. Ukapenaren arrazoia lanaldi partzialeko bi lanetako bat utzi izana zen (horietako bat lan-kontratu mugagabekoa izanik); horren truke, lanaldi osoko lan bat hartu zuen kexagileak, familia eta lana hobeto uztartzeko, eta lan sustapena eta segurtasuna hobetzeko. Arartekoaren iritziz, bazegoen kausa justifikatu bat lanaldi partzialeko lanetako bat uzteko. [Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 7koa; ez da onartu.](#)

2.2. Etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egitea

Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egin izana adierazi zuen, dokumentazioaren erreferentzia ez zela bete esanez. Erakunde honen iritziz, eskatzen zen dokumentazioa ez zen ezinbestekoa prestazioa emateko. Espediente berean, zenbaitetan azaldu zen arazo bati heldu zitzaion: Lanbidek emandako kontratuen inprimaki normalizatuak, eskatzaileentzat eta eskubideen titularentzat lagungarriak izan badaitezke ere, ez lirateke erabakigarriak izan beharko sinatutako kontratuan jasotako betebeharren izaera juridikoa eta adostutako ordainen erregimena aztertzeko orduan, baldin eta hori aurkeztutako dokumentaziotik ondoriozta badaitezke. Arartekoaren iritziz, eredu horien erabilera borondatezkoa da herritarrentzat, eta ezin da ukapena justifikatzeko arrazoia izan. Gainera, baliteke Lanbide bulegoan emandako informazioa, kasu horretan, desegokia izatea. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko otsailaren 19koa; sailak onartu egin zuen ebazpena.](#)

2.3. Etxebizitzarako prestazio osagarria etetea

Etxebizitzarako prestazio osagarria eteteari buruzko hainbat kexa izapidetu ditu Arartekoak. Izan ere, kexa horietan, kexagileek adierazten zuten ez zeudela ados etetearen ondorioak ezartzeko datarekin, Lanbidek eskaera ukatzeko eguntzat Etxebiden izena emateko eskaerari uko egiteko eguna hartzen duelako, araudiak ezartzen duen izena emateko eskaera aurkezteko eguna aintzat hartu beharrean. Etxebideren erregistroan inskripzioa eskatzen diren mugetara iritsi ez izanagatik ukatzea salatzen duten kexak ere jaso dira; arazo horiek kexa izapidetzean konpondu ziren.

Bestalde, ebatzi ez den espediente bat aipatu nahi dugu; horretan, zalantzan jarri zen errenta ordaintzeko agiriak epean aurkeztu izana eta ordaintzeko era, ez baitzen errentamendu-kontratuan ezarritakoa izan. Arartekoaren iritziz, prestazioak etetea eta erreklamazioa, errenta ez delako kontratuan adierazi bezala ordaindu, iruzurrik edo irregulartasunik gertatu den adierazten duen beste egiaztapenik egin gabe, ez du lege babesik, kontratua alde kontratatzaileen artean ondorioak dituelako eta alda daitekeelako —Kode Zibilaren 1091. eta 1203. artikulua—. [Arartekoaren Ebazpena, 2018ko apirilaren 17koa; sailak ez du ebazpena onartu.](#)

2.4. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria etetea

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria etetea erabaki zuen, ulertu baitzuen kexagileak ez zituela bete gizarteratze-hitzarmenaren bidez bere gain hartutako betebeharrak, ez baitzen joan ikastaro batera. Lanbidek interesdunari jakinarazi gabe inskribatu zuen kexagilea ikastaroan. Espedientea aztertzean, egiaztatu da Lanbidek posta-zerbitzuko gutun ziurtatu bidez —ikastaroa bukatu eta gero— jakinarazi ziola aipatu ikastaroaren deialdi ofiziala. Arartekoak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea eteteko edo iraungitzeko prozeduretan legezko berme egoiak ezartzeko beharra azpimarratu du berriro, arrazoi hori oinarri hartuta. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko azaroaren 15koa](#); **erantzunaren zain dago**.

2.5. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea

2.5.1. Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeek aurkeztutako kexak ikusita, Arartekoak gomendio bat presatu du. Horretan, aztertu egin du Lanbidek eskubide ekonomikoak erabiltzeko betebeharraren eta betekizunaren inguruan egiten duen interpretazioa. Azterketa horren ondorioz, genero-indarkeriako egoeretan ordaintzen ez den mantenu-pentsioa betearazteko demandari lotutako arriskuaren eta efikaziaren arteko oreka aztertzea proposatu da; ildo berean, mantenu-pentsioa ez ordaintzea auzitegietan behin eta berriz salatze eskakizuna aztertze eskatu da. Gainera, proposatu da abian jar daitezkeen gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko beharrezkoak diren neurriak, arretaren jarraitutasun-printzipioa betez, genero-ikuspegia txertatuz eta, hala badagokio, ekintza positiboak ezarri, zerbitzu publiko batek adostutako ekintzak ez daitezkeen eragingabeak izan beste batekin koordinatzeko zailtasunak direla eta. Azkenik, Arartekoak araudia aldatzea iradokitzen du, baliabide nahikorik ez duten eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko baldintzak betetzen dituzten indarkeria matxistaren biktimak modu eraginkorrean babesteko. [Arartekoaren ebazpena, 2020ko urtarrilaren 10koa](#).

2.5.2. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi zion guraso bakarrek bizikidetzaren unitate bati (alaba adingabe bat ardurapean duen emakume bati) lanaldi partzialeko, txandakako eta aldi baterako lan bati uko egiteagatik; gainera, berehala lanean hastea eskatzen zen, hain zuzen, jakin eta hurrengo egunean bertan, abuztu betean. Arartekoaren iritziz, bazegoen legezko kausa justifikatu bat lanari uko egiteko. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko maiatzaren 15koa](#); **ez da onartu**.

2.5.3. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea erabaki zuen, mailegu bat sinatzeak bizikidetzaren

ekonomia-egoera larriagotu zuela ulertu zuelako. Arartekoaren iritziz, mailegu bat ohiko etxebizitza erosteko asmoz hartzeak ez dakar betebeharra ez betetzerik. Gainera, araudiak espresuki adierazten du ez dela ezohiko diru-sarreratzat jo behar. Espedientean gizarte-zerbitzuen txosten bat zegoen jasota; horren arabera, etxebizitza bat erostea onuragarria zen bost adingabe ardurapean dituen familiarentzat. Hori dela eta, Arartekoak ohartarazten du garrantzitsua dela udal gizarte-zerbitzuekin koordinaturik aritzea. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko abenduaren 13koa](#); **erantzunaren zain dago**.

2.5.4. Lanbidek adingabe bat ardurapean duen guraso bakarrek bizikidetzaren unitateari iraungi zion diru-sarrerak bermatzeko errenta, polizia-txosten bat oinarri hartuta, bizikidetzaren unitatearen osaera ez zela egiaztatu ulertu zuelako. Ararteko honek zalantzan jarri du txostenaren forma eta edukia, gure ustez, ez baita frogabide nahikoa; gainera, txostena kexagileari helarazi ez zitzaionez, defentsarako eskubidea erabiltzea eragotzi zitzaion. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko uztailaren 11koa](#); **ez da onartu**.

2.6. Prestazioak berritzeko eskaera ukatzea

Lanbidek etxebizitza baten azpierreantaria zen herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea berritzea ukatu zion, pertsona horren bizikidetzaren unitatearekin zerikusirik ez zuten errentariaren bikotekidea erroldatu izana jakinarazteko betebeharra ez betetzea arrazoitzat hartuta. Arartekoaren iritziz, ez zen betebeharra ez-betetzerik egon, eta besteak beste EKren 9.3 artikuluan ezarritako legezkotasun printzipioaren aurka dago hori. Izan ere, etxebizitzaren errentariaren bikotekidea erroldatu izana ez da kexagilearen bizikidetzaren unitatearen osaeran eragin dezakeen egitate bat, bikotekideak ez baitu zerikusirik bizikidetzaren unitate horrekin; halaber, ez du eragirik prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko erabilgaitasun baliabideetan, eta, azkenik, ez da prestazioa emateko behar diren baldintzetako bat aldi baterako edo behin betiko galtzea ekar dezakeen egoera bat. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko apirilaren 12koa](#); **ez da onartu**.

2.7. Jasotako prestazioak erreklamatzeko

2.7.1. Lanbidek dagoeneko iraungita dauden zenbateko batzuk itzultzeko eskatu dio diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaile bati, hartzaileak garai hartan bere senarra zen pertsonaren diru-sarrerak jakinarazi ez zituelako. Kexagileak garai hartan genero-indarkeria jasaten zuela egiaztatu du, eta, beraz, zenbatekoaren erdia soilik itzularazteko eta zorraren beste erdia senar ohiari erreklamatzeko eskatu du. Lanbidek gaitzetsi du eskaera, araudiaren arabera zorra itzultzeko betebeharra titularrari dagokiola esanez. Arartekoak zorra erreklamatzeko prozedura iraungi egin dela gogorarazi dio Lanbideri, eta araudia aldatzea proposatu du, egoera horiek saiheste aldera. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko abenduaren 10koa](#); **erantzunaren zain dago**.

2.7.2. Lanbidek 2012ko irailetik 2013ko urtarrilera bitarteko aldiari dagokion diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa jasotako prestazioak itzularaztea erabaki zuen, hain zuzen, 1.748,33 euro. “Fede ona” egiaztatuz gero berraztertze ahalmenaren mugak non dauden aztertu zuen Arartekoak, prestazioaren titularrak jakinarazi baitzituen prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartutako baliabide ekonomikoetan eragina izan zezaketen egitateak. Jarduketaren azterketan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epai bat ([Čakarević Kroaziaren aurka](#)) aipatu zen, espedienteak berraztertze ahalmenaren mugak aztertzen dituena. Jurisprudentiako jarrera hori dagoeneko jaso da Bartzelonako Lan Arloko 26. zenbakiko Epaitegiaren 2018ko uztailaren 5eko [epaian](#); epai horrek Giza Eskubideen Europako Auzitegiak babesten duen tesia hartzen du. Gainera, zorra erreklamatzeko egintza preskribatzea aztertu zen ebazpenean. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko martxoaren 15ekoa](#); [erantzunaren zain dago](#).

2.7.3. Lanbidek 10.175,43 euro itzultzeko eskatu zuen, herritarrek prestazioen hartzailea izan aurretik garaje bat saldu zuelako. Arartekoaren iritziz, zorra ez zen bidezkoa, garajearen salmenta prestazioak jaso aurretik burutu zelako. Gainera, prestazioak berrikustean eta erreklamazioan nahikoa ez zen arrazoiketa desegokia erabili zen, eta epe luzeegia igaro ondoren; beraz, preskribatuta zegoen. Hori dela eta, Arartekoaren iritziz, administrazio ona izateko eskubidearen ondoriozko betebeharren aurka jokatu zen. Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartaren 41. artikulua hartu zuen iritzia oinarritzat (Karta Europar Batasunaren Tratatu aldutzen duen Lisboako Ituna sinatu zenetik Europar Batasunaren zuzenbidearen parte da), baita Auzitegi Gorenak 2015eko azaroaren 20an emandako epaian ere (errekurtso-zk.: 1203/2014). [Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 28koa](#); [onartu egin da](#).

2.8. Gizarteratzeko laguntza berezia ukatzea

[Bizkaiko Foru Aldundiak](#) kexagilearen tutoretza bere gain hartu izan zuen, duela urte batzuk. Dagozkion probak egin ondoren, haren adina Fiskaltzaren dekretu baten bidez zehaztu zen, baina, hala ere, interesdunaren jaioteguna ez zuen erreferentziatzen jo, bi urte nagusiagoa den anaiarena baizik. Akats material horren ondorioz, foru-aldundiak uste zuen kexagilea adinez nagusia zela; ondorioz, ukatu zitzaion eskatutako gizarteratzeko laguntza berezia, adingabea izateagatik zegoakia. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko maiatzaren 9koa](#); [onartu egin da](#).

2.9. Beste kexa batzuk

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari dagozkion kexak jaso dira. Kasu batean, gizarte-bazterketako egoeren ebaluazioak atzeratzea aipatu zen; beste kexa batzuk babes-erakundearen tutoretzapeko baliabideetan —babesgabetsun egoeran

dauden adingabeentzakoetan— adin-nagusitasunera heldu diren eta onartuak izateko baldintzak betetzen dituzten gazteei zuzendutako “gazte estrategia” delakoan onartzeko orduan izandako atzerapenari buruzkoak izan dira.

Bestalde, gizarte larrialdietarako laguntzak ukatzeari buruzko kexak ere jaso dira; izan ere, udalek laguntza horiek ukatzen dituzte, eskatzaileak diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko baldintzak betetzen dituela esanez, prestazioaren eskaera izapidetzean, etenda, iraungita edo aurkeztutako berraztertze-errekurtsoari buruzko ebazpenaren zain dagoen kontuan hartu gabe. Arartekoak ofiziozko jarduera bat burutu du, eta sortutako arazoa era orohartzailean aztertuko duen gomendio orokor bat egiteko asmotan dabil.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

3.1. Datu garrantzitsuenak

2019. urtean, [Eustaten 2019ko III. Hiruhileko Kontuei buruzko txostenaren \(ACET\)](#) arabera, enpleguak goranzko joerarekin jarraitzen du; izan ere, urte arteko igoera % 1,6 izan da hirugarren hiruhilekoan.

[Enpleguaren bilakaera](#) positiboa izan da hiru lurralde historikoetan. Bizkaian % 1,7 igo da, % 1,6 Gipuzkoan, eta azkenik, Araban izandako bilakaera positiboa % 1,2 izan da. EAEko langabezia tasa % 9,2 da (iturria: Irekia).

Gainera, EAEko BPGd % 2,1 igo da 2019ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin konparatuta (Eustatek jasotako datuen arabera).

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularren kopuruak beheranzko joerarekin jarraitzen du, eta 2019ko abenduan 52.455 lagun izan dira. Horien % 25 pentsiodunak dira; % 20,3ren lan-egoera ezegonkorra da; % 42,6 langabezian eta % 11,9 lan-merkatutik kanpo dago, desgaitasuna, gaixotasuna edo zaurgarritasun bereziko egoera bezalako arazoak direla medio.

Orkestrak egindako [Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2019ko Txostenak](#) bilakaera ona erakusten du. Adierazle nagusiak, bai ekonomikoak, bai sozialak, hobetu egin dira azken urtean, eta EAE Europako eskualde nagusien artean dago, errentari eta pobrezia tasari dagokienez.

Azterlan interesgarri gisa, SIIS-ek, Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak egindako txostena aipatu behar da: [“Características básicas de las prestaciones de ingresos mínimos en la Unión Europea. Panorama comparativo en 2019”](#), Europar Batasuneko estatu kide guztietan 2019an indarrean egon diren gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko prestazioak aztertzen dituena.

Eustatek egindako jarraipenean, Kontseilu Europarrak 2010ean onartutako Europa 2020 Estrategia dela eta, 2018an, Europa 2020 Estrategiako bederlatzi adierazle nagusietako zortzitan hobetu zen EAE. Europar Batasuneko (EB-28) batezbestekoari dagokionez, bederlatzi adierazle nagusietako lauk hobetu dituzte emaitza. Ezarritako pobrezia-aren adierazleari dagokionez, pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dagoen populazioak okerrera egin du 2008. urtearekin konparatuta, nahiz eta 2014tik 2018ra bi portzentaje-puntu igoera erregistratu; hau da, %22,7 izatetik %20,7 izatera pasatu da, eta Espainiakoa (%26,1) eta EB-28koa (%21,7) baino txikiagoa izan da 2018an.

3.2. Txostenak eta azterlanak

SIISeK egindako *IV estudio sobre la situación de las personas en situación de exclusión residencial grave en la CAPV, 2018* azterlanaren arabera, etxebizitza-bazterketa larriko egoeran dauden lau pertsonetatik batek bakarrik (%23,8) jasotzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta; lau pertsonetatik batek ez daki prestazioa existitzen denik (%25) eta %51,3k badaki existitzen dela, baina ez du jasotzen. Estaldura tasa txikiak kalean lo egiten dutenen ‘etxegabeen’ artean (%6,3) eta gaua aterpetxeetan igarotzen dutenen artean (%14,7) ematen dira, baita gizon atzerritarren artean ere (%10,2). Hala ere, azterlanaren arabera, urteetan zehar diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten ‘etxegabeen’ kopuruak gora egin du: 2012an %19,8 izatetik 2018an %23,8 izatera.

Espainiako beste hiri batzuekin konparatuta, baliabideetan ostatu hartzen dutenen kopurua handia da. Azterlanak kontuan hartu beharreko faktore ugari aipatzen dituen arren, datu interesgarri moduan, Bilbo eta Donostia hirietan, gorakada izan zuen 2018. urtean kalean lo egiten zuten pertsonen kopuruak; 30 urtetik beherako atzerritar gehiago egotea da horren arrazoia. Azken txostena egin denetik, ostatu-plazak areagotu egin dira: %33 Gipuzkoan, %28 Araban eta %19 Bizkaian. Etxebizitza-bazterketa larriak dauden pertsona gehienak gizonezkoak ziren, eta pisu erlatiborik handiena kalean dauden atzerritarrei dagokie. Gora egin du ostatu hartzeko zerbitzuetara jotzen duten emakumeen kopuruak, baita familien kopuruak ere. Nabarmendu beharrekoen artean, aipatzen da portzentaje handi bat lehenago erakunde batean bizi zela (adingabeen zentroetan, espetxeetan, komunitate terapeutikoetan eta abarretan).

Halaber, aipatzekoa da Bizitegi elkartearen txostena: “*Bizitegi-bazterketa egoeran dauden emakumeen errealitateari buruzko ikerketa*”, 2019ko apirilkoa; txostenak emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko gomendio orokorrak eta berriazkoak jasotzen ditu, baita zailtasun egoeran dauden pertsonekin egunero lan egiten lortutako esperientzian oinarritutako jardunbide egokiak ere.

Euskadiko II. FOESSA Txostenak jasotzen duenaren arabera, EAEko lagunen %85 gizarteratuta daude, baina 334.000 pertsona gizarte-bazterketan daude; hau da, populazio osoaren %15,2. Horietako 194.000 gizarte-bazterketa larriak daude, eta 90.000 lagun muturreko bazterketa egoeran. Gainera, txostenak jasotzen duenez, integrazio esparruan

egon arren, 360.000 pertsona inguru ziurgabetasun egoeran daude.

Txostenaren arabera, integrazio maila igo egin da EAEn. Hala ere, bazterketa larriaren kasuak ere areagotu dira; ondorioz haustura soziala handitu denez, EAE gizarte-desberdintasun handieneko autonomia-erkidegoetako bat da estatu mailan.

Bestaldetik, pobrezia- eta bazterketa-arriskua eragiten duten faktoreak etxebizitza, osasun-egoera, mendetasun eta enpleguari lotuta daude.

Enpleguaren gizarteratzeko ahalmenaren galerari buruzko adierazleak oso argiak dira EAEn: 100.000 euskal herritar, nahiz eta lana izan, ez dira gai beren oinarrizko beharrak betetzeko. Lan egiten dutenen %11,4 bazterketa-egoeran daude EAEn, eta gizarte-bazterketaren esparruko familiaren sostengatzaile nagusien %48k lan egiten dute.

Aurten, *Gizarte premiei buruzko inkesta* (2018) argitaratu da. Horren arabera, 2016 eta 2018 bitartean, nolabaiteko egonkortasuna antzeman da pobrezia larriko adierazlean (Eurostat), AROPE tasan eta pobrezia errealeko PGDI tasan, mantentze-pobrezia (diru-sarrerak) lotutako PGDI tasak igoera moderatua izan arren. Berriz nabarmendu da diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarri / gizarte larrialdietarako laguntzetan oinarritutako sistemak jarraitzen du babes erlatiboa ematen pobrezia gainditzeko beharren estalduran; izan ere, babes hori estatuko Administrazio Orokorreko prestazioek —pentsioak barne— ematen dutena baino handiagoa da. Ekonomia hazi eta langabezia jaisten ari den arren, adierazleak ez dira hain positiboak, gizatalde zaurgarriez osatutako familiak daudelako eta gastuak nabarmen igo direlako, diru-sarrerekin konparatuta. Gizatalde ahulenak 45 eta 54 urte bitarteko pertsonak dira, baita 15 eta 24 urte bitartekoak ere. Dinamika horri lotzen zaio —txostenean aipatu bezala— honako paradoxa hau: seme-alabak dituzten familien pobrezia erreala areagotzea, haur pobrezia behera egin arren. Halaber, adierazleek berdintasunik ezaren goranzko joera erakusten dute berriz, 2016-2018 urte-bitartean. Bilakaera negatibo hori gorabehera, Euskadi berdintasunik ezaren maila txikienetako gizarte europarren artean geratu zen 2018an.

Horrez gain, 2019ko 9. txostena “*El Estado de la pobreza, seguimiento del indicador de pobreza y exclusión social en España, 2008-2018*” aipatu da, Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Borrokarako Europako Sarearena. Txostenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa tasa baxuenak dituzten eskualdeen artean dago. Txostenak haur pobrezia, desgaitasuna duten pertsonen eta generoaren garrantziari lotutako aldagaiak aztertzen ditu, aintzat hartzeko elementuak ematen dituztenak.

“*Euskal Autonomia Erkidegoko emakume eta gizonen arteko berdintasuna, 2019*” izenburuko txostenak (Eustat) generoaren ikuspuntutik garrantzitsuena den estatistika-informazioa jasotzen du.

Errenta erabilgarria adin eta sexuaren arabera nola banatzen den nabarmen da; informazio horrek argi erakusten du

gizonezkoen aldeko desoreka, adin talde guztietan, baita gazteen artean ere, proportzio txikiagoan bada ere.

Horrez gain, “[Estudio sobre las familias monoparentales receptoras de Renta Mínima](#)” nabarmendu nahi dugu, Pobreziaren aurkako Borrokarako Europako Sareak (EAPN) 2019an egina. Azterlanak autonomia-erkidegoetan eta hiri autonomoetako guraso bakarreko familiak —gutxieneko errenten hartzaileak— osatzen dituzten emakumeen esperientziei buruzko informazio kualitatiboa jasotzen du, talde horren pobrezia eta gizarte-zaugarritasunaren maila jaistean eragina handiagotzeko gomendio politikoak emanez.

3.3. Beste berritasun batzuk

Arau-aldaketei dagokienez, Bizkaiko Foru Aldundiaren [59/2019 Foru Dekretua](#), [maiatzaren 21ekoa](#), aipatu behar da, gizarte-inklusioaren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duena.

2019. urtean, [Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Euskadiko Udalen Elkartearekin \(EUDEL\) sinatutako lankidetzaz hitzarmena](#), [kalteberatasun-egoerak hautemateari buruzkoa](#) argitara ematen duen ebazpena argitaratu da. Hitzarmenak ebazpen judizial baten ondorioz etxetik kaleratu behar diren pertsonen loturiko prozedura guztietan jarduteko protokolo bat ezartzen du, gizarte mailako neurriak hartzea ahalbidetzeko.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziozko jarduerak

4.1.1. Arartekoak ofiziozko jarduera hasi zuen 2018an, diru-sarrerak bermatzeko errenta irautzeko prozeduraren inguruan; zehazki, **lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesuetan parte-hartzea ez onartzeak edo lan-eskaintza bati uko egiteak** ekarri du prestazioa irautzea. Jarduketa hori Arartekoaren 2017ko diagnostiko-txostenaren 40. eta 41. gomendioak betetzearen jarraipena egitean burutu da. Denbora igaro arren eta hainbat errekerimendu bidali arren, idatziz zein ahoz (egindako bileretan), Lanbidek oraindik ez du erantzunik eman. Arartekoak ezinbestekotzat jotzen du diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea arrazoi horregatik irautzea ekar dezakeen prozeduraren bermeak hobetzea.

4.1.2. Arartekoak ofiziozko jarduera bat amaitu du, honako gai honi buruzkoa: diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea aitortzeko espedientean, langile autonomoei **gutxieneko etekin faltua egotea**. Erakunde honek izapidetutako hainbat kexatan antzeman duenez, Lanbidek jardueraren fikziozko

gutxieneko etekin bat egotzen die langile autonomo guztiei, haiek aurretiaz egindako zerga-aitorpena izan edo ez. Ondorioz, legokiekeen lan-sarreraren prestazio osagarriaren zenbatekoa murriztu, baita ere eten egiten du, eta, gainera, us-tez bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatzen die. Arazo horiei buruzko kexak izapidetzean ikusitako akatsak eragin dituzten irizpideak berrikusi eta argituko dituela erantzun du Lanbidek. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko ekainaren 14koa](#).

4.1.3. Erakunde honek **genero-indarkeriaren egoera egiaztatzeko modua** dela eta ofizioz hasitako jarduera bat amaitu du. Erakunde honen iritziz, gaur egungo arau-esparruak etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima izatea gizarte-txosten baten bidez egiaztatzea ahalbidetzen du. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko maiatzaren 13koa](#); **ez da onartu**.

4.1.4. Arartekoak ofiziozko jarduera bat hasi du, **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak aldatu, eten, iraungi eta erreklamatzeko abiarazten dituen administrazio-prozeduren izaera** aztertzeko. Jarduera horretan, Lanbideren esku-hartzea hasi denetik prestazioak erreklamatzeko modua aztertu da, prestazio horiek eteteko eta irautitzeko prozedurak erreklamazioari lotuta dauden ala autonomoak edo independenteak diren jakiteko. Prestazioak erreklamatzeko prozedurak, dirudienez, autonomia propioa zuen, edo gutxienez, tratamendu hori eman zaiola duela gutxi arte. Irudipen hori okertzat jo daiteke orain, zer-nolako ebazpen judizialak eman diren aintzat hartuta; izan ere, ebazpen horietan adierazten da, diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria irautitzea edo etetea erabakitzen duen ebazpenaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa ezesteko ebazpena bide judizialek nahitaez errekurtitu behar dela, prestazioak erreklamatzeko prozedura eskatu den benetako arrazoiak aurkaratu ahal izateko (adibide gisa, Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, 2018ko abenduaren 11koa). Erakunde honen iritziz, erreklamazio-prozeduraren hasiera aukerako berraztertze errekurtsoa formalizatzeko epea igaro ondoren egiteak babesgabatasun egoera eragin dezake, gehienetan pertsonak ez baitituzte ezagutzen dagokion errekurtsoa aurkeztearen garrantzia eta ondorioak. Arartekoak adierazi zuenez, prestazioak eten, iraungi edo aldatzeko ebazpenetan, ebazpen horietan agertzen diren eta itzuli behar diren zenbatekoei buruzko betearazpen-tituluak direnez, garrantzitsua da horien aurka errekurtsoak jartzeko beharrari buruzko informazioa gehitzea.

Lanbidek erantzun du ebazpenen edukian sartu dela haien aurkako errekurtsoa jartzeko beharra, itzultzeko moduko zenbatekoekin ados egon ezean; halaber, jakinarazi du jarraibideak eman dizkiela bulegoei, ebazpenak errekurtzearen garrantziaren berri eman dezaten.

4.1.5. Arartekoak amaitu du bere ofiziozko jarduera; horren bidez, **Lanbidek emandako 1/2015 Zirkularra**

—bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko baldintzak zehazteari buruzkoa— aldatzeko proposamena helarazi dio erakunde horri. Zirkularra, aurreko egoerarekin konparatuta, aurrerapen garrantzitsua izan arren, diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako zenbateko handiak itzuli behar zituzten titularren ahulgarrtasun-egoerei erantzun zielako. Hala ere, Arartekoaren iritziz, Zirkularreko aurreikuspenak hobetu behar dira, izan duen ibilbidea eta aplikatzean eragin dituen arazoak kontuan hartuta. Arartekoaren aburuz, itzuli beharreko zorra zatikatzearen ondoriozko zenbatekoa bizikidetzaren unitatearen bizitzeko gutxienekoa bermatzeko helburua ziurtatuko duten elementu objektiboek soilik zehaztu behar dute; izan ere, hala egin ezean, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta gizarteratzeko prestazioaren izaera eta legearen helburua indargabetzen ariko litzateke. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko abenduaren 26koa](#).

4.1.6. Arartekoak amaitu egin du prestazioen eskatzaileek edo titularrek aurkeztutako hainbat kexatan antzemandako arazoan inguruko ofiziozko jarduera; hain zuzen, herritar horiek **ondasun higiezin baten edo biziarteko gozamen batekin kargatutako ondasun baten jabetza soil** —**osoa edo partziala**— **jaraunsi dute**, eta ondare-mugari buruzko aurreikuspenak aplikatu zaizkie; ondorioz, ez dute betetzen baliabide nahikorik ez izateari buruzko baldintza. Hori guztia, praktikan, jaraunspenean jasotako higiezinaren biziarteko gozamena amaitzen ez den artean, hura erabili ezin den arren; hortaz, ezin da esan bere ahalmen ekonomikoa areagotu denik. Lanbideri helarazitako gogoetei erantzunez, erakunde horren zuzendari nagusiak jakinarazi dio Arartekoari araudi-garapen berrian berrikusten ari direla bai etekinen mugak, bai horiek zenbatzeko modua, batez ere ondasun higiezinak jaraunspenean hartu dituzten kasuetan. [Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 5koa](#).

4.1.7. Erakunde honek amaitu egin du **diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak izateari utzi dioten pertsonaei egiten zaizkien jakinarazpenen** inguruko ofiziozko jarduera. Izan ere, jakinarazpen horien bidez, prestazioak itzularazteko prozedurako izapideak jakinarazten zaizkie. Arartekoak honako gai honi buruzko kexak jaso ditu herritar batzuegandik: Lanbideek harreman juridiko-administratiboa amaitu zenetik hainbat hilabete eta are urte batzuk ere igarota itzularazteko prozedura ireki dizkie, herritar horiek helbide-aldaketa jakinarazteko betebeharra zegoenik jakin ez zuten arren. Izan ere, zorra omen dutela jakin dute, betearazpen-bidera jo ondoren sail eskudunaren jakinarazpena jaso dutenean. Lanbideek urteetan zehar aplikatzen zuen jardunbidea hobetu egin da; izan ere, informazio gehiago ematen dute, adibidez, prestazio-espeditenteak berrikusteko aukerari buruz. Hala ere, Arartekoak aztertutako espeditenteetan hobetzeko tarte handia zegoen oraindik ere. Eusko Jaurlaritzak deuseztatu egin zituen kasu horietan betearazpen-bidean zeuden erreklamazioak. [Arartekoaren ebazpena, 2020ko urtarrilaren 10ekoa](#).

4.2. Bilerak administrazio eta zerbitzu publikoekin

Ararteko erakundeko langileek hainbat bilera egin dute Lanbidekin, jasotako kexak izapidetu beharra eta hasitako ofiziozko jarduerak direla eta; bilera horietan kexetan azaldutako zenbait kontu eztabaidatu dira, baita prozedurari lotutako gai batzuk ere. Jorrotutako gaien artean, udal gizarte-zerbitzuen eta Lanbideren arteko harremana azpimarratzen da. Gogorarazi da Lanbideren irizpideek gizarte-zerbitzuen txostenak egitea aurreikusten dutela, baldintzak betetzen direla ala ez erabaki aurretik inguruabar jakin batzuk egiaztatu behar direnean; hala ere, udal batzuetan txostenak ez dira egiten. Halaber, proposatu da lanerako orientazioaren inguruko txostenak egiteari buruzko aurreikuspena, lana borondatez uzten denean, eta beste berme batzuk gehitzea, Arartekoaren iritziz, beharrezkoak baitira eskubidea iraungitzea erabaki ahal izateko. Jorrotutako beste arazo batzuk araudiaren interpretazioari lotuta zeuden, baita diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu aurretik jasotako diru-sarrerak aintzat hartzen diren egunaren lege-oinarriari ere. Lanbideek jarraibide bat prestatu du, eskaeraren aurretik jasotzeko ezohiko diru-sarrera horiek noiz zenbatu behar diren argitzeko. Horrez gain, nabarmendu dira, batetik, eskubide ekonomikoa baliarazteari buruzko baldintzaren interpretazioari lotutako kontuak, bereziki, baldintza hori genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei eragiten dienean, eta bestetik, jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria aurkezteko zailtasunak.

Aipatu behar da, gainera, [Bilboko Udalarekin](#) egindako bilera, Lanbidearekin eztabaidatutako arazoetako bati buruzkoa: diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriaren espeditenteetan aurkezteko gizarte-txostenik ez egitea. Arartekoaren iritziz, txosten horiek beharrezkoak dira bizikidetzaren unitateen egoera zehatza azaltzeko.

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako bilerak aipatzen dira, “Gazte Estrategia” delakoari buruzkoak, programan onartuak izateko baldintzak betetzen dituzten gazteak onartzea atzeratu egiten delako. Egoera horren azterketa etorkinei eta kultura aniztasunari buruzko atalean jaso da, txosten honetan.

Bilera horietako batean, gainera, honako gai hauek jorratu ziren: gizarte-bazterketa egoera ebaluatzeko eskaerak areagotzea, eta, horren ondorioz, balorazioak egitean, orientazioa ematean eta baliabideetara bidaltzean gertatzen diren atzerapenak, [Bizkaiko Foru Aldundiak](#) azken urteotan programak areagotzeko eta gizarte-bazterketan dauden pertsonen artean hobetzeko ahaleginak egin zituen arren.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. EAEko ekonomiak jarraitzen du hazten, eta langabezia tasa % 10 baino txikiagoa da; aldi berean, badaude egiturazko ahulguneak, gizatalde ahulei eragiten dietenak, batez ere, guraso bakarreko familiei, prestakuntza maila

baxuko langileei, denbora luzez langabezian daudenei, gazteei eta osasun-arazoak edo muga funtzionalak dituzten pertsoneri. Enplegu ezegonkorrak jarraitzen du errealtatean izaten, eta ondorioz, egoera oso ahula duten familiak daude, soldata txikia edo aldi-baterakotasuna dela eta, lana izatea eta pobrea ez izatea ez baitaude lotuta.

Euskal administrazio publikoak gizarte-babeserako, lanprestakuntzarako eta –aktibaziorako politika publikoak garatzen ari dira, eta laguntzen diete gizarte-erakundeei esku-hartze sozialeko programetan, baita kolektibo kalteberak laneratzen laguntzeko programetan ere. Gainera, badago diskurtso publikoa, gizarte-politiketan eta enpleguan inbertitzea legitimatzen duena, eta hori positibotzat jotzen da. Politika horiek pertsona ahulenen beharretara egokitzea funtsezkoa da gizarte-arrakala saihesteko.

5.2. Egindako ahaleginei esker, Euskal Autonomia Erkidegoak jarraitzen du pobrezia gutxien duten Europako eskualdeetako bat izaten; hala ere, arreta jarri behar da proportzio handiagoan Europar Batasunetik kanpoko pertsoneri eragiten dieten desberdintasun-egoera larrien arriskuen berri ematen duten txostenetan. Soldata-desberdintasunari eta genero edo adinaren ondoriozko desberdintasunei aldaketa teknologikoaren ondoriozko desberdintasun-egoerak gehitu behar zaizkie, kontuan hartzea eskatzen duen adimen artifiziala erabiltzearen ondorioz.

5.3. Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemak ematen duen gizarte-babesa ezinbesteko bihurtzen da gaur egungoa bezalako hazkunde ekonomikoan gerta daitezkeen muturreko pobrezia egoerak saihesteko, ekonomia-sektore eta populazio talde batzuetan errentak etengabe igotzen direnean.

Alabaina, prestazioak baldintzatzeak, nahikoa baliabide ekonomikoak egiaztatzea alde batera utzita, dilema etikoak eta kohesio sozialekoak sortzen ditu. Hori dela eta, aztertu beharke liriteke gaur egungo arau-esparrua eta hura aplikatzeko zailtasunak, gizarte-bazterketako egoeran —eta batez ere etxebizitza-bazterketan— dauden pertsoneri bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak bermatzen dituzten prestazioak eskuratzeko oztapatzen dutenak. Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi duenez, **baldintzak eta betebeharrak betetzen direla zaintzea eta nahitaezko kontrola beharrezkoak badira ere, kolektibo kalteberak ezin dira denbora tarte luzez bizitzeko minimoa jaso gabe egon, are gehiago, egoera horrek haur eta nerabeei eragiten badie.** Bizitzaren lehen etapan berdintasunik eza oztopo nagusia da belaunaldi arteko mugikortasun sozialerako, eta ondorioz, bizitzan zehar beharrezkoa den aukera-berdintasunerako. Horrez gain, jokabide jakin batzuei erantzuteko orduan, balio txikiagoko elementuak dauzkaten erantzunetan proportzionaltasun-printzipioa aplikatu behar dela ematen du.

5.4. 2019. urtean ere ez dago Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legearen erreforma aintzat hartzen duen arau-esparrurik. Erreforma behar-beharrezkoa da administrazio publiko eskudunen jardueren segurtasun juridikoa

hobetzeko. Bide horretan aurrera egiteko, goresgarria izango litzateke inplikaturako alde guztien arteko adostasuna eta gizarte-eragileen parte-hartzea. Araudiaren xedea biztanle ahulenei arreta ematea da; hori dela eta, araudiak bermatu behar du diru-sarrera nahikorik ez duten pertsonak eraginkortasunez babestea, eta lan-aktibaziorako neurri egokiak proposatzea. Arartekoak **diagnostiko-txostena, Lanbideko diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen**a, aipatu nahi du, baita hainbat gomendio eta iradokizun ere; horien artean, hobetzeko proposamenak nabarmendu behar dira.

5.5. Kexa-espeditente ugariri eman zaie konponbidea eta, kasu askotan, Lanbideren jardura arau-esparruarekin bat zetorrela egiaztatu da; hala ere, Arartekoak oraindik ere baditu desadostasunak erakunde horrekin. Izan ere, 2019. urtean, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez ditu onartu Arartekoak egin dizkion iradokizun eta gomendio gehienak. Horien artean, nabarmentzekoak dira, batetik, prestazioak ordaintzen ez den mantenu-pentsioa erreklamatu izana ez egiaztatzeagatik ukatu, iraungi eta eteteo erabakiei buruzkoak, batez ere **genero-indarkeriaren egoeretan**, baita beste egoera ahul batzuetan ere; bestetik, kasu batzuetan, ez da kontuan hartzen guraso bakarreko familietako **adingabearen interes gorena**, eta hori espeditente askotan gertatzen da. Adingabeen interes gorena haur eta nerabeei eragiten dieten erabaki eta jarduketan guztietan hartu behar da kontuan, eta ez, Lanbideko aipatzen duenez, adingabea eskubideen subjektua denean.

Lanbideren zerbitzu orokorrek, aipaturako gabeziak alde batera utzita, ahaleginak egin dituzte Lanbide bulegoen jarduketak koordinatu, sistematizatu eta homogeneizatzeko. Hori ez da oztopo beharrezkoak diren hobekuntzak egiten jarraitu behar direla azpimarratzeko.

5.6. Bizileku egokia eskuratzeko aukera kezka handiena da, eta gizarte-bazterketaren arriskuan dagoen populazioaren zailtasunik handiena. **Etxebizitza**, txosten ugariren arabera, gizarte-zailtasunen iturri nagusia bihurtzen ari da Euskadin. Hori dela eta, praktikan, formula jakin batzuk garatu dira familia-loturarik ez duten pertsonen kolektibo horrentzat alokairuan dauden etxebizitza gutxi partekatu ahal izateko. Helbide batean benetan bizi direla egiaztatzen duen titulu juridiko bat eskatzea zailtasun handia izaten da gizatalde horrentzat, diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak eskuratzeko.

Etxebizitza-bazterketaren egoeran dauden pertsonen kopuruak gora egin duenez, eta, egin diren txostenek esker, talde horren ezaugarriak eta behar espezifikoak hobeto ezaugarritzen direnez, premiazkoa da talde desberdinen —emakumeen, seme-alaba adingabeak dituzten familien— beharren arabera neurri egokiak hartzea. Ildo horretan, aipatu behar dira, besteak beste, etxerik gabeko pertsonentzako estrategian (2018an onartuan) aurreikusitako ekintzak, edo “housing first” programetan egindako ebaluazioen ondoriozkoak; azken horrek arreta berezia jartzen du bizileku nahikoak eta

neguko tenperatura baxuei aurre egiteko prebentzio-neurri egokiak izatearen garrantzian.

5.7. Lanbideko erabiltzaileen artean gizarte-bazterketa larrian dauden pertsonak edo genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak daudenez, **gizarte-zerbitzuek lankidetzan eta koordinatuta aritu behar dute**, egoera horietan elkarreraginean baitaude askotariko faktore dimentsioaniztunak, hala nola lan, prestakuntza, osasun, adinari eta harreranei lotutakoak. Gizarte-zerbitzuek pertsonak gizarteratzeko eskumena dute; hori dela eta, Arartekoak behin baino gehiagotan azpimarratu duenez, lankidetzan eta koordinatuta aritzeko prozedurak ezarri behar dira, administrazio eskudun guztien eginkizunak bateratzen dituztenak. Gizarteratzearen arloan egindako jarduketetan egiaztatu da lehenbailehen hobetu behar direla komunikazio, koordinazio eta lankidetzarako bideak.

5.8. Lanbideko diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak ukatu, eten edo iraungitzeak, askotan, **bizitzeko minimoa galtzea** dakar. Egoera horietan, familiek udal gizarte-zerbitzuetara jotzen dute, gizarte larrialdietarako laguntzak eskatzera. Udal gizarte-zerbitzuek, batzuetan, ez dituzte eskaerak izapidetzen, Lanbideren ebazpena gizarte larrialdietarako laguntzak ukatzea arrazoitze nahikoa dela uste dutelako; horrek, kasu

batzuetan, zaurgarritasun larriko egoerak eragiten ditu, alokairua ordaintzen ez delako. Arartekoak bere iritzia adierazi du: udalek gizarte-diagnostikoa egin behar dutela, eta familiaren behar sozialak ebaluatu, araudiak ezartzen duen bezala.

5.9. Gainera, gizarte-bazterketa eta etxebizitza-bazterketa larrian dauden pertsonak izaten dituzten **buruko osasuneko arazoak** direla ere, neurri zehatzak garatu behar dira arlo soziosanitarioan. Hainbat txostenak errealitate horretaz ohartarazten dutenez, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak parte hartzea, pertsona horiek behar duten arreta batez ere gizarte-zerbitzuek eman behar izatea saihesteko. Gizarte-bazterketa larriko egoerak areagotu denez, beste administrazio publikoek hausnarketa egin behar dute askotariko beharrei erantzun ahal izateko, eta ostatu- eta osasun-baliabideen eskaerei berariazko arreta emateko; horrek ahalbidetuko luke aurrera egitea osasun eta gizarte arloetako langileen arteko koordinazioan, baita sarbidea eta alta emateko prozesuak berrikustean ere, arretaren jarraipena egiteko.

5.10. 2020an, **gizarte-zerbitzuen plan estrategikoaren** ebaluazioa egiteko asmoa dago, hain zuzen, planeko adierazleak eta mapako helburuak betetzeko maila zehazteko; horri esker, euskal gizarte-zerbitzuen sistemaren hedapen eraginkorraren egoera ezagutuko da.



II. atala

5

Justizia

◀ Aurrekoa ikusi

1. Arloa kopurutan

Justiziaren arloan guztira 33 kexa-espeditente berri ireki dira 2019. urtean; hau da, Arartekoak urtean zehar izapidetzera onartutako guztien % 1,39. Jarraian, espeditente horien banaketa azalduko da, arloka:

- Justizia Administrazioaren eta bulego judizialaren funtzionamendua 15
- Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak 5
- Familia elkarguneak 5
- Doako laguntza juridikoa 4
- Beste elkargo profesional batzuk 2
- Justizia administrazioaren giza- eta diru baliabideak 1
- Erregistro zibila eta jabetza erregistroa 1

Urtean zehar izapidetutako espeditenteei dagokienez, txosten hau amaitzean egoera honetan zeuden:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
58	7	51	17	7	24	3

Hala ere, horiek ez dira Arartekoan aurkeztu diren eta Justiziako Administrazioarekin zerikusia duten kexa bakarrak. Arlo honi dagokionez, izapidetu ezin izan ditugun beste erreklamazio batzuk jaso ditugu, gure eskumen-eremutik kanpo geratzen direlako:

2019an, kexa horietako batzuetan bi kontu espezifiko agertu dira iturri moduan:

1. **Genero-indarkeriaren egoerei lotutako arazoak, tartean ardurapeko seme-alabak eta bisita-araubide bat daudenean;** hain zuzen, aitaren (zaintza ez duen gurasoaren) familiakoek, aitonek edo amonek, jakinarazi digute bilobak bisitatzeke zailtasunak izaten dituztela, gehienetan,

aitari ez bezala, berriazko bisita-araubiderik ezartzen ez zaielako. Arartekoaren eskumen-eremua Administrazioak eskubideak urratzen dituen egoeretara mugatzen denez, horrelako kasu guztietan Arartekoaren esku-hartzearen helburu nagusia izan da kexagileei aholku ematea auzitegietan euren eskubidea baliarazteko moduari buruz.

2. **Abokatuen eta beren lanbidean dagozkien elkargo profesionalen babespean jarduten duten beste profesional batzuen (2019an, besteak beste, albaitarien eta finken administratzaileen) lanbide-jardunbideari buruzko kexei dagokienez,** Arartekoaren esku-hartzeak, aurreko urteetan bezala, bi norabide izan ditu: batetik, abokatuak bere jokabidearen ondorioz izan lezakeen diziplina- edo ondare-erantzukizuna haren lanbide-elkargoan nahiz auzitegietan galdatzeko moduari buruz aholku ematea; bestetik, elkargoan erreklamazioa jarriz gero, elkargoak nola izapidetzen duen gainbegiratzea, ebazpena zentzuzko epean emango duela bermatzeko eta salaketan planteatu zaizkion kontu guztiei buruz, legeak eskatzen duen bezala, erantzun oinarri duna eta arrazoi-tua emango duela bermatzeko. Kontuan izan behar da profesionalen elkargoak zuzenbide publikoko korporazioak direla, eta nortasun juridiko propioa eta beren xede publiko zein pribatuak betetzeko gaitasun osoa dutela; hortaz, izaera mistoa dute. Beraz, oinarri pribatua duten erakunde korporatiboak dira, aldi berean legeak esleitzen dizkien edo eskuordetzen zaizkien egiteko publikoak betetzen dituztenak. Funtsezkoa da azpimarratzea [urriaren 1eko 39/2015 Legeak](#), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen aplikazio-eremuan jasotzen dituela, 2.4 artikuluan honako hau esaten duenean: *“Zuzenbide publikoko korporazioek beren araudi espezifikoari jarraituko diote legez esleitu zaizkien edo administrazio publikoren batek delegatu dizkien eginkizun publikoak betetzean, eta, modu osagarrian, lege honi”*.

Bestelako kontua da erantzun hori kexagileen arabera zuzena den ala ez (39/2015 Legearen 35. artikularekin bat, gutxienez, *“egitateak eta zuzenbideko oinarriak labor”* adierazi behar dira), baita salatutako jarduketari buruz elkargoak *lex artis* delakoaren eta kode deontologiko egoikiaren argitan egindako balorazioaz kexagileek duten iritzia ere. Arartekoak ezin du bi eremu horietan esku hartu, eta inork erabakitzeotan [Legelarien Euskal Kontseiluak](#) erabaki beharko luke horri buruz.

Horrez gain, gure eskumen-eremutik kanpo geratzen diren beste kexa batzuk planteatu dira:

- **Estatuko administrazioaren** organoen jardunak. Sortutako kexak Arartekoak Estatu mailan duen homologoari bidaltzen dizkio, informazio garrantzitsuarekin eta, hala badagokio, erakunde honen irizpenarekin batera.
- **Epaitegien erabakiak.** Izan ere, duten independentzia dela eta, ezinezkoa da Arartekoak edo jurisdikzionala ez den beste edozein instantziak berrikustea. Kexa horietako batzuek ebazpenari berari eragiten zioten, eta, beraz, kasuan kasuko errekurso-bide egokietara jotzeko esan behar izan diegu haiek aurkeztu dituzten pertsonen; beste batzuk, berriz, *sub iudice* zeuden auzietan aurkeztutako txostenen edo frogabideen buruzkoak ziren eta, ondorioz, prozesuaren beraren esparruan haztatu behar zen haien baliozkotasuna; azkenik, zenbaitetik gobernu-gaiei egiten zieten erreferentzia, eta halakoak Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari, Fiskaltzari edo **Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia** Ikuskapen Zerbitzuei jakinarazi dizkiegu.

Hala ere, kasu horietan ere, erakunde honen irizpidea da esku hartzeko dauden aukera guztiak agortzea, Arartekoarengana jotzen duten pertsona guztiak topatutako oztipoak gainditzeko, eta hala badagokio, auzitegietan euren bidezko eskubideak eta interesak baliatzeko. Txostenaren xede den urtean ere gauza bera egin dugu, batez ere, aurkeztutako kexen —formalki izapidetzeko aukeretatik haratago— benetako defentsa-gabeziako egoerak salatzen zituztenean. Halakoetan, gure kezka izendatuta zegoen defentsako abokatuarekin koordinatuta garatu diren **kudeaketa informale**n bidez helarazi diegu epaitegiei, kasu guztietan, bi printzipio errespetaturik: alderdien arteko inpartzialtasuna, eta *sub iudice* dauden gaitan edo jurisdikzio-bidean ebazitako auzietan esku hartzeko eskaera orori uko egitea.

Kudeaketa horietan azaldutako gaiei dagokienez, urte honetan azpimarratzekoak dira **gabeziak**, bai gure epaitegi eta auzitegietako erabiltzaileei ematen zaien informazioan, baita Justizia Administrazioaren zerbitzura lan egiten dutenek ematen dieten tratuan ere. Ildo horretan, bereziki esan gura da **4/2015 Legeak, apirilaren 27koak, Delituen Biktimaren Estatutuarenak**, biktimari dagokion informazio-eskubidea ezartzen du; izan ere, legearen arabera, biktimak informazio zabala eta bere egoera pertsonalaren eta ulertzeko gaitasunaren arabera egokitua jasotzeko eskubidea du. Era berean, biktimak izendatutako pertsona batekin etortzeko eskubidea eta jasan zuen delituagatik irekitako auziaren berri izateko —bera bertaratzen ez bada ere— eskubidea onartzen zaizkio. Epaiketa noiz izango den jakinaraziko zaio, eta honako hauen berri emango zaio: emandako epaiak eta artxibatutako erabakiak; auzipetuari kautela- eta askatasun-neurriak ezarri izana; agintari judizialen edo espetxe-agintarien ebazpenak, biktimaren segurtasuna arriskuan jar dezaketenak (adibidez, irteteko baimenak), baldin eta biktimak alde aurretik eskatzen badu edota tartean arrisku-egoera edo urrutze-agindua badago. Genero-

indarkeriaren biktimei auzipetuaren egoerari buruzko informazioa emango zaie (aske utzi dutela, ihes egin duela, kautela-neurriak dituela), biktimak informazio hori eskatu beharrik gabe, baldin eta informaziorik jaso nahi ez duela berriaz adierazi ez badu. Eskubide hori gauzatzea ezinezkoa izango litzateke Euskadiko justizia-administrazioan **Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren** esku-hartze espezializaturik gabe. Izan ere, zerbitzua era aktiboan aritzen da lankidetzan Arartekoarekin egoitza judizialean babes premia handiena duten pertsonen arreta ematen, informaziorako eta tratu egoki eta profesionala jasotzeko eskubidea bermatze aldera, gainerrako eragile juridikoekin elkarlanean, batez ere Fiskaltzarekin, biktimen babes prozesala zaintzeko ardura, laguntza eraginkorra jaso dezaten aurreikusitako mekanismoak sustatuz, **Ministerio Fiskalaren Estatu Organikoan** dagoeneko agertzen baitzen, 1981etik aurrera.

Dena den, esan beharra dago gure lanaren alderdi hori ez zatekeela posible izango **Epailetzak** eta **Fiskaltzak** une oro lagundu izan ez baligute. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari eskertu egin behar diogu izan dugun komunikazio malgua eta erraza. Haren esku-hartzea eta **Justizia Administrazioaren letratuengandik jasotako harrera** funtsezkoak izan dira egoera horiek ebazteko.

2. Kexarik aipagarrienak

Segidan, Arartekoak gure epaitegi eta auzitegietako erabiltzaileei emandako laguntzaren eredu diren bi esku-hartzeren adibideak emango ditugu, xehetasun gehiagoz.

2.1. Arabako Abokatuen Elkargoko ofiziozko txandako Batzordearen ebazpenen -kexa baten ingurukoan- arrazoiei buruzko azalpenik eza

Salatutako egoera: Herritar batek kexa aurkeztu zuen Arabakoan, lehenago kexa bat aurkeztua baitzuen, Arabako Abokatuen Elkargoan, genero-indarkeriako auzi baten harira ofizioz esleitu zioten eta elkargo horretako kidea zen abokatuaren aurka. Zehazki, profesionalen elkargo horren batzordeak eman zion erantzunagatik kexatu zen interesduna Arabakoan, bere iritziz, aurkeztu zituen alegazioak behar bezala aztertu eta kontuan hartu ez zirelako.

Arartekoaren esku-hartzea: Egitateak ikusita, Arartekoak elkargoko dekanuari bidalitako gutunean adierazi zuen ez zela Arabakoaren eginkizuna abokatu horren jokaera baloratzea, baina bai, ordea, elkargoak salaketa izapidetzeko eta haren ebazpena arrazoitzeko orduan izandako jokabidea, baita emandako ebazpena arrazoitzeko modua ere. Hortaz, laguntza eskatu zion, kontu horren harira ordura arte egindako jarduketa guztien kopiak helarazteko.

Emaitza: Erakunde honek ofiziozko txandako batzordeak burutu zituen jarduketaren guztien kopia jasota, ikusi zen kexagileak azaldutako egitateen bertsioa emateko eskatu zitzaizola salatutako abokatuari; hark eman zuen bere bertsioa, baina, hala ere, Arabako Abokatuen Elkargoko Gobernu Batzordearen ebazpenean ez zen agertu kexa artxibatuzko erabakia hartzeko arrazoia, eta erabakia ez zen beste argudio, motibazio edo txosten batean oinarritu. Hori dela eta, erakunde honek [Arartekoaren urriaren 3ko ebazpena](#) eman zuen. Bertan adierazi du ez dela Arartekoaren eskumena elkargo profesionalen ebazpenak honen arabera baloratzea, elkartekideen praxi profesionala beren kode deontologikoarekin bat etorritik zehazten duten elkarte gisako erakundeak direlako. Dena den, legegariak esleitzen dizkien funtzio publikoak egikaritzen dituztela-eta herri-administrazioetat jotzen direnez, elkargo profesionalak horri buruz jasotzen dituzten salaketekin arduraz jokatu behar dute; gainera, beharrezkoa da xede horretarako estatutuek ezarritako mekanismoak atzerapenik gabe funtziona dezaten, eta azkenean hartuko den erabakia salaketak mahai gainean jarritako berariazko gai bakoitzari argi eta behar bezala arrazoituz erantzutea.

Ondorioz, azaldutako egitateak kontuan hartuta, Arartekoak gomendatu du Arabako Abokatuen Elkargoko Gobernu Batzordeak ebazpenak arrazoitu ditzala, elkargo horren kideen aurkako kexa-prozedurei amaiera ematen badiete, eta, oro har, profesionalen elkargoak izapidetutako prozeduretan herritarren eskubideen bidezko egikaritzari eragiten badiete, [Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen \(39/2015, urriaren 1ekoa\)](#) 35. artikuluan ezarritakoari jarraituz, indarrean dagoen legeriarekin bat. Aipatu artikulua dioenez, gutxienez, “*egitateak eta zuzenbideko oinarriak labor adieraztea*” eskatzen du horrek.

Gainera, Arartekoaren iritziz, arrazoitzeak hartutako erabakia justifikatzen duten motibo edo arrazoiak —modu arrazoituan— adieraztea eskatzen du; arrazoitze horrek garrantzi handiena du, agertzen ez bada, herritarrek dituen defendatzeko aukerak mugatzen direlako, bai administrazio-bidean, bai auzibidean, kentzen baitzikio dagokion errekursoa presatzeko edo ondorengo prozedura judicial bat hasteko argudioak.

2.2. Ofiziozko jarduera, Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Vitoria-Gasteizko Epaitegi berrian genero-indarkeriaren biktimek izaten dituzten segurtasun-arazoak direla eta

Salatutako egoera: 2018ko erdialdera, justizia-administrazioko langileen ordezkariei adierazpen kezkarriak azaldu ziren egunkarietan. Protesta egiten zuten, Arabako hiriburuko Justizia Jauregian dagoen Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Vitoria-Gasteizko Epaitegiko bulegoak eraberritzeko lanen ondorioz, okerrera egin bailezake emakumeen segurtasunak, erasoak jaso ondoren ingurune segurua eta babesa behar izan arren. Arartekoak ofiziozko

jarduera hasi behar zela erabaki zuen, Arartekoaren solaskide nagusia Lan eta Justizia Saila izatea alde batera utzita, halaber, justizia-administrazioko langileen eta eragile juridikoen (Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Sala, Fiskaltza, [Biktimari Laguntzeko Zerbitzua](#) eta Abokatuen Elkargoa) iritzia lortzeko. Helburua diagnostikoa egitea eta hobetzeko tarteari modu koordinatuan heltzea zen, Euskadiko emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegi eredurantz aurrerapausoak batera emateko, eredu horrek biktimei [4/2015 Legeak, apirilaren 27koak](#), delitu-biktimaren estatutuari buruzkoak, aitortzen dizkien eskubideak eraginkortasunez erabiltzea bermatu eta bigarren mailako biktimizazioa saihestuko duelakoan.

Arartekoaren esku-hartzea: Lan eta Justizia Sailak erantzuna bidali zion Arartekoaren informazio-eskaerari; horren bidez, jasota utzi zuen aipatu eskaera biktimen eskubideak —batez ere, bereziki zaugarriak diren kolektiboek— errespetatu behar dituzten azpiegitura judicialak egokitu behar diren testuinguruan kokatzen zuela.

Justizia Jauregia *in situ* bisitatu eta eragile juridiko guztiekien (Arabako Auzitegiaren presidentea, Fiskaltza, justizia arloko langileak, sindikatuak eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzua) bileran egin ondoren, baita Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailarekin hainbat aldiz hitz egin ondoren, honako ondorio hau ateratu zuen Arartekoak, iritzi guztiak entzun eta bulego berriak ikusi ondoren: egindako lanek, ahalegin goresgarria eta abiapuntu ona izan arren, ez dute behar bezala bermatzen genero-indarkeriaren biktimak izan diren pertsonen segurtasuna, ezta haien eskubideak (ezta langileenak ere) aintzat hartzea ere. Hori dela eta, solaskideek Arartekoari emandako argudioak aintzat har zitzen eta proiektua eta espazioak berriz azter zezan proposatu zitzaion sailari, gai minbera horretan etengabeko ebaluazioa egiteko konpromisoarekin bat etorritik.

Emaitza: Arartekoaren esku-hartzearen ondorioz, eta 2019ko abuztuaren 21ean eman zuen ebazpenaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak obra-proiektu berri baten lizitazioa argitaratu zuen, ados jartzeko prozesuan zehar parte-hartzaile guztiek azaldu zituzten eskariei kasu egiteko asmoz. Obrak 2020ko urtarrilean hasi dira, behar bezala, eta, beraz, aipatu proiektuan jasotakoarekin bat.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioak Arabako Lurralde Historikoan (2), Bizkaikoan (6) eta Gipuzkoakoan (6) banaturik dauden hamalau barruti judicial ditu egituran.

2018. urtearen amaieran, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako kide bakarreko organo judicialak eta kide anitzekoak guztira 170 ziren: kide bakarreko 156 epaitegi, probintzia-azitegien 11 atal organiko eta Justizia Auzitegi Nagusiaren 3 sala (7 atal funtzionaletan antolatuta).

2018ko urtarrilaren 1ean (eskuragarri dauden datu berrienak), 233 epailek jarduten zuten jurisdikzioan, Euskal Autonomia Erkidegoko organo judizialean. Euskal Autonomia Erkidegoan jardunean dauden epaileen batez bestekoa 10,6 zen, 100.000 biztanleko. Balio hori Espainiako Justizia Administrazioaren batez bestekoaren azpitik dago (11,5) eta nabarmen txikiagoa da Europar Batasunean lanaldi osoan lan egiten duten epaileen batez bestekoa baino (18,1 epaile 100.000 biztanleko).¹¹ 2018. urtean zehar Euskal Autonomia Erkidegoko organo judizialean sartu ziren gaien kopurua 208.286 zen. Arlo zibilean, 84.300 auzigai erregistratu ziren. Zigor arloan, berriz, 94.664 auzigai. Administrazioarekiko auzien arloan 8.330 auzigai erregistratu ziren. Lan arloan, 20.992 auzigai ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoko **auzi-tasa** (bideratutako auzigaiak 1.000 biztanleko) 94,7 izan da; horrek esan nahi du gora egin duela iazko txostenean aipatu genuen tasarekin konparatuta (93,5). Hala eta guztiz ere, EAEko auzi-tasak jarraitzen du estatuko txikienetako bat izaten. Iaz esan genuenez, zenbaki horiek, gure epaitegi eta auzitegien eraginkortasuna ez ezik, beste inguruabar bat ere erakusten digute, alegia, judizio barruko eta judizioz kanpoko bitartekaritza-zerbitzuek garrantzi handia hartu dutela Euskadin, ezarri eta urte batzuetara.

Aurreko txostenean iragarri genuen moduan, Arartekoak [Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekotza egitea](#). Arartekoak [Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia](#) aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean, 2019ko abenduaren 17an. Komunitate-bitartekaritzako udal ekimen goresgarriak eta gatazkak era baketsuan konpontzeko beste ekimen batzuk, bitartekaritzaren antzekoak, hala nola adiskidetzea, arbitrajea eta bitartekotza, alde batera utzita, bi hamarraldi igaro dira EAEn honako hauek ezarri zirenetik: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren judizioz kanpoko [familia-bitartekaritzako zerbitzua](#) eta [Justizia Errestauratiboaren Zerbitzu](#) berria, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko auzitegi barruko bitartekaritza-zerbitzua —iraungitakoa— ordeztu duena. Esperientzia aitzindari horiek Euskadin abiarazi zirenetik igarotako denbora kontuan hartuta ([Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak](#) emandako datuen arabera, estatuan burutzen diren zigor arloko bitartekaritza-prozesuen % 60 Euskadin egiten dira), Arartekoan era zientifikoan aztertu nahi izan ditugu Euskadiko bitartekaritzaren eta justizia errestauratiboaren arloko esperientzia guztiak, justizia formala osatzen duen justizia eredu hori bultzatzen laguntzeko, uste baitugu arloa gizatiartzen duela eta herritar arduratsuagoak bihurtzen dituela, gatazkak beren kabuz konpontzeko tresnak eskuratzen dituztelako, biktima zigor arloko justiziaren erdi-erdian jarrita.

Azterlan honetan egindako azterketak arreta berezia jarri du honako kontu hauetan:

- Bitartekaritzaren eta justizia errestauratiboaren gaia arautzen duen araudia, horri buruzko nazioarteko, estatutu mailako eta autonomia-erkidego mailako txostenak, bitartekaritza-zerbitzu publikoak garatzeko protokolo eta planak, baliabide horiek EAEn gaur egun

daukaten egoera, lorpenak eta zailtasunak jasotzen dituen ebaluazio orokorra egiteko.

- Aktibo dauden bitartekaritza-zerbitzuei buruzko datu estatistikoaren konparaketa (zerbitzu auzitegi barrukoak zein judizioz kanpokoak kontuan hartuta), EAEko jardunbideak, emaitzak eta hobetzea eskatzen duten arlo aipagarriak baloratzeko.
- Bitartekaritza-zerbitzuen erabiltzaileei egindako inkestetan eta bitartekaritzan diharduten profesionalen eta lotura zuzena edo ez-zuzena duten eragile juridikoei egindako galdetegiaren lortutako emaitzen azterketa, informazio guzti hori bilduta, sistema, funtzionamendua eta gizartearen duen eragina hurbiletik ezagutzen dituztenen iritzia orokorra jakiteko, hori guztia, aditutakuna eta gaiari buruzko prestakuntza oinarri hartuta, proposamenak eta iradokizunak egite aldera.

Ondorio nagusiak txostenaren V. kapituluaren irakur daitezke.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Bilerak elkarteekin

Arartekoarekin Giza Eskubideak prozesu penalean bermatzeko sistemaren eragingarritasunari buruzko elkarrizketa izan ahal duten gobernuz kanpoko erakundeetatik eta tokiko zen nazioarteko elkarteetatik jasotako eskaera guztiak aztertu ditugu.

4.2. Erakundeetako eta korporazioetako arduradunekin bilerak

Urte osoan zehar lan-bilerak egin dira **Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salarekin eta Idazkaritzarekin**, baita **Fiskaltza Nagusiarekin** ere. Erakunde horien guztien lankidetzara lehenago aipatu ditugun kudeaketa zuzenetan jaso genuen, baita berriazko bi gairen inguruan ere:

- Alde batetik, bigarren mailako biktimizazioa saihestu behar da, [Biktimaren Estatutua](#) onartu ondoren zigor arloko prozesuak planteatzen dituen erronkak kontuan hartuta. Ondorioz, Arartekoa José María Lidónen omenez, “[Genero biolentziari aurre egiteko politikak eta praktikak berrikustea](#)” izenburupean ospatu ziren Zigor Arloko Zuzenbideari buruzko XVI. Jardunaldien antolatzaileetako bat izan da.
- Bestaldetik, bildu nahi izan dira [familia-bitartekaritza-ko zerbitzua](#) eta [Justizia Errestauratiboaren Zerbitzu](#) berria bultzatzeko lanean inplikaturik dauden eragile juridikoen eta Eusko Jaurlaritzako sailen ikuspuntuak, lehenago aipatutako [Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekotza egitea](#). Arartekoak [Eusko Legebiltzarrari egindako txosten bereziari](#) begira.

¹¹ Azken datu hori bat dator Justiziaren Eraginkortasunerako Europako Batzordeak (CEPEJ) argitaratu duen azken txostenean jasotakoarekin, 2019ko edizioa, “[The 2019 EU Justice Scoreboard](#)”, figure 32.

Arartekoaren erakunde hainbat aldiz bildu da **Eusko Jaur-laritzako Lan eta Justizia Sailarekin**. Izan ere, saileko arduradunak lankidetzan aritu dira erakunde honekin jarduketa-eremu horren gainean jasotako kexetan aipatutako egitura alderdiak jorratzeko, batez ere, genero-indarkeriaren biktimenzako azpiegitura judizialei eta deribazio judiziala dela eta erabiltzen diren familia-elkarguneei dagokienez.

Azkenik, erakunde arteko lankidetzak, arlo horri dagokionez, **unibertsitateetara eta nazioarteko esparrura** hedatu da. Ildo horretan, aurtun, nabarmentzekoa da, batetik, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UPV/EHUko UNESCO Katedrarako elkarlana, *“Prison in devolved countries”* izenburuko mintegia antolatzean (Bilbon, urriaren 24an eta 25ean), eta, bestetik, [European Forum for Restorative Justice](#), foroa; azken horretan, Arartekoak amaiera eman zion Deustuko Unibertsitatearekin batera ekainaren 5ean eta 6an antolatutako *“From penal mediation to restorative justice: policies and practices in transition”* sinposioari.

4.3. Ekitaldietan parte hartzea, txostenetan parte hartzea eta materialak egitea

Arartekoaren presentzia publikoa zabala eta aktiboa izan da arlo honetan landutako gaiekin lotuta. Arartekoak parte hartu duen foroaren artean, aurreko epigrafean aipatutakoez gain, honako hauek nabarmendu beharko lirakeke:

- Justizia errestituzioaren arloko aditu gisa parte hartzea [Kriminologiaren Euskal Institutuak](#) (IVACR-KREI) Donostian, urriaren 17 eta 18an antolatutako *“Dialogue circle: encounter on restorative encounters in cases of terrorism and political violence: personal insights and social echoes”* jardunaldietan.
- Nazioarteko mintegia: “Espetxeetako sistemaren kudeaketa federalari buruzko mintegia. Ikuspegi konparatua (Euskadi, Eskozia, Katalunia eta beste batzuk)”. Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UPV/EHUko UNESCO Katedra. Bilbo, 2019ko urriak 24 eta 25.
 - o Aipatu mintegian *“Espetxeak Euskadin: egoera-balantzea eta etorkizunerako erronkak Arartekoaren ikuspuntutik”* hitzaldia aurkeztu zen, eta *“Euskadin espetxe eredu bat ezartzeko ildo estrategikoen proposamen teknikoak”* izenburuko testuaren jendaurreko aurkezpena egin zen.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin, Eusko Jaur-laritzako Lan eta Justizia Sailarekin eta Legelariaren Euskal Kontseiluarekin batera, José María Lidónen omenez, Zigor Arloko Zuzenbideari buruzko XVI. Jardunaldiak antolatzea, *“Genero Indarkeriaren inguruko politika eta jardunen berrikuspenua”* izenburupean; Bilbon, azaroaren 7 eta 8an.
- Aditu gisa, *“The role of Restorative Justice in preventing and responding to violent extremism”* hitzaldia ematea, Europako Batzordearen [Radicalisation Awareness Network](#) ekimenaren barruko biktimei eta justizia errestituzioari buruzko mintegian eta lantaldeetan, Dublín (Irlanda), abenduaren 3 eta 4an.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiaren Euskadiko eredu eta ZUREKIN programa, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumei arlo judizialean laguntza orohartzailea emateko

Eusko Jaur-laritzako Lan eta Justizia Sailak Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Vitoria-Gasteizko Epaitegian 2018an hasi zituen obrak direla eta, 2018an hasitako eta 2019an amaitutako ofiziozko jardueraren batean, Arartekoak aukera izan du genero-indarkeriaren biktimenzako epaitegiaren espazio-beharrak sakonki aztertzeko, kontuan hartuz [Europako Kontseiluaren Istanbulgo Hitzarmena](#), genero-indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta horien kontra borrokatzeari buruzkoa, 2011ko maiatzaren 11koa¹² eta 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena¹³.

2019ko abuztuaren 21eko ebazpenaren ondorioetan adierazitakoarekin bat, Arartekoak nabarmendu zuen Eusko Jaur-laritzako Lan eta Justizia Sailarentzat ahalegin handia izan zela 2018ko otsailean bukatutaz emandako obrak aldatzeko proiektu berri bat egitea, prozesuan parte hartu zutenek Arartekoaren bitartez azaldutako beharrei erantzuteko. Beraz, obrak ez ziren amaitutaz jo erakunde biek biktimaren eta arau-hauslearen arteko kontaktua saihesteko eskubidea bermatzen dutela erabaki arte, [apirilaren 27ko 4/2015 Legeak](#), [Delituaren Biktimaren Estatutuarenak](#), 20. artikuluan jasotzen duen moduan. Halaber, adierazi genuenez, bai Arartekoak eragile juridiko guztiekin eta saileko [Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin](#) (zerbitzu espezializatu denez) bat jartzeko kasu honetan jarraitu duen eredu, baita Gasteizko emakumeen gaineko indarkeriari buruzko auzitegirako obra-proiektu berriak eskubideak ziurtatu eta bermatzeko parametroak ere, oso aurrerapauso garrantzitsua dira Euskadin emakumeen aurkako indarkeriari buruzko auzitegiaren eredu ezartzeko, kontuan izanda eredu horrek biktimen eta justizia-administrazioaren langileen nahiz eragile juridikoen eskubideak bermatu behar duela. Obra berriek honako hauek bermatzen dituzte: biktimarentzako ibilbidea eta kaltegilearentzako berezita egotea; esparru komunitateko segurtasun-kamerak; itxarongelaren tamaina egokia biktima bat baino gehiago seme-alabekin itxaroteko, itxaronaldi luzeak kontuan hartuta (zuzeneko sarbidea komunitateko, *office-a*, aldatzeko mahaia);

¹² Hain zuzen, Istanbulgo Hitzarmenaren 56.g artikulua araberak, estatu sinatzaileek betebeharra dute *“ahal den guztietan, biktimek eta delitugileek auzitegiaren edo segurtasun-indar eta -kidegoen bulegoetan elkar ikustea saihesteko”*.

¹³ Aipatu 4/2015 Legearen 20. artikulua biktimaren eta arau-hauslearen arteko kontaktua saihesteko eskubidea jasotzen du, honako hau esanez: *“Zigor-arloko prozedurako ekintzak, ikerketa-fasea barne, egiten dituzten instalazioak biktimen eta senideen, batetik, eta arau-haustearen susmagarriaren edo akusatua artean, bestetik, zuzeneko kontaktua saihesteko moduan antolatuta egongo dira, Prozedura Kriminaren Legearekin bat etorritik eta hurrengo artikuluetan xedatutako alde batera utzi gabe”*.

lege-laguntza jasotzeko konfidentzialtasuna; eta justizia arloko funtzionarioentzat egokiak diren instalazioak ere, aipatu gomendioan xehetasunez ikus daitekeenez. Gauzak horrela, eremu fisikoak oso lagungarriak izan daitezke bigarren mailako biktimizazioa saihesteko, baita, gure ordenamendu juridikoarekin bat, akusatuek dituzten eskubide guztiak babesteko ere.

Zurekin programa, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak sustatzen duena, [Euskadiko Birgizarteratze Institutuak \(IRSE.EBI\)](#) kudeatzen duen programa pilotua da, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei jarduketa judizialean laguntza orohartzailea ematea helburu duena. Estu lotuta dago Biktimari Laguntzeko Zerbitzuari; izan ere, zerbitzuak laguntzaren egokitasuna ebaluatzen du eta, hala badagokio, programa aktibatzea erabakitzen da.

Emakumei laguntza orohartzailea ematea prozedura judizialak eragiten duen inpaktu emozionala arin dezakeen teknika eta tresna da; horri esker, biktimak era kontzientea-goan eta lasaiago egin diezaieke aurre esperientzia horiei (zitazioak, tramiteak, epailearen aurrean agertzea eta abar). Helburu orokorra, hitz batez, genero-indarkeriaren biktima den emakumeak, baita seme-alabek ere, kasua bada, epaitegi batera jo behar duenean, prozesuan beharrezkoa den jarduketa baterako (epailearen aurrean deklarazioak egitea, Auzitegiko Balorazio Integralko Unitatera edo Talde Psiko-sozial Judizialera egin beharrek bisitak eta abar), horretarako ahalik eta baldintza onenak lortzea da, bigarren mailako biktimizazioa saiheste aldera.

5.2. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneak

Orain dela urte batzuetatik, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila, pixkanaka, bere gain hartzen hasi zen deribazio judizialaren bidezko familia-elkargune guztiak, ordura arte horietako asko udalek kudeatzen baitzituzten, kudeaketa-gomendioen bidez. Ondorioz, nabarmen hobetu da zerbitzua emateko baldintzen homogeneotasuna eta kontrol publikoa, inguruko autonomia-erkidegoetan ez bezala; izan ere, antzeko gune gehienak hirugarren sektoreko erakundeek kudeatzen dituzte, era altruistan eta dirulaguntzen bidez.

Familia-elkarguneak Euskadiko epaitegi eta auzitegiei laguntzeko zerbitzu publikoak dira, eta haien helburua hauxe da: gurasoak banandu ondoren, seme-alabek guraso biek harremanetan egoteko duten eskubidea betetzeko aukera ematea. Elkarguneetan gainbegiraturako bisitak egiten dira eta adingabeen trukeak —gurasoen artean—, toki neutralak baitira, epailearen aginduz eta kontrolpean. Familia-elkarguneak aldi baterako egoera bati ingurune segurua emateko sortu badira ere, epaileek gero eta kasu gehiago bideratzen dute elkarguneetara, eta ondorioz, egoera horiek kroniko bihurtzen dira; Arartekoaren iritziz, adingabearen interes gorrenaren kontra dago hori.

Hori dela eta, *per se* kudeatzeko zailak diren tokiak izan arren, oraindik ere jasotzen dira familia-elkarguneen funtzionamenduari buruzko keak; estatistikaren aldetik ez dira

esanguratsuak, eta gehienak zuzenean ebatzen dira, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren mekanismoak erabiliz. Erakunde honetara noizbehinka heltzen diren keak sailarekin elkarlanean bideratzen dira, eta, kasu gehienetan, neurria betearazteaz arduratzen den epailearen erabakitzeke ahalmenari lotuta daudenez, Arartekoaren jardura-eremutik kanpo geratzen dira.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen familia-elkargune bat bisitatu dugu, Haur eta Nerabeen Bulegoaren Txostenean jasotzen dugun moduan, elkargunea erabiltzen duten adingabeen, gurasoen, familiakoen eta profesionalen eguneroko arazoak gertutik ezagutzeko, eta lanbide-profilek eta familia-elkargunearen funtzionamenduak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak prestatutako kontratazio-agiriaren ezarritako parametroak betetzen dituztela egiaztatzeko, kanpoko zerbitzuak direla kontuan hartuta.

5.3. Justizia errestitatiboko zerbitzuak erabiltzeko eskubidea

Euskadi aitzindaria da eredu hori aplikatzean. Bitartekaritzarekin batera, biktimei ematen zaion arreta du tresna adierazgarria. Izan ere, 2015eko urrian [4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena](#), preskribatu zenean eta delituen biktimei laguntzeko zerbitzu bereziak sortu zirenean, gure epaitegietan dagoeneko bazegoen [Biktimari Laguntzeko Zerbitzua](#), 24 urteko esperientzia zuena. Erakunde honek aintzat hartu du bere lana Legebiltzarrarentzako urteko txostenetan.

Justizia errestitatiboa pixkanaka-pixkanaka hartzen ari da lege-esparrua Espainiako Zigor Zuzenbidean, [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/UE Zuzentaraua, 2012ko urriaren 25ekoa](#), delituen biktimei eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen, eman ondoren, eta hura aipatu apirilaren 27ko 4/2015 Legearen bidez Espainiako zuzenbidera egokitu ondoren, funtsean, bere 15. artikuluan, non ezartzen baitira biktimei eman behar zaizkien bermeak, justizia errestitatiboko zerbitzuetara jotzen duenean¹⁴; **izan ere, zerbitzu horiek**

¹⁴ 15. artikulua. Justizia errestitatiboko zerbitzuak.

1. Biktimak justizia errestitatiboko zerbitzuak erabili ahal izango dituzte, erregelamenduz xedatutako moduan, delituaren ondorioz izandako kalteen erreparazio material eta moral egokia jasotzeko, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:
 - a) Arau-hausleak bere erantzukizunaren jatorri diren funtsezko egitateak onartu baditu.
 - b) Biktimak, haien edukari, izan ditzaketen emaitzei eta eraginkortasunez betearazteko dauden prozedurei buruzko informazio zehatza eta inpartziala jaso ondoren, adostasuna ematea.
 - c) Arau-hausleak adostasuna ematea.
 - d) Bitartekaritza-prozedurak ez badakar arriskurik biktimaren segurtasunarentzat, eta haren garapenak biktimari kalte material edo moral berriak eragiteko arriskurik ez badago.
 - e) Egindako delituarentzat legez debekatuta ez badago.
2. Bitartekaritza-prozeduraren barruan izandako eztabaidak isilpekoak izango dira, eta ezin izango dituzte ezagutarazi bi aldeek adostasuna eman gabe. Bitartekaritza-prozeduran parte hartzen duten bitartekariak eta bestelako profesionalak sekretu profesionalaren mende egongo dira eginkizun horretan ezagutzen dituzten gertaera eta adierazpenei dago-kienez.
3. Biktimak eta arau-hausleak bitartekaritza-prozeduran parte hartzeko emandako adostasuna edonoz errebokatu ahal izango dute.

eskuratzeo aukera biktimen eskubidetzat jotzeko lehenengo urratsa da.

Aipatu lege-esparrua, azkenean, honako honek sendotu du: [CM/Rec \(2018\)8 Ebazpenak, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordearenak, 2018ko urriaren 3koak](#), estatu kideei justizia errestituatiboa bultzatzeko hertsatuki eskatzen duenak. Estatu kideei zuzendutako gomendioa izan arren, eskubide subjektiborik sortzen ez duena, Europaren buruan kokatzen ditu EAeko erakundeak, aipatu ebazpenean jasotako gomendioak betetzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak abiarazi duen [Justizia Errestituatiboaren Zerbitzu](#) berriarekin.

Arartekoak bitartekaritza eta justizia errestituatiboko beste edozein sistema prozesu judizialaren osagarri gisa integrazten dituen justizia-administrazioaren ereduaren alde egiten du apustu, prozesu hori modu eraginkorragoan, azkarrago eta hobeto kudeatzeko, justizia —oinarrizko eskubidea denez— eskuratzeo aukera bermatzeko, baita herritarren zerbitzura dagoen kalitatezko justizia-administrazioa lortzeko ere.

Justizia errestituatiboak ohiko justizia formala osatzen du eta kalitatea ematen dio, biktimen beharrak eta kaltegilea birgizarteratzea kontuan hartzen dituelako, parte hartzeko gogo handiago duen komunitate kohesionatua eraikiz. Justizia zerbitzu publikotzat jotzen duen kontzeptua zuzenean lotuta dago Arartekoaren eginkizunarekin: administrazio publikoekin harremanetan jartzen diren herritarren eskubideak zaintzea. Hori dela eta, gizarte-harremanak lehengoratzean, baketzan, kaltea konpontzean eta norberak erantzukizuna bere gain hartzean oinarritutako justizia defendatzen dugu.

Era berean, halaber, justizia errestituatiboak batez ere biktimaren beharrak eta sortu zaizkion kalteak konpontzean jarri behar du arreta, aurreko kontzeptua —arreta arau-haustean nagusiki jartzen duena— baztertuz.

Arlo horretan egin dugun ekarpen garrantzitsuena, aipatu bezala, [Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekotza egitea](#). [Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezietan](#) aurkezpena izan da, 2019ko abenduaren 17an; Euskadin, arlo horretan egiten diren ekimen guztiak, arau-esparrua eta eragile juridikoen eta zerbitzu horiek erabiltzen dituzten herritarren iritzia (ekimen horiei inguruan) ezagutzeko funtsezko tresna bihurtuko dela espero dugu.

Gomendio nagusiei dagokienez, honako hauek dira garrantzitsuenetakoa:

- Bitartekaritza-zerbitzuek gizarte jakituna eta ardurasua sustatzea helburu duten politika publikoen parte izan behar dute.
- EAerako esparru juridiko bat sustatu, ezarri eta garatzea, gaur egungo eta etorkizuneko bitartekaritza-prozedurak —bai auzitegi barrukoak, bai judizioz kanpokoak— bideratzea ahalbidetzeko (eskumenera araberak).
- Bitartekaritza herritar guztiei ezagutaraztea, eta zabal-kunde-kanpainen bidez abantailen inguruan sensibilizatzea.

- Bitartekaritza eta Justizia Errestituatiboa hezkuntzan eta komunitate arloan indartzea eta esparru horietan erabilera sustatzea, gizarte gatazkei aurrea hartzeko eta kudeatzeko tresnak direlako.
- Bitartekaritza diharduten profesionalen prestakuntza egokia —teorikoa zein praktikoa, eta ziurtatua— bermatzea, eta kalitatea kontrolatzeko mekanismo bateratu eta lotesleak ezartzea, bitartekaritza eta justizia errestituatiboko zerbitzu publikoak emateari dagokionez, aipatu [Ministroen Batzordearen CM/Rec\(2018\)8 Gomendioak estatu kideei zuzendutakoak, zigor arloko justizia errestituatiboari buruzkoak](#) ezarritakoarekin bat.
- Bitartekaritza-zerbitzuak eskaintzen dituzten administrazioen arteko koordinazio-sistema —benetakoa eta eraginkorra— sortzea, sailen zein erakundeen artean baterako planifikazioa sustatuz; eta bitartekaritza eta justizia errestituatiborako baliabide publikoen artean, eta baliabide horien eta EAEn dauden baliabide pribatuen artean koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea.
- Euskal administrazio publikoek, erakunde mailan eta aurrekontuetan, bitartekaritza hobeto babestu eta bitartekaritza erabiltzeko konpromiso handiagoa hartu beharko lukete, beren eginkizunak betetzeari.

5.4. Eskubideak eta askatasunak

Arartekoak arlo horretan dituen kezkei dagokienez, honako hauek aipatu behar ditugu, jurisprudentziako erabakien xede izan direlako 2019an:

- **Hizkuntza ofizial bat baino gehiago dituzten autonomia-erkidegoetako epaitegi eta auzitegiatan hizkuntza koofizialeko edozeinetan hitz egiteko eskubidea:**

Arartekoak autonomia-erkidegoan estatuko administrazioaren gaineko eskumenik ez badu ere, arlo judiziala zailenetakoa bat izaten da euskaldunentzat beren eskubideak euskaraz baliatzeko. Tradiziozko diglosia-egoeraz gain, Euskadiko Epaitzean eta Fiskaltzean elebidun gutxi egiten dute lan, eta horrek ia ezinezko bihurtzen du euskara Justizian normalizatzea, Eusko Jaurlaritzak ahaleginak egin arren, Justizia Administrazioak funtzionatzeko behar dituen langileak, baliabide materialak eta ekonomikoak jartzeari buruzko eskumena 1998an bere gain hartu ondoren.

Hala adierazi du [Eskualdeko eta Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko Gutuneko Aduen Batzordeak, bere bosgarren txostenean, gutuna Espainian aplikatzeari buruzkoan](#) (2019). Europako Kontseiluak euskararen erabilera prozedura zibiletan, kriminaletan eta administrazioetan erabiltzea bermatuta ez dagoela kritikatu du; izan ere, ez da euskaraz ematen ez arretarik, ezta epairik ere. Txostenak zehazten duenez, Euskadiko 343 magistratuetatik 16 bakarrik dira elebidunak.

Arartekoaren iritziz, herritarrek Justizia Administrazioan jasotzen duten arreta hizkuntza ofizial bietako edozeinetan

izanez gero, azaroaren 24ko 10/1982 Legea (euskarren erabilera normalizatzeko oinarrikoa) betetzeaz gain, justizia-administrazioaren arretaren kalitatea eta hurbiltasuna areagotuko luke; hortaz, nekez uler daiteke euskal epailetzan gabezia hori egotea, zailtasun handiak sortzen baititu euskal gizarteak elebitasun normalizatua lortzeko bidean aurrerapausoak egiten dituenean (izan ere, euskal herritarren ia % 50 eta 25 urtetik beherako % 70 elebidunak dira). Hori dela eta, etorkizunean eskubide hori eraginkortasunez garatu beharko da.

- **Adierazpen-askatasuna:** Azken urteotan, erabaki judicial oso eztabaidagarriak izan ditugu genero-indarkeriaren arloan, adierazpen-askatasunerako oinarriko eskubideak babestutako protestak eta kontzentrazioak eragin dituztenak. Hala ere, batzuetan epaileen aurkako erasoak gertatu dira, beren bizitza intimoa eta epaitegiaren ohiko funtzionamendua aztoratzeraino, eta egoera horiek gainditu egiten dituzte adierazpen-askatasunaren mugak; izan ere, hala ezarri du Auzitegi Gorenaren Hirugarrena Salak, [2019ko urriaren 25eko 1450/2019 epaian](#).

5.5. Gurasotasun-koordinazioa

Beste autonomia-erkidegoetan eta Euskadin kontzeptu horren inguruan agertzen ari diren ekimen, esperientzia eta proposamen desberdinak arretaz aztertzen jarraitzen dugu Arartekoan.

Familia-haustura ekartzen duten prozesu judicialak (banantzea, dibortzioa, ezkontza deuseztatzea edota, gurasoen elkarbizitza hautsi ondoren, gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak ezartzea) oso bereziak dira, gatazka handiko prozesu oso emozionalak izaten direlako, eta, zalantzarik gabe, inpaktu handia izaten dutelako ardurapeko seme-alaba adingabeengan; azken horiek dira gure kezka nagusia, adingabearen interes gorena baita botere publikoen jarduketan guztietan bete behar den helburua. Prozesu horiek emozioetan ez ezik, ekonomia eta ondare arloan eta arlo soziologikoan ere izaten dute eragina.

Testuinguru konplexu horretan, guraso-ahalaren, seme-alaben zaintza eta jagoletzaren, familia-etxebizitzaren erabilera esleitzearen eta mantenu-pentsioak eta ezkontideen arteko pensioak ordaintzearen inguruko hasierako erabakia hartzen duen familia-epailearen ebazpena gatazka baten legeko gaiei ematen zaien erantzun juridikoa da, besterik gabe; izan ere, gatazkaren konponbide orohartzaileak diziplina anitzeko erantzunak eskatzen ditu, gurasoen harremana hautsitakoan sortzen den gatazka askotariko ondorioak — psikologikoak, sozialak, afektiboak eta ekonomikoak — dakartzan familiako gatazka konplexu bat delako.

Gaur egun familia-epaitegiak gainezka daudenez, ezinezkoa da gatazkaren etengabeko bilakaera denboran zehar eta denbora pasa ahala familietan sortzen diren beharrak behar bezala kontuan izatea; gainera, eguneroko kontuak, hala nola adingabeen urtebetetzeak, oporrak eta abar, judicializatuz gero, ezin zaie azkar, eraginkortasunez eta malgutasunez

erantzun gaur egungo lege-sistemaren eta sistema judicialaren bidez.

Hori dela eta, Arartekoaren erakundearen uste dugu aurrerapausoak egin behar direla diziplina anitzeko erantzun malgua eta egoera bakoitzaren arabera emateko, denboran zehar jarraipena egitea ahalbidetzen duena, adibidez, gurasotasun-koordinazioaren bidez; horrela, familiekin eta epailearen aginduz ezarritako gurasotasun-plan baten bidez, diziplina anitzeko adituen talde batek, beharrezko eskuordeturi ahalmena emanda eta justizia-sistema formalaren osagarri moduan, arreta adingabeen interes gorenean jarrita, epaile eskudunak ezarritako behin-behineko eta behin-betiko neurriak betetzen direla ziurtatu ahal izango du.

Arartekoaren iritziz, gurasotasunaren koordinatzaileak edo gurasotasun-koordinaziorako taldeak gizarte-eta osasun arloetako beste zerbitzuekin sarean lan egin beharko luke. Beharrezkoa izango litzateke betearazpen-fasean ez ezik, beste faseetan ere arreta jartzea, hau da, gatazkan prebentzeko fasean ezartzeko aukera aztertu beharko litzateke (adibidez, harremana hausteko bidean dauden gurasoei gurasotasun arduratsuari buruzko prestakuntza ematea); halaber, gatazka lehenengo faseetan dagoen kasuetan, gurasoei orientabideak emateko ikuspegi zabalago bat aplikatu behar da, hasiera-hasieratik gurasoak ardurapeko seme-alaben ongizateaz arduratu daitezela eginez (familia-bitartekaritza eta justizia errehabilitatiboan egiten den moduan), adingabeen interes gorena izan dadin etorkizunean ezarriko den sistemaren ardatz.

5.6. Doako justizia

2019ko urtarrilaren 1ean, [153/2018 Dekretua](#), [urriaren 30ekoa](#), Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa, jarri zen indarrean, sei urte luze iraun zuten negoziazio intentsiboen ostean. Lehenik, esan beharra dago oso positibotzat jotzen dugula dekretu berria indarrean jartzea, horren komenigarritasuna erakunde honek behin baino gehiagotan aipatu baitu azken urteotan; hala ere, gaineratu behar da urte bat aldi laburrean dela dekretuaren inpaktua behar bezala baloratzeko. Kontuan izan behar da Euskadin ofiziozko txandatan inskribatutako profesionalen kopurua 2.750 dela (2.400 abokatu eta 350 prokuradore); hain zuzen, profesionalen elkargoek lortu zuten dekretua prestatzeko adostasuna. Arartekoak dekretuan islatuta ikusi zituen berak sistema hobetzeko egindako proposamenetako batzuk. Erakunde honek funtsezkotzat jotzen du doako justiziaren sistema, legearekiko berdintasuna eta gizarte-integrazioa egiazkoak izan daitezela.

Aipatu dekretuan jasotako erreformaren helburuak, 2019rako aurrekontua 15 milioi euro izanda, honako hauek izan dira: administrazio-tramiteak erraztea; genero-indarkeriaren kasuetarako berriazko moduluak eta beste batzuk sortzea; konplexutasun handiko kasuetarako modulu partikularrak ezartzea; eta abokatu eta prokuradoreen ordainsariak ezartzeko baremoak eta dagozkien profesionalen elkargoetara egiten zaizkien esleipenak igotzea.

Gainera, Arartekoaren jarraipen berezia merezi duen taldearentzat —indarkeria matxistaren biktimak— prozesua amaitu arte kasuaz arduratuko den letradun baten berehalako laguntza ezartzen du dekretuak.

Araudi horrek, oro har, %2ko igoera ekarri du modulu desberdinetan eta %10ekoa modulu espezifikoetan, hala nola genero-indarkeriaren moduluan, baita “makrokausa” gisa ezagutzen diren kasuetan ere, azken horiek lehenago ez

baitziren ordaintzen konplexutasunarekin eta behar duten arduraldiarekin bat.

Era berean, araudi berriak guardiako eta ofiziozko txandei dagokien konpentsazio ekonomikoa Eusko Jaurlaritzako Lana eta Justiziako sailburuaren aginduz urtero eguneratzea ahalbidetzen du; horrek erraztu egiten du etorkizunean herritarrei kalitatezko zerbitzua emateko behar diren baliabide ekonomikoak eguneratzea.





II. atala

6

Ingurumena

◀ Aurrekoa ikusi

1. Arloa kopurutan

Ingurumen Arloan Arartekoak baliabide naturaletan gizakien jarduerak sortutako kutsadurako kategorien kontrolari lotutako jarduketak jasotzen dira, besteak beste lurzoruan, uretan edo atmosferan, espazio naturalak eta flora eta fauna basatiak aztertzen direlarik. Arlo horretan daude baita ere kutsadurak gizakien osasunean sortzen dituen kalteak eta eragozpenak eta esku-hartze etxeko animaliak babesteko publikoaren esparrua.

2019an, 99 kexa jaso ziren eta horiek ekitaldi honetan erakundeak jasotako kexa guztien %4,18 dira. Kexak azpiarloetan banatzen dira; horretarako, irizpide material bat aplikatzen da, salatutako ingurumen afekzioarekin lotutakoa. Hala, kutsadura akustikoa, atmosferikoa, lurzorua eta urarena izan daiteke, baita beste eragile kutsatzaile batzuek eragindakoa ere. Horrez gain, ingurumen kontrolari buruzko administrazio prozedurako erreklamazioak eta informazioa eskuratzeko eskubidea gauzatzeari eta ingurumeneko parte-hartzeari buruzko erreklamazioak desberdintzen dira. Arlo horretan sartzen dira baita ere animaliak babesteko erreklamazioak eta kexak, bai animalia basatiak, baita etxekoak ere.








Administrazioen arabera, kexak modu honetan banatzen dira:

• Tokiko administrazioa.....	76
• Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jauriaritza).....	8
• Foru administrazioa.....	4

Azpiarlokako banaketaren arabera, sailkapena honako hau da:

• Kutsadura akustikoa.....	63
• Animaliak babestea eta edukitzea.....	11
• Ingurumenaren kontrola.....	9
• Airearen kutsadura.....	4
• Administrazioaren funtzionamendua eta administrazioaren prozedura.....	4
• Ingurumenaren informazioa eta parte-hartzea.....	3
• Lurzorua eta uraren kutsadura.....	2
• Natur gune babestuak. Flora eta fauna babestea.....	2
• Hondakinak kudeatzea.....	1

Arlo honetan aurkeztutako kexen izapidetze-egoerari eta emaitzari dagokienez:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
317	175	142	87	25	9	21

Zenbakien aldetik, ingurumenaren arloan, kutsadura akustikoak jarraitzen du esku-hartze askoren arrazoia izaten. Era berean, behin eta berriz agertzen dira euskal administrazio publikoari zuzendutako ingurumen salaketei eta ingurumen informazioaren eskaerei eman beharreko erantzuna legez ezarritako epean eman ez izana salatzen duten kexak. 2019an jarduketa bat martxan jarri zen ofizioz, airearen kalitatea kontrolatzeko estazioak gaizki funtzionatzen edo datuak baliozkotzeko orduan erroreak egotekotan, ingurumen arloko informazio hobea emateko aukeren inguruan hausnartzeko.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Kutsadura akustikoa

Arartekoak ingurumen arloan nagusiki aisialdiko eta ostalaritzako jardueretan (txosnak, taberna, jatetxeak edo diskotekak), hiri ekipamendu edo azpiegiturretan edo industria jardueretan sortutako zarata dela-eta egiten diren kexak eta erreklamazioak izapidetzen ditu. Kutsadura akustikoko arazoek etxebizitza partikularretan maila ezberdinetako eragozpenak sortzen dituzte, batzuk gogaikarriak direlarik eta beste batzuk oso arriskutsuak, eta horien guztien ondorioz, euskal administrazio publikoek eraginpeko pertsonen etxetako kutsadura akustikoa murrizteko eta ekiditeko egin beharreko ingurumen kontrol zuzena bermatu behar da.

Ohikoenak diren kexak udal administrazioek kutsadura akustikoko arazoak sortzean erantzun eraginkorrik ez emateari buruzkoak dira, bitarteko teknikoak edo zarata aztertzeko langileak falta direlako hain zuzen ere. Kasu askotan,

jarduera horietako ingurumen kontrola bakarrik eraginpeko pertsonak salaketak egitean gauzatzen da, eta ez dago administrazio plangintzarik kontrolatu beharreko jardueri buruz, ezta zaintza eta ikuskaritza programei buruz ere. Arartekoak askotan esan du herritarrek eskubidea dutela inolako zaratarik gabeko etxebizitza izateko, hau da, aplikatu beharreko legerian onartutako zarata-mailak gainditzen ez dituzten etxeak izateko, eta horrenbestez, bermatu egin behar da jarduera zaratatsuek edo bestelako zarata iturriek sortutako zaraten ingurumen kontrola egiteko funtzio publikoa egotea, horien barne dagoelarik partikularren artean sortutako zarata. Horretarako, agintari publikoek modu planifikatuan erantzun behar dute zainketa eta ikuskaritza programen birtatez, eta ez bakarrik ingurumen legerian ezarritako mugak gainditzen dituzten zaratak jasan behar dituzten pertsonen salatu ondoren.

2.2. Tratamendu herbizida bat gaizki aplikatzearen ondoriozko salaketa

Atal honetan hauxe aipatzen da: pertsona batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan [Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak](#) eta [Gorlizko Udalak](#) salaketa baten aurrean egindako jarduketarekin duen desadostasuna azaltzeko; salaketa hori Gorlizko udal-mugartearen glifosatoa zuen produktu fitosanitario batekin tratamendu herbizida bat egiteak arriskua sortu zuelako jarri zen. Tratamendu hori udalerriko berdeguneen mantentze lanetarako [Gorlizko Udalak](#) kontratatutako enpresa bateko langileek egin zuten. Erreklamazioaren bidez zalantzan jartzen zen tratamendu horren erabilari eta aplikazioari buruzko araubidearen inguruan jarraitutako administrazio kontrola, izan ere, salatutako kasuan, tratamendua sarbide publikoa duen lursail batean aplikatu zuten, bere etxearen ondoan, eta ez zuten erabili inolako jakinarazpen seinalerik.

Glifosatoa bezalako produktu fitosanitarioak erabiltzeari eta horiek pertsonen eta animalien osasunean eta ingurumenean sortu ditzaketen kalteei buruz Arartekoak hainbatetan adierazi du berak ezin duela iritzirik edo adierazpen zientifikorik eman zenbait substantzia erabiltzean sortu daitezkeen ondorio negatiboak buruz, kasu honetan bezala. Gure araudira nagusiki Europar Batasunaren Zuzenbidearen bidez iritsi zen zuzentzea edo kautela printzipioari erreferentzia eginez, aipatu behar dugu printzipio horrek agintari eskumendunak derrigortzen dituela beren gaitasunen esparruan osasun publikoarentzat, segurtasunarentzat eta ingurumenarentzat arriskuak izan daitezkeen arazoak ekiditeko erabaki publikoak eta kontrol neurri egokiak hartzea. Zalantzarik gabe, arriskuak kudeatzeko erreferentziako tresna bat COM (2000) 1 azkena zuzentzea printzipioaren errekurtsoari buruzko [Europako Batzordeak egindako jakinarazpena da](#). Printzipio hau aplikatu behar da potentzialki arriskuak izan daitezkeen ondorioak daudelako, eta komunitate zientifikoak arriskuak aztertu dituelako. Berrikuspen horretan, substantzia jakin batzuen eraginpean egoteak izan ditzakeen ondorioak zehaztea eta arriskuen ebaluazio zientifikoa egitea ahalbidetzen da, eta datu-eskasiagatik edo datuen zehaztasun faltagatik arrisku horiek behar adinako ziurtasunarekin zientifikoki ebaluatu ezin ahal

izatea du ondorio. Ziurgabetasun zientifikoko egoera horiek arduradun politikoei balizko arrisku hori behar bezala kudeatzeko neurrien gainean erabaki bat hartzea eskatzen dute. Horretarako, botere horiek gardenki eta Europako Batzordeak finkatutako printzipio jakin batzuen arabera jokatu behar dute, besteak beste: neurrien proportzionaltasuna, haiek ez diskriminatzea, jada hartu diren antzeko neurriekin koherenteak izatea, erabakiaren abantailen eta desabantailen azterketa bat egitea eta garapen zientifikoaren ikerketa bat gauzatzea. Glifosatoaren kasuan ere, hau da, pestizidetan sarritan erabiltzen den eta gizartearen ezinegona sortu duen substantzia bat, arriskuen ebaluazioetik igaro da zuzentzea printzipio hori aplikatzeko. Orain artean, erakunde eskumendunen erabaki horien emaitza glifosatoa merkaturatzeko eta produktu fitosanitario gisa baimenduta erabiltzeko substantzia aktiboen artean sartzea izan da. [Elikagaien Segurtasunerako Europako Agentziak \(EFSA\)](#) eta EBko herrialde kideek, glifosatoaren beste ebaluazio bat egin dute. [2015eko azaroko txostenak ondorioztatzen du](#) ez dela oso gertagarria glifosatoak gizakiengan arrisku kartzinogenoa izatea, eta elikagaietan glifosato hondakinentzako segurtasun maila berriak proposatu ditu. Europako Batzordeak berriro egin du [glifosatoaren onespena, 2022ko abenduaren 15era arte](#). Edonola ere, zuzentzea printzipioa dela-eta araubide bat aplikatu da, eta araubide horrek mugatu egiten du produktu fitosanitario horren erabilera, substantzia horren balizko arriskuak murrizteko edo gutxitzeko. [Landare osasunerako azaroko 43/2002 Legeak](#), bere helburuen artean, produktu fitosanitarioen erabilari eratorritako eta pertsonen eta animalien osasunarentzat eta ingurumenarentzat kalteak sortu ditzaketen arriskuak prebenitzea da. Alde horretatik, legediak produktu horiek maneiatzeko eta aplikatzeko zenbait betekizun aurreikusten ditu, kontsumitzailearen edo aplikatzailearen eta animalien osasunerako nahiz ingurumenerako egon daitezkeen eragin kaltegarriak murrizteko. Zehazki, [irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuak](#) produktu fitosanitarioen erabilera jasagarria lortzeko jarduketa esparrua ezarri du. Betekizun horiek betekizunak, aipatutako araudiari jarraiki, produktu fitosanitarioak erabiltzea ahalbidetzen du, eta aldi berean, pertsonen edo animalien osasunerako edo ingurumenerako arriskutsua ez dela izango bermatzen du. Gauzak horrela, exijitutako baldintzei edo betekizunei erreparatu gabe produktu fitosanitarioak erabili eta maneiatzeak, besteak beste, dagokion zehapen espeditentea aplikatzea dakar.

Aurkeztutako erreklamazioari dagokionez, Arartekoak hainbat alditan adierazi du ingurumena babesteko egindako salaketek administrazio espeditentea bideratzea ekarri behar duela, kasu bakoitzean aplikatu behar den arloko legediari jarraiki, eta [Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean](#) aurreikusitako araukin bat etorritik. Kasu horietan, egindako ikusketaren eta bildutako informazioaren arabera, organo eskudunak zehapen espeditente bat abiarazteko aukera aztertu dezake, edo, bestela, eskatzailearen nahia ezesteko ebazpena eman. Instrukzio erakunde izango da frogatutako egitateak behar bezala zehazteko eta arau-hausteak kalifikatzeko erakunde. Edozein kasutan ere, instrukzio eta zehapen erakundeek dituzten eskumenak bat etorri behar dira behar bezala egiaztatutako egitateekin eta zehapen araudian jasotako aurreikuspenekin.

Arartekoak baloratu beharreko kasuari dagokionez, inguruar bar horiek kontuan hartu beharko lirakeke produktu fitosanitarioak erabiltzea baimentzen duten baldintzak bete ez izanaren maila zehazterako orduan. Bestalde, ez zen egiaztatu salatzaileak (interesatua zehapen prozeduran zehar) aurkeztutako errekursoari emandako erantzuna, ingurumen lege-riako ekintza publikoa egikaritzuz.

Horregatik, Arartekoak [2019ko irailaren 19ko ebazpenean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari](#) gomendatu zion berriaz ebazteko berraztertze errekurtsua, eta horretarako kontuan hartze-ko administrazio espedientearen ez zirela behar bezala jaso produktu fitosanitarioekin egindako tratamenduetan bete beharreko baldintzak ez betetzearen ondorioak (tratamendu horri buruzko berriazko kontratua, tratamenduari eta arriskuei buruzko aholku dokumentua, tratamendu horretarako lan plana eta tratamendua egin aurretiko administrazio baimena). Egoera horiek guztiak, eta bizilagunei jakinaraztearen betebeharra eta beste neurri osagarri batzuk ez betetzeak zehapen organoak baloratu beharko lituzkete, eta organo horrek zehaztu beharko du arau-haustearen izaera eta arau-hauste horrek pertsona eta animalientzat eta inguru-nearentzat eragindako arriskuaren maila.

Bestalde, eta orokorrean, Arartekoak honako gomendioa egiten dio [Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari](#): tratamenduen kontrolan eta produktu fitosanitarioen erabilera araudiko aurreikuspenak zorrozki bete behar direla berriz jakinaraztea tratamendu hori aplikatzean interesa duten administrazio publikoei nahiz enpresa erabiltzaileei, bereziki kontratua, aholku dokumentua eta lan plana formalizatzeari dagokionez, era berean, eskumenak dituen foru erakundeak aurretiazko baimena eman beharko duelarik. Halaber, espazio publikoetan egiten diren tratamenduei dagokionez, kasu bakoitzean banaka ebaluatzea produktu fitosanitarioekin tratamendua egiteko beharra eta horrek dakarren arriskua, eta lehentasuna ematea kontrola izaera kimikodun produktu fitosanitarioak ez diren produktuekin edo arrisku gutxiko produktu fitosanitarioekin egiteari. Edozein kasutan ere, tratamendu horiek behar bezala seinaleztatu behar direla eta hirugarrenak eremu horretara sartzea ekidin behar dela gogorarazi behar dugu.

2.3. Animaliak izateko araubidea urratzeagatik aurkeztutako salaketak ebazteko betebeharra

Pertsona batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan, [Orozkoko Udalak](#) animaliak edukitzea arautzen duen udal ordenantza hausteagatik aurkeztutako kexa eta salaketei emandako erantzunarekin ados ez zegoelako. Kexagileak pertsona bat salatu zuen arriskutsuak izan daitezkeen bi txakur lotu gabe eramateagatik. Erreklamazioan jasota dago udalaren animaliak edukitzea araubidea urratzearen inguruan aurkeztutako salaketen ondorioz ez zirela aplikatu toki administrazioak ezarri beharreko zehapen eskumenak.

Arartekoak, [2019ko irailaren 16ko ebazpenean](#), Orozkoko Udalarari gomendatu zion berriaz eta arrazoituta ebazteko

animaliak izateko araubidea urratu izanagatik aurkeztutako salaketen ondorioz hasi beharreko zehapen espedienteak, eta ebazpena interesatuei eta salatzaileei jakinarazteko. Administrazio publikoek, administrazio araudiaren balizko arau-hauste baten aurrean zehapen ahala aplikatzeko betebeharra dute. Nola dotrinak hala jurisprudentiak ofizialtasun printzipioa finkatu dute zehapen ahalaren gauzatzean, administrazio izapideetan ofizioa sustatzeko, eta administrazio bizkortasunaren printzipioa, prozedura arin garatu dadin. Legezkoetasun printzipio hori betetz, herri administrazioak erantzutera, legea aplikatzera eta eskaera bakoitzari dagokion izapidetzea eta bultzada ematera behartuta daude.

Hauxe da Euskadin pertsonen eta animaliak errespetatuz, defendatuz eta babestuz osasun publikoa zaintzearen arteko bizikidetzaren arautzen duen araua: [Animaliak babesteko urria- ren 29ko 6/1993 Legea](#). Era berean, legezko esparru hori [Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren bidez garatzen da](#). Dekretu horren 4.2 artikulua animalia bat daukan pertsonaren betebeharren araudia zehazten du: *“Hiri barruko bide eta gune publikoetan, bai eta eraikin kolektiboan gune komunitarian ere, txakurrak kontrolatuta eramango dira beraien ez- augarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta —gehienez ere, 2 metrokoa—. Betebehar hori ez betetzea arau-hauste larria izango da Animaliak babesteari buruzko Legearen 27.2 h) artikuluan arabera”*. Erakunde honen iritziz, *“Hiri barruko bide eta gune publikoak”* xedapenaren kontzeptua ez da halarik balizko arau-haustea egingo den lurzoruaren hiri-kategoriari buruzkoa, baizik eta bidearen edo espazioaren erabilera publikoari buruzkoa. Halaber, 4.3. artikulua debekatu egiten du txakurren gorozkia bide eta plaza publikoetan, haur-parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurarako edo pertsonen pasadizorako edozein lekutan uztea. Jokabide hori arau-hauste arina izango da, hondakinen legedian ezarritakoaren arabera.

2.4. Arabako lurralde historikoan otso populazioa kontrolatzeko neurriak

Ekologistak Martxan elkarteak Arartekoari jakinarazi dio kezkatuta daudela [Arabako Foru Aldundiak](#) Araban otso batzuk kontrolatzeko neurriak aplikatzeko balizko baimen baten inguruan gauzatutako izapidetzea dela-eta; hori guztia zenbait abeltzainek eskari formalizatu bat egin ondoren. Elkarteak jakinarazi du Arabako otsoen populazioa kontrolatzeko neurriak, bat etorri Arabako Lurralde Historikoan abeltzaintza estentsiboaren arazoari aurre egiteko Otsoaren Kudeaketa Planaren aurreikuspenekin ([33/2010 Foru Dekretuaren bidez](#) onetsitakoarekin), administrazio espediente bat izapidetzeko beharra dutela, Araban otsoaren populazioa kontrolatzeko neurriaren bat hartzeko beharra justifikatuko duena. Elkarte horren iritziz, proposatutako neurriak, uxaldi bat izatekotan, Arabako Lurralde Historikoko otso populazio urriko espeziemetakoren baten heriotza ekar lezake. Era berean jakinarazi zuten balitekeela neurri horiek bat ez etortzea espezie hori Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan sartzearekin eta Arabako Aldundiak berak otsoa interes bereziko espezie gisa sailkatzeko izapidetutako espedientearen egindako balorazioarekin. Kexa erreklamazio horri

beharrezko izapidetzea aplikatzeko, Arartekoak informazioa eskatu zuen [Nekazaritza Sailean](#) eta [Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailean](#), eta horren bitartez, otsoak kontrolatzeko neurriak baimentzeko egindako espedientearen izapidetze egoerari buruzko eta horretarako kontuan hartutako txostenei buruzko informazioa eskatu zuen.

Bestalde, otsoa EAEko Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartzea baloratzeko [Eusko Jaurlearitza Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak](#) abiarazi zuen espedientea behin betiko ebatzi behar dela adierazi du elkar-teak. Espediente hori 2018ko irailaren 26an abiarazi zuen Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak. 2019ko otsailaren 4an, ingurumen organo horrek jendaurrean jarri zuen otsoaren populazio hori Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan, zehazki “*interes bereziko*” espeziearen kategorian, sartzeko proposamena. Espedientea hasi zenetik 14 hilabete baino gehiago igaro dira eta oraindik ez dago behin betiko ebazpenik.

Arartekoak, otsoak (*canis lupus*) Espezie mehatxatuen euskal katalogoan sartzeari buruzko [2017ko azaroaren 14ko ebazpenean](#), sail horri adierazi zion erabaki hori hartzeko orduan kontuan hartu behar zituela espezie basati hori babesteko araubidea, Bernako Hitzarmenean nahiz Habitategi buruzko Zuzentarauan jasoa, bai eta dokumentu horien ondoriozko zaintza eta kontrol arloko betebeharrak ere (espezie hori berrez kokatzen den eremuari nahiz toki mailari, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuari, eragiten diotenak). Otsoa Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartzea erabaki ondoren, Ingurumen Sailak, foru organo eskudunekin koordinatuta, kudeaketa plan bat onetsi beharko du, hautemandako mehatxuei aurre egiteko eta bertako populazioa berreskuratuz, kontserbatu eta behar bezala erabiltzea zein bertako habitata babestu eta mantentzea sustatzeko. Erreklamazio horri dagokion izapidetzea emateko, Arartekoak [Eusko Jaurlearitza Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailera](#) jo zuen otso populazioa Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartzeari buruzko espedientearen izapidetze egoerari buruzko informazioa jasotzeko. Kexa hori izapidetzen zegoen espedientea hau bukatu zen unean.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko Lege Proiektua

Arartekoak [Eusko Legebiltzarreko](#) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Batzordean [Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko Lege Proiektua](#) esku hartu zuen ingurumenari buruzko kexak eta jarduketak kontuan hartuz ekarpenak egiteko. Hauek dira bertan adierazitako proposamenak eta neurriak:

- **Ingurumen informazioa eskuratzeko eskubidea.** Arartekoak gomendatu zuen bitarteko elektronikoen bidez Autonomia Erkidego ingurumen kontrolari lotutako jardura

guztiei buruzko (horien barne daude jardura lizentziak eta aurretiazko jakinarazpenak) eta ingurumen ikuskaritzako txostenei buruzko informazioa hedatzeko. Neurri hori geroz eta eskuragarriagoa da teknologia berriak garatzearen ondorioz, eta horrela, gardentasuna, informazio publikoa eskuratzeko eta ingurumen kontroleko zerbitzu publikoen eraginkortasuna hobetu egiten dira. Gainera, formalizatutako informazio eskuratzeko eskariak teknologia berriek ahalbidetzen duten epe laburrenean izapidetu behar dira. Era berean, erantzunik jasotzen ez baldin bada edo ukatzeak gertatuz gero, bermatu egin behar da erreklamazioa jartzeko aukera dagoela [Informazio Publikoa Eskuratzeko Euskal Batzordean](#).

- **Ingurumen parte-hartzerako eskubidea.** Arartekoak adierazi du garrantzitsua dela administrazio publikoek bitarteko tekniko eta materialak izatea ingurumen kontuetako esku-hartzeetan oinarritzeko kalitate estandarrak betetzeko. Entzunaldi izapidetzeetan “elkarriketa, parte-hartzea eta errespetua” egon behar dira, eta egiaztatu egin behar da alegatutakoa nolabait kontuan hartu dela azken erabakia hartzerakoan. Horretarako, Arartekoak adierazi du mekanismoak daudela elkarriketa sustatzeko, besteak beste foroak edo herritarren eta administrazioen arteko mahai-inguruak. Araubide esparruan, ingurumen baimenen faseko entzunaldi izapidetzean dauden parte-hartze mekanismoekin batera, kutsagarrienak diren edo arazo gehien sortzen dituzten jardueretan parte-hartzeko eta ingurumenaren kontrol jarraipenak egiteko bestelako mekanismoak ezartzeko aukera agertu beharko litzateke.

- **Ingurumen salatzaileek administrazio ona jasotzeko duten eskubidea.** Erakunde honek emandako ebazpenean behin eta berriz adierazi du terminoak eta ingurumen salatzailearen izaera zehaztu egin behar direla. Horretarako, legean jaso behar dira kutsadura gertaerak jazozean egindako salaketetan eta jakinarazpenetan jarraitu beharreko prozedurari buruzko jarraibideak. Herritarrek ingurumen administrazio ona jasotzeko eskubidea dute, eta horrenbestez, herritarrek egindako salaketak derri-gorrez erantzun behar dira. Ekintza publikoa egikaritzeak berekin dakar interesatu izaera jasotzea eta agintari publikoiei egotz dakizkiekeen egintza eta ez-egiteen aurka erre-kurtsoa jartzeko eskubidea izatea, baldin eta egintza eta ez-egite horiek ingurumen legeria urratzen badute.

Ingurumen salaketen beste ondorioetako bat ingurumen administrazioak ingurumen kontrola, babesa eta diziplinari buruzko administrazio espedientea hastearen inguruan erabakiak hartzea da. Erabaki hori behar bezala arrazoitu behar da, ikuskaritza aktan jasotako egitateekin bat etorri behar da, eta ordena publikoko nahiz legezketasuna defendatzeko arrazoietan oinarritu behar da, alde batera utziz aukerako edo beste maila bateko irizpideak.

- **Ingurumen diziplinako eskumenak egikaritzeko bete-beharrak.** Arartekoak adierazi du garrantzitsua dela legean jasota egotea euskal administrazioek ingurumen legezkotasuna berrezartzeko dituzten eskumenak egikaritzeko duten “uka ezinezko izaera”, eta horrenbestez, ingurumen erantzukizuna eta zehapen eskumena egikaritzeko eskatu behar dute.

- **Fiskaltzari ingurumenaren aurkako delituen berri emateko betebeharra.** Arartekoak gogorarazi du baita ere legean jasota egon beharko litzatekeela ingurumen administrazioak eta ikuskariak duten legezko betebeharra, hain zuzen ere espediente zigor-arloko jurisdikziora bideratzeko betebeharra ingurumenaren aurkako delituak izan daitezkeen gertakarien berri izatean. Era berean, jaso egin behar da baita ere eskumenak dituen agintaritzak Fiskaltzan jakinarazi beharko dituela ingurumen erantzukizuneko inguruabar guztiak.
- **Ingurumen poliziaren koordinazio mekanismoak sustatzea.** Legeak Euskadi osoan babestu behar ditu ingurumen ikuskaritzako eta kontrolerako estandarrak. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten administrazio eskumendunen eta ingurumen polizien (Ertzaintza, foru agenteak eta tokiko agenteak) ikuskaritza eta ikerketa lanetarako laguntza eta koordinazio mekanismoak gehitu behar dira.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziozko jarduera. Airearen kalitatea kontrolatzeko estazioen funtzionamenduari buruzko informazioaren inguruan

2019an zehar Arartekoak jarduketa bat hasi zuen ofizioz elkarte ekologista batek airearen kalitatea kontrolatzeko estazioen funtzionamenduari buruz emandako informazioa kon-tuan hartuz, estazio horretako neurketa sistematan erroreak edo akatsak egon zirelako hain zuzen ere. Ofizioz jarduteko arrazoia da airearen kalitatea kontrolatzeko estazioak gaizki funtzionatzen edo datuak balioztatze orduan erroreak egotekotan, ingurumen arloko informazio hobea emateko aukeren inguruan hausnartzea. Aipatu beharra dago Arartekoak, aurrekoetan, esku hartu izan duela [Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren atarian](#) argitaratutako airearen kalitateari buruzko datuak direla-eta. Uztailaren 18ko 27/2006 Legean (ingurumen gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegi-tara joateko eskubideak arautzen dituen) jasotako ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubidea herritarren interesei erantzuten dien eskubide instrumentala da, eta hari esker zuzen-zuzenean jakin dezakete herritarrek zein den airearen kalitatea, eta, hala badagokio, legerian aurreikusitako beste eskubide batzuk ere baliu ditzakete, hala nola ingurumen gaietan parte hartzekoa. Hori dela eta, garrantzitsua da airearen kalitateari buruz eskura dagoen informazioa argia, egiazkoa eta interpretatzen erraza izatea interesdunentzat eta edozein pertsonarentzat. Arartekoaren [2015eko apirilaren 16ko ebazpenean](#), proposamen batzuk egin zitzaizkion [Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari](#) EAEko airearen kalitatea kontrolatzeko sarearen datuen baliozkotzeari buruzko informazio hobea emateko.

Gauzak horrela, espediente hau bukatu den unean izapide-tzen jarraitzen zuen ofiziozko jarduketaren helburua litzateke interesdunei emandako informazioa ebaluatzea neurketa ekipamenduen funtzionamenduan eta kalibrazioan haute-mandako arazoez, horiek, batzuetan, eskuratutako datuak balio gabetu ditzake-eta.

4.2. Euskal Autonomia Erkidegoko ibaietan baimenik gabe egiten diren isurien ikuskaritza eta kontrola hobetzeko gomendio orokorra

Arartekoak, 2019ko abenduan, Euskal Autonomia Erkidegoko ibaietan baimenik gabe egiten diren isurien ikuskaritza eta kontrola hobetzeko [gomendio orokorra](#) sortu zuen, eta 2020ko lehenengo asteetan argitaratu da. Ebazpen horretan, zenbait jarduketa proposamen eta gomendio daude jasota isuri kutsatzaile horiek ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumenak dituzten euskal administrazioentzako. Gomendioan gainera, baimenik gabeko isuri kutsatzaileen ingurumen kontroleko prozeduran interesa duten pertsonak egindako salaketen izapidetzeetan ezartzeko hobekuntza proposamenak daude jasota. Pertsona batek ingurumen salaketa aurkezten baldin badu, Arartekoak gogorarazi du, ingurumena defendatzeko ekintza publikoa egikaritzuz, salatzailleak horri buruz gauzatu daitezkeen ingurumen ikerketa espedienteak, espediente zigortzaileak eta erantzukizunpekoak izapidetzean interesatuei legeria prozesal administrazioak ematen dizkien eskubide berdinak izango dituela. Modu horretan, salatzailleek prozeduran parte hartzeko eskubidea, administrazio egintzen berri izateko eskubidea eta erabakitzen diren ebazpenen berri izateko eskubidea izango dute, baita txostenak eta alegazioak aurkezteko eta frogak proposatzeko eta administrazio erabakiak errekurrizko eskubidea ere.

Arartekoak gogorarazi du uraren legezotasuna ustez urratu delako ingurumen salaketa aurkezten denean, isuriak ikuskatzeko eskumenak dituen organoak ikerketa espediente izapidetu beharko duela eta ondoren, zehapen espediente hasteko erabakia hartzeko eskumenak dituen organora bidali beharko duela, eta ingurumenean garrantzitsuak izan daitezkeen kalteak sortuz gero, ingurumen erantzukizuneko espediente izapidetu beharko da.

Garrantzitsua da [URA-Uraren Euskal Agentziaren, Ertzaintzaren](#), foru eragileen eta esku hartzen duten tokiko gainerako eragileen ikuskaritza zerbitzuen arteko koordinazio neurriak sustatzea. Horretarako, gomendatzen da [Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak](#) hala eskatuta, hitzarmen bat sustatzea ibaien ingurumen zaintzako koordinazio mekanismoak bultzatzeko eta horiei segurtasun juridikoa emateko. Koordinazio horren oinarria printzipio batzuetan zehaztu behar da, besteak beste organo ikuskatzaile bakoitzaren eskumen materiala eta funtzionala, espezializazioa eta bitartekoak eta esku hartzen duen agintaritzako agenteak berrikusi beharreko ingurune naturalarekiko duten hurbiltasuna.

Arartekoak azpimarratu du ikuskaritza organoek ofizioz sustatu behar dituztela isuriaren laginak jasotzeko beharrezko

ikerketan lanak, isuriaren arduradunak identifikatzea eta bes-telako neurriak ezartzea, baliabide naturaletan sortutako ingurumen kaltea egiazatzeko eta zehazteko hain zuzen ere. Agintaritzak agenteak derrigorrez diligentsia horiek jaso beharko ditu dagokion txostenean edo aktan.

Arartekoak adierazi du gainera, derrigorrezkoa dela ikuskaritza egiten duen agintaritzako agenteak berehala txosten hori bidaltzea aktarekin batera zehapen espedienteak hasia erabakitze eskumenak dituen organora, eta ingurumenarentzako kalte garrantzitsuak sortuz gero, ingurumen erantzukizuneko espedienteak bidali beharko du baita ere.

Erakunde honek gogorarazi du zehapen eskumena egikaritzea xedaezina dela, eta uraren legerian esleitutako erakunde eskumendunek egikaritu eta sustatu behar dutela Euskal Autonomia Erkidegoko eskumen alorretan aplikatu beharreko zehapen prozedurari buruzko araubidearekin bat eginez; eta era berean, uren isuriaren araubideko urratzeen tamaina kontuan hartuz arau-haustea ingurumenaren aurkako delitua izan daitekeenean, zigor ekintza egikaritzea lehenetsi behar da.

Modu horretan, langile publiko guztiek, ikerketa edo zehapen fase guztietan, zigor jurisdikzioan jakinarazi beharko dituzte baimenik gabe egindako isuri kutsatzaileak, bereziki larriak izanik, delituzkoak izateko susmagarriak direnak. Jakinarazteko behar hori ikuskaritza langileek, espedienteak izapidetzen duten funtzionarioek eta ingurumen erantzukizuna zigortzeko edo eskatzeko eskumenak dituzten organoek izango dute.

Arartekoak eskumenak dituen ingurumen administrazioari aholkatu dio Fiskaltzarekin lankidetzan Zigor Kodeko 325. artikuluan eta hurrengoetan baliabide naturalen aurkako delituak eratzten dituzten eta bereziki larriak diren elementu susmagarri buruzko hasierako irizpide batzuk zehazteko. Horretarako, kontuan hartu beharko lituzke honako larritasun elementuak: ekintza kutsatzailearen intentsitatea, zein babestutako espazio naturaletan egin den, flora eta fauna basatiko espezieen heriotza tasa, zenbat denbora iraun duen arazoak edo ingurumen kalte larria sortu den.

4.3. Bilerak elkarrekin

Gizarte erakundeekiko lankidetzak esparrua erreklamazio zehatzak aurkeztuta, aldizka bilerak eginda eta dibulgazio ekintzetan parte hartuta garatzen da.

Lankidetzan testuinguru horren barruan, harremanetan jarri gara honako elkarrekin:

- ASVIAMIE ([Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkarte](#)), amiantoaren kalteak jasan dituzten hondakinak kudeatzeko eta kutsadura kentzea sustatzeko proposamenak ezaugarazteko.
- Badian Bizi Elkarte, Pasaiako portuko kutsadura kontrolatzen eta horren jarraipena egitean sortutako arazoak direla-eta.

- [Ekologistak Martxan](#) Araba, ingurumen kontuetan parte-hartze publikoko prozesuei buruz jakiteko.
- Zadorra Bizirik, erkidegoko ibaietan egindako isuriaren kontrolari buruz jakiteko.
- [Ekologistak Martxan](#). Bizkaia, EAEn lindanoaren (HCH) kalteak jasan dituzten hondakin kudeaketa hobetzeko proposamenei buruzko informazioa izateko.
- [Grupo Lobo de Euskadi](#), Araban otsoak kontrolatzeko neurri buruzko foru baimenari buruz lan egiteko.
- Meatzaldea Bizirik, Muskizko industria jardura baten ingurumen kontrolari buruz jakiteko.
- [Eguzki](#), erkidegoko ibaietako isuriaren kontrolaren inguruan.
- Bilboko Erripa kaleko bizilagunen elkarte, Bilboko jaietako txosnetako zarataren inguruan.
- Bilboko Uribitarte Anaitasunako bizilagunen elkarte, ingurumen zarataren kontrola dela-eta.

4.4. Bilerak administrazio eta erakundeekin

Arartekoak bilera egin zuen [Fiskaltzako](#) kideekin, hain zuzen ere Bizkaiko eta Gipuzkoako ingurumen ataleko arduradunekin, ingurumen babesaren alorrean eta ondare historiko kulturala babestean koordinazio proposamenak sustatzeko.

Arartekoaren ingurumen arloko arduradunak bilera egin zuen [Ertzaintzako](#) Ingurumen eta Hirigintza ataleko arduradunekin. Horrez gain, Arartekoak bilera egin zuen [Bilboko Udaleko](#) mugikortasun eta jasangarritasun arloko zerbitzu teknikoekin, udal horrek ingurumen zaratak sortutako arazoak konpontzeko gauzatzen dituen jarduketan berri izateko.

4.5. Erakunde adierazpenak eta iritzi artikulak

- **Arartekoaren erakunde adierazpena, 2019ko ingurumenaren nazioarteko egunean** Arartekoak [2019ko Ingurumenaren Nazioarteko Eguna](#) ospatu zuen lelo honekin: “[Aire kutsadurarik gabeko lur-planeta](#)”. Hala, erakunde adierazpena egin zuen, eta bertan, agintari publikoei eta gizarteari ekintzan hasteko eskatu zien, lur-planetan milioika pertsoneri eragiten dien etsai arriskutsu eta ikusezinen aurka egiteko, kutsadura atmosferikoaren aurka egiteko hain zuzen ere. Euskal lurralde osasuntsuagoa izateko, airearen kalitatearen ondorioz gizakien osasunean arriskutsuak diren elementuak gehiago kontrolatu behar dira. Horretarako, Euskadin airearen kalitateari eratorritako arriskuen eta aukeren kudeaketa goiztiarra sustatzen jarraitu behar da. Horri dagokionez, Arartekoak jakinarazi du ados dagoela garatzen diren politikak soilik legea betetzea baino haratago joatearekin, eta hala, helburua lurralde osasungarria eta emisioetan neutroa dena lortzea izan behar dela, modu eraginkorrean osasuna eta ingurumena babestea bermatuz.

- **Arartekoaren erakunde adierazpena Madrilgo Klima Aldaketari buruzko COP 25 biltzarrari buruz.** [Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren alderdien klima aldaketari buruzko 25. biltzarra](#) Madrilen izan zen 2019ko abenduan, eta bertan, Arartekoak erakunde adierazpena egin zuen aurre egin beharreko larrialdi klimatikoari buruzko kezka adierazteko. COP 25 erakundearen eta gizartearen arteko espazioa da, eta egokia da hausnartzeko garrantzitsua dela adierazpenak eta konpromisoak tokiko premiazko eta berehalako ekintzetan ezartzea. Horretarako, klima ekintzan akordioak egin behar dira, eta horien bidez bermatu egin behar da konpromiso energetikoak eta klimatikoak betetzen direla. Era berean, Arartekoak proposatu du aurrerapausoak egin behar direla legerian eskubide klimatiko horiek egikaritzeko ekintza publikoa aintzatesteko, hau da, herritarrek erakundeetan neurri zehatzak hartzeko duten eskubidea egikaritzeko, hala, modu eraginkorrean bermatuz negutegi efektuko gasen emisioei dagokienez neutroa den gizartea izatea.
- **Iritzi artikulua** 2019an Arartekoak hainbat komunikabideetan argitaratu zuen iritzi artikulua hau: [“Klima-ekintzarako eskubideak serio hartzea”](#).

4.6. Jardunaldietan parte hartzea

Arartekoko ordezkariak [Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak](#) antolatutako hainbat ekimen eta jardunaldietan parte hartu dute:

- IHOBE foroa, EAEko Ekonomia Zirkularreko Estrategia 2030. 2019ko URTARRILA
- Euskadiko Ingurumen Profilaren aurkezpena 2018. Klima aldaketa. 2019ko otsaila:
- “Change the Change” Klima aldaketari buruzko nazioarteko biltzarra. 2019ko martxo.

Bestalde, Arartekoaren ingurumen arloko arduradunak [Cristina Enea Fundazioak](#) antolatutako mahai-inguru batean parte hartu zuen, eta bertan Urumea ibaiaren industria eta natura ondarea babesteari buruz hitz egin zuten. 2019ko uztaila.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

- **Ingurumen atalean erreklamazio gehien jasotzen dituen arazoa etxeetan kutsadura akustikoa sufritzen duten bizilagunena da.** Herritarrek erreklamazioetan eskatzen dute legezkoak ez diren esku-hartzeen aurrean zaratarik gabeko etxebizitza bat izateko eskubidea bermatzeko, zarata horiek legezko mugak gainditzen dituztelarik, albo batera utzita zein den zarata igorlearen arrazoia. Horretarako, Arartekoak berriz ere adierazi du behar-beharrezkoa dela administrazio publiko eskudunek jardue-
ra zaratatsuetatik edo beste zarata iturri batetik datorren

zarataren kontrol egokia bermatzea, partikularren artean bada ere. Agintari publikoen eginkizunean ezarrita dago zarataren kontrolari buruzko araubidea betetzeko eskatu behar dutela, legezko kalitate akustikoko helburuak bermatzeko. Eginkizun publikoak modu planifikatuan aplikatu behar dira —zainketa eta ikuskaritza programen bitartez— eta ez bakarrik zarata jasan behar duten pertsonen hainbat kexa aurkeztu ondoren.

- **Arartekoak ingurumen salatzaillearen administrazio onerako eskubidea sustatzen duten neurriak babesten jarraitzen du.** Arartekoak emandako ebazpenetan adierazi du zehaztu egin behar direla terminoak eta ingurumen salatzaillearen izaera. Horretarako, ingurumen legerian zenbait jarraibide jaso behar dira kutsadura gertaerak jazotzean egindako salaketetan eta jakinarazpenetan aplikatu beharreko prozedurari buruz. Ekintza publikoa egikaritzeak berekin dakar interesatu izaera jasotzea eta agintari publikoei egotz dakizkiekeen egintza eta ez-egiteen aurka errekurtsioa jartzeko eskubidea izatea, baldin eta egintza eta ez-egite horiek ingurumen-legeria urratzen badute.

Gainera, herritarrek ingurumen administrazio ona izateko eskubidea dutenez, **salaketak derrigorrez erantzun behar dira.**

- Ingurumen salaketen beste ondorioetako bat **ingurumen administrazioak ingurumen kontrola, babesa eta disiplinari buruzko administrazio espedienteak** hastearen inguruan erabakiak hartu beharra da. Erabaki hori behar bezala arazoitu behar da, ikuskaritza aktan jasotako egitateekin bat etorri behar da, eta ordena publikoko nahiz legezketasuna defendatzeko arazoietan oinarritu behar da, alde batera utziz aukerako edo beste maila bateko irizpideak. Arartekoak hainbatetan adierazi du ingurumen legezketasuna eraberritzeko, ingurumen erantzukizuna eskatzeko eta zehapen eskumena egikaritzeko eskumena derrigorrez bete behar dituztela euskal administrazioek.
- Arartekoak 2020ko urtarrilean argitaratutako gomendio orokorra sortu zuen, eta bertan, **Euskal Autonomia Erkidegoko ibaietan baimenik gabe egindako isuri kutsatzaileak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumenak dituzten euskal administrazioei zuzendutako jarduketa proposamenak eta gomendioak argitaratu zituen.** Gomendio horretan zenbait hobekuntza proposamen egin ziren baimenik gabeko isuri kutsatzaileen ingurumen kontroleko prozeduran interesa duten pertsonen egindako salaketen izapidetzeetan ezartzeko. Pertsona batek ingurumen salaketa aurkezten baldin badu, Arartekoak gogorarazi du, ingurumena defendatzeko ekintza publikoa egikaritzuz, salatzailleak horri buruz gauzatu daitezkeen ingurumen ikerketa espedienteak, espediente zigortzaileak eta erantzukizunpekoak izapidetzean interesatuei legeria prozesal administrazioak ematen dizkien eskubide berdinak izango dituela.
- Bestalde, Arartekoak egindako jarduketetan gogorarazi du agintaritzek edo administrazio langileek ikusi ditzaketen **ingurumenaren aurkako balizko delituak Fiskaltzari**

jakinarazi behar dizkiela derrigorrez. Ingurumen administrazioak eta ikuskariek espedientea zigor-arloko jurisdikziora bidali behar dute ingurumenaren aurkako balizko delituak izan daitezkeen gertakarien berri izatean. Horrez gain, Fiskaltzari jakinarazi behar dizkiete baita ere ingurumen erantzukizuneko araubidea urratzen duten inguruabarrak.

- Bukatzeko, Arartekoak jakinarazi du baita ere **ingurumen poliziaren koordinazio mekanismoak sustatu behar direla EAE osoan ingurumen ikuskaritza eta kontrol-ko estandar egokiak betetzeko.** Horretarako, eskumenak dituzten administrazioen eta EAEn lan egiten duten ingurumen polizien artean (Ertzaintza, foru agenteak eta tokiko agenteak) ikuskaritza eta ikerketa lanetan laguntza eta koordinazio mekanismoak ezarri behar dira.



II. atala

7

**Herri lanak, garraioak eta
azpiegiturak**

1. Arloa kopurutan








Aurten 50 kexa-espeditente kudeatu dira sail honetan eta honakoa izan da eragindako administrazioen araberako banaketa:

• Tokiko administrazioa.....	21
• Foru administrazioa.....	18
• Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurjaritza).....	5

Azpiarloen araberako banaketari erreparatuz gero, honela sailkatuko litzateke:

• Herri-lanak eta azpiegiturak.....	15
• Garraioak.....	12
• Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazio erantzukizuna.....	10
• Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa.....	5
• Obrak egitea.....	4
• Nahitaezko desjabetzea.....	3
• Beste alderdi batzuk.....	1

Ekitaldiaren itxieran, sailean jasotako kexen estatistika-informazioa ondorengo litzateke:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
68	13	55	18	30	4	3

Ohikoa denez, ekitaldi honetan izapidetutako kexak arloko bi gai-bloke handiei dagozkie. Alde batetik, **garraio publikoa**, hain zuzen, garraioko hainbat modalitate (autobus, metro, tren eta taxi bidezko garraioa). Horretan, errepideko garraio pribatua ere hartu behar da kontuan; bai eta erabiltzaileei sortzen dituen gorabeherak, abonamendu-mekanismoak, ordainketa-moduak eta azpiegitura horiek erabiltzen dituzten ibilgailuentzako deskontuak ere. Bestaldetik, bigarren

gai-blokea **herri-lanei** dagokie; horretan, nabarmentzekoak dira azpiegituren proiektuak izapidetzeari buruzko kexak; bai eta horri lotutako bestelako arazoak salatzeke kexak ere, adibidez, obrak gauzatzeke beharrezkoak diren lursail pribatuak nahitaez desjabetzeke buruzkoak. Edonola ere, obra txikiak gauzatu eta mantentzearekin zerikusia duten kexak jarraitzen dute atal honen zati handiena izaten; horien artean, nabarmentzekoak dira **bide publikoei** eta horien egoera zaintzeke lotutako arazoak, udalek, beren ondarean, batzuetan inbertsio handiak behar dituzten bide-sareak baitituzte, baina aurrekontu eskasa, batez ere biztanle gutxi dituzten landa-inguruneke udalerrietan.

Oro har, jarduketa desegoki bat egon dela ikusi dugunean, administrazio publikoen erantzuna arazoizkoa izan da eta helarazi ditugun gogoetak kontuan hartu izan dira, kexa aipagarrien atalean administrazioaren lankidetzak espero zitekeen emaitzarik izan ez duten kasu batzuk adierazteke aukera alde batera utzi gabe.

Administrazio-prozedura ez betetzeke loturiko kontuak direla eta izapidetu diren kexei dagokienez, Arartekora jotzen duten pertsonak azaltzen dituzten arazoak ez dira aldatzen: **administrazioaren isiltasuna** izaten da kexen arrazoi nagusia. Horrek esan nahi du interesdunek ez dutela erantzunik jasotzen, eta gainera, ez dakitela zer iritzi duen Administrazioak herritarrek eskatutako esku-hartzeke buruz.

2. Kexarik aipagarrienak

Atal honetan, izapidetu ditugun kexa batzuen laburpen bat jasotzen dugu, urtean zehar izandako jardueraren adibide gisa, ondoren zehazten ditugun epigrafeen arabera.

2.1. Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

Herritarrek gero eta zerbitzu gehiago eta hobeak eskatzen dizkiote Administrazioari, beraz, administrazioaren funtzionamendu eta prozeduraren atala ere ez da eskaera horietatik kanpo geratzen. Oro har, **gardentasun** handiagoa

eskatzen zaio administrazioaren jardunari, bereziki, informazioa eskuratzeko aukera dela eta, tresna egokia baita administrazio-espeditenteen izapidetze-egoera ezagutzeko. Herri-lanen proiektuak izapidetzea nahiko konplexua denez, izapide-denbora luzatu egiten da, eta herritarrek erreklamazioak jartzen dituzte, proiektua jendaurrean jartzeko faseetako batean egin dituzten alegazioei edo iradokizunei buruzko erantzunik jaso ez dutenez, beren eskubideak urratzen ari direla uste dutelako.

Administrazio publikoek daukaten **informazio publikoa** eskuratzeko eskubidea dela eta azaltzen den beste kontu bat indarrean dagoen araudia betetzea da; izan ere, informazioa eskuratzeko ukapena arrazoizkoa bada ere, esanbidezko ebazpena eman behar da, erabakia justifikatzen duten legeko arrazoiak zehaztuta; gainera, informazioa eskuratzeko aukera ukatzen duen edozein interpretaziok murriztailea izan behar du, eta, adibidez, datuak bereiztea bezalako neurriak hartzeko bidea eman behar du, eskatzen den informazioa emateko. Oro har, Administrazioak gaur egun dauzkan baliabide teknologikoekin, gero eta arrazoi gutxiago dago eskatutako informazioa ukatzeko, datu pertsonalen konfidentzialtasunari buruzko argudioa erabiliz. Edonola ere, jarraitu behar dugu azpimarratzen oraindik asko dagoela hobetzeko, bai publikitate aktiborako politikak garatzeari, bai Administrazioaren eskuetan dagoen informazioaren banakako eskaerei erantzuteari dagokionez.

Atal honetan, Administrazio Publikoaren betebeharra ere kontuan izan behar da; izan ere, administrazio-ahalmenak erabiltzen dituenean, jarduketara osoa **administrazio-prozedura erkidearen** arauetara egokitu behar du, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen **urriaren 1eko 39/2015 Legearen** xedapenak betez, eta —izapidetu beharreko berriazko administrazio-espeditentean— eragindako pertsonen eskubideak bermatu behar ditu, administrazio-prozeduraren instrukzioaren funtsezko kontuak zehazten dituzten arauak jarraituz.

2.2. Herri-lanak eta azpiegiturak

Aurten, ez dago nabarmendu beharreko jarduketarik, proiektu handiak edo azpiegiturak izapidetu edo gauzatzeari dagokionez; bestela esanda, erabiltzaileek edo inguruko auzokideek azpiegitura horiekin dituzten arazoak eta hobe-kuntza-proposamenak dira nabarmentzekoak. Hala, kexa gehienek **errepideak** aipatzen dituzte, eta kexagileek edukiera handitzeko edo sarrera- eta irteera-adarrak hobetzeko eskatzen dute, ibilgailuen zein bidea erabiltzen duten oinezkoen segurtasuna areagotzea ahalbidetze aldera. Herritarren eskaera desberdinei erantzuteko orduan, foru-administrazioek, lurralde historiko bakoitzean udalerriz gaindiko **errepideen** titularrak direnez, zehaztu behar dituzte, eskaerak onartuta, baliabide ekonomikoak esleitzeari buruzko erabakiak hartzeko irizpideak eta/edo azaldutako beharra ez dagoela justifikatuta esateko arrazoiak.

Sakabanatutako gunetan bizi diren pertsonen segurtasun-arazoei buruzko kexak jaso ditu Arartekoak. Izan ere, herritar horiek, askotan, ibilgailuen zirkulazio handia duten

errepideak zeharkatu behar izaten dituzte, eta horregatik, semaforoak jartzeko eta bestelako segurtasun-neurriak hartzeko eskatzen dute, oinezkoen segurtasuna areagotzeko. Bartzuetan, semaforoak jartzea edo bestelako neurri osagarriak hartzea ez da komeni, besteak beste, ibilgailuen abiadura, eremuko ikuspena, pasabidea erabiliko duten pertsonen kopurua eta errepidea zeharkatzeak sortzen duen arriskua-erikio esposizioa kontuan hartuta. Hori dela eta, ebaluazio teknikoko parametroen arabera azterketa egin ondoren, administrazio eskudunak erabaki behar du semaforoa jartzeko eskaera onartu ala ez. Erabaki guztietan, aski arrazoitu behar izateaz gain, ezinbestekoa da balorazio teknikoa jasotzea eta **diskrezio-ahalak** erabiltzea, eta ezin da hartutako irizpidearen ordezkari beste bat ezarri, erabakia arbitrarioa edo legearen aurkakoa dela modu frogagarrian egiaztatzea. Hori dela eta, Arartekoaren eginkizuna da Administrazioak hartutako erabakiak beharrezko motibazioa eta arrazoizkotasuna duela egiaztatzea eta eragindako Administrazioarekin kontrastatzea.

2.3. Ondarea

Aurreko ekitaldietan bezala, atal honetan gehien azaltzen diren arazoak **bide publikoen mantentze eta hobetzearekin** dute zerikusia. Landa-inguruneke udalerritik asko bide publikoaren sare oso zabala dute lurzoru urbanizazionean, herrigune txikiak erdigunearekin konektatzeko edo sakabanatutako eraikin bakartuak errepide nagusiekin lotzeko. Garai batean, bide horietako askoren ohiko mantentzea auzolan bidez egiten zen, hau da, komunitate-lanaren bidez; hala ere, gaur egun, gune horietan bizi diren pertsona askoren jardura ez da lehen sektorekoa, eta horrek oztopatzen du zeregin horiek elkarlanean egiten jarraitzea. Edonola ere, udalek, dauzkaten baliabideak esleitzeko lehentasun-ordena erabakitzeke, planifikazioa eta irizpide zehatzak ezarri behar dituzte, gaur egun ezinbestekoa baita bide horiek ahalik eta egoera onenean mantentzea, gune sakabanatuetan bizi diren motordun ibilgailuak nahitaez erabili behar dituztelako.

Bestaldetik, herritar batzuek Arabako Foru Aldundiari egingandako eskaera bat dela eta jarritako kexa bat izapidetu du Arartekoak. Izan ere, herritar horiek eskatu zioten **Arabako Foru Aldundiari** Arabako herri baten erdigunerako zuzeneko sarbide egokia egin zezan, oraingo herri-bidearen ordezkari inguruko biztanleen beharrek beteko zituen errepide berri bat eginez. Herritarrek behartuta zeuden bidea tamaina handiko nekazaritzako makineriarekin batera erabiltzera, eta hori, kexagileen iritziz, arriskua sortzeaz gain, bidea hondatzea eragiten zuen, ibilgailu astunak erabiltzearen ondorioz.

Foru Aldundiak jakinarazi zuen aipatu herrigunera sartzeko bidea ez dela errepide bat, eta ez dago bide gisa aipatuta (eta inoiz ez zen bide gisa aipatu) Errepideen Foru Sarearen katalogoetan. Hori dela eta, bide hori konpondu eta mantentzeko egin behar diren jarduketak burutzea ez dagokio Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Sailari, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren aplikazio-eremutik kanpo dagoelako. Laburbilduz, foru-aldundiak ondorioztatu zuenez, auzo-bideen sareko errepide bat transferitu daiteke, nekazaritzako bide gisa

erabil dadin edo erakunde interesdunak kudea dezan, baina ez da aurreikusten herri-bide bat zuzenean Foru Sareko errepide bihurtzeko aukerarik. Gainera, foru-aldundiaren iritziz, egoera hori nahiko normala da foru-lurraldeko hainbat herri-gunetan. Bestalde, Udalak adierazi zuen ahal zuen neurrian (ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta), pixkanaka-pixkanaka, bide-zorua konpontzen ari zela, eta ustategietarako bideak eta landa-bideak egiteko dirulaguntzak eskatzea adostu zuela, arekak garbitzeko eta bide-zorua hobetzeko; baina ez du lana burutzeko ahalmen ekonomikorik, bere aurrekontu orokorra 700.000 euro baino ez delako.

Azkenik, bide publikoen harira, [Arartekoaren 2019ko azaroaren 26ko ebazpena](#) plazaratu dugu. Horren bidez, gomendatu zaio [Guardiako Udalari](#) behar bezala izapidetu dezala udal bide publiko baten zati bat okupatzeagatiko salaketa. Aipatu kexa izapidetzean, Udalak ez zion erantzun erakunde honek informazioa osatzeko bidali zion eskaerari; hortaz, gomendioan jasotako azterketa eta gogoetak erakunde honen eskuetan zegoen informazioa oinarri hartuta egin ziren. Arartekoan salatutako egitatei dagokienez, kexa jarri duten herritarrek, hainbat erreklamazio jarri arren, ez dute erantzunik jaso. Gauzak horrela, administrazioaren jardunik ezak kasu honetan esan nahi du ezin dela egiaztatu ondasun publiko bat legez kontra usurpatu den, eta horrek interesdunari kalte egiten dio, ezin baitu ondasun hori erabili. Udalak jabari publikoko ondasunen edukitza-egoera berreskuratzeko betebeharra *“no está a merced de un criterio de discrecionalidad por parte de ella, pues si hay algo que esté sometido a principios de derecho imperativo y necesario, ese algo, de forma destacada, es el relacionado con el estatus de esta clase de bienes, algunos de ellos llamados incluso a desaparecer si no se establecieran frenos a la codicia de los particulares”* (2001eko apirilaren 23ko AGE, 3235/1993 zenbakiko kasazio-errekurtsoa, jurisprudentzia-dotrinari buruzko zuzenbideko zazpigarren oinarria, besteak beste 1990eko ekainaren 6ko AGErena aipatuz). Udalak onartu egin du gomendioa.

2.4. Desjabetzea

Nahitaezko desjabetzeari buruzko kexa gutxi jasotzen diren arren, izapidetzen direnek kexagileen ondoeza adierazten dute, pertsona horien ustez, beren ondarea hartzea ez baitago behar bezala arazoitua. Herritarrek zalantzan jartzen dute beren jabetzako lurak hartzeko beharra, herri-lana gauzatzeko beste modu arazoizkoago batzuk badaudela uste dutelako. Batzuetan, berandu erreakzionatzen dute proiektuaren testuaren aurka; izan ere, trazadurarekiko desadostasuna adierazten dute lurak hartu aurretiko aktak izapidetzeko unean, eta une horretan desjabetze-espeditatearen edukiri lotutako alegazioak baino ezin dituzte egin.

Edonola ere, Administrazioak zehatz-mehatz bete behar ditu nahitaezko izapideak, desjabetutakoei desjabetze-espeditatea ikusteko aukera ematea barne, eragindako lurak eta ondasunak behar bezala identifikatuta dauden egiaztatze aldera. Ildo horretan, espeditate bat alegazioak jartzeko aurreikusitako epean ikusteko aukerarik ematen ez bada, interesdunaren eskubide eta interesak defendatu gabe gera

daitezke, betiere, justizia-auzitegiak xedatu dutenez, defentsa-gabezia materiala bada eta defentsarako eskubidea benetan urratu dela egiaztatzen bada, hau da, espeditatea ezin ikusteak edo aukera hori mugatzeak dagokion prozeduran eraginkortasunez defendatzea eragotzi badu.

2.5. Obrak egitea

Herri-lanak gauzatzeari dagokionez, aurten, amaitutzat jo dugu kexa bati lotutako esku-hartzea, [Arartekoaren 2019ko maiatzaren 9ko ebazpena](#) emanez. Horren bidez, gomendatzen zaio [Donostiako Udalari](#) erantzun arazoitua eman diezaiela kale bat ibilgailuen nahiz oinezkoen zirkulazioari itxi izanaren inguruan aurkeztutako idazkiei. Kale bat ibilgailuen nahiz oinezkoen zirkulazioari bi urtez baino gehiagoz itxi izana eraikitze- eta **urbanizatz**e-lanak —hau da, obra publiko zein pribatua— gauzatzeko beharrekini justifikatzen zen. Hala ere, interesdunaren arabera, gehiegizko neurria zen eta ez zegoen behar bezala justifikatuta, inguruko erabiltzaileei eragiten zizkien arazo larriak kontuan hartuta.

Aipatu kexa izapidetzean, udalak ez zion erantzun erakunde honek informazioa osatzeko bidali zion eskaerari; hortaz, gomendioan jasotako azterketa eta gogoetak erakunde honen eskuetan zegoen informazioa oinarri hartuta egin ziren. Arartekoak ondorioztatu zuen ez zela nahikoa segurtasuna eta komeni zena aipatze hutsa hartutako erabakia “behar bezala” arazoituta zegoela jotzeko, horrek ez baitzuen aukerarik ematen egiaztatze kale osoa ixtea, jabeen komunitatearen kirol-eremu pribaturako ibilbide irisgarria kendu delarik, arazoizkoa ote zen. Esku-hartzea gomendioari erantzunik jaso gabe amaitu da, hortaz, ez dela onartu ulertu behar da.

2.6. Garraioak

Azken urteotan bezala, 2019 ekitaldian garraio zerbitzuari buruz jaso ditugun kexa gehienek, funtsean, bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzua eskaintzerakoan, nola hiriko zerbitzua izan hala hiri artekoa, sortutako arazoak izan dituzte hizpide.

Hala, aipa dezakegu hiriarteko garraio-zerbitzuak baserrialdeetan geralekurik ez izatea salatu duten hainbat kexa jaso duela aurten Arartekoak; gainera, geraleku batzuk biztanleentzat seguruak ez diren tokietan daudela eta garraio publikoaren egungo eskaintza nahikoa ez dela salatu da.

Adibide gisa, pertsona batek Arabako Foru Aldundian aurkeztu zuen eskaera mahaigaineratuko dugu. Herritar horrek neurrirako garraio-zerbitzua erabiltzeko eskaera egin zuen, Araban dauden Arroibe eta Langara Ganboa herrien arteko ibilbidea egin ahal izateko.

Arartekoak bidalitako eskaerari erantzunez, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru-diputatuak txosten osoa helarazi zigun. Bertan, laburbildu zituen sailak zona horretako garraio-premia dela eta jasotako eskaerei erantzuna emateko burututako jarduketak.

Laburbilduz, esan dezakegu aipatu foru-entitateak honako hau jakinarazi zigula: gaur egun dagoen neurrirako garraio-zerbitzua ordeztzeko asmoz, Eskualdeko Garraio Zerbitzu berria diseinatu zen, eta hura 2018ko udaberrian Arabako hainbat kuadrillatan aurkeztu zen. Ildo horretan, jaso genuen txostenean adierazita zegoen eskualdeko garraio horrek hobekuntza teknologiko garrantzitsuak dituela eta neurriko garraio gisa ere funtzionatzen duela; erabilerari dagokionez, dagoeneko ez da bakarrik garraio erregulararekin lotu eta aldaketa egiteko erabiltzen, baizik eta edozein tokitara iristeko erabil daiteke (oinarrizko zerbitzuetara, eskolara, lanera iristeko), aurretik ezarritako ordutegietan. Zerbitzua, gainera, asteburuetan ere ematen da.

Zerbitzu berriak barnean hartzen du “6B. Legutio-Durana-Gasteiz” linea, Langara Ganboa herriari zerbitzua ematen diona (lanegunean 5 zerbitzu joateko eta 5 etortzeko, eta asteburuan 4 zerbitzu joateko eta etortzeko). Gainerako zona guztietan bezala funtzionatzen du; bidaldiak aktibatuko dira eta Langara Ganboatik pasako dira, baldin eta aurretik erreserba egiten bada; horrela, Duranara hel daiteke (udalerriko hiriburua, mediku-kontsultategia duena) edo Gasteizera (erabiltzaile gehienek helmuga, TUVISA geralekua, Bergarako atea kaleko 25. zenbakian). Ezarritako ordutegiak idazkiari erantsi zaizkio.

Dirudinez, 2018ko udazkenean plazaratu zen zerbitzu berriaren lizitazioa, prozedura irekiaren bidez. Guztira 22 sorta ziren, eta horietatik 9 esleitu gabe geratu ziren, besteak beste, “6. Legutio” sorta, Langara Ganboako zerbitzua barnean hartzen duena. 2019ko otsailen, gainerako 9 sorta horien lizitazioa egin zen, publikizaterik gabeko prozedura negoziatuen bidez; berriz ere, 6 sorta esleitu gabe geratu ziren, besteak beste, hizpide dugun “6. Legutio” sorta.

Aurrekoa gorabehera, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru-diputatuak adierazi zuen foru-administrazioak Langara Ganboako biztanleei garraio publiko egokiena eskaini nahi zela, aipatutako zirkunstantziak kontuan hartuta.

Bestalde, unibertsitateko elkarte batek aurkeztutako kexari loturiko esku-hartzea amaitu du Arartekoak. Elkarrekin desadostasuna agertu zuen [Bizkaiko Foru Aldundiak](#) hartutako erabaki batekin; hain zuzen, foru-aldundiak “Bilbao/Vitoria-Gasteiz e hijuelas” emakida bateratuaren baldintzak aldatzea erabaki zuen (bi geraleku gehitzea), baina, kexa jarri zuen elkartearen iritziz, erabakia kontraesan dago lizitazioa etetearekin (Arabako Foru Aldundiarekiko auzietarako prozeduraren zain, foru-entitate bien arteko eskumen-banaketa dela eta). Elkarrekin arabera, foru-erakundeak amaitutako emakida bat aldatzeko baimena eman zuen; azpimarratu zuten, elkarteak duela 25 urte baino gehiagotik unibertsitateko ikasleei ematen die zerbitzua, hau da, erabilerari bereziki autobusez errepideko garraio-zerbitzu erregularra ematen die.

Foru-aldundiak lizitazioaren etenaldia 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 22.2 a) artikuluan xedatutakoan oinarritu zuen. Horren bidez, prozedura etetea aurrez ikusten da, administrazio publiko batek beste bati legez kanpokotzat jotzen

duen egintza indargabetzea edo ikuskatzea eskatzen dionean, hori lehenengoak bere aginpideen eremuan erabakia hartzeko oinarritzkoa bada. Hala, administrazioarekiko auzi eskumenaren aurrean jarritako errekurtsioa ebatzi arte egongo da etena. Beraz, lizitazio-prozeduraren etenaldia behar bezala arrazoituta zegoen. Era berean, Errepideko Bidaiari Garraioari buruzko [martxoaren 18ko 4/2004 Legearekin](#) eta Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamendua onartzen duen [apirilaren 3ko 51/2012 Dekretuarekin](#) bat, Arartekoak erabaki zuen bazegoela lege-oinarri bat emakida luzatzeko eta linearen aldaketa egiteko.

Aurtengo esku-hartzeen xede bihurtu den beste gai bat honako hau izan da: [Gipuzkoako Foru Aldundian](#), A-15 eta N-1 ahalmen handiko errepideetako tarte batzuei dagokien **erabilerakana** ordaindu ez izanari buruzko salaketan kasuetan jarraitzen diren prozedurak izapidetzeko modua. [Arartekoaren 2019ko irailaren 23ko ebazpenaren](#) bidez, gomendatu zitzaion foru-erakundeari zordunari **zehapenak ezartzeko ahalmena** eta premiamenduzko prozedura abiarazteko ahalmena erabiliz izapidetzen zituen administrazio-prozeduren artean aginduzko bereizketa egitea, [abenduarren 15eko 7/2016 Foru Araua](#) aplikatuz. Aipatu foru-arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-15 eta N-1 gaitasun handiko errepideetan, zati jakin batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen du. **Zergaz kanpoko ondareko prestazio publikoa** denez (horren kudeaketa [BIDEGI S.A.](#) foru-sozietate publikoaren esku utzi delako), ezarritako sistemak honela funtzionatzen du: batetik, ko-brantzak, eta bestetik, betebeharrak zuzenbide pribatuko mekanismoen bidez betetzeko saialdiak huts egin ondoren, oinarritz, borondatez, foru-erakundeari jakinarazten zaio, bere eskumen hertsagarriak erabil ditzan, hala nola zehapenak ezartzeko ahalmena eta zordunaren gaineko premiamenduzko prozedura abiarazteko ahalmena. Horrek guztiak, bere aplikazio praktikoan, zenbait disfuntzio aurkezten zituen foru-sozietate publikoak kudeatutako fasean nahiz sozietatearen jarduketan eta Foru Aldundiaren eskumeneko ahal publikoen gauzatzearen arteko igarotzean ere. Gomen-dioa onartu egin dute.

Bestalde, ohikoak izan dira —aurten ere— **garraio-txartelen** arazoengatik kexak, bereziki, txartelak baliogabetzeengatik; izan ere, balizko jarduera irregularrak hauteman dira tarifak bateratzeko sistemaren modu iruzurtian deskontu handiagoak lortzeko asmoz. Arartekoak aztertu dituen kasuetan, lurralde bakoitzeko garraioaren lurralde-agintaritzak jarraitzen duen prozedura —aipatu txartelak baliogabetzeko— aplikatu beharreko araudian ezarritako irizpideen eta prozeduraren araberakoa zela egiaztatu ahal izan zen.

Azkenik, azpiatal honi dagokionez, beste urte batez azpimarratu behar dugu errepideko garraioarekin zerikusia duten kexak ugariago izan arren oraindik ere jasotzen ditugula **trenbidearen** erabiltzaileen erreklamazioak. Erreklamazio horiek, gure eskumen-eremua dela eta, [Euskotrenen](#) zerbitzua eta metropoli-garraioaren sistemaren ([Metro Bilbao](#)) zerbitzua aipatzen dute.

Ikusmen arazoak dituen pertsona baten kexa jaso zuen Arartekoak. Horren bitartez, herritarrek salatu zuen txartelak

balioztatzeko makinek arazoak ematen dituztela Gasteizko tranbiaren geroak txartelak balioztatzeko orduan. Hain zuzen ere, makinaren bolumena igotzeko premia aipatu zuen, zirkunstantzia konkretuetan ager daitezkeen ikusmen-arazoan ondorioz, ezin baita txartela balioztatzeko unean pizten den argi berdea edo gorria ikusi.

Arartekoak gai horren inguruan bideratu zuen eskaerari erantzunez, Euskotrenen zuzendari nagusiak jakinarazi zigun ikus-elementua indartzea dela txartelak balioztatzeko makinaren seinale akustikoaren funtzioa, eta, hain zuzen ere, elementu hori begiratu behar dela, txartela behar bezala baliozkotu den jakiteko. Era berean, jakinarazi zigun tranbia orain dela hamar urte funtzionatzen hasi zenetik hona ez zutela jaso eguzkiaren distirak direla eta argia ikusi ezin izatea aipatzen duen kexarik. Behin baino gehiagotan azpimarratu zuen erabiltzaileek makinako *display* pantaila ere begira dezaketela; hor agertzen da txartelean geratzen den saldoa edo, baliozkotzea behar bezala egin ez bada, horren arrazoia.

Azkenik, Euskotrenetik jasotako erantzunarekin bat, zailtasunak izanez gero, txartela baliozkotu izana egiaztatzeko, azken mugimenduak txartelak saltzeko makinetan begira daitezke eta, makina horiek Euskotreneko langileek erantzuten duten interfono-sistema daukatenez, horren bidez kontsulta egin edo makinetan ikusitako edozein anomaliaren berri eman ahal zaie.

Nolanahi ere, Arartekoak egokitzen jo zuen azpimarratzea, espedientearen ixtea jakinarazteko idazkian, txartelak baliozkotzeko makinaren seinale akustikoen bolumena egokitu behar zela, seinale horiek —ikuszeko desgaitasuna duten pertsonentzat— erabakigarriak baitira txartela behar bezala baliozkotu den jakiteko.

2.7. Beste alderdi batzuk

Herritar batek kexa jarri zuen, Arabako Foru Aldundiak A-132 errepidean (Gasteiz-Lizarra) jarrita zituen kartelak, kexagilearen iritziz, oker zeudelako. Izan ere, kartelak Berron ibaia aipatzen zuten, Ataurin eta Antoñanan, eta Izki ibaia Santikurutze Kanpezun, eta Ega ibaia omen da leku horietatik igarotzen dena.

Urazen Euskal Agentziak Arartekoari jakinarazi zionez, “Serrón” terminoa pasa den mendeko 20ko hamarkadaren amaieratik datozen mapetan (Geografia Institutukoetan) izandako transkripzio-akats baten ondorioz aplikatu zitzaizkien Maeztu, Atauri eta Antoñanako ibaiei. Ondorioz, **Euskaltzaindiaren** Onomastika zerbitzuaren eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako atalaren gidalerroei jarraikiz, 2017az geroztik, Urazen Euskal Agentzia “Serrón” izenaren ordez “Ega” izena erabiltzen hasi zen, eta terminoa aldatu egin zuen bere datu-base eta nabigatzaileetan.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak A-132 errepidearen seinale bertikal guztiak berrikusteko asmoa zuela jakinarazi zuen. Azkenean, foru-erakundeak Ega ibaiaren izena zuzen adierazten duten seinaleak jarri zituen.

3. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Herritarrei dagozkien eskubideen egoera aztertzen hasiz gero, jasotako kexak eta kontsultak oinarri hartuta, esan beharra dago herritarrek zerbitzu publiko hobeak eta seguruagoak eskatzen dituztela, bai **azpiegituren** mailan, bai **garraio publikoaren** mailan.

Ilido horretan, urrundutako biztanleguneen eta udalerririk errealitate, biztanle kopuru nahiko txikiari eragiten dion arren, merezi du arazo hori nabarmentzea. Izan ere, gune horiek eta udalerririk nagusia (non oinarrizko zerbitzuak eskuratzen dituzten) lotzeko arrazoizko modurik ez bada, oso zaila da eremu horietan bizi diren pertsonak hor bizitzeko geratzea. Gauzak horrela, zerbitzu horien eskariari erantzun ahal izateko, garraio publiko egokia ematea oso garrantzitsua da eragindako erabiltzaileentzat. Arazo horiek konpontze aldera, garraio-zerbitzu publikoaren “neurritako” soluziobideak garatzea oso interesgarria dirudi. Horri lotuta, biztanlegune sakabanatuetan bizi diren eta garraio publikoa erabiltzen duten pertsonen erosotasuna eta segurtasuna indartzean ere jarri behar da arreta publikoa eta hori lortzeko ahaleginak egin behar dira; horretarako, markesina gehiago jarri behar da eta daudenak hobetu, batzuetan sortzen duten arriskugarritasuna desagerrarazte aldera.

Oro har, administrazio eskudunek, hau da, foru-erakundeek markesinak jarri behar diren udalerririk dagoen udalarekin elkarlanean, kasu egiten diete eskaera horiei, markesinek, geroak autobusaren zain dauden pertsonak eguraldi txarretik babesteaz gain, segurtasuna handiagoa ematen dutelako, errepidetik zirkulatzen duten ibilgailuak kontuan hartuta. Beste kontu bat da, batzuetan, premia antzematen den unetik edo markesina jartzeko eskaera aurkezten denetik benetan gauzatu arte igarotzen den denbora, izapide asko egin eta beharrezko baliabide ekonomikoak esleitu behar direlako.

Zirkulazio-bideen segurtasunak ere, batik bat biztanlegune sakabanatuetan, kezkatzen ditu oinezkoak, autobus-geroak edo hirigunera iristeko, trafiko handiko eta nahi baino abiadura handiagoko errepidea zeharkatu behar dutenean, pasabide segururik ez dagoen eremuetan.

Bestalde, Arartekoak arreta jartzen du **errepideak** hobetzean, bide-adarretatik edo saihesbideetatik bide nagusietarako sarbidea lortzeko. Biztanlegune txikietatik datozen erabiltzaileak garraio publiko joateko aukerari dagokionez, tokiko eta eskualdeko errepideak hobetzea —udalerririk bateko biztanleguneen arteko joan-etorriak egiteko— urtetik urtera azaltzen den premia da; horri lotuta daude arazo ekonomikoak, udalerririk txikiak udalen ahalmen ekonomiko txikiak baita bide publiko horiek mantendu eta zaintzeko lanak eskatzen dituzten inbertsioei aurre egiteko. Foru-aldundiek, tradizioz, laguntza-programa garrantzitsuak izan dituzte inbertsio horiei aurre egiteko; izan ere, interes handikoa da udalerririk lankidetzan aritzeko programa horiei eustea, horrelako beharrei erantzun ahal izateko.

Garraio publikoen gaiari dagokionez, nabarmendutako kexen atalean azaldu diren berariazko kontuetatik haratago, Arartekoak azpimarratu behar du garraio publikoen arteko koordinazioaren eta operatibo izatearen garrantzia, alternatiba eraginkorra baita ibilgailu pribatua ez erabiltzeko. Era berean, azpimarratzekoak dira [Euskadiko Garraio Agintaritzak](#), administrazio publiko guztiek (autonomikoak, forukoak eta tokikoak) osatzen duten entitateak, arlo horretan dituen egin-kizunak, Garraioaren Politika Erkidea planifikatu eta antolatzeari bultzatzeko, plan integratzaile eraginkorrei bide emango dien garraio iraunkorra ezartze aldera.

Ildo horretan, “[Garraioaren-Panoramika-Euskadin](#)” 2018 (Euskadiko Garraio Behatokia) izenburuko azterlanak dioenez, eta —izapidetuko kexak kontuan hartuta— landa-ingurunean antzematen diren arazoetako batzuekin bat etorritu, garraio publikoko zerbitzuak lurraldeko toki guztietara iristeko aukera —maila egokian— bermatu behar du, jarduketak batez ere hornidura aldetik okerren daudenetan eginez eta zerbitzuaren efizientzia eta kalitatea bermatuz. Azken finean, bidaiarien garraio publikoan **intermodalitatea** sustatu behar da, eskaintza koordinatzea eta tarifak integraztean aurrera egitea ahalbidetzeaz gain, ordainketa-sistema moderno eta errazten bidez garraio publiko desberdinak erabiltzeko aukera emango duten planak garatuz.

Urtetik urtera, aurrerapausoak egiten dira ordainketa-moduen intermodalitatean; adibidez, Mugi txartela Gipuzkoako Renfe zerbitzuan erabiltzeko aukera ematea, eta txartel hori laster Bilboko metroan ere erabili ahal izango dela eta Bizkaiko Barik txartela beste lurraldeetako garraio publikoetan ere erabili ahal izango dela iragartzea. Edonola ere, oraindik bide luzea egin behar da garraio publikoa benetan ibilgailu pribatuaren alternatiba bihurtzeko.

Azkenik, ezin dugu laburpena bukatutzat eman administrazio publiko guztiek bete behar duten **administrazio-prozedura erkideari** buruzko indarrean dagoen legedia ez betetzeak eragiten dituen arazoak aipatu gabe. Une hauetan, administrazio publikoek askotariko tresnak dituzte beren jarduera burutzeko, adibidez, zerbitzuak kudeatzeko zuzenbide pribatuko sozietateak. Horiek horrela, Administrazioak argi eta garbi mugatu behar ditu legeak ezartzen dizkion eskubide eta betebeharren eremuak: batzuek zuzenbide pribatuko arauekin dute zerikusia; beste batzuk, aldiz, sozietatearen titularrak den erakundeari dagozkion ahalmen publikoak erabiltzeari lotuta daude, hala nola zehapen-araubidea —dago-kion araudia hausteagatik— eta zordunen aurka premiamendu mekanismoak erabiltzea.

Bukatzeko, eta ohikoa denez, Arartekoak hainbatetan salatu du oso arriskutsua dela **administrazioaren isiltasuna**, herritarrek babesik gabeko egoeran kokatzen dituelako, ez baitakite administrazioak zer egingo duen haien asmoarekin eta eskatutakoaren inguruko erantzuna berrikustea eragozten baitu. Horrenbestez, Administrazioak jardunik ez egiteak herritarrei zerbitzua emateko betebeharra ez betetzea dakar. Gainera, horrek ahuldu egiten du Administrazioak arduraz, eraginkortasunez eta modu ez-arbitrarioan jardungo duen **bidezko konfiantza** (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren [urriaren 1eko 40/2015 Legearen](#) 3. artikulua). Bidezko konfiantzaren printzipioa, hain zuzen ere, **segurtasun juridikoaren** printzipioaren proiektzioa da, eta lotura estua du administrazio publikoaren jardunaren legezkotasun-printzipioarekin. Hortaz, jokabide jakin bat exijitu beharra dago, gaiaren funtsean zein forman.



II. atala

8

**Jarduera ekonomikoaren
antolamendua**

1. Arloa kopurutan

2019an, 45 kexa-espeditente jaso dira arlo honetan, alegia, erakundeak ekitaldi honetan zehar jaso dituen kexa guztien % 1,90.

Kexa horiek honako administrazio hauei dagozkie:

- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza)..... 6
- Tokiko administrazioa..... 6
- Foru administrazioa..... 3

Azpiarloak, berriz, honakoak izan dira:

- Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta industria 12
- Merkataritza, turismoa eta kontsumoa..... 12
- Energiatz (elektrizitatea eta gasa) hornitzeko zerbitzuak... 8
- Finantza-erakundeak eta aseguru-etxeak..... 7
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazioaren prozedura..... 3
- Telefonía zerbitzuak..... 3

GUZTIRA	Izapidetzen	Anaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
36	17	26	11	10	2	3

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Ehizatzearen ondoriozko eragozpenak. Arartekoak Gorbeiaiko parke naturalaren ehizan ibiltzeak erabiltzaileei sortzen dizkien eragozpenei buruzko kontsulta bat izapidetu du. Ehiza [EAEko Ehizaren 2/2011 Legeak, martxoaren 17koak](#), arautzen duen jarduera zinegetikoa da. Araudi horrek ezartzen duenez, naturagune babestuak ehiza araubide bereziko lurtzat joko dira. Lur horietan ehizan jardun nahi izanez gero, espazio bakoitzaren erabilera eta gozatzeko modua arautzen dituzten xedapenak, eta, xedapenetan ez dauden kontuetan, lege horrek eta hura garatzeko xedapenek ezarritakoa bete behar da. Parke naturalak dagokion Erabili eta Kudeatzeko Plan Zuzendaria dauka (PRUG delakoa), baita parke naturala eta kontserbazio bereziko eremuari buruzko gidalerroak eta kudeaketa jarduketak jasotzen dituen dokumentu bat ere.

Xedapen horien arabera, ehiza antolatzeko plan teknikoa idazten ez den bitartean, arlo horri Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren 2/2011 Legea aplikatuko da, baita urtero ematen diren eta Bizkaiko eta Arabako ehiza arautzen duten foru-aginduak ere. Organo kudeatzaileak, kontserbazio arrazoiak direla medio, xedapen horiek Gorbeiaiko Parke Naturalako naturagune babestuan aldatu edo mugatu ahal izango ditu, kupoei, modalitateei, ehiza-lekuei eta abarrei dagokienez. Halaber, aipatu behar da *“Natura Ereku Babestuaren Kudeaketa Organoak zainduko du NEBeko erabilera eta jarduera guztien artean koordinazioa egoteko; horretarako, erabilerok denboran eta espazioan batera gertatzeak sorraraz ditzakeen gatazkak aztertuko ditu eta neurri egokiak ezarriko ditu. 2/2011 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ehizarenak, ezarritako segurtasun zonei jaramon egin beharko zaie.*

Aisialdi erabilerako instalazioak segurtasun eremutat joko dira eta, gutxienez, 100 metroko babes koroa izango dute inguruan (parketxeak, bidezidorrak, atsedenekuak...). Ehi-za jardura denboran eta espazioan aisialdikoarekin batera gertatzea saihestuko da eta alderantziz. Hori egin ezin bada, sarbidea mugatuko da edo ordutegi espezifikoak ezarriko dira.”.

Arartekoak, kontsultari erantzunez, hain zuzen, Gorbeia parke naturalaren kasuan, kudeaketa eta kontrol neurriak parkea dagoen foru-aldundien organo eskudunei dagozkia jakinarazi dio kontsultagileari. Izan ere, kasu horretan, organo eskudunak dira: Arabako Foru Aldundiko [Ingurumen eta Hirigintza Saila](#) eta Bizkaiko Foru Aldundiko [Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala zaintzeko Saila](#).

2.2. Baso-suteak kontrolatzeko mekanismo administratiboei buruzko ofiziozko jardura. Arartekoak hiru lurralde historikoetan ofiziozko jardura hastea erabaki du, administrazio eskudunek, basoak ikuskatu eta zaintzeko zeregina betetzean, zer administrazio-tresna erabiltzen dituzten baso-suteen sorburuak antzeman eta ikertzeko, eta zerk edo nork piztu dituen argitzeko. Izan ere, zenbait hedabidetako eta gizarte-saretako albisteetan azaltzen denez, gizartea kezkatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoan baso-suteak ugaritu direlako. Suterik handiena 2019ko martxoan gertatu zen, Muskizen, eta 110 hektarea erre zituen.

Estatu osoan, baso-suteen indizerik txikienetakoa duen eremuetako bat da Euskadi. Baso-sute gutxiago izateko arrazoiak askotarikoak dira. Egoera hobe horrek zerikusia izan dezake suteak prebenitzeko eta baso-kudeaketa iraunkorra garatzeko asmoz baso arloan abiarazi diren politikekin. Haatik, urte sasoi jakin batzuetan haize beroak eragindako suteak ugaritzeko joerak ziur aski gora egingo du datozen urteetan, planeta osoko klima-aldaketaren ondorioetako bat baita. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da zehatz-mehatz aztertzea suteak eragiten duten kausa ziurrak, horiek prebenitzeko berariazko ekintzak ezartzeko; bereziki garrantzitsua da gizakien jarduerak —zabarkeriaren ondorioz zein nahita— eragindako suteen kasuetan.

Oso garrantzitsua da sute horien arrazoiak ikertzea, eta nork piztu duen argitzea, balizko erantzukizun administratibo eta penala exijitzeko, eta, aldi berean, erantzuleak ingurumenari eragindako kalteak ordaintzera behartzeko; hori dela eta, Arartekoak egokitzat jo du ofiziozko jardura hastea, administrazio eskudunek, basoak ikuskatu eta zaintzeko zeregina betetzean, erabiltzen dituzten administrazio-tresnak aztertu eta ebaluatzeko.

2.3. Landa eremuko etxe turistikoak arautzea. Arartekoak erreklamazio bat jaso du, landa eremuko eraikinetako pisu eta logela turistikoak baztertzea arautzeko jarraitutako administrazio-izapidea dela eta. Bazterketa hori Erabilera turistikorako etxebizitzari eta logela partikularrei buruzko [uztailaren 3ko 101/2018 Dekretuaren](#) lehenengo xedapen gehigarriaren bidez ezarri da. Arauketa hori egin arte, landa-lurzoruko eraikin tradizional horiek, etxebizitza turistiko gisa erabiltzen zirenean, erabilera turistikoko etxebizitza

gisa jasotzen ziren, eta horrela inskribatzen ziren Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan. Kexagileak azaldu duenez, lehenengo xedapen gehigarria prozeduraren azken fasean aplikatzea [Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen](#) 53. artikulua hitzez hitz diotenaren kontrako izango litzateke; izan ere, artikulua horrek oro har arautzen du establezimendu turistiko mota hori, lurzoru mota jakin batean daudenak baztertu gabe. Araudi horrek eskatuko luke baserrietan dauden etxebizitza turistikoak betekizun eta eskakizun konplexuagoak dituzten beste jardura arautu batzuk bihurtzea, landetxeak, landa-hotelak edo landa-apartamentuak, esate baterako. Lehiaren Euskal Agintaritzak xedapen gehigarri horri buruzko txosten bat egin du, 2018ko abenduaren 13koa; horren arabera, Turismoari buruzko 13/2016 Legeak, uztailaren 28koak, baimentzen du landaguneetan dauden eta turismo erabilera duten etxebizitza partikularretan eta horietan dauden logeletan ostatu hartzea. Ildo horretan, aipatu xedapen iragankorra aplikatzeak bateragarria izan behar du landa-lurzoruan dauden etxebizitza turistikoak sartzea ez debekatzeko irizpidearekin. Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostenaren arabera, landa-lurzoruan dauden etxebizitza turistikoak baztertzeak “*beharrezkoak eta neurrikoak ez diren oztopoak jartzen dizkio landa inguruneko etxebizitzak turismo erabilerarako ustiatzeko jardura ekonomikoa egiteko, eta, ondorioz, interesdun operadoreei abantaila ematen die*”. Era berean, landa ingurunean dauden etxeetan etxebizitza turistikoak besterik gabe debekatzen datzan murrizketa, Turismoaren Legearen aurkakoa izateaz gain, neurritzeko kanpoko eta lehia askearen kontrako da, etxebizitza horien titularrei lehian aritzeko aukerak kentzen dizkielako.

[Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak](#) xedapen gehigarri hori sartzeko jarraitutako prozedurari buruzko erantzuna eman dio kexagileari. Era berean, lege-garapen horren interpretazioak bere erreklamazioari konponbidea eskaintzeko ematen dituen aukeren berri eman dio. Aipatu beharra dago geroago [Eusko Legebiltzarra](#), 2019ko azaroaren 28ko osoko bilkuran, aipatu Turismoaren Legea aldatzeko lege-proposamena hartu zuela kontuan. Arartekoaren txostena ixterakoan, ekimen parlamentario hori eztabaidatzeko eta iritziak aurkezteko fasean dago. Izan ere, 53. eta 54. artikulua aldatzea proposatzen da, arkitektura tradizionalera eraikinetan eta landaguneetan edo lurzoru urbanizazioan dauden etxeetan turismo erabilerako etxebizitzak eta logelak esanbidez debekatzeko.

2.4. Kontsumitzaileen eskubideekin zerikusia duten jarduketak. Arlo horretan, aurreko urteetan bezala, jasotako kexa gehienak enpresa pribatuen jardunari buruzkoak izan dira; baina euskal administrazio publikorik tartean egon ez denez, erakunde honek ezin du arlo horretan esku hartu. Oro har, mahai gainean jarritako gai zehatzaren inguruan interesgarritzat jotako informazioa kexagileei helarazteaz gain, kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoak eta [Kontsumobide](#) arduratzen direla kexa horiek izapidetzeaz, eta, legeak hala aginduta, une honetan, gure esku hartzeko ahalmena jarduerak ordenamendu juridikoarekin bat etortzen ote diren aztertzea mugatzen dela jakinarazi diegu.

Finantza-erakundeak eta aseguru-etxeak. Aurreko urteetan bezala, autonomia-erkidego honetako herritarrek banku

erakunde eta aseguru-etxe batzuen jarduerarekiko desadostasuna azaldu dute erakunde honi helarazitako kexa eta kontsultetan. Berez, Arartekoaren erakundeari dagokion jarduera-eremua ez da hori, finantza-erakundeen eta aseguru-etxeen jarduera [erakunde hau](#) sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legeak esleitutako kontrol ahalmenetik kanpo geratzen baita. Hala eta guztiz ere, eskura dituzten erreklamazio-bideei buruzko informazioa eta jarraibideak eman nahi zaizkie kexagileei, daukaten arazoaren konponbidea bideratzeko eta, hala badagokio, haien interesen ikuspuntutik egokia den soluziobidea lortzeko.

Jurisdikzio zibileko justizia-organoetan salaketa jartzeko aukera izateaz gain, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoetara (KIUB) eta [Kontsumobidera](#) ere jo dezakete. Bertan, zerbitzu horien kontsumitzaile eta erabiltzaile izateagatik dagozkien eskubide eta beharrei buruzko informazioa jasoko dute. Ezin dugu ahaztu banku-produktuak eta aseguruak kontratatzen dituzten pertsonak ere kontsumitzaileak eta erabiltzaileak direla; hortaz, kontsumoko araudiak ezartzen dituen babes-estandarrak aplikagarriak dira kontratu horietan. Era berean, kontuan izan behar da banku-erakundeek zein aseguru-etxeek badutela barruko zerbitzu bat, erreklamazioak egiteko. Banku-erakundeen kasuan, [Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzua](#) dago, izan ere, horren ardurua da neurrigabeko jarduerak saihestea eta bankuei buruzko indarreko araudia edozein unetan bete dadila zaintzea.

Aseguru eta pentsio-planei dagokienez, [Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioako Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorra](#) arduratzen da sor daitezkeen gatazkak ebazteaz. Kasu bietan, judiziorik kanpoko eta doako prozedurak dira, administrazioko organo espezializatueta burutzen direnak, kontsumitzaileen zein zerbitzu horien erabiltzaileen eta zerbitzuak ematen dituzten profesionalen artean sor daitezkeen arazo guztiak aztertzen ez badituzte ere. Hori dela eta, komeni izaten da organo espezializatu biek erreklamazio xede diren gaiei buruz eta egin dezaketen esku-hartzeari buruz ematen duten informazioa kontsultatzea.

Azkenik, kontuan izan behar da Eusko Jaurlaritzako [Ogasun eta Ekonomia Sailak](#) esleitura dituela zenbait fiskalizatze-ahalmen, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde (BGAE) dagokienez. Arartekoak azter ditzake ebazpen horiek, EAEko organo batek emandakoak direlako.

2019an, banku-zerbitzuak erabili dituzten pertsonak erakundearekin harremanetan jarri dira, banku-txekeak igortzeagatik edo hipoteka garraia heldu baino lehenago ezerezteagatik kobratzen zaizkien komisio altuekiko desadostasuna adierazteko, baita banku-erakundeak informazio egokirik eta orientabiderik ematen ez duela salatze ere. Herritarren desadostasunak [Balore Merkatuen Batzorde Nazionalak](#) edo [Espainiako Bankuak](#) egindako ikuskapenaren norainokoarekin zerikusia izan duen kasuetan, kexa horiek [Herriaren Defendatzailearen](#) erakundera bidali dira, bera baita Estatuko Administrazio Orokorri atxikitako organoak kontrolatzeko ahalmena duen ordezkari parlamentarioa. Aseguru-jardueraren arloan, herritarrak kezkatuta daude, ez baita modu errazean onartzen nahitazeko aseguru gisa ordaindutako primaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailua eskualdatzen dutenean beste pertsona baten alde.

Azkenik, lanari loturiko erretiro-kontingentzia etorrira, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetan (EPSV direlakoetan) kapital moduan metatutako eskubideak berreskuratzeko arazoak aipatu behar dira. Kontuan izan behar da plan bakoitzaren Prestazioen Araudiak kontsolidatutako eskubideak nola eta noiz erabil daitezkeen zehazten duten arauak direla; gainera, askotan, arau horietan prestazioak kobratzeko modua BGAEen metatutako zenbatekoaren arabera dela dago ezarrita.

2.5. Elektrizitate-zerbitzuen kontsumitzaileentzako gizarte-bonua eskatzerakoan, familia ugariei eskatzen zaien dokumentazioari buruzko kontsulta

Arartekoak hainbat kontsulta jaso ditu, erreferentziako enpresa merkaturatzaileek gizarte-bonu elektrikoa ukatzea dela eta; izan ere, enpresa horiek, dirudienez, ez dute behar bezala baloratu gizarte-bonua eskatzen duen pertsonaren errenta maila. Erreklamazioen arabera, [ETU/943/2017 Aginduak](#), [urriaren 6koak](#), [897/2017 Errege Dekretua garatzen duenak](#), errentak kalkulatzeko modua jasotzen du 4. artikuluan. Ondorio horietarako, kalkulua egiteko aintzat hartuko dira: zerga-oinarri orokorren zenbatekoa eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aurrezpenaren zenbatekoa, dagokion foru-ogasunean jasota dagoen azken zergaldiari dagokiona. Eskatzaileak, edo bizikidetz-unitatea osatzen duten kideetako edozeinek PFEZren aitortpenik aurkeztu ez badute, aplikatu beharreko araudiaren arabera horretara behartuta ez daudelako, jasota dauden datuak hartuko dira abiapuntu, PFEZa arautzeko legedian errenta horietarako ezarritako kontzeptuarekin bat. Araudi horrek salbuetsitatzat jotzen ditu senitartekoen zaintzarako eta laguntza personalizaturako ematen diren prestazio ekonomiko publikoak. Hala ere, enpresa merkaturatzaileak ez du kontuan hartu familia ingurune zainzagatiko prestazioaren errentari buruzko salbuespena, PFEZtik salbuetsitako errenta izan arren. Enpresa merkaturatzaileak hartutako erabakiaren aurka, kexagileak dagokion kontsumo bulegora jo du, enpresaren ukapenaren aurkako erreklamazioa helarazteko. Kasu horretan, kontsumo-bulegoaren jardura Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko [abenduaren 22ko 6/2003 Legeak](#) jasotzen dituen erreklamazio-prozeduretan oinarrituta dago.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 12. artikulua ezartzen du bitartekotza kontsumo arloko gatazkak ebazteko prozedura ez formala, malgua, borondatezkoa eta doakoa da. Prozedura horretan bitartekaria harremanetan jartzen da bai erreklamaziogilearekin, bai erreklamazioa jaso duenarekin, alde bien iritzia ezagutzeko eta akordio bat iristeko modua lantzeko. Kasu horretan, administrazio publikoek eta haien mendeko erakunde publikoek jarraitu behar dituzten administrazio onaren printzipioei begira, gogorarazi behar da kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoek salaketak erregistroan jaso eta jaso izanaren agiriak eman behar dituztela, eta gero, salaketa horien jarraipena egin; horretarako,

egindako urratsen berri unean-unean interesdunei eman behar dizkiete. Administrazio publikoen kasuan, aipatu beharra dago Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikularen arabera administrazioek gehienez ere hiru hilabeteko epea dutela jasotako eskakera ebazteko. Edonola ere, kontuan izan behar dira bitartekaritza prozeduraren aukera mugatuak; izan ere, egindako jarduketan ondorioz aldeek beren jarrerak malgutzen ez badituzte edo aldeetako batek gaia konpondu nahi ez badu, prozedura amaitu egingo da. Kontsumo bulegoak aurkezten zaion erreklamazioa izapidetu eta erantzuteko betebeharra du; hala ere, Arartekoaren iritziz, gaur egun egiten den gizarte-bonuaren tramitazioak (Estatuko Administrazioaren eskumena) kontuan izan behar du zerbitzu publikoaren betebehara izaera, zerbitzu horren ardura baita energia-pobretasunari aurre egiteko neurriak hartzea, elektrizitate sektoreko energia-merkatuaren arau erkideak ezartzen dituen Europar Batasunaren Zuzentarauak jasotzen duen moduan (2009/72/EE eta 2019/944 zuzentarauak). Ildo horretan, ebaluatu beharko litzateke [Trantsizio Ekologikorako Ministerioak](#) aurreikusitako prozedura, gizarte-bonua aintzatestea bermatzeko. Erakunde honen iritziz, bonua zerbitzu publikoaren betebehara denez, hura eskuratzeko prozedurak [urriaren 1eko 39/2015 Legeak](#), Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, administratuei onartu dizkion jarraibide eta bermeak izan beharko litzuzke. Neurri horien artean, alegazioak aurkezteko eskubidea egon beharko litzateke, baita gizarte-bonua jasotzeko eskubidea ukatzen duen erabakiaren aurka errekurtsioa aurkezteko eskubidea ere, zerbitzu publikoak bere betebeharrak betetzen dituela zaintzeko ardura duen administrazio publikoan. Hori dela eta, Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren ikuskapen lana kontrolatzea [Herriaren Defendatzaileari](#) dagokio. Horregatik, Arartekoak bere estatuko homologoari bidali dizkio kexa horiek, eta hark erabaki beharko du nola izapidetu behar diren Estatuko Administrazioaren dagozkion organoen aurrean.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Energia jasangarritasuneko legea. Arlo horri buruzko araudiari dagokionez, gertakizun garrantzitsuena Eusko Legebiltzarrak [4/2019 Legea](#), [otsailaren 21ekoa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, onartzea izan da. Arau horren abiapuntua Euskal Autonomia Erkidegoan energia eredu berria ezartzeko printzipioa da, ereduaren oinarriak honako hauek direla: energia aurreztea, energia berriztagarriak sustatzea, energia-eraginkortasuna eskura daitezkeen teknika onenak erabiltzea, eta, azkenik, subiranotasun energetikoa areagotzea. Horretarako, legeak energia-iraunkortasunaren arau oinarriak ezartzen ditu euskal administrazio publikoaren eta sektore pribatuaren arloetan, eta proposatzen ditu: energia-eraginkortasunerako neurriak bultzatzea, energia aurreztea eta energia berriztagarriak ezartzea eta sustatzea.

Bere aplikazio-eremuan, araudiak barnean hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio osoa, administrazio autonomikoa, foru-aldundikoa eta udal mailakoa, haiei

lotutako edo mendeko erakundeak barne. Arlo pribatuan, gainera, industria sektorean, zerbitzu sektorean, bizitegi sektorean eta salgai eta bidaiarien garraio pribatuan aplikatu behar da araudia.

Helburuen artean, honako hauek daude: jasangarritasun energetikoari bultzada ematea; energia-kontsumoa gutxitzea; ingurumena babestea, energia berriztagarrien instalazioak jarrita; eta energia fosilaren eta nuklearraren ekoizpenetik pixkanaka-pixkanaka deslotzea, “zero kontsumora” iristeko.

Legearen II. tituluak EAEko administrazio publikoaren betebeharrak zehazten ditu, eta bi kapitulutan banatuta dago. Lehenengoak jasangarritasun energetikoa politika publikoetan integratzeko eta erakundeak koordinaturik aritzeko beharra jasotzen du. II. kapituluan administrazio publikoek bete behar dituzten helburu eta ekintza orokorrak jaso dira. Legeak dagokien inbentarioak egiteko, kontsumoak kontrolatzeko eta auditoretza energetikoak egiteko eskatzen die. Energiaren arloan, urte anitzeko jarduketa planak egiteko abiapuntu dira neurri horiek; plan horietan, administrazio publikoek norberaren jardun-eremuaren barruko egoera-diagnostikoak egingo dituzte eta planak indarrean dauden bitartean gauzatu beharreko estrategiak finkatuko dituzte. Era berean, helburu hauek ezarri dira: energia-kontsumoan portzentajezko murrizketa batzuk egitea, administrazio bakoitzaren urteko kontsumoak erreferentzia gisa hartuta eta tasatutako denbora-aldi batzuen arabera; energia berriztagarrien instalazioak jartzea, eta energia asko kontsumitzen duten instalazioak, ibilgailuak edo ekipamenduak berritzeko betekizunak ezartzea. Betebehara horiek eskualdeko biztanle kopuruaren arabera egokituta geratzen dira tokiko erakundeen kasuan, baina, edonola ere, EAEko administrazio publikoek neurri eraginkorrak hartzea bilatzen dute, legearen helburuak lortzeko. Eraikinei eta etxebizitzetara dagozkien obligazioen eremuan, kalifikazio energetikoa eskatzen zaie aurretik dauden eraikin guztiei, eta berriak edo eraberritze garrantzitsuak dituztenak energia-kontsumo ia nulukoak izatea. Bestalde, garraioa eta mugikortasuna ere arautzen dira legean. Izan ere, udalerriek zenbait ibilgailuri hirigunean sartzeko aukera murriztea eta are sartzeko debekatzeko aukera ezartzen du legeak. Garraioaren arlo hori osatzen da erregai ordezkioak darabiltzaten ibilgailuak sustatzearekin, barnean harturik bidaiarien garraio publikoko zerbitzua ematen dutenak, udalerriek udal mugikortasuneko plan bat eduki dezatela eskatuz, bete beharreko helburuak ezarrita.

III. tituluak sektore pribatuari buruzkoa da, eta xehatu egiten du, legearen ondorioetarako, industria sektorea, zerbitzu pribatuak eta merkataritza, bizitegi sektorea eta garraio pribatua. Industria sektorerako, geroko lege-garapenak honako hauek arautuko ditu: energiaren inguruko auditoretza egitea eta energia kudeatzeko sistema bat izatea, eta lantokietarako mugikortasun-planak izatea ere. Zerbitzuen eta merkataritzaren sektorean, energiaren inguruko auditoretzak egiteko betebehara eta energia kudeatzeko sistemak aipatzen dira.

Bizitegi sektorearen eremuan, aurretik dauden eraikinei hainbat betebehara ezartzen zaizkie, eraikinen jasangarritasun energetikoa lortzea helburua izanik. Eraikin berriei

dagokienez, lege honen aurreikuspenek asmo handiko helburu bat dute: autosufizientzia energetikoa, hain zuzen ere.

III. tituluak, bukatzeko, borondatezko tresnak eta jasangarritasun energetikoko jarduerak sustatzea aipatzen ditu, legeak exijitutakoa baino betebeharrak zorrotzagoak betetzea laguntza-programetan baloratzeko eta lehenesteko aukera, zenbaterako areagotuta edo onura berezien bitartez.

Kontsumitzaileen eskubideei dagokienez, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloan eskumena duen sailak energia sektoreko enpresen eta kontsumitzaileen arteko harremanen gardentasuna bermatzeko neurriak hartzeko betebeharrak duela jasotzen da. Horrez gain, kontsumitzaileek gasaren eta elektrizitatearen hornidura-merkatuan parte-hartze aktiboa aipatzen da, baita beren eskubidea ere, benetako energia-kontsumoari eta kontsumo horren kostuei buruzko informazioa jasotzeko, kontsumoa egokitzea ahalbidetzen duen maiztasunez. Horretarako, energia-horniduretako neurketa-ekipo guztiek ekipamendu horiek sortzen dituzten datuak telematikoki, doan eta denbora errealean eskuratzea ahalbidetzen duten teleneurketa- eta telekudeaketa-sistemak izan behar dituzte.

Azkenik, laugarren xedapen gehigarriak agintzen duenez, Eusko Jaurlaritzak lege hau indarrean sartu —2019ko maiatzaren 1ean— eta bi hilabeteko epean Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiteari ekingo dio. Plan hori bi urteko epean aurkeztu beharko da. Era berean, Eusko Legebiltzarrak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Arartekoak beren jasangarritasun energetikoko plan propioak egingo dituztela xedatzen da.

Energia adierazleak eta klima aldaketa Adierazle horien jarraipenari dagokionez, esan beharra dago **berotegi-gasen isuriek** Euskal Autonomia Erkidegoan, 2017an (txostena itxi zen egunera izandako datu berrienak) **%5 baino gehiagoko igoera izan dutela aurreko urtearekin konparatuta**; hain zuzen ere, 20.046.519 tona izan dira, 2016an inbentariaturako 19.008.794 tonen aldean. Kiotok oinarri hartutako 1990. urtetik 2017ra arte, **berotegi efektuko gasen emisioek, Euskadin, %6,2 inguru egin dute behera** (%21,7, 2005. urtea oinarri hartzen badugu).

Bestalde, **EEE Energiaren Euskal Erakundeak** aurkeztutako energiari buruzko datuen arabera, **azken energia kontsumotik energia berriztagarriek hartutako kuotak gora egin du 2018an**, eta %16,9 izan zen (%10 inportatutako elektrizitatea, energia berriztagarritik eratorritakoa, kontuan hartzen ez bada). Energia berriztagarrien ustiapena 2018an %12,7 igo da, 25.277 Terajoulera iritsi arte (aurreko urtean 22.422 TJ izanik); eskariaren %9,4 da. Kantitate horren %59,4 biomasari dagokio (%66,2 2017an), %23,3 bioerregaiak dira (gehiago, aurreko urteko %17,9rekin konparatuta); %7,6 energia hidroelektrikoa da (%5,2 2017an), %5 eguzki-energia, aerotermia eta geotermia (%5,5 2017an); azkena energia eolikoa da: %4,7 (kantitate txikiagoa, aurreko urteko %5,3rekin konparatuta).

Energia aurrezteari dagokionez, esan behar da **2018an, azken energia kontsumoak %4,3 egin duela behera**, eta 211.627 TJkoa izan zen (221.213 TJ 2017an).

Euskadin, garraioak jarraitzen du energiaren azken kontsumo handiena duen sektorea izaten: 91.159 TJ 2018an (2017ko 89.176 TJ-kin konparatuta) eta, berriz ere, industria sektorea gaintzen du, non kontsumoa 73.814 TJ izan da 2018an (2017ko 86.184 TJ-kin konparatuta). Bizitegi sektorean ere igo da kontsumoa 2018an, izan ere, 33.133 TJ izatera iritsi da (2017ko 24.333 TJ-n aldean); zerbitzu sektorean egonkor mantendu da: 18.474 TJ.

2018an, Euskadiko azken energia intentsitatea 2009. urtean baino %14 hobea izan da, BPGd unitateko kontsumitako energiari dagokionez. 2017. urtearekin alderatuta, 7 puntuko hobekuntza izan da, BPGd hazi, eta energiaren azken kontsumoa jaitsi egin delako.

Etxebizitzetan kontsumitako energiaren kostuak gora egin du: 446 euro herritar bakoitzeko, eta 1.083 euro etxebizitzako. Gutxi gorabehera %12ko igoera da, 2017an kontsumitako energiaren kostuarekin konparatuta (395 euro herritar bakoitzeko eta 967 euro etxebizitzako).

Finantza-erakundeak eta aseguru-etxeak. Azken hila-beteotan, hainbat ebazpen judizial argitaratu dira, non aztertzen diren kontsumitzaileek asko kritikatu dituzten jardunbideen ondorio juridikoak. Horietako batzuk bakarrik aipatuko ditugu, herritarrek erakunde honetan aurkeztu dituzten arazoei buruzkoak diren heinean. Izan ere, **Auzitegi Gorenaren epaia (AGE), 2018ko abenduaren 18koa**, nabarmendu nahi dugu. Horren bidez, auzitegiak honako doktrina hau ezarri zuen: hipoteka-maileguaren kontratuak sortutako gastuak ordaintzea kontsumitzaileari bakarrik esleitzen zion klausula abusuzkoa zela adierazita eta baliorik gabe utzita, erakunde mailegu-emaileak mailegu-hartzaileari itzuli behar zizkion zenbaterakoek hark ordaindu zituenetik aurrera sortutako interesak ordaindu behar zituela.

Handik gutxira, **2019ko urtarrilaren 23ko AGEN**, Auzitegi Gorenak berriz egiaztatu zuen kontratuko klausula bat abusuzkoa izatea, klausula horrek hipoteka-bermea duen maileguak sortutako gastu guztiak ordaindu beharra egozten baitzion mailegua hartu zuen kontsumitzaileari; auzitegiak agindu zuen, kasu horretan, kreditu eragiketaren ondorioz sortutako gastuak aldean artean banatzeko, indarrean da goen legedia eta eragindakoen interesak oinarri hartuta.

Era berean, nabarmentzekoa da **2019ko uztailaren 2ko AGE:** horren arabera, epaileak *Bigarren aukeraren Legearen mar-koan* agindutako ordainketa planak (**1/2015 Errege Lege Dekretua, otsailaren 27koa**, Bigarren aukeraren mekanismoarena, finantza-karga murriztekoa eta gizarte arloko beste neurri batzuen) kreditu publikoa geroratzea edo zatikatzea ezar dezake.

Banku komisioak kobratzeari dagokionez, interesgarria da **2019ko urriaren 25eko AGE;** horren bidez, auzitegiak gaitzetsi egin zuen Kutxabankeak aurkeztutako kasazio-errekurtsoa, funtsari dagokionez, eta berretsitu zuen erakunde horrek posizio zordunak erreklamatzeko kobratzen duen komisioaren (30 euro) abusuzkoa dela.

Azkenik, 2019ko irailaren 10ean aurkeztu diren abokatu nagusiaren ondorioetan lehen aldiz adierazitako doktrina aipatu

behar da (C-125/18 auzia). Epaitu aurreko arazo horretan, zalantzan jarri da Kutxa guztietarako Hipoteka Maileguen Erreferentzia Indizea bateratzeko eskubidearekiko bideragarritasuna.

Azkenean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak argituko ditu klausularen abusuzko izaera (halakorik balego) aztertzeko jarraibideak, hipoteka-maileguko kontratuetako Kutxa guztietarako Hipoteka Maileguen Erreferentzia Indizea klausula horretan dagoela kontuan hartuta; hori galarazi gabe, abokatu nagusiak argitaratutako ondorioak kontsumitzaileen interesen aldekoak dira, baldin eta hipoteka-bermea duen mailegu-kontratuan Kutxa guztietarako Hipoteka Maileguen Erreferentzia Indize horren (Espainian legala da) oinarriaren gainean ordaindu behar den interes mota aipatzen bada.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Euskal Herriko trantsizio energetikoari buruzko txosten bereziaren jarraipena

Arartekoak “Euskal Herria, energia eredu iraunkor batera igarotzea” izenburuko txosten berezia aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean. Txostenaren arabera, energia eredu aldatzeko beharra une berezian jartzen dira mahai gainean, hain zuzen, nazioarteko eta Europar Batasuneko eremuan hartutako konpromiso eta hitzarmenak —hala nola Pariseko Akordioa— eta Europar Batasunean Energiaren Batasuna sortzeko proposamenak berotegi-gasen isuriak murrizteko, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoaren kuotak ezartzeko eta energia berriztagarriko iturrietatik datorren energiaren kontsumoa bultzatzeko zuzenduta daudenean.

Horren harira, Arartekoak hainbat ondorio proposatu zituen, eta horien artean, honako hauek azpimarra daitezke:

- Euskadiko trantsizio energetikoa uneoro lerrokatu behar da Europar Batasunaren helburuekin (efizientzia energetikoa lehenestea, energia berriztagarrien ezarpena bultzatzea eta haien teknologiak garatzea, eta kontsumitzaileei tratu zuzena eskaintzea).
- Euskadik aurrera egin behar du energia-aurrezpenaren eta efizientziaren bidetik; izan ere, azken hamarkadan jarraitutako politikek energia-kontsumoa murrizten laguntzeko balio izan dute.
- Euskal botere publikoek jarraitu eta finkatu behar dituzte zenbait sektoretan, hala nola industrian eta bizitegian, aurrezpenean eta efizientzian hasitako esfortzuak, eta ahalik eta lasterren bizkortu behar dituzte garraio-sektorean.
- Euskal energia-ereduko trantsiziorako gizartearen adostasunaren bultzada behar du, Euskadin energia berriztagarriaren ekoizpena handitu ahal izateko, energia berriztaga-

ria aprobetxatzeko aukerak ikertuz, eta haien ezarpenak izan behar du esfortzu eta inbertsio publikoen ardatza.

- Energiari eta klimari buruzko erabakien onargarritasun soziala erakundeen, gizarte eragileen eta herritarren artean partekatutako erantzukizuna da.
- Pertsonak, energia-kontsumitzaile eta -ekoizle gisa, trantsizio energetiko zuzenago baten funtsezko oinarria izan behar dute. Trantsizio energetikoak bidezkoa izan behar du sektore guztientzat eta bereziki gizarteko talde kalteberentzat.
- Karbono gutxiko ekonomia bateranzko trantsizioa aukera garrantzitsu bat da EAEko garapen ekonomiko eta industrialerako eta enplegua sortzeko.

Txostenaren bidez nabarmendu nahi da gizarte-hitzarmen bat egin behar dela, Euskadiko trantsizio energetikorantz abiarazitako bidean aurrera egiteko, eta adostasunik handiena duten neurriak bizkortzen laguntzeko (energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna ahalik eta gehien handitzea, Euskadin energia berriztagarriak sustatzea eta energia fosilen kontsumoaren eta berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea, garraioan bereziki).

Txostenaren ostean —2019. urtearekin konparatuta— egin diren hiru aurrerapausoren garrantzia nabarmendu behar da:

Alde batetik, Eusko Legebiltzarrak [4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa onetsi du, aurreko apartatuan aipatutakoa.

Halaber, [22/2019 Legez besteko Proposamena, euskal energia-itunaren inguruan](#), aipatu behar da; 2019ko martxoaren 14an adostu zen Legebiltzarraren egoitzan. Proposamen horretan, Eusko Legebiltzarrak eskatzen dio Eusko Jaurilaritzari euskal energia-ituna lortzeko lanak abia ditzala, Adituen Lantaldea eratuz.

Proposatutako neurria bat dator gomendio nagusiarekin, Arartekoaren txosten berezian jasotakoarekin; horren bidez, energia-trantsizioari buruzko gizarte-hitzarmena bultzatzeko eskatu zitzaizen EAEko erakunde publikoei. Horretarako, elkarrizketa foro bat eratzeko aukera iradoki zuen Arartekoak, energiaren eta klima-aldaketaren arloan nabarmentzen diren adituen eta elkarten iritzia biltzeko, talderik kalteberenen ordezkarienarekin batera, Euskadin trantsizio energetikoak behar dituen energiari eta klimari buruzko erabakiei dagokienez.

Legez besteko proposamen hori urrats garrantzitsua da Euskal Herrian energia trantsizio iraunkorra lortzeko bidean aurrera egiteko. Bide horretan, lehentasunezkoak izan behar dira baliabide fosilen erabilera lehenbailehen murriztea ekarriko duten neurriak, gure gizartea guztiz deskarbonizatu arte.

Azkenik, pasa den 2019ko uztailaren 30ean, [Adierazpen instituzionala larrialdi klimatikoari buruz](#) sinatu zuen Eusko Jaurilaritzak. Klima- eta ingurumen-larrialdiko adierazpen formal horrekin, honako helburu hau lortu nahi du Eusko

Jaurlaritzak: Euskadi karbonoan neutroa izan dadin 2050. urtearen aurretik, edo, bestela, bidezko trantsizio batek horretarako bide eman bezain laster.

Adierazpen eta konpromiso horiek tokiko mailako premiazko eta berehalako ekintzetan agertu behar dira, baliabide fosilen erabilera murrizteko, gure gizartearen erabateko deskarbonizazioa lortzeko. Horren garrantziaz hausnartu behar da. Erakundeei ez ezik herritarrei ere dagokie ekintza horiek aurrera eramatea.

Orain dela gutxi, [EEEK](#) euskal energia-ituna egiteko laguntza teknikoa kontratatzeko izapideei ekin die.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

- Arlo horretan, azpimarratzekoak dira funtsezkotzat jo ditzakegun zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen planteatzen dituzten salaketak, alegia, gasa, elektrizitatea nahiz telefonia zerbitzuen hornikuntzarekin lotutakoak, besteak beste. Zerbitzu horiek enpresa pribatuek ematen badituzte ere, interes orokorreko zerbitzuei dagokienez, herri administrazioak arduratzen dira aginduzko kontrolak egiteaz.
- Bestalde, finantza- eta kreditu-erakundeen jarduera kontrolatzea [otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak—](#) erakundeari esleitutako eskumenen eremutik kanpo geratzen da. Aurrekoa gorabehera, Arartekoan, herritar horiei orientabideak ematen saiatzen gara, haien erreklamazio eta kexak organo eskudunen aurrean aurkezteko aukera izan dezaten.
- Energia eredua aldatzeko prozesuari dagokionez, Arartekoak ezinbestekotzat jotzen du gizartean eztabaida zabala abiatzea, euskal energia-ituna sor dadin. Erakunde honek eztabaida bultzatu nahi du, gobernantza ona sustatzeko lana eginez. Horretarako, bat-etortzeak bilatuko ditu, energia eta klima direla eta nazioarteko mailan dagoeneko hartu diren konpromisoak behar bezala betetzen direla bermatzeko; halaber, Euskadiko kolektibo kalteberen eskari sozialak entzunaraziko ditu.





II. atala

9

**Herri-administrazioen
zerbitzuko langileak**

1. Arloa kopurutan

2019an, Ararteko erakundeak 113 kexa-espeditente jaso ditu herri-administrazioen zerbitzura lan egiten duten langileen arloan. Kopuru hori erakunde honen jarduera-arlo guztien % 4,77 da.








Honako administrazio hauei eragin diete:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz)..... 48
- Foru administrazioa..... 16
- Tokiko administrazioa..... 13

Edukiari erreparatuta, espeditente horiek arlo hauekin izan dute zerikusia:

- Funtzio publikoan sartzeko hautaketa-prozesuak..... 29
- Ordezkapenak..... 24
- Beste alderdi batzuk..... 13
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura..... 11
- Oporrak, lizentziak eta baimenak..... 9
- Lanpostuak betetzea..... 8
- Ordainsariak..... 7
- Laneko jazarpena..... 3
- Lanpostu-zerrenda..... 2
- Lanpostuen balorazioa..... 2
- Herritarren eskubideak..... 1
- Prestakuntza..... 1
- Hizkuntz normalizazioa..... 1
- Diziplina araubidea..... 1
- Administrazio egoerak..... 1

Urte honetan zehar kudeatu diren kexa horien (jasotakoak zein ebazteke egoteagatik horiei gaineratutakoak) izapidetze prozesuaren xehetasunei dagokienez, azpimarratzekoa da txosten hau idatzi den unean honako egoera honetan daudela:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
169	45	124	36	63	3	22

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Hautapen prozesu batetik baztertzea titulu bat ez aurkezteagatik Ofizioz berrikustea

Pertsona bat [Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak](#) (IVAP) deitutako administrazio taldeko lan poltsa handitze-prozesutik baztertu zen titulu akademiko bat ez zuelako emandako epe barruan aurkeztu. Bere aburuz, gabezia hori zuzentzeko aukera eman behar zitzaion, modu osatugabea aurkeztu zuten beste pertsona batzuei eman zitzaion moduan. Errekurtso bat aurkeztu zuen eta berariaz onartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren aginduz, administrazioak ulertu baitzuen kasu horretan ere inguruabar hori gertatu zela.

Erabakia ez zenez gauzatu, pertsona horrek beste idatzi bat aurkeztu zuen, eta kexa aurkeztu orduko ez zuen erantzunik jaso; horrenbestez, administrazioak gertatutakoa azaldu eta konpontzeko aukeraren inguruan galdetu zuen Arartekoak.

Jarraian, kexa aurkeztu zuen pertsonak Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren beste agindu bat jaso zuen; horren bitartez, lehenago onartutako eskaera ezetsi egin zen, oinarritzat hartuz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko [urriaren 1eko 39/2015 Legearen](#) 109.2 artikuluan aurreikusitako akats materialak, egitatezko akatsak edo akats aritmetikoak zuzentzeko aukera, eta adierazi zen administrazioak egiaztatu egin zuela errekurtsua aurkeztu zuen pertsonak benetan ez zuela inolako dokumenturik entregatu.

Gaiaren muinera joz, Arartekoak ondorioztatu zuen ez araudiak, ez jurisprudenziaren interpretazioak ez zutela babes-ten kexaren funtsezko nahia, eskatutako titulua horretarako aurreikusitako epea bukatu ondoren aurkeztu baitzen. Hortaz, Auzitegi Gorenaren iritziz, hautapen prozesuetan parte hartzen dutenek deialdian ezarritako inguruabarretan aurkeztu behar dute dokumentazioa, prozesuaren funtzionamendua berdina izan dadin kasu guztietan, eta erregularitasunez eta eraginkortasunez garatzeko; hala, epe barruan aurkeztutako edo argudiatutako merezimendu edo titulazioen zenbait alderdi zehaztu edo dokumentazioa osatzeko zuzenketa izapidea baimentzen den arren, aukera hori ez da ulertzen dagokien agiriak epe horren barruan aurkeztu edo argudiatu ez diren kasuetan.

Hasierako onespen erabakia aldatzeko erabilitako moduari dagokionez, Arartekoaren aburuz legez aurreikusitako egintzak berrikusteko prozedura jarraituz egin beharko litzateke bertan behera uztea edo balio gabetzea, akatsak zuzentzeko aukerak ez baitu barne hartzen hemen hizpide dugun egoera. Hala, Auzitegi Gorenak berak behin baino gehiagotan azaldu du akatsak zuzentzea “irizpide murriztaile sakonarekin” aplikatu behar dela, gaineratuz zuzenketa egintzak “zuzendutako egintzaren eduki berdina erakutsi behar duela xedapenei, izenari eta ebazpenari dagokienez, eta Administrazioari ez zaio baimentzen, ofizioz zuzentzeko ahalmena baliatuz, benetako berrikuspina estaltzea, horrek lege iruzurra eragingo lukeelako, botere desbideratzea eraginez”.

Kasu honetan, egintzaren esanahia erabat aldatu zen, eta, horrenbestez, Arartekoaren aburuz, benetako ofiziozko berrikusketa izan zen, araudian jasotako prozedura bermeetatik kanpo egindakoa, eta hala jakinarazi zitzaion IVAPI.

2.2. Sartzeko hautapen prozesu batean parte hartzeko eskakizunak

Pertsona batek Arartekoaren iritzia eskatu zuen [Eibarko Udalak](#) egindako deialdi baten harira; Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza Arloko buruaren plaza karrerako funtzionario langileekin betetzeko egin zen deialdia.

Lehen alderdi gatazkatsuen parte hartzeko betekizunekin zuen lotura, unibertsitate titulu zehatz bat izatea eskatu baitzen (Enpresa administrazio gradu), baita lan arloari lotutako graduondoko titulu bat ere, udal horretako Lanpostuen Zerrendan ezarritakoari jarraiki.

Arartekoaren aburuz, titulazio jakin bat eskatzea soilik onar daiteke garatu beharreko funtzioei erreparatuz gero aski argudiatuta badago. Udalak bete beharreko lanpostuaren funtzio edukiaren eta titulazio horretarako ikasketekin esku-ratutako gaitasunen arteko lotura zuzena azaldu zuen; beraz, betekizun hori argudiatutzat eman zen.

Erakunde horrek ez zuen babestu, bestalde, graduondoko titulu bat eskatu izana; izan ere, prestakuntza lanpostuaren edukira egokitzea, zirudienez, bermatuta zegoen eskatutako gradu titulazioarekin eta, gainera, aukera hori ez da [Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan](#) aurreikusi, A taldeko kidego edo eskaletara sartzeko gradu mailako unibertsitate titulu bat eskatzen baita, legeak beste unibertsitate titulu bat eskatzen badu salbu. Eta, hortaz, udalak Lanpostuen Zerrenda aldatzea erabaki zuen, aipatutako graduondoko eskakizuna ezabatuz.

Bestalde, oinarrietan aurreikusi zen lehen azterketa 10 irakasgai osatutako gai multzoan oinarrituz egingo zela. Xedapen hura Toki administrazio funtzionarioak hautatzeko prozeduraren oinarrizko arauak eta gutxienezko programak onartu zituen [ekainaren 7k 896/1991 Errege Dekretuaren](#) aurkakoa da, titulazio talde horretarako gutxienez 90 gai ezarri behar baitziren. Udalak gaitetza ere aldatu zuen.

Azkenik, oinarrietan ingeles hizkuntza jakiteko ariketa baztertzailer egitea aurreikusi zen; hortaz, zeharka, hizkuntza horren maila jakin bat egiaztatzea betekizun gisa ezarri zen. Betekizun hori ez zegoen aurreikusita Lanpostuen Zerrendan; horrenbestez, Arartekoaren aburuz ezin zen sarbidean eskatu, baizik eta, hala izanez gero, eta argudiatuz gero, merezimendu gisa baloratu behar zen.

Azkenik, Eibarko Udalak erantzun zuen esanez deialdi berri bat egingo zuela, egindako aldaketa guztiak kontuan hartuz eta ingelesa parte hartzeko betekizun modura baino merezimendu modura hartuko zuena.

2.3. Emandako zerbitzuen eta hizkuntza eskakizunen balorazioa

Pertsona batek Arartekora jo zuen [Santurtziko Udalak](#) egindako deialdi batekin ados ez zegoela adierazteko; deialdia arkitekto teknikoko plazak lortzeko egin zen, enplegua finkatzeko txandan; ez zegoen ados bere ustez 2HE edukitzeari lotutako balorazioa ez zetorrelako bat Zuzenbidearekin, eta udalean emandako zerbitzuen balorazioa baztertzailer eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen aurkakoa zelako.

Lehenari dagokionez, udalak interpretatu zuen araudian ezarritako gehieneko ehunekoak soilik aplikatu behar zitzaizkiola prozesuan erreferentziazko hizkuntza eskakizunari, eta gainerakoak modu orekatuan puntuatu zitezkeela. Kasu horretan, 3HEko puntuazioa lege mugen barruan zegoen (lor zitezkeen gehieneko puntuazioaren %20), eta 2HErenak gainditu egiten zuen (%11).

Arartekoaren aburuz, interpretazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu duen [apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren](#) literalitatearen aurkakoa da, eta arau horretan aurreikusitako helburuak lortzea oztopatzen zuen. Antzeko iritzia azaldu zuen [Administrazio Publikoaren Hizkuntza Normalizatorako Zuzendaritzak](#) ere; hortaz, 2HEri emandako puntuazioa araudiarekin bat ez zetorrela ondorioztatu zen.

Emandako zerbitzuen balorazioari dagokionez, erakunde honek udalari gogorarazi zion zerbitzuak merezimendu modura eratu daitezkeela, enplegu publiko bat edo funtzio bat gartzeko gaitasuna edo jarrera islatzen dutelako, baina balorazioa egitean kontuan hartu behar dira esperientziaren balio kuantitatiboa eta azken emaitzarekiko proportzionaltasuna. [Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan](#) zehaztu zen enplegua finkatzeko prozesuek ere izaera irekia izan behar dutela eta lehia librea bermatu behar dutela; horrenbestez, deialdietan ahalegina egin behar da interes eta eskubide guztiak babesteko, erabaki guztiak zuzen eta aski argudiatuz.

Oro har, justizia auzitegiek horrelako kasuak auzipetzen dituzte kasu bakoitzaren inguruabarrei egokitutako arrazoietekin; horrenbestez, batzuetan ondorio desberdinetara iritsi dira. Nolanahi ere, Auzitegi Konstituzionalak aldi baterako enplegua finkatzeko prozesuetan emandako zerbitzuak modu zehatzean baloratzea onartzen du, betiere ezarritako

haztapena neurrigabea edo irrazionala ez bada edo toleratu daitekeenaren muga gainditzen ez badu, beste pertsona batzuk lehiatzea debekatuz gero gertatuko litzatekeen moduan.

Hori guztia dela eta, Arartekoaren iritziz, lanpostuan emandako zerbitzuak baloratzeko moduan badira hainbat elementu, halakorik ez dutenak edo beste administrazio publiko batzuetan zerbitzurik eman ez dutenak lehiari aritzea eragotzi ez arren, konparaziozko abantaila ematen diotenak hautagai jakin batzuei, eta faktore hori erabakigarria izan daiteke karrerako funtzionario izatera iristeko.

Hala ere, oinarrietan ez zen antzeman pertsona jakin bati dagokionez predeterminazioa egon zenik; izan ere, 2HE oker baloratzeak ez zuen azken emaitzan eraginik izan, eta postuan egindako zerbitzuen balorazioa jaso zuen pertsona ez zen izan prozesuan lehen postuan geratu zena.

Hortaz, erakunde honek berriz ere azpimarratu nahi du Santurtziko Udalaren aurrean hautaketa prozesuak irizpide eta baremo proportzionatu eta arrazoizkoetan oinarrituta konfiguratu behar direla, eta ez dela lehiarako abantaila onartezinik eman behar, enplegu publikoa eskuratu nahi duten pertsona guztien eskubideak berma daitezen, deialdia egin duen administrazioan zerbitzua emana izan ala ez.

2.4. Lan poltsa eratzeko hautapen prozesua

Pertsona batek Arartekora jo zuen ur ikuskatzaileen postuak aldi baterako estaltzeko lan poltsa sortzeko prozesuaren zenbait alderdi kontsultatzeko, [URA - Uraren Euskal Agentziak](#) egindako deialdian; bere ustez, enplegu publikora sarbidea izateko oinarritzko printzipioak ez ziren errespetatu.

Lehenik eta behin, azaldu zuen ez zitzaizkiola eman lehen azterketako galderen eta erantzunen enuntziatuak (test motako erantzun anitzeko ariketa bat izan zen), behin eta berriz eskatu zuen arren; bere ustez, balizko erreklamazio bat zuzen eta egoki aurkeztea eragotzen zuen horrek. Administrazioak ez zuen beharrezkotzat jo eta beste pertsona batzuekin batera hitzordua jarri zion bilera bateratu baterako; bilera horretan, arduradun batek erantzun zuzenak zein ziren azaldu zion.

Arartekoak ulertzen du erreklamazio izapideek berme elementu bat osatzen dutela, bermatzen baitute horrelakoetan parte hartzen duten pertsonen haien jarduna zein epaimahai kalifikatzaileen erabakiak berrikusteko aukera izatea, eta horren aurka egonez gero, jarrera hori modu argudiatuan azal dezaten. Horregatik, haien asmoaren defentsa argudiatua prestatzeko aukera izan behar dute, okertzat jotzen duten ebazpenari bermekin aurre egin ahal izateko. Kasu honetan, informazio ukatzeko arrazoirik ez zegoela ulertu zen, eta informazio falta horrek aipatutako defentsa eragotzi zuela.

Bestalde, kexa aurkeztu zuen pertsonak azaldu zuen azterketa praktikoaren balorazio irizpideak ez zitzaizkiola jakinarazi. URAk erantzun zuen azterketa baino lehen zuzenketarako erabilitako erantzun eredu bat eman zuela, baina ez zuen azaldu horren inguruko jarraibideak eman zituenik.

Jurisprudentziak eskatzen du azterketak zuzentzeko oinarritzat erabiltzen diren balorazio eta haztapenen irizpide objektiboak ezartzea eta pertsona parte hartzaileei ariketak egin aurretik jakinaraztea. Kasu honetan, inguruabar hori ez zen egiaztatua, eta, horren ondorioz, erakunde honen aburuz baliteke defentsarako aukera kaltetu izana.

Hirugarrenik, kexan aipatu zen kasu praktikoak garatzeko azterketa egiteko erabilitako orrietan parte hartzaile bakoitzaren datuak jaso zirela. Datu hori berariaz baieztatua izan zen Uraren Euskal Agentziak, eta justifikatu zuen esanez azterketak arduradun batek zuzendu zituela, enplegu publikora sarbidea izatea arautzen duten printzipioak errespetatuz.

Arartekoaren aburuz, jurisprudentziaren adierazpen ugariarekin bat etorritik, azterketak anonimotasunez tratatzea funtsezko premisa da enplegu publikora sarbidea berdintasunean izatea bermatzeko. Printzipio hori urratzeak zalantza elementu bat dakar epaimahairen jardunaz eta prozesuan izandako inpartzialtasunaz; izan ere, hautagaien nortasunaren berri izateak ekar dezakeen eragina inkontzientea ere izan daiteke. Horregatik, azterketetan datu identifikagarriak egotea anomalia bat da, eta prozesua beharrezko bermekin bukatzea eragotzi zuen.

Kexan gaineratu zen merezimenduen balorazioa modu globalean argitaratu zela; horrenbestez, ezin da jakin zein baloratu zen ezta nola puntuatu ziren, ez norberarenak, ez gainerako parte hartzaileenak. Agentziak argudiatu zuen epe barruan erreklamatu zutenei bakoitzaren merezimenduen banakapena igorri zitzaioela, nahiz eta jardun hori ezin den hartu pertsona interesdun guztiengana iritsitako berme modura, ez baitzegoen aurreikusita ezein tresnatan, eta ez zen jakinarazi zein unetan jokatu zen horrela.

Arartekoaren aburuz, funtsezkoa da pertsona parte hartzaileek haien merezimenduen balorazioaren berri izatea, baita gainerako parte hartzaileen puntuazioa eta baloratutako merezimenduen zerrenda jakitea ere; hala, parte hartzaile bakoitzak bere posizioaren defentsa zuzena egin ahalko du, bere emaitzak gainerakoen emaitzekin konparatu ahalko ditu eta, hala badagokio, aski argudiatutako erreklamazioa aurkeztu ahalko du.

Azkenik, kexak beste bi alderdi nabarmen ere aipatu zituen. Batetik, aipatu zen fase baten emaitzak aurreko fasearen erreklamazioak ebatzi baino lehen argitaratu zirela, horrek baldintzatu egiten zituelako emaitzak, eta baliteke nahasmendua sortu izana, nahiz eta emaitzari dagokionez garrantzirik ez izan. Eta, bestetik, lanpostuaren funtzioekin lotutako prestakuntza zehatza baloratzeari buruzko baremoaren atalean kontraesanak egotea ere aipatu da; horrek, praktikan, edukiaren zati handi bat baliorik gabe uztea dakar, eta merezimenduen printzipioaren eskakizunekin bat ez datorren gisan aplikatzea.

Arartekoaren iritzia [2019ko azaroaren 25eko Ebazpenean](#) jasota geratu zen, non prozesu hori berrazter zedin gomen-datu baitzuen. Uraren Euskal Agentziak hala egin bazuen ere, adierazi zuen hurrengo prozesuetan jada aintzat hartu zituela proposaturiko ia neurri guztiak, eta etorkizuneko prozesuak ebazpenean azaldutako gomendio guztiak betetzeko asmoa zuela.

2.5. Hautapen prozesu batean azterketa fisikoak atzeratzea ukatzea

Kasu honetan pertsona batek aurkeztutako kexa aztertu zen, hain zuzen ere [Suteen Itzaltze eta Aurreikuspen eta Salbamendu Zerbitzuan](#) karrerako funtzionario modura sartzeko hautapen deialdiari dagokionez, [Bizkaiko Foru Aldundiarena](#); prozesu horretan azterketa fisiko baztertzailak zeuden.

Pertsona horrek istripu bat izan zuen eskabidea aurkeztu eta azterketak hasi arteko tartean, eta horren ondorioz zenbait hezur hautsi zituen, ebakuntza bat izan zuen eta berreskuratu egin behar zen. Lehen azterketa idatzia gainditu ondoren, azterketa fisikoak atzeratzeko eskaera egin zuen, [Osakidetza](#)ko txosten mediko batean oinarrituz; txosten horrek egiaztatu egiten zuen azterketa horiek ezin zituela horretarako aurreikusitako datan egin, baina eskaera ezetsi egin zen.

Deialdian dei bakarreko sistema aurreikusi zen, eta azterketan aurkezten ez zirenak baztertzera ageri zen, baina ondorio horietatik salbuesteko aukera ere aurreikusi zen, hain zuzen ere behar bezala justifikatutako kasuetan, epaimahaiak modu librean antzemandakoak, baita haurdunaldi arrisku-tsu edo erditzeagatik ere. Hala ere, foru administrazio horren ohiko jardunean amatasunaren ondoriozko atzerapenak baino ez dira onartzen; gainerako kasuak ezetsi egiten dira, administrazio horren ustez, nahitaezko kasuak interpretatu ahal direnez, amatasunarekin argudiatzen ez den atzerapen kasu orok segurtasun juridikorik eza eragingo luke.

Zirudienez, eskaerak sistematikoki ezestea irizpide orokor bat egotearen ondorio zen, edozein aukera autonomo eragozten zuena, epaimahaiaren iritzia askatasunean justifikatuta egon beharrean. Arartekoak azaldu zuen eskaerak modu unibertsalean ezestea ez zela onargarria, oinarrietan aurreikusitakoa edukirik gabe uzten zuela; aitzitik, epaimahaiak oinarrietan emandako eskumenak erabili behar zituen, eskaera guztiak banaka aztertuz, kasu bakoitzaren inguruabar zehatzak kontuan hartuz, lehenago [2010eko urtarrilaren 26ko Ebazpenen](#) azaldu bezala.

Kexaren analisisan gaineratu zenez, epaimahairen antzemate askatasunak ez dio askatasun absolutua ematen, edozein interpretazio egiteko; aitzitik, kasu bakoitzeko elementu guztiak sakon eta banaka aztertu ondoren jardun behar du beti, argudio logikoetan oinarritutako eta aski arrazoitutako erabaki bat dela bide. Gogorarazi zenez, bidenabar, jurisprudentziak dei bakarra haustea justifikatzeko nahitaezko kausa onartu du, eta ebatzi du figura horren barruan sar daitezkeen egoerak egiaztatuz gero, atzerapena eman egin beharko litzatekeela.

Arartekoak antzeman zuen kasu honetan jurisprudentziak eskatutako ezaugarriak betetzen zirela nahitaezko izaera onartzeko eta atzerapena justifikatzeko, pertsonaren borondatearen ez ziren inguruabar saihestezinen ondorioz eskatu baitzen atzerapena, eta inguruabar horiek ezintzailak ziren. Horregatik ez zen adostasunik egon Bizkaiko Foru Aldundiak azalduetako argudioekin, azken horren ustez

zorigaitzaren ondoriozko istripu baten ardura pertsona kalteuak berak hartu behar du bere gain.

Bestalde, Arartekoak nabarmendu zuenez, atzerapena onartzeak enplegu publikora sarbidea berdintasunez izateko bermea ez urratzeaz gain, printzipio hori zela bide nahitaezkoa izango litzateke pertsona kalteuak istripua izan ez balu garatuko litzatekeen moduarekin erkatuta ahal bezain baldintza parekoetan parte hartzeko prozesuan.

Azkenik, ukitutako interes eta eskubide guztiak zentzuz uzartzeko beharrezana nabarmendu zen, hala badagokio, denbora mugak edo prozedura mugariak ezarri atzeratutako azterketa egiteko.

Ohar hauek azaltzen zituzten zenbait idatzi igorri ondoren, azterketa fisikoak atzeratzeko eskaera ukatu izana berri-kusteko gomendioa eman zion Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiari, pertsona horrek aipatutako azterketa egiteko eta prozesuan parte hartzen jarraitzeko aukera izan zezan ([2019ko irailaren 30eko Ebazpena](#)). Azkenik espedientearen izapidetza bertan behera geratu zen, errekurtsu judicial bat aurkeztearen ondorioz.

3. Bestelako esku-hartzeak

3.1. Osakidetzaren 2016-2017rako Lan Eskaintza Publikoa

[2019ko urtarrilaren 25eko Ebazpenak](#) amaiera eman zion 2016-2017ko [Osakidetza](#) Lan Eskaintza Publikoaren enplegu eskaintza publikoari egindako ofiziozko esku hartzeari. Dokumentu horretan jardunean zehar lortutako informazio guztia laburbildu zen, horren inguruko zenbait hausnarketa kritiko gehituz, eta balorazioen atal bat ere bazuen, jarraian zehaztuta, hamabi gomendio zehatzetan.

Hala, Arartekoak eztabaida parte hartzaile bat egitea beharrezkotzat jo zuen, beharrezko neurriak zehaztu ahal izateko Osakidetzaren etorkizuneko lan eskaintza publikoak, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatzeaz gain, gardentasun eta inpartzialtasun eredu bihurtzeko, eta erakunde horretako aldi bateko enplegua finkatzeko erronkari aurre egiteko baliagarria izateko. Bidenabar, iraganeko lan eskaintzei dagokionez lortutako erabakietan inplikaturako eragile orok konpromisoa hartzearen alde ere egin zen, hain zuzen ere, hautapen prozesuen kalitatea areagotzea ekarriko luketen berrikuntzak eta hobekuntzak txertatzeari uko ez egiteko konpromisoa.

Prozesuak diseinatzeari dagokionez, epaimahai osatuko duten pertsonak zozketaz aukeratzea gomendatu zuen Arartekoak; kanpo espezialistak baliatzea beharrezkoa den bitartean, zuzenean izendatzea saihesteko duen sistema bat erabiltzea ere gomendatu zuen. Eta azterketak prestatzeari dagokionez, azaldu zuen lan hori epaimahaien esku utzi behar dela, eta ez zaiola soilik pertsona bati eman behar; nolahi ere, azkenean zehazteko ausazko faktore bat erabili behar da.

Ebazpenean ere esparru metodologiko bat edo eskuliburu operatibo zehatz bat prestatzea defendatu zen, azterketak eta zuzenketa irizpideak prestatzeko arauak zehaztuz, baita, ahal den neurrian, kasuan kasuko deialdien oinarri zehatzetan txertatzea ere. Eta, bidenabar, azterketak prestatu eta zuzentzen parte hartuko dutenek prestakuntza egokia jasotzea ere proposatu zen, aukeraketa metodo eta teknikei buruzko prestakuntza, aukeraketa inpartzial eta objektibo baten berezko jokabideen arau, printzipio eta balioei buruzko prestakuntza praktikoaren atal bat jasoz.

Arartekoak, azkenik, azaldu zuen, filtrazio susmoak egonez gero, azterketak errepikatzeke balizko agertoki baten aurrean, epaimahaiak berri egin beharko lirakeela.

Arartekoak agerraldia egin zuen 2019ko irailean Osakidetza langile politikaren eta hautaketa prozesuen eredia aztertzeke ponentziari erantzunez. Erakundeak aukera baliatu nahi izan zuen jardunaren berri zehatz emateko, bereziki irismena baldintzatu zuten inguruabarren berri, baita esku hartzeari emandako orientazioaren berri emateko ere. Halaber, jasota utzi nahi izan zuen Eusko Jaurjaritzako [Osasun Sailak](#) eta Osakidetza berak ere harrera positiboa egin ziela igorritako gomendioei, egiteke zeuden deialdi zehatzak kudeatzu, ekainean argitaratutakoak.

Orduan esan zen moduan, Arartekoak egindako gomendio eta proposamenak praktikara eramateko prestutasun horren haritik administrazio horiek neurri berriak txertatzeko egiten duten ahalegina modu positiboan baloratzen da, neurri horiei esker deitutako hautapen prozesu berriek enplegu publikora sarbidea izateko berme eta printzipioak errespetatzea bermatuko da, eta administrazio onaren eredia osatzen dute, erakunde honek eskatu zien moduan.

Nolanahi ere, deituko diren azterketak garatzeak esango digu txertatutako aldaketek emaitza eraginkorrak eman ote dituzten lortu nahi diren helburuak lortzeko.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

4.1. Hautapen prozesuen deialdiak eta behin-behinekotasuna

2019an zehar gure inguruko administrazio publikoetako askotan egiaztatu da **behin-behinekotasun egoera handia dagoela**. Behin-behinekotasuna hainbat urtez hedatu da hainbat faktoreren ondorioz, eta ondorioak langile kalitetuetan eragiten ditu (batzuetan ez daukate lan baldintza berdinak, eta, nolana ere, etorkizun laborala eta bizitza proiektua bera ere ziurgabetasunez bizi dute); ondorioak, halaber, langileek bermatu behar duten zerbitzu publikoaren kalitatean ere igartzen da (ezinezkoa izaten delako lantalde finkoak sortzea, iraunkortasun eta etorkizun bokazioarekin, eta horrek zailtasunak eragiten ditu).

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak zein barne auzitegiek arlo horri dagokionez egindako lanaren inguruan ere

balorazio positiboa egin behar da, kontratazioan abusua saihestea eta behin-behinekotasuna kontuan hartzeari dagokionez eta, oszilazio batzuekin, gaur egungo egoera irauli ahal izateko neurriak hartu beharrez konbentzitzen lagundu dute.

Jurisprudentzia hori oinarri gisa aipatu izan da aurtengo kexa batzuetan. Hala, kontratazioan abusua zigortuko duten tresnak finkatu beharra izan zen bitarteko funtzionarioak finkatzea aitortzeko eskaera baten oinarria, urte luzez zerbitzuak modu horretan eman zituztenak, eta ezin izan zen aztertu aurretik ez zelako aurkeztu administrazio eskudunaren aurrean.

Halaber, beste kexa batzuk aztertzeari esker Auzitegi Gorenaren adierazpenak aztertu ahal izan dira, eta horietan aurre-rapen argia antzeman da izaera desberdineko langileen arteko lan baldintzak parekatzeari dagokionez. Halaxe gertatu zitzaion langile mugagabeen talde bati, epai bidez finkoak ez zirenak; ordura arte langile finkoengana mugatutako lekualdaketa lehiaketetan parte hartzeko aukera izatea eskatzen zuten; horien asmoa, erakunde honek ulertu zuenez, horren inguruan berriki emandako jurisprudentzia doktrinaren bidez babes zitekeen ([apirilaren 2ko 352/2018 Epaia](#)), baina salaketa judizial bat aurkezteak izapidetza bukatzea eragotzi zuen.

Txosten hau bukatu dugun unean enpleguan egonkortasunari eta behin-behinekotasunari buruzko beste adierazpen bat plazaratzeko dago EBJA, C-103/18 eta C-429/18 gai metatuetan; abokatu nagusiaren [ondorioak](#) 2019ko urriaren 17an plazaratu ziren.

Horren haritik, urtean zehar **hautapen prozesuen deialdiak etengabe iragarri dira**; haien helburua behin-behinekotasun tasak murriztea da eta, hala, adibidez, aipa ditzakegu Gobernu Kontseiluak 2019ko abenduaren 17an onartutako 6592 plazak EAeko Administrazioaren hainbat sektoretan (hezkuntza, osasuna, segurtasuna eta Administrazio Orokorra), edo [UPV/EHUko](#) Zerbitzu eta Administrazio langileentzako 635 plazako eskaintza.

Behin-behinekotasun tasa altuei aurre egiteko neurrietako bat **aldi bateko enplegua finkatzeko prozesuak deitzea da**; [Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak](#) zenbait muga eta betekizun ezartzen ditu horretarako eta, nolana ere, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak betetzea bermatu behar dute.

Euskal Enplegu Publikoaren Legearen Aurreproiektuan zenbait xedapen iragankor ere jaso ziren, euskal administrazio publikoetan finkatze prozesu berezia ahalbidetzeko eta sarbide txanda berezia gehitzeko behin-behinekotasun indizeak ehuneko altu bat gaintzen badu. Lege hori izapidetu eta onartzea atzeratu izanak eragin du horrelako xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskala eta kidegoak arautzen dituen legearen aurreproiektuan sartzea, hurrengo hautapen prozesuetan aplikatzeko ahalegin modura.

Hain zuzen ere, **hautapen prozesuen diseinuek** hainbat kexa eragin dituzte, bai administrazioan zerbitzuak eskaintzen

denbora luzea zeramaten pertsoneri tratamendu lagungarria eskatzen duten pertsonengandik, bai baremoak zerbitzu horiek ez zituztenek sarbiderik ez izateko diseinatuta zeudela pentsatzen zutenengandik ere. Beste batzuek hautapen proben gaur egungo eredia zalantzan jarri dute, azterketetan beste alderdi batzuk aztertzeke eskaera eginez, esaterako gaitasun eta trebetasun profesionalak izatea, ezagutza teoriko hutsa erakustean oinarritutako eredia erabili beharrean.

Epigrafe honen barruan nahitaez erreferentzia txiki bat egin behar zaio **Osakidetzaren 2016-2017 LEPre**n ondorioei. Txosten honen aurreko atalean Arartekoak gai honen inguruan egindako jarduketak laburbildu dira, baita **2019ko urtarrilaren 25eko Ebazpenean** bildutako gomendioak ere, neurri horiek hautapen prozesu objektiboak, inpartzialak eta erabat bermedunak lortzen lagunduko dutenaren esperoan, parte hartzen duten pertsona guztien eskubideak bermatzeko. Bestalde, Osakidetzak **Hautapen Prozesuen Eredu Berria** izeneko dokumentua argitaratu du, horren inguruko zenbait neurri bilduz.

4.2. Prozedurak diseinatu eta planifikatzea

Euskal administrazioek gainditu beharreko beste erronka bat **erretiroa hartuko duten pertsona kopuru handi hori modu ordenatuan ordeztzeko datza**; izan ere, deskapitalizazio arrisku larria ekar dezake ibilbide profesional osoan bildutako ezagutza transmititzea ahalbidetzen ez duten mekanismoak prestatzen ez badira.

Ezin da ahaztu, ezta ere, administrazioek eraginkortasunez bete behar dituztela etengabe aldatzen ari diren eskari sozialak, eta haien eskakizunak langile publikoengan ere proiektatzen dituzte. Horrenbestez, **plangintza lana ere egin behar da**, estrategiak prestatuz eta abiatuz, gaur egungo egoeratik abiatuz, beharrezko neurriak hartzea ahalbidetuko dutenak, etorkizuneko beharrezkoen bermeekin aurre egiteko, langileei zein arlo honetan aplikagarriak diren prozedurei dagokienez.

Azken puntu horri dagokionez, **arreta berezia jarri behar da prozesuetan aplikatutako tresna informatiko eta telematikoen diseinuan**. Horrelakoak ezartzea aurrerapen progresibo eta saihestezin moduan ikus daiteke, herritarrek esku hartzea erraztu eta eraginkortasuna areagotzen duen aurrerapen gisa; baina, halaber, eskubide guztiak errespetatzea ere bermatu behar du, hartutako erabakien eta horren argudiatze faktiko eta juridikoaren berri izatea, eta gardentasuna ahal bezainbeste sustatzea. Hortaz, aurten unibertsitate ez bestelako irakaskuntza beharizanak kudeatzeko tresnaren (Ordezlagunea) inguruko kezka planteatu da; Lanbidek kudeatutako lan eskaintza baten inguruko kexa izapidetzearen ondorioz, erakunde honek antzeman zuen ez zela posible egindako eragiketen trazabilitate osoa lortzea.

Horren haritik, kexa batzuk izapidetzeko argi geratu da beharrezkoa dela existitzen diren errekerimenduei **erantzun azkarra emango dien prozedura errazak** proiektatzea.

Halaxe gertatu da unibertsitate ez bestelako irakaskuntza beharizanak betetzeko erabilitako zerrendaren espezialitateetara sarbidea ematen duten titulazioekin lotuta aurkeztutako kexekin. Hortaz, araudian katalogo itxia jaso den arren, unibertsitate ikasketen gaur egungo konfigurazioak tituluen zerrenda izugarria egotea ahalbidetzen du, praktikan gainezka egiten du eta aldatzeko aurreikusitako prozedurak ez du lortzen eskaerei zentzuzko epe batean irtenbidea ematea. Antzeko zerbait gertatzen da hizkuntza ez ofizialen titulu eta ziurtagiriak arautzen dituen araudiarekin ere, hornidura eta hautapen prozesuen ondorioetarako, zerrenda itxi batean ageri baitira; horren ondorioz, pertsona batek oposizio batean aurkeztu zuen titulu bat ez zen ingeleseko C1 maila gisa onartu, baina handik hilabete gutxira, oposizioa bukatzean, zerrenda aldatu egin zen eta aipatutako ziurtagiria berriaz sartu zen.

4.3. Familiako bizitza eta lanbidea bateratzea eta lan baldintzak

Aurreko urteetan bezala, kexetako batzuk **familia bizitza eta lana uztartzeari** buruzkoak izan dira, eta, zehazki, lanaldia egokitu edo horren ondorioz lan murriztapena lortu nahi dutenek aurkitzen dituzten arazoei buruzkoak. Aurreko mintzaldiaren adierazitakoaren haritik, erakunde honek gogorarazi du ezetzapen erabakiak soilik onar daitezkeela argudiatzea aski, objektiboa eta zentzuzkoa denean, eta horrek eskatutakora iristea eragozten duten antolaketa zailtasunak agerian uzten baditu.

Horren haritik, kontuan hartu behar da **Langileen Estatu-tuaren 34.8 artikularen bertsio berriak** (martxan jarri zena **martxoaren 1eko 6/2019 Errege Dekretu Legegilearen** bitartez, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko presako neurriena) **lanaldiaren iraupen eta banaketa egokitzea eskatzeko eskubidea** aitortu zuela, kontziliazio arrazoiengatik, baina eskubide hori baliatzea zentzuzko eta proportziozko esparrura mugatzen du langilearen beharrezkoen eta enpresaren ekoizpen edo antolaketa beharrezkoen dagokienez.

Kontziliazio arloan izapidetutako kexa bati esker lehen aipatutako behin-behinekotasun tasa handiek eragindako ondorio negatiboak antzeman ahal izan dira. Gaixotasun kronikoak edo mugikortasun arazoak dituzten senideak zaintzeko baimen eskaera bat ukatzeari buruzkoa zen, eskatzaileak ez zuelako betetzen hutsik zegoen lanpostu bat edo epe luzekoa, sektore mailako akordioak eskatzen duen moduan. Arartekoak baimenaren zati proportzionala gozatzeko aukera planteatu zuen, pertsona guztiengana heltzeko aukera eskainiz, zerbitzuen prestazioaren denboraren arabera; administrazioak erantzun zuen proposamen hori etorkizunean sindikatuarekin negoziatzeko prozesu batean aztertu ahalko zela.

Beste kexa batzuek agerian utzi dute **aurrera egin behar dela figura aplikagarriak argi eta garbi ebaztea posible egingo duten irizpideak definitzeko**. Adibidez, gaixotasun larria duen adingabea zaintzeko lanaldi murriztuarekin jarraitzeko eskaera ukatzea, adin eta eskolaratze egoera

direla bide argudiatuta. Hasieran, baimen hura ospitaleratzeko kasuetara mugatzen zen, baina aurrerago zaintza zuzenean, modu jarraituan eta etengabe etxean eman beharra egiaztatzen ziren kasuetan ere onartu zen. Une honetan zehaztu egin behar da kasu honetan emandako arrazoiak aski ote diren ama eta aita batek baimen hori merezi duen adingabea zaintzen jarraitu beharra baztertzeko, kontuan hartuz, oro har, ikastetxeetan dirudienek ez daudela horrelako zaintza emateko moduan. Kasua justizia auzitegietara eraman zen, eta, hortaz, Arartekoaren jarduna bertan beharra geratu zen.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan jaiotza eta zaintza baimenak parekatu eta handitzeko egindako lana ez da ahaztu behar, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko [urriaren 22ko 164/2019 Dekretuak](#) egindakoa, eta [2019ko irailaren 17ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiak](#), [kontziliario baimenak parekatzea onartu zuenak](#), Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eremuan.

Bestalde, **lan alderdiek** eragindako zenbait kexa izapidetu dira, esaterako lanpostuari esleitutako lan karga gehiegizkoa izatea, beste lanpostu batzuen edo erantzukizun handiagoko lanpostuetako funtzioak leporatzea, lanpostuaren balorazioa eta ordainsari maila. Txosten hau bukatu denean ebatzi gabe egon den arren, Arartekoaren aburuz funtzioak esleitzean errespetatu egin behar dira araudiak titulazio talde eta kidegoei dagokienez aurreikusitako jarraibide orokorrak, eta bat etorri behar da lanpostuaren monografiarekin edo antzeko tresna batekin, oinarritzat erabili dena ordainsari balorazioa egiteko.

Bestalde, gastu publikoari eusteko agertokian hartutako neurri batzuk, esaterako birjartze tasa txikiak ezartzea, bertan behera uzteari esker, neurri horiek enplegu publikoan izandako ondorioak irauli ahal izan dira; beste neurri batzuek jarraitu izanak ere kexak eragin ditu, esaterako irakasleen elkarte batek aurkeztutako kexa, borondatezko erretiroa eskuratu ondoren kalte ordain gisa adostutako kopurua ez zutelako kobratu, ondoz ondoko aurrekontu legek bertan behera uztearen ondorioz. Gai honi lotuta lege proposamen bat aurkeztu zenez, Arartekoak izapidetzea bukatu zuen, Legebiltzarreko eztabaidari lehentasuna emanez.

4.4. Harremana Herriaren Defendatzailearekin eta beste administrazio publiko batzuekin

Herriaren defendatzaileari igorritako kexei dagokienez, bere eskumenen barruan zeuden gaiak zirelako, pertsona talde batek aurkeztutakoa nabarmendu behar da; unibertsitate ez besteko irakaskuntza zerbitzuak eskaini dituzte aldi batez zenbait espezialitatean, haien titulazioari dagokionez zerrenda kudeatzeko araudiak hala ahalbidetzen zuelako, baina ezin dute espezialitate horietara sarbiderik izan karre-rako funtzionario modura, sarbide hori arautzen duen estatu mailako eta oinarritzako arauak ez dutelako titulazio hori jaso horretarako sarbidea ematen duen titulazio modura.

Kexa batzuek **estatu mailako administrazioaren alde aurreko jarduna** argudiatu dute oinarri gisa, euskal administrazioek ere aplikatzea erreklamatzeko. Enplegu publikora sarbidea izatea baztertzeko zenbait kausa mediko ezabatzeko kasuetan, [Ministroen Kontseiluaren 2018ko azaroaren 30eko Erabakiaren](#) bitartez onartutakoa, Segurtasun Sailak onartuz gero, kexa aurkeztu zuen pertsonak parte hartu ahal luke etorkizuneko hautapen prozesu batean. Sail horrek erantzun zuen eskusio medikoen taula aztertzea aurreikusitako delak, [Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntzari buruzko Erregelamendua](#) berriz ere berrikusten denean.

4.5. Administrazio egokirako eskubidea

Halaber, erakunde honen aburuz **administrazio on baten erreferente** gisa izan beharko litzatekeen horrengandik oso urrun dauden jarduketari buruzko kexak ere izapidetu ditugu aurten; Auzitegi Gorenak berak eskubide hori lotzen du, esaterako, eskabide baten aurrean erantzuna lortzearekin, administrazioak ezin baitu ez-aktibo gisa geratu denbora mugagabez, eskaera planteatu izan ez balitz bezala, edo erabakiak argudiatu eta objektibotasunez hartzeko betebeharrarekin, interes publikoko helburuekin bat etorritik, existitzen diren elementu guztiak kontuan hartuz.

Hala, hainbat kexatan **administrazio isiltasuneko** egoerak azaldu dira eta, kasu batzuetan, administrazioak berak ere jarduteko prozedura normalizatu modura aitortu du, eta, horren ondorioz, Arartekoak gogorarazi du erantzuteko lege betebeharra duela, eta isiltasunak eragindako ondorio negatiboak ere gogorarazi ditu, eragotzi egiten baitu pertsona interesdunek haien asmoak beharrezko bermeekin defendatzea. Zehazki, aurreko Arabako Zerbitzu Sozialen Foru Sailak (orain [Gizarte Zerbitzuen Saila](#)) erakunde honek [2019ko ekainaren 11ko Ebazpenaren bitartez](#) igorritako gomendioari ez erantzutea ere aipatu beharko da.

Halaber, **erabakiak behar bezala argudiatzeko beharra ere nabarmendu da**, baita **interesdunek hala justifikatzen duen egitatezko eta zuzenbidezko oinarri oro ezagutzeko eskubidea** ere, gardentasun printzipioan aurrera eginez. Adibide modura aipatu behar da garapen profesionaleko deialdi batean eskuratutako ebaluazioaren inguruan azalpen arrazoiturik lortu ez zuen pertsona baten kexa. Arartekoak, adierazpen judizialen babesarekin, azaldu zuen ez zela aski irizpide objektiboak eta emaitzak jakinaraztea; aitzitik, ebaluazioan erabilitako elementuetatik abiatuz, kasu horretan azkenean zalantza jarri den banakako emaitza eragin zuten irizpideak aplikatzearen zergatia zehaztu eta adieraztea beharrezkoa da.

Norgehiagoka prozesuetan administrazio prozeduretara sarbidea izateari buruzko gaitan ere nabarmendu behar izan da (hautaketa eta hornidura). Eskubideak bermatzen dituzten organismo eta justizia auzitegiek zein gardentasun kontseiluek behin eta berriz hitz egin dute gai honen inguruan, eta kasu hauetan sarbide eskubide zabala onartu dute. Ildo beretik, berdintasun, merezimendu eta gaitasun bermeak oinarritzat hartuz, publikitate eta gardentasun printzipioen esparruan, Arartekoak espedienteetara sarbide

osoa izatearen alde egin du, ulertzen baitu ahal diren baliabide guztiak arbitratu behar direla parte hartzaileen artean edozein zalantza argitzeko, eta datu pertsonalak babesteko eskubideak ez du horretarako mugarik ezartzen, lehiatzen diren pertsonen enplegu publikora sarbidea izateko aukerakin lotutako elementu ebazleak jakitean datza-eta.

Azkenik, antzeman da **Arartekoak informazioa eskatu duen zenbait alditan jasotako erantzunek ez dutela eskatutakoa bete**; horren ordez, forma argudio hutsak azaldu dituzte eta kexa aurkeztu zuen pertsonak ez zuela

administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu adierazi dute. Horri dagokionez adierazi behar da administrazio jardura ordenamendura egokitzea eta zuzentzea aztertzean bide judizialera jo gabe egin daitekeela, edo hori egin baino lehenagoko urrats modura; horren haritik, [otsailaren 27ko 3/1985 Legeak](#), erakunde hau sortu eta arautu zuenak, eskumena ematen dio kexetan agertutako kasuak aztertzeko, balorazioak egiteko, beharrezko informazioa eskatzeko ondorioen argudioak emateko eta, hala badagokio, beharrezko gomen-dioak igortzeko, interesatutako pertsonen jurisdikziora jotzeko eskubidea baliatu duten ala ez kontuan hartu gabe.



II. atala

10

Herri administrazioen araubide
juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak

1. Arloa kopurutan








Aurten 148 espediente kudeatu dira sail honetan eta honakoa izan da eragindako administrazioen araberrako banaketa:

• Tokiko administrazioa.....	123
• Foru administrazioa.....	3
• Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra (Eusko Jauraritza).....	2

Azpiarloen araberrako banaketari erreparatuz gero, honela sailkatuko litzateke:

• Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio-prozedura.....	62
• Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazio-erantzukizuna.....	40
• Tokiko zerbitzu publikoak.....	25
• Udal-eroldaren kudeaketa.....	14
• Beste alderdi batzuk.....	4
• Informazioa eta herritarren parte-hartzea.....	2
• Herritarren eskubideak.....	1

Aurten hainbat kexa bideratu ditugu, ekitaldi honetan jasotakoak eta aurreko ekitaldietan ebatzi geratu zirenak. Kexa horien biderapenari buruzko xehetasunak direla eta, nabarmendu behar da ondorengo egoeran daudela txosten hau idatzi den uanean:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
192	27	165	87	38	31	9

Arlo honetan, azaltzen den esparrua orokorra denez, gai gehienak toki administrazioetara bideratutako kexen gainekoak dira. Eduki materialaren ikuspuntutik, aurreko urteetan bezala, kexa gehienak herri-administrazioen funtzionamendu orokorrari buruzkoak dira. Hala ere, nabarmena da tokiko zerbitzu publikoekin eta ondare publikoa kudeatzearekin zerikusia duten kexen kopurua.

Urtero, azpimarratu behar dugu, behin eta berriz, herritarren eskaerei arazoizko epean erantzutea Administrazio Publikoaren betebeharra dela, eta ezin dutela **isiltasun negatiboaz** baliatzea aukeratu ebazteko betebeharraren ordez, isiltasun hori fikzio juridikoa delako. Gainera, maizegi gertatzen da kexak aurkezten dituzten pertsonak beren haserrea helarazten diotela erakunde honi; izan ere, herritarrek jarduketa batekin ados ez daudenean, administrazio publikoek ez dituzte aurkezten zaizkien eskaerak ebazten eta/edo hartzen duten erabakia inola ere ez dagokio eskatutakoari, eta herritarrek auzibidera jo behar izaten dute beren eskubideak defendatzeko. Azken aukera hori (eskaeraren gaia —zenbatekoa— kontuan izanda) ez zaie komeni herritarrei, epaiketako defentsaren gastuak direla eta.

Kexetan azaltzen diren kontuak, batzuetan, garrantzi txikitzat jo daitezkeen arren, kexagileentzat eskubideak erabilteko unea da, eta Administrazioak erantzun behar die, bere ikuspuntua argi eta zehatz azaltzeko ahalegin handiagoa eginez, baita **diskrezio-ahalak** erabiltzen dituen kasuetan ere; halakoetan, Administrazioak dauzkan jarduteko aukerak ugari dira, eta ez da beharrezkoa gogoeta juridikoetan oinarritutako arazoiketa; horren ordez, hartutako erabakiaren nolabaiteko arazoizkotasuna bakarrik egiaztatu behar da, administrazioaren jarduna ez dela arbitrarioa esan ahal izateko. Garrantzitsua da kontu hori nabarmentzea, eskatzen diren jarduketa asko ez baitaude nahitaez eman beharreko oinarritzko zerbitzu gisa araututakoen artean, eta, halakoetan ere, arazoa ematen den zerbitzuaren kalitatean edo kantitatean datza (bide-garbitketaren maiztasuna, urtean egiten diren belar-ebaketak, kultur zentroyen ordutegiak eta abar); kontu horiek guztiak aukerako erabakiaren arloari dagozkio.

Jaso ditugun kexa gehienek izapidetze-egoera arazoizkoa da erantzuteko epeei dagokienez, baita administrazio publikoek ematen diguten informazioaren edukiri dagokionez ere; informazio hori beharrezkoa izaten da administrazioaren jarduna salatu duten kexagileek azalduetako kontua egiaztatzeko eta, hala badagokio, antzemandako jarduera desegokia zuzentzeko proposamena aurkeztu ahal izateko. Ildo horretan, idatzi diegun administrazio publiko askok eskaerei eta, hala badagokio, Arartekoak helarazitako zuzenketaren proposamenei erantzun badiete ere, jarraitu behar dugu azpimarratzen erakunde honen eskaerei erantzuteko betebeharra, erakunde hau Eusko Legebiltzarraren mandataria delako; hori dela eta, bereziki aipatzen dugu informazio-eskaera bidali diegun administrazio baten **laguntzarik eza**.

Dena den, esan behar da erakunde honek ebazpenen bidez agindu dituen jarduketa zehatzak, gehienetan, onartu egin direla, hurrengo atalean azalduko den moduan.

2. Kexarik aipagarrienak

Atal honetan izapidetutako kexa esanguratsuenak laburbildu dira atal honetan, herritarren kezka eta gure esku-hartzeak adierazten dituzte eta; gomendioren bat jaso dutenak bereziki azpimarratu dira, dagozkien azpiarlo materialetan jarraian azaldutako epigrafeen arabera multzokatuta.

2.1. Administrazio prozedura eta Administrazioaren funtzionamendua

Pertsona fisikoek eskubidea dute une guztietan aukeratzeko Administrazio Publikoekin harremanetan jartzeko bitarteko elektronikoa erabili nahi dituzten ala ez, Administrazio Publikoan Administrazio Prozedura Erkidearen [urriaren 1eko 39/2015 Legearen](#), 14. artikulua xedatzen duenez. [Arartekoaren 2019ko maiatzaren 17ko ebazpenak](#), [Bizkaiko Foru Aldundiari zuzendutakoak](#), gomendatzen dio berriz azter dezala dokumentu baten legeztatutako kopia (sarrera-data, -ordua eta -zenbakia biltzen dituen) emateko prozedura, kontuan hartua, kasu batzuetan, herritarrek ez dutela administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzeko betebeharririk, eta ez dutela helbide elektronikoa erabili entregatu izanaren agiria lortzeko. Administrazio Publikoek bermatu behar dute interesdunek administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jarri ahal izatea, baina ezin dute ahaztu herritar batzuek ez dutela bitarteko horiek erabili harremanetan jarri nahi, edo ez dutela horretarako gaitasunik edo baliabiderik. Foru-erakundeak onartu egin du gomendia.

Kexaren arrazoi bihurtu den beste gai bat, gomendia eragin duena, Arartekoak aurten izapidetu dituen beste espediente batzuetan ere agertu da: interesdunek erregistro-kanal ofizialen bidez aurkeztutako idazkiak kalifikatzeko modua. Eskaera, ematen zaion izena edozein dela ere, ezin da nahastu **kexa, kontsulta edo iradokizun** kontzeptuarekin; izan ere, baliabide hori asko erabiltzen dute herri-administrazioek, herritarrek arazo publikoetan modu informalean parte hartzeko bide gisa (webgunea edo posta elektronikoa erabili ohi da horretarako, alde batera utzita Administrazio Publikoan Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 16.4. artikuluan ezarri diren idazkiak aurkezteko bideak).

Era berean, udal batek web orri ofizialetan herritarren eskura jarritako helbide elektronikoen bidez jasotzen dituen idazkiei erantzuten ez diela salatu duen kexa aurkeztu da Arartekoan. Herritarren eskura dauden helbide elektronikoa erabiltzeko udal karguek herritarrek bidalitako mezuei erantzutea logikoa dirudien arren, legearen ikuspuntutik, posta elektronikoa ez da Administrazioarekin harremanetan jartzeko onartutako identifikazio-baliabide elektronikotako bat. Hori dela eta, legeak bermatzen duen eskubidea betez

erantzun ofiziala jaso nahi izanez gero, eskaera sinadura elektronikoen bidez tramitatu behar da, aurrez aurre edo posta-bulegoetan.

Administrazio Publikoek ardura berezia jarri behar dute legez ezarritako bidea erabiliz aurkeztutako eskaera kalifikatzean. Jasotako kexak aztertzean, kanal desberdinen helburuaren inguruko nahasketa eta ezjakintasuna antzeman ditu Arartekoak. Hori dela eta, Administrazioak behar bezala informatu behar du jarraitzen den izapidetaren gainean, baita kexak eta iradokizunak aurkezteko kanal informalek aukeratzeko dituzten pertsonen eskubideen gainean ere; bide horiek eta izapide administratiboa bereizi behar ditu.

Administrazio egintza benetan eraginkorra izateko, arrazoiak behar du. Administrazio Publikoan Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 35. artikulua ezartzen du arrazoitu egin behar direla, besteak beste, administrazio-prozedurak edo -errekursoak ebazten dituzten egintzak, egitatean eta zuzenbideko oinarrien aipamen laburra eginez. Jarduketa zehatz bat eskatzen duten pertsonak batzuetan jasotzen duten “komunikatuak”, eskaera onartzen ez denean, behar bezala azaldu behar ditu ukapenaren arrazoiak, aplikatu beharreko araudia aipatuz; bestela, defentsa-gabezia sortzen da. Ildo horretan, [Arartekoaren 2019ko azaroaren 5eko ebazpenak](#), gomendatzen dio [Durangoko Udalari](#) itzul dezala errekarguarekin kobratutako kuota bat, ikastaro batean esanbidez baja eman ez izanagatik. Gomendio hau ez da onartu.

Azkenik, atal honi dagokionez, sarreraren esan dugun bezala, Arartekoak azpimarratu behar du administrazio publiko jakin batzuen laguntzarik eza; jarduteko modu hori eskatzen diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak, lehentasuna emanik eta al bait lasterren emateko legezko betebeharraren aurkakoa da (Ararteko erakundea sortu eta arautzekoaren [otsailaren 27ko 3/1985 Legearen](#) 23. artikulua).

[Arartekoaren 2019ko azaroaren 7ko ebazpenaren](#) bidez, gomendatu zaio Iburgurengo Administrazio Batzarrari gomendatzen zaio bete dezala **auzolanen** ordenantzan ezarritako prozedura. Kexagilearen esanetan, egin gabekotzat jo diren auzolanak ez dizkiote jakinarazi, ezta likidatu ere; hortaz, egin behar hori betetzeari uko egiteko duen eskubidea urratu dute. Gomendioak espresuki jasotzen du Arartekoaren erakundearekiko lankidetzaren falta, batzarrak ez baitie erantzun bidali zaizkion informazio-eskaerei. Gomendio hau ez da onartu.

2.2. Udal erroldaren kudeaketa

Biztanle-erroldaren gaiari dagokionez, tramitatutako kexetan oraindik ere azaltzen dira erregistroan izena emateko zailtasunak, administrazio-erregistro horren helburuarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik; helburua, hain zuzen ere, udalerraren egoera (biztanleria) fidelki adieraztea da. Bestalde, [Arartekoaren 2019ko urriaren 21eko ebazpenak](#) gomendatzen dio [Getxoko Udalari](#) alta eman diezaiola familia bati, eskaera aurkeztu den egunetik aurrerako ondorioekin, bizi den etxebizitzan, etxebizitza horrek lehen erabilerarako baimena oraindik jaso ez duen arren. Gomendia onartu egin da.

Bestalde, biztanleria eta erroldako aldaketak jasotzen dituzten fitxategiak, biztanleen erroldak sortzen dituenak, [Estadistikako Institutu Nazionalera](#) eta [EUSTATERa](#) bidaltzen dira, erakunde horiek esleituta dituzten estatistika-eginkizunak bete ditzaten; horrek arreta berezia eskatzen du fitxategi horiek dituzten datu pertsonalak erabiltzeko orduan. Ildo horretan, [Arartekoaren 2019ko uztailaren 31ko ebazpenak](#) gomendatzen dio EUSTATERi beharrezko neurriak har ditzan dagokion Erregistro Zibilean jatorrian EAEn jaiotako herritar gisa inskribatutako adingabe adoptatua atzerriko pertsona immigrantei buruzko datu pertsonalen fitxategietatik kentzeko. Kasu honetan, kontzeptu akats gertatu da, kexagilearen seme adingabea Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerriko etorkiak diren biztanleei buruzko inkesta bat egiteko laginean sartzeari dagokionez. Pertsona horrek “jatorrizko” Espainiako nazionalitatea du, hau da, bizi den udalerrian jaio da, nazioarteko adopzioetan Espainiako nazionalitatea lortzeko ezarritako araubide juridikoarekin bat; hortaz, jaiotzeagatik ere ezin zen erreferentzia-fitxategian egon. Gomendioa onartu egin da.

2.3. Informazioa eta herritarren parte-hartzea

Atal honetan, ohikoa denez, Administrazioaren eskuetan dagoen informazio publikoa eskuratzeko oztopoez gain, [Arartekoak](#) auzokideek —horretarako esanbidez ezarritako bideak erabiliz— gai publikoetan parte hartzeko eskubidearekin zerikusia duten kexak tramitatu ditu. [Arartekoaren 2019ko irailaren 10eko ebazpenaren](#) bidez, Usansoloko herritarrek banandu eta Galdakaoko udalerrin independente bihurtzeko ekimenari lotuta egindako jarduna amaitutzat eman da. Kexa aurkeztu duten pertsonen azaldu zioten [Arartekoari Galdakaoko Udala](#) bai osoko bilkurak hartutako erabakien aurka, bai Usansoloko biztanleen borondatearen aurka zi-harduela. Berariazko **banantze**-espedienteari hasiera eman aurretiko fasean adostutakoaren arabera, horretarako izendatutako Batzorde Paritarioak Udalbatzari aurkezteko proposamena prestatu behar zuen. Horrek halabeharrez eskatzen du proposamena behar bezala onartzea; gainera, proposamenaren edukiak lege-xedapenekin bat etorri behar du, eta Udalbatzaren kideen eskumena da gehiengo osoz erabakitzea banantze-espedientea hasi ala ez.

Bestalde, oraindik ere jasotzen dira **zinegotzien** eta udal taldeen kexak, beren karguak direla eta esleituta dituzten eginkizunak betetzeko behar duten informazioa eskuratzeko eskubideei buruzkoak. Hain zuzen ere, [Arartekoaren 2019ko otsailaren 13ko ebazpenak](#) gomendatu dio [Honda-ribiko Udalari](#) entrega dezala udal talde batek eskatutako dokumentazioa. Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako [Toki Erakundearen Antolaketa](#)ren eta [Funtzionamenduaren gaineko Erregelamenduaren](#) 14. artikulua eta hurrengoak aplikatuz, udaleko kideek, zehaztuta dauden kasuetan, badute eskubidea eskatutako informazioa bost eguneko epean jasotzeko, eta eskaera aipatu epean erantzun ez bada, dagokion ebazpenaren bidez edo uko egiteko erabakiaren bidez, isiltasun administratiboaren bidez onartu egin dela ulertuko da. Gomendioa onartu egin da.

Azken finean, herritarren parte-hartzea auzotasun-harremanari lotuta dago, hau da, udalerrian bizi diren eta erroldatuta dauden pertsona guztiek daukate eskubidea gai publikoetan parte hartzeko, lege ezarritako bideak erabiliz. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.bis 2 artikulua honako hau xedatzen du: *“Udalek, arau organikoen bidez, tokiko bizitza publikoko gaietan auzotarrek benetako parte-hartzea izan dezaten egokitutako prozedurak eta organoak ezarri eta arautu behar dituzte.”*

2.4. Herri-administrazioen ondarea

Atal honetan, kexak bi bloketan bereizi behar dira. Batetik, administrazio publikoen eskura jarritako ahalak —jabari publikoko ondasunak defendatzeko— erabiltzeko betebeharra, bidei buruzko auzien kopurua nabarmenduta. Horien artean, udalaren utzikeria —ondare publikoa defendatzeko betebeharra betetzean— salatzen duten pertsonen kexak daude, baita, kasu batzuetan, udal administrazioak bere prerrogatibak neurrigabe eta arbitrarioki erabiltzen dituela dioten kexak ere.

Beste blokean, aldiz, espazio publikoaren okupazio pribaturako baimenen kudeaketari lotutako gaiak daude. Izapidetutako kasu guztietatik, atal honetan nabarmendu nahi ditugu gomendioa jaso dutenak; batik bat, honako hauei dagozkie: **terrazak eta mahai hankabakarrak** jartzeko baimenak eta **txosnak azoka berezietan** eta jaiak bezalako beste ekitaldietan jartzeko baimenak.

Adibidez, [Arartekoaren 2019ko apirilaren 11ko ebazpenaren](#) gomendatu zaio [Donostiako Udalari](#) irisgarritasun arloan eta Alde Zaharrean terrazak jartzeari buruzko beste gai batzuetan indarrean dagoen legeria bete dezala. Auzo-elkarte bategi aurkeztu zuen kexa, auzoko ostalaritza-establezimenduetan batzuek udal ordenantza eta/edo espazio publikoa terrazekin okupatzeko baldintzak betetzen ez zituztela salatzen. Ebazpenari erantzunez, udalak adierazi zuen udalerriko irisgarritasun plan bat izapidetzen ari zela, eta bertan, [Arartekoak](#) aipatutako egoera aztertuko zela, irisgarritasun-arauak betetzea eta ekonomia-jarduerak egitea bateratze aldera. Bestalde, ikusi zen hobetu behar zela emandako baimenak ikuskatzeko eta horietan jasotakoa betetzen den kontrolatzeko modua, baita —terrazak jartzea dela eta— ostalaritza-establezimenduei irekitako zehapen-espedienteak izapidetzeko modua ere. Espedientea itxi egin da, gomendioa onartu egin dela ulertuta.

Halaber, [Erandioko Udalari](#) zuzendutako kexa bat izapidetu da ([Arartekoaren 2019ko irailaren 11ko ebazpena](#)), behar diren neurriak har ditzala zenbait ostalaritza-establezimenduk baimenik gabe jarri dituzten terrazak kentzeko. Aurkeztutako kexaren bidez, alkateak emandako aginduak ez betetzea salatu da. Izan ere, alkateak terraza batzuk ken zitezela agindu zuen, baimenik gabe jarri zirelako eta ezin zirelako legeztatuz, ezin baitzitezuten bete udal-ordenantza ezarritako betekizunak, ez eta irisgarritasunari buruzko araudia ere.

Hala ere, oztopo ugari dago legea benetan bete dadin. Izan ere, kasu horretan, hertsatze-isunak aplikatzea erabaki zen,

derrigorrezko legezko estaldurarik eduki gabe, ordenantzan aurreikusitako nahitaezko betearazpena saiheste aldera; horrela, ondorioz gabe utzi ziren alkateak —baimenik gabeko terrazak kentzeko— bere garaian eman zituen aginduen egitarizte subsidiarioa. Udalak udal ordenantza betetzen zuten terrazak legezkotzeko jarraitzen zituen jarduketan berri eman zuen, baina ez zuen ezer esan legeztatze modukoak ez zirelako baimendu ez ziren instalazioen aurkako jarduketari buruz. Hori dela eta, Arartekoak amaitutzat jo du esku-hatzea, gomendioa ez dela onartu ulertuta.

Azoka berezietan eta bestelako ekitaldiei dagokienez, **Bilboko Udalari** zuzendutako bi gomendioak nabarmendu nahi ditugu: bata, txosnak Aste Nagusian jartzeari buruzkoa, eta bestea zenbait nekazaritza-azoka egiteko saltoki eta txosnen esleipenari buruzkoa.

Izan ere, **Arartekoaren 2019ko ekainaren 26ko ebazpenean**, Bilboko Udalari gomendatu zaio, hala badagokio, berriz azter dezala **irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateei** Aste Nagusian txosnak jartzeko baimena emateko baldintzen plegua. Ebazpenean, Arartekoak ondorioztatu zuen ez zela arrazoitu eta egiaztatu —ezta gutxienezko neurrian ere— parte hartzen zuen erakunde bakoitzak —banatzeko espazioak adjudikatzeko baldintza-agirian esanbidez ezarritako irizpide guztiak behar bezala haztatuta— lortutako balorazioa, elkarrekin kexagileak salatu zuen moduan. Bestalde, gomendioan adierazi zen **lehia librearen** izaera murriztailea, espazio publikoa adjudikatzean irabazteko asmorik gabeko erakundeen parte-hartzea mugatuz, behar bezala justifikatu behar zela espedientean. Gainera, parte-hartze mugatu horren oinarria, hala bazegokion, udalaren interes publikoa —elkarrekin gisako lana sustatzeko— izan ahal zen; horrek, halaber, jardura osoan lortutako baliabide ekonomikoak eta helburuak kontrolatzea eskatzen zuen. Gomendioa onartu egin da.

Bestalde, **Arartekoaren 2019ko azaroaren 14ko ebazpenaren** bidez, Bilboko Udalari gomendatu zaio legeriara egokitu ditzala azokak eta azoka txikiak egiteko baimena eskuratzeko prozedura eta indarrean dagoen espazio publikoari buruzko ordenantza. Noizbehinkako kalez kaleko salmentari buruzko udal erregulazioak, halaber, bete behar ditu bai aplikatu beharreko araudi sektoriala, bai ondare publikoari buruzko araudia, hain zuzen, 199/2010 Errege Dekretua, otsailaren 26koa, **salmenta ibiltaria** edo ez egonekoa erregulatzen duena. Errege Dekretuaren 1.1 artikuluko salmenta ibiltari edo ez-sedentariotzat hartzen du **merkatariak** merkataritza-establezimendu iraunkor batetik kanpo egiten dutena, kontuan izan gabe salmenta zer maiztasunekin eta non egiten den. Ondorioz, ezinezkoa da azoka jakin batean jardun nahi duen merkataria eta modalitate bakoitzak behar dituen baimen zehatzak erakunde pribatu batek ematea, eta erakunde horren esku uztea espazio publikoa esleitzeko ahalmena. Gomendio hau onartu da.

Gomendio horretan, gainera, kalez kaleko salmentarako baimenak emateko prozedurak publikoa izan behar duela eta ezarritako baldintzak aldeztatik zehaztu behar direla azpimarratu zuen Arartekoak; baimenak zuzenean adjudikatzen dira edo, bestela, haien kopurua mugatua bada, ohikoa denez, eskaerak baloratzen dira edo zozkatu egiten dira. Azkenik, azoken antolatzaileei dagokienez, aipatu

gomendioan, Arartekoak esan zuen ez zegoela lege-oinarririk espazio publiko osoa produktuen salmenta ibiltari-ko saltokiak hautatu, banatu eta jartzeko eskumena bere gain hartzen duten irabazteko asmorik gabeko elkartei eta beste erakunde batzuei adjudikatzeko. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak orain dela gutxi emandako epaiak (apelazio-errekurtsoaren zk.: 720/2019), 2019ko urriaren 10ekoak, azoka berezi bati buruzkoak, honako hau adierazten du:

“...no cabe sino concluir que dicha convocatoria no justifica siquiera someramente, los motivos por lo que decide que la adjudicación de la txosna municipal lo sea a entidades sin ánimo de lucro del municipio, lo cual impide el acceso a dicha explotación de otros operadores económicos, como es el caso del apelante, discriminándoles y restringiendo la competencia, que no se compadece con los principios de la normativa contractual que acaba de citarse líneas arriba, disponiendo expresamente el artículo 132.1 de la LCSP que “En ningún caso podrá limitarse la participación por la forma jurídica o el ánimo de lucro en la contratación...””.

2.5. Ondare-erantzukizuna

Espediente mota horrek nahikoa presente egoten jarraitzen du Arartekoaren ohiko jarduran. Jakina denez, herritarrek administrazio publikoetara konpentsazio ekonomiko bat eskatzeko jotzen duten kasuetan ikusitako irregulartasunen berri helarazi eta gero irekitzen da espedienteak.

Kexa jartzen dute, konbentzita baitaude beren ondasun edo eskubideak kaltetu egin direla eta kalte horiek (pertsonalak edo materialak), beren iritziz, administrazio baten menpe dauden zerbitzu publikoen funtzionamenduari egotz dakizkiekeela.

Gainerakoan, ez da berritasunik izan kexen edukiarri dagoenez, beti bezala, bi motatako kasuak agertu baitira: erreklamazioaren ondorioz irekitako administrazio-espedienteari amaiera ematen dion esanbidezko ebazpenik eza eta, ebazpena eman bada, horren edukiarekiko desadostasuna.

Esanbidezko erabakirik ezari dagokienez, azpimarratu behar da, erreklamazioaren hartzaila den administrazioak interesdunen eskaerak arrazoizko epean ebazteko prestasuna erakusten badu, kexa-espedienteak itxi egiten dela. Erabaki horrek ez du kentzen (tamalez, nahi baino gehiagotan gertatzen da) kexa berri bat ireki eta gaiari berriz heldu beharra, administrazioak adierazitako konpromisoa helarazitakoarekin bat gauzatzen ez denean.

2.6. Tokiko zerbitzu publikoak

Ekitaldi honetan, azpimarratu behar da hiri **hondakin** solidoak biltzeko edukiontzien kokapenak jarraitzen duela kexa arrazoi izaten. Hondakinen birziklatze maila areagotzeko premiak edukiontzia kokapen batean biltzea ekarri du,

eraginkortasuna hobetzeko. Horrek, hala ere, larriago bihurtzen ditu zaratak, usain txarrek eta zikinkeriak eragiten dituzten arazoak, instalazio horien inguruan bizi diren pertsonen jasan behar dituztenak. Ildo horretan, Arartekoak jarraitu behar du azpimarratzen edukiontzia jartzeko irizpide arrazoituak zehaztu behar direla, erabiltzaile guztiak hartutako erabakia eta arrazoiketa ezagutzen dituztela ziurtatzeko.

Bestalde, ondo baino hobeto jakina denez, udalek betebeharrugari eta askotarikoak dituzte, zerbitzu publikoak emateari dagokionez. Hala, [Arartekoaren 2019ko abuztuaren 8ko ebazpenean](#), [Okondoko Udalari](#) gomendatu zaio bere sarbide nagusietan hirigune eta erakundeak behar bezala errotula ditzala eta udalerrri guztiko posta-helbideen euskarri izateko kartografia digitala egunera dezala. Kaleak eta bestelako elementuak behar bezala seinaleztatzea ezinbestekoa da udalerrian bizi diren auzokoentzat, zerbitzuak jaso behar dituztenean (posta-zerbitzuak, anbulantziak eta abar). Gomendioa onartu egin da.

Beste batzuetan, herritarrentzako zerbitzuak ezartzeak zenbait prozedura eta izapide betetzea eskatzen du. Administrazioak, zerbitzuaren sustatzailea denez, ezin du betebeharrori alde batera utzi, batez ere, izapidean ikusitako gabezia eragindako auzokoei gauzatu behar den proiektua aztertu eta dagozkion alegazioak aurkezteko oztopo bihurtzen denean, eta, ondorioz, defentsa-gabezia sortzen denean. Ildo horretan, [Arartekoaren 2019ko maiatzaren 7ko ebazpenak Galdakaoko Udalari](#) gomendatu dio beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzala “skate” pistaren erabilera legeztatzea eta dagozkion kalitate akustikoko mailak betetzen dituela ziurtatzeko. Gomendioa ez da onartu.

3. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Administrazio-prozedura pertsonen administrazio publikoekiko harremanetan dagozkien eskubideak gauzatzeko tresna da, eta, aldi berean, Administrazio Publikoak legeari eta zuzenbideari men eginez jarduten duelako adierazpena da. Gauzak horrela, administrazio-prozedurari buruzko aipamena agertzen da urtero araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak barnean hartzen dituen gai multzoko herritar-eskubideei buruzko laburpen honen goiburukoan.

Aurten tramitatutako kexak ikusita, jarraitu behar da azpimarratzen Administrazio Publikoak legeari eta zuzenbideari men egin behar diela, salbuespenik gabe. Legea betetzeko betebeharratetik salbuestea ezin da interes publikoaren bidez justifikatu, interes publiko onargarri bakarria legea betetzean babesten dena delako.

Une hauetan, teknologia berriak gizartearen gero eta gehiagotan erabiltzen direnez, administrazio-prozedurak arintzea ahalbidetzen duten baliabide elektronikoaren bidezko funtzionamendua ezartzea Administrazioaren erronka handia bada ere, gogoratu behar da pertsona batzuek baliabide horiek erabili ezin dutela eta/edo nahi ez dutela, Administrazioarekin harremanetan jartzeko. Kontu horretan arreta handiz jokatu

behar da, pertsonak baliabide elektronikoak komunikatzera behartuta ez daudenean; izan ere, baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza eman behar zaie Administrazioarekin harremanetan jarri behar duten pertsonen, identifikatzeari eta sinadura elektronikoari lotutako kontu guztietan, baita eskaerak erregistro elektroniko orokorraren bidez aurkeztu eta kopia autentikoak lortu behar dituztenean ere.

Teknologia berriei zeharka lotuta, aurten, hainbat kexa jaso du Arartekoak, herritarrek parte hartzeko kanal informalek bidez tramitatutako eskaera bat Administrazioak kexa edo iradokizun gisa kalifikatu duelako eta, hortaz, ez dela administrazio-prozedura formalean sartzeko modukoa erabaki duelako. Legez jarritako bideetan (aurrez aurre, bide elektronikoak, postaz eta abar) aurkeztutako idazki guztiak administrazioak eskatutakoari buruzko iritzia ematea eskatzen dute; izan ere, dagozkion instrukzioa egin eta kontuan eragina duten elementuak baloratu ondoren, erantzuna edo ebazpena oinarri juridikoa duen ondorioa izan daiteke bakarrik, eta eskatutakoaren alde bat ere ezin da graziatzeko borondatearen pean geratu, eskaera ez onartzeko erabakia barne. Hala ezartzen du, hain zuzen ere, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 88.5 artikulua: horren arabera, Administrazioak ezin du ebazpenik ez eman, nahiz eta onartezintzat jo baititzake eskubideak aitortzeko eskabideak, eskubide horiek ez badaude ordenamendu juridikoan aurreikusita edo argi eta garbi oinarria falta bazaie, hargatik eragotzi gabe **eskariak egiteko eskubidea**, [Konstituzioaren 29.](#) artikuluan ezarritakoa eta [azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoaren](#) bidez arautu dena.

Hori dela eta, parte hartzeko bide informalek (hala nola webgune ofiziala, posta elektronikoa, sare sozialetako profilak eta abar) bestelako arauak dituzte, eta ez dute barnean hartzen edozein eskaera izapidetzeko prozedura formalari dagozkion eskubide eta betebeharririk. Administrazio Publikoek argitu behar dituzte bide informalek horien funtzionamendua eta edukia, herritarrek parte hartzeko tresna horiek eta administrazio-prozeduraren esparruko arau formalak bete behar dituzten bestelako tresnak bereizteko gai izan daitezen.

Legezkotasun printzipioaren beste ildo bat, udal erakundearen arloan aipatzen jarraitu behar duguna, haiek beraiek ezartzen dituzten arauak (**araudiak eta ordenantzak**) betetzea da. Alde batetik, erregelamenduak egiteko ahalak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 129. ezartzen dituen arautze egokiaren printzipioekin bat jardutea eskatzen du, hau da, honako hauek kontuan izanda: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Ildo horretan, hainbat kexa ikusita, egiaztatu dugu, kalek kaleko salmenta (batez ere noizbehinkako azoketan) eta espazio publikoa terrazekin eta mahai hankabakarrekin okupatzeko baimenak bezalako gaietan, ordenantza arautzaileek, batzuetan, legea urratzen dutela, aplikatu beharreko araudi sektoriala kontuan hartzen ez dutelako. Horrek arazoak sortzen ditu araudi horren eraginpean dauden pertsonen **segurtasun juridikoan**. Jokabide horien beste ondorio negatibo bat honako hau da: urratu egiten da herritarren bidezko konfiantza, administrazioak kasu guztietan arduraz, eraginkortasunez eta modu ez-arbitrarioan jardungo duela.

Esandako horren harira, halaber, azpimarratu behar da udalak gaia egokien iruditu zaion moduan araututa, dagokion ordenantza edo araudiaren bidez, udal administrazioak eta onura edo kaltea jasan duten pertsonak araua bete eta betearazi egin behar dutela. Aipatutako betebeharrak eta erantzukizunekin batera, udalerriko biztanleek eskubidea dute gai publikoetan parte hartzeko eta udal araudia bete dadin, eskatzeko, legetan, ordenantzetan edo araubideetan ezarritakoarekin bat (Euskadiko Toki Erakunde bidezko [apirilaren 7ko 2/2016 Legearen](#) 43. eta 44. artikulua). Udalerriko auzokideek badaukate eskubidea indarrean dauden udal ordenantzak guztiek errespetatuko dituztela itxaropena izateko, eta, bete ezean, udalak betearazteko behar diren mekanismoak badituela pentsatzeko.

Aurreko egoeraren adierazgarria dira udal ordenantzak ez betetzearen ondoriozko arazoak, jabari publikoaren kudeaketari eta erabilera pribaturako baimenen kudeaketari lotutakoak (**terrazak** jartzeari lotutakoak). Halakoetan, udal ordenantza eta/edo emandako baimenetan jasotako baldintzak betetzen ez direnean, Administrazioak ez du behar bezala erreakzionatzen, hau da, ez du espazio publikoa okupatzea debekatzen eta ez ditu dagozkion zehapen-espeditenteak tramitatzen. Une hauetan, halako instalazioak gero eta ugariago direnez, eragozpen asko sortzen dizkiete inguruan bizi diren pertsonak; hori dela eta, udalak ezin dira hain atsegin eta permisibo izan legez kontrako okupazioekin.

Bestalde, aurreko txostenetan jada nabarmendu dugunez, herritarrek gai publikoetan **parte har** dezaten, ezinbestekoa da **informazio publikoa** eskuratzeko aukera ematea. Arlo horretan oraindik asko dago egiteko; izan ere, tramitatutako

kexen arabera, interesdunek zailtasunak izaten dituzte Administrazioaren eskuetan dagoen informazioa benetan eskuratzeko. Herritarrek banaka eska dezaketen informazio publikotik haratago, [abenduaren 9ko 19/2013 Legea](#), garrantzitsua, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, indarrean jarri zenetik igarotako denbora gorabehera, administrazio publikoek aldizka eta era jarraituan argitaratu behar duten **informazio aktiboak** hainbat hutsune eta gabezia dituela, eta zenbait betebeharrak, hala nola ordenantza eta araudien proiektuen publikotasunari lotutakoak, ez direla betetzen azpimarratu behar da. Udal gehienek proiektuak jendaurrean jartzeari buruzko iragarki bat bakarrik argitaratzen dute, proposatzen den testu osoa argitara eman gabe.

Erakunde honen iritziz, 19/2013 Legearen 7.e) artikulua aplikatuz, Administrazioak betebeharrak du, indarrean dagoen legedi sektorialarekin bat, izapidetu bitartean aldi baterako jendaurrean jarri behar diren agiriak —hala nola ordenantzak eta araudiak— argitaratzeko. Era berean, ETELren 53. artikulua, biztanle gutxiako udalerrientzat oraindik amaitu ez den igaraldian bada ere, jendaurrean jarri beharreko ordenantzak eta araudien proiektuak argitaratzea eskatzen du. Udal erakunde ia guztiek webgunea dutela kontuan hartuta, ulertezina da ordenantzak eta araudiak jendaurrean jarrita dauden bitartean (iradokizun eta alegazioak aurkezte aldera), herritarrek irakurri nahi badituzte, udaletxera pertsonalki joan behar dutela, espedientea aztertzeko. Horrela, gainera, ez dira betetzen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 129. artikuluan ezarritako arautze egokiaren printzipioak, araudien hartzaileak izan daitezkeenei araudi horiek egitean era aktiboan parte hartzea eragozten zaielako.



II. atala

11

Osasuna








1. Arloa kopurutan

2019an idatzizko 660 kexa aurkeztu dira osasun arloan, eta Arartekoak aldi horretan jaso dituen kexa guztien % 27,86 da hori.

Eragindako herri-administrazioak eta azpiarloak kontuan hartuta, honakoa izan da kexen banaketa:

• Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa.....	544
• Osasun-laguntza	45
• Erabiltzaileen eskubideak.....	36
• Herritarren eskubideak.....	15
• Itxarote-zerrendak.....	8
• Beste alderdi batzuk.....	7
• Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna.....	4
• Osasun publikoa.....	1

Txostena itxi zen egunean, honako hau izan zen 2019an iza-pidetutako kexen egoera:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amañtuta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
324	140	184	28	131	6	19

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Osasun laguntza

lazko txostenean eman genuen gure autonomia-erkidegoan izandako aurrerapenaren berri: izan ere, Euskadiko udalerrietako batean erroldatutako pertsona guztiei osasun-laguntza

benetan bermatzeko berriazko programa bat eta prozedura bat ezarri ziren. Hala ere, zenbait atzerritarrek kexak aurkeztu dituzte berriz ere, osasun-laguntza eskuratzeko zailtasunak dituztela salatzen.

Aurreko urteetan bezala, kexa horietako batzuk interesdunek berek zuzenean aurkeztu dituzte Arartekoan; beste batzuk, berriz, atzerritarren osasun-laguntza sustatzeko lanean diharduten gizarte-erakundeek (hala nola Munduko Medikuek erakundeak) jarri dituzte horiek. Batik bat, interesdunek osasun-egiaztagiria jaulkitzeko eskatu edo osasun-zentro batera laguntza eske jo dutela-eta jartzen dira kexak.

Kexa horiek aipatzen dute, batez ere, osasun-zentroetako harrera-zerbitzuek eragozpen administratiboak jartzen dituztela edo uko egiten diotela osasun-laguntzaren eskaerak izapidetzeari edota Osasuna Babesteko Programan onartzeko eskaerari, eta ez dela osatzen osasun-zentroetako larrialdietan emandako arreta.

Gainera, hasiera batean osasun-arretatik jaso ez duten adingabeen edo haurdun dauden emakumeen kexak jaso dira, berriz ere. Halaber, gaixotasun kroniko larriak (minbizia edo GIB) dituztenen kasuak agertu dira, pertsona horiek zailtasunak izan baitzituzten osasun-sistema publikoa erabiltzeko, esku-hartze bat burutu arte.

Era berean, aurten, familia elkartzea eskatu eta gero Euskal Autonomia Erkidegora iristen diren pertsona nagusien kexak jaso direla ohartarazi behar da. Atzerritartasunari buruzko legediak pertsona horiek aseguru mediko bat eduki behar dutela xedatzen du; hala ere, oso zaila da lortzea, eta egoera hori oztupo bihurtzen da pertsona horien osasun-laguntzarako eskubidea aitortzeko.

Atal honetan, jasotzen duten osasun-laguntzaz kexatzen diren pazienteak ere aipatu behar dira; kexagile horien iritziz, Osakidetzak zabarkeriaz jokatu du. Printzipioz, kontu tekniko-mediokoak direnez, ezinezkoa da Arartekoak prozesu horiek ebaluatzea. Hori dela eta, zirkunstantzia hori azaltzeaz gain, ordenamendu juridikoak aipatzen duen ondare-erantzukizuneko bidearen berri ematen zaie; bide hori, hain zuzen ere, lanbidezko arduragabekeria gertatu den ala ez erabakitzeko ezarri da.

Halaber, interesgarria da Hiru Hamabi elkarte osatzen duten familiek iaz aurkeztu zuten kexa aipatzea. Izan ere, familia horiek urte batzuk daramatzate adingabeentzat ere honako hau eskatzen, gaixotasunaren fase azpiakutuan batez ere (neuroerabilitazioa): helduen hartutako kalte zerebralerako aurreikusitako arretako osasun-ereduak aplikatzea. Hitz batez, aspalditik eskatzen ari dira hartutako kalte zerebralararen arazoa duten pertsona guztiek osasun-arreta egokia eta proportzionala jasotzeko eskubidea izan dezatela.

Erakunde honek gai horretan bi aldiz esku hartu ondoren, aurtun, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jakinarazi dio Arartekoari ez dela egokitzat jotzen hartutako kalte zerebrala duten haurren kasuak aztertzeko berariazko unitate bat sortzea. Halaber, sailak komunikatu dio erakunde honi elkarteari dagoeneko jakinarazi zaiola hartutako kalte zerebralaren unitateetako profesionalak, bai Gorlizko ospitalean, bai Aita Mennirekin hitzartutakoan, prest daudela esku-hartzea behar duten kasuak artatzeko, eta pazienteen adina ez dela arazoa. Azkenik, sailak aseguratatu du ez duela jaso eskatu arren arreta jaso ez duten familien erreklamaziorik, eta, hori horrela bada, banakako eskaerak horretarako irekita dauden bideetako batetik bidera dezatela iradoki du. Elkartek bere helburua —elkartekideen banakako erreklamazioak aipatu bideetatik aurkezte— Arartekoari helarazi zionez, erakunde hau kexa horiei emango zaien erantzunaren zain dago.

Dena den, kontu horren inguruan, Herriaren Defendatzaileak *“La atención específica al daño cerebral adquirido infantil”* izenburuko azterketa egin du. Bertan jasotako eta autonomia-erkidegoei zuzendutako gomendioen artean, kalte zerebralaren neuroerabilitazioan espezializatutako ospitale-unitate bat (gutxienez) sortzea aipatu da; unitateak haurrentzako berariazko arreta emateko behar beste ohe eta plaza izan beharko lituzke, baita beharrezkoak diren lanbide-profil guztiak ere, paziente horiei diziplina anitzeko egiazko arreta integratua eskaini ahal izateko.

Azkenik, farmazia-prestazioari dagokionez, hainbat kexa aurkeztu dira, Osasun Sailaren Ikuskatzailetza Medikoak sendagai batzuk emateko oniritzia ukatu dituela salatzen. Horiei dagokienez, interesdunei jakinarazi zaie erakunde honek ez duela halako kexetan jarduteko aukerarik, ukapenak Arartekoak zalantzan jarri ezin dituen ezagutza teknikoetan oinarritzen direlako; gainera, erabaki horiek ez dira EAEko administrazioan hartzen, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ongizate Ministerioan baizik.

2.2. Erabiltzaileen eskubideak

Euskal Osasun Sistemaren erabiltzaileen eta profesionalen arteko harreman guztiak [uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuak](#), Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duenak, arautzen dituen eskubide eta betebeharren esparrukoak direla esan daiteke. Besteak beste, osasun-politika berezietan lotutako eskubideen artean, bizitzaren fase bakoitzari —sexualitatea, ugalketa, haurtzarora eta nerabezarora— egokitutako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aipatzen du dekretu horrek.

Arlo horretan, nabarmentzekoa da Arartekora jo zuen emakume baten kexa; horren bidez, pertsona horrek ezinegona adierazi du bere bigarren haurdunaldiaren amaierako fasearen eta erditzearen inguruko gorabeherak direla eta. Herritarrak erditze naturalaren bitartez amaitu nahi izan zuen bere haurdunaldia eta Gipuzkoako ospitaleko erizaintzako langileekin aurretiaz harremanetan jarri ondoren, haurdunaldiaren 26. astean erditze-plana entregatu zuen osasun-zentroan. Une horretan, segurtasun-arrazoietan oinarrituta, bi eragozpen puntual jarri zitzaizkion.

Interesdunak haurdunaldiaren 36. astera arte jarraitu zuen zentroko erizaintza-langileekin harremanetan. Izan ere, data horretan lehenengo aldiz egin zitzaion azterketa ospitaleko ginekologia-kontsultan, baina orduan arreta eman zion medikuak arrisku handiko erditzea izan litekeela aipatu ere ez zuen egin. Kexagilea berriz hurbildu zen ospitaleko ginekologia-kontsultara haurdunaldiaren 40. astean eta guztia behar bezala zegoela balioztatu eta jakinarazi ostean, une hartan arreta eman zion medikuak esan zion ez zegoela ados emakumearen erditze-planekin, eta kasua balioztatzen saio kliniko baten deialdia egitea erabaki izan zuela. Bilera horretan haurdunaldiak arrisku handia zuela erabaki zen eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ongizate Ministerioaren gomendioei jarraikiz, emakumea ezin zen ospitale horretan erditu, ekipamendu hobea zuen beste batean baizik.

Kexagileak haurdunaldiaren 26. astetik ez zela ezer aldatu uste zenez, erabakiarekin ados ez zegoela adierazi zuen, eta hasieran hautatutako ospitalean, ahalik eta modu naturalenean erditzen tematu zen.

Azkenik, ospitaleak lehen auzialdiko epaitegira balorazio-eskaera bidali zuen, amagaia bere segurtasuna eta bere haurrarena behar bezala zaintzen ari zen erabakitzeke. Hala, jada haurdunaldiaren 40. astea gainditua zuenean, epaitegi-ra deitu zitzaion. Epaileak emandako probidentzian, eginbide judizialak burutu ondoren, laburbilduz, jakinarazi zitzaion ospitaleari prozesuaren une horretan ez zegoela ebatzi beharreko interes-gatazkarik.

Kexagileak, azken unean Osakidetzaiko beste ospitale batera joatea erabakita, erditze normala izan zuen. Aurkeztu zuen kexaren arazoia honako hau izan da: talde medikoaren erabakiak —40. astean arrisku handiko haurdunalditzat jotzea— haurdunaldia patologikoki bihurtu zuen eta kexagileak hasieratik planifikatua zuena egitea eragotzi zuen: ahalik eta modu naturalenean erditzea. Halaber, bere kexari jarraikiz, iritzi horrek erabakitzeke gaitasuna kendu zion eta manio-bratarrerik gabe gelditu zen, ikaratu zelako, epaitegitik deitu ziotelako eta abokatua bilatu izan behar zuelako; gainera, edozein unetan erditzen has zitekeen, zer ospitaletera joan behar zuen jakin gabe. Bukatzeko, mediku taldearen erabakiak antsietatea eragin ziola eta osasun-laguntza larrialdietan eskatu behar zuela kexatu zen. Hala, batere gomendagarria ez zenean, hau da, haurdunaldiaren amaieran, antsiolitikoak hartu behar izan zituen.

Osakidetza, bere aldetik, gertatutakoa baieztatu zuen. Alegatu zenez, arrisku handiko haurdunaldia izatea zen bere jardueren arazoia, eta horrela jokatu behar zuen amaren eta haurraren segurtasuna zaintzeko.

Azaldutako gaia aztertzean, Arartekoak ez zuen zalantzan jarri erditzea arrisku handikotzat jo izana, baina desegokitza jo zuen balorazio hori egiteko unea —haurdunaldiaren amaiera—. Arartekoaren iritziz, kexagileak alegatu zuen moduan, Osakidetzak urratu egin zituen emakumearen eskubideak, Euskadiko osasun-sistemaren pazientea izateagatik dagozkionak.

Gogoratu behar da hemengo laguntza arloan oso garrantzitsutzat jotzen dela paziente eta erabiltzaileak modu aktiboan parte hartzea haurdunaldiari eta erditzeari buruzko erabakietan, baina, errealitate bihurtzeko, horien berri modu egokian eman behar zaiela. Noski, informazioak egiazkoa izan behar du, baita nahikoa ere, eta erabiltzailearen beharrekiko modu ulergarrian nahiz egokian jakinarazi behar da, erabiltzaileak bere borondate askearekin bat erabakiak har ditzan.

Erakunde honen iritziz, hizpide dugun kasuan, osasun-aurrekarietan oinarrituta, pazientearen historia klinikoan jasotako aurrekari batzuk oinarri hartuta oso arrisksutzat jo zen erditzeari buruzko informazioa oso berandu jakinarazi zitzaion kexagileari, hain zuzen, haurdunaldiaren amaieran eta, horregatik, ezin izan zituen [uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuan](#) ezarritako beste eskubide batzuk erabili, hala nola, bigarren iritzia eskatzea edo beste zentro edo aditu bat aukeratzea, dekretuak berak onartutako eskubideak izan arren.

Bestalde, dekretu berak ezartzen duenez, pazienteak edo Euskadiko osasun-sistemaren erabiltzaileak eskubidea du errespetuz eta zuzentasunez tratatua izateko, arreta eskaintzen dioten profesionalen segurtasun- eta konfiantza-giroan. Horrek esan nahi du osasun arloko profesionalak zuzenean inplikaturik daudela giro segurua lortzean, non pertsonak kalterik gabe molda daitezkeen, eta seguru sentitzen diren. Arartekoaren iritziz, kasu horretan, interesdunak ez zuen giro segururik izan haurdunaldiaren azken fasean.

Aurreko guztia ikusita, Arartekoak ebatzi zuen Osakidetzak neurriak hartu behar zituela kexagileak haurdunaldiaren amaieran bizitako egoeren antzekoak berriz gerta ez zitezen; aldi berean, osasun-zentro eta -establezimenduetan zerbitzuak betetzen dituztenei beren lanbide-jardunean Euskadiko osasun-sistemaren paziente eta erabiltzaileen eskubideak errespetatzeko eskatu beharko lieke.

Paziente edo erabiltzaileek badute eskubidea laguntza-prozesuetan sortzen den informazioa historia klinikoan jasota uzteko, [martxoaren 13ko 38/2012 Dekretuak](#), historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalen dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoak ezarritako moduan. Eskubide horren inguruan jasotako kexei dagokienez, interesgarria iruditzen zaigu historia klinikoan agertzen ziren datu guztiak ezabatzeko eskaerari Osakidetzak emandako erantzunarekin ados ez zegoen pertsona baten kexa nabarmentzea. Hasteko, datuen helburua dela-eta, eta legeak agintzen duena kontuan hartuta, datu horiek ezin dira automatikoki ezabatu. Gauzak horrela, pazienteak inola ere ezin du zerbitzua bere historia klinikoa suntsitzera edo ezabatzera behartu.

Hori dela eta, erakunde honek zuzentzat hartu zuen kexagileari emandako erantzuna: paziente batek bere datuak

ezabatzeko eskatzen badu, eskaera jasotzen duen osasun arloko profesionalak idatziz erantzun behar diola interesdunari, eta idatzian modu arrazoituan jakinarazi behar diola datu horiek legeak ezarritako denboraz gorde behar direla derrigorrez eta, Euskadiren kasuan, historia klinikoan hama-bost urtez daturik gehitu ez denean bakarrik ezaba daitezkeela.

2.3. Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonak

Burutik gaixo dauden edo buruko nahasmenduren bat duten pertsonak zaurgarritasun bereziko egoeran daude, eta, beraz, Arartekoak arreta berezia ematen dio kolektibo horri. Arlo horretan egiten dugun lanak honako ikuspegi hau du oinarri: burutik gaixo dauden edo buruko nahasmenduren bat duten pertsonak eskubide osoko herritarrak direla.

Autonomia pertsonala sustatu, estigma desagerrarazi eta etengabeko zaintza ematea, horietan izan behar dute zerbitzu publikoen, batik bat osasun-, gizarte-, hezkuntza-, lan-, justizia- eta etxebizitza-arloetako zerbitzuen, jarduna inspiratzen duten printzipioak, eta, hortaz botere publikoen jarduketak printzipio horietan oinarritu behar dira.

Kexarik aipagarrienak

Gogoz kontrako ospitaleratzea oraindik ere izaten da prozedura berezi hori erabilia ospitaleratutako pertsonen aurkezten dituzten kexen arrazoiak. Halaber, ohikoa denez, kasu horietan, osasun-administrazioak ospitaleratze horien baldintzak bete dituen aztertzen du Arartekoak.

Atal honetan, terapia psikologiko zehatz bat agindu zioten pertsona baten kexa aipatu behar dugu; herritarrak kexan azaldu duenez, dagokion osasun mentaleko zentroan ematen dizkieten hitzorduen artean denbora luzeegia igarotzen da. Horri dagokionez, Arartekoak hitzorduak programatzeko irizpideez galdetu du.

Azkenik, interesgarria da Arartekoari Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hartutako erabakiaren inguruko kezka helarazi dioten dozenaka pertsonaren kexa-idazkiak aipatzea; izan ere, Gurutzetako Laguntza Psikosoziako Modulua-ekin sinatutako lankidetzak-hitzarmena ez berritzea erabaki du sailak.

Erakunde honetara jo duten pertsonen iritziz, zentro horrek osasun mentalaren arloan, dagokion jarduketak-zonetan, hau da, Gurutzeta, Lutxana, Retuerto eta Burtzeñako auzoetan, egiten duen lana beharrezkoa eta ezinbestekoa da. Hori dela eta, eta [urriaren 9ko 141/2018 Dekretuak](#), Gurutzetako Laguntza Psikosoziako Modulua elkarte onura publikokoa dela aitortzen duela kontuan izanda, zentroko profesionalak ematen duten laguntza-zerbitzuari eta gizarte-lanari eusteko eskatzen dute.

Une hartan arazoa konpondu bazen ere (hitzarmena berritu zelako), Arartekoan dagoeneko 2012an azaldu zen gaia da,

honako hau ekarri zuena: *“Arartekoaren 2013ko ekainaren 11ko ebazpena”* *“Horren bidez, Gurutzetako Laguntza Psiko-sozialeko Moduluaren Elkartek eta hiru erabiltzailek hasitako kexari buruzko jardura bukatzen da, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari zenbait hobekuntza neurri bultzatzeko gomen-datur; izan ere, kexa hori egin zen osasun administrazioak elkarte horrekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmena berritze-ko asmorik ez zegoelako eta horrek moduluaren itxiera ekar zezakeelako”*.

2.4. Administrazioaren funtzionamendua

Atal honetan jasotzekoa da Basurtu ESiko paziente eta erabiltzaileen arreta-zerbitzuak erreklamazio bati emandako erantzunarekin ados ez zegoen herritar baten kexa. Izan ere, pertsona horrek, erreklamazioaren bidez, Basurtuko ospitaleak paziente bati buruz telefonoz eman zion informazioa salatu zuen. Erantzunean adierazi zioten, indarrean zegoen prozedurari jarraituz, telefonoz ezin dela jakinarazi paziente bat ospitaleratu behar den. Beraz, kexagileak jakin nahi du, hori horrela baldin bada, zergatik ez zioten hori esan Basurtuko ospitaleko langileek; izan ere, jakinarazi zioten berak aipatutako pertsona ez zegoela ospitaleratuta (eta bazegoen ospitaleratuta, gainera).

Erakunde honek esku hartu ondoren, Osakidetzak interesdunari emandako informazioa administrazio langileek —datuen babesa eta konfidentzialtasuna direla eta— jarraitu behar duten prozedurarekin bat ez etortzea sentitzen zuela adierazi zuen. Izan ere, prozedura horrek ez du aurreikusten paziente baten egoerari buruzko edozein informazio telefonoz emateko aukerarik, ezta ospitaleratuta dagoen esateko aukerarik ere; are gutxiago, ezin da esan ez dagoela ospitaleratuta, ospitaleratuta baldin badago.

Gainera, erakunde honi bidalitako erantzunean adierazi denez, osasun-antolakundeak datu pertsonalak babesteko legetik datozen administrazio-prozedurak behar bezala aplikatzeko interesa baduela ere, horrelako kasuek gogorazten diete arduradunei langileak etengabeko prestakuntza jaso behar dutela, kexa horren arrazoi bihurtu zena bezalako egoerak saihesteko.

2.5. Itxaron-zerrendak

Ebakuntza kirurgikoak egiteko itxarote-denborari dagokionez, aplikatu beharreko araudiak ezarritako denbora gainditzea salatzen duten kexak arrazoizkoak direla esaten jarraitzen dugu.

Itxarote-denbora hori gainditu zuten ebakuntza kirurgikoei buruzko kexa gehienak bideratu egin dira, izapideak egin ahala. Hala ere, Arartekoak azpimarratu du, beti bezala, informazio argia eman behar zaiela egoera horretan dauden pertsonari, ziurgabetasuna murrizte aldera.

Horrez gain, zenbait kexa aurkeztu dira, espezialistekin egin beharreko kontsulten hitzorduak atzeratu izana salatzen.

Izan ere, pertsona bat kexatu zen, espero zen emaitzarik ez zuten ebakuntza kirurgiko baten ostean, errehabilitaziora joan ahal izateko bi hilabetez itxaron behar zuela, ebakuntzaren emaitza mediku errehabilitatzailearen balorazioa jasotzeko; medikuak, berriz ere, irrati-maiztasunaren bidezko terapiaren saio batzuk hartzeko agindu zioenez, beste hainbeste denbora itxaron beharko du, balorazio berria egin arte.

2.6. Osasun-garraioa

Iaz baino gutxiago bada ere, erakunde honek oraindik ere jasotzen ditu osasun-garraio programatuaren funtzionamendu okerra salatzen duten kexak. Halaber, Administrazioetik helitzen diren txostenek oraindik ere agerian uzten dute garraioa atzeratu egiten dela kasu gehienetan.

Bestaldetik, pazienteak autonomia-erkidego batetik bestera garraiatzen dituen zerbitzuari buruzko kexa bat izapidetu da aurten. Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu erkideen zerrenda ezartzen duen [irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren 4.](#) puntuak arautzen du osasun-garraio hori.

Kexagilea paziente baten senidea da, eta gaixoa gure autonomia-erkidegoko zentro batera ekartzeko gestioak egin zituen; besteak beste, gaixoa gure autonomia-erkidegoan erroldatu zuen. Kexa aurkeztu du, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak lekualdaketa finantzatzeko eskaerari uko egin ziolako. Pazientea, patologia larri baten ostean, zainketak behar zituen bere ingurunean; bizi zen tokian ingurukoan aldetik laguntzarik ez zuten arren, gure autonomia-erkidegoan bazuen zainketa horiek jasotzeko aukera.

Kexagileari jakinarazi zitzaionez, lekualdaketa horiek sistemako zerbitzu erkideen zerrendatik kanpo daude, gaur egungo araudiaren arabera. Ondorioz, Osasun Saila ez dago behartuta gastua ordaintzera.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzko [otsailaren 26ko 29/2019 Dekretuaren](#) bidez zehaztu da noiz eskatu behar den egoitza-zentro horietan farmazia-zerbitzu bat ezartzea eta sendagai-biltegia edukitzea.

Hala, ehun oheko edo hortik gorako egoitza-zentroetan eskatzen da farmazia-zerbitzu bat; betebeharrak horretatik salbuetsita egoteko, Euskadiko osasun-sistemako ospitale baten farmazia-zerbitzuari lotutako sendagai-biltegi bat eduki dezake zentroak. Halaber, ehun ohe baino gutxiago eta hogeita bost ohe baino gehiago dituzten egoitza-zentroetan eskatzen da sendagai-biltegi bat izatea, [martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren](#) II. eranskineko 8. zehaztapen teknikoarekin bat. Dekretuak, gainera, adinekoak zaintzeko 25 plaza gorako egoitzei egitura sanitario jakin bat edukitzea eskatzen die.

Dekretuak instalazioak eta horiek jartzeko lokalen baldintzak ere arautzen ditu, baita baimenen araubide juridikoa ere, honako hauek bereizita: lokal berri bat jartzeko osasun-baimena, aldaketa garrantzitsu bat egiteko baimena eta funtzionamendurako baimena, oro har, autonomia-erkidego honetan zentro, zerbitzu eta osasun-establezimendu guztietarako ezarritako ereduari jarraikiz.

Aipatu dekretuaren aurka, Osasungintzaren aldeko Euskadiko Elkartek ([ASDESANE](#)) kexa bat aurkeztu du erakunde honetan. Horri dagokionez, Arartekoak jakin du askotariko kolektibo sanitarioek hainbat administrazioarekiko auzi-errekurtso jarri dituztela araudi horren aurka, eta errekurtso horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak eman behar dituen ebazpenen zain daudela.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Banakako kexei ematen zaizkien erantzunak izan dira erakunde honek, arlo horri dagokionean, esku hartzeko arrazoi nagusia.

4.1. Bilerak

Aurten, Euskal Herriko Homeopatiaren Erabiltzaile eta Lagunen Elkartearen ordezkariekin bildu da Ararteko; Estatuko Administrazioak homeopatiari aipua kentzeko egiten ari den kanpaina dela eta, kezka helarazi diote Arartekoari. Kexatu dira Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak osasuna sasi-terapien aurka babesteko plan bat egin duela, homeopatia debekatzeko asmoz.

Azaldutako kontuak dagoeneko ez du zerikusirik autonomia-erkidego honetako administrazio publikoen jardunarekin, baizik eta estatu mailakoa da; hori ikusita, erakunde honek elkartetik jasotako dokumentazio osoa estatuko Herriaren Defendatzaileari bidali zion, hark har zezan kexa onartzeko erabakia baita, hala badagokio, dagozkion Estatuko Administrazioko organoetan izapidetzeko erabakia ere.

Halaber, [Munduko Medikuek](#) erakundearekin bildu da Arartekoa, eta, haren esanetan, beren horretan diraute atzeritarrek osasun-laguntza eskuratzeko arazoek.

Erakundeak emandako informazioaren arabera, aurreko batzuetan bezala, aurten sortu diren arazoak, dagoeneko txosten honen bigarren atalean aipatutakoak, eragindako pertsonen alde ebatzi dira.

Beste aldetik, erakundeak jakinarazi dio Arartekoari kezkatuta jarraitzen duela, Bizkaian egoera irregularrean dauden etorkinak medikazioa doan eskuratzeko aukera dela eta. Ziurtatu duenez, une honetan, [ANESVADek](#) finantzatzeari utzi eta gero, lehen bezala [Gurutze Gorria](#) arduratzen da gaia kudeatzeaz, eta kudeaketa horrek eskatzen dituen langileen ordainsariak ordaintzeko dirua [Bilboko Udalak](#) jartzen du.

4.2. Ponentziak

Zainketa Aringarrietako Nazioarteko Eguna zela eta, 2019ko urriaren 11n, *“Zainketa aringarriak: nire zainketa da, nire eskubidea”/ “Palliative care: it’s my care, my right”* izenburuko erakunde-adierazpena argitaratu zuen Arartekoak. Erakunde honek adierazi zuen egoera horretan ere errespetatu beharra dagoela norbanakoaren askatasuna eta duintasuna, baita gaixoen eskubideak ere.

Adierazpenean, [Bioetikari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsala](#), Unescoren Bilkura Orokorrak 2005ean onartu zuena, aipatu zuen. Horren arabera, norbanakoaren autonomia errespetatu behar da, erabakiak hartzeko ahalmenari dagokionez. Bestalde, Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko Legeak, oinarritzko printzipioen artean lehenengotzat jotzen du *“pertsonaren duintasunarekiko errespetua ziurtatzea bizitzaren amaierako prozesuan”* eta berriaz ezartzen ditu bizitzaren amaiera-prozesuko eskubideak eta askatasunak, baita horietaz arduratzen diren langileen betebeharrak ere.

Horrez gain, Arartekoak eskatu zien Euskadiko botere publikoei erabakitasunez ezar eta gara zitzatela zenbait estrategia, bete-betean hedatu ahal izateko [Euskadiko Zainketa Aringarrien 2016-2020ko Planean](#) jasotako baliabideak, bereziki, ospitaleetako zainketa aringarrien unitateak eta lehen mailako osasun-arretarako laguntza-zerbitzuak, baita laguntza maila guztietarako prestakuntza-estrategiak ere.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Interesdunek nahiz Munduko Medikuek erakundeak Arartekoari helarazitako kexak eta informazioa ikusita, berriz ere gogorarazi beharra dago osasun-laguntza eskuratzeko eskaerei nahiz hura jasotzeko eskubidea aitortzekoei emandako erantzunak jarraitzen duela arazoak eragiten, batik bat, atzeritarrei. Arartekoaren iritziz, oraindik ere bide luzea egin behar da osasun-estaldura unibertsala lortzeko.

Hori dela eta, neurriak hartu behar dira, aipatutako urraketak Euskadin berriz gertatzea saihesteko.





II. atala

12

Segurtasuna

◀ Aurrekoa ikusi

1. Arloa kopurutan

2019an idatzizko 93 kexa aurkeztu dira segurtasun arloan, eta Arartekoak aldi horretan erregistratu dituen kexa guztien % 3,93 da hori. Eragindako herri-administrazioak eta azpiarloak kontuan hartuta, honakoa izan da kexen banaketa:







Administrazioa:

- Tokiko Administrazioa..... 57
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritzak)..... 32

Azpiarloka:

- Trafikoa 64
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura..... 13
- Herritarren eskubideak..... 6
- Herritarren segurtasuna..... 6
- Beste alderdi batzuk..... 4

Txostena itxi zen egunean, hurrengo egoeran zeuden urte horretan izapidetutako kexak:

GUZTIRA	Izapidetzen	Anaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
270	169	101	41	27	13	20

Bestalde, honako azpi-arloetan 3 espediente izapidetu ditugu ofizioz:

- Atxiloketa zentroak..... 2
- Herritarren eskubideak..... 1

Eusko Jaurlaritzako **Segurtasun Saila** eta **Gasteizko Udala** izan dira 2019an **kexa gehien jaso dituzten administrazioak**. Kexek **Bilboko**, **Donostiako eta Errearteriako** udalekin ere izan dute zerikusia, baita beste udal batzuekin ere, neurri txikiagoan; batzuek kexa bakarra jaso dute.

Aurreko urteetan bezala, atal honetan ematen diren zifrek ez dituzte barnean hartzen Arartekoak izapidetu ezin izan dituen kexak, **ukapenerako** legezko kasuren batean egoteagatik, nahiz **Herriaren Defendatzailearen** edo beste defentsa-bulego batzuen eskumen-eremukoak izateagatik.

Administrazioek zuzendu egin dute beren jokabidea aurretik izapidetu ditugun eta jokabide ezegokiren bat salatu duten kexa askotan.

Oro har, administrazioek modu onargarrian bete dute Arartekoarekin **elkarlanean aitzeko betebeharra**. Hala ere, erakunde honek bere lana egiteko zailtasunak topatzen ditu oraindik. Arazo ohikoenak, lehenago bezala, honako hauek dira: Arartekoak egin dituen **galderei ez erantzutea**; **erantzuna berandu bidaltzea**; eta eskatutako **dokumentazioa eskuratzeko zailtasunak**. Era berean, oraindik ere gertatzen da batzuetan **Administrazioak ez diela Arartekoaren gomendioei erantzuten**; halakoetan, gomendioak ez diela onartu ulertu behar du erakunde honek. Hala gertatu da, adibidez, iaz **Donostiako Udalarik** egindako gomendio baten (Arartekoaren 2018ko azararen 12ko ebazpena). Arartekoak berriro esan behar du bere eskaeretan azaltzen diren kontuei erantzunik ez ematea edo erantzun eskasak ematea oztopo handia direla legez esleitutako eginkizunak behar bezala betetzeko; gainera, horrek modu larrian kaltetzen ditu ordenamendu juridikoak beren interesak defendatzeko eskura jartzen dizkien tresnetako bat erabiliz erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Herritarren eskubideak

Gai-esparru honetan, 2019an izapidetu ditugun kexa asko **polizia-funtzioaren erabilerari** buruzkoak izan dira. Beste urte batzuetan bezalako kontuak azaldu dira behin eta berri, hala nola **kexen barne-ikerketa**, **indarraren erabilera**, **atestatuen eta administrazio salaketan edukiaren kontrola**, horiek arrazoitzen dituzten egitatei dagokienez, eta **poliziaren kode deontologikoa** ez betetzea, botere-abusuari dagokienez. Era beran, bide publikoan egindako **gorputz-miaketei** buruzko kexak azaldu dira, baita **informazio-askatasunerako oinarrizko eskubideari** buruzkoak ere.

Aipatutako kontuetako batzuk **Gasteizko Udaltzaingoiari** buruzko kexa batean azaldu dira; horren tramitazioa aurten amaitu da. Kexaren bidez salatu zen aipatu polizia-kidegoko **agente** batek **agentea izateaz baliatu zela** Udaltzaingoko esku hartu zuen bi jarduketa pribatutan, eta, horretaz baliaturik, egoera horietako batean esku hartu zuten agenteek idatzitako txostena eskuratu zuela, modu pribatuan erabiltzeko. Kexan aipatutako agenteak aitortu zuen azken egitate hori, eta ondorioz, udalak erreserbatutako informazioari buruzko espediente bat izapidetu zuen, arrazoi horregatik diziplina-prozedura bat hasi behar zen erabakitzeko. Arartekoaren iritziz, udalak egitatean gainean egin zuen ikerketa ez zettorren bat **urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrekin**, “Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoa”rekin (II.1.1 atala); izan ere, funtsean, udalak kexan aipatutako agenteei txostena eskatu zien, eta haiek ez zuten azaldutako kontu batzuei buruz ezer esan. Bestalde, kexa aurkeztu zuen pertsonak bi tasa ordaindu behar izan zituen (guztira 89,64 euro), aipatu txostenen kopia bat jasotzeko eta, horrela, egindako ikerketaren edukia ezagutzeko; erakunde honen iritziz, arrazoirik gabekoa zen. Arartekoak eskatu dio udalari beharrezko neurriak har ditzan kexan salatutakoa bezalako egoera bat berriz gertatzea saihesteko eta udaltzainen esku-hartzeen neutraltasuna bermatzeko, esku-hartzearen eskatzailea aldi berean Udaltzaingoko kide bat denean.

2019an jasotako kexen artean nabarmentzekoa da Ertzaintzak —**gorputz-miaketa** egiteko asmoz— beren bulegoetara eraman zuen **adingabe** baten amak aurkeztutako kexa. Emandako informazioaren arabera, adingabea, eta berarekin zeuden beste bi adingabe, gorputz-miaketa intimitatea eta duintasuna bermatzen duten baldintzetan egiteko asmoz eraman zen ertzain-etxera, miaketa egiteko beharra sorrazi zuten egitateak gertatu ziren bide publikoan halako baldintzarik ez zegoelakoan. Arartekoaren iritziz, adingabeari identifikazioa eskatzea eta miaketa egitea polizia-kidegoek —delituzko ekintzak saihestu eta ikertzeko eta zigor arloko arau-haustek zein arau-hauste administratiiboak zigortzeko— legez aginduta dituzten eginkizunen eremukoak ziren [Herritarren Segurtasuna Babesteko **martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren** 16. eta 20. artikulua, eta **Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren** 11.1 artikuluko f) eta g) idatz-zatiak]. Hala ere, era berean, martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 20. artikulua, miaketa justifikatzeko aipatutakoak, miaketa egitateak gertatu diren tokian egitea soilik baimentzen du, eta ez miatu behar den pertsona polizia-bulegoetara eramatea. **Konstituzio Auzitegiak 341/1993 Epaian, azaroaren 18koan** ezarri zuen irizpidea abiapuntutzat hartuta, erakunde honen arabera, miaketa egiteko asmoz polizia-bulegoetara eramatea askatasunerako eskubidea mugatzen zuen neurria zen, horretarako legezko arrazoirik gabe, ez baitzuen lege organiko baten babesik (17. artikulua, Konstituzioaren 53. eta 81. artikuluei lotuta).

Era berean, aurten, Ertzaintzak esku-hartzean botatutako **foamezko jaurtigai batek zauritutako** pertsona baten kexa aipatu behar da. Istripua aipatu polizia-kidegoak Bilboko Euskalduna Jauregiaren kanpoaldean izandako gorabeheretan esku hartu zuenean gertatu zen, apirilaren 13an. Kexagileak adierazi zuenez, Mugimendu Feministaren deialdiari

erantzunez joan zen toki horretara; ekimenarekin bat egin zuten beste kolektibo sozial batzuek ere, jauregian mitin bat egitera etorri zen alderdi politiko baten programaren aurka protestatzeko. Kexagilea atxilotua izan zen, semearekin batera, desordena publikoen ustezko delituagatik. Antza denez, agenteek kexagileari eta bere semeari leporatu zieten harriak jaurti izana, eta semeari, gainera, botilak eta torlojuak ere bota izana. Kexagilearen esanetan, gezurra da hori. Jasotako informazioaren arabera, poliziaren esku-hartze horretan, Ertzaintzak jaurtitako foamezko pilotek beste pertsona batzuk ere zauritu zituzten. Era berean, kexagilearen ustez, Mugimendu Feminista egiten ari zen protestaren aurka indarra erabili izana justifikaezina da, hain zuzen ere protesta baketsua zelako ari baitzen bera ekintza horretan parte hartzen.

2019an ere jaso zen Ertzaintzaren **bi agentek kazetari baten aurka jarritako salaketari** lotutako kexa bat. Ertzainek **irainen ustezko delitua leporatu zioten, polizia-jarduera bati buruz Interneten** argitaratutako informazioa zela eta. Kexaren arabera, ertzainen salaketak ez zuten justifikaziorik eta salatu zuten kazetariaren jarduna informazio-askatasunerako oinarritzeko eskubideak babesten zuen (**Konstituzioaren** 20. artikulua). Gainera, agenteen salaketak aipatzen zuen kazetariak poliziaren jarduketa grabatu zuela eta, grabazioan oinarrituz, gazte baten hizkuntza-eskubideak urratu izanaren berri eman zuela.

Azkenik, aipatu behar dira aurten aurkeztutako hainbat kexa, **poliziak Bilboko San Frantzisko auzoan atzerritarrekin egin zituen esku-hartzei** buruzkoak; izan ere, esku-hartze horiek **diskriminaziozkotzat** jotzen ziren. Era berean, aipatu kexen arabera, jarduketa horietako batzuetan erabilitako **indarra** neurrigabea izan zen.

Aurten izapidetutako kexek erakusten dute **bete gabe jarraitzen dutela erakunde honek gehiegikeriak saihesteko eta, horiek gertatuz gero, hauteman ahal izateko posatu dituen prebentzio eta kontrol mekanismoetako askok**, gehienbat, hemen jasotakoak: **7/2011 Gomendio Orokorra, urriaren 28koa**. Hurrengo 4.3 atalean, gabezia horietako batzuk azalduko dira.

2.2. Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

2019an jasotako kexen artean nabarmentzekoa da **desagertutako adingabe baten amak** aurkeztutako kexa. Izan ere, adingabea desagertu zenean, dokumenturik gabe zegoen. Kexagileak azaldu zuen Ertzaintzak **eragozpenak** jarri zizkiola semea **desagertzea** salatzen orduan; izan ere, hiru aldiz joan behar izan zuen Ertzaintzaren bulegoetara, salaketa jaso zezaten. Halaber, Ertzaintzaren, Osakidetza-ren eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutuaren artean koordinaziorik ez zela salatu zuen. Geroago jakin zenez, **amak Ertzaintzaren bulegoetan desagertzea salatzen lehengo aldiz jo zuen egunean, gaztea ospitale publiko batean zegoen, eta hurrengo egunean hil zen**. Gainera, hain zuzen ere, Ertzaintzak aurkitu zuen gaztea,

ospitaleratzea erabakitzeke moduko egoeran, eta Ertzaintzak ere identifikatu zuen gero gorpua Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuan, epailearen agindu bat betez. Hala ere, ez du ematen Ertzaintzak esku-hartze horiek guztiak eta gaztea desagertzea lotu zituenik, ezta beste ertzain-etxe batek gaztearen amari eman zion informazioa —gaztea hil zela— desagertzearen salaketarekin lotu zenik ere. Segurtasun Sailak aitortu zuen Ertzaintzaren jokabidea ez zela egokia izan; izan ere, kexagilearen salaketa hasieratik bideratu behar izan zen, eta semearen heriotzaren berri eman zion ertzain-etxeak informazio hori aurrez aurre eman behar izan zion, telefonoz egin beharrean. Sailak, era berean, antzemandako gabeziak zuzentzeko neurriak hartu izan zituela jakinarazi zuen. Arartekoaren iritziz, sailak kexari eman zion erantzuna egokia zen. Hala ere, aldi berean, Arartekoak uste du sailak koordinazio-formulak ezarri behar dituela, dokumenturik gabe desagertzen diren pertsonen buruzko salaketak eta osasun-zentro batean edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuan dauden pertsonak (nortasun-agiririk gabeak) lotzeko, eta Ertzaintzak pertsona horiek direla eta egiten dituen jarduera guztiak elkarri lotzeko.

2.3. Jokoa eta ikuskizunak

Portugaleteko Giako Andra Mariaren **jaietan autobabes-planik** ez zegoela salatu duen kexa baten tramitazioa amaitu du aurten Arartekoak. Udalaren arabera, plana ez zen beharrezkoa, jaiaren edukiera betebehari hori ezartzen duen legean aipatutakoa baino txikiagoa zelako. Arartekoak edukiera kalkulatzeko eta ondorio hori ateratzeko hartutako jai-esparruaren inguruko zalantzak azaldu zizkion udalari. Erakunde honen arabera, udalak argi eta garbi zehaztu behar zuen eremu hori, eta horrela zehaztutako esparruan edukieraren irizpidea —legez ezarritakoa— aplikatu, plana beharrezkoa den ala ez erabakitzeke. Udalak onartu zituen erakunde honen argibideak, eta berriz zehaztu zuen jaiaren eremua; ondorioz, Autobabes Plana egin eta onetsi zen, hurrengo jaietan erabiltzeko. Arartekoaren arabera, plana egin eta ezartzearekin batera, zuzendu egin zen kexan azaldutako arazoa (betebehari hori ez betetzeari dagokionez). Hala ere, onetsitako planak urtebeteko indarraldia izan zuela eta [azaroaren 2ko 277/2010 Dekretua](#), arlo horretako autobabes-betebeharrak arautzen dituen, [otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren](#) eta [otsailaren 12ko 21/2019 Dekretuaren](#) bidez aldatu egin dela kontuan hartuta, gogorarazi zaio udalari legeak ezarritako autobabes eskakizunak hurrengo jaietan ere bete behar direla, eta une bakoitzean indarrean dagoen arau-esparruarekin bat etorri behar direla. Onetsitako autobabes-planean ikusitako gabeziak direla eta, gogorarazi zaio, halaber, plana edo haren forma sinplifikatua, aurreikus daitezkeen arriskueterako jardunbidea denez, plana idatzi duen teknikariak, baita jardueraren titularrak edo ordezkariak ere, sinatu behar dutela. Gainera, gogorarazi zaio dokumentu horietan ezarri behar den antolaketa-egitura hierarkizatua osatzen duten pertsona guztiek larrialdi-egoeretan bete behar dituzten eginkizun eta erantzukizunak ezarri behar direla, eta ezartzeak barnean hartzen duela aplikatzeko beharrezkoak diren baliabide eta neurriak jartzea. Halaber, ez da ahaztu behar jardueraren titularrak, jaiari hasi aurretik, nahitaezko jakinarazpena egin behar duela Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorrean; horrez gain, plana edo

haren modu sinplifikatua ezarri izanaren agiria aurkeztu behar du eta larrialdien arretan eta babes zibilean eskumena duen autonomia-erkidegoko administrazio-organoari bidali [azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren 4.b), 8., 9., 12. ter, 13., 22. eta horiekin bat datozen artikulua].

2.4. Herritarren segurtasuna

2019an aurkeztutako kexetan, berriz ere, **herritarren segurtasunik ezarekin** eta **zehapen-araubidearekin** zerikusia duten kontuak azaldu dira. Zehapenen arloan, honako hau nabarmendu beharra dago: pertsona batek kexa aurkeztu zuen Gasteizko Udalak **zigorra** ezarri ziolako, Udaltzaingoko agenteekiko errespetu falta eta begirunerik eza dela eta. Herritarren Segurtasuna Babesteko [martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren](#) 37.4 artikulua arau-hauste arintzat hartzen du hori. Arartekoak ikusi zuen ez zuela legeko oinarriak zehapena zalantzan jarri ahal izateko, arau-haustearen frogari dagokionez; hain zuzen ere, horixe zen kexaren arrazoietakoa bat. Hala ere, era berean, adierazi zuen **isunaren zenbatekoak (400 euro) ez zituela zehapena pertsona bakoitzaren arabera egokitzeko lege ezarritako arauak betetzen**; izan ere, legeak 100-600 euro bitarteko isunak aurreikusen ditu halako kasuetan. Udalak onartu egin zituen erakunde honen arrazoibidea, berriz aztertu zituen zehapenaren mailak, eta azkenik, 400 euroen ordean 300 euroko isuna ezarri zuen. Arartekoaren iritziz, hala ere, egindako berrikuspena ez zeterren guztiz bat erakunde honen balorazioarekin, ez baitziren azaldu zenbatekoak ezartzeko irizpideak —zehapena ezartzeko ebazpenaren arabera eta administrazio-espedientearen arabera, isunaren zenbatekoa ezartzeko kontuan izan direnak—. Erakunde honen iritziz, horrek esan nahi zuen isunaren zenbatekoa ezin zela lege ezarritako muga (100 euro) baino handiagoa izan ([martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren](#) 33., 39. eta 37.4 artikulua).

2.5. Trafikoa

Arartekoak aurten **gomendio bat** zuzendu dio [Gorlizko Udalari](#). Hain zuzen ere, gomendatu dio berriz azter dezan **ibilgailuen aparkamendua mugatu eta antolatzeke kontrol-zerbitzu publikoa (TAO) arautzen duen Ordenantza**, ezberdin tratatzen baititu erroldatutako biztanleak eta uda pasatzera etortzen direnak. Arartekoaren iritziz, udalak erabiltako arrazoiak ez dira nahikoak bereizketa hori egiteko ([Arartekoaren 2019ko abenduaren 17ko ebazpena](#)).

Gomendioan aztertutako kontuaz gain, beste gai batzuk azaldu dira 2019an, bide-segurtasunari eta ibilgailuak TAO gunean baimenik gabe aparkatzeagatik bide publikotik kentzeke lotutakoak; Arartekoak dagoeneko azaldu du bere iritzia gai horren inguruan ([Arartekoaren 2015eko apirilaren 13ko ebazpena](#)).

Zehapen-araubidea ukitzen duten kontuak ere azaldu dira; horri dagokionez, **prozedurarekin** zerikusia duten gai batzuk behin eta berriz azaldu dira, hala nola **tramitazio estandarizatua**, arau-haustearen **frogabidea** eta **jakinarazpenak**, baita beste batzuk ere, adibidez, **tipikotasun zigortzailearen eskubidea**.

Eragindako administrazioek **kexen alde jardun dute** arlo honetan 2019an izapidetu diren zenbait kexatan.

Hala izan da, adibidez, **Gasteizko Udala** ezarritako **zehapen** baten kasuan; izan ere, zigorra **gaitasun urrikoentzako aparkatzeko txartelaren** titular bati ezarri zioten, bere ibilgailuak aparkaleku erreserbatuaren mugak gainditzen zitu-lako; hala ere, aparkaleku horrek ez zuen **legez ezarritako tamainarik**. Udalak onartu du erakunde honen balorazioa, eta zehapena ondorioz gabe utzi du. Gainera, aparkaleku erreserbatu guztiak aztertzeko konpromisoa hartu du, dimentsio-arazoak eta beste arazo batzuk (diseinua, seinalez-tapena eta irispidea) detektatze aldera.

Gauza bera geratu da **Tolosako Udalak** ezarritako zehapen batekin; izan ere, **gaitasun urrikoentzako aparkatzeko txartelaren** titularrari isuna jarri zion udalak, **ibilgailua TAO gunean aparkatuta uzteagatik**, horretarako gaitzen duen titulurik gabe, ibilgailuak bereizgarria ondo ikusten zen tokian eraman arren. Erakunde honek gogorarazi zion udalari txartela gaikuntza-titulua nahikoa dela titularrak joan-etorriak egiteko erabiltzen duen ibilgailua aparkamendu mugatuko guneetan beharrezko denboraz aparkatu ahal izateko. Era berean, gogorarazi zion **4/2018 Gomendio Orokorra, 2018ko urriaren 9koa**, hain zuzen, gai horri buruzkoa. Erakunde honen gogoetak udalak aintzat hartu ditu, eta zehapena ondorioz gabe utzi du.

Era berean, **Zarauzko Udalak** baliogabetu egin du ibilgailu bati ezarritako zigorra; izan ere, jabearen arabera, ibilgailu hori inoiz ez zen udalerriri horretan egon, eta inoiz ez zen Euskaditik ibili. Arartekoaren esku-hartzeari esker, egiaztatu da akats bat gertatu zela ibilgailu arau-hauslea identifikatzeko orduan.

Kexa horien beste adibide bat **Lasarteko Udalak** bide penalean arrazoi berberengatik kondenatua izan zen pertsona bati ezarri zion zehapenari buruzko kexa da. Udalak ezeztatu du zehapena, **“non bis in idem”** printzipioa urratzeagatik.

3. Araudi testuingurua

2019an, **ekainaren 27ko 7/2019 Legea** promulgatu da, **Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketarena**. Legeak “Poliziaren jarduna kontrolatzeko mekanismoak” izenburuko atala jasotzen du (I. tituluaren II. kapitulua); horretan, lege batean (eta arau batean) lehenengo aldiz jasotzen dira berriazko kontrol-mekanismo bi: batetik, poliziaren jardunari buruzko kexak tratatzeko eta ikertzeko egin behar diren urratsak erabakitzeko agindua; eta bestetik, kide anitzeko organo bat sortzea, autonomia funtzionala duena erakunde polizialarekiko eta Eusko Jaurlaritzan segurtasun-gaietan eskumena duen sailarekiko; azken horren eginkizuna, besteak beste, jarduketa batzuk nahitaez ikertzea izango da.

Aurten, indarrean jarri da **abenduaren 28ko 1514/2018 Errege Dekretua, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra** aldatzen duena, abiadura mugei dagokienez.

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak eta **Bilboko Udalak** hainbat jarraibide onetsi dituzte 2019an, **mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabileraren inguruan**.

Era berean, aurten honako araudi hauek onartu direla nabarmendu behar da:

- **17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren** Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena, eta hura aldatzen duen **119/2019 Dekretua, uztailaren 23koa**.
- **21/2019 Dekretua, otsailaren 12koa**, zeinaren bidez bigarrenez aldatzen baita larrialdi-egoerei aurre egiteko jardura, zentro edo establezimendu zehatz batzuei ezartzen zaizkien **autobabeserako betebeharrak** arautzen dituen Dekretua.
- **30/2019 Dekretua, otsailaren 26koa**, zeinaren bidez aldatzen baitira **herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman duten borondatezko parte-hartzeari** buruzko Dekretua eta Eusko Jaurlaritzaren **larrialdien** eta **babes zibilaren** arloko sariei buruzko Dekretua.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziozko espedienteak

2019an irekitako ofiziozko jarduerak **atxiloketa zentroen egoera** aztertzeko izan dute helburu. Horrez gain, **atxiloketari** buruz eta **poliziaren jardueretako berme sistemari** buruz Arartekoak egindako gomendioak betetzen ote diren aztertu dugu. 4.4 atalean, jarduketa horien laburpena egin da.

Gainera, Arartekoak 2018an hasitako ofiziozko jardura bat amaitu du aurten, honako hau aztertzeko helburu zue-na: ertzain-etxeetan lehenengo harrera nola ematen den, batez ere, zerbitzu bat eske datorren pertsonaren eta arre-ta ematen dion agentearen artean lehenengo une horretan sortzen den **komunikazioaren konfidentzaltasunari eta pribatutasunari** dagokionez. Arartekoaren iritziz, lehenengo arre-ta ematen den esparruaren konfigurazioa aipatutako komunikazioaren konfidentzaltasuna eta pribatutasuna arriskuan jartzen dituen faktorea da, ez baldin badira arrisku hori ekiditeko neurriak hartzen; izan ere, informazio horretatik ondorioztatzen denez eta erakunde honek aldi behin polizia-etxera egindako bisitetan egiaztatu duenez, esparru hori, aldi berean, itxarongela gisa erabiltzen da. Arriskua areagotzen da esparru horren dimentsioak txikiak direlako, eta zerbitzua ematen duenaren eta jasotzen duenaren artean holtz bereizleak daudelako. Arartekoak esan dio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari komunikazio horren konfidentzaltasuna eta pribatutasuna bermatzen dituzten formulak bilatu behar dituela, eta hartutako neurriak jarraipena egin,

ezarritako helburua lortzeko egokiak direla egiaztatzeko eta horren arabera jardun ahal izateko.

4.2. Txosten berezien segimendua

Atxiloketa-zentroetara egindako bisitaldiek eta kexak izapide-tu bitartean bildutako informazioak aukera eman diote Arartekoari **Kalabozaok. Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloketa-zentroak** (1991) txosten bereziaren jarraipena egiteko.

Txostena betetzeari buruz erakunde honek duen iritzia 4.4. atalean ageri da, laburtuta.

4.3. Gomendio orokorren segimendua

Arartekoak aurten izapidetu dituen kexek eta egindako ofiziozko jardunek zein ikuskapen-bisitaldiek aukera eman digute **urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren** jarraipena egiteko. Gomendio horretan, Arartekoak bere ibilbidearen hasieratik segurtasun-arloan egin dituen gomendio gehienak bildu dira.

Polizia-jardunen **barne-ikerketetan** gabezia handiak hautesmaten ditugu oraindik ere (II.1.1 atala). Ikerketak urriak izatea eta ikerketarik ez egitea dira oraindik ere irauten duten arazoetako batzuk. Gainera, egiaztatu dugu oraindik ere ez direla jarduera-protokolo argiak eta zehatzak ezartzen esparru horretan.

Oraindik ere ez da betetzen Arartekoak egindako gomendioa, polizia-funtzionarioek **polizia-uniformean identifikatzeko** balio duen **zenbakia** edo erreferentzia erakutsi ezaten (V. atala). Arartekoak berriz ere azpimarratu behar du gomendioa: zenbaki hori herritarrak agenteekin erlazionatu ohi diren distantziatik ondo ikusteko moduan jarri behar dela, ikusten diren jantzi guztietan.

Halaber, hauteman dugu oraindik ere gabeziak daudela **atestatuen** eta **administrazio-salaketen** kontrolean, horiek prestatzeko orduan **gehiegikeriaz** ez jokatzeko (II.2.3 atala).

Arartekoak hauteman du, oraindik ere, zenbait egoeratan, ez direla gomendioak betetzen **prebentzio- eta kontrol-mekanismoak** ezartzeari dagokionez. Aurten ikusitako ez-betetzeeak, aurreko urteetan bezala, honako hauei dagozkie: **barne ikerketak**; indarraren erabilera eta haren barne-kontrola; eta atestatuen eta administrazio-salaketen gaineko kontrola, horiek prestatzeko orduan gehiegikeriaz ez jokatzeko (II.1.1, II.2.1 eta II.2.3 atalak).

Atxiloketa zentroetara egindako bisitaldiek, modu berean, aipatu gomendio orokorren III. atalean eta **“Miaketa personalaren dilijentzia poliziaren bulegoetan”** Gomendio Orokorrean (2001eko ohiko txostena) formulatu genituen irizpideen jarraipena egitea ahalbidetu digute. 4.4 atalean, jarraipen horren emaitzaren laburpena egin dugu.

Trafikoari dagokion azpiarloan, oraindik ere ikusten da zigortzeko prozeduren zioen atalak ez dituela beti betetzen

“Trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide segurtasuna: aurrez taxututako ereduaren erabilera zehapen prozedurak tramitatzean. Zenbait arazo defentsarako eskubidearen inguruan” izeneko **gomendioan** (2003ko urteko txostena) adierazi genituen eskakizunak. Era berean, **2018ko urriaren 9ko 4/2018 Gomendio Orokorren** ez-betetzeeak antzeman dira; izan ere, gomendioaren gaia **gaitasun urrikoentzako aparkatzeko txartelaren titularrei dagokien eskubide bat** izan da, hain zuzen, aparkamendu mugatuko guneetan (**TAO guneetan**) aparkatzeko eskubidea.

4.4. Ikuskapen bisitak

2019an, Arartekoak bi atxiloketa zentro bisitatu ditu: **Gernikako Ertzaintzarena** eta **Basauriko Udaltzaingoa**.

Atxiloketa zentro bietako **instalazioak**, oro har, egokiak dira dagokien eginkizuna betetzeko. Bisitaldiaren egunean, bi zentroetako mantentze egoera onargarriak zirela esan daiteke. Hala ere, ez batean, ez bestean, ez dago **adingabeen zaintzarako gela berezirik**, adingabeen erantzukizun penala arautzen duen **urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak** bere 17.3 artikuluan agindutakoaren kontra. Urtero agerian jartzen den moduan, lege hori indarrean jarri zenetik erakunde honek bisitatu dituen Ertzaintzaren atxiloketa zentro ia-ia guztiek dute gabezia hori. Gainera, Udaltzaingoa zentroan gabezia batzuk ikusi dira polizia-ibilgailutik ziegetara joateko **sarrera independenteari** dagokionez; izan ere, gabezia horiek arriskuan jartzen dute sarbidea independentea izatea.

Zentro biek daukate atxiloketa **bideoan grabatzeko sistema**. Ertzaintzaren zentroan, sistema horrek, funtsean, Arartekoak **2006ko urteko txostenean** (I. kapitulua, 7.1 atala) aztertu zuen ereduari jarraitzen dio. Gure ustez, aztertutako sistemak ez zituen betetzen mekanismo horrek eraginkorra izateko bete beharko lituzkeen baldintza guztiak, urriaren 6ko 81/1999 Gomendioan adierazitakoak (**1999ko urteko txostena**, II. kapitulua, 7.2 atala). Ertzaintzaren beste zentro batzuetan bezala, hizpide dugun zentroan ere, oro har, ez dira aplikatu atxiloketen bideo-grabaketan inguruan Arartekoak egindako proposamen berriak, **“Inkomunikatutako atxiloketaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak”** izeneko agirian (2010eko urteko txostena) eta urriaren 28ko **7/2011 Gomendio Orokorrean** (III.8 atala) jasotakoak. Udaltzaingoa zentroan ere ez ditu erabat betetzen erakunde honen iritziz sistema eraginkorra izan dadin beharrezkoak diren baldintzak. Azpimarratu beharra dago iruditari jasotako jarduketan ondorioz sor litezkeen erantzukizun administratiboak eta penalak preskribatu arte **gorde behar dela grabatutako materiala**. Halaber, ondorio horietarako, aintzat hartu behar da giza-eskubideak bermatzen dituzten erakundeek, hala nola Arartekoak, esku-hartzeko epea zein den; izan ere, behar baino epe laburragoak ezartzea —hala egiten da, etengabe, Ertzaintzaren zentroetan, eta Udaltzaingoa zentroan ere, tarteka— ez dator bat aipatutako irizpidearekin, eta mugatu egiten du mekanismo horren izaera bermatzailea. Gainera, Udaltzaingoa zentroetan, sistemak **isil-gordeko elkarrizketa grabatzen du**. Horrenbestez, ez dira bermatzen jarduera horren berezko ez-augarriak diren pribatutasuna eta isilpekotasuna.

Udaltzaingoak ez du **adingabeen atxiloketak jasotzeko erregistro berezirik**, [1774/2004 Errege Dekretuak](#), [uztailaren 30ekoak](#), [urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren](#) erregelamendua onartzen duenak, hala exijitu arren (3.5 artikulua). Zentro horretan, **atxiloketei buruzko liburua** eskuz betetzen da, ez da urtekoa eta ez ditu atxiloketari lotutako jarduketa nagusiak jasotzen, gomendagarria izan arren.

Udaltzaingoak baliatutako **eskubideen berri emateko aktaren** ereduak ez du behar bezala bermatzen atxilotuak bere eskubideak ulertu dituela eta ulertutakoaren arabera erabiliko dituela. Dirudienez, Ertzaintzak eredu bera darabil polizia-kidego horren atxiloketa zentro guztietan, eta artean ez ditu betetzen [Prozedura Kriminalaren Legearen](#) (520. artikulua) eskakizunak, doako laguntza juridikoa eskatzeko prozedurari, eta hura eskuratzeko baldintzei dagokienez. Bi zentroetako batean ere ez zaio uzten atxilotuari **akta bere esku edukitzea**, **atxiloketak irauten duen bitartean**, lege horrek eskatzen duen eta [Europako Kontseiluko Tortura eta tratatu edo zigor krudel eta umiliagarriak prebenitzeko Europako Batzordeak](#) 2016an Espainiara egindako bisitari buruz 2017ko azaroaren 16ko txostenean gogora ekarri duen moduan. Izan ere, bere eskubideak jakinarazitakoan dokumentua kendu eta ez zaio berriz ematen, atxiloketa amaitu arte.

Bisitatutako bi zentroetako batean ere ez zaio atxilotuari ematen, atxiloketaren unean bertan, momentu horretan bere eskubideei buruz ahoz ematen zaion informazioa jasotzen duen dokumenturik, Arartekoak hemen adierazitako eran: [7/2011 Gomendio Orokorra](#), urriaren 28koa (III.2 idatz-zatia).

Ertzaintzaren zentroan, atxilotuari egin zaion **gorputz-miaketa** mota baino ez da idatziz jasotzen, orokorrean, zer izan den zehaztu gabe eta modu horretara egiteko arrazoiak azaldu gabe. Udaltzaingoaren zentroan, ez da jasotzen nola egin den miaketa. Bi zentroetan egindako jarraibideek Arartekoaren gomendioei ez diete jaramonik egiten (urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren III.5 idatz-zatia eta [“Miaketa pertsonalaren dilijentzia poliziaren bulegoetan”](#)).

Oro har, atxiloketaren ondorioz bideratzen den **atestatuak**, zentro bien kasuan, atxiloketa burutu duten agenteetako bat bakarrik **jasotzen du**; hori ez dator bat Arartekoaren gomendioekin, erakunde honek gomendatu baitu atxiloketa aipatu dokumentuan ahalik eta zehaztasun eta xehetasun handienaz islatu behar dela, egoera horretan gerta daitezkeen gehiegikeriak saihesteko (7/2011 Gomendio Orokorren II.2.3 atala, urriaren 28koa).

Zentro bietan, **atxiloketak egiten dituzten udaltzainak**, oro har, **atxilotua poliziaren bulegoetara eramaten duten eta atxilotuen gorputz-miaketa aipatu bulegoetan egiten duten berberak izaten dira**. Erakunde honen iritziz, funtzio horiek agente desberdinek egin behar dituzte, eta irizpide orokorra aplikatu ezean, behar bezala justifikatu eta dokumentatu behar da (urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren III.2 eta III.5 atalak).

Erakunde honek bi zentroetan aztertu zituen **atxiloketak**, oro har, **behar bezala bideratuta zeuden**, horien erregistroak behar bezala beteta eta jarduerak arrazoizko denboran

eginda, disfuntzio batzuk antzeman diren arren. Ondorioz, zentro biei gogorarazi behar izan zaie ahalik eta zehaztasun eta xehetasun handienaz adierazi behar dela nola gertatu den atxiloketa, bat ez etortzeak saihestu behar direla eta eremu horretan gerta daitezkeen balizko hutsegiteak ezagutzea eta zuzentzea ahalbidetuko duten neurriak hartu behar direla (urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren III.6 atala).

Ikuskatutako atxiloketetan, **atxilotuari eskubideen berri emateko aktan**, **atxiloketa eragin zuten egitateei** buruzko informazioa atxilotuari eman zitzaion egozten zitzaion delituagatik eta ez egitateengatik, eta horrek ez ditu betetzen [Prozedura Kriminalaren Legearen](#) 520. artikulua eskakizunak.

Atxiloketaren legezkotasuna aurkaratzeko funtsezkoak diren jarduketan elementuak aktan zehazterakoan, [Konstituzio Auzitegiak](#) martxoaren 5eko 21/2018 Epaian horretarako ezarri duen doktrinari jarraikiz egin behar dela gogorarazi zaie bi zentroei.

Bisitaldietan, gainera, Herritarren Segurtasuna Babesteko [martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoa](#) aplikatzeko moduaren jarraipena egin da, **identifikazioari** eta **kanpoko gorputz-miaketei** dagokienez (16. eta 20. artikulua). Bi zentroei gogorarazi zaie miaketa horiei buruzko dokumentuak jasota utzi behar direla, haien arrazoiei buruzkoa, eta lege horrek ezarritako eskakizunei buruzkoa (20. artikulua), horren gainean zenbait gabezia ikusi ahal izan baitziren. Halaber, gogorarazi da dokumentu batean jasota geratu behar dela identifikazioa eskatu zaion pertsonari jakinarazi zaizkiola identifikazioa eskatzeko eta agenteekin polizia-etxera joan behar izateko arrazoiak; gainera, identifikazioen erregistro-liburuan jasota geratu behar dira identifikazioa eskatzean burutu diren jarduketak, horretarako arrazoiak, inguruabarrak eta iraupena (16. artikulua). Horren harira ere gabezia batzuk antzeman dira.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Eusko Jaurlaritzako [Segurtasun Saila](#) eta [Gasteizko Udala](#) izan dira 2019an **kexa gehien jaso dituzten administrazioak**. Aurten aurkeztutako kexen ondorioz, administrazioek zuzendu egin dute euren jarduera, jokaera ezegokiren bat salatu duten kexen kasuetan. Oro har, modu onargarrian bete dute **Arartekoari laguntzeko betebeharra**. Nolanahi ere, erakunde honek oraindik ere topatzen ditu bere zereginak behar bezala betetzeko oztopoak, eta horrek kalte egiten die —ordenamendu juridikoak beren eskubideak babesteko eskura jarri dizkien mekanismoak erabilia— Arartekora jotzen duten pertsonen eskubideei. Arazorik ohikoenak hauek izaten dira: informazioa **berandu** ematea, Arartekoak egindako galderei eta egiten dituen gomendioei **ez erantzutea**, eta eskatutako **dokumentazioa** ez bidaltzea.

5.2. Aurten izapidetu ditugun kexek, berriz ere, **polizia-funtzioa** betetzeari lotutako ohiko kontuak izan dituzte

hizpide; hala nola ustez zuzenak ez diren jardueren **barne-ikerketa**, indarra erabiltzea, eta **atestatuak** eta **administrazio-salaketak** kontrolatzea, horiek prestatzeko orduan gehiegikeriaz ez jokatzeko. Era beran, **poliziaren kode deontologikoari** buruzko eta bide publikoan egindako **gorputz-miaketei** buruzko kexak azaldu dira, baita **informazio-askatasunerako oinarrizko eskubideari** buruzkoak ere.

5.3. Ezarri gabe jarraitzen dute Arartekoak, **atestatuen eta administrazio-salaketan** edukia eta **indarraren** erabilera ikuskatzeko, gomendatu dituen mekanismoek. Oro har, erakunde honek **poliziaren praktikak gainbegiratzeko gomendatu dituen tresna** gehienak ere ([urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren](#) II. atala) oraindik ez dira ezarri. **Ikerketaren** kasuan, aurreko urteetan hauteman ditugun gabeziek bere horretan dira. Edukia eskasa izatea eta ikerketarik ez egitea dira oraindik ere hautematen diren arazoetako batzuk. Gainera, egiaztatu dugu oraindik ere ez direla jarduera-protokolo argiak eta zehatzak ezartzen esparru horretan.

5.4. Arartekoak jarraitzen du ikusten ez dela betetzen egin dugun gomendioa, polizia-funtzionarioek **uniformean**, ondo ikusteko moduan, **identifikazio-zenbakia** edo -erreferentzia eraman dezatela. Herritarrek agenteekin erlazioan ohi diren distantziatik zalantzarik gabe ikusteko moduan jarri behar da zenbaki hori, eta, horrez gain, kanpoko arropa guztietan ageri behar da.

5.5. **Lankidetzan aritzeko formulak** ezarri behar dira **dokumenturik gabe desagertzen diren pertsonen** buruzko salaketak eta osasun-zentro batean edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuan agertzen diren pertsonak (nortasun-agiririk gabeak) erlazioatzea ahalbidetzeko.

5.6. Erakunde honek 2019an bisitatu dituen **Gernikako Ertzain-etxean eta Basauriko Udaltzain-etxean ez dago adingabeen zaintzarako gela berezirik**, adingabeen erantzukizun penala arautu duen [urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak](#) agindutakoaren kontra (17.3 artikulua). Lege indarrean jarri denetik Arartekoak bisitatu dituen Ertzaintzaren atxiloketa-zentro ia guztietan gertatzen da.

Atxiloketen **bideo-grabaketa sistema** bat dute zentro biek, baina sistema horiek ez dituzte betetzen eraginkor izateko baldintza guztiak, eta horrek izaera bermatzailea mugatzen du.

Udaltzaingoak ez du **adingabeen atxiloketak jasotzeko erregistro berezirik**, [uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak](#), urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren erregelamendua onartzen duenak, hala exijitu arren (3.5 artikulua).

Gorputza miatzeko eta jasota uzteko modua, zentro bietan, ez dator bat erakunde honen gomendioekin.

Bisitaldietan aztertutako **atxiloketak**, oro har, behar bezala zeuden bideratuta, horien erregistroak behar bezala beteta, eta eginbideak arrazoizko epean eginda. Nolanahi ere, dis-funtzio batzuk hauteman ziren. Atxilotuari ez zaio uzten, bi zentro horietako ezeinetan ere, atxiloketak dirauen bitartean **eskubideen berri emateko akta** eskutan izaten. Aitzitik, **Prozedura Kriminalaren Legeak** ezartzen du horretarako eskubidea duela, **eta** horixe bera gogorarazi du **Europar Kontseiluko Tortura eta tratu edo zigor krudel eta umiliagarriak prebenitzeko Batzordeak**. Gainera, bi zentroetako ezeinetan ere ez zaio atxilotuari ematen, atxiloketaren uanean bertan, bere **eskubideei** buruz ahoz ematen zaion **informazioa** jasotzen duen dokumenturik, Arartekoak [urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren](#) hala adierazi zuen arren (III.2 atala).

Bi zentro horiei gogorarazi zaie **atxiloketaren legezkotasuna aurkaratzeko funtsezkoak diren jarduketan elementuak eskuratzeko eskubidea** baliatzeko, **Konstituzio Auzitegiak** [martxoaren 5eko 21/2018 Epaian](#) horretarako ezarri duen doktrinari jarraitu behar zaiola.

5.7. Egiaztatu da, zenbaitetan, ez direla bete identifikatutako pertsonen zergatik **identifikatu** dituzten jakinarazteko eta **kanpoko gorputz-miaketak** behar bezala dokumentatzeko betebeharrak, **Herritarren Segurtasuna Babesteko** [martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren](#) 16.2 eta 20. artikuluetan jasotakoak.

5.8. [Martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren](#) 20. artikulua gorputz-miaketa egitateak gertatu diren tokian egitea soilik baimentzen du, eta ez miatu behar den pertsona polizia-bulegoetara eramatea. **Miaketa** egiteko asmoz **polizia-bulegoetara** eramatea askatasunerako eskubidea mugatzen duen neurria da, eta, lege organiko batean jasota ez dagoenez, ez du legezko estaldurarik (Espainiako [Konstituzioaren 17., 53. eta 81. artikulua](#)).

5.9. Arartekoak aurreko gomendio bat egin dio [Gorlizko Udaleri](#), udalak berriz azter dezan **ibilgailuen aparkamendua mugatu eta antolatzeko kontrol-zerbitzu publikoa (TAO) arautzen duen Ordenantza**, ezberdin tratatzen baititu erroldatutako biztanleak eta uda pasatzera etortzen direnak ([Arartekoaren 2019ko abenduaren 17ko ebazpena](#)).

5.10. Oraindik ere jasotzen dira **trafikoaren** arloko **zehapen-araubidearekin** zerikusia duten kexak, batez ere, prozedurari buruzkoak; horren harira, berriz ere, honako gai hauek agertu dira: **tramitazio estandarizatua, jakinarazpenak** eta arau-haustearen **frogabidea**. Halaber, urraketak ikusi dira **zehapen-legezkotasunerako oinarrizko eskubidea** dela eta, hain zuzen, **tipikotasun zigortzailearen** eskubideari dagokionez ([Konstituzioaren](#) 25. artikulua). Eskubidea urratu egiten da, besteak beste, honako kasu honetan: agintaritza zehatzaileak aplikatutako tipo konkretu batean jaso ezin den egitate tipiko bat zigortzen denean. Halaber, eskubide hori urratu egiten da zehapena ezartzeko ebazpenak ez badu adierazten zer arautan dauden aurrez

II

zehaztuta, behar bezalako egiazkotasunez, arau-haustea eta aplikatutako zehapena bera ([113/2008 KAE](#), [irailaren 29koa](#), besteak beste).

Berriz ere ikusi dugu, halaber, zigortzeko prozedurak izapidetzeko orduan ez direla beti betetzen **“Ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide segurtasuna: aurrez taxututako ereduaren erabilera zehapen prozedurak tramitatzean. Zenbait arazo defentsarako eskubidearen inguruan”** izeneko [gomendioan](#) adierazi genituen eskakizunak. Era berean, [2018ko urriaren 9ko 4/2018 Gomendio Orokorra](#), **gaitasun urrikoentzako aparkatzeko txartelaren titularren eskubideari, hain zuzen, aparkamendu mugatuko guneetan (TAO guneetan) aparkatzeko eskubideari buruzkoa**, batzuetan ez dela betetzen egiaztatu dugu.



II. atala

13

Gardentasuna,
herritarren partaidetza, gobernu ona eta
datuak babestea

Aurrekariak

Egindako kexak eta kontsultak aztertzeaz gain, lan-esparru honen helburuetako bat hauxe da: datuak babestearekin eta administrazio elektronikotik eratorritako eskubideekin lotura duten herritarren eskubideen garrantzia azpimarratzea. Era berean, eskubide horiek zabaltzean eginkizun proaktiboa eduki nahi du, horien erabilerak eta babesak berrikuntza-potentzial handiagoa duten herritarrak sustatzen laguntzen dutelako uste osoa du eta.

Arlo horretan jorrotutako beste eremu batek gardentasun, gobernu on eta herritarren parte-hartzearekin du zerikusia; izan ere, Arartekoak estrategikotzat jotzen ditu hiru elementu horiek, kalitatezko gobernu —demokrazia aurreratuaren printzipioetan eta irekitasunean oinarritua, eta espazio publikoa eraikitzea helburu duena— izateko funtsezko osagaiak direlakoan.

1. Arloa kopurutan

2019an, arlo honetan 6 kexa jaso ziren eta horiek ekitaldi honetan erakundeak jasotako kexa guztien %0,25 dira.

Aztertzen diren gaiak edo azpiarloak kontuan hartuta, honela sailka daitezke jasotako kexak:

- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa..... 3
- Beste alderdi batzuk..... 1
- Datuak babestea..... 1
- Gardentasuna..... 1

Datuen babesari dagokionez, Euskal administrazioek datuak babesteko araudia betetzen dutela kontrolatzeko erakunde espezifiko bat dago, hau da, —[Datuak Babesteko Euskal Bulegoa](#)—. Hori dela-eta, gai horren inguruko kexa gehienak aurkezten dira erakunde horren aurrean. Edozein kasutan, aztergai dugun estatistikan jasota ez dauden beste kasu batzuetan, hainbat gairi lotutako kontsultak jaso ditu erakunde honek. Arartekoak laguntza eman die kontsulta horiek egin dituzten kexagileei.

Informazioaren teknologiek (IKT) erabiltzaileen **pribatutasuna** eta **konfidentziasuna** sustatu eta babestu behar dituzte beren erabilera guztietan. Hori dela eta, Arartekoak hainbat ebazpenetan jorratu du pertsonen eskubideak errespetatu behar direla aldizkari ofizialetako, erakundeen webguneetako, euskal administrazioen sare sozialetako eta abarretako argitalpenetan, eta herritarrei behar den informazioa eman behar zaiela beren datu pertsonalen erabilerari buruz, informazio-autodeterminazioa gauzatzeko bitarteko gisa, hau da, herritarrek beren datuei emandako tratamenduaren berri izan behar dutela, eta datu horien inguruan erabakitze-ko ahalmena izan behar dutela.

Azken urteotan, administrazio publikoek erronka handiei egin behar izan diete aurre, hain zuzen ere [Gardentasunari](#), [informazio publikoa eskuratzeari](#) eta [gobernu onari buruzko Legean](#), [Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean](#) eta [Datu Pertsonalak Babesteari](#) eta [Eskubide Digitalak Bermatzeari](#) buruzko [Lege Organikoan](#) jasotako eskubideak indarrean jartzeak eta, horren ondorioz, herritarrek eskubide horiek eskatzeak eragindako erronka handiei.

Ondorioz, 2018an eta 2019an, datu pertsonalak babesteko prozedurak egokitu behar izan dituzte, eta aurretik zituzten pribatutasun-araudiak eguneratu.

2. Kexarik aipagarrienak

Atal honetan, 2019an jasotako kexa batzuk aipatzeaz gain, 2018an planteatutako eta informazioa ematen den urtean amaitutzat emandako beste hainbat kexa nabarmenduko dira.

2.1. Elkarteetako zuzendaritza-batzordeetako administrazio publikoekin nahitaez elektronikoki erlazionatu beharra

Pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, Eusko Jaurlaritzako elkartearen erregistroaren webgunean izapide guztiak (sozietate berrien izena ematea, estatutuak aldatzea,

helbidea aldatzea...) internet bidez bakarrik egin daitezke-elako. Horrek arazo handiak eragiten zizkion bera buru zen sozietate txikiari.

Hori dela eta, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarengana jo zuen, eta jakinarazi zion ezen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 14. artikuluan agindutakoa kontuan hartuta ere, egoera batzuetan herritar guztiek, legez harremanak elektronikoki izatera behartuta daudenez ere, ez dutela bitarteko edo maneiu egokirik administrazioarekin komunikatzeko edo jarduteko bide horietara iristeko, bereziki, nortasun juridikorik gabeko eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen (hala nola sozietateak) kasuan.

Sailak bere erantzunean berretsi du betetzen duela administrazio publikoei ezarritako betebeharra, alegia, bitarteko elektronikoen bidez egiten dituela pertsona juridikoekiko izapide guztiak. Elkarteen Erregistroaren kasuan, betebeharrak hori 2018ko urriaren 2tik aurrera aplikatu da.

39/2015 Legearen zioen azalpenetik eta artikuluetatik ondoriozta daitekeenez, izapidetze elektronikoa erraztearen eta harreman telematikoak modu baztertzailan pertsona juridikoentzat erreserbatzearen alde egin du legegileak argi eta garbi; beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietateen Erregistro Orokorrak hartutako erabakia bat dator araudiarekin, inguruabar horretatik eratorritako ondorioak gorabehera —kexagileak agerian utzi dituenak, kasu—. Sailak adierazi zuen ondorio horietako batzuk arintzen saiatu zela, lehen batean pertsona juridikoentzat aurreikusita ez zeuden neurri osagarriak hartuz.

Horregatik, kexagileak azaldutako zailtasunak ulertu arren, Arartekoak espedientearen itxi zion, ez zuelako irregulartasunik antzeman administrazioaren jardunean.

2.2. Eusko Jaurlaritzaren prozedura informazio publikoa lortzeko eskubidea baliatzeko

Iaz keza bat jaso genuen erakunde honetan. Horren bitartez, interesdunak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Eusko Jaurlaritzak informazio publikoa lortzeko eskubidea baliatzeko eta kontsultak eta iradokizunak egiteko ezarritako prozedura —Gardena web-orriaren bidez nahiz Zuzenean zerbitzuaren bulegoetara bertarata— zela-eta.

Zehazki, pertsona horrek Arartekoari adierazi zion ez zegoe-la ados informazioa eskuratzeko eskaeran nortasun-datuak eskatzearekin. Hauxe nahi zuen, zehazki: eskaerak aurkezteko prozesua egingarria izatea pertsona guztientzat, internerako sarbidea izan ala ez, eta sinadura elektronikorik edo nortasuna modu digitalean egiaztatzekeko sistemarik behar ez izatea.

Aurkeztutako keza bidez eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak igorritako informazioaren bidez jasotako informazioan oinarrituta, egiaztatuta

da sailak abenduaren 9ko 19/2013 Legean (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) adierazitako parametroen barruan jarduten duela, nor bere burua antolatzeke eta funtzionamendu aserako ahaletik eratorritako eskumenen arabera antolatzen baitu informazio publikoa eskuratzeko eskaerak egiteko prozesua, aurrez zehaztutako eta arbitrariotzat edo zuzenbidearen aurkakotzat jo ezin daitekeen ereduari jarraituz.

Beraz, identifikazioaren eskakizunetan mailakatze bat ezartzeak aukera emango luke haztatzeko batetik, araudia bete beharra, eta bestetik, informazioa ezagutzeko interes publiko nagusia —herritarrei esleitutako eskubidea da hori—, sistema konplexuek berezkoak dituzten disuasio-efektuak saiheste aldera. Nolanahi ere, aukera hori hobekuntzat edo jardunbide egokitzaile joko litzateke, baina ezin izango litzateke exijitu administrazio publikoei, horiek 19/2013 Legean ezarritakoa bete behar baitute nahitaez.

2.3. Beste arlo batzuetan kudeatutako keza eta kontsultak bideratu bitartean, informazio publikoa eta datuen babesa eskuratzearan inguruko kontuak agertu dira, eta honako hauek aipatuko ditugu, interesgarriak baitira:

2.3.1. Arartekoak kontsulta bat izapidetu du. Haren bidez, eskatzaileak erakunde honi jakinarazi zion zenbait administrazio publikok, **hautaketa-prozesuetan, askotariko datu pertsonalak erakundearen webgunean** edonork eskuratzeko moduan **argitaratzerakoan**, ohikoa zela desgaitasuna zuela aipatzea.

Kontuan izan behar da datu pertsonalen kategoria berezi batean sartzen dela desgaitasun-egoerari buruzko informazioa. Zehazki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren (Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa) 9. artikulua datu-kategoria berezian sartzen ditu osasunari buruzko datuak, eta horiek tratatzeko orduan nahitaez bete beharreko berme gehigarriak ezartzen ditu.

Erakunde honen iritziz, kontsultari emandako erantzunean adierazi den bezala, badira datu pertsonalak babesteko beste bitarteko batzuk hain inbaditzaileak ez direnak, eta horiek guztiz bat etor daitezke funtzio publikoaren esparruko hautaketa-prozeduren berezko gardentasun- eta publizitate-printzipioak nahitaez betetzearekin.

Izan ere, erakundearen webgunean intraneta jartzea edo norgehiagoka-prozeduretan sarbide mugatua ezartzea neurri egokitzaile joko da, oinarritzko eskubidean injerentzia txikiagoa dagoela bermatzen duelako eta bateragarri egiten dituelako mota horretako prozeduretan errespetatu behar diren gardentasun- eta publikotasun-printzipioak.

Arartekoaren iritziz, hautaketa-prozedurak behar bezala kudeatzeko, bermatu beharko litzateke bai interes legitimoa dutenek informaziorako sarbidea dutela, bai datuen babeserako oinarritzko eskubidea errespetatzen dela. Horri dagokionez, erakunde honek beharrezkotzat jotzen du kasu horietan

sarbide pribatuko ingurune seguruak ezartzea erakundeen webguneetan.

2.3.2. Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, bazitekeelako Lasarte-Oriako **Udalak erroldan jasotako bere datu pertsonalak** irabazi-asmorik gabeko boluntariotzako erakunde bati **laga izana, hari baimenik eskatu gabe**.

Udalak erakunde honi jakinarazi zion ez ziola baimenik eskatu kexagileari, hain zuzen ere, udalak berezkoa zuen eskumenak gaitu egiten zuelako haren datu pertsonalak tratatzeko, onura ekar zekiokkeen doako jarduera bat ezagutzera emate aldera. Udalak helbide-etiketak bakarrik eman zizkion aipatutako erakundeari, izen-abizenik gabe.

Arartekoaren ustez, udalaren eskumen bat gauzatzeko behar diren errolda-datuak erabiltzea, helbideari buruzko datua garrantzitsua den kasuetan, tratamendu legitimoa da datuak babesteko araudiaren ikuspegitik, eta, beraz, ez du irregularitasunik antzeman Lasarte-Oriako Udalaren jardunean.

2.3.3. Kexa-espeditente batean egindako esku-hartzearen harira, Arartekoak egiaztatu du **Lanbidek hobetu egin duela datuen babesari buruzko informazioa, eta hobekuntzak egin dituela diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaerei lotutako zinpeko aitopenen idazketan**.

Zehazki, erakunde honi jakinarazi dio ez duela eskatuko prestazioaren eskatzaileak edo onuradunak legez ezarritako baldintzak betetzen dituen ala ez egiaztatze behar-beharrezkoa ez den daturik, eta berariazko baimena kendu duela diru-sarrerak bermatzeko errentaren ereduetatik, elkarreragingarritasunerako gaituta dagoelako legez, eta, hortaz, ez duela behar eskatzaileen berariazko baimenik. Gainera, gaur egun, datu pertsonalen babesaren arloko eskubideen erabilerari buruzko informazioa ematen du. Horregatik, Arartekoak kexa-espeditentea itxi zuen, ikusi baitzuen Lanbidek hobekuntzak egin zituela.

2.3.4. Mutriku Natur Taldea ingurumenaren defentsarako plataformaren erreklamazioa jaso zuen erakunde honek. Kexa horren bitartez, aipatutako taldeak azaldu zuen **arazoak zituela inprimaki digitalak eskuratzeko eta Eusko Jaurlaritzaren egoitzan sartzeko, eta zailtasunak zituela** Uraren Euskal Agentziaren ebazpen baten aurkako **gora jotzeko errekurtsioa aurkezteko**, horretarako berariaz ezarritako prozedura elektronikoa edo eskabideak aurkezteko ereduak erabiltzeko betebeharra betetzen ez zuelako.

Ondoren, berriz saiatu zen gora jotzeko errekurtsioa formalizatzen, baita lortu ere, eta komunikazio agiri bat jaso zuen ofizioz; beraz, Arartekoak itxi zuen espeditentea.

Oraingoan, Arartekoak berriro adierazi du pertsona juridikoek eta haien ordezkariak, administrazio-prozedura baten edozein izapide egitean, administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez erlazionatzeko betebeharra dutela. Nolanahi ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura

Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 13. artikulua xedatzen du pertsonak eskubidea dutela administrazio publikoekin harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzen lagundu diezaieten. Hala ere, lehen batean, pertsona fisikoei bideratuta dago aurreikuspen hori.

2.3.5. Herri-administrazioen araubide juridikoei eta ondasun eta zerbitzuei buruzko epigrafean modu zabalagoan adierazi denez, hainbat kexa jaso dira informazioa jasotzeko eskubidea gauzatzeari dagokionez, bereziki toki-eremuan. Kexa horiek direla eta, Arartekoak honako hau gogorarazi du berriro ere: [2/2016 Legeak, apirilaren 7koak](#), Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, eta [19/2013 Legeak, abenduaren 9koak](#), gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, legezko mugak modu murritzalean interpretatu behar direla ezarri dutela.

Herritarren parte-hartzea gai publikoetan ere kontsultatu da, tokiko erakundeak herritarren partaidetza errazteko gero eta hainbat tresna gehiago erabiltzen hasi baitira.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

• Europa mailan

– **Adimen artifiziala**, bai eta haren aplikazio anitzak ere, eta Blockchain teknologia berrikuntzaren palanka aktibatzen duten etengailuetako bi dira, eta argi dago hamarkada berri hau markatuko dutela, Big Data Analyticsekin, 5G teknologiarekin eta sortzen ari diren beste teknologia batzuekin batera. Adimen artifiziala eta bere algoritmoak elikatzen dituzten datuak dira aro honetako bi motorrak, eta elkari lotuta daude. Hainbat kontuk zalantza handiak sortzen dituzte, esate baterako aurpegiaren detekzioak, bereziki espazio publikoetan pertsonak urrutitik identifikatzeko, eta kezkatzeko modukoak dira giza eskubideen ikuspegitik eta intimitatea eta norberaren irudia errespetatzeari dagokionez.

Hain zuzen ere, arrazoi horien artean eta pertsonen eskubideak zainduko dituen lege-esparru bat izatea oso garrantzitsua dela-eta, Europako Batzordeak iragarri du datorren otsailean liburu zuri bat aurkeztuko duela, eta han jasoko dituela gai horri buruzko araudi-proposamen baten oinarritzko jarraibideak, herritarren eta konpainien onurarako. Ia aldi berean, Europako Parlamentuko Barne Merkatuaren eta Kontsumitzaileen Babeserako Batzordeak ebazpen bat onetsi du, eta horren bidez, Batzordeari eskatu dio adimen artifizialeko teknologien eta erabakiak hartzeko teknologia automatizatuaren garapen azkarraren ondoriozko errore aurre egiteko arau-esparrua ezar dezala.

– 2019ko azaroaren 23an, [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1937 \(EB\) Zuzentaraua, 2019ko urriaren 23koa](#), Europar Batasuneko zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari

buruzkoa, whistleblowerrak babesteko zuzentaraua deritzona, argitaratu zen EBAOn.

Zuzentaru horren bidez, gutxienerako arauen esparru uniforme eta zabala eskaini nahi du Europako legegileak, erakunde pribatu edo publiko baten barruan legezko delituak edo arau-haustea detektatzeko informazioa ematen duten pertsonen babesa bermatzeko, eta Batasuneko zuzenbidea hobeto ezartzen laguntze aldera.

Orain, Espainiako legegileari dagokio zuzentaru horren transposizioa egitea, horretarako modurik eraginkorrena zein den adostuz gizarte-solaskideekin, langileak iruzurraren eta bestelako arau-hausteen aurkako borrokan lankidetzan aritzea sustatzeko. Horretarako epea bi urtekoa da, onetsi zenetik aurrera.

• Estatu-mailan

- 2019. urtea asko markatu dute kontu hauek: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua indarrean jarri izanak, eta 2018. urtearen amaieran abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko, Espainiako ordenamendu juridikoa Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra egokitzen duena eta haren xedapenak osatzen eta garatzen dituena, argitaratu izanak.
- Joan den azaroaren 5ean, [urriaren 31ko 14/2019 Errege Lege Dekretua](#), administrazio digitalaren, sektore publikoko kontratazioaren eta telekomunikazioen alorrean, segurtasun publikoa dela eta, premiazko neurriak hartzeko dena, argitaratu zen.

Arau eztabaidagarria da —hain eztabaidagarria non kaleko hizkeran *dekretu digital* ere esaten zaion—, bai erabilitako teknika juridikoagatik, bai haren norainokoagatik, garrantzi handiko legeak aldatu baititu, hala nola Sinadura Elektronikoa buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea eta Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorra.

Arau horrek aukera ematen dio gobernuari interneten euskarri diren azpiegituren kontrola hartzeko “ordena publikoa zaintze aldera”, alde aurreko agindu judizialik izan gabe, aparteko eta presazko beharrez dagoen kasuetan. Hainbat instantzia —bai gobernuak (Eusko Jaurlaritza eta Kataluniako Generalitateko Goberna), bai eskubide digitalen defentsarako erakundeak eta legelari independenteak— agertu dira lege-dekretuaren aurka, eta Konstituzio Auzitegian inpugnatzeko aukera planteatu dute, kasu batzuetan eskumenei lotutako arrazoiak direla tarteko, eta beste batzuetan, jo dutelako arriskutsua dela oinarriko askatasunei begira, gobernuak interneten esku hartzeko dituen ahal berrien inguruko azalpena “nahasia eta anbigua” dela pentsatzen baitute. Badirudi, halaber, aurkez litezkeen inpugnazioak gainditze aldera dekretu horretan

egin litezkeen aldaketak aztertzeko eta negoziatzeko aukera aurrera egiten ari dela.

- *Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legea garatzeko Errege Dekretuaren proiektua*

Aurreko txostenetan dagoeneko aipatu genuenez, komenigarria litzateke gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko [abenduaren 9ko 19/2013 Legea](#) garatzen duen araudi bat edukitzea, lege horretatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak eta horiek gauzatzeko modua xehetasun handiagoz ezagutzeko. Halaber, komenigarria litzateke bertan jasotako manualetan ez dituztenei ezarriko zaizkien zigorraren katalogo bat edukitzea. Konpromiso hori Espainiak Gobernu Irekirako Aliantzaren baitan 2017ko ekainean onartu zuen Gobernu Irekiaren Hirugarren Planean (2017-2019) jasota dago (3.5. konpromisoa). **Erregelamenduen proiektuaren bertsio berria, 2019ko otsailaren 28koa, jendaurrean jartzeko eta txostenak egiteko** beste izapide bat egin da, eta ezagutzen dugun azken izapidea izan da Estatu Kontseilura bidaltzea, irizpena eman dezan.

- *30/2015 Legean aurreikusitako administrazio elektronikoa buruzko neurri zehatz batzuk indarrean sartu daitezkeen atzeratzea*

[11/2018 Legegintzako Errege Dekretuak](#), [abuztuaren 31koak](#), Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen [urriaren 1eko 39/2015 Legearen](#) azken xedapenetako zazpigarrena aldatu zuen. Hala, erregistro elektronikoa, ahalorde-erregistroari, gaitutako langile publikoaren erregistroari, administrazioaren sarbide elektronikoko orokorrari eta fitxategi elektronikoko bakarrei buruzko xedapenak indarrean sartzeko eguna **beste bi urte atzeratu zen**.

Administrazio digitalak paradigma-aldaketa dakar zerbitzu publikoaren eskaintzari eta administrazio publikoaren funtzionamenduari dagokienez, eta horien funtzionamendu digitalerako oinarriak ezartzen ditu. Administrazio publiko guztiak neurri handiagoan edo txikiagoan egokitzen ari dira eraldaketa digital horretara, eta betebeharrak ez ezik eronka handia ere bada, alde guztiei egin behar dielako mesede, herritarrei, enpresei eta administrazioari berari.

Ondorioz, laster indarrean jarriko denez, egiaztatu beharko da ea indarrean jartzean izandako atzerapenak bilatutako eragina izan duen, eta horren berri emango da Arartekoaren 2020. urteko txostenean.

- *Azterlanak eta gidak*

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak eta ADIGITAL, Anunciantes, Autocontrol eta IAB España izeneko elkarrekin **cookieen erabilerari buruzko gida** bat egin dute. Hura da datuen babeserako agintaritzek eta industriaren ordezkariak elkarrekin gai horri buruz Europako legeak ezarritako lehen gida.

Arartekoari kezka handiena sortzen dioten interneteko barneratze-eremuetako bat haurren eta nerabeen eten digitalari lotuta dago.

2019an, **Haurrak babesteko zerbitzuetako profesionali bideratutako internet modu seguru eta arduratsuan erabiltzeko gida** argitaratu da. Gida horrek adingabeen testuinguru digitala du aztergai, eta prebentzioari eta arazo erreal eta zehatzen aurrean izan beharreko jokabideari buruzko aholkuak ematen ditu. Zibersegurtasuneko Institutu Nazionalako (INCIBE) Internet Segura for Kids (IS4K) zentroak egin du gida, Haurren Behatokiarekin batera, haurrak babesteko zerbitzuetako profesionali laguntza emateko, eta egoitza-harrerako zentroetan jarduteko estrategia zehatzak biltzen ditu.

• Autonomia-erkidego mailan

- Berriz ere, esan beharra dago **gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko araudia – autonomia-erkidego mailakoa – onartu gabe dagoela**; izan ere, arlo horretan dagoen lege-erreferentzia bakarra estatuko oinarritzko legea da (ez da gauza bera gertatzen foru aldundiaren eta udalerraren mailan, haiek berariazko araudiak dituztelako). 2018ko lehenengo lauhilekoan Gobernu Kontseiluan onartu zedin Legegintza Egitarauan aurreikusitako Legearen Proiektua **lege-proposamen** gisa aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean, 2017ko uztailaren 20an, Euskal Jeltzaleen eta Sozialisten parlamentu taldeen ekimenez. Lantaldearen ondoz ondoko bilerak izan dira ezagutzen diren azken izapideak. Azkena 2019ko martxoan egin zen, eta guk dakigula ez da aurrerapen esanguratsurik egin.
- **Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegoa sortzeari buruzko lege-proposamena**. Ekimen hori, halaber, Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari da, eta agerriaren fasean dago.
- **Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa 2020 (PEGIP 2020)** delakoari dagozkion zenbait ekintza jarri dira abian. Iaz burututako proiektuen artean, aipagarria da **Eusko Jaurlaritzaren gardentasunerako eta datuak bistaratzeko atari berria, “Gardena”**.
- Hain zuzen ere, **Ernst & Young**ek (EY) 2019an argitaratutako **txosten** batean, **Espainiako administrazio publikoaren heldutasun digitalaren mailari buruzkoan**, indarrean dauden **Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean jasotako oinarritzko eskakizun guztiak betetzen ote diren aztertu zen, eta ondorioztatu zen Euskadi dela funtzionamendu digitalean aurreratuen dagoen autonomia-erkidegoa**, eskakizun horien % 94,7 betetzen baititu, eta haren atzetik doazela Galizia (% 94,2), Katalunia (% 93,5), Asturias (% 90,2) eta Madril (% 89,5).
- **Ekipamendu eta zerbitzu elektronikoei dagokienez**, EUSTATEk **Euskadiko Familiei zuzendutako informazioaren gizarteari buruzko azken inkestan**, 2019ko udazkenekoan, emandako datuen arabera, Euskadin internet erabiltzen duten 15 urteko eta gehiagoko pertsonen kopurua biztanleria osoaren % 80 baino gehiago da, eta % 1,5 hazi da aurreko urtearekin alderatuta.

Ez da alde handirik ikusten hiru lurralde historikoen artean, eta hiru hiriburuen artean ere apenas ez dago desberdintasunik.

Etxeetako IKT ekipamenduari dagokionez, EAEko familien ia % 71k ordenagailu pertsonala dute, eta % 87k baino gehiagok interneterako konexioa dute; beraz, esan daiteke Euskadiko 10 lagunetik ia 9k internet erabiltzen dutela.

Jarduerarekiko duen loturaren arabera, ikasle ia guztiek (% 99,6) internet erabiltzen dute, eta horien atzetik doa biztanleria landuna (% 97,3); aldiz, ez-aktiboan eta langabeen erdiak baino pixka bat gehiagok (% 55,8) bakarrik erabiltzen dute internet, eta, beraz, arrakala ekonomikoa desperekotasunen kausa potentziala da oraindik ere.

Datuak adin-tarteen arteko arrakalaren perspektibatik aztertuz gero, gazteen ia % 100ek erabiltzen dute internet, eta 65 urte edo gehiago dituztenen % 37,3k baino ez.

Badago genero-arrakala oraindik ere, baina murriztu egin da. Gizonen % 82,5ek erabiltzen dute internet, eta emakumeen % 78,2k.

Telefono mugikorrari dagokionez, % 95ek baino gehiagok adierazi dute badutela mugikorra; beraz, hura da edozein teknologiarik eta zerbitzu digitalek euskarri duen oinarritzko tresna, eta hark bakarrik gaintzen du erabat ekipamendu- eta erabilera-arrakala oro.

Epaiak

- **76/2019 Epaia, 2019ko maiatzaren 22koa, Konstituzio Auzitegiarena**, Herriaren Defendatzaileak Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 58. bis artikulua lehenengo paragrafoari buruz (zeina Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren bidez txertatu baitzen) jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsuaren harira emandakoa. Baietsi egin du aurkeztutako errekurtsua, eta **Konstituzioaren aurkakoztat eta deuseztat jo du hauteskunde-legearen 58. bis artikulua 1. apartatua, zeinak aukera ematen baitie alderdiei herritarren iritzirik politikoei buruzko datu pertsonalak biltzeko helburu elektoralistekin**.
- **Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salakduela gutxi emandako epaia, 2019ko abenduaren 18koa, administrazio onaren printzipioa argi eta garbi lehenesten duena**. Interes handiko jurisprudentzia da hori, eta agintarieki eta funtzionarioeki ez lukete alde batera utzi behar. Epaia honako hau ezartzen du **BEDERATZIGARREN** oinarri juridikoan: *reafirmando que del derecho a una buena Administración pública derivan una serie de derechos de los ciudadanos con plasmación efectiva. No se trata, por tanto, de una mera fórmula vacía de contenido, sino que se impone a las Administraciones públicas de suerte que a dichos derechos sigue un correlativo elenco de deberes a estas exigibles, entre los que se encuentran, desde luego, el derecho a la tutela administrativa efectiva y, en lo que ahora interesa sobre todo, a una resolución administrativa en plazo razonable.*

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

2019an, Arartekoaren erakundeak zenbait jarduketa planifikatu eta garatu ditu kexa eta kontsultak izapidetzea osatzeko. Interesgarriak direnez, jarraian zerrendatuko dira:

4.1. Arartekoaren pribatutasun-politika

Arartekoak 2019ko apirilaren 30ean berrikusi du azken aldiz bere [pribatutasun-politika](#) —3. bertsioa—, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 30. artikulua betez. Horretarako, kontuan izan da Datuak Babesteko Espainiako Agentziak 2018ko urrian aurkeztutako txostena, zeinetan webguneen pribatutasun-politiketan Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betetzeko gomendioak ezartzen baitira.

4.2. Arartekoaren parte-hartzea OGP Euskadi proiektuaren konpromiso taldeetan

OGP Euskadi Euskadin gobernu irekiari dagokionez aurreapausoak emateko lehenengo erakunde plana da, Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzako kide gisa egindakoa. Alderdi anitzeko ekimena da, eta bere xedea da gobernuak konpromiso zehatzak hartu ditzaten ziurtatzea, betiere gardentasuna sustatze, herritarrek trebatze, iruzurraren kontra borrokatze eta gobernagarritasuna indartzeko teknologia berriak aprobeztatze aldera. Eusko Jaurilaritzak, hiru foru aldundiek eta Euskadiko hiru hiriburuetakoko udalek sustatu dute plan hori, eta gizarte antolatua ez antolatuen lankidetzatza du. **5 konpromiso** daude sartuta plan horren baitan, eta bi urtetan bete beharko dira (2020-08-31 baino lehenago).

Bost konpromiso talde horietatik hiritan parte hartzeko gonbidatu dute Arartekoa; erakunde honek hainbat bileratan parte hartu zuen 2019an, eta bilera gehiagotan parte hartuko du 2020an:

- **1. konpromiso taldea. Kontuak ematea agintaldien planen bidez.** Talde honen xedea da kontu-ematea finkatzea agintaldien planen bidez eta herritarrek kontu-ematearen jarraipenean eta azterketan parte hartuz. Horrez gain, kontu publikoetan herritarrek gehiago parte hartu dezaten ere du xede.
- **2. konpromiso taldea. Open data Euskadi eta Linked Open Data.** Ezagutza irekian laguntzea da behin betiko xedea. Horretarako, datu publikoak irekiko dira, baita aberastasuna, kultura, ezagutza eta/edo kudeaketa publikoaren kontu-ematea egitean laguntza sortzeko zerbitzu berriak garatu ere.
- **5. konpromiso taldea. Integritatearen Euskal Sistema.** Talde honen xedeak honako hauek dira: jokabide etikoa

sortzeko tresnak garatzea; erantzukizun korporatiboa sustatzea; eta arriskuak ekiditea kudeaketa publikoaren arloan. Hori guztia egingo da herritarrek Administrazio eta hango langileekiko konfiantza berreskuratze aldera.

4.3. Q-epearekin elkarlanean

Q-epeak (kudeaketa aurreratuarekin konprometitutako Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen sarea) antolatutako bi urtean behingo biltzarren antolaketa-taldeko kide aktiboa da Arartekoaren erakundea. Biltzarra Gasteizen egingo da, 2020ko maiatzaren 20an eta 21ean, *Sektore publikorako abangoardiako adimenak* izenburupean. Kongresuan, bi gai hauek izango dira ardatz: adimen soziala eta emozionala berrikuntza-testuinguruan eta administrazioa 4.0: adimen artifizialek integrazio teknologikora.

Arartekoak, halaber, **Q-epeak** deitutako 8 bileratan parte hartu du, bai osoko bilkuran, bai lantaldeetan.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Arartekoak, pertsonen eskubideak bermatzeko eta defendatzeko sortu den erakundea denez, ohiko eginkizunen artean, bere gain hartzen ditu [abenduaren 9ko 19/2013 Legea](#), gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, EAEko administrazio publikoetan aplikatzea zaintzeko eta kontrolatzeko ardurak, Arartekoaren erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legeak oro har esleitu dizkion eginkizunak betez.

Adostasun orokorra dago pertsonen eskubideak defendatzen dituzten erakundeek, besteak beste, Arartekoak **administrazio egokia eta herritarren eskubideen defentsa kontrolatzeko eginkizunak** ere burutu behar dituztela, herri-administrazioen jardun oro interes publikoa lortzera bideratuta egotea bermatuz, interes orokorraren berme gisa.

5.2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendutik (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eratorritako datu pertsonalen babesaren arloko lege-erreformek eta [abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa](#) (Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa) 2018ko abenduaren 6tik aurrera indarrean egoteak aukera ematen dute interesdunei **tratatu beharreko datu pertsonalei eta horien eraginkortasuna bermatzeko erabiliko diren bitartekoei buruzko informazio gardena** emateko neurriak bultzatzeko. Horretarako, beharrezkoa izango da euskal administrazio publikoek ez erabiltzea formula estereotipaturik, eta bermatzea pertsonen bildu eta tratatu beharreko datu pertsonalen erabilerari eta xedeari buruzko informazioa ematen zaiela, baimen informatua eta zalantzarik gabea eman dezaten. Horrek aldaketa handia dakar, eta, haren ondorioz, hobeto

bermatuko da informazio-autodeterminaziorako eskubidea, eta tratatu beharreko datu pertsonalen titularrek beren eskubideak balia dezaten erraztuko da.

Nabarmentzekoa da 2019an euskal administrazio publikoek aurrera egin izana ukitutako herritarrek hala eskatzen duten kasuetan interneten dauden datu pertsonalak ezabatzea errazteko neurriak ezartzeari dagokionez. Arartekoak behin baino gehiagotan esku hartu izan du kontu horren harira.

5.3. Herritarrek gero eta gehiago gauzatzen dute herri-administrazioek duten informazioa eskuratzeko eskubidea; horretarako, administrazioek jarrera bermatzaileak izan behar dituzte alde guztien eskubideekin. Izan ere, lehiari dauden eskubide desberdinak haztatu behar dira eta informazio edo dokumentazio hori eskuratzeko ukatzen den kasuak arrazoitu.

Arartekoaren kasuan, guk daukagun informazio publikoa eskuratzeko eskaera egin zuten herritarrek zortzi aldiz, aurreko urtean. Eskaera horiei erantzun zaie, baita baiezkua eman ere; hala, eskatutako informazioa eman zaie herritar horiei, kasu batean izan ezik. Izan ere, kasu horretan, eskatutako informazioak erakunde honetan keza bat aurkeztu zuen hirugarren pertsona bati eragin zion.

5.4. Ezinbestekoa da administrazio publikoek apustu orokor eta irmoa egitea gardentasunaren alde, interes-gatazka argitzearen alde, herritarren parte-hartzearen alde, interes-taldeak kontrolatzearen alde, balizko jardunbide txarren kasuen zaintza organo independenteei esleitzearen alde, hori guztia osotasunaren eta etika publikoaren kontzeptuak hedatu eta ezartzearekin batera. Laburbilduz, **governantza publikoko eredu** bat izatea, **erakunde indargunea izango dena eta 2030 Agendaren garapen jasangarriko helburuen palanka edo azeleragailu gisa jardungo duena**. Horretarako, administrazio oneko azpiegitura formal zein informala eduki behar da. Munduan garatzen ari diren jardunbide onenak izan daitezke azpiegitura hori lortzeko inspirazio eta erreferente. Ildo horretan, oso interesgarriak iruditzen zaizkigu 5. konpromisoaren inguruko taldean egiten ari diren lanak. Open Government Partnership (OGP) Euskadi proiektuko **Integritatearen Euskal Sistema**. Arartekoaren erakundeak ere parte hartu du proiektu horretan, eta haren helburua da integritate-sistemen jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak izatea. Proiektu horren baitan aurreikusita zegoen 2019. urtearen amaieran hiru pilotu ezartzea Integritatearen eta Gobernu Onaren Euskal Sistemaren eredu testatzeko, horretan egin baita lan 2018az geroztik.

2019an, **ez da inolako aurrerakuntzarik egin interes taldeak -"lobbie" direlakoak-** arautzeari dagokionez, **Euro-pako Kontseiluko Ustelkeriaren kontrako Estatuaren Taldeak (GRECOk) argitaratutako txostenean** adierazi den legez. Txosten horren bidez, **diputatuen eta lobbien arteko harremana** arautu dadin eskatu da, baita presio talde horien derrigorrezko erregistro bat onartu dadin ere, beste hainbat neurriren artean. Izan ere, nahiz eta aurreko urteetako askotariko ekimenak abiarazi, ekimen horiek ez dira azkenean gauzatu.

Azken urtean, herritarren onurarako gardentasunaren kontzeptu berri eta interesgarria zabaltzen ari da arauak egiteko orduan; **legegintza-aztarna** deritzo horri, eta interes-taldeen, EBk eta ELGak exijitutako erregelamenduak eta lege-proiektuak egiteko prozedurari dagokionez, egindako jardura informalen dokumentu-erregistroa da.

Ingurumen-salatailearen administrazio onerako eskubideari dagokionez, erakunde honek bere ebazpenetan azpimarratu du ingurumen-salatailearen figuraren terminoak eta edukia zehaztu behar direla. Horretarako, beharrezkoa da legeak jarraibide batzuk jasotzea kutsadura-gertakari buruzko salaketan eta jakinarazpenen aurrean jarraitu beharreko prozedurari buruz.

5.5. Informazioaren eta ezagutzaren teknologiak izatea, berez, ez da giza eskubide hutsa. Izan ere, aro digitalean, internet eta IKTak eskuratzeko eta erabiltzeko giza eskubidea ez ezik gainerako eskubideak baliatzeko eta defendatzeko tresna ere bada, eta, horrez gain, giza eskubideak zaintzeko eta kontzientziatzeko ere balio du internetek. Izan ere, internet demokratizaziorako (e-demokrazia delakoa), informazioa eskuratzeko eta herritarren lankidetzara eta partaidetzarako lehen mailako tresna da.

Herritarren arteko berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren ikuspegitik, **euskal administrazio publikoek muturre-raino eraman behar dituzte neurriak interneterako sarbidea izatea ez dadin izan pertsona guztiek** bizitza osoa garatzeko eta gizartearen baliabideak eskuratzeko **dituzten aukeretan desoreka sortzen duen beste elementu bat**; horretarako, adi egon behar dute eta eten digitalaren arriskua minimizatzen dituzte neurriak hartu behar dituzte. Bereziki, adi egon behar dute langabeek dituzten zailtasunek arrakala ekonomikoaren arriskua larriagotu ez dezaten edo enplegarritasuna kaltetu ez dezaten, eta generoagatik, adinagatik edo jatorriagatik arrakala sortzeko edozein arrisku saihestu behar dute.

5.6. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidetaren urriaren 1eko 39/2015 Legea, e-administrazioaren eta izapideak "on line" egitearen aldeko apustu garbia egiten duena, onetsi ondoren, **gero eta herritar gehiagok helarazi dizkiote keaxa Arartekoari, administrazioekiko izapide gero eta gehiagotan harreman digitala delako onartutako modalitate bakarra**. Kasu horietan, Arartekoak gogorarazten du, herritarrek administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko duten eskubidearekin batera, indarrean jarraitzen duela horretarako baliabiderik ez dutelako edo nahi ez dutelako bitarteko telematikoa erabiltzen ez dituzten pertsona, eta, beraz, administrazioek kanalen aniztasuna bermatu behar dutela, eta laguntza eman behar dietela bitarteko elektronikorik ez duten pertsonen (betiere legeak ezartzen ez badu nahitaezkoa dela bitarteko horiek izatea).

Euskal administrazio publikoak digitalizatzea legezko eskakizun bat da, baina, aldi berean, premia existentzial bat ere bada, egungo garaian garapen teknologikoak gero eta protagonismo handiagoa hartuko du-eta. Eta, datozen urteetan

bizkortuko den testuinguru horretan, Arartekoak adi egon behar du administrazio publikoen digitalizazio-prozesu horrek euskal herritarren eskubide eta askatasunen bermeei dagokienez izan ditzakeen ondorioei, berariaz erreparatuz administrazioarekiko harreman elektronikoei lotutako ondorioei.

Arartekoak 4.0. administrazio berri horretan presente egoitea erabaki du, jakin nahi baitu sektore publikoaren digitalizazioa euskal herritarren eskubideen estatutua hobetzen eta administrazio hurbilago eta eraginkorragoa sortzen ari ote den, edo, aitzitik, prozesu hori eragiten ari ote den pertsonen eta erakunde publikoen artean desparekotasun edo distantzia handiagoak egotea. Horregatik, 2019. urtearen amaieran, azterketa bat jarri du abian, administrazio elektronikoen ezarpenak herritarren eskubideen ikuspegitik dituen ezaugarrien berri izateko, eta jakiteko herritarren eremu jakin batzuetan ondorio desberdinak izaten ari diren, bereziki tresna digitaletatik urrunen dauden eta, ondorioz, jarduketa publikoaren digitalizazio eskusiboaren aurrean zaugarriak diren kolektiboengan (hirugarren eta laugarren adinekoak; eten digitaleko egoeran dauden pertsonak edo tresna teknologiko zaharkituak dituztenak; pobrezia-poltsak; teknologia- edo hizkuntza-ezagutzarik ez duten migratzaileak; gizarte-zerbitzuen hartzaileak, eta abar). Kontu horretan arreta handiz jokatu behar da, bereziki pertsonak ez daudenean behartuta bitarteko elektronikoen bidez erlazionatzera, eta baliabide elektronikoen erabiltzeko laguntza eman behar zaie administrazioarekin erlazionatu behar duten pertsonari, identifikatzeari eta sinadura elektronikoi lotutako kontu guztietan, baita eskaerak erregistro elektronikoro korren bidez aurkeztu eta benetako kopiak lortu behar dituztenean ere.

Argi dago eraldaketa digitalak aldaketa kulturalerako aukera dakarrela administrazioarentzat; izan ere, teknologiaren

erabilera estentsibotik harago doa, pertsonengatik eta pertsonentzat egindako aldaketa handi gisa planteatu behar da-eta.

5.7. 2019an, areagotu egin dira “adimen artifizial” delakoa erabiltzen duten aplikazioek pertsonen eskubideetan izan dezaketen eraginaren inguruko eztabaidak. Teknologia horiek gero eta ohikoagoak dira eguneroko bizitzako hainbat arlotan, hala nola finantzetan, medikuntzan eta hezkuntzan. Argi dago herritarren bizi-kalitatea hobetzeko aukera ematen dutela. Eskuragarri dauden datuek joera sozial jakin bat adierazten dutenean sortzen dira arazoak. Erabakiak modu automatizatuan hartzeak eta “erabakitzeko sistema algoritmikoak” edo “ADS” (ingelesezko siglengatik) delakoak erabiltzeak zatiketa sozialak betikotu ditzakete. Halaber, erronkak dakartzate kontsumitzailearen konfiantzari eta ongizateari begira; hori dela eta, kontsumitzaileek mota horretako sistema bat erabiltzen dutenean, behar bezala adierazi behar zaie nola funtzionatzen duen.

Horregatik, gero eta beharrezkoagoa da **Europar Batasun osorako araudi bat onestea**, eta, han, alderdi teknikoak ez ezik kontu garrantzitsuago bat, hots, teknologia horiek erabiltzean herritarren eskubideak babesteari buruzko kontu etikoak, kontuan hartzea. Kezka horren eraginez, txostena eman den urtean, hainbat ekimenen egin dituzte Europako Batzordeak, Europako Parlamentuko Barne Merkatuaren eta Kontsumitzailearen Babeserako Batzordeak eta Espainiako Estatuak (Kataluniako Gobernua, Nafarroako Gobernuak eta Valentziako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak, besteak beste). Ekimen horietan jorrotutako proiektuek gai hauekin dute zerikusia: adimen artifiziala etikaren eta datuen babesaren ikuspegitik aplikatzearekin, datuen manifestu etikoarekin eta adimen artifizialaren aplikazioetan berme juridikoek eta algoritmoaren gardentasunak duten garrantzi handiarekin.



II. atala

14

Lana eta
Gizarte Segurantzza

1. Arloa kopurutan

2019an, guztira 15 kexa jaso dira arlo horretan. Txostena itxi zen egunean, honako hau izan zen 2019an izapidetutako kexen egoera:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
23	11	12	5	4	–	3

2. Kexarik aipagarrienak

Administrazio prozedura eta administrazioaren funtzionamendua

Aurten, nabarmendu behar da irakasleen greba zela eta itunpeko sareko ikastetxeetan sortutako gatazkaren ondorioak jasan behar izan zituzten EAEko ikasleen guraso-federazioen desadostasunak bultzatu zituela gurasoen ordezkariak erakunde honetan kexa aurkeztera. Hala ere, txosten honen beste atal batean —Hezkuntzari buruzkoan— ematen da informazio gehiago kontu horren gainean.

Agerian utzi behar da, halaber, Arartekoaren asmoa -jokoa zeuden eskubide guztiak erabiltzea orekatzeko- arrazoi bihurtu zela, guraso-federazioekin bilera izan ondoren, honako deialdi hau egiteko: gatazkako alderdi guztiek beren esku dauden jarduketa guztiak egin ditzaten, sortutako egoera gainditzeko lagun dezaketean konponbideak aurkitzeko eta akordioak egiteko.

Administrazioak greba kasuan aurreikusten dituen gutxieneko zerbitzuak betetzeari dagokionez, pertsona bat kexatu zen Barakaldoko Udaleko etxeko laguntza zerbitzuko langileek 2017. urtean egindako greba zela eta ezarritako gutxieneko zerbitzuak ez zirela bete. Halaber, egoera hori salatze-ko kexa udalean aurkeztuta jaso zuen erantzuna ere aipatu zuen kexan.

Kasua aztertu ondoren, Arartekoak ebatzi zuen ez zegoela arrazoirik udalaren erantzuna zalantzan jartzeko; erabaki horren arrazoiak Arartekoaren ebazpen batean jaso dira, non aipatu udal zerbitzuari lotutako beste kontu bat ere mahai-gaineratu zuen. Hain zuzen ere, [Arartekoaren 2019ko uztailaren 22ko ebazpenaz](#) ari gara. *Horren bidez, Barakaldoko Udaleri gomendatzen zaio, berrikus dezala kexagilearen amaren mendekotasun graduaren aldaketak (2016ko irailean jakinarazi zitzaion udalari) data horretatik 2019ko otsailera arte ordaindu zuen etxeko laguntza zerbitzuaren kuota izandako eragina.*

Lan Ikuskaritzaren jarduketa-eremuan, interesgarri egiten zaigu Ikuskaritzan aurkeztutako salaketa batzuk izapidetze-ko forma (atzerapena eta gardentasunik eza) dela eta jarritako hainbat kexa aipatzea, kexa horiek oraindik izapidetzen ari diren arren.

Bestalde, [Lanbidek](#) eskaintzen dituen prestakuntza-jardueri eta horiek egin ondoren ematen dituen profesionaltasun-ziurtagiriei buruzko kexak aurkeztu dira.

Lehenengo kontuari dagokionez, pertsona bat kexatu zen prestakuntza-ikastaro bat egiteko onartua izan ondoren, ikastaroa hasita, jakinarazi ziotela ez zituela baldintzak betetzen, Administrazio Publikoan lan egiten zuelako. Profesionaltasun-ziurtagiriak eta horiek ezartzen dituzten errege-dekretuak arautzen dituen [urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuak](#) ezartzen ditu prestakuntza-ikastaroetan onartua izateko baldintzak eta, horien artean, ez du aipatzen Administrazio Publikoaren zerbitzura jardun ezin izatea. Hori, eta interesdunak aurkeztutako erreklamazioari erantzun ez ziotela kontuan hartuta, gaiarekiko interesa agertu zuen Arartekoak. Esku-hartzeari erantzunez, Lanbidek kexagileari emandako erantzunaren kopia bidali zuen. Horretan, zalantza jarritako erabakia arrazoitu zuen, irregulartasunik ikusi ez zela esanez.

Profesionaltasun-ziurtagiriei dagokionez, beste pertsona bat kexatu zen ikastaroa amaitu ondoren Lanbidek denbora luze behar izan zuela ziurtagiria emateko. Erakunde horrek erantzun zion Arartekoari ziurtagiria dagokion bulegoan zegoen arren, horren berri ematea atzeratu egin zela, arazo informatiko eta kudeaketa-arazo batzuen ondorioz. Gainera, Lanbidek barkamena eskatu zuen bere erantzunean, interesdunaren erreklamazioari erantzun ez ziolako eta gertatutakoari buruzko azalpenik eman ziolako.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Erakunde honek kekek eragiten dituzten kontuen jarraipena egiten du. Ildo horretan, aipatu beharra dago Eusko Jaurlaritzak azkenean onetsi egin zuela desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzeko dekretua.

Izan ere, Gobernu Kontseiluak onetsi du aurten [urriaren 29ko 168/2019 Dekretua](#), zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu zentro berezien Euskal Erregistroa.

Dekretua 2020ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta [Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren](#) esanetan, desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin zerikusia duten laguntza-programak eta zerbitzuak arautzea da bere helburua. Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak Lanbideren bitartez emango ditu. Gainera, dekretuaren bidez, pertsona desgaituentzako laguntza eta kalitatezko lan-jarduera egonkorra eskuratzea sustatu nahi da, baita enpleguan jarraitzea ere.

Desgaitasunen bat duten pertsonak ohiko lan-merkatuan enplegatzea sustatzeko laguntzak bi dirulaguntza-lerroren

bidez bideratuko dira: kontrataziorako laguntzak eta lanpostuak egokitu eta oztopoak ezabatzeko laguntzak.

Langileak kontratatzen dituzten edota lanpostuak egokitzeko neurriak hartzen edo oztopoak ezabatzen dituzten enpresak izan daitezke dirulaguntza horien onuradunak.

Bestalde, dekretuak xedatzen duenez, enplegu-zentro bereziaren kalifikazioa lortu ahal izango dute pertsona fisiko edo juridikoek osatutako erakunde publiko zein pribatuek, baldin eta indarrean dauden xedapenekin bat enpresaburu izateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna badute.

Enplegu-zentro bereziaren kalifikazioa lortu nahi duten enpresek edo erakundeek ezarritako betekizunak bete behar harko ditu, eta desgaitasuna duten pertsonen emango dizkien zerbitzuak zehaztu, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izateaz gain.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Administrazio jardueraren beste alor batzuetan bezala, hemen ere arazoak sortu dira zerbitzu publikoen funtzionamenduak eraginda.



II. atala

15

Hirigintza eta
lurralde antolamendua

1. Arloa kopurutan

Hirigintza eta lurralde antolamenduaren arloak euskal botere publikoen jardunari lotutako erreklamazioak hartzen ditu barne. Honako hauetan esku hartzen dute botere publikoek: herri eta hirietako lurralde antolamenduan, lurzoruaren hirigintza-eraldaketako prozesuetan, hura urbanizatuz eta erakiz, eta hirigintza legeria zaindu eta babesteko lanetan.








Hirigintza eta lurralde-antolamenduaren arloan jasotako kexak 101 izan dira guztira, hau da, aurkeztu diren erreklamazio guztien % 4,26. Eragindako administrazioen arabera, kexak modu honetan banatzen dira:

- Tokiko administrazioa 92
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) 2

Azpi-arloak, berriz, honakoak izan dira:

- Hirigintzako diziplina 61
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa 20
- Hirigintza arloko informazioa jaso ahal izatea 9
- Hirigintzako kudeaketa 5
- Lurralde antolamendua 4
- Irisgarritasuna 2

Arlo honetan jarritako kexen izapidetze-egoerari eta emaitzari dagokienez:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
144	44	100	41	33	9	17

Hirigintza arloko erreklamazioek hirigintza legezkotasuna babestera zuzendutako ahalmenak baliatzeari egiten diete erreferentzia. Kexak egin izanaren arrazoi nagusia da ez zaie la benetako erantzunik eman hirigintza araudia hausteagatik egindako salaketei. Kasu gehienetan, administrazioaren jarduerarik eza Arartekoan kexa izapidetu eta gero konpondu da. Beste kasu batzuetan, Arartekoak esku hartzeko eskaera egin da, administrazio publikoei gogorarazteko aurkeztutako salaketei erantzuteko betebeharra dutela. Beste kexa batzuek udal administrazioen betebeharrari daude lotuta, hain zuzen ere, jabeei higiezinak kontserba ditzaten eskatzeko betebeharrari. Ondare historiko eraikia defendatzearen aldeko interesa duten elkarte eta pertsonak egindako kexak nabarmendu behar dira.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Hirigintzako salaketei erantzun eraginkorra emateko betebeharra

Arlo honetako jarduketa nagusiak hirigintza diziplinako botereak gauzatzeari egiten dio erreferentzia. Hala, eskumena daukaten tokiko administrazioen jarduketarik eza planteatzen den gai zehatzak aipa daitezke. Aipa daiteke pertsona batek Arartekoren kontsiderazioaren mende zuela [Donostiako Udalaren](#) jarduketa, etxebizitzako fatxadaren trenkada bat eraitsi eta balkoiaren itxiera eta erabilerarako obregatik jarritako salaketa baten ostean hirigintza legezkotasuna berrezartzeko egina. Kexagileak behin eta berriz errepikatu zuen beharrezko neurriak hartu behar zirela hirigintza legezkotasuna benetan betetzeko terrazak ixteari dagokionez eta horrekin lotutako eraikigarritasunaren areagotzeari dagokionez. Hirigintza diziplinaren arloan, udal administrazioek eskumena dute hirigintza ikuskapenaren eta hirigintza lizentzien bidez hirigintza antolamenduak arautzen dituen jardueren gaineko kontrolean esku hartzeko. Horrenbestez, agintarien eta funtzionarioen betebeharrak utziezina da, [Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak](#) ezarritzen duenez, hirigintza diziplinako ahalmenak gauzatea.

Erantzuteko eta hirigintza legezkotasuna berrezartzeko neurri egokiak ezartzeko betebeharrak salatzailearen eta salatutakoaren artean egon litezkeen balizko liskarretatik bereizi behar da. Hirigintza lizentzien ezaugarrietako bat horien izaera neutroa da, hots, egoera edo eztabaida juridiko-privatuak alde batera utzita ematen dira; horrenbestez, alderdien arteko desadostasunak hirigintza arloko izapideetatik kanpo utzi behar dira. Horregatik, udal administrazio horrek, kasu bakoitzean ezarritako epeetan, agindu zaizkion ikuskaritza, egiaztapen eta kontrol ahalmenak gauzatzeko ezarrita dauden prozedurak hasi eta izapidetu behar ditu. Hirigintzako salaketak, hirigintza legezkotasunaren defentsaren inguruan dagoen ekintza publikoa erabiliz, administrazio espedienteak izapidetzea ekarri behar du, hirigintza legeriak ezarritakoari jarraituz eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko [urriaren 1eko 39/2015 Legearen](#) aurreikusitako arauekin bat etorritik. Ildo horretan, salatutako kontuak aztertu ondoren, organo eskudunak baloratu behar du dagokion hirigintza diziplinako espedienteak abiarazi behar ote den, edo, bestela, eskatzailearen nahia gaitzesen duen ebazpena emanda amaitu beharko du bere jarduna. Aurrekarietan aipatu diren [Donostiako Udalak](#) hasitako jarduerak baztertu gabe, gogorarazi behar da partikularrek aurkeztutako salaketak, eskaerak, kexak eta abar hirigintza araudian aurreikusitako moduan bideratu behar direla, hariak eta hirigintzako legeria leheneratu arte. Hori horrela, udalak berriaz erantzun behar izan zion kanpoko trenkadan gauzatutako obrei eta eraikigarritasuna areagotzeari buruzko salaketari, hirigintzako legerian aurreikusitako epeen barruan. Arartekoak, [2019ko apirilaren 1eko ebazpenean](#), Donostiako Udalarik gomendatu zion erantzun eraginkorra emateko hirigintza lizentziarik gabe bakoikiak ixteagatik jarritako salaketei.

Beste kasu batean ere Arartekoa Donostiako Udalarekin harremanetan jarri zen, [2019ko maiatzaren 16ko Ebazpenaren bidez](#), bi trasteleku etxebizitza gisa klandestinoki erabiltzeari buruzko salaketa bati erantzutea gomendatzeko.

2.2. Artziniegako Mendieta auzoan tokiko ondarearen kontserbazioa bermatzeko udal betebeharrak

Beste erreklamazio batean, herritar batek Arartekoari adierazi zion [Artziniegako Udalak](#) ez ziola erantzun udalerririk horretako bi higiezin kontserbatzeko eskaera bati: Tejerakoa, Barratagurengo auzoan, eta Santo Tomas eliza, Mendieta auzoan. Zehazki, kexagileak udal horri esku hartzeko eskatu zion, higiezin horiek eskatzen duten kontserbazio obrak gauzatzeko agindua eman zezan. Idatzian aipatu duenez, [Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Saileko Kultura Ondare Sailak](#) txosten batean aitortu zuen interesgarria zela udal horri helaraztea higiezin horiek kontserbazio egoera txarrean zeudela. Higiezin horiek udalaren katalogoan *"berariazko kontserbazioa"* gisa sartuta daude. Txostenean jasotzen zenez, udalaren eskumena da jabeen eskatutako kontserbazio eta mantentzeko neurriak gauzatzeko aukera erabakitzea, hirigintza arloko legeriak ezarritako baldintzetan. Udalak erantzun egin zuen, eta nabarmendu zuen salatutako jarduketak ordura arte ezin izan zela

kontuan hartu, lan-karga eta baliabide mugatuak zirela eta. Nolanahi ere, txostenak ez zuen ematen kexagilearen eskaerari buruz udalak emandako erantzunaren berririk, ezta beranduago gai horri buruz egindako administrazio jarduketaren berririk ere. Hirigintza diziplinaren arabera, lursailen jabeek segurtasun baldintza egokietan izan behar dituzte lursailak, osasungarritasunerako, apaintasun publikorako eta pertsonentzako zein gauzetarako arriskuak saihesteko. Ahalmen hori Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko aipatutako [2/2006 Legearen](#) 199. artikulua ezartzen du. Xedapen horrek, [2/2006 Legearen](#) 203. artikulua dagokionez, adierazten du tokiko administrazioek betearazteko aginduak emateko betebeharrak dutela jabeen honako hiru ezartzeko: eraikin eta eraikuntza narriatuak edo bidezko erabilerarako baldintza eskaseta daudenak konpontzeko, kontserbatzeko eta birgaitzeko obrak gauzatzeko. Kasu honetan, udal administrazioaren eskumena da espediente egokiaren bitartez egin beharra beteko dela bermatzea eta, behar diren txosten teknikoak bildu ondoren, higiezinaren jabeen eragiten dioten betearazpen aginduak ematea. Betearazteko aginduak hirigintza legedian xedatutako prozedurarekin bat eginez ezarri dira eta izaera betearazlea daukate. Arrazoirik gabe betetzen ez badira, administrazioak, betetzen direla bermatzeko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko [2/2016 Legearen](#) 203. artikuluan xedatutako neurriak har ditzake (betearazpen subsidiarioa, hertsapen-isunak, etab.). Testuinguru horretan, higiezinak kontserbatzeko eta mantentzeko legez eska daitezkeen eginbeharrak bete daitezkeen emandako betearazteko aginduei jarraitzen zaiela bermatzeko eskumen utziezina du udal administrazioak. Azkenik, [Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Lege](#) berriak (2019ko maiatzaren 29tik indarrean dagoenak) helburutzat du Oinarrizko Babesa duten Ondasunen EAEko Erregistroan inskribatutako kultura ondasunak kontserbatzeko betebeharrak arautzea. Lege horren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondasun higiezin bat oinarrizko babeseko kultura ondasun izendatzen da udaleko hirigintza plangintzan indarrean dauden dokumentuen katalogoetan sartzearen ondorioz. Xede horrekin, Eusko Jaurilaritzako hirigintza arloko sail eskudunak kultura ondasunaren arloko sail eskudunari udaleko hirigintzako plangintza onartzeko ebazpenen berri emango dio. Horrenbestez, adierazpen horren ondoren Oinarrizko Babesa duten Kultura Ondasunen EAEko Erregistroan inskribatuko da. Oinarrizko babeseko kultura ondasunen araubideari dagokionez, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 45. artikuluan aipatzen da udalaren hirigintzako araudian ezarritakoa izango dela: *"inola ere ezin izango da eraitsi, ez guztiz, ez partzialki"*. Bestalde, 29. artikulua ezartzen du oinarrizko ondasunen erregistroan inskribatutako kultura ondasunen jabeak *"derrigortuta daudela horiek kontserbatu, zaindu, babestu eta behar bezala erabiltzera, hirigintza eta kultura ondare arloan indarrean dagoen legeriak ezarritako terminoetan, osotasuna bermatzeko eta galtzea, suntsitzea edo narriatzea ekiditeko"*. Titularrek kontserbazio betebeharrak betetzen ez badituzte, foru aldundiek, ofizioz edo kultura ondarearen eskumena duen Eusko Jaurilaritzako sailak hala eskatuta, honako hiru agindu ahaliko dute: *"Ondasuna galtzea ekiditeko edo horren gain eragindako kalteak leheneratzeko beharrezkoak diren neurriak egikaritzea"*. Horrez gain, ezartzen da eskumena duen foru aldundiak zuzenean egin ahal izango dituela ondasunaren osotasuna bermatzeko luzatu ezin diren beharrezko esku-hartzeak.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak Artziniegako Udalari [2019ko abuztuaren 1eko ebazpena](#) helarazi zion. Horren bidez, gomendatu zion egindako eskaerari erantzun ziezaiola, eta dagokion administrazio espedientearen abiaraz zezala Barratagurengo auzoko Tejerako eraikuntzen eta Mendieta auzoko Santo Tomas elizaren kontserbazio egoera ebaluatzeko.

2.3. Landetxe bat eraikitzeko hirigintza lizentzia ukatu izana behar bezala arrazoitzeko beharra

Pertsona batek Arartekoari jakinarazi zion [Getariako Udalak](#) ez ziola erantzun udalerrri horretako lurzoru urbanizaezinean nekazaritza-turismoko erabilera izango zuen landetxe bat egiteko lizentzia eskaera bati. Udalaren lehenengo txostenean adierazten zen eraikin hori lehendik dagoen beste bat handitzeko zela jotzen zuela udalak, eta erabilera onargarria zuen jarduera finkatua zeukala, nekazaritza eta abelazkuntzako erabilera, hain zuzen. Arrazoi hori dela eta, eraikitzeko proiektua onartu ahalko zen arau subsidiarioetan agindutako baldintzak betez. Aldiz, udal arkitektoaren bigarren txostenak soilik erantzun zuen planteatutako eraikuntza berria ezin zela baimendu, ez zelako beharrezkoa, kokapenaren esparrua babestuta dago eta.

Hirigintzako lizentziak arauzko egintzak dira, eta obrak hirigintzako legeriari eta udalerriko hirigintzako araudiari egokitzen zaizkien egiaztatzea dute xede. Gauzak horrela, udalak esku hartzeko duen eremuak ahalbidetzen du soilik hirigintzako legezketasunaren kontrol bat egitea, eta horren aurreko kontrola Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 210. artikuluan jasota dago. Hauxe ezartzen du arau horrek: *“Lizentzia eman baino lehen, udal zerbitzuek nahitaezko txostena egingo dute eskatutako lizentzia hirigintzako legezketasunarekin bat datorren ala ez adierazteko”*. Hirigintzako lizentziak emateko prozedurari dagokionez, lege bereko 210.5 artikulua ezartzen du ukatzeko ebazpena arrazoitu egin behar dela eta proiektuarekin kontraesanean dauden hirigintza ordenamenduko arauak berriaz aipatu behar direla. Arauzko izaera hori dela eta, udalek ez dute diskrezionalitateko inolako tarterik hirigintzako lizentziak emateko. Hala, legezketasunaren eta legezko konfiantzaren printzipioa aplikatuz, administrazio eskudunak araudiak dioen moduan erantzun arrazoitu bat eman behar die epearen barnean eskatzaileen nahiei, bai egiten dituzten kontsultei, bai hirigintzako lizentzia eskaerei. Administrazio egintza arrazoitzea administrazio prozeduraren funtsezko betekizun bat da, eta arrazoi egokirik ez izateak ondorioak dakartza administrazio egintza legezketasunari egokitzeari dagokionez. Arrazoi egoki batek eskatzen du kexagilearen lizentzia eskaeran inguruabar garrantzitsu batzuk zuzen eta egoki baloratzea. Aztertzen ari garen kasuan, lizentzia ukatzeak ez du hirigintza eta ingurumeneko arauen balorazio egoki bat egiten; haiek eraikinaren handitzea arautzen dute lurzoru urbanizaezinean finkatutako eraikin baten nekazaritza-turismoko jardueraren erabilerarako, nekazaritza nahiz abeltzaintzako ustiapenerako baliatuko dena.

Hori dela eta, Arartekoak, [2019ko ekainaren 18ko ebazpenan](#), Getariako Udalari gomendatu zion landetxe bat eraikitzeko lizentzia eskaera ukatzeko erabakia baliogabetu zezala, eta espedientearen atzera eraman zezala aurkeztutako eraikuntza proiektuaren hirigintza bideragarritasuna eta nekazaritza eta ingurumeneko bideragarritasuna aztertzeko unera.

2.4. Hirigintza antolamendua Bizkaiko Errepideen Sektoreko Lurralde Planeko aurreikuspenetan jasotako bide azpiegiturara egokitzea

Leioako higiezin baten jabeak Arartekoaren kontsiderazioaren mende jarri zuen bere etxebizitzaren hirigintza egoera. Etxebizitza hori lehendik zeuden eraikin batzuen parte zen. Bada, horiek antolamenduz kanpo gelditu ziren Leioako udal planteamenduko aurreko arau subsidiarioak puntualki aldatu ostean. Hirigintza arloko erabaki hori hartu zen, hain zuzen ere, bazitekeelako [Bizkaiko Foru Aldundiak](#) sustatutako bide azpiegiturako proiektu batek ondorioak eragitea etxebizitza horietan. Antolamenduz kanpoko egoera hori gehitu zen, berriaz, eremu horretako antolamendua garatu zuen plan partzialean; izan ere, ezarri zen etxebizitzaren kokapena ez zela bateragarria bide sistema orokorra egikaritzearekin. Hala ere, kexagilearen esanetan, indarrean dagoen Leioako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) onestearen ondorioz aldatu egin zen hirigintza antolamendu hori. HAPOren behin betiko onespenez jasotzen zuen bide proiektu horren foru proposamenak gainbehera egin zuela eta beste konponbide batez ordeztu zela. Bada, konponbide horrek, foru organo eskudunak emandako informazioaren arabera, ez zion zuzenean eragingo bere higiezinari. Hori HAPOn islatu zen, komunikazio sistema orokorraren zehaztaperetan eraikin hori ez baitzen jaso antolamenduz kanpoko gisa. Bide-sareko aurreikuspenak aldatu arren, [Leioako Udalak](#) kexagilearen eskaerari erantzun zion esanez eraikin horrek antolamenduz kanpo jarraitzen zuela; gainera, zioen HAPOren aurreikuspenek eutsi egiten zirela antolamenduz kanpokotzat jotzeko jarrera, plan partzialeko antolamenduari eusten zitzaiolako. Bada, horrek antolamenduz kanpoko araudiaren baitan sartzen zuen eraikin hori eta, horrez gain, horren eraikuntza ez zen azaltzen HAPOren xehatutako antolamendu planoetan identifikatuta.

Eraikinaren antolamenduz kanpoko araubidea eraikin baten hirigintza egoera da, edo lurzoruaren erabilera, hirigintza plangintzaren araudi berri baten kontrakoa adierazten baldin badu. Araubidearen helburua da sendotzeko eta berregiteko obrak egiteko baimenik ez ematea, plangintzarekin bat ez datozen eraikinak finka ez daitezen, horien desjabetzearen balioa handitzea dakartelako. Nolanahi ere, hirigintza arloko erabaki horiek bereziki arrazoituta egon behar dute, eta interes publikoarekiko proportzionalak izan, hura baitute xede. Aldi berean, hirigintza araubide horrek jabeek ez die eragin behar kalte gehigarriak, hirigintzako kudeaketaren urraketa edo aurreikusitako sistema orokorraren egikaritzea luzatetik eratorritakorik.

Kasu honetan, eraikina dagoen lurzatiak honako sailkapen hau dauka gaur egungo HAPON: hiri-lurzorua, erabilera publikoko espazio libreko sistema orokorra, berdeguneak. Hala ere, eraikina ez dago antolamenduz kanpoko gisa berariaz grafiatuta HAPON antolamendu planoetan. HAPON aurrekusi da eremu horren antolamendu xehatuari heltzea aurreko plan partzialeko aprobetxamenduei buruzko xedapenei dagokienez, aprobetxamenduei, erabilerei, hirigintza baldintzei, jarduketa sistemei eta garapen nahiz egikaritze epeei buruzkoak. Hala ere, [Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen](#) 58.4. artikulua dioenez, zehaztu behar da HAPON plan partzialaren antolamendu xehatuaren indarraldiari eusten diola, baldin eta ez badu esaten HAPON berariaz jasotako egiturazko antolamenduko gainerako xedapenen aurkako ezer. Beraz, kontuan hartu behar litzateke egiturazko hirigintza antolamenduak bide-sare berriaren inguruan egindako zehaztapenak nagusitu behar zaizkiola aurreko bide-sarearen plan partzialean ageri den edozein aipamenei, plan partzial hori berrikusi ostean ondorioztatuta delako ez dagoela indarrean hirigintza antolamenduari buruzko araudian.

Horrez gain, adierazi behar da [4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak](#), Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoak, 15. eta 17. artikuluetan ezartzen duela bai lurralde plan partzialak eta bai lurralde plan sektorialak lotu egingo zaizkiela, beren baldintzen arabera, hiri antolamenduko planei eta horiek garatzeko araudiari. Bide azpiegitura berria Bizkaiko errepideen Sektoreko Lurralde Planean sartuta dago. Plan hori [apirilaren 15eko 8/1999 Foru Arauaren](#) bidez onetsi zen. Kontu hori garrantzitsua da, [Bizkaiko Errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauaren](#) 13. artikulua ezartzen duelako Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektoriale loteslea dela. Aldi berean, zehazten du udal hirigintza plan-gintza “ezinbestean” egokitu behar dela Bizkaiko errepideen Sektoreko Lurralde Planaren aurreikuspenetara.

Horregatik guztiagatik, [2019ko uztailaren 15eko ebazpenean](#) Arartekoak [Leioako Udalari](#) gomendatu zion [Bizkaiko Foru Aldundiko](#) Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailarekin koordinatzeko eta hirigintza antolamendua bide-sare berriaren aurreikuspenetara egokitzeko. Halaber, Arartekoak udalari gomendatu zion egokitzapen hori gauzatu arte, xehatutako antolamendu hori errepideen Sektoreko Lurralde Planeko aurreikuspenekin lotu behar dela, aurreko bide-sarearen indarraldia galtzeari dagokionez, eta HAPON egiturazko antolamenduko zehaztapenek prebalentzia izan behar dutela eraikuntza hori antolamenduz kanpokotzat jotzen ez duen bide-sare berriarekiko.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak (2019ko maiatzaren 29az geroztik indarrean dagoenak) zera xedatzen eta arautzen du: aintzat hartuak izateko eta belaunaldi arteko transmisiorako interesa duten kultura ondasunak kontserbatzeko betebeharra. Euskal kultura ondarea osatzen duten ondasunak hiru babes mailatan bereizten dira: babes berezia duten kultura ondasunak, babes

ertaina duten kultura ondasunak eta oinarrizko babesaren duten kultura ondasunak. Oinarrizko babesaren duten kultura ondasunen baitan ondokoak barne hartzen dira: udalen hirigintza dokumentuen katalogoan sartuta dauden eta Oinarrizko Babesaren duten Kultura Ondasunen EAeko Erregistroan inskribatuta dauden interes kulturalerako higiezinak.

Lege horren 29. artikulua ezartzen du kategoria bereziko, ertaineko eta oinarrizko kultura ondasunen jabeak “derrigortuta daudela horiek kontserbatu, zaindu, babestu eta behar bezala erabiltzera, hirigintza eta kultura ondare arloan indarrean dagoen legeriak ezarritako terminoetan, osotasuna bermatzeko eta galtzea, suntsitzea edo narriatzea ekiditeko”.

Titularrek kontserbazio betebeharrak betetzen ez badituzte, foru aldundiek, ofizioz edo kultura ondarean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak hala eskatuta, honako hau agindu ahal dute: “Ondasuna galtzea ekiditeko edo horren gain eragindako kalteak leheneratzeko beharrezkoak diren neurriak egikaritzea”. Horrez gain, ezartzen da eskumena duen foru aldundiak zuzenean egin ahal izango dituela ondasunen osotasuna bermatzeko luzatu ezin diren beharrezko esku-hartzeak.

Babes berezia eta babes ertaina duten kultura ondasunak lege horretan aurreikusitako babes araubidearen bitartez arautuko dira, bai eta ondasun bakoitzaren deklarazioan ezartzen den berariazko araubideren bitartez ere.

Oinarrizko babesaren duten kultura ondasunen araubideari dagokionez, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 45. artikuluan aipatzen da udalaren hirigintzako araudian ezarritakoa izango dela: “Inola ere ezin izango da eraitsi, ez guztiz, ez partzialki”.

Horiek horrela, Lege berri horrek bere babes eremuaren baitan barne hartzen ditu udal babesaren duten kultura ondasunak. Era berean, arlo honetan euskal administrazio publikoen arteko erakunde arteko kooperazio egokia sustatzeko mekanismoak barne hartu ditu. Hala, aipatu beharra dago Euskal Kultura Ondarearen Erakunde arteko Organoa sortzea aurrekusi duela, kultura ondarearen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo dena. Besteak beste, eginkizun hauek izango ditu: irizpide bateratuak eta jarduketan planak proposatzea euskal kultura ondarea zaintzeko eta bere balioa nabarmentzeko; euskal kultura ondarea babesteko eta kudeatzeko lanean inplikaturiko beste administrazioekin lankidetzara eraginkorra bultzatzea, eta euskal kultura ondarea sustatzeko koordinazio neurriak proposatzea. Halaber, organo honek parte hartzeko mekanismoak antolatuko ditu herritarrek kultura ondasunen babesaren proposatu dezaten.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Ekintza plan honetan jasotako ekimenek lotura zuzena dute ingurumen arloko planean sartutakoekin, bereziki

ingurumenaren eremuan jarduten duten elkarteekin izandako bilerekin dagokienez.

Aurretik aipatutako jarduketek gain, honako hauek ere aipatu behar dira:

4.1. Bilerak elkarte eta erakundeekin

2019an zehar Arartekoa harremanetan egon da hainbat talde eta elkarterekin, tartean Ekologistak Martxan, Irungo trenbide espazioaren hirigintza antolamenduaren proposamena dela eta.

Halaber, Arartekoa harremanetan egon da etengabe kultura ondarea babesteko interesa duten hainbat elkarterekin, besteak beste, [Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartearekin](#), ondare historiko eraikia babestearen inguruko arazoak helarazte eta hirigintza eta kultura araudia betetzen dela kontrolatze aldera.

4.2. Bestelako jarduerak. Jardunaldiak eta ikastaroak

Arartekoko ordezkari batek parte hartu du [Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren](#) Gipuzkoako ordezkariak antolatutako hiria berroneratzeari buruzko parte-hartze izaerako prozesuan. Bada, hainbat proposamen egin ziren ondare arkitektonikoan esku hartzeko gida bat egiteari buruz.

“[Bilbao Metropolitarrak 2035](#). Etorkizunera begira” proiektuaren “Itsasadarra eta sareak” lan-taldearen barruan gogoeta estrategikoari eta agertokien analisiari lotutako hainbat saiotan ere hartu du parte Arartekoak.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

– Beharrezkoa izaten jarraitzen du adierazteak hirigintzako legeriak jasotzen duela hirigintzako diziplinako eskumenak gauzatzeko udalek daukaten betebeharrak xedaezina eta utziezina. Kasu horretan, **agintari eta funtzionarioak behartuta daude** [Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak jasotako ahal horiek gauzatzeko aldera ezarritako](#)

prozedurak abiaraztera eta izapidetzerara, kasuan-kasuan aurreikusitako epean. Hirigintzako salaketan kasuan, udal administrazioek horiek dagokien administrazio espedientearen barruan izapidetzeko duten betebeharrak nabarmendu behar da. Ekintza publikoa gauzatzeko alde interesdunak jakinarazi behar da udalaren esku-hartzea artxibatu dela, kasu bakoitzean dagozkion ekintzak eta baliabideak erabili ahal izateko.

- Hirigintzako lizentziak arazuko egintzak dira, eta obrak hirigintzako legeriari eta udalerriko hirigintzako araudiari egokitzen zaizkien egiaztatzea dute xede. Hala, **Arartekoak bere ebazpenetan administrazio eskudunei gogorarazi die araudiak dioden moduan, erantzun arrazoi-tu bat eman behar diela epearen barnean eskatzaileen nahiei**, bai egiten dituzten kontsultei, bai hirigintzako lizentzia eskaerei. Administrazio egintza arrazoitzea administrazio prozeduraren funtsezko betekizun bat da, eta arrazoi egokirik ez izateak ondorioak dakartza administrazio egintza legezketasunari egokitzeari dagokionez.
- Bestalde, azpimarratu behar da **eraikinen antolamenduz kanpoko araubidea eraikin baten hirigintza egoera dela, edo lurzoruaren erabilera, hirigintza plangintzaren araudi berri baten kontrako adierazten baldin badu**. Araudi horren asmoa da sendotzeko eta berregiteko obrak egiteko baimenik ez ematea, plangintzarekin bat ez datozen eraikinak finka ez daitezkeen, horien desjabetzearen balioa handitzea dakartelako. Nolanahi ere, hirigintza arloko erabaki horiek bereziki arrazoituta egon behar dute, eta interes publikoarekiko proportzionalak izan, hura baitute xede. Aldi berean, hirigintza araubide horrek jabeek ez die eragin behar kalte gehigarriak, hirigintzako kudeaketaren urraketa edo aurreikusitako sistema orokorren egikaritzea luzatzen eratorritakorik.
- Hirigintzako arloan, **eraikitako ondare historikoaren babesak Arartekoari egindako erreklaazioen xede izaten jarraitzen du**. Nabarmendu behar da oinarriko babesa duten kultura ondarearen araudiak, [Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen](#) 45. artikuluan jasotakoak, bere babes eremuaren baitan jasotzen dituela udal babesa duten kultura ondasunak. Eraikin horiek babestu egin behar dira, udalaren hirigintza araudian jasotako terminoetan, “eta inola ere ezin daitezke eraitsi, ez osorik, ez partzialki”. Era berean, arlo honetan euskal administrazio publikoen arteko erakunde arteko kooperazio egokia sustatzeko mekanismoak gehitu ditu lege horrek.





II. atala

16

Etxebizitza

◀ Aurrekoa ikusi

1. Arloa kopurutan




2019an, atzera botatuko edo beste defentsa erakundeetara igorritako kexak alde batera utziz gero, Etxebizitza arloan 123 espediente kudeatu dira, hau da, Arartekoaren erakundeak izapidetutako guztien % 5,19. Dagokien administrazioen arabera, honela banatu daitezke espediente horiek:

- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)..... 82
- Tokiko Administrazioa..... 26

Bestalde, gaia kontuan izanez gero, honela banatu dira:

- Etxebizitarako sarbidea: premia frogatzea eta esleitzeko prozedura..... 46
- Etxebizitza babestuaren alokairua..... 36
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa..... 26
- Beste alderdi batzuk..... 7
- Kalteak etxebizitza babestuetan eraikitze akatsengatik... 5
- Herritarren eskubideak..... 2
- Etxebizitza erosi eta birgaitzeko laguntzak..... 1

2019an kudeatutako erreklamazioen tramitazio xehetasunari dagokionez, dela 2019an jasotakoak dela 2019ko urtarillaren 1ean, txosten hau idazten hasitakoan, indarrean jarraitzen zutenak kontuan izanez gero, hau da arloko egoera:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
152	77	75	17	23	23	12

Aurreko ekitaldiekin alderatuta, Ararteko erakundearen etxebizitza arloak ez du berritasun handirik izan herritarrek kexa edo kontsulta moduan helarazi dituzten kontu garrantzitsuen gainean. Babes publikoko etxebizitarako edo zuzkidura bizilekurako sarbide kontuek hartzen dituzte erreklamazio gehien, bai eta errentarien eta administrazio nahiz erakunde publiko errentatzaileen arteko eztabaidek ere.

Jaso diren kexen izapidetze egoerari dagokionez, nabarmendu beharra dago Arartekoak administrazio eta erakunde publikoei aurten bidali dizkien gomendio eta iradokizun gehienak onartu egin direla.

Hala ere, Ararteko 2019. urtean aztertu dituen kexa gehienek etxebizitza duin, egoki eta eskuragarria eskuratzeko arazo larriak dituzte abiapuntu.

Halaber, kexa ugari jaso dira, etxebizitza arloko lurraldeordezkaritzek “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzailen Erregistrotik kentzea erabaki dutela salatzen.

Oro har, arlo horretan diharduten administrazioek modu onargarrian bete dute Arartekoarekin elkarlanean aritzeko betebeharra. Hala ere, erakunde honek bere lana egiteko oztopoak topatzen ditu oraindik. Arazo ugariak erantzunak bidaltzean izaten diren atzerapenetatik datoz, eta, gainera, erantzun horiek batzuetan ez dira nahikoak.

Halaber, aipatu behar da [Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak](#), herritarren erreklamazioei eta Arartekoaren eskaerei erantzuteko, egunero egiten duen ahalegina.

Edonola ere, Arartekoak gogorazai behar du bere eskaertan azaltzen diren kontuei epean ez erantzutea edo erantzun eskasak ematea oztopo handia dela legez esleitutako eginkizunak behar bezala betetzeko; gainera, horrek modu larrian kaltetzen ditu erakunde honetara jotzen duten pertsonen eskubideak.

Azkenean, egoera testuinguruan jartzeko, Arartekoak kezkatuta dago egiaztatu baitu, Eusko Jaurlaritzak prestatu eta pasa den azaroan argitaratu zuen “[Euskal Soziometroarekin](#)” bat, herritarrentzat etxebizitza eskuratzeko bigarren arazo garrantzitsuenak da Euskal Autonomia Erkidegoan, soilik lan-merkatuari lotutako arazoak atzetik.

2. Kexarik aipagarrienak

Aurreko urteetan bezala, etxebizitza arloa osatzen duten gaien sailkapena kontuan hartuta, herritarren erreklamazioetan azaldu diren kontu nagusiak aztertuko dira.

2.1. Etxebizitzarako sarbidea: premia frogatzea eta esleitzeko prozedura

Aurten, aurreko urteetan bezala, behin eta berriz azaldu dira honako honi buruzko kekek eta kontsultak: urgentziaz babes publikoko etxebizitza bat alokairu erregimenean behar dutela, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ez diela behar bezala erantzuten haien eskaerei.

Kexa-idazkietan, kexagileek agerian utzi dute “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emanda urte asko eraman arren, ez zaiela etxebizitzarik esleitu, eta, diru-sarrera txikiak dituztenez, ezin dituztela alokairu pribatuko prezioak ordaindu.

Etxebizitza berehala eskuratzeko premia herritarrek kexa moduan helarazi diete Bilboko Udaleko Etxebizitza Arloari atxikitako Tokiko Erakunde Autonomoari eta Etxegintzari (Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoari).

Izan ere, [Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak](#) emandako datuen arabera, gaur egun, 65.000 pertsona baino gehiago daude inskribatuta “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan, eta horietatik 55.000 baino gehiago eskatzen dute etxebizitza bat alokairuan, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Datu horrek agerian uzten du administrazio publikoen eskutan dauden etxebizitza publikoen kopurua askoz ere txikiagoa da herritarrek behar dituzten etxebizitzaren kopurua baino.

Gainera, gai horri dagokionez, Arartekoak ikusi du etxebizitzaren premiari buruzko kexa askotan titularrak eskubide subjektiboa —etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko— aitortua izan arren, eskubide hori ez zela eraginkortasunez bete, hau da, ez zitzaizela benetan etxebizitza bat esleitu.

Gauzak horrela, erakunde honek 2019. urtean jaso dituen kexen eta kontsulten kopuruak konstante bat adierazten du babes publikoko etxebizitza alokairu-erregimenean eskuratzeko premiaren planteamenduan. Hori guztia dela eta, Arartekoak jakin badaki etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa behar bezala betetzeko, herritarren eskari horrekin bat datorren ahalegina egin behar dela, aurrekontuari dagokionez.

Egoera horri dagokionez, komeni da [Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 7.4](#) artikulua aipatzea. Artikuluak ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzak eta administrazio publikoek etxebizitza arloan eskura dituzten baliabideak batez ere alokairu-erregimeneko etxebizitzak sustatzera bideratu behar dituztela, kolektibo behartsuenei begira. Horrela, artikulua arabera, birgaitze-lanak egitera bideratutako baliabideak salbu, etxebizitza arloko baliabideen % 80 alokairuaren inguruko politiketara bideratu behar dira. Gainera, ehuneko hori % 100era igoko da 2020ra arte, lege beraren laugarren azken xedapenarekin bat.

Azkenik, etxebizitza bat adjudikatzeko baldintzak egiaztatzea eta adjudikazio-prozedura dela eta helarazitako kontu

bereziei dagokienez, Arartekoak eskertu nahi du Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren laguntza kexa-espeditente bat izapidetzean. Espeditentea amaitzeko, [Arartekoaren 2019ko ekainaren 7ko ebazpena](#) eman da.

Hain zuzen ere, helarazitako erreklamazioan, kexagileak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen babes publikoko etxebizitza egokitu bat erosteko salerosketa-kontratu batean oniritzia ematea ukatu ziotelako, ezin baitzuen behar bezala egiaztatu bizi zen etxebizitzaren irisgarritasunik eza.

Ildo horretan, Arartekoa harremanetan jarri zen [Gutxitasun fisikoa edota organikoa duten Bizkaiko pertsonen Federazio Koordinatzailearekin \(Fekoor\)](#), etxebizitzaren irisgarritasuna balora zezaten, sailak eskatzen dituen baldintzak betez.

Azkenik, egiaztatu zen korridoreak estuak zirela, kexagilea ez zela harraskara helden, eta aulkia eskailera buruan utzi behar zuela, ezin zelako aulkian etxera sartu.

Hori guztia dela eta, Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak helarazi zion Arartekoari ontzat ematen zituela herritarren kekek. Bide batez, konpromisoa hartu zuen babes publikoko etxebizitzaren salerosketa-kontratuari oniritzia emateko.

Azkenik, Arartekoak aukera izan zuen “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskatzen diren baldintzei buruz daukan iritzia adierazteko, [Arartekoaren 2019ko urriaren 7ko ebazpenean](#). Hain zuzen ere, kexa erakunde honetan izapidetu ondoren, Etxebizitzako sailburuordeak kexagilea alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen eskatzaileen zerrendan sartzea erabaki zuen, etxebizitzarik ez duela egiaztatzeko betebeharretik salbuetsi ondoren, hain zuzen, genero-indarkeriaren biktima izateagatik eta azaldu duen arriskua dela eta.

2.2. Etxebizitza babestuaren alokairua

Aurten (2019. urtean), batez ere errentarien eta administrazio eta erakunde publiko errentatzaileen arteko eztabaiek, aurreko urteetan bezala, eragin dituzte Arartekoaren erakundeak etxebizitza arloan izapidetu dituen kexa ugari.

Hala, berriz ere azaldu dira aldean artean sortzen diren desadostasunak, etxebizitzan egin behar diren konponketak eta ordaindutako zenbatekoa egozte dela eta. [Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 21.1](#) artikulua, oro har, errentatzaileari ezartzen dio etxebizitzan behar diren konponketak egiteko betebeharra. Arartekoaren iritzi, hori Kode Zibilaren 1554.2 artikuluan agindutako arau orokorren zehaztapena da. Hain zuzen, aipatu legearen 21.1 artikulua ezartzen du, oro har, errentatzaileak egin behar dituela “*etxebizitzan beharrezko diren konponketa guztiak, beraren gain hitzartu erabileraren bizigarritasun-baldintzak gordetzeko.*” Laburbilduz, esan daiteke Hiri Errentamenduei buruzko Legearen 21. artikulua aipatzen dituen konponketak direla errentan dagoen etxebizitzan gertatutako narriadurak edo kalteak konpontzeko helburua duten obrak edo lanak. Hau da, etxebizitza erabiltzeko moduan mantentzeko

ezinbestean egin behar direnak; haiek egiteko beharra izan daiteke denbora igarotzearen ondorioa, gauzen berezko higaduraren ondorioa, errentamendu-kontratuan hitzartutakoaren araberako erabilera egokiaren ondorioa, edo usetekabeek edo halabeharrek eragindako gertaeren ondorioa, eta barne hartzen dituzte etxebizitzako elementuren bat konpontzea, berritzea edo ordeztea eskatzen duten kasuak. Azken batean, egin beharreko konponketak dira etxeaz gozatzeko ezinbestekoak direnak.

Arartekoaren iritziz, errentariari ezartzen bazaio kontratua amaitzean etxebizitza jaso zuen bezalaxe itzultzeko betebeharra, bidezkoa da errentatzaileari ezartzea kontratuaren indarraldian zehar etxea hitzartutako erabilerarako egoera egokietan mantentzeko beharrezkoak diren konponketak egiteko betebeharra.

Gaia [Arartekoaren 2019ko apirilaren 15eko ebazpenean](#) azaldu zen. Erakunde honek ez du erantzunik jaso, hainbat jarduketa burutu arren.

Hala ere, [Arartekoaren 2019ko urriaren 9ko ebazpenean](#), Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, Alokabide sozietate publikoaren bitartez, onartu zituen Arartekoaren gogoetak eta “Bizigune” Etxebizitza Hutsen Programan dagoen etxebizitza batean ur-berogailu elektrikoa aldatzeagatik igorritako faktura ordaintzea erabaki zuen.

Aurten, berriz ere, erakunde honek aipatu egin nahi du [Alokabide](#) sozietate publikoak emandako laguntza; izan ere, babes publikoko etxebizitzaren eta “Bizigune” Etxebizitza Hutsen Programan sartutako etxebizitzaren errentariak aurkeztutako desadostasun asko ondo konpontzen lagundu du.

Hala ere, babes publikoko etxebizitza errentan hartzen duten baina, etxebizitzak familia-unitateko kideko 15 m²-ko ratioa betetzen ez duenez, etxebizitza duin, egoki eta ekonomikoki eskuragarria izateko eskubide subjektiboa bete ez dela uste duten pertsonen kexek ere aipamen berezia me-rezi dute aurten.

Arartekoak aurreko urteetako txostenetan dagoeneko ohar-tarazi zuenez, gero eta handiagoa da etxebizitza babestuen parkeko etxebizitza aldatzeko eskatzen zuten errentariaren eskaeren kopurua, eta “etxebizitza-ibilbideei” buruzko araudi berria ezarri beharko litzateke, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 39. artikuluan agindutakoaren babesean.

Aurten, Arartekoak egiaztatu du, gainera, kexagileetako batzuen etxebizitzek ez dutela betetzen legez ezarritako ratioa (bizikidetz-unitateko kide bakoitzeko eskatzen den metro kopurua); era berean, egiaztatu da gehiegizko okupazioa dagoela eta urratzen ari dela etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea.

Kontu zehatz horri dagokionez, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du bai etxebizitza arloko lurralde-ordezkaritzek, bai Alokabide sozietate publikoak eta Bilboko Udaleko “Udal Etxebizitzak” toki-erakunde autonomoak, funtsean, banan-banan azter ditzaten gehiegizko okupazioaren zergatiak, eta

beste etxebizitza bat esleitzen, ahalik eta lasterren. Hori guztia, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubide subjektiboa betetzea bermatzeko, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen xedapenak betez.

Laburbilduz, etxebizitza babestuen parkeko etxebizitza aldatzeko eskatzen zuten errentariaren kopurua gero eta handiagoa dela ikusita, erakunde honek ohartarazi nahi du “etxebizitza-ibilbideei” buruzko erregulazio berria ezarri behar dela, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 39. artikuluan agindutakoaren babesean. Halaber, sumatzen denez, komenigarria izango litzateke administrazio publikoek, logela-premiari lotutako beste egoera batzuei erantzuna ematea alde batera utzita, behar diren baliabideak jartzea, etxebizitza babestuaren ibilbideak gauzatu daitezkeen eta gizarte alokairuko etxebizitzak pertsona eta familia errentariaren beharrei egokitu daitezkeen lortzeko, bizitzako etapa guztietan.

Azkenik, behin eta berriz agertzen diren arazoetako bat hau da: Alokabide sozietate publikoak ez duela bermearen zenbatekoa itzultzen, errentamendu-kontratua amaitu eta gero. Bermeak itzultzeari uko egitea justifikatzeko, honako arrazoi hauek erabiltzen dituzte: errenta-zenbateko batzuk edo antzekoak ordaindu ez izana; edo etxebizitzan gabeziak eta kalteak egotea, errentari orok bere gain hartzen duen betebeharra —etxebizitza egoera onean mantentzeko— ez betetzea agerian uzten dutenak.

Arartekoaren esku-hartze askotan, Alokabide sozietate publikoak aditu gaituek egindako txosten teknikoak igorri ditu. Txosten horietan egiaztatu egin da egindako atxikpenaren arrazoiak. Hala ere, Arartekoak behin baino gehiagotan aipatu duenez, errentariak helarazitako alegazioak ikusita, komenigarria izango litzateke Alokabide sozietate publikoak, alokairu-kontratua amaitu aurretik, jakinaraz dezaten zer-nolako konponketek, oro har, ekar dezaketen utzitako bermea ez itzultzeko erabakia hartzea, kontratuan onartutako betebeharrak bermatze aldera.

2.3. Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Arartekoak egiaztatu du gero eta kexa gehiago jasotzen direla honako gai honen inguruan: lurralde-ordezkaritzek “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistrotik kentzea erabakitzen dutela, eskatzaileak babes publikoko etxebizitza bat alokairu-erregimenean esleitzeko proposamenari espresuki erantzuten ez badio edo entzunaldi-izapideari erantzuten ez badio, administrazio-egintza aurrez aurre jakinarazi ezin delako.

Hori dela eta, Arartekoak hainbatetan adierazi du sailak, esleipenduna “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistrotik kendu baino lehen, pertsona horren nahia eza-gutzeko ahalegindu behar duela.

Arartekoaren iritziz, jakinarazpen guztien azken helburua aktaren edukia interesdunari helaraztea da; betiere bermatu

behar da defentsa-gabeziarik eza eta erantzuteko aukera, eta formaltasunek helburu horren zerbitzura egon behar dute.

Ildo horretan, Arartekoak azpimarratu du sailak bere esku dauden ahalegin guztiak egin behar dituela “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dagoen interesdunaren helbidea jakiteko. Horretarako, Arartekoak gogorarazi du izena emateko espedientean, jakinarazpenak egiteko helbideaz gain, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoko bat ere agertzen direla. Gainera, askotan, erregistroan izena eman dutenek bide telematikoa aukeratzeko dute sailarekin harremanetan egoteko lehentasunezko modua hautatzerakoan.

Azaldutako guztia dela eta, “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistrotik kentzeak dakartzan ondorio larriak kontuan hartuta, Arartekoak jakinarazpena ediktu bidez egiteari buruz daukan iritzia berri eman dio sailari eta, interesdunaren helbidea ezagutzeko, eskatzen den arduraz joka dezan gomendatu dio. Kasu gehienetan, nahikoa izango litzateke espedientean bertan jasotako harreman-datuak begiratzea. Iritzi beraren alde egin zuen Konstituzio Auzitegiak, [martxoaren 13ko 65/2000 Epai](#)n. Izan ere, eskatzaile bati babesa eman zion, erabaki baitzuen administrazioak eskatzailearen helbidea ezagutu behar zuela, espedientean telefono-zenbakia jasota zegoelako.

Azaldutakoaren ildotik, sailak, [Arartekoaren 2018ko azaroaren 29ko ebazpenari](#) erantzunez, helarazi dio erakunde honi, egindako gogoetetan oinarrituta, pertsona bati zuzendutako jakinarazpenak egiteko ohiko bideak hobetzea erabaki dutela, eta horretarako, dagozkion telefono-deiak egingo dituztela eta bide telematikoz harremanetan jartzen saiatuko direla, baldin eta datu horiek espedientean badaude.

Horrela, herritarrek azken urteotan zehar behin eta berriz azaltzen zuten eskakizuna onartzea lortu du Arartekoak.

2.4. Herritarren eskubideak

Arartekoak urte horietan zehar hainbat aldiz adierazi du guraso bakarria izatea ez dagoela legean definituta. Familia-unitatearen kide diren pertsonen guraso bakarreko familia direla onartzeko edo izaera hori mantentzeko bete behar dituzten baldintzak ere ez daude zehaztuta.

Ildo horretan, Arartekoak Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren erabakiko desadostasuna adierazten zuen kexa bat jaso zuen, erakunde horrek, eskatzailea etxebizitzaren premia berezia duten kolektiboetako ez zela jo zuenez, eskaeran 10 puntu kendu zizkielako. Hain zuzen ere, Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak argudiatu zuen puntuak kendu zituela, bizikidetzaren unitatea osatzen zuen alabetako bat adin-nagusitasunera heldu zela egiaztatatu zuelako.

Kexa izapidetu bitartean, guraso bakarraren kontzeptuari dagokionez, sailek erabiltzen zuten definizioan hutsuneak daudela konturatu zen Arartekoak.

Hori dela eta, arlo horretan indarrean dagoen araudia aztertu eta konparatu ondoren, familia-unitate bat guraso bakarrekoa den ala ez esateko, seme-alaben mendekotasun ekonomikoa —ez bakarrik haien adina— kontuan hartu behar zela erabaki zuen Arartekoak.

Hori guztia dela eta, Arartekoak gomendatu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari, [Arartekoaren 2018ko urriaren 22ko ebazpenean](#) berrikerik zezan barne-irizpidea, eta sar zitzan izen-ematearen titularrak eta bere bizikidetzaren unitatea etxebizitzaren premia bereziko taldean, 10 puntu gehigarriak emanaz.

Gauzak horrela, orain dela gutxi, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak helarazi du onartu egiten duela jasotako gomendioa. Horrela, Arartekoaren esku-hartzea kontuan izanda, hemendik aurrera, sailak guraso bakarrekotzat joko ditu —eta, hortaz, baremazioan 10 puntu emango dizkie— kolektibo horrentzat ezarritako gainerako baldintzak betetzen dituzten eta 25 urtetik beherako seme edo alaba bat (gutxienez) daukaten bizikidetzaren unitateak.

Horretarako, sailak laster egingo du aldaketa bat aplikazio informatikoan, eta berriz kalkulatu du adina “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan dauden espediente guztietan.

Azken batean, Arartekoaren gogoetei jarraikiz, 25 urte arteko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familia-unitateei onartuko zaie etxebizitzaren premia berezia eta 10 puntu gehigarri emango zaizkie baremazioan, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak 2012ko urriaren 15ean emandako etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Aginduaren 51.1 artikulua betez.

Azkenik, etxebizitza duin eta egoki bat eman beharrean prestazio ekonomiko subsidiarioa aitortzeari dagokionez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak onartu egin ditu [Arartekoaren martxoaren 21eko ebazpenean](#) helarazitako gogoetak, eta egiaztatu du onartuko duela Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen eskubidea —prestazio ekonomiko hori jasotzeko—, etxebizitzarako prestazio osagarria etenda daukaten arren.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Etxebizitza arloari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren politikak, 2019koek eta 2020ra arte garatuko direnek, [Etxebizitzaren Gida Plana](#) izango dute jardura eremu.

Hala ere, arlo horretan jorratu behar diren kontu nagusiek, aurreko urteetan bezala, Etxebizitzari buruzko ekainaren

18ko 3/2015 Legearekin dute zerikusia. Legea urte bereko irailaren 26an jarri zen indarrean.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak ezarritako eskubidea -etxebizitza duin eta egokia izateko— babes publikoko etxebizitza edo zuzkidura-bizitoki bat alokairu-erregimenean eskura jartzean datza. Hala ere, egungo etxebizitza-parkearen mugak direla eta, eskubidea prestazio ekonomiko baten bidez gauzatzen da; prestazioak merkatu pribatuko etxebizitza bat izatea ordezkatu nahi du.

Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen [abenduaren 22ko 5/2017 Legearen](#) zortzigarren xedapen gehigarriarekin bat, 2019. urtean zehar, etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa gauzatzeko, beste urte batez, 250 euro ordaindu da, hau da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean ezarritako zenbatekoa.

Hala ere, Arartekoaren ustez, hileko zenbateko hori ezin da inola ere nahikotzat jo, merkatu pribatuko etxebizitzaren prezioak kontuan hartuta. Azaldutakoarekin bat, [alokairu-merkatuaren estatistikaren txostenetik](#) ateratako lehenengo emaitzek, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2019ko urriaren 3an argitara emandakoek, erakusten dute batez beste prezioa Euskal Autonomia Erkidegoan hilean 651 euro dela, eta 673 euro Gipuzkoako Lurralde Historikoan —batez besteko hileko errenta altuagoa denez—. Bizkaiko Lurralde Historikoan, aldiz, batez besteko hileko errenta 659 euro da; azkenik, Arabako Lurralde Historikoan 569 euro da.

Dena den, komeni da esatea lehenago aipatutako zenbatekoak askoz ere handiagoak direla Donostia eta Bilbo bezalako hirietan.

Prestaziorako eskubidea aitortzeko baldintzei dagokienez, oraingoaz, sailak laugarren xedapen iragankorra aplikatzen du (prestazio ekonomikorako eskubidea pixkanaka-pixkanaka aitortzea). Hala ere, Arartekoaren iritziz, etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa xedapen iragankor batez aitortu beharrean, erregelamendu bidezko garapenarekin osatu behar da behin betiko.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak dagoeneko 2017. urtean abiarazi zituen etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboa edo Etxebizitzako Prestazio Ekonomikoa delakoa garatuko duen [Dekretua](#) onartzeko behar diren izapideak.

Onartzeko agindua 2017ko uztailaren 6koa bada ere, dekretua onartu gabe dago oraindik ere. Ondorioz, Arartekoaren ustez, komeni da gogoraraztea Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua-aren erregistroan onartua izateko irizpideak aldatzeko neurriei buruzko [12/2017 Legez besteko Proposamenean](#), Eusko Jaurlaritzari eskatu ziola:

“...bederatzi hileko epean garatu dezala Etxebizitzaren 3/2015 Legeak jasotzen duen etxebizitza-eskubide subjektiborako irispidea arautzeko dekretua. Hori egin dezala

kolektiboari, gizarte-eragileei eta herritarrei oro har irekita egongo den herritarren parte-hartzerako prozesu baten markoan, eta ahal beste sentsibilitate eta kasuistika jasotze aldera”.

Adierazitakoa gorabehera, gaurdaino, etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboak ez du aplikatzeko moduko erregelamendu bidezko garapenik.

Egoera berdinean dago [jenderik gabeko etxebizitzaren arautzea](#) eta, ondorioz, benetan okupatuz eginkizun soziala betetzea lortzeko behar diren neurriak ezartzea ahalbide dezakeen araudi-garapena.

Dena den, aurten (2019. urtean), onartu egin da [irailaren 17ko 144/2019 Dekretua](#), Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) bitartekaritza-programa arautzeko dena. Horren edukia ikusita, aurreko bideari jarraitzen dion neurria da, etxebizitza pribatuak alokairu babestuan ematea helburu duena, eskura daitezkeen etxebizitzaren kopurua areagotze aldera.

Azkenik, orain dela gutxi, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren [2019ko abenduaren 10eko Aginduaren](#) berri izan du Arartekoak. Horren bidez, aldatu da [2018ko abenduaren 18ko Agindua](#) etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duena.

Ukapenen kopurua sailak aurreikusitakoa baino handiagoa izan den heinean, sailburuak, besteak beste, gehieneko errentak aldatzea eta orain arte ezarritako adin muga (23 urte) 18 urtera jaistearen erabaki du.

Hala eta guztiz ere, beste urte batez, Arartekoak kezkatuta jarraitzen du Euskal Autonomia Erkidegoan [hipoteka betearazi dieten pertsonen eta etxetik botatakoen](#) kopuruarekin. Horietako askok, gainera, ezin izan dute hileko alokairua ordaindu.

Egoera tragiko horren aurka borrokatzeko asmoz, martxoaren 5ean, etxebizitzaren eta alokairuaren arloko presako neurriei buruzko [7/2019 Errege Lege Dekretua](#), [martxoaren 1ekoa](#), argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, besteak beste, Prozedura Zibilarren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen duena, arlo horri dagokionez.

Aurrekoa, hau da, abenduaren 14ko 21/2018 Errege Lege Dekretua, ez bezala, 7/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, baliozkotu egin zuen Diputatuen Kongresuaren Diputazio Iraunkorrek, 2019ko apirilaren 3an, hiri-errentamenduei buruzko erregulazioa aldatzeko behar diren inguruko adostasun politikoaren ondorioz, 4/2013 Legeak, ekainaren 4koak, etxebizitzak alokatzeko merkatua malgutzeko eta sustatzeko neurriei buruzkoak, ezarritako aldaketak leheneratzeko.

Martxoaren 1eko 7/2019 Errege Lege Dekretua emateko arrazoiak, batetik, honako hauek dira: alokairu-prezioen igotzea neurrigabea, errentak ordaintzeko zailtasunak (batez ere kolektibo zaurgarrienen kasuan) eta etxegabetze-prozesuen

ondorioz etxetik botatako pertsonen kopurua handitzea; eta bestetik, etxebizitza sozialik eza eta alokairuaren merkatuko eskaintza nahiko eta profesionalizaturik eza.

Izan ere, Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko [Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordeak 2017ko ekainaren 20ko irizpenean](#), urratutzat jo zuen adingabeek osatutako bizikidetzta-unitate baten eskubidea —etxebizitza egokia izateko—, Espainiako estatuak, ezta autonomia-erkidegoko agintariek ere, etxebizitza utzarazteko prozedura judiziala amaituta, beste bizitokirik bermatu ez zutelako.

Hori guztia dela eta, Prozedura Zibilaren [urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean](#), 441.5 ter artikulua gehitu da. Horretan, esanbidez xedatu da salatuari gizarte-zerbitzuetara jotzeko aukera jakinarazteko betebeharra, eta, hala badagokio, haiei datuak uztea baimentzeko aukera, kalteberatasun egoera den azter dezaten. Laburbilduz, artikulua horrek espresuki xedatzen du etxe-gabetzea geldiarazteko ahalmena, gizarte-zerbitzuek egokitzen dituzten neurriak —beste bizitoki bat aurkitzeko— abian jarri arte. Etenaldia gehienez hilabetekoa, edo, eskatzailea pertsona juridikoa bada, bi hilabetekoa izango da, organo judizialak gizarte-zerbitzuen jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Hain zuzen ere, ohiko etxebizitza utzarazteko prozeduretan —batez ere, familia zaurgarriekin zerikusia dutenetan— erabaki judizialen eta gizarte-zerbitzuen jardunaren arteko koordinazioz ezaren ondoriozko arazoak saihesteko, [apirilaren 4ko 33/2019 Ebazpena](#) onartu zen. Horren bidez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDL) arteko lankidetzta-hitzarmena gehitu zen, etxebizitza familiarretik botatzea dela-eta kalteberatasun egoerak hauteman eta izaera sozialeko neurriak hartu ahal izateko.

Ondorioz, jardun-protokolo bat ezarri da, dagokion ebazpen judizialak etxebizitzatik botatzea agintzen duen prozedura guztietan aplikatzeko, etxebizitzan bizi diren pertsonak kalteberatasun bereziko egoeran badaude.

Horretarako, ezinbestekoa da gizarte-zerbitzuek parte hartzea; izan ere, bizikidetzta-unitatearen egoera baloratu behar dute, eta, tartean dauden gainerako erakundeekin koordinatuta, ordezko bizitoki bat bermatuko diote bizikidetzta-unitateari.

Azaldutako guztia gorabehera, Arartekoa kezkatuta dago, babes publikoko etxebizitzarik eta zuzkidura-bizitokirik ezak, batzuetan, kalteberatasun bereziko egoeran dauden bizikidetzta-unitateei ordezko bizitoki bat bermatzea oztopatzen duela ikusita.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziozko jarduerak

Etxebizitza arloko planaren garapenari dagokionez, aurrean, jarraitu egin da ofiziozko hiru jarduketari loturiko izapideekin; jarduketa horietan, Arartekoak eskatu zien Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei bakoitzak bere batzar nagusian ondasun higiezinaren gaineko zergaren erregulazioa aldatzeko aukera azter zezan, udal etxebizitza bat alokairuan hartuta daukatenek zerga hori ordaindu behar ez izateko.

Bestaldetik, Arartekoak jarraitzen du izapidetzen hainbat kolektibo eta gizarte-erakunderen kexak, talde batzuek —batez ere, gutxiengo etnikoek eta kulturalak— sektore pribatuan etxebizitza bat eskuratzeko izaten dituzten zailtasunen berri ematen dutenak.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (25.1 artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (11.1 artikulua) eta bai Oinarrizko Eskubideen Gutuna (34.3 artikulua) bat datoz etxebizitzak alde soziala duela, pertsonen eta familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.

Era berean, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordeak dagoeneko 1991. urtean adierazi zuen [etxebizitza egokia izateko giza eskubidea oinarrizko eskubidea dela](#), eskubide ekonomiko, sozial eta kultural guztiak gozatzen oinarria dela, eta beste eskubideei lotuta dagoela, bere osotasunean. Halaber, agerian utzi zuen etxebizitzarako eskubidea pertsona guztiei bermatu behar zaiela, haien diru-sarrerak edo baliabide ekonomikoak eskuratzeko aukerak edozein direla ere.

Arartekoaren erakundeak, beste urte batez, adierazi nahi du etxebizitza duin eta egokia izateko eskubide subjektiboa pausoz pauso aplikatzea, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorrean adierazitakoa betez, neurri ona dela, eta lagungarria izan dela etxebizitza-bazterketaren arrisku larrian dauden edo etxebizitza egokia izateko premia handia duten familia askoren ongizatea hobetzeko.

Hala bada ere, etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeari dagokionez, oraindik ere zailtasun materialak antzematen dira. Zalantzarik gabe, etxebizitzaren premia dela eta, Arartekoak jasotzen dituen kasu, kontsulta eta erreklamazioak ugari dira.

Era berean, Arartekoak berriz adierazi nahi du desadostasuna Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak 2012ko urriaren 15ean emandako Aginduaren 10. artikularekin. Agindua etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa da, eta aipatu 10. artikulua eragozten die “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena ematea administrazio-egoera irregularrean daudenei.

Hori dela eta, Arartekoak egokia deritzo Dekretu Proiektuaren 2.3 artikulua xedatutakoari: “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskubidea kolektibo horri ere aplikatzea.

Hitz batez, aipatu Etxebizitzaren Legean ezarritakoa bete nahi izanez gero, EAEko administrazio publikoek arauen eta aurrekontuen bidez neurri osagarriak hartu behar dituzte, eta ahaleginak egin, gainerako gizarte-eskubideak bezala (hezkuntzarakoa eta osasunerakoa), baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen eta familien bizi-baldintzak hobetzeko oinarrizkoa den eskubidea bermatze aldera; eskubide hori kolektibo osoaren kohesio sozialerako ezinbesteko

bermea ere bada, kolektiboa osatzen duten pertsonen duintasuna eta berdintasuna defendatzen dituelako.

Arartekoak egiaztatzen duenez, urte batetik bestera, gero eta handiagoa da etxebizitza babestuak alokairuan hartzeko eskaeren kopurua; hala ere, bai Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, bai Bilboko Udal Etxebizitzak toki-erakunde autonomoak eta Etxegintzak (Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak) aitortu dute etxebizitza-parke publikoak muga handiak dituela. Horrek presako neurriak hartzea eskatuko du, dagoen eskariaren eta alokairu-araubidean eskura daitezkeen babes publikoko etxebizitzaren artean antzemandako aldea berdintzen saiatzeko.

Hitz batez, erakunde honek, beste urte batez, eskatu nahi die euskal administrazio publikoei alokairu-erregimenean eskura daitezkeen babes publikoko etxebizitzaren parkea zabaltzeko, Etxebizitzaren Legean ezarritako erronkei behar bezala aurre egite aldera, eta, aldi berean, denbora pasa ahala, esleitutakoa baino etxebizitza handiago bat (edo konfigurazio desberdina duena) alokairuan hartu behar duten errentari publikoen eskaerei erantzute aldera.



III.

atala

Arartekoaren

jarduerak arreta publikoa behar duten

taldeak babesteko

II. Atala

ARARTEKOAREN JARDUERAK ARRETA PUBLIKOA BEHAR DUTEN TALDEAK BABESTEKO

Arartekoaren lan-arloak gaikako banaketaren arabera egituratu izan dira beti. Banaketa hori osatzeko, Ararteko erakundearen jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazo-en berariazko tratamendua egiten da.

Alde horretatik eta Ararteko erakundeak pertsona guztien eskubide guztiak bermatu behar dituela uste izanda, beharrezkotzat jo da beren eskubideak burutzean kalteren bat izan dezaketen talde batzuekin lehentasunez jardutea, ahultasun handiagoko balizko egoeran daude eta.

Arreta publikoa behar duten taldeen gaineko arlo horiei esker, ikuspegi praktikotik begiratuta, talde horiekin zerikusia duten gaiak bila eta aurki daitezke urteko txostenean, eta ikuspegi orokorra ematen dute. Baina garrantzitsuena zera da: talde horiek dituzten arazo eta beharrei berariaz erantzuteko eta beraien arazoak ikusarazteko jarduera-esparruak sortzeko asmoz eratu zirela. Gainera, talde horien inguruan estrategia koherentea burutzen laguntzen dute, talde bakoitzari dagokion arloko jarduera-planaren barruan.

Talde horiekin lehentasunez jarduteari eman nahi zaion garrantziak justifikatzen du urteko txostenean bakoitzak bere

atala izatea, haien eskubideen gaineko berme-lan garrantzitsu hori balora dadin.

Aurreko urteetan egin zen moduan, Haur eta Nerabeentzako Bulegoa ikusgai egitea sustatu da. Bulego horrek berezko proiektzioa izango du, eta bereizitako tokia urteko txosten honetan, izan ere, txosten orokor honi erantsitako txosten batean bilduko da 2019an burutu duen jarduera.

Atal honetan, bederatzi puntutan bildu dira arreta publikoko taldeez burutu diren jarduerak:

1. Familiak
2. Emakumeen berdintasuna eta osotasuna
3. Ezintasunen bat duten pertsonak
4. Espetxeratuak
5. Ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk
6. Etorkinak eta kultura aniztasuna
7. Lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak eta intersexualak (LGBTI pertsonak)
8. Adinekoak eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak
9. Talde terroristen biktimak





III. atala

1

Familiak

◀ Aurrekoa ikusi

Aurrekariak



Botere publikoek familiak babesteko duten betebeharrak [Konstituzioaren](#) 39. artikuluan du azken oinarri juridikoa. Halaber, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 10-39. artikuluetan dio familien babesa eskumen eskusibokoa dela, estatutu-arauak “komunitate-garapen, emakume kondizioaren arazo, eta haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika” gisa definitzen dituen arloen barrukoa. Euskadin, [Familiari Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak](#) eratu du familiei laguntzeko politika publikoen oinarriak finkatu berri dituen lege- eta araudi-esparrua. Lege horretan, gai horren inguruko esku-hartze publikoaren oinarriak eta printzipioak ezartzen dira eta Eusko Jaurlaritzak burututako araudi-garapenaren bidez osatu da; horrek arautu ditu [seme-alabengatiko dirulaguntzak](#), [lana eta familia bateragarri egiteko laguntza ekonomikoak](#) eta [familia-errenta estandarizatzeko sistema](#).

Familiak, zalantzarik gabe, botere publiko guztien babes berezia behar du, pertsonen garapen osorako euskarri material eta afektiboa izatearen funtzio ezinbestekoa baitu, baita egiteko kuantitatibo eta kualitatibo bat ere, adingabeei, adinekoei eta gaixotasunagatik edo mendekotasunagatik premia bereziak dituzten pertsoneri arreta emanez betetzen duena.

Arartekoak, arlo honetan, familiak babesteko politika publikoak bultzatu, hobetu eta indartu daitezzen sustatzen du, familia-eredu askotarikoen garrantzia kontuan hartuta. Zuzenbideak aintzatetsiak ditu familia-ereduok, eta zenbait kasutan arreta berezia behar izango dute, beren funtzioak betetzeko behar dituzten prestazio guztiak erabateko berdintasunez eskuratzeko. Era berean, familiak babesteko politika publiko horiekin loturiko herritarren kezak bideratzen ditugu, baita horiei arreta eskaintzea helburu duen beste edozein jarduerara publiko ere.

1. Arloa kopurutan

2019an kudeatutako kexa-espeditteen izapidetze-egoera hauxe da:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
23	15	8	-	3	5	-

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak eta familia eta lana bateragarri egiteko dirulaguntzak jasotzeko arazoak

Aurten ere jaso ditugu seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak eta familia eta lana bateragarri egiteko dirulaguntzak arautzeko legeen babesean eskatutako dirulaguntzen eskaerak ukatzeari edo artxibatzeari buruzko kexak. Horiek dira EAEn familiei laguntzeko bi lerro nagusiak. Kexa horietako askotan, arazo formalak azaldu dituzte, funtsean, laguntza horiek eskatu ahal izateko aurkeztu behar den dokumentazioari buruzkoak. Lehenagoko gure txostenetan jada azaldu dugu kasuistika eta erakunde honek gai horretaz egindako balorazioa. Horrela, hobekuntzak proposatu ditugu interesdunei eman beharreko informazioan, Eusko Jaur-laritzako Zuzenean zerbitzuaren aurrean prozedura irekitzen denetik hasita.

- ***Dirulaguntzak eskuratzeko betekizunak egiaztatzen dituzten agirien jatorriarekin eta aurkeztearekin lotutako arazoak***

Oro har, Arartekoak antzeman du bi laguntza-lerro horietatik datozen dirulaguntzak kudeatzean **prozedurazko arazo ugari sortzen direla eta, horien ondorioz**, laguntza horiek ukatzen zaizkiela (gehienetan, eskaerak artxibatu direlako edo onartu ez direlako) laguntzak jasotzeko baldintza materialak betetzen dituztenei. Herritarrek aurkeztutako eskaeren bidez hasten diren prozedurek sortzen dituzte arazoak: hain zuzen ere, horrela gertatzen da **Euskal Autonomia Erkidegoan benetan bizi izandako denbora egiaztatzearen** kasuan. Izan ere, askotan, eskatzaileek behar ez bezala egiaztatzen dute betekizun hori, besteak beste, ez dakitelako, edo udalek igorritako errolda-ziurtagiriek errol-datutako en egungo egoera bakarrik adierazten dutelako, EAEn izandako erroldatze guztiak zerrendatu gabe; zerrenda hori, askotan, ezinbestekoa da EAEn bizi izandako aldia egiaztatzeko, eta horrela, dirulaguntza horiek eskuratu ahal izateko. Gauzak horrela, Arartekoak uste du **administrazio-jarduleak berak hartu beharko lukeela administrazio-agiri horiek lortzeko ardura**. Izan ere, Eusko Jaur-laritzak horrela jokatzeko hasi da dagoeneko beste agiri batzuk egiaztatzeko orduan, adibidez, diru-sarreraren egiaztagirien kasuan (foru-ogasunetan zuzenean jasotzen diren ziurtagiri fiskalak; polizia-agintariek eta Espainiako Gobernuaren ordezkartzek, atzeritarren gaitan eskudunek, igortzen dituzten egoitza-baimenak).

Gainera, kasu askotan, kexagileek desadostasuna adierazten zuten, Eusko Jaur-laritzak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 118. artikuluan babesean, errekurso bidean aurkeztutako dokumentazioa ezetsi zuelako, laguntzaren onuradun izateko bete behar diren baldintzak egiaztatzeko agiri horiek aurkeztu ezean, laguntza eskatzen zuten pertsonen akatsagatik edo prozedura

aurretiko fasean horri buruzko informazio egokirik ezagatik. Testuinguru horretan, Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du komenigarria izango litzatekeela aipatu artikulua aplikatzeko zorrotasuna malgutzera, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren erabatekotasun izaera kontuan hartuta. Izan ere, Konstituzioaren 24.1 artikuluan ezarritako zaintza judizial eraginkorra izateko eskubidearekin bat, jurisdikzio horrek aukera ematen du auzibidean ebazpena aurkaratzeko arrazoi berriak alegatzeko, bide administrazioan alegatu ez diren arren. Horrela esan daiteke, hala ere, baldin eta administrazioak —eskaera osatu gabe zegoela ikusita— prozedura nagusian egindako zuzentzeko errekerimendua nahikoa argi izan ez balitz, hasierako eskaera osatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez. Horrela, erakunde honetan aipatu arazoia dela eta aurkeztutako kasuak irizpide horri jarraikiz aztertu dira, hau da, honako hauek baloratuz: administrazioak laguntzen hasierako eskaeran antzemandako akatsak zuzentzeko errekerimendua egiteko eta interesdunei jakinarazteko modua (argitasuna eta eraginkortasuna). Balorazio horretatik ondorioztatu da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 118. artikulua egoki aplikatu den ala ez.

Ñabartu beharra dago kasu batzuetan erkidegoko administrazioak onartu duela epea kanpo ematea, errekurso aldian, eskaera-bidean edo akatsak zuzentzeko unean eman ez ziren agiria, zehazki, atzeritarren agiria direnean, izan ere, agiri horiek lortzeko eskatzaileei zailtasun objektiboak sortzen dizkie, behar den epean eman ahal izateko. Hori aurrekari interesgarritzat jotzen du erakunde honek, beste kasu batzuetara hedatzeko.

Dena den, azpimarratu behar da —Arartekoak aspalditik aldarrikatzen duenez, eta hainbatetan Eusko Jaur-laritzari helarazi dionez— komenigarria izango litzatekeela **seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak eskuratzeko izapideak erraztea, dirulaguntza automatikoki eman dezan, diruz lagun daitekeen egoera bat gertatzen denean** (jaiotza, adopzioa, adingabea hartzea). Ondorioz, administrazio jarduleak berak jaso beharko luke diruz lagun daitezkeen inguruabarrak egiaztatzeko behar den administrazio-dokumentazio osoa. Horrek arinduko luke izapidea, baita kudeaketa karga ere, eta erraztuko litzateke onuradunak izan daitezkeen pertsonen laguntza horiek eskuratzeko bidea, saiestuko bailitzateke bidegabeko bazterketak, pertsona batek onuradun izateko baldintza materialak bete arren, arrazoi formalak direla medio laguntza lortzen ez duenean. Eusko Jaur-laritzak aipatu du gaur egun ezinezkoa dela dirulaguntzak lortzeko izapidea automatizatzea, horretarako baliabiderik ez dagoelako.

Erakunde honen ustez, ezinezkoa den bitartean, behintzat, **dirulaguntza lerro biei dagokienez, argiagoo eta herritarrentzat ulergarriagoa den informazio-politika bat** eskatu beharko litzateke. Informazio-politika horretan funtsezkoa da Zuzenean zerbitzuaren eginkizuna: herritarrei arreta ematea. Eusko Jaur-laritzak orain dela urte batzuk hartu zuen konpromisoa Arartekoak salatutako arazoak konpontzen saiatzeko. Horretarako, zerbitzu horrek informazio argiagoo eta zehatzagoa emango du eta hobeto azalduko ditu akatsak zuzentzeko errekerimenduak, hasierako eskaerari ez bazaio erantsi betekizunak egiaztatzeko behar den dokumentazio osoa.

Era berean, hobetu egingo da gai horri buruzko informazio orokorra, Eusko Jaurlaritzak bere informazio-webgunean eskaintzen duena.

2.2. Familia ugariaren titulua lortzeko legezko betekizunekin zerikusia duten arazoak: Familia ugariaren titulua bikoteak apurtzen diren kasuetan, bereziki, zaintza partekatua kasuan

Aurreko urteetan bezalaxe, kexa dezente jaso ditugu familia ugariei buruzko Estatuko legedia ezartzeaz eta kudeatzeaz —foru aldundiei dagokie zeregin hori—, bereziki familia ugariaren titulua izateko bete behar diren legezko baldintzak interpretatzeaz. Kexa eta kontsulta horietan, oro har, aipatzen da zer-nolako arazoa sortzen den bikotea hausten, dibortziatzen edo banantzen denean familia ugariaren titulua gurasoetako bati ematen zaionean.

Aurreko txostenetan esandakoarekin konparatuta, gutxi dira arlo horretan egindako aurrerapausoak, iragarritako erreformak, *Familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legea* aldatzekoak, dirudenez, ez baitu aurrera egiten estatuko legegintza-egoitzan.

Erakunde honen aurreko txostenetan Eusko Legebiltzararen aurrean azaldu diren arazoak herritarrek Arartekoan behin eta berriz aurkezten dituzten kexetan azaltzen dira, eta haien sorburua hau da: aipatu estatu mailako legearen 2.2 c) artikulua ezartzen du beharrezkoa dela bi gurasoetako bat aukeratzea familia ugariko kidearen izaera mantentzeko. Horrenbestez, beste gurasoak titulartasuna galduko luke eta familia ugaririk kanpo geratu litzateke. Gurasoen arteko adostasunik ez badago, bizikidetzaren irizpidea hartuko da kontuan, hau da, familia ugariaren titulartasuna esleitu beharko zaio judizialki zaintza duen gurasoari —aitari edo amari—. Herritarrentzat zaila da arau hori ulertzea, batez ere, kasu batzuetan, zaintza ofizialki gurasoetako bati esleitu arren, bisiten araubidea zabala eta —seme-alaben heziketa eta ardurari dagokionez— erantzunkidetasuna bi gurasoek dutenean. Beraz, bi gurasoetako bat familia ugariaren onuretatik baztertzea ez da bidezkoa. Arazoa are larriagoa da, ahal dela, estatu mailako erregulazioak, erregimen hori elkarrekin seme-alabak dituzten eta banandu edo dibortziatu egiten diren bikoteen kasuetan bultzatzen duten lege autonomikoak baino lehenagokoa denez, jasotzen ez duen zaintza partekatua araubidea esleitzen denean judizialki.

Arlo horretako legedian hutsunea dagoenez, hiru foru-aldundiak egiten duten kudeaketa eredu erkide moduan —soilik zaintza partekatuari dagokionez bada ere—, Eusko Jaurlaritzak erabaki du halako kasuetan (irizpide homogeen gisa) gurasoek txandaka izango dutela familia ugariaren titulua (urtero aldatuko da). Formula horrek ez du konpontzen zaintza partekatua ez duten, baina, banandu eta gero, seme-alabak zaintzeak eragiten dituen erantzukizuna eta kargak *de facto* jasaten dituzten pertsonen arazoa. Gainera, oraindik ere, sortzen du herritarren atsekabea, arauketa horrekin ez

baitira zaintza partekatua aukera hautatu duten gurasoen legezko itxaropenak asetzen. Izan ere, zaintza partekatua aukeratzen duten gurasoek familiei laguntzeko neurri desberdinen onurak izaten jarraitu nahi dute zaintza partekatua araubidea indarrean dagoen bitartean.

Arartekoaren erakundeak, azken urteetan, Eusko Jaurlaritzan planteatu du familien egoera berriak aintzat hartzen ez dituen estatuko legeria aplikatzeak disfuntzioa sortzen duela, eta, gainera, diskriminazio-iturri bihurtu daitekeela bikote berria osatu ondoren jaiotako seme-alaben kasuetan (banandu edo dibortziatu ondoren berriz osatutako familietan); izan ere, gurasoei bezala, azken horiei ere urtero txandakatzearen irizpidea aplikatuko zaienez, urte batean familia ugariaren onurak izaten dituzte, hurrengo urtean, aldiz, baztertuta geratzen dira.

Arazo horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak, bere garaian, erantzun zion erakunde honi bat datorrela egindako diagnostikoarekin eta era aktiboan lanean ari dela iragarritako erreformak, *familia ugariak babesteko 40/2003 Estatuko Legearenak*, aintzat har ditzen disfuntzio horiek. Erreforma horren oinarriak autonomia-erkidegoetan eztabaidatzen ari dira. Azpimarratu behar da Eusko Legebiltzarrek *ekainaren 30eko 7/2015 Legea, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremani buruzkoa*, aldarrikatu zuenetik, zaintza partekatua lehenagokoa irizpidea dela bikotekideak banantzen edo dibortziatzen direnean. Horrek esan nahi du zaintza modalitate hori hedatu egin dela eskal familietan, gurasoak banantzen direnean. Eusko Jaurlaritzak adierazi duenez, estatuko legearen erreformari egindako ekarpenetan, dagoeneko ohartarazi dute kontu horretaz eta aldatu behar den horietako bat dela uste dute.

Hala ere, lehenago aipatu denez, **arazoa ez da konpondu, estatu mailako legegintzan ez delako ezer egin arlo honetan gero eta beharrezkoagoa den erreforma bultzatzeko**. Horrek, erakunde honen iritziz, aukera planteatzen du **Eusko Jaurlaritzak onurak ateratzea ahalbidetzeko beste bide batzuk aztertzeko —EAEren eskumen propioen esparruan behintzat—** familia ugari horientzat. Horretarako, banandutako gurasoak dituzten familien eta, hala badagokio, berriz osatutako familien errealitatera hobeto egokিতuta dagoen araubidea ezarri behar da.

2.3. Guraso bakarrek familiak: beraien premia bereziak kontuan hartuko dituen araudia behar da

Txosten honen aurreko edizioetan gogorazirik dugunez, guraso bakarrek familiak gainontzeko familiak baino egoera kalteberagoan daude, pertsona heldu bakar batek jaso ditzakeelako familia-unitatearentzako errentak, eta familia horiek mantendu eta zaintzeko ardurak pertsona horrexerik dagokiolako. Abiapuntuko egoera zailago horri gehitu behar zaio, kasuen ehuneko handi batean, guraso bakarrek familiak horietan emakumea dela familiaren arduraduna. Guraso bakarrek familiak feminizatuak izateak, tamalez, are larriago bihurtzen du gaur egun gure gizartean dagoen genero-desberdintasunaren arazoa.

Arreta berezi hori eskatzen da erakunde honetara oraindik ere iristen diren kontsultetan eta kexetan, izan ere, oraingoz ez dago babestuta behar bezalako esparru juridiko baten bitartez; hala ere, egia da 2019ko azken erreformetan gehitutako berariazko araudi batzuetan, zehazki, **lana eta familia bateragarri egiteko laguntzen arloan**, horrelako familien beharrekiko sentikortasun handiagoa islatu dela. Gomendioan, erakunde honek agerian utzi zuen herri agintariak guraso bakarreko familien berezitasuna aintzat hartzeko neurriak ezartzeko beharra, honako lege honetan ezarritakoaren bidez: **13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei laguntzekoa**. Lege horrek familien eta haien kide guztien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera bideratuta dagoen familia-politika integratua lortzeko esparrua eta oinarriak ezartzen ditu, eta honako hau adierazten du esplizituki Zioen adierazpenean: *“Gizarte honetan, oinarritzko familia da denetan ohikoena, hau da, gurasoek eta seme-alabek osatua, baina bestelakorik ere badago, eta, horregatik, lege hau familia-mota guztiei dago zuzenduta. Dakartzan laguntza-neurri batzuk orokorrak dira, baina era berezian aintzat hartzen ditu egoera bereziki ahulean dauden familien arazoak, esate baterako guraso bakarreko familienak (...); horrenbestez, lehentasuna dute legen honentzat familia horiek”*.

Horri dagokionez, merezi du aipatzea lege horren 3.2.c artikulua. Hauxe adierazten du *“Berdintasuna eta ekitatea”* izenburupean: *“Euskal herri-administrazioek familia-mota guztiak errespetatu daitezkeen sustatu behar dute, direnak direla familien osatera eta tamaina edo familia-unitate bakoitzaren oinarriak dauden bikote-harremanen eta seme-alabatasunaren izaera; eta, ekitate-printzipioa dela bide, babes handiagoa eman behar diete egoera bereziki ahulean dauden familiei”*.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

3.1. Estatu-maila erreforma nabarmenenak

2019an, familia-politiken arloan, **lana eta familia bateragarri egiteko politikak** nabarmendu dira gehien; izan ere, areagotu egin dira horiek, alde batetik, haurdun egon den gurasoaren eta haurdun egon ez denaren baimenak erreformatu direlako **estatu-mailan**, martxoaren 1eko **6/2019 Errege Lege Dekretua** (enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurri buruzkoa) promulgatu da-eta. Estatu-mailako lege-dekretu horrek aldatu egin ditu bai **Langileen Estatutuaren Legearen** testu bategina, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, bai **Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren** testu bategina, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua. Aipatutako lege-dekretuak erabat parekatzen ditu aitatasun- eta amatasun-baimen zeritzenak, eta prozesu iragankor bat aurreikusten du **haurdun egon ez den gurasoaren jaiotzagatiko eta zaintzagatiko baimena luzatzeko. Baimen hori 2021eko urtarrilaren 1ean parekatuko da erabat ama biologikoaren baimenarekin.**

3.2. EAEko erreforma nabarmenenak

EAEan, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak arautzen dituen arau berri bat onartzeak bultzatu ditu kontziliazioaren arloko erreformak. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren **164/2019 Dekretua, urriaren 22koa**, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa, da lege hori.

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta Eudelek 2018ko urtarrilean sinatutako **Familien eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Itunean** jasotako aurreikuspen batzuei erantzuten die dekretu horrek, eta **Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko IV. Planean** (Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 19ko bilkuran onartu eta 2018ko ekainaren 13an Eusko Legebiltzarrean aurkeztua) hedatzeko eta gauzatzeko funtsezko plangintza-tresna da. Planaren 2. ardatzean honako helburu hau ezartzen da: gurasoek beren seme-alabei behar duten denbora guztia eskaini ahal izatea, familien premiak aintzat harik denbora soziala modu egokiagoan antolatzea sustatuz eta antolaketa sozial erantzunkidea bultzatuz; ardatz horretan, honako neurri hau jasotzen da: seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartuta dauden langileentzako egungo laguntzak birbideratzea. Familia eta lana bateragarri egiteko IV. Planaren helburuek eta neurriek jarduera-ildo berri bat garatzea dakarte —lan-eszedentzian dauden langileentzako laguntzak arautzen dituen, urtebetetik beherako adingabearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko ordaindutakoaren arabeko prestazioen aldiak parekatzea du helburu—, eta **ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuak** (familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa) arautzen dituen laguntzetan hainbat aldaketa egitea dakar.

Dekretu berri hori, halaber, martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurri buruzkoak, justifikatzen du, ama biologikoaren baimenarekin erabat parekatzen baititu haurdun egon ez den gurasoaren jaiotzagatiko eta zaintzagatiko baimenak. 6/2019 Errege Lege Dekretuak jaiotzagatiko eta zaintzagatiko baimenak parekatze aldera ezarritako araubide iragankorrak hausnarketa ekarri du, eta eragin du Familiei Laguntzeko IV. Planaren neurrien garapenean zenbait egokitzapen egitea. Izan ere, 164/2019 Dekretua indarrean jartzen denetik aurrera, laguntzaren onuradun izan daitezkeen gurasoen seme-alaba guztiei aplikatuko zaie, plangintzak ezartzen bazuen ere laguntza, hasieran, bigarren seme-alaben eta hurrengo gurasoei emango zitzaizela, eta, bigarren fasean, lehen seme-alaben gurasoei.

Beraz, hona hemen 164/2019 Dekretuan jasotako **berrikuntza nagusiak**:

- Kontziliaziorako laguntza-lerro berria abian jartzea: lan-eszedentzian dauden langileentzako laguntzak, gurasoek urtebetetik beherako adingabea **jaiotzeagatik eta zaintzeagatik jasotzen dituzten ordaindutakoaren arabeko prestazioen aldiak parekatzeko.**
- Seme-alabak nahiz mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden ahaideak zaintzeko eszedentziatarako eta lanaldi-murrizketatarako laguntzen

zenbateko ekonomikoa % 30 handitu beharko da guraso bakarreko familien, familia ugarien, mendetasun larria, mendetasun handia edo % 50eko desgaitasuna duen kideren bat duten familia-unitateen eta genero-indarkeriaren biktima den kideren bat duten familia-unitateen kasuan.

- **Eskatzailea gizona den kasuetan, handitu egingo da** seme-alabak nahiz mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden ahaideak zaintzeko eszedentzietarako eta lanaldi-murrizketetarako laguntzak baliatzeko gehieneko denbora, eta, beraz, bikoteari dagokion diruz lagundutako denbora-kreditu osoa baliatu ahal izango du gizon eskatzaileak.
- Seme-alabak nahiz mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden ahaideak zaintzeko eszedentzietarako eta lanaldi-murrizketetarako laguntza-ildoari dagokionez, **kendu egin nahi da lan-harreman bereziak dituzten langileak**, hau da, **etxeko langileak**, kanpoan uzteari buruzko xedapena, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren (Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena) 2.1.b) artikulua jasotakoa. Kontuan izan Arartekoak aspalditik egin izan duela eskaera hori.
- Gainera, **diruz lagundu daitezkeen jarduketek jarraitutasunik ez izateko aukeran beste salbuespeneko kasu bat hartuko da kontuan: eskatzaileak soldatarik gabeko baimena hartzea.**
- Halaber, erakunde honek behin eta berriz eskatu izan duen bezala, **sinplifikatu egin da eszedentzia edo lanaldi-murrizketa egiaztatzeko dokumentazioa**. Ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren (familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa) arabera, enpresa-ziurtagiri bat aurkeztu behar da, bai eta kotizazioan baja eman izana edo hura aldatu izana egiaztatzeko Gizarte Segurantzaren dokumentu bat ere. Laguntzak kudeatzen dituen zuzendaritzaren ustez, **Gizarte Segurantzaren dokumentazioa nahikoa da** diruz lagundu daitezkeen jarduera egiaztatzeko.
- Eszedentzian dauden **kooperatiba-sozietateetako bazkide langileei edo lan-bazkideei** dagokienez, aurrerantzean ez zaie eskatuko baja eman dezaten kotizatzen duten erakunde pribatuan edo Gizarte Segurantzako araubidean.
- Seme-alabak nahiz mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden ahaideak zaintzeko **eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko** laguntzei dagokienez, bi berrikuntza dakartza dekretu berriak:
 - o Laguntzaren gehieneko iraupena luzatzea, ordezkatatutako pertsona gizona bada eta emakume bat kontratatzen bada hura ordezkatzeko, emakumeen enplegarritasuna errazte aldera.
 - o Beste alde batetik, eskabideak elektronikoki baino ez aurkeztea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1eko) 14. artikulua aplikatuz.

- Eutsi egin zaie **seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko** laguntzei, eta sinplifikatu egin da horien kudeaketa. Beraz, egokitu egin beharko da laguntza kalkulatzeko erreferentziatza hartzen den zenbatekoa, hau da, “seme-alaba adingabeen zaintzaileak kontratatzeagatik enplegatzaileak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean ezarritako Etxeko Langileentzako Sistema Bereziari ordaintzen dion zenbatekoa”.

3.3. Arartekoaren gogoetak, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen arloan Eusko Jaurlaritzak berriki abiarazitako erreformari buruz

Arau hori prestatzen ari zela, kontsulta egin zitzaion Arartekoari, eta erakunde honek zenbait **gogoeta** helarazi zituen; horietan jaso zituen azken urteotan kontziliazio-rako laguntzen kudeaketari dagozkion kexetatik Arartekoak ateratako ondorio garrantzitsuenak.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Jardunaldiak, foroak eta hainbat ekitalditan parte hartzea

Agerraldia Eusko Legebiltzarreko Lan eta Justizia Batzordean, ekainaren 30eko 7/2015 Legea (gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa) aldatzeko lege-proposamenari buruzko ekarpenak egiteko

Agerraldi horretan, Arartekoak, lege hori aldarrikatu zenetik egin izan duen bezala, berriz ere defendatu zuen zaintza partekatua egokia dela, bi gurasoen arteko berdintasunezko eta erantzunkidetasunezko zaintza-eredua delako. Hala ere, argi dago adingabeak babestu beharra dagoela indarkeria matxistaren kasuetan, biktima zuzenak dira-eta. Hori dela eta, genero-indarkeriako edo emakumeen aurkako indarkeria matxistako testuinguruetan arrazoi hori dela-eta prozedura judizial batean sartuta dagoen gurasoarekin seme-alaben zaintza partekatu ahal izatea eragoztera bideratutako neurriak indartzea positiboki baloratu zuen erakunde honek. Halaber, lege-testuan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontzeptu berria sartu beharrene alde agertu zen Arartekoa. Emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren bidez (Istanbulgo Hitzarmena) hartutako nazioarteko betebeharretatik eratorri da kontzeptu hori, eta genero-indarkeriaren tipo penaletik harago doazen beste delitu-modalitate batzuk hartzen ditu barne.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Frogatuta dago familiei laguntzeko eta haien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko politikak sustatzen eta finkatzen dituzten gizarteek ekarpen baliotsua eta eraginkorra egiten dietela giza garapenari eta ekonomia- eta gizarte-kohesioari. Familiei laguntzea pertsona bakoitzari, edozein adinetan eta egoeratan, bere bizi-garapenean laguntzeko modu bereziki eraginkorra da. Finean, justizia soziala lortzeko funtsezko baldintza da, eta botere publikoek hura lortzen saiatu behar dute, eskura dituzten baliabide guztiak erabiliz.

Illo horretan, ezinbestekoa da **familiei zuzendutako laguntza politika publiko guztietan aintzat hartzea**, laguntza hori egoera eta osaera desberdinen ondoriozko premia askotarikoetara egokituz eta gizarte eta ekonomia arloetako politika publiko desberdinek euskal familietan duten eragina ebaluatzeko aukera emango duen zeharkako ikuspegia sustatuz.

2019an, aurrera egin da kontziliatorako laguntzen erreforman, eta emakumeek eta gizonek zaintzan erabateko erantzunkidetasuna izatearen alde egin da. Horretarako, estatuko erreformak seme-alaben jaiotzagatiko eta zaintzagatiko baimenei dagokienez izango duen eragina aurreratu nahi izan da Euskadin. Izan ere, estatuan modu partzialean eta progresiboan ezartzea ez da oztopo izango, EAEn, gizonek eta emakumeek, haurdun egon ez diren gurasoek eta ama biologikoek, onura osoa atera dezaten lortu nahi den parekatzetik.

Aitzitik, familientzat garrantzitsuak diren zenbait arlo hobetu beharra dago, eta horiei EAEko politika publikoetatik heldu beharko litzaieke nahitaez. Bereziki, honako neurri hauek dira lehentasunezkoak:

- **Seme-alabak dituzten familietan** egindako inbertsio ekonomikoa handitzen jarraitzea, batez ere neurri fiskalak ezarriz.
- **Guraso bakarreko familiei estatutu berezia** aitortzea, haien premia bereziei erantzun egokia emateko, eremu guztietan.
- **Banandutako gurasoak dituzten familien edo bereratatutako familien kasuan familia ugariaren tituluak kudeatzeko irizpideak** hobetzea, edo, hala badagokio, gai horri buruzko erregulazio autonomiko propioa egitea.
- **Seme-alabengatiko diru-laguntzen eta kontziliatorako laguntzen izapidetze administratiboa** argitzea, arintzea eta **sinplifikatzea**, irisgarriagoa izan dadin herritarrentzat eta laguntza horien izapidetzea ahalik eta automatizatuen egon dadin.
- Adinekoak, seme-alabak, edo gaixorik, ezinduta edo mendetasun-egoeran dauden kideak dituzten **familiei laguntzeko zerbitzu publikoak eta baliabideak** areagotzea eta hobetzea.
- **Adineko pertsonen osatutako familien —gero eta ugariagoak dira— babes eraginkorra** areagotzea eta hobetzea, **eta zahartzeak dakartzan premiei aurre egiten laguntzea**.
- **Arlo soziosanitarioa zehaztasunez eta eraginkortasunez garatzea**, pertsona batzuek behar duten laguntza intentsiboaren zama kentzeko familiei, askotan familien ahaleginari esker bakarrik ematen baitaiea sostengua pertsona horiei.
- **Familia eta lana bateragarri egiten eta familia-erantzukizunak betetzean emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzen** lagunduko duten neurriak bultzatzen jarraitzea, laguntza ekonomikoen bidez ez ezik, era guztietako estimuluen bidez ere sustatuz **bali-aldaketa eta egitura ekonomikoen eta enplegu-egituren egokitzapena**, bat etor dadin pertsonen zaintza-beharrekin.



III. atala

2

Emakumeen berdintasuna eta osotasuna

Aurrekariak



Arartekoak, pertsonen eskubideak defendatzeko lanen barruan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipio konstituzionala (EK 14. artikulua) betetzen dela ziurtatu eta babesteko eginkizuna du. Horretarako, euskal agintari publiko guztiei eskatzen die beharrezko neurriak har ditzatela, berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipio hori, ikuspegi formaletik harago, benetakoa eta eraginkorra bihur dadin, horretarako helburu hori zailtzen duten oztopoak era aktiboan baztertuz (EK 9.2 artikulua).

Berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren eskubidean egiten den edozein urraketari dagokionez **euskal herri-administrazioen jarduerak edo jarduera-faltak kontrolatzea** da, funtsean, Arartekoak berdintasunaren arloan duen funtzioa, **bai ikuspegi formaletik, bai ikuspegi materialetik**. Eremu horretan, geroz eta garrantzitsuagoa bilakatzen ari da administrazio desberdinei berdintasun materiala lortzeko ekintza positiboak martxan jartzeko eskatzea, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarren 4/2005 Legeak* eta *emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoak* ezarritako parametroen arabera, lehen aipatutako aurreikuspen konstituzionalak garatuz.

Genero-indarkeria emakumeen giza eskubideen kontrako atentatu larria da eta, horren oinarrian, gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasuna dago, baita balio sexisten sistema bat nagusitzea ere. Hala, arlo honetako eginkizunen artean, lehentasuna daukate genero-indarkeria ezabatzeko borrokek eta ahaleginak.

Arlo honetako jardueran proiektatzen dira, era berean, **emakumeen herritartasun oso eta aktiboaren eta protagonismo sozialaren** alde egiten duten ekimen desberdinen **sustapen eta bultzada**, oraindik emakumeak gizonen aldean gutxien dituzten inertzia kultural eta sozialaren aurrean.

1. Kexarik aipagarrienak

Beste urtebetez egiaztatu behar dugu 2019. urtean genero-erengatik edo emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-erengatik diskriminazio-egoerekin zerikusia duten kexek eragin urria izan dutela. Arrazoiren bat bilatu nahi izanez gero, zalantzarik gabe, administrazio-jardueraren eremuan ez direla argi eta garbi sexu-erengatik pertsonengan diskriminazio- eta preterizio-egoera irekiak antzematen esan daiteke. Maizago gertatzen dira, ordea, partikularren arteko harremanen arloan. Egia da partikularren arteko harremanek erakunde honen kontrolatik ihes egiten dutela. Horrez gain, Euskadin erakunde bereziak daude, besteak beste, Emakunde. Izan ere, berari dagokio legez salaketa hauek bideratzea. Dena den, hori ez da oztopoa aginte publikoei arreta eta zaintza bereziaren jarrera eskatzeko eta, batik bat, emakumeen diskriminazio- eta preterizio-diskurtso edo -jarrera sozial eta banakakoak prebenitzeari begira neurriak sustatzeko. Ildo horri jarraiki, aginte publikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko jarrera proaktibo izatera deituak daude. Xede horrez, diskriminazioa sustatzen duten diskurtsoak antzemateko neurriak aktibatuko dituzte, gizarte-biziaren eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun osoaren aldeko sentsibilizazio-ekintzekin batera. Nolanahi ere, beharrezkoak diren jarduera positiboak eragingo dituzte. Deskribatutako testuinguruan, arlo honetan 2019. urtean hauek dira gairik azpimarragarrienak:

1.1. Bereziki feminizatuta dauden sektoreetan ordezkaritza orekatua egoteko printzipioaren inpaktua

Kexa batek atentzioa eman du, bertan Euskadiko Haur Hezkuntzako irakasleak hautatzeko epaimahaikideak izendatzeko sistemarekin ados ez dagoela adierazi baitu Bizkaiako Haur Hezkuntzako 13 irakaslek osatutako talde batek (Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailaren zerbitzura dago taldea). Kexagileek (guztiak gizonak) adierazi dutenez, ez daude batere konforme irakasleak hautatzeko epaimahaikideak izendatzeko sistemarekin. Bada, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen* 20.4.b) artikuluan ezartzen den printzipioa ezartzetik dator arazoa; izan ere, bi sexuen ordezkaritza orekatua izateko printzipioa da hori, eta, horren arabera, nahitaezkoa da epaimahai horien eraketan bi sexuen ordezkaritza orekatua egotea. Alabaina, Haur Hezkuntza oso sektore feminizatua denez, gizonetako irakasleen % 5 baino ez dira-eta, beti izendatzen dira irakasle gizon berberak epaimahaikide izateko.

Kexagileen arabera, epaimahaikide izendatzeak berekin dakar lanpostuaren ohiko eginkizunei erantsitako hainbat lan eta erantzukizun norberaren gain hartzea, ohiko eginkizunak salbuetsi gabe, eta, beraz, ohiko lan-zama handitzen da, eta lana eta familia uztartzea zailtzen. Hori dela-eta, gizon izateagatik emakumeek baino lan-zama handiagoa jasan behar dutela esan dute. Indarreko sistema erabili ordez, izendapena txandakatze-printzipioarekin bat egitea proposatu dute, eta Euskadi osoa har dadila erreferentziatzen (administrazio-egoera berean), eta ez hautapen-probak egingo dituen lurraldea bakarrik, gaur egun egiten den moduan.

Kexa Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailarekin erkatu ondoren, honako hau ondorioztatu du erakunde honek: gai honetan zalantzan jarri den administrazio-jarduketan, mamiarri dagokionez, zuzena eta zuzenbidearen arabera izan da, eta, beraz, irakasleak hautatzeko epaimahaien osaerak bi sexuen ordezkaritza orekatuaren printzipioa errespetatu behar du, lege ezarritakoa. Arartekoak, halaber, positibotzat jo du Hezkuntza Sailak sisteman mekanismo zuzentzaile bat sartzeko egin duen ahalegina; izan ere, gizonak sektore horretan oso ordezkaritza txikia dutela kontuan hartuta, epaimahaikide berberak behin eta berriro ez izendatzeko mekanismoa da hori.

Hala ere, erakunde honen aburuz, lurraldetasunaren irizpidea malgutu egin behar da, errepikapen hori saiheste aldera, eta aipaturiko irizpideak ekar ditzakeen onurak eta kalteak kasuistikaren arabera haztatu beharko liriateke. Hala, baliokotzat jo ahalko da, baldin eta irizpidea betetzen dela bermatzen bada; hau da, epaimahaikide izateko hurrengo deialdietan pertsona berbera ez izendatzeko irizpidea ziurtatzen bada. Izan ere, irizpide horrek lurraldetasunaren aurretik egon beharko luke. Lehenengo irizpidea bete ezin bada, lurralde zehatz batean Haur Hezkuntzako espezialitatea osatzen duten gizonen kopurua txikia delako, Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailak lurralde-murrizketaren irizpidea baztertzea baloratu beharko luke, hezkuntzako langileekin batera, epaimahaikide berberak ez errepikatze irizpidea lehenetsiz; horretarako, epaimahaikideak probak egingo

dituen lurraldean bakarrik hautatu ordez, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan hautatzeko aukera egon beharko litzateke.

Erakunde honek, era berean, hautaketa-epaimahaietan parte hartzen duten irakasleen ezkutuko gehiegizko lan-zama hobeto konpentsatzeko neurri osagarriak garatzea gomendatu dio Hezkuntza Sailari, iritzi baita dauden neurriak, kasu batzuetan, ez direla nahikoak. Xede horrekin, Arartekoak irakasle kaltetuekin nahiz haien ordezkariekin elkarriketak abiaraztea iradoki du, arlo horretan bi aldeentzat egokia den akordio bat lortzeko.

Erakunde honen ustez, **berdintasunaren inguruko manua benetan eraginkorra izan dadin, garrantzitsua da legez aurreikusita dauden berdintasun-mekanismoekin batera** (adibidez, askotariko organoetan bi sexuen ordezkaritza orekatua izateko printzipioarekin batera) **mekanismo horien ezarpenak sektore jakin batzuetan inpaktu txarri ez izateko behar diren neurriak egotea. Gainera, neurri laguntzaileok ere berdintasuna sustatzeko neurritzat har litezke.**

1.2. Gizarte-zerbitzuek eta zerbitzu espezializatuek indarkeria matxista jasaten duten emakumeei ematen dieten arreta: genero-ikuspegia harrera-baliabideetako arretan eta arreta-ereduaren berrikuspenean

2019an, indarkeria matxista jasan duten emakumeek gizarte-zerbitzuetan (oinarrizkoetan nahiz espezializatueta) jasotzen duten arretarekin nolabaiteko lotura duten hainbat espediente izapidetu dira Arartekoan.

Espediente batzuetan, **udalaren gizarte-zerbitzuetara** jotzen duten emakumeak deribatu, informatu edo artatzeko orduan administrazioek oro har zer bide jarraitzen duten jakiteko premia piztu zaio Arartekoari, genero-indarkeria egon daitekeelako susmoa dagoen kasuei dagokienez. Zehazki, funtsezkoa da jakitea nola txertatzen den genero-ikuspegia, oro har, udalen oinarrizko gizarte-zerbitzuen funtzionamenduan; bereziki, gizarte-zerbitzuek gizarte-laguntzaren bat eskatzen duten emakumeei ematen dieten arreta orokorrean genero-indarkeria prebenitu, hauteman eta indarkeria horri aurre egiteari dagokionean.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 54., 55. eta 56. artikuluekin bat etorritik, euskal administrazio publikoek, nork bere eskumenen esparruan, poliziaren babesa, lege-aholkularitza eta laguntza psikologiko nahikoa eta egokia bermatuko dituen arreta ziurtatu behar diete emakumeei. Gauzak horrela, gizarte-zerbitzuek bermatu egin behar dute edozein emakumek, indarkeria matxista pairatu duen zantzuak hautematen badira, aukera duela zerbitzu espezializatu berri izateko, horien inguruko behar bezalako orientabidea jasotzeko edo horietara bidera dezaten, behar izatekotan horiek baliatu ahal izan ditzen. Udalek ziurtatu egin behar dute oinarrizko gizarte-zerbitzuek

herritarrei eskaintzen dieten arretan ikuspegi hori galtzen ez dela, eta, horri begira, eginkizun horixe bete behar duen berdintasunezko egitura bat daukate, gizarte-zerbitzuek emakumei ematen dieten arretan genero-ikuspegia txerta dadila ziurtatzeko. Bada, erakunde honen ustez ezinbestekoa da:

- Bermatzea gizarte-zerbitzuetan jarduten duten langileek prestakuntza dutela berdintasunean eta genero-indarkeriaren arretan.
- Bermatzea oinarrizko gizarte-zerbitzu horiek erabiltzen dituzten emakumeek eta beren seme-alabek jasan ditzaketen genero-indarkeriako egoerak prebenitzen eta hautematen direla.
- Bermatzea oinarrizko gizarte-zerbitzuek arreta eman bitartean genero-indarkeriaren biktima direla adierazten duten (edo horren zantzuak hautematen diren) emakumei behar bezala jakinarazten zaiela zer eskubide dituzten, edo, behar izatekotan, arreta egokia eman diezaieketen zerbitzu espezializatueta bideratzen direla.

Arartekoak esku hartu du **zerbitzu espezializatu**en alorrean ere, aspaldiko erabiltzaile batzuek Gipuzkoako **egonaldi ertaineko harrera-baliabide** baten kontra jarri dituzten keak direla-eta. Harrera-baliabide hori indarkeria matxista pairatu duten emakumei bideratuta dago, eta, antza, funtzionamendua ez da ona (baldintza material kaskarrak, erabiltzaileentzako arreta ezegokia eta gatazkak nahiz bizikidetzaz arazoak zentroan). Kexa horiek bideratzeko, salatu diren alderdien atzeko errealitatea argitzeko ikerketa zabal egin behar izan da, hainbat informazio-iturritatik abiatuta (zentroan bertan egindako ikuskapenak, erabiltzaileei, langileei eta foru-erakundeko arduradunei egindako elkarrizketak nahiz foru-erakundeak egindako hainbat txosten), kontuaren inguruan ahalik eta ikuspegi osoena eta errealistena edukitzeko xedez, baliabide horren bidez emakumei ematen zaien zerbitzuaren askotariko dimentsioak kontuan hartzea behartzen baitzuen gaiaren konplexutasunak. Horrela, keak jarri zirenean zentroan bizi ziren erabiltzaileei eskaintzen zitzaizkien ibilbidearen eta arretaren segimendu xehea egiteaz gain, zalantzan jarritako zentroaren **funtzionamenduan dis-funtzioak** zeudela baieztatu ahal izan zuen erakunde honek. Bada, bi arrazoi nagusik azal ditzakete dis-funtzio horiek: batetik, **baliabidearen funtzionamendua autogestio-eredu batean oinarritzen zen lehen, eta kudeaketa tekniko bateranzko trantsizioak zailtasunak ekarri ahal izan zizkien hala langileei, nola erabiltzaile batzuei**, eta, bestetik, **egonaldi ertaineko bizitegi-baliabide batean esku hartzeko eredia kontraesankorra izan daiteke, gehiegizko intentsitatea izan baitezake autonomia handiagoa nahi duten emakumeentzat, eta txikiegia norbanakoaren egoera dela-eta arreta handiagoa eta espezializatuagoa nahi duten emakumeentzat**. Arartekoak era berean ondorioztatu ahal izan zuenez, foru-erakundeak keak argitaratu aurretik hauteman zituen dis-funtzio horietako batzuk, baina ez zen gai izan —nahiz eta argi eta garbi hala nahi izan— behar bezain azkar jarduteko, dis-funtzio horiei aurre egiteari eta bizikidetzaz gatazken ondorioz salaketak jartzea eta argitaratzea saihesteari begira. Hala ere, kontuan hartu behar da foru-erakundeak prestatutako erreforma sakona gauzatzeko

orduan zailtasun tekniko objektiboak egon zirela; izan ere, helburu handi hori lortzeko denbora-tarte jakin batzuk bete behar ziren, nahiz eta horien ondorioz erantzuna atzeratu. Nolanahi ere, Arartekoak egiaztatu egin zuen salaketak jarri zituzten erabiltzaileen eskaera guztiei erantzun zitzaiela Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako erreformekin.

Gipuzkoan indarkeria matxistaren biktima diren emakumei harrera egiteko sistemaren krisiak hobetzeko aukerak sortzen jarraitzea espero du Arartekoak. Horretarako, gaur egun indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeengan zerbitzuokiko konfiantza sortze aldera, erakunde honek foru-erakundeari eskatu dio ahalegina egin dezala gizarte osoari jakinarazteko (batik bat, gai honek gehien ukitzen dituen sektoreei) zer-nolako erreformak egin diren eta, finean, zer eredu ezarri nahi den Gipuzkoan indarkeria matxistaren biktima diren emakumei harrera egiteko.

Bada, kasu honekin agerian geratu da **indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako egonaldi ertaineko baliabideetan oro har jarraitzen den arreta-eredua egokia ote den hausnartu beharra dagoela**. Izan ere, zaila da premiazko harreraz haragoko aldi batez emakumeen autonomia pertsonaleko eta ahalduzko xedeak (indarkeria matxista jasan duten emakumeekin egiten de esku-hartze oro bideratu behar da xede horietara) eta bizitegi-araubide baten ondoriozko kontrol zorrotzena uztartzea: batzuetan, interes orokorreko arazoak medio, bizikidetzaz arau zorrotzagoak ezarri behar izaten dira esku-hartzeetan, bizitza autonomoa edukitzen jarraitzen duten emakumeek behar dituztenak baino. Hala, tentsio hori baretzea zaila denez eta, halaber, baliabide horietan oso profil eta oso esku-hartze nahiz bidelaguntza-premia ezberdinak dauzkaten erabiltzaileak elkarrekin bizi direnez, Arartekoak honako gomendio hau egiten du: **hausnarketa sakonagoa egin behar da, batetik, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako egonaldi ertain eta luzeko bizitegi-baliabide kolektiboan aukeraren inguruan, eta, bestetik, lehentasunez emakumeen autonomia piztu beharra duten kasuak** (horrelakoetan, kudeaketa autonomoa duten apartamentuetara bideratu beharko lirake emakumeak) eta **ostatu huts baten premia gaitzen duten bidelaguntza eta esku-hartze biziagoak behar dituzten kasuak hobeto bereizteko behararen inguruan**. Horretarako, harrera-etxe gehiago jartzea aginduko duen eredia diseinatu beharko da, eta hobeto zehaztu beharko da zer kasutan ez den komeni emakume bat, bere inguruabarrak direla-eta (hala nola, osasun mentaleko arazoak edo adikzioak), gainerako erabiltzaileekin batera bizitzea, eta, horrelakoetan, beste baliabide espezifikoki batzuetara bideratu beharko lirake erabiltzaileak.

1.3. Berdintasun-printzipioaren urraketen geruza pribatua

2019an, aurreko urteetan gertatu bezala, Arartekoak lan-kidetzaz izan du **Emakunderekin**, erakunde biek **2008ko maiatzaren 21ean sinatu zuten Lankidetzaz Akordioaren** baitan. Horren bidez, keak erakunde batetik bestera bideratzen dira, erakunde bien gogoetarako aurkeztu diren gaiek helmen juridiko-pribatua edo publikoa dutenaren arabera.

Hala, Emakundetik esparru publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunari lotuta igorri dizkiguten kekez gain, Arartekoan zenbait kexa jaso ditugu, **arlo pribatuari** lotuta zeudenez, erakunde honen eskumen-esparrutik kanpo gelditzen direnak eta *Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunaren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen VIII. Kapituluaren III. Tituluan* xedatutakoaren baitan sartzen direnak. Horregatik, kexa horiek Emakunderi birbideratu dizkiogu, bertan izapidetu ditzaten. Funtsean, **kirol-eremuan (batez ere, emakumeen futbolak haurtzaroen eta helduaroan jasaten duen preterizioagatik) eta lan-eremuan sexua dela-eta jazotako ustezko diskriminazio-kasuen** ingurukoak izan dira kexa horiek.

2. Araudi- eta gizarte-testuingurua

2.1. Genero-berdintasuna Europan

Europako testuinguruan, 2019an amaitu zen **Europako Batzordearen Genero Berdintasunerako 2016-2019ko Estrategia**. **Batzordearen Gizonen eta Emakumeen Berdintasunari buruzko Urteko Txostenak** erakusten duenez, urte horietako bilakaera mugatua izan da, jasotzen dituen arloei dagokienez. Txostenaren arabera, EBko emakumeek gizonen baino %11,5 gutxiago hartzen dute parte lan-merkatuan; emakumeek jasotzen duten soldata gizonenak baino 16 portzentaje-puntu azpirago egoten jarraitzen du, eta Europako konpainia nagusietako goi-postuen %6,3 bakarrik dira emakumeak. Bestetik, emakumeek gehiengo izaten jarraitzen dute soldata baxuen sektorean; haien lana soldataren bidez ere gutxiesten da; ordaindu gabeko lanean duten parte-hartze gizonena baino askoz ere altuagoa da, eta parte-hartze horrek ez du behera egiten, nahiz eta lan-merkatura sartu. Urteko Txostenak adierazten duenaren arabera, pen-sioetan %35eko arrakala dago egoera horren ondorioz.

Emaitza horiek ikusita, **Europako Genero Berdintasunaren Indizeak** (2017ko datuekin egin zen, baina 2019an argitaratu) oso aurrerapen motela erregistratu du, eta, EB28n, 67,4 puntu ditu 100etik. Bada, genero-berdintasunak hartu beharko litzukeen askotariko eremueta azpi-adierazleak konbinatzen dituen indize mistoa da, eta, besteak beste, honako hauek hartzen ditu kontuan: emakumeek boterean, eza-gutzan eta lan-munduan duten parte-hartzea, emakumeen osasun- eta finantza-egoera eta emakumeen denboraren banaketa. Espainian, puntuatzea Europako batez bestekoa baino zertxobait altuagoa da, 70,1 puntukoa.

Arlo legegile edo betearazlean ere, 2019ak ez du aurrerapauso handirik erregistratu. Europako Batzordeak genero-berdintasuna sustatzeko programak finantzatzen jarraitu du maneiatzen dituen funtsen esparruan, eta genero-indarkeriaren kontrako kanpainak egiten jarraitu du. Alabaina, ez da lortu Europar Batasunak, nazioarteko pertsona juridiko gisa, **Istanbuluko Hitzarmena** berrestea. Garrantzitsua da adieraztea hitzarmen horrek kontrako jarrera asko dauzkala. Adibidez, Eslovakiako Errepublikako Parlamentuak

Hitzarmena berresteari uko egin zion 2019an, eta EBren berrespena blokea zezala eskatu zion bere gobernari. Dena dela, Hitzarmenaren berrespenak lehenetsunetako bat izaten jarraitzen du Europako Batzordearentzat, **batzordeburuak berdintasun-arloko komisario berriari egin dion enkarguak** nabarmendu duen moduan. Berrespenak, bada, genero-indarkeriari aurre egiteko asmo irmoa dauka, eta, horretarako, biktimei ematen zaizkien laguntza eta babesa nahiz haien eskubideak indartu nahi ditu, eta EBk lege-arloko eskumenen artean dituen krimenen zerrondara sartu nahi du genero-indarkeria. Komisario berriak, halaber, genero-berdintasunerako estrategia europar berria egin beharko du, eta lan-mundua azpimarratu beharko du bereziki.

2019an lege-arloan onetsi zen neurri esanguratsuen **2019/1158 Zuzendarua izan zen, gurasoen eta zaintzaileen familiako eta laneko bizitzak bateragarri egiteari buruzkoa.** Guraso edo zaintzaile diren langileei kontziliazioa erraztu gizonak eta emakumeek lan-merkatuan duten egoera berdintzeko gutxieneko betekizunak zehazten dira bertan. Horri begira, banakako eskubideak sortu ditu lan-kontratua edo —harremana duten gizon-emakumeentzat, aitatasun-, gurasotasun— edo zaintza-baimenen bidez edota lan-formula malguen bidez. Era berean, baimenez gozatu bitartean jaso beharreko soldatari buruzko arauak ezartzen ditu; eskubideok erabiltzeagatik diskriminatzea debekatzen du; ez kaleratzeko babesa ematen du, eta, kaleratzea gertatuz gero, frogatu behar diren kargaren inbertsioa egiten du. Zuzendarua gure legedira ekartzeko epea 2022ko abuztuan amaituko da.

Europako Kontseiluaren eremuan, Ministroen Batzordeak **2019/1 Gomendioa eman zuen martxoan, sexismoa prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzkoa.** Bada, horixe da «sexismoa» definitu duen nazioarteko lehenengo tresna: «*Pertsona bat edo pertsona-talde bat bere sexuagatik gutxiago delako ideian oinarrituriko edozein ekintza, keinu edo irudikapen bisual; ahoskatutako edo idatzitako edozein hitz; edozein jardura edo jokaera, esfera publikoan nahiz pribatuan egindakoa, online edo offline, asmo edo ondorio hauekin:*

- *pertsona baten edo pertsona-talde baten berezko duintasuna edo eskubideak urratzea, edo*
- *pertsona bati edo pertsona-talde bati kalte fisiko, sexual, psikologiko edo sozioekonomikoa edo sufrimendua eragitea, edo*
- *larderiako ingurune etsai, umiliagarri edo iraingarria sortzea, edo*
- *pertsona baten edo pertsona-talde baten autonomia nahiz giza eskubideen erabateko gozamenari trabak jartzea, edo*
- *genero-estereotipoak eustea edo horiek indartzea».*

Gomendioak baieztatzen duenez, sexismoak izugarri eragiten die emakumei eta neskatuei, eta ahalduntzeko oztopoia da. Era berean, genero-estereotipoen eta jokaera sexisten arteko lotura aitortzen du, baita sexismoaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren artekoa ere. Estatuak giza eskubideak zaintzeko dauzkaten betebeharrak positiboaren artean sexismoaren kontrako borroka dagoela onartuta, sexismoa

eta sexismoaren adierazpenak eremu publiko zein pribatuan prebenitzeko eta haien aurka jarduteko neurriak hartzea eta emandako urratsen segimendua egitea eskatzen die Gomenedioak Europako Kontseiluko estatu kideei. Azkenik, estatuei askotariko arloetan sexismoaren aurka borrokatzeko gomendatu zaizkien tresna orokorren eta neurri espezifikoeren zerrenda jasotzen du.

2019an, Espainiak bere lehenengo txostena aurkeztu zion [Emakumeen Kontrako Indarkeriari eta Etxeko Indarkeriari aurre egiteko Ekintzaren inguruko Adituen Taldeari](#) (Istanbulleko Hitzarmena gainbegiratzeko mekanismoa da). Lehen txostena denez, eta oinarritzakoa, estatuan genero-indarkeriaren aurkako borrokan aktibatuta dauden legedia, planak eta programak eta autonomia-erkidegoen jardura laburbiltzen duten taulak jasotzen dira bertan, xehe-xehe jaso ere. Adituen Taldeak 2019ko irailean egin zuen bisita Espainiara, ikuskapen-lanen barruan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko agintariekin elkartu zen.

Jurisprudentziari dagokionez, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak epai garrantzitsuak eman dituzte; lehenak, genero-indarkeriaren kontrako borrokaren inguruan, eta, bigarrenak, gizarte-estalduraren inguruko gaietan. Ez dago sobera gogoraraztea Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera «genero-berdintasunean aurrera egitea Europako Kontseiluko estatu kideen xede nagusietako bat dela gaur egun. Pisu handiko arrazoiak argudiatu beharko lirarteke [sexuagatiko] tratu-bereizketa batek Hitzarmenarekin bat egiten duela balioetsi ahal izateko (...). Bereiziki, tradizioen aipamenak, onarpen orokorrek edo herrialde batean nagusi diren jarrerak ez dira nahikoak sexuagatiko tratu-bereizketak justifikatzeko».

[J.D. eta A. Erresuma Batuen kontra](#) kasuan, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak auzi-jartzailearen (genero-indarkeriaren biktima zen) eskubidea urratu izana deklaratu zuen, bere ondasunak errespetatzeko orduan diskriminaziorik ez jasotzeari dagokionez. Auzitegiaren ustez, zeharkako diskriminazio-kasua izan zen, tratu bereizi gabea eman baitzioten; hau da, estatuak ez zituen hartu auzi-jartzailearen egoera aintzat hartzeko neurri espezifikoak, eta, genero-indarkeriaren biktima izateagatik zaurgarriagoa zenez, tratu bereizia behar zuen.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2019ko bi epaiak Espainiako Gizarte Segurantzaren sisteman eragin dute. [2019ko ekainaren 20ko epaian](#), Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak adierazi zuen [Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren](#) 60.1. artikulua aurreikusten duen pentsio-osagarriak (zerga-pentsioen onuradun diren eta bi seme-alaba dauzkaten emakume amentzat bakarrik denak) sexuagatiko diskriminazioa eragiten duela eta bateraezina dela [Gizarte Segurantzaren arloan gizonei eta emakumei tratu berdina emateko printzipioa pixkanaka ezartzeari buruzko 79/7 Zuzentarauarekin](#).

[2019ko maiatzaren 8ko epaian](#), Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak denbora partzialeko emakume langileen pentsioa kalkulatzeko sistema aztertu zuen, eta partzialtasun-koeffizientearen ezarpena pentsioen zerga-sistema zaintzeko

behar dena baino harago doala ondorioztatu zuen; izan ere, denbora partzialeko langileek denbora osokoek baino lan gutxiago egiten dutenez eta gutxiago kotizatzen dutenez, haien oinarri erregulazalea txikiagoa izatea nahikoa da xede hori betetzeko.

Azkenik, [Belgikako arazo prejudizial baten harira emandako epai batean](#), enplegu- eta lan-gaietan gizonei eta emakumei aukera eta tratu bera emateko printzipioa ezartzeari buruzko [2006/54 Zuzentarauaren](#) 24. artikuluan sexuan oinarrituriko diskriminazioagatiko kekek aurkezten dituzten lankideei laguntzen dieten langileak ere babesten direla argitu zuen Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak. Babes hori, gainera, ez dago diskriminaziorik buruzko alegazioak ikertzeko prozeduran estatus jakin bat formalki aitortzearen mende (adibidez, lekukoa), ezta prozedura horren berezko formaltasunak betetzearen mende ere. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren ustez, alegatutako diskriminazioa jasan duenaren alde jardutea da erabakigarria: diskriminatu den pertsonari laguntza modu formal nahiz informalean emateagatik kaltetu daitezkeen langileak babestu behar dira.

2.2. Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren garapena

[Genero-indarkeriaren aurkako Estatu ituna](#), Gorte Nagusiek 2017ko irailaren 21ean erabakitakoa, sinatzearen bitartez, emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko aurrerapausoak ematean mugari garrantzitsua lortu zen. Adostasun politiko zabala eragin zuen itunaren bidez iritsi nahi zen, alde batetik, estatuko aginte publiko guztiek modu aktiboagoan parte hartzera emakumeek emakume izateagatik jasaten duten edozein indarkeriaren kontrako borrokan, eta bestaldekik, hainbat sektorek aspalditik aldarrikatzen dituzten eta premiazkoztat jotzen dituzten neurriak abian jarrita, bide zail horretan aurrera egiteko oinarriak ezartzera.

Itunaren ardatzak hainbat kontu garrantzitsuren inguruan garatu dira, hala nola: sentsibilizazioa eta prebentzioa; erakundeen erantzuna hobetzea; biktimei eman beharreko laguntza ahalik eta onena lortzea; adingabeak (indarkeria horren biktima zuzenak diren haurrak) babestea; tartean dauden eragileen prestakuntza bultzatzea; gizartean fenomenoaren inguruko ezagutza zabaltzea; emakumeen aurkako beste indarkeria batzuk aintzat hartzea; eta konpromiso ekonomikoa, eraginkortasunez aurrera egiteko.

Hala ere, itun horretan aurreikusten diren neurriak premiaz gauzatu behar diren arren, egiazki, eta 2018an 2017an onetsitako 213 neurrietako batzuk sustatu baziren ere (zehazki, Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurri buruzko [abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretuaren](#) bidez, zeinari buruz ia zoko urteko txostenean hitz egin genuen), 2019an sekulako geldialdia egon da Itunean aurreikusitako neurriak garatzeari dagokionez. 2019an, [funtsak autonomia-erkidegoen artean banatzeko irizpideak](#) bakarrik ezarri ziren, eta Estatu Berdintasunerako Idazkaritzak transferentzia berriak egin zituen, [udalentsako funtsak banatuta](#), Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunean [tokiko erakundeek gordetako eskumen berriak](#) garatzeko

xedez. Hala, *Estatuko 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen* 2019rako luzapenean ezarritakotik abiatuta banatu ziren funtsak, 20 milioiko partida jasotzen baita Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren barruan udalei gorde zaizkien eskumen berrietarako edo eskumen zabalduetarako, *Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzko abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretuan* ezarritakoarekin bat, udalei bideratutako funtsen banaketa erregulatzen baita bertan, *udalentsako funtsen transferentziei buruzko 2019ko abuztuaren 1eko Ebazpen* berriagoarekin bat etorritik (Estatuko Berdintasunerako Idazkaritzarena da Ebazpena).

Premiazko neurriei buruzko 9/2018 Errege Lege Dekretua (Estatu Ituna ezartzeko tresna giltzarria) lege-proiektu gisa izapidetu zen 2018ko Kongresuan baliozkotu ondoren (*Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzko Legearen proiektua*), eta, 2019an, Parlamentuan izapidetzen jarraitu du: txosten hau itxi den egunean ere lege gisa onartu gabe jarraitzen du.

Zoritxarrez, Estatu Itunean Kongresuak aurreikusitako 214 neurrien eta Senatuak aurreikusitako 267 neurrien zati handi bat ezarri gabe dago oraindik. Hala, bada, 2019a Estatu Ituna garatzeko orduan antzua izan dela adierazi behar dugu, eta Itunean jasotzen diren gainerako neurriak lehenbailehen eta modu bizi nahiz irmoagoan garatu behar direla gogoraztera bultzatu du horrek erakunde hau.

2.3. Euskadin aurreikusi diren erreformak eta emakumeen kontrako indarkeriaren eremuan jarduteko plan berria

Analisiak eta kontsultak egiteko aldiaren ondoren, 2019ko martxoan, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea* aldatzeko legearen aurreproiektuaren lehenengo zirriborroa aurkeztu zen Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluan. Martxotik maiatzera, testua jendaurrean jarri zen, eta kontsulta publikoa egin. Ondorioz, aurreproiektuaren bigarren zirriborroa idatzi zen. Legea aldatuz, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako «benetako politika eta estatu-ituna» ahalbidetu nahi dira, eta, horri begira, **legea indartu behar da, eta gizartearen nahiz araudien testuinguru berriaren ondoriozko premia eta eronka berrietara egokitu. Besteak beste, euskal ordenamendu juridikoa Istanbuleko Hitzarmenera egokitzeko betebeharra nabarmentzen da (Europako Kontseiluak 2011n sinatu zuen, eta 2014an jarri zen indarrean Espainian)**. Gainera, Arartekoak aurreko edizioetako txostenetan azpimarratu izan duen egokitzapena da. Txosten hau itxi den egunean, beharrezko kontsultak eta kontrasteak egin ondoren, legearen bigarren aurreproiektua dago, eta, aurreikusten denez, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2020ko urtarrilean onetsiko du lege-proiektu gisa. 2020an izapidetuko da lege-proiektu hori, eta funtsezko izapidea izango da, Euskadiko emakumeen berdintasuna lortzeko ezinbestekoa den lege bat 2005etik hona jazotako aldaketa sozial eta legeletara egokitzeko orduan aurrera egin nahi bada (Legea 2005ean aldarrikatu zen).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailak EAEn 2019-2021 aldiaren emakumeen kontrako indarkeriaren eremuan **Jarduteko Plana** onetsi zuen 2019ko abenduan. Bertan, justiziari indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei ematen dien arreta hobetzera daude bideratuta xedeak, eta, horri begira, emakumeen kontrako indarkeriaren arloko epaitegiek xede horrekin izan behar duten eginkizuna zehazten da, eta EAEko emakumeen kontrako indarkeriaren arloko epaitegiei eta epaitegi mistoei buruzko proposamen bat lantzen (gainerako operadore juridikoekin adostutako proposamena da).

3. Jarduera-planaren esparru bestelako esku-hartzeak

Jarraian, arlo honetan burutu diren jarduera garrantzitsuenak azalduko dira. Hain zuzen, agerian jarriko da zeintzuk izan diren arreta-gune nagusiak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez:

3.1. Bilerak elkartekin

Emakumeek alardeetan parte hartzen defendatzen duten kolektiboak

Aurreko urteetan bezala, erakunde hau etengabe aritu da so-lasean alardeetan emakumeen partaidetzari lotutako taldeekin, Irun eta Hondarribiko udalerriek bizi duten gatazka bideratzeko modua lantzen saiatzeko. Hala, elkarten kezka jaso ditu eta etengabe informazioa, laguntza eta orientazioa eskaini die. Bilera horietan kolektibo horiekin urtero alardearen baitan gertatzen diren erakundeen esku-hartzeekin lotutako alderdi zehatzak alderatu dira, bai eta estrategikoagoak diren gaiak ere, emakumeak alarde bietan erabat sartzeko bidean aurrera egiteko beharrezkoa den gizartearen eta erakundearen laguntza lortzeko.

Arartekoak gai horren inguruan adierazpenak egin dituen aldira adierazi du, **lanean jarraitzeko eta bere esku dauden bitarteko guztiak erabiltzeko konpromiso irmoa duela, Irun eta Hondarribiko jaietan elkarbizitza demokratikoa eta gizon zein emakumeen arteko integrazio berdintsurako bidean**.

3.2. Bilerak administrazio eta erakundeekin

Arloa ukitzen duten eremuetan funtzioak dituzten administrazio publikoekin bilerak egin dira eta erakunde honek **Emakunderekin** duen harremana azpimarratu nahi dugu. Nolanahi ere, ohiz lankidetzan biziki dihardugu, bereziki, genero-indarkeriaren arloan erakundearen arteko koordinazioari dagokionez. Hurrengo atalean zehatz-mehatz adieraziko da lankidetzaren hori.

3.3. Beste jarduera batzuk: jardunaldiak, foroak, zenbait ekitalditan parte hartzea

→ **Arartekoak Legebiltzarrean emakumeek eta gizonek Euskadin duten berdintasunaren inguruan aritzeko egindako agerraldiak**

- *Eusko Legebiltzarraren Lan eta Justizia Batzordearen aurrean egindako agerraldia, Gurasoen Banantze edo Haustura Kasuetako Familia Harremanei buruzko ekainaren 30eko 7/2015 Legea aldatzeko lege-proposamenari buruzko ekarpenak egitekoa*

Agerraldi horretan (2019ko maiatzaren 29an), zaintza partekatu zaintza-eredu gisa egokia dela babestu arren, indarkeria matxistaren kasuetan adingabeak zaindu behar direla azpimarratu zuen Arartekoak, indarkeria horren biktima zuzenak direlako. Beraz, oso ondo baloratu zuen genero-indarkeriaren edo emakumeen kontrako indarkeria matxistaren testuinguruetan seme-alaben zaintza kausa horrengatik prozedura judicial batean sartuta dagoen aitarekin partekatu ahal izatea galarrakazteko neurriak indartzea. Arartekoak, halaber, legearen testu berrira emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kontzeptu berria sartu behar dela adierazi zuen, genero-indarkeriaren zigor-arloko delitu-modalitateetatik harago baitoa (*Europako Kontseiluak emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horren aurka borrokatzeko sinatu duen hitzarmenaren bidez* (Istanbulko Hitzarmena) onartutako nazioarteko betebeharren ondoriozkoa da kontzeptu berri hori).

- *Eusko Legebiltzarraren Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean egindako agerraldia, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzeko lege-proposamenari buruzko ekarpenak egitekoa.*

Agerraldi horretan (2019ko urriaren 9an), txosten honetan jorratzen diren berdintasun-kontuei dagokionez, Eusko Jaurlaritzak proposatu duen testuaren arabera indarkeria matxistaren biktimen babesean hauteman diren hutsuneen gainean ohartarazi nahi izan zuen Arartekoak, eta testu horrek indarkeria matxistaren biktimen babesari buruzko nazioarteko esparru juridikoarekin bat egiten ez duela nabarmendu zuen. Bestetik, biktima horiek egiaztatzeko irizpideak bateratu behar direla adierazi zuen, Euskadiko sistema sozialak eskaini ahal dizkien askotariko prestazioetarako sarbidea izan dezaten. Azkenik, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei babes eta arreta hobe emateko ekintza positiboak antolatu behar direla esan zuen.

→ **Foroak eta jardunaldiak**

- *Ararteko erakundearen parte-hartzea Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko erakundearen arteko II. akordioaren Jarraipen Batzordean*

Aurreko txostenetan dagoeneko jaso dugunez, 2011. urtetik Ararteko erakundeak **Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordean** parte

hartzen du —bai batzordean bai erakundearen arteko talde teknikoan—, gure erakundearen ikuspuntua emateko helburuarekin, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei zuzendutako jardun publikoen osotasunean sor daitezkeen hutsuneak edo arazoak agerian jartzeko eta horiek hobetzeko proposamenak egiteko.

2019. urtean Arartekoaren erakundeko arduradunek erakundearen arteko batzordearen eta talde teknikoaren bilera desberdinetan parte hartu dute. Bilera horiei esker, genero-indarkeriaren emakume biktimen arretari buruzko alderditan erakundearen ikuspegia azaldu ahal izan da.

Bada, taldean ordezkatuta dauden askotariko erakundeek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea aldatzeko legearen aurreproiektuaren inguruan izan duten eztabaida izan da aurtengo lanean gehien nabarmendu dena; zehazki, emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko III. tituluaren VII. kapitulu berriari dagokionean.

- *Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren Emakumeen Defentsarako Sarearen barruko Europako eskualdearen topaketa, indarkeria obstetrikoiari buruzkoa*

Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren Emakumeen Defentsarako Sarearen barruko Europako eskualdeko kideak Gasteizen elkartu ziren ekainaren 14an. **Topaketa** horren harira, Arartekoaren laguntzaileak (sare horretako eskualde europarraren koordinatzaileak) sexu- eta ugalketa-eskubideek Europar duten egoerari buruzko jardunaldia gidatu zuen, eta, bertan, agerian jarri zuen sexualitatearen garapenak eta ugaltzeko ahalmenak zuzeneko lotura daukatela pertsonen duintasunarekin eta nortasunaren garapen askearekin, eta horrengatik babesten direla oinarrizko eskubideen bidez. Ondorioz, indarkeria obstetrikoiak eskubide horiek goitik behera urratzen dituela salatu zuen. Indarkeria obstetrikotzat jotzen da emakumeen gorputzaren eta ugalketa-prozesuen kontra ezartzen den indarkeria, baina ez du indarkeria fisikoa bakarrik biltzen, indarkeria psikikoa ere hartzen baitu. Batez ere, emakume haurdunari gizatasunik gabeko tratua ematen zaionean eta osasun sexualaren, haurdunaldiaren, erditzearen eta erditze-ondokoaren arreta-testuinguruan mehatxuzkoak diren adierazpenetan ikusten da.

- *Sexu-esplotazioa xede duen emakumeen salerosketari buruzko jardunaldi transnazonala, Kanarietako Parlamentuan egina*

Arartekoaren laguntzaileak urriaren 3an eta 4an hartu zuen parte **jardunaldi** horretan, zeina Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren Emakumeen Defentsarako Sarearen barruko Europako eskualdeak antolatu zuen, fenomeno horren inguruko eskubideak babesteko dugun sistemaren ahulguneei eta indarguneei buruz eztabaidatzeko eta botere publikoen askotariko erantzunak alderatzeko. Emakumeen salerosketaren biktimek Euskadin duten egoera zein den azaldu zuen Julia Hernandezek, erakunde honek defendatzaileek emakumeen eta neskatuen salerosketaren fenomenoaren aurrean izan dezaketen paperari buruz duen iritzia gainerako parte-hartzaileekin partekatzeko xedez.

→ **Adierazpen instituzionalak eta jakinarazpen publikoak**

Bestalde, Arartekoak 2018an zenbait adierazpen instituzional egin ditu nazioarteko ekitaldi batzuk direla bide, eta adierazpen horiek emakumeen eskubideen urratzea desagerrarazteko lan egiteko beharra azpimarratzen duten gertaerak oroitzen dituzte. Aipatutako ekitaldi horiek honako hauek dira:

• *Emakumeen Nazioarteko Eguna*

Adierazpen honetan, **genero-berdintasunaren arloko lege, politika, programa eta proiektuekin batera diru eta giza baliabideen hornidura espezifikoak egon behar direla gogorarazi nahi izan zuen Arartekoak. Halaber, agenda publikoek lehen orrian honako hauek txerta ditzatela eskatzeko baliatu zuen uea:**

- zaintzak behar dituzten pertsonak zaintzeko kontziliazio-neurriak eta emakumeen eta gizonen erantzukizuna areagotzeko neurriak indartzea;
- adin txiki-txikietatik hezkuntza-zikloaren amaierara arte sexista ez den hezkuntza edukitzeko neurriak indartzea;
- diziplina guztietako profesionalak berdintasun-gaietan trebatzea;
- soldata- eta pentsio-arrakalak deuseztatzeke ezinbestekoak diren tresnak egitea;
- pobrezia feminizazioaren kontra borrokatzeke neurriak hartzea;
- hedabideetan eta publizitatean estereotipo sexistak deuseztatzeke ekintzak abiaraztea.

• *Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna*

Egun horren harira, emakumeen kontrako indarkeria matxista era askotara agertzen dela **gogorarazi zuen Arartekoak**, eta **ez duela bikotekideak edo bikotekide ohiak ezarritako indarkeria bakarrik hartzen, bestelako matxismo bortitzak ere biltzen baititu**; hala nola, sexu-indarkeria, sexu-jazarpena, behartutako ezkontzak, emakumeen eta neskatoen salerosketa edo genitalen ebaketa. Era berean, **ezagutzen dugun indarkeria emakumeek jasaten duten benetako indarkeriaren zatitxo bat besterik ez dela** azpimarratu zuen, eta, beraz, **isiltasunaren kultura amaitzea nahi badugu, justizia-sistemak sakon eraldatu behar direla** adierazi zuen, eta **politika publiko guztiek genero-ikuspegia modu eraginkorrean txertatzen dutela** ziurtatu behar dela, indarkeria horrek balio matxistetan oinarrituriko desberdinkerian baitaizka sustraiak. Adierazpen horrekin, **gaitz iraunkor horren kontra erantzun kolektibo irmoa ematea** eskatu zuen Arartekoak, eta, **benetako berdintasuna lortu nahi bada, gizonen eta emakumeen artean aliantzak sortu eta sendotu behar direla** adierazi zuen. Halaber, **euskal gazteei buruz mintzatu zen bereziki**, gizartea aldatzeko bektorea baitira: gizartea aldatu beharra dago, genero-rolak eta -estereotipoak amai daitezten eta emakumeen kontrako indarkeriari eusten dioten jarrera matxistak babesten dituen korporatibismo maskulinoari aurre egin diezaiogun.

• *Irungo eta Hondarribiko alardeen gaineko jakinarazpenak*

Ararteko erakundeak bi jakinarazpen bidali zituen Irungo eta Hondarribiko alardeen harira (Irungo alardea **ekainaren 30ean** egiten da, eta Hondarribikoa **irailaren 8an**), eta Irungo alardeari buruz azpimarratu zuen alarde berdinzaleak ekitaldi publikoa izateari utzi badio ere udalak protagonismo aktiboa eduki beharko lukeela alarde berdinzalearen zaintzan eta defentsan. Adierazpen horretan, bada, Arartekoaren jarrera gogorarazi zen, zeina hainbat gomendiotan argi eta garbi adierazi izan den: emakumeentzat eta gizonentzat benetan berdintasunezkoa eta bidezkoa izango den gizartea defendatzen du Arartekoak (**Euskadiko jaietan emakumeak eta gizonak berdintasunez aritzeko abenduaren 21eko 3/2010 Gomendio Orokorrean laburbildu zen jarrera hori**). Bestetik, adierazi zenez, emakumeak gizonen aldean gutxien jarraitzen dituzten inertzia kultural eta sozialean aurrean, emakumeen protagonismo parte-hartzailearen eta herritartasun aktiboaren alde egin behar dute hala instantzia publiko guztiek, nola gizarte-ehundurak. Zentzu horretan, **Arartekoak bere konpromisoa berritu zuen, erakunde publiko guztiak modu aktibo eta erabakigarrian inplika daitezten Euskadiko jaiak emakumeentzat eta gizonentzat berdintasunezkoak izatea sustatzeko orduan**.

Hondarribiko alardeari buruz, berriz, kontu horiei buruzko **elkarrizketa sozial lasaia sortzen lagundu behar dela** azpimarratu zuen Arartekoak. Hala, elkarrekiko konfiantzazko giro batean sortu behar da elkarrizketa hori, eta elkarrizketa bera nahiz elkarrekiko konfiantzari bide emango dioten proposamenak babestu behar dira, herriko biztanleen gehiengoak eskatzen dituen **irtenbideak hitz eginez bakarrik lortuko direlako uste oso-osotik abiatuta**, ospakizun horren harira zoritxarrez **bizikidetzak hausten duten gertakariak amai daitezten**.

Era berean, Hondarribiko alarde tradizionaleko zenbait gazteek 2019ko urrian egindako komunikazio publikoa dela-eta, emakumeei haien lerroetara sartzeko deia egiten baitzuten bertan, Arartekoak adierazpen horri **babesa erakusteko jakinarazpen** bat hedatu zuen. Bertan, gazteen komunikazioa ondo baloratzen zuela adierazi zuen Arartekoak, ezinbesteko baldintzatat emakumeen eta gizonen erabateko berdintasuna duen bizikidetzak-eredu bateranzko bilakera soziala (gazteek gidatua) aldarrikatzen baitzuen, zalantzarik gabe. Beste behin ere, emakumeak berandu baino lehen alardera baldintza beretan modu normalizatu eta baketsuan sartu ahal izango direlako itxaropena duela adierazi zuen Arartekoak.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Gaur egun gure gizarteak erronkak ditu Euskadin lege-esparrua aplikatu eta betearazteko eta, bide batez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko eta halabeharrez nazioarteko testuinguruari lotuak daude: batetik, pentsamendu-korronte eta ekintza feministak, gero eta indar gehiagoz, egiturazko matxismoarekin eta bere ondorioekin

amaitzeko gure ereduaren eraldaketa sakona eskatzen baitute; eta, bestetik, erronka horiek, tamalez, emakumeen giza eskubideen aurkako goranzko erreakzioari, generoaren aurreiritzi eta estereotipoei, emakumeen aurkako gizarte-jarrerara sexistei eta diskriminatzaileei, bereziki, gorrotorako zirikaldi sexistei erantzun behar dizkiete.

Euskadin, erakunde eta pertsona askoren ahaleginari esker azken urteotan ezin ukatuzko aurrerapausoak egin diren arren, desberdinkeriazko botere-egiturek eta indarkeria matxistek egoten jarraitzen dute, eta emakumeek kultura- eta kirol-jardueretan duten parte-hartzeak ikusezina izaten jarraitzen du, edo parte-hartze hori mugatu egiten da, erabakiak hartzeari dagokionez (batez ere, ekonomiaren eta enpresaren munduan). Gainera, ezin daiteke aipatu gabe utzi laneko prekarietateak eta pobrezia emakumei eragiten dietela bereziki: oso errealtate feminizatuak dira. Horietan guztietan oinarrituta, erronka asko dago eta gero eta irrotasun eta uste osoagoaz lehentasuna eman behar zaio bitartekoez hornitzeari **emakumeek erabaki politikoak eta ekonomikoak har ditzaketela, berdintasun-baldintzetan kalitatezko enplegura iristen direla eta baliabide ekonomikoak lortzen dituztela ziurtatzeko. Gainera, batez beste ondoriozko beharrei aurre egin beharko zaie.** Nolanahi ere, arrazoi izaten jarraitzen dute, neurri handian, kultur balio sexistek eta gizonen nahiz emakumeen eskubide berdinez gozatzeko gizarte- eta ekonomia azpiegitura urriek.

Arartekoaren ustez, Euskadiko agenda politikoak lehentasuna eman behar die honako erronkei:

→ **Emakumeen kontrako indarkeria matxista: indarkeria mota hori prebenitzeko eta berori jasaten duten emakumeen arreta hobetzeko erronka**

Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunarekin sortu den esparru berriak (oraindik alderdi ugaritan garatzeko dago) eta gure arreta-sistema Europako estandarretara (Istanbulleko Hitzarmenera) egokitzeko premiak beharrezko egiten dute **biktimak babesteko eta laguntzeko baliabideak hobetuko dituzten neurriak hartzea.** Gauzak horrela, **oso egokia** da Eusko Jaurlaritzak *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen erreforma sustatzeko izan duen ekimena*, horixe baita Euskadin xede horrekin hartzen diren neurrietarako eta prestatzen diren baliabideetarako funtsa. Lege-prozedura hori lehenbailehen amaitzea litzateke onena, legearen erreforma berandu baino lehen gauzatu dadin eta, era berean, Euskadin indarrean den **erakunde arteko akordioa sinatu zuten erakunde guztien konpromisoa berritzeko** estaldura egon dadin; batetik, konpromiso hori **lege-esparru europar, estatal eta autonomiko berrira nahiz gizartearen betekizun berrietara egokitu** dadin, eta, bestetik, erakundeak genero-indarkeriaren kontra koordinatzeko oinarri solidoagoa hornitu dadin.

Oraindik orain, **indarkeria matxista jasaten duten emakumei euskal administrazio publikoetan (esku-hartzeko**

eremuetan) ematen zaizkien arreta, laguntza eta babes eraginkorrak ziurtatu eta indartu behar dira, bai oinarrizko nahiz espezializatutako gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren, osasunaren eta poliziaren arloan, bai justiziarekiko koordinazioan (bereziki, isildutako indarkeriaren kultura desagerrarazteko), eta erasotzailea salatu eta indarkeriatik irteteko bide konplexuari ekiteko urrats zaila ematea erabakitzen duten emakumei behar besteko laguntza eta babesa ematen zaizkiela ziurtatu behar da. Zentzu horretan, goraipagarria da Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailak 2019an onetsi duen ekimena: 2021era arte justiziaren eremuan Jarduteko Plana. Plan horretan jasotzen diren diagnostikoak eta proposamenak oso tresna baliagarria dira indarkeria mota hori jasaten duten emakumeek eta haien seme-alabek igaro behar duten bide judizialean ezinbestekoak diren hobekuntzak jorratu ahal izateko, bide malkartsu hori arindu eta erraztu egin behar delako, **justizia-sistemaren eraginkortasuna eta biktimen benetako babesa ziurtatzeko.**

→ **Emakumeak eta gizonak banatzen dituen arrakala ekonomikoari aurre egitea**

Adierazi den moduan, EBko emakumeek gizonen baino % 11,5 gutxiago hartzen dute parte lan-merkatuan; emakumeek jasotzen duten soldatak gizonenak baino 16 portzente-puntu azpirago egoten jarraitzen du, eta Europako konpainia nagusietako goi-karguen % 6,3 bakarrik dira emakumeak. Bestetik, emakumeek gehiengo izaten jarraitzen dute soldata baxuen sektorean; haien lana soldataren bidez ere gutxiesten da; ordaindu gabeko lanean duten parte-hartzea gizonena baino askoz ere altuagoa da, eta parte-hartze horrek ez du behera egiten, nahiz eta lan-merkatu sartu. Europako Batzordeak adierazten duenaren arabera, pentsioetan % 35eko arrakala dago egoera horren ondorioz.

Eta Euskadi ez da salbuespena. Iseak/Emakunde 2019an argitaratutako txostenetik (**Genero-arrakalak Euskadiko lan-merkatuan**) ondorioztatzen denez, «Hots, 7 portzente-puntuak da Euskadin jarduera-tasaren arloan dagoen genero-arrakala. Arrakala hori aldatu egiten da adin-taldearen eta hezkuntza-mailaren arabera: adinean gora egin ahala, arrakalak ere gora egiten du, eta ez dago ia alderik goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean. *Beste arrakala bat ere egiaztatzen du azterlan honek; hain zuzen ere, emakumeena baino % 24 handiagoa dela gizonen hileko batez besteko soldata. Arrakala hori azaltzeko bi arrazoi daude: batetik, gizonen emakumeek baino % 14 ordu gehiago egiten dute lan, eta, bestetik, gizonen emakumeek baino % 11 gehiago irabazten dute lan egindako ordu bakoitzeko. Arrakala horren herenak baino gehiagok gizonen eta emakumeen lanbide-segregazioan du jatorria. Azkenik, datuek atzematea ahalbidetzen ez duten % 8ko alde dago orduko soldatan. Datuetan ikus daitekeenez, emakumeen kontrako jokaera diskriminatzaile bat egon liteke atzematen ez diren desberdintasun horien gutxienez zati baten atzean; seguru asko, soldataren osagai aldakor txikiagoaren ondorioz».*

Datuok erakusten dutenaren arabera, aurrera egin behar da Euskadiko emakumeen eta gizonen arteko soldata-desberdinkeriak murrizteko eta, azkenik, desagerrarazteko neurrietan. Neurriokin, **lan-eremu jakin batzuetako ikuskaritza indartuko litzateke, emakumeentzako prestakuntza aurreratua sustatuko litzateke, estereotiporik gabeko lanbide-ereduetan oinarrituriko hezkuntza bultzatuko litzateke, eta kontziliazioa sustatzeko neurriak areagotuko lirateke.**

Euskal administrazioek izan behar dute nahitaezko soldata-berdintasuneranzko bidean buru, eta ez haien langileei dagokienez bakarrik, baita zerbitzu publikoen askotariko eremuetan zuzenean edo zeharka lan egiten duten langile guztiei dagokienez ere.

→ **Zaintza-lanen banaketan dagoen ekitate-gabeziari aurre egin behar zaio, laneko eta familiako bizitzak bateragarri eginez eta emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna sustatuz**

Halaber, kontuan hartu behar da ordaindu gabeko zaintza-lanen banaketan emakumeen eta gizonen artean dagoen

ekitate-gabeziak emakumeen lan-egoeran inpaktu negatiboa duela. Izan ere, egiaztatuta dagoenez, emakumeek ordaindu gabeko **zaintza-lanetan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren** batez bestekoa **gizonena halako hiru baino askoz handiagoa da.** Bada, zentzu horretan, komeni da gogoratzea Nazio Batuek **2030eko Agendaren Garapen Jasangarrirako 5. Helburuan** genero-berdintasunaren inguruan ezarrita dituen espektatiben helburua errealitate horri aurre egitea dela. Zaintza-lanetan eta etxeko lanetan igarotzen den denbora hori, neurri handi batean, genero-arrakala ekonomikoa hain handia izateko kausetako bat da. Euskal botere publikoek eremu horretan ere **eragin behar dute, bai hezkuntza-arloko neurrien, prestakuntza-ren eta gizarte-sentsibilizazioaren bidez, bai laneko eta familiako bizitzak bateragarriago eginez eta zaintza-lanei balioa emanez,** komunitate guztiaren ongizaterako lan gisa indartuz. Zalantzarik gabe, Eusko Jaurlaritzak aitatasun-eta amatasun-baimenak parekatzeko abiatu duen ekimena aurrerapauso objektibotzat hartu behar da, eta txalotu, baina ezin daiteke bazter utzi zaintza-lanek batez ere emakumeen kontua izaten jarraituko dutela pertsonen premia horiek goitik behera estaliko dituen berme sozialik egon ezean eta lan horren erabateko garrantziaren aitortza gizarteratuko duen balio-eraldaketarik egin ezean. Azken finean, zaintza-lanak oso eginkizun humanoa dira, zaintzak behar dituen zaintzea baita haien xedea.



III. atala

3

Ezintasunen bat duten pertsonak

Aurrekariak



Aurreko urteetan bezalaxe, atal honetan saiatuko gara desgaitasuna duten pertsonen eskubideak aldezteko 2019an azaldu dizkiguten gai guztiak aztertzen, erakunde honen jarduera esparruei buruzko zeharkako ikuspegi batetik.

Arartekoaren erakundeak, pertsona ororen eskubideak defendatzeko duen lehentasunezko eginkizuna betetz, azpimarra berezia jarri izan du beti beren eskubideez baldintza- eta aukera-berdintasunean baliatzeko zailtasun handienak dituzten pertsona guztien defentsan.

Horri dagokionez, [otsailaren 27ko 3/1985 Legeak](#) honakoa dio: *“Legebiltzarrak Konstituzioaren I Idazpuruak dakartzan eskubideak Legeak dionez bermatuz aldeztu, eta Autonomia-Estatutuaren 9. Atalak dakartzan demokrazia-oinarri irizpide orokorrak bete daitezenez arduratzeko jarritako goi-karguduna da Arartekoa”*. Horretarako, erakunde honen egitekoa da, herritarrek eskatuta edo bere ekimenez, administrazio publikoen jarduera kexa espedienteen bitartez ikertzea, baina, baita ere, politika publikoak eta pertsonen eskubideen babes-sistema ebaluatzea, botere publikoei gomendioak eginez nahiz pertsonen eskubideak betetzeko eta babesteko kultura indartzea xede duten txosten, analisi edo ekimenen prestakuntza sustatuz.

1. Kexarik aipagarrienak

Atal honetan zehatzago aztertuko ditugu, gure iritziz, arlo honetan interesgarriak izan daitezkeen eta ekitaldi honetan bideratu diren jarduerak eta zenbait kexaren izapidea.

1.1. Hirigintza irisgarritasuna eta mugikortasuna garraioan

Hona hemen zuzkidura publikoak eta ekipamendu kolektiboak erabiltzeko eskubidearen helburua: egon litezkeen arkitektura- eta hirigintza-oztopoak kentzea, bermatzeko zerbitzu horiek fisikoki irisgarriak direla herritar guztientzat. Ekipamenduaren edo zuzkiduraren kontzeptu horren barruan, kontuan hartzekoak dira herritarrei askotariko zerbitzu publikoak emateko beharrezkoak diren azpiegiturak (hirigintza-, garraio-, hezkuntza-, gizarte-, kultura-, osasun-zerbitzuak eta abar).

Arlo horri lotuta, 2019an jaso ditugun kexetako batzuetan, herritarrek mahaigaineratu dute zailtasunak izan dituztela Lanbideko bulegoetara, udal bulegoetara, kiroldegietara eta zenbait espazio publikotara sartzeko.

Euskadiko irisgarritasuna sustatzeko [abenduaren 4ko 20/1997 Legearen](#) 13. artikularekin bat, udalek lau urteko programak egin behar dituzte, honako hauek jasotzen dituztenak: irisgarritasun-baldintzetara apurka-apurka egokituz joango diren esparruen inbentarioa jasotzen duen katalogoa; jarduketan lehentasun-ordena; gauzatzeko egutegia eta programa ekonomiko-finantzariora.

Geroago, [apirilaren 20ko 505/2007 Errege Dekretuak](#), ezgaitasunen bat duten pertsonak espazio publiko hirituetara eta eraikinetara sartu eta horiek erabiltzeko behar dituzten oinarriko irisgarritasun eta bereizkeria ezeko baldintzak onesten dituenak, honako hau xedatu du: irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren onartutako oinarriko baldintzak nahitaezkoak izango dira 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, arazoizko doikuntzak egiteko aukera ematen duten lehendik

dauden eraikinetan (azken xedapenetako bosgarrena, [173/2010 Errege Dekretuaren](#) 1.3 azken xedapenak aldatuta).

Arau-esparru horrek, erakunde honen iritziz, eskatzen die administrazio publikoei planifikazio orokorra egin dezaten eta epe bat ezar dezaten beren eraikinetako irisgarritasuna sustatzeko, eta, hala badagokio, erabaki dezaten beren titulartasuneko eraikinetan arrazoizko doikuntzak egin daitezkeen ala ez, irisgarritasunaren inguruan ezarritako oinarriko baldintzekin bat.

Arartekoak jakin badaki aurrekontuak beti mugatuak direla euskal administrazio publikoek beren betebeharrak guztiei aurre egin ahal izateko; hala ere, eraikitako inguruaren erabilera normalizatua sustatzeko ekintza positiboko neurriak hartzea ezgaitasunen bat duten pertsonak integratzeko politikaren aldeko eskakizun berezia da.

Garraioen irisgarritasunari lotutako arazoei dagokienez gehien errepikatzen den kexetako bat aipatu nahi dugu, alegia, zenbait erabiltzailek zailtasunak dituztela plataforma baxuko autobusetara igotzeko. Plataforma elektrikoek huts egitearen ondorioz sortzen da arazo hori; ohiko akats horien ondorioz, gurpil-aulkien erabiltzaileak ezin dira ibilgailu horietara igo, eta, igotzea lortuz gero ere, ageriko zailtasunak dituzte jaitsi ahal izateko.

1.2. Hezkuntza

Arartekoan aurkeztu zen kexa bat behar bezala izapidetzeko asmoz, [Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren](#) laguntza eskatu genuen, adimeneko ezgaitasuna duten pertsonen, adin muga (21 urte) gaindituta hezkuntza-sistema utzi behar dutenean, izan ditzaketen prestakuntza-aukerak ezagutzeko. Jakin nahi izan genuen ea arlo publikoak, pertsona horiek gizarteratzea eta laneratzea errazteko, haien behar bereziei egokitutako prestakuntza osagarriren bat ematen duen.

Arartekoak bidalitako eskaerari erantzunez, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei Oinarrizko Lanbide Heziketan sartzeko aukera eman eta ikastea errazte aldera 2019-2020 ikasturteari begira egindako aldaketan berri eman digu sailak.

Ildo horretan, ikasturte honetan gehitutako lehenengo beritasuna % 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazen kopurua areagotzea izan da (% 5 izatetik % 10 izatera). Bigarren beritasuna hauxe da: pertsona horiei matrikulatzeko aukera ematea, 17 urte bete badituzte ere; izan ere, 2018-2019 ikasturtera arte ezinezkoa zen. Eta hirugarrena Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloen curriculum hiru urteko ibilbidera egokitzeko proiektu pilotua abian jartzeko asmoa da.

Proiektua Hernaniko Lanbide Heziketako Ikastetxe Batera-tuan —Gizarte Berrikuntzan— burutuko litzateke. Arartekoari bidalitako txostenaren arabera: “Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bi dira Metalezko elementuen fabrikazioa (aukera: mekanizatua) eta elektrizitatea eta elektronika. Hiru urteko iraupena izango du, eta gaur egun ezarrita dauden biak.

Prestakuntza-ibilbide berri hau premia espezifikatuak dituzten kolektiboetako pertsonentzat edo 17 urtetik gorako pertsonentzat dago pentsatua, baldin eta lanbide-heziketako titulurik edo bigarren mailako ikasketa osoak amaitu izana egiaztatzen duen beste titulurik ez badute.

Lanbide-moduluak hiru ikasturteren banatu dira, dagokien ordutegia esleituta.

Curriculum-egokitzapen hori osatu beharko da hurrengo ikasturteetan, langile kualifikatuekin, hezkuntza-premia espezifikokoak dituzten ikasleen taldeetako irakasleekin lankidetzan aritzeko.”

Hezkuntza-administrazioak adierazi duenez, gero eta heterogeneoagoa den eta behar desberdinak dituzten kolektiboek osatuta dagoen gizartearen egiazko beharrei erantzun behar dien prestakuntzaren ezartze-prozesua bultzatzea da ikasturte honi begira egindako aldaketan helburua.

1.3. Gizarteratzea

Ekitaldi honetan, Lanbideren jarduketek eragin dituzten hainbat kexa jaso dira. Izan ere, kexa horien arabera, erakunde publikoak diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaerak ukatzea edota prestazioak aldi baterako zein behin betiko etetea erabaki du, nahiz eta bizikidetzaren unitateko kideetako batek edo batzuek ezgaitasuna izan; horrek nabarmen larriagotzen du familien zaurgarritasun-egoera, ezin baita ahaztu familien oinarrizko premiak asetzeak eta irauteak dakartzen gastuei aurre egitea dela prestazioen helburu nagusia. Ondorio horietarako, Arartekoaren iritziz, aipatu erakunde publikoak kontu handiz jokatu beharko luke horrelako kasu berezietan erabakiak hartzeko orduan. Izan ere, tartean diren inguruabarrak direla eta, aldez aurretik azterketa zehatza eta sistematikoa egin behar da, horrelako bizikidetzaren unitateentzat kaltegarriak izan daitezkeen ondorioak saihesteko.

Adibide gisa, emakume batek aurkeztutako kexa bat azaldu behar dugu. Hain zuzen, kexagilea 2018. urtean onartu zitzaizkion desgaitasuna eta II. graduako mendekotasun larria duen 3 urteko haur baten ama da, eta kexa jarri du, Lanbide laneko diru-sarrerak osatzeko diru-sarrerak bermatzeko errenta (200 euro) irautitzea erabaki duelako; emakumeak semea zaintzeko eskatu zuen eszedentzia oinarri hartuta jasotzen zuen prestazio osagarria. Arartekoak bidalitako eskaerari erantzunez, Lanbidek onetsi egin zuen interesdunak egindako berraztertze-errekurtsoa, prestazioa emateko beharra egiaztatuta dagoela ulertuta.

Bestalde, ekitaldi honetan, kexagileen alde ebatzi dira prestazioak erreklamatzeari buruzko kexak, diru-sarrerak bermatzeko errentaren osagarriaren ondorioetarako seme edo alaba bat ardurapean izateagatik prestazioa jasotzen duten pertsonak pentsioduntzat jotzeari buruzkoak.

1.4. Ogasuna

Erakunde honek urteko txostenetan azpimarratzen duenez, botere publikoek aintzat hartu behar dute desgaitasuna,

neurri handiagoan, sustatu behar dituzten politikak planifikatzeko orduan, besteak beste, zerga-politikan.

Bistakoa da desgaitasunak murriztu egiten duela ahalmen ekonomikoa —persona desgaituarena zein familia-inguru-nearena: aurreko ahaideak, ezkontideak eta ondorengoak—, beren errenta eskuragarria mugatzen duten gastu gehigarri batzuk gain hartu behar izaten dituztelako.

Desgaitasun-egoera egiaztatzeak nahasmena sortzen du desgaitasunari lotutako zerga-onurak erabili nahi dituzten pertsonen artean, batez ere, pairamenen ondorioz Gizarte Segurantzaren ezintasun iraunkor osoa aitortua dutenen artean. Izan ere, desgaitasunagatik, PFEZren ondorioetarako % 33ko desgrabazioa aplikatzeko aukera ematen zaie, baina beste zergetan ez da horrela gertatzen.

Zehaztu behar da zerga bakoitza arautzen duen araudiak ezartzen dituela aplika daitezkeen zerga-onura konkretuak, baita haien aplikazio-esparru objektibo zein subjektibo ere. Hau da, zerga-araudiek ezartzen dituzten onurak tasatuta daude, eta zerga-araudi bakoitzak ezarri dituenak dira, eta horiek bakarrik.

Ildo horretan, hain zuzen ere, PFEZri buruzko araudiak esanbidez aipatzen du desgaitasunen bat duten pertsonak honako hauek direla: % 33ko elbarritasuna edo handiagoa dutenak eta bai ezintasun oso edo absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioa aitortuta duten Gizarte Segurantzako pentsiodunak, baita zerbitzurako ezintasun iraunkorra izateagatik erretiro pentsioa aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunak ere.

Era berean, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia arautzen duten araudiak salbuespen handia jasotzen du, desgaitasuna duten pertsonen izenean (beraiek soilik erabiltzeko) matrikulatzen diren ibilgailuen lehenengo matrikulazioari dagokionez, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

1. Beste ibilgailu bat baldintza berdintsuetan matrikulatu zenetik lau urte gutxienez igaro badira. Hala ere, baldintza hori ez da eskatuko, baldin eta ibilgailua erabat hondatuta geratu dela behar bezala egiaztatzen bada.
2. Matrikulatu ondorengo lau urteetan «inter vivos» motako egintza batean eskualdatzen ez bada.

Kontuan izan behar da —zerga arautzen duen araudiak berriaz hala aurrekusi duelako— salbuespena aplikatzeko, aldeztu zerga-administrazioaren onarpena jaso behar dela, araudi bidez ezarritako moduan; horretarako, desgaitasunaren edo ezintasunaren egiaztatzea aurkeztu behar da, Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak edo erakunde kudeatzaile eskudunek emandakoa. Ondorioz, ezintasun iraunkor osoagatik pentsioa onartzen duen agiria izango da desgaitasunaren frogabidea zerga horren ondorioetarako.

Edonola ere, ibilgailua matrikulatu baino lehen, eskaeraren eredu normalizatua aurkeztu behar da, eta matrikulatzea ezintasuna duen pertsonaren izenean egingo da. Eskaerari ibilgailuaren fitxa teknikoaren kopia bat erantsi behar zaio,

baita Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak emandako baliaezintasun-ziurtagiriaren kopia ere.

Dena den, beste zergetan, adibidez, BEZean edo Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan (TMIZ), zerga-onuraren aplikazio-esparrua aldatu egiten da.

Izan ere, TMIZk desgaitasunari lotutako salbuespen konplexua jasotzen du, baldintza objektiboak (ibilgailuaren zerga-potentziari buruzkoak) zein subjektiboak (onuradunak duen mugitzeko urritasunaren ondoriozkoak) betetzea eskatzen duena (mugikortasun urriko egoera).

Zerga-onura hori izateko, beharrezkoa da desgaitasuna aldeztu aurretik onartzea; gero, salbuespena aplikatzeko eskaera egin behar da, eta TMIZ jasotzen duen udalak onartu behar du eskaera hori. Ibilgailuaren egoitza fiskala dagoen udalerriri dagokion udala da.

BEZaren arloan, tasa murriztua (% 4) desgaitasuna duten pertsonak —gurpil-aulkietan ibiltzen direnak edo mugikortasun urria dutenak— garraiatu ohi dituzten ibilgailu motordunak erosten direnean onartzen da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko [abenduaren 28ko 37/1992 Legearen](#) 91.Bi.4 artikuluan jasotako eskakizunekin bat.

Tokiko mailan, logikoa dirudi pentsatzea herritarrengandik hurbilago egotea, baita toki-erakundearen jarduketek desgaitasuna duten pertsonen arazoetan eragin handiagoa izatea ere, lagungarriak izan behar litzateke beren zerga-sarreraren eraketan —modu berezian— desgaitasunaren berezitasunak aintzat hartzen dituzten ekimenak bultzatzeko. Hala ere, gaurkoz, tokiko zergek modu partzialean bakarrik tratatzen dute desgaitasuna.

Ildo horretan, gogorarazi behar da toki-zergeen arloan desgaitasuna duten pertsonen berariazotasunak sartzeko guztiz koherentea dela Konstituzioan eta zerga-araudietan ezarritako printzipioekin.

Desgaitasunak ematen dituen aukerak, tasa eta prezio publiko gisa ordaindu beharreko tarifak ezartzeko orduan, zerga-ordenantza gutxi batzuek jasotzen dituzten neurri batzuetan baino ez dira agertu.

Horri dagokionez, [Ordiziako Udalak](#) abian jarritako ekimena aipatu behar da. 2018an, familia batek Arartekora jo zuen, behin baino gehiagotan planteatu baitzuen udaleko kirol instalazioak erabiltzeko familia-abonamenduen zenbatekoan hobari bat aplikatu beharra, familiako kide helduetako batek bakarrik desgaitasuna duenean. Kexagileek onartu zuten, udaleko kirol instalazioak erabiltzeko familia-abonamenduak dagoeneko jasotzen zuen tarifa % 10 murrizteko aukera; hala ere, onuradun izateko, bikotekide biek % 33 baino gehiagoko desgaitasuna aitortua izan behar zuten. Azkenean, Ordiziako Udalak eta kirol-instalazioen Administrazio Kontseiluak familia-abonamenduen zenbatekoetan % 5eko hobaria aplikatzea erabaki zuten, desgaitasuna bikotekide batek bakarrik duenean. Era berean, herritarren eskaera horri behar bezala erantzuteko, onuraren atzeraeraginezko efektuak aplikatu ziren.

1.5. Segurtasuna

Eragindako administrazioek kexen alde jardun dute arlo honetan 2019an izapidetu diren kexa askotan.

Hala izan da, adibidez, [Gasteizko Udalak](#) ezarritako zehapen baten kasuan; izan ere, zigorra gaitasun urrikoentzako aparkatzeko txartelaren titular bati ezarri zioten, bere ibilgailuak aparkaleku erreserbatuaren mugak gainditzen zituelako; hala ere, aparkaleku horrek ez zuen legez ezarritako tamainarik. Udalak onartu du erakunde honen balorazioa, eta zehapena ondorioz gabe utzi du. Gainera, aparkaleku erreserbatu guztiak aztertzeko konpromisoa hartu du, dimentsio-arazoak, baita beste arazo batzuk ere (diseinua, seinaleztapena eta irispidea) detektatze aldera.

Gauza bera geratu da [Tolosako Udalak](#) ezarritako zehapen batekin; izan ere, gaitasun urrikoentzako aparkatzeko txartelaren titularari isuna jarri zion udalak, ibilgailua TAO gunean aparkatuta uzteagatik, horretarako gaitzen duen titulurik gabe, ibilgailuak bereizgarria ondo ikusten zen tokian eraman arren. Erakunde honek gogorarazi zion udalari txartela gaikuntza-titulu nahikoa dela titularrak joan-etorriak egiteko erabiltzen duen ibilgailua aparkamendu mugatuko guneetan beharrezko denboraz aparkatu ahal izateko. Era berean, gogorarazi zion [4/2018 Gomendio Orokorra](#), [2018ko urriaren 9koa](#), hain zuzen, gai horri buruzkoa. Erakunde honen goetarako udalak aintzat hartu ditu, eta zehapena ondorioz gabe utzi du.

1.6. Etxebizitza

Etxebizitza egokituen premia dela-eta, jakin badakigu etxebizitza babestuen parkeak, oro har, eta alokairu-araubideko etxebizitza egokituen parkeak bereziki, mugak dituztela gaur egun, eta, horren eraginez, herritarren eskaria herri-administrazioen eskaintza baino askoz handiagoa dela. Horren harira, ekitaldi honetan, herritar askok kexak aurkeztu dituzte, errentamendu-araubideko etxebizitza egokituen premia zuten-eta.

2. Araudi- eta gizarte-testuingurua

[Urriaren 29ko 168/2009 Dekretuak](#) Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak arautu ditu, baita enplegu zentro berezien Euskal Erregistroa ere.

Dekretua EAEn kudeatu behar diren programa guztiak tresna juridiko bakar batean jasotzen dituen lehenengo araudia da. Dekretuak, desgaitasuna duten pertsonen orientabidea eta enplegurako prestakuntza emateko jarduketak arautzeaz gain, Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa sortzen eta arautzen du, eta haien kalifikazioa eta inskripzioa egiteko prozedura ezartzen du.

3. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

3.1. Bilerak elkarteekin

Arartekoak betidanik pentsatu izan du EAEn eremu honetan diharduten elkarteek egiten duten lanak gure ohiko zeregina aberasten duela, kolektiboaren errealitatea ezagutzera ematen duten antena gisa dihardute-eta. Hori dela eta, ezinbestean eman behar dizkiegu eskerrak, erakunde honekin etengabe lankidetzan aritzen direlako.

Ekitaldi honetan, [Elkartu](#), [Fekoor](#), [Euskal Gorrak](#), eta [Fevapas](#) elkarteekin harremanetan jarraitu dugu, ezgaitasunen bat duten pertsonen kolektibo gisa eragiten dieten gaiak aztertzeko, eta, hala badagokio, beraiek egindako kexak izapidetzeko.

3.2. Txosten berezien jarraipena

3.2.1. *EAEko garraio publikoaren sistemaren irisgarritasunari buruzko 2011ko txosten bereziaren jarraipena*

2019ko ekainaren 14ko bileran, Euskal Trenbide Sarearen (aurrerantzean, ETS) zuzendari nagusiak laburpen-dokumentu bat aurkeztu zion Arartekoari: *“ETSko geltokien Irisgarritasun Plana eguneratzea”*, 2019koa, 2014-2018 aldian egindako aldaketan berri erakunde honi emateko; aldaketa horiek, hain zuzen, EAEko trenbideko hainbat lineatako tren-geltokietan egin dira. Halaber, irisgarritasun-mapak eguneratu ziren, Arartekoak 2011. urtean *“EAEko garraio-sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa”* txosten berezia aurkeztu zuenetik hona.

Nabarmendu beharreko jarduketan artean, metroaren 3. linea osatzen duten geltoki berriak eraikitzea aipatzen da (Matiko, Uribarri, Zazpi Kaleak, Zurbaranbarri, Txurdinaga, Otxarkoaga eta Kukullaga), baita Loiola eta Altza geltokiak ere, Lasarte Oria-Hendaya E2 lineakoak (Topo).

Era berean, ETSko geltokiei buruzko 2013ko Irisgarritasun Planean ezarritakoarekin bat, Metroaren 3. linea zerbitzuan jartzerakoan, saiatu da Txorierrri E3 lineako geltoki guztiak (Matiko-Lezama) aplikatu beharreko araudiak eskatzen dituen irisgarritasun-baldintzetara egokitzen. Ildo horretan, oro har, honako jarduketa hauek burutu dira: nasaren eta trenaren artean pasatzean —bai altuera-diferentziagatik, bai elementu bien arteko distantziagatik— sortzen den arazoa konpontzea; nasak solairu-lauza ez-labaingarriekin zolatzea, kotako diferentziak optimizatuta; geltokietarako sarbideak hobetzea (arrapalak jartzea eta eskaillerak kentzea); sarbideetako zein atarte eta nasetako argiztapena hobetzea (LED sistemak jartzea); megafonia- eta interfonia-sistemak eta geltokietako bideozaintza-sistemak ezartzea eta hobetzea; eta seinaleztapena eta erabiltzaileentzako informazioa jartzeko euskarriak hobetzea.

Halaber, adierazgarria izan da Bilbo Atxuri-Donostia Amara E1 lineako geltokietan (Ariz, Zuhatzu, Berriz, Errotaberri, Toletxegain Zarautz eta San Pelaio), Lasarte-Oria-Hendaia E2 lineakoetan (Errenteria, Belaskoenea, Irun Bentak) eta Bilbo-Bermeo E4 lineakoetan (Ariz, Zuhatzu, Muxika eta Mundaka) birmoldatu diren arrapalen kopurua; hain zuzen ere, desnibelak, zolaketa, barandak eta eskubandak irisgarritasunari buruzko araudiak ezarritako eskakizunetara egokitzeko birmoldatu dira elementu horiek.

Bestaldetik, garrantzitsua da azpimarratzea Irungo geltokian bi igogailu berri instalatu direla (Lasarte-Oria-Hendaia E2 linea, "Topo" delakoa). Horri esker, geltokia mugikortasun urriko pertsonentzat irisgarria da, lehenago nahitaezkoa baitzen eskailerak igotzea, nasetara iristeko.

Era berean, jaso genuen txostenean adierazita dagoenez, geltokien erdian "pedestrial" delakoak instalatu dira, hau da, trenbide-pasagunea erabiltzen da, nasa batetik bestera joateko. Elementu horrekin pasagunearen azalera uniformeagoa izatea lortzen da, geltokiaren irisgarritasuna nabarmen hobetuz, mugikortasun urriko pertsonen begira.

Azkenik, aipatu beharra dago ETSko geltoki guztietako nasetan seinale horizontal eta bertikalak jarri direla, mugikortasun urriko pertsonak beraiantzat aurreikusitako sarbide-ateen aurrean ipin daitezkeen. Halaber, nasen ertz guztietan nahitaezko segurtasun-linea margotu da.

3.2.2. *EAEko ospitaleen irisgarritasunari buruzko 2017ko txosten bereziaren jarraipena*

Arartekoak bidalitako eskaerari erantzunez, [Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak](#) txosten bat helarazi digu; horretan laburbildu dira sailak eta [Osakidetza](#) 2018. eta 2019. urteetan burututako jarduketak, Euskadiko osasun-sistema publikoaren irisgarritasuna hobetzeko.

Aipatu txostenaren arabera, azken urteotan, Osakidetza lanean aritu zen azpiegituren arloan, sistemaren irisgarritasunari lotutako jarduketak sustatzen, Osakidetza zerbitzu-erakundeek burutzen zituzten jardueren bidez, beharren arabera eta zentro bakoitzaren ahalmenen arabera, desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala eta sentzoriala duten pertsonen irisgarritasuna bermatze aldera. Hain zuzen, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak emandako datuen arabera: 384 egintza eta 4,8 M€ gauzatu, 2013 eta 2017 bitarteko bost ekitaldietan.

Aurrekoa gorabehera, 2018. urteaz geroztik, esku-hartze horiek era korporatiboan eta irizpide bateratuekin garatzen direla aipatzen da.

Horretarako, kontuan izan da "[EAEko ospitaleek ezgaituenentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoa](#)" Arartekoak 2017. urtean egindakoa. Era berean, sailak gogorarazi zuen txostena egin eta urtebete geroago, 2018ko apirilean, "Osakidetza duen irisgarritasunari buruz" izenburuko Legez besteko Proposamena (11/11/02/01/0304) izapidetu zela Eusko

Legebiltzarrean. Horren bidez, hertsatuki eskatu zitzaion Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari Irisgarritasun Unibertsalaren EAE-ko Estrategia susta zezan, eta Osasun Sailari aipatu estrategiari lotutako ekintza-plan bat presta zezan, Arartekoaren argibideekin bat zetorrena.

Eskaera horri erantzuna emateko, Osasun Sailak eta Osakidetza arretaguneen sare osoan eta Osakidetza zentroetan irisgarritasunaren hobekuntza lehenestea erabaki zuten. Horrela, 2018. urtetik, irisgarritasuna hobetzeko berariazko inbertsioetara urteko milioi bat euro bideratzen da. Helburu horri dagokionez, erakunde sanitarioekin batera identifikatutako ekintzen adibideak honako hauek dira:

- Eraikinerako sarbidean egon daitezkeen Arkitektura-oztopoak kentzea.
- Erabiltzailearen Arreta eremuko altzariak egokitzea.
- Sarbideetik Erabiltzailearen Arreta eremuraino baldosa podotaktikak jartzea.
- Mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako apar-kalekuak, behar bezala seinaleztatuta, kokatuta eta zainduta
- Zeinu-hizkuntza interpretatzeko sistema txertatzeko aukera aztertzea.
- Beste erraztasun batzuk.

Hortaz, Osakidetza emandako datuen arabera, 2018. urtean, 1.023.076,96 euro gastatu da irisgarritasuna hobetzeko 71 jarduketatan. Hain zuzen ere, honako esku-hartze hauek aipatu nahi ditugu:

"Por tipología de actuaciones:

- 22 actuaciones sobre puertas (automatización, modificación, etc.).
- 12 obras de adecuación (urbanización, accesos e interiores).
- 12 actuaciones de adecuación de aseos.
- 6 actuaciones de grúas de techo en habitaciones.
- 5 puntos de atención accesibles.

Por Territorio Histórico:

- 35 actuaciones en Bizkaia.
- 23 en Gipuzkoa.
- 13 en Araba.

Por Organización de Servicios:

- 10 actuaciones se realizan en Hospital Santa Marina Ospitalea.
- 8 en OSI Araba ESI.
- 8 en OSI Barrualde-Galdakao ESI.
- 8 en OSI Debagoiena ESI.

En términos económicos:

- Adecuación de aseos concentró 27%, actuaciones en puertas 23%, obras de adecuación 19% (urbanización,

accesos e interiores), y grúas de techo en habitaciones 17%.

- 58% fue ejecutado en Bizkaia, 24% en Gipuzkoa y 18% en Araba.
- OSI Barrualde-Galdakao ESI concentró 23% de lo ejecutado y Hospital Santa Marina Ospitalea 16%.”

2019an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arabera, 1.636.334,86 euro gastatu da irisgarritasuna hobetzeko 55 jardueratan.

“Por Tipología de Actuaciones:

- ✓ 10 obras de adecuación (urbanización, accesos e interiores).
- ✓ 8 actuaciones sobre puertas (automatización, modificación, etc.).
- ✓ 9 actuaciones de adecuación de aseos.
- ✓ 4 actuaciones de grúas de techo en habitaciones.

Por Territorio Histórico:

- ✓ 33 actuaciones en Bizkaia.
- ✓ 13 en Gipuzkoa.
- ✓ 9 en Araba.

Por Organización de Servicios:

- ✓ 9 actuaciones se realizan en Hospital Santa Marina Ospitalea.
- ✓ 8 en Red de Salud Mental de Bizkaia.
- ✓ 4 en OSI Rioja Alavesa – Arabar Errioxa ESI.
- ✓ 5 en OSI Donostialdea ESI.

En términos económicos:

- ✓ Destacar las obras de adecuación 54% (urbanización, accesos e interiores), grúas de techo en habitaciones 13% y actuaciones en puertas 9%.
- ✓ 58% fue ejecutado en Bizkaia, 27% en Gipuzkoa y 15% en Araba.
- ✓ OSI Donostialdea ESI concentró 20% de lo ejecutado, Red de Salud Mental de Bizkaia 17%, Hospital Santa Marina Ospitalea 11%, y OSI Rioja Alavesa – Arabar Errioxa ESI 10%.”

Azkenik, aipatu behar ditugu sailak, 2018tik aurrera, ume-toki-lepoko minbizia goiz detektatzeko programa abiarazteko hartutako neurriak. Programa populazioan oinarritutako baheketa-proba berria da, Euskal Osasun Zerbitzuan ezarritako beste proba batzuen multzoa osatzen duena.

Aipatu programa burutzeko, sailak FEKOOR (Gutxitasun fisikoa edota organikoa duten Bizkaiko pertsonen Federazio Koordinatzailea) erakundeko Beldintasun Atalaren laguntza izan du. Izan ere, federazioaren iradokizunez, programan parte hartzera gonbidatzeko gutunean, behar zehatzak dituzten emakumeek doako telefono-zenbakiaren bidez harremanetan jar daitezkeela aipatzen da. Horrela, irisgarritasunaren arloko adituek eta osasun-arretaren arloko profesionalak

arretagune bakoitzaren irisgarritasuna baloratu ahal izan dute eta irisgarritasunaren maila orokorra zehaztea ahalbidetzen duten kokapenei buruzko azterketa teknikoak egin dituzte: zentrorako sarbidea, kontsultarako sarbidea, miaketa-aulkian jartzeko modua, miaketa-aulkiaren ergonomia, mahaia, maniobragarritasuna eta autonomia eta abar. Azterketa horien guztien ondorioz, hobekuntza garrantzitsuak egin dira, adierazgarrietako bat miaketa-aulki egokituak erostea izanik; gainera, ekimenari esker, zentro bakoitzaren egoera hobeto eta zuzenean ezagutu ahal izan da.

Horri dagokionez, gogorazi behar da Arartekoak, 2017. urtean egindako diagnostikoan, aipatu zuela bisitatutako kontsulta ginekologikoetan ez zegoela mugikortasun urriko emakumeek erabiltzeko moduko mahai edo ohatilarik. Miaketa-aulki horiek erosteari esker, desgaitasuna duten emakumeek arreta ginekologikoa jaso dezakete.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

4.1. Abenduaren 4ko 20/1997 Legea, Euskadiko Irisgarritasuna Sustatzekoa, indarrean jarri zenetik denbora luze igaro bada ere, **zenbait espazio publiko (bizitegi-zona zaharrenak, batez ere) eta erabilera publikoko eraikin ez daude behar bezala egokituta, eta gabezia handiak dituzte.**

Ekitaldi honetan, Euskal Trenbide Sareak zein Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak burututako jarduketak aipatu behar ditugu: batetik, trenbide-azpiegitura, eta bestetik, ospitale-zerbitzuak, pertsona guztiei zerbitzu publiko horiek baldintza berdinetan erabiltzeko aukera bermatzeko bete beharreko irisgarritasun-baldintzetara egokitzeak.

Aurrekoa gorabehera, Arartekoak jarraitu behar du gogoratzeko, batez ere, udalei, baina baita zerbitzu publikoak ematen dituzten gainerako administrazioei ere (osasuna, gizarte zerbitzuak, hezkuntza eta abar), irisgarritasun-baldintzei egokitu behar zaizkien beren titulartasuneko ondasun eta espazio publikoen katalogo bat izan behar dutela; hala, jarduketan lehenetasun-hurrenkera ezarriko da, gauzatzeko egutegia eta programa ekonomiko-finantzarioa.

Erakunde honek jakin badaki aurrekontuak beti mugatuak direla herri-administrazioek bere betebeharrak guztiei aurre egiteko; hala ere, ingurune eraikiaren erabilera normalizatuaren alde egingo duten ekintza positiboko neurriak hartzea ezgaitasunen bat duten pertsonak integratzeko politika baten aldeko eskakizun berezi bat da.

4.2. Beste urte batez, desgaitasun egoeran dagoen kide bat (edo batzuk) dituzten familien kexak jaso dira, kasu horietan, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaerak ukatzea edota prestazioak aldi baterako zein behin betiko etetea erabaki duelako; horrek nabarmen larriagotzen du familien

zaugarritasun-egoera, ezin baita ahaztu familien oinarritzko premiak asetzeak eta irauteak dakartzan gastuei aurre egitea dela prestazioen helburu nagusia. Hori dela eta, **Arartekoak uste du aipatu erakunde publikoak kontu handiz jokatu beharko lukeela horrelako kasu berezietan erabakiak hartzeko orduan. Izan ere, tartean diren inguruabarrak direla eta, alde zurretik azterketa zehatza eta sistematikoa egin behar da**, horrelako bizikidetz-unitateentzat kaltegarriak izan daitezkeen ondorioak saihesteko.

4.3. Erakunde honek, urtez urte, bere txostenetan adierazi izan du ezgaitasunen bat duten pertsonak zein haien familiek aparteko ahalegin ekonomikoa egin behar dutela, eta botere publikoek horren jakitun izan behar dutela, pertsona horiek aintzat hartzeko herri-administrazioetan —besteak beste, zerga-administrazioan— abiarazitako politiken plangintzan.

Tokiko mailan, logikoa dirudi pentsatzea herritarrengandik hurbilago egotea, baita toki-erakundeen jarduketek desgaitasuna duten pertsonen arazoetan eragin handiagoa izatea ere, lagungarriak izan beharko litzateke beren zerga-sarrereren eraketan —modu berezian— desgaitasunaren berezitasunak aintzat hartzen dituzten ekimenak bultzatzeko. Hala ere, gaurkoz, tokiko zergek modu partzialean bakarrik tratatzen dute desgaitasuna.

Ildo horretan, gogorazi behar da toki-zergen arloan desgaitasuna duten pertsonen berariazkotasunak sartzea guztiz koherentea dela Konstituzioan eta zerga-araudietan ezarritako printzipioekin.

Botere publikoei dagokie beharrezkoak diren neurriak hartzea eta baldintzak sustatzea, gizabanakoen eta taldeen berdintasuna erreala eta eraginkorra izan dadila. Ezgaitasuna duten pertsonen errenta erabilgarria handitzera bideratutako neurriak ezartzeak laguntzen du ezgaitasuna duten pertsonak gizarteratzen, eta haien parte-hartzea eta ikusgaitasuna bultzatzen ditu.

4.4. Segurtasun arloari buruzko atalean egindako laburpenean jasota geratu denez, aipatu behar dugu, oro har, eragindako administrazioek kexagileen aldeko erabakia hartu dutela, 2019an arlo horretan izapidetu diren kexa askotan. Hala ere, ezin dugu aipatu gabe utzi kasu batzuetan ez dela bete **2018ko urriaren 9ko 4/2018 Gomendio Orokorra gaitasun urrikoentzako aparkatzeko txartelaren titularren eskubideari, hain zuzen, aparkamendu mugatuko guneetan (TAO guneetan) aparkatzeko eskubideari buruzkoa.**

Ebazpen horretan, Arartekoak, besteak beste, jakinarazi zuen beharrezko neurriak hartu behar zirela, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelaren titularrek txartelaren erregulazio berriak aitortzen dizkien eskubideak —joan-etorriak egiteko erabiltzen duten ibilgailua aparkamendu mugatuko guneetan behar beste denboraz aparkatzeko eta onuragarriagoa den udal erregulazioa aplikatzeko— oztoporik gabe erabiltzea ahalbidetzeko.

Era berean, aparkamendu mugatuko sistemak arautzeko ordenantzak betetzen direla zaintzeaz eta arau-haustek salatzaz arduratzen diren agenteei aipatu eskubideei buruzko jarraibide argiak ematea gomendatu zen, eta gai horri buruzko informazio orokor argi eta zehatza eman dezaten, txartelaren titular bakoitzak, bizi den tokian bizi dela ere, jakin dezan seguru zein erregulazio aplikatzen den.

4.5. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginak, **azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren** bidez onartuak, desgaitasuna duten pertsonen lanerako eskubidea —tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen aplikazioa bermatzeko moduko baldintzetan lan egiteko eskubidea, alegia— arautzen du.

Araudi horrekin bat, enplegu-politikaren xedea izango da desgaitasuna duten pertsonen jarduera-, enplegu- eta laneratze-tasak handitzea, bai eta haien enpleguaren kalitatea hobetzea eta lan-baldintza duinagoak izan ditzaten lortzea ere, haien diskriminazioaren aurka eginez modu aktiboan. Horretarako, administrazio publiko eskudunek haien enplegu-aukerak eta lanbidean gora egiteko aukerak sustatuko dituzte lan-merkatuan, eta orobat sustatuko dute beharrezko laguntzak izan ditzaten enplegua bilatu, eskuratu eta mantentzeko, eta utzitako enplegura itzultzeko.

Xede horrekin, onartu zen bere garaian **urriaren 29ko 168/2019 Dekretua** zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak. Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak Lanbideren bitartez emango ditu. Gainera, dekretuaren bidez, pertsona desgaituentzako laguntza eta kalitatezko lan-jarduera egonkorra eskuratzea sustatu nahi da, baita enpleguan jarraitzea ere.

Gaur egun nabaritzen diren defizit handiak ikusita, bai legedian, bai enplegu inklusiborako politika publikoak ezartzeko orduan, **eztabaida ezina da desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatuan sartzea errazten duten neurriak abian jarri beharra.**

4.6. Amaitzeko, gogorazi behar da ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak bermatzeko lan egiten duten euskal herri-administrazioek etengabe mantendu behar dutela dibertsitate funtzionalaren zeharkako ikuspegia agenda instituzionalean, betiere aintzat har dadin pertsona horiei eragin diezaieketen politika publiko guztien plangintza egiteko zein haiek gauzatzeko orduan.

Horiek horrela, erabakigarria da herri-administrazioek gizar-tearen eraldaketa kulturala egitea helburu duten sentsibilizazio-, sustapen- eta prestakuntza-jarduerak garatzea, aukera berdintasuna eta bereizkeriarik eza oinarri hartuta, eta aukera ematea errealtate hori, bere kausak eta ondorioak hobeto ezagutzeko.





III. atala

4

Espetxeratuak

◀ Aurrekoa ikusi

Aurrekariak



Arartekoa sortu zenetik —duela 30 urte—, erakunde honek presoek bizi-baldintzak zaindu izan ditu, zaurgarritasun beziko kolektiboa da-eta. Espetxeen Erregelamenduaren 3.3. artikulua honako hau dio: *“Principio inspirador del cumplimiento de las penas y medidas de seguridad privativas de libertad será la consideración de que el interno es sujeto de derecho y no se haya excluido de la sociedad, sino que continúa formando parte de la misma. En consecuencia, la vida en prisión debe tomar como referencia la vida en libertad, reduciendo al máximo los efectos nocivos del internamiento, favoreciendo los vínculos sociales, la colaboración y participación de las entidades públicas y privadas y el acceso a las prestaciones públicas”*. Legegilearen printzipio-deklarazio hori gorabehera, gure espetxe-sistemaren errealitateak urtez urte erakusten digu presoek zailtasun ugari dituztela eskubide osoko herritar gisa dituzten eskubideak baliatu ahal izateko, eta horiek kasuan kasuko epaian aurreikusitako mugak baino ez litzukete izan behar.

Presoen eskubideak gauzatzeko Estatuko administrazioaren mendeko espetxe-administrazioari dagokio hein handi batean, eta eskumen hori Eusko Jaurlaritzaren esku uzten ez den bitartean, hura kontrolatzea Arartekoaren eskumenetatik harago doa. Nolanahi ere, presoak eskubide osoko herritarak dira, eta, beraz, autonomia-erkidegoko administrazioek eta foru- eta udal-administrazioek haiek artatu behar dituzte, eta, horrez gain, kendu egin behar dituzte presoek prestazioak

eta zerbitzuak gainerako herritarren baldintza berberetan jasotzea eragozten dieten oztopoak. Aitzitik, Arartekoak esku har dezake bai espetxeko osasun- eta hezkuntza-erloto prestazioetan (biak ala biak Eusko Jaurlaritzaren esku utzi dira), bai gizarteratzeko eta laneratzeko prestazioetan, bai garraioari lotutakoetan eta abarretan.

Edonola ere, erakunde honek beti hartu izan du bere eginbehar hartat gaur egungo **zigor-sistemari eta espetxe-ereduari** buruzko hausnarketa bultzatzea, eredu hori Euskadiko hirugarren sektorearen errealitate sozial eta instituzionalera eta komunitate-egitura arloko errealitateara egokitu dadin, legeak esleitzen dion zeregina (giza eskubideen kultura hedatzea) betetz. Horren harira, 2019an, hainbat ekimenetan hartu dugu parte, eta horiek kapitulu honen II. epigrafean daude jasota.

Hona hemen Arartekoak presoek eskubideak defendatze aldera egin dituen ekarpenek urtean zehar markatu dituzten ardatz nagusiak:

- Gizarteari jakinaraztea **politika kriminalari eta espetxe-ereduari** buruzko hausnarketa kritiko eta arduratsua egin behar dela, eta Eusko Legebiltzarrari adieraztea zer baldintzatan dauden gure espetxeetako presoak, zer ondorio dakartzan askatasuna kentzeak eta zer aukera dauden espetxeen gaineko eskumena eskualdatu arte itxaron behar izan gabe presoak gizarteratzeko ibilbideak bultzatzeko.
- Ingurune irekiko zigor eta neurriak bultzatzea¹ (gizarteratzeko neurriak edo komunitaterako zehapenak).
- **EAEn preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko** programak kudeatzen dituen hirugarren sektoreari zuzendutako administrazio publikoak sustatzeko neurriak indartzea. Arartekoaren iritziz, neurri horiek dira presoak gizarteratzea helburu duen euskal sistema publikoa eraikitzeko oinarria.

¹ Arartekoak aktiboki hartu du parte [Euskadin espetxe-eredua ezartzeko lido estrategikoen proposamen teknikoan](#), eta, proposamen horretan, erabaki da ohiko izenaren ordez, hots, “espetxeratzearen ordezko zigor eta neurriak” izenaren ordez, “ingurune irekiko zigor eta neurriak”, “gizarteratze-neurriak” edo “komunitaterako zehapenak” erabiltzea. Askatasuna kentzen ez duten zigorreko zigor “alternatibo” esateak aditzera ematen du espetxea edo araubide itxia dela zigorra betetzeko ohiko modua, eta haren “ordezko”ak, berriz, aipatutako neurriak.

- Gutxieneko esku-hartzearen printzipioarekin bat etorritik, espetxeratzea azken baliabidez erabiltzearen aldekoa da erakunde hau. Hala ere, egungo lege-esparruaren ondorioz, preso ugari jarraituko dute espetxeratze-araubidean. Horregatik, ezinbestekoa da espetxeko bizimodu hau sustatzea: egitekotzat zigortze hutsa izango ez duena eta gizarteratzearen aldeko ibilbideak bultzatzea bideratutako tratamenduaren eraginkortasuna areagotzeko esparru egokia sortuko duena. Horretarako, espetxeek irekiagoak izan behar dute, harreman handiagoa izan behar dute gizarte osoarekin, bai gizarte zibil antolatuekin eta hirugarren sektorearekin, zeinarekin lotura garrantzitsua duten eta batera lan egiten duten jada, bai zerbitzu publikoen erakunde-sarearekin, bereziki foru-zerbitzuekin, horiekiko loturak urriak direlako oraindik eta daudenak ez direlako eraginkorrak.

Ez zaigu garrantzitsua iruditzen jasotako kexen estatistika-atala egitea, izan ere, horietako batzuk Estatuko [Herriaren Defendatzaileari](#) helarazi behar izan dizkiogu, Eusko Jaurlaritzari transferitu ez zaizkion gaiei buruzkoak direlako, hala nola lekualdaketak, zehapenak, helmugak, gradu atzerapenak, espetxe onurak eta senideen bisitak ukatzea, eta beste autonomia-erkidegoetako espetxeetako osasun egoerari lotutako arazoak.

Eskumen-muga horiek gorabehera, 2019. urtean jasotako kexen ondorioz, hiru mailatan esku hartu behar izan dugu:

- **Osakidetzarekin**, gure espetxeetan sartuta dauden pertsonen osasuna zaintzeko erantzukizuna baitauka; izan ere, gainerako biztanleak artatzen dituen osasun-sare berberak artatzen ditu espetxeratuak. Aurten ere arreta hori zuzen ematen dela egiaztatu dugu, baina, oraindik ere gabeziak antzeman daitezke buru-osasunaren arloan. Ahaleginak egin diren arren, gabezia horietako batzuen jatorria egiturazkoa izateak eragozten du desagerraraztea, eredia aldatzen ez bada; aldaketaren ildo nagusiak Arartekoak bere garaian aurkeztu zuen txosten berezian azaldu ziren ([Askatasunik gabe dauden pertsonen buruko osasunari EAEn emandako arreta zoziosanitarioa](#)).
- 2019. urtean, Euskal Osasun Zerbitzuan egindako gestio horiek lotura berezia izan dute urte osoan zehar **gizarte ongizaterako foru sailetan** burutu ditugunekin. Gestio horien bidez, aurten ere haxe bultzatu nahi da: foru aldundiek gizarteratzeko baliabideak jar ditzaten, foru baliabide espezializatuetan plazak ukatu zaizkielako hirugarren gradua espetxeko eritegietan bete behar duten gaixo larrien edo adin handikoen behar berezietara egokitutakoak. Egoera horrek larriki diskriminatzen ditu pertsona horiek, eta, hortaz, herritar gisa dituzten oinarriko eskubideak urratzen ditu.
- Era berean, borondate oneko gestioen bitartez, zenbait gaitan esku hartu dugu: seme-alaba adingabeak dituzten emakumeen modulueta bizi-baldintzak, espetheen sailkapena, baimenak ematea, zentroz eta helmugaz aldatzea. Kontu horiek kudeatzea **Administrazio Zentralari zegokionez gero**, Barne Ministerioaren menpe dagoen [Espetxeetako Idazkaritza Nagusiarekin](#) zuzenean landu ditugu, [Gobernuaren](#)

[Euskadiko Ordezkaritzarekin](#) eta [Espainiako Herriaren Defendatzailearekin](#) koordinatuta. Azken horren lankidetzaz espresuki aipatu nahi dugu.

Eskertu egin behar dugu, halaber, espetxe-zaintzako epaitzegietatik —Bilbokotik eta Zentraletik— jasotako laguntza, eta, beste behin ere, Arabako, Basauriko eta Martuteneko espetxeetako Zuzendaritzek gure gestioekiko erakutsi duten jarrera harkor eta laguntzailea.

1. Kexarik aipagarrienak

Arartekoak bere jardueraren eremu honetan egin duen esku-hartzearen erakusgarriak izan daitezela kasu hauek.

1.1. Arabako Foru Aldundiarekin hitzartutako baliabidea erabili ahal izateko, espetxeratu aurretik erroldatuta egon beharra

Jasotako kexa

Erreklamazioa jarri zuen erakundeak, ADAPEk, adierazi zuen 1996ko abendutik ari zela kudeatzen, Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren bidez, Arabako Espetxeko emakume presoek laguntzeko etxebizitza.

Erakunde horren arabera, Arabako Foru Aldundiak jarraibide hau helarazi zien, urte hasieran, espetxe-ingurune hirugarren sektoreko erakundeei: askatasunaz gabetutako pertsonentzako etxebizitzetako eta beste foru-baliabide batzuetako egoitza-harrera egiteko baldintzat ezartzea interesdunek egiaztatzea espetxeratu aurretik lurralde historikoan erroldatuta edo errotuta egon zirela. Ez zen kontuan izango zenbat denboraz egon ziren erroldatuta espetxean ([2018ko txosten](#)ean nabarmendu genuenez). Horrek esan nahi zuen probintzian errotuta ez zeudene ezin izango zutela espetxe-eskubiderik (hala nola askatasun-araubideko gradu-bilakaera edo baldintzapeko askatasuna) baliatu, ez zutelako familiaren, gizartearen eta —une horretatik aurrera— erakundearen laguntzarik. Erakundeari jakinarazi zitzaion, halaber, etxebizitza, aurrerantzean, ez zela soilik emakume presoentzat izango, eta baztertutako beste emakume batzuei eman beharko ziela arreta. Horrek arriskuan jartzen zuen baliabidea bera.

ADAPen esanetan, Arabako Foru Aldundiak argudiatzen zuen Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zorroa aplikatzeak ekarri zuela aldaketa hori (alderdi hori sakon aztertuko dugu 4.3. puntuan), zorroan ez zegoelako jasota berariazko arreta eman behar zitzaion askatasunaz gabetutako pertsonen kolektiboari.

Arartekoaren esku-hartzea

Arartekoak laguntza eskatu zion Arabako Foru Aldundi-ko Gizarte Politiketako foru-diputatuari, eta gogorarazi zion presoek gizarte-bazterketa pairatzeko zenbait arrazoi

daudela sarritan, eta horiei “espetxeratzea” bera erantsi behar zaiela. Adituen ustez, denbora luzez espetxean egoiteak kalte handia eragiten dio askatasunean egin beharreko bizitzari; egoera horrek zaildu egiten du, berez, pertsona horien gizarteratzea aske geratzen direnean, are gehiago emakume presoek kasuan, gizarte- eta familia-haustura handiagoko prozesuak pairatzen dituztelako. Horregatik, ohikoa da denbora luzez espetxean egon diren pertsonen familia- eta gizarte-harremanak hautsi izana, eta, horren ondorioz, ia ezinezkoa da administrazio-auzotasun zehatz eta eguneratuari eustea.

Era berean, erakunde honek foru-diputatuari adierazi zion beste lurralde historiko batzuetan Gizarte Zerbitzuen Karta zentzurik onuragarrienean interpretatzen ari dela, presoek birgizarteratzeko foru-baliabideetara sartzeko aukera izan dezaten.

Emaitza

Arartekoak kexagilearen eta hirugarren sektoreko beste erakunde batzuen bidez jakin du azaroaren erdialdean Gizarte Politiketako foru-diputatuak jakinarazi ziela, azterketa- eta kontsulta-fase baten ondoren, erabaki dutela berehala kentzea espetxeratu aurretik Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotearen eskakizuna. Halaber, kexagileak jakinarazi digu aldundiak adierazi diela etxebizitzak jarraituko duela soilik emakume presoentzako baliabidea izaten.

1.2. Zaragozan espetxeratutako euskal herritar batek Arabako espetxera behin betiko lekualda dezaten eskatu du, laster aita izango da-eta

Jasotako kexa

Gipuzkoako udalerrri batean jaiotako eta Zueran (Zaragoza) preso zegoen pertsona bat Arabako espetxean zegoen, iraganbidean, epaiketa batera joan behar zuela-eta, eta Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen Zaballan (Arabako espetxean) behin betiko geratu ahal izateko, han errotuta zegoelako eta handik hilabetera aita izango zenez bere emaztearengandik eta jaiotzear zen alabarengandik hurbil egon nahi zuelako bere bizitzako une garrantzitsu horretan.

Arartekoaren esku-hartzea

Erakunde honek, Euskadin kokatutako hiru espetxeetako zuzendaritzekin egiten dituen borondate oneko izapideen baitan, harremanetan jarri zen Arabako espetxeko zuzendaritzarekin, preso horren salbuespenezko egoeraren berri emateko, eta presoak argudiatutako gizatasun-arrazoi bereziak aditzera emateko, nahiz eta jakin bazekien Madrilgo zerbitzu zentralen mende zegoela pertsona hori behin betiko lekualdatzea. Espetxeak ez zekien preso hori laster aita izango zenik, eta bi erakundeen arteko lankidetzari esker izan zuen horren berri.

Emaitza

Arabako espetxeko (Zaballa) zuzendaritzak berehala galde-tu zuen presoaren egoeraren inguruan, eta, haren inguruar bar berezien berri izan ondoren, erabaki zuen preso horrek Zaballan jarrai zezala aldi batez, alaba jaio arte, eta, horrez gain, aparteko baimena eman zion, alaba ezagutzeko eta emaztearekin egon ahal izateko familiarentzat hain garrantzitsua zen unean.

2. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Autonomia Estatutua erabat betetzea errazteko —estatutu horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du “adingabeen babes eta tutoretzarako erakundeek eta establezimenduen, espetxeen eta gizarteratzeko erakundeek eta establezimenduen antolaketarako, araubiderako eta funtzionamendurako” (10.14. artikulua), bai eta “espetxe-legeria” betearazteko ere (12.1. artikulua)—, Arartekoak 2018az geroztik parte hartu izan du Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak bultzatutako adituen lantaldean, eta talde horren lanaren emaitza izan zen, hain zuzen ere, ***espetxe-eredu bat ezartzeko ildo estrategikoen proposamen teknikoa***.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailsa bultzatzen ari da ekimen hori. Oso garrantzitsua da, hain zuzen ere, unibertsitatearen, espetxe-erakundeek eta hirugarren sektoreko parte-hartzaileek ibilbide zabala eta izen ona dutelako, eta Euskadin azken hiru hamarkadetan landu den espetxe-eredu propioa zehaztera bideratutako lana islatzeko ahalegin handia egin delako. Proposamen tekniko hori eta haren balizko bultzada politikoa oinarri sendoa izan daitezke espetxeen gainerako eskumena Euskadira eskualdatzeko; izan ere, proposamen hori bat dator Arartekoak Eusko Legebiltzarrari urtero egiten dizkion txostenetan hasieratik adierazi izan dionarekin. Horregatik, erakunde hau proposamenaren aurkezpen publikoan egon zen, parte-hartze zuzena izan baitzuen haren sorreran eta ondorioetan. EHUk 2019ko urriaren 24an eta 25ean Bilbon antolatutako “Espetxe-sistemaren kudeaketa federala. Ikuspegi konparatua (Euskadi, Eskozia, Katalunia eta beste batzuk)” izeneko mintegiaren esparruan aurkeztu zen proposamena.

Halaber, nabarmentzekoa da, 2019an, euskal preso edo Euskadin errotutako preso ugari eskatu dutela Arartekoaren esku-hartzea, ***lekuz alda ditzaten*** eskatzeko; izan ere, ***zigorra Euskadiko edo Euskaditik gertuko espetxeetan*** bete nahi dute, birgizarteratze-prozesuei ekiteko eta gizarte- eta familia-harremanei eutsi ahal izateko. Aipatutako proposamen teknikoaren eta espetxe-arloan lan egiten duten gizarte-erakundeek emandako datuen arabera, terrorismo-delituengatik zigortutako 250 euskal presoek gain, gutxienez beste 500 euskal preso daude Euskaditik kanpo, eta, salatzen dutenez, Arabako eta Iruñeko espetxeetan, modulu hutsak daude. Horregatik, Arartekoak ezinbestekotzat jotzen du presoek arreta emateko behar diren langileak arian-arian hornitzea, hartara saihesteko

gizarte- eta familia-harremanak haustea eta Konstituzio Auzitegiak debekatzen duen “desozializazioa”². Ukaezina da, Konstituzioaren arabera zigorrak birgizarteratzera bideratuta daudela kontuan hartuta, eta preso guztien kasuan, terrorismo-delituengatik kondenatutakoen kasuan barne (10 urte igaro dira ETA talde terroristak Espainian hildakoak izan ziren azken atentatua egin zuenetik)³, ahalik eta eperik laburrenean ahalbidetu beharko litzatekeela euskal preso guztiek edo Euskadin errotuta dauden beren zigorrak etxetik gertuen dagoen lekuan bete ahal izatea.

Azkenik, adierazi behar da, 2015eko erreformaz geroztik, **baldintzapeko askatasunaren** erregulazioa ondorio gaitza eta gizarteratzearen aurkakoa eragiten ari dela. Gure inguruko lege-sistema guztiek arautzen dituzte gizarteratzearen aldeko pronostikoa duten espetxeratuak alde aurretik askatzeko mekanismoak. Gure herrialdean, sistema hori baldintzapeko askatasunaren sistema da, eta kondenaren 3/4 bete dituztenei eman dakieke; gure inguruko herrialde gehienetan, berriz, kondenaren 1/2 edo 2/3 bete dituztenei ematen zaie aurretiazko askatasuna. Hainbat azterlanek frogatu dute kondenaren azken zatia araubide irekian eta, ondoren, baldintzapeko askatasunean igarotzen duten pertsonak berrerortzeko joera txikiagoa dutela zuzenean espetxetik ateratzen diren presoek baino. Baldintzapeko askatasuna ematen zaien presoek kopurua murriztu egin da azken urteotan, eta Zigor Kodeari buruzko martxoaren 30eko [1/2015 Lege Organikoaren](#) bidez ([azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa](#), [Zigor Kodeari buruzkoa](#), aldatzekoa) egindako Zigor Kodearen 2015eko erreformak larriagotu egin du egoera hori. Zehazki, 90. artikulua aldatu da, eta kondenaren erdira aurreratutako baldintzapeko askatasuna txertatu da lehen aldiz zigortuta egonik 3 urtetik beherako kondenak betetzen ari diren pertsonentzat. Baina, egia esan, Zigor Kodearen azken erreforma horretan, lehen aldiz zigortutakoei zuzendutakoan, baldintzapeko askatasuna kendu zen, haren araubidea aldatu eta kondenaren etetea bilakatu zen-eta. Bestela esanda, baldintzapeko askatasuna errebokatuz gero, presoak espetxera itzuli beharko da zigorra osorik betetzera (baldintzapeko askatasunean egon den aldi guztia berriro bete beharko du askatasunaz gabetzeko araubidean). Horren ondorioz, berrerortze-aukera handiko pronostikoa duten pertsona askok (adibidez, droga-mendekotasuna dutenek) erabakitzen dute zigorra, osoki, hirugarren graduan betetzea, baldintzapeko askatasuna eskuratu gabe.

² Konstituzio Auzitegiaren 2/87 Epaia, urtarrilaren 21ekoa, eta 28/88 Epaia, otsailaren 23koa.

³ 2009ko uztailearen 30ean, ETAk bi guardia zibil hil zituen Palman, bonba lapa bat erabiltzaile: Carlos Sáenz de Tejada eta Diego Salvá, 28 eta 27 urtekoak. Hurrengo urtean, 2010eko martxoan, Frantziako errepide-kontrol batean, taldeak jendarme bat hil zuen, eta huraxe izan zen haren azken atentatua, 2018an desegin aurretik.

3. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

3.1. Bilerak elkarteekin

Hiru lurraldeetan bilerak egin ditugu presoek birgizarteratzean lan egiten duten gizarte ekimeneko erakundeekin (Bizitegi, Susterra, Zubietxe, Goiztiri, Zubiko elkarte, Adsis fundazioa, Etorkintza, Loiola etxea, Izan fundazioa, Iresgi elkarte, Arrats elkarte, Gurutze gorria, Salhaketa, Adap, Sidalava eta Etxerat), eta abokatu elkargo bakoitzeko Espetxe Laguntzako Txandaren ardura duten abokatuekin.

Urtero dauzkagun topaketa horien bitartez, burutzen ditugun jardueren berri elkarri emateko esparru egonkorra izan nahi dugu, urte osoan Arartekoaren esku-hartzea eskatzen den kasu jakinei buruz daukagun harremanaz gain. Bestalde, adierazten dizkiguten kezkarako arrazoiei esker, gure espetxeetako egoeraren bilakaera ezagutzen dugu lehen eskutik.

3.2. Bilerak administrazioarekin

Organo judizialekiko eta Administrazioarekiko harremanak, kexagileak gizarteratzeko eta laneratzeko bideekin zerikusia dutenak, aipatu ditugu lehenago; horiez gain, urtean zehar honako erakunde hauekin egindako bilerak azpimarratu behar ditugu:

- Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Justizia Sailburuordetza; horren mendekoa da [Zigorrak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua](#).
- Gobernuaren Ordezkaritza Euskadin.
- Barne Ministerioaren menpe dagoen Espetxeetako Idazkaritza Nagusia.

3.3. Parte-hartzea ekitaldietan, ikastaroetan eta biltzarretan

Erakunde honek presoek egoerari buruzko zenbait forotan hartu du parte urtean zehar, eta, horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Unibertsitate-arloan**, adierazi dugunez, 2019an, Jon-Mirena Landa irakaslearekin eta UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoaren Katedrarekin lan-kidetzan aritu gara “*Espetxe-sistemaren kudeaketa federala. Ikuspegi konparatua (Euskadi, Eskozia, Katalunia eta beste batzuk)*” izeneko nazioarteko mintegia antolatzen —Bilbon izan zen, 2019ko urriaren 24an eta 25ean—. Mintegi horretan, “*Espetxeak Euskadin: egoera-balantzea eta etorkizunerako erronkak Arartekoaren ikuspuntutik*” izeneko hitzaldia aurkeztu zuen Manuel Lezertua Arartekoak, eta, horrez gain,

“*Euskadin espetxe-eredu bat ezartzeko ildo estrategikoaren proposamen teknikoa*”ren lehenengo jendaurreko aurkezpena egin zen.

- **Elkarte-sareari** dagokionez, espetxe-ingurunean lan egiten duten gizarte-ekimeneko erakundeek hainbat topaketa antolatatu dituzte, eta ESENEk (Espetxe Sarea Euskadi Nafarroa) 2019ko urriaren 25ean Bilbon antolatutako “*Espetxearen ordezkoko alternatibak: errealitate eta erronkak*” izeneko jardunaldian hartu dugu parte. Espetxe-ingurune Euskadiko eta Nafarroako hirugarren sektoreko erakunde asko biltzen ditu ESEN sareak, eta Arartekoak trabarik gabeko etengabeko lankidetzaren harremana izan du sare horrekin.
- Terrorismoarekin zerikusia duten delituengatik kondenatuta edo espetxean dauden pertsonen dagokionez, Ararteko honek hainbat mintegi eta hausnarketa forotan hartu du parte, bai gizarte zibilak, bai [Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzak](#) deitutako horietan.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

4.1. Erakunde honek, lehenik eta behin, adierazi nahi du kezka handia sortzen diola 2019an Arabako espetxean bost preso eta 2020aren hasieran Martutenen preso bat hil izanak. Harreman bereziak lotzen ditu presoak eta espetxe-administrazioa, eta, beraz, administrazio horrek eskura dituen baliabide guztiak jarri behar ditu heriotzak saihesteko, eta, zoritxarrez, presoren bat hiltzen baldin bada, senideekiko eta ingurukoekiko gardentasun- eta hurbiltasun-ariketa egin behar du, heriotzaren inguruabarrak argitzeko eta, hala badagokio, erantzukizunak bere gain hartzeko.

Kezka hori izateaz gain, Arartekoak arduraren handiz jarraitzen du Espainiako estatuko espetxeetan izandako suizidio kopuru handia. Horren harira, espero izatekoa da zaintza-zentroetan eskura dauden baliabide guztiak jartzea preso bizi-eraketaren bermatzeko, eta ez uztea pertsona horiei laguntzeko eta arreta emateko erantzukizuna Suizidioak Prebenitzeko Programako preso boluntarioen esku, funtzionario nahiko ez daudela-eta. Gainera, gure ustez, hausnartu beharra dago presoek benetan parte hartu nahi duten programa horretan, baldin eta espetxe-onurak lor baditzakete programaren parte hartuz gero.

4.2. Espetxeratuena da gure gizarteko talde ahulenetako bat. Horregatik, elkarrekin joan behar dira **espetxe-transferentziaren eskaera** eta euskal herritar guztien deia, gizartea jakitun izan dadin espetxea ez dela erakunde urruna eta besterena, eta errealitate horren gaineko erantzukizuna hartu behar dugula.

Horren inguruan Arartekoak txostenetan egin dituen gomendioak gutzit zentzuzkoak dira **espetxe eredu propioari**

dagokionez. Bazterketa areagotzen ez duen zigor-beteazpeneko sistema integrala nahi dugu, gure espetxeetan dauden pertsona gehienak delitu egitera bultzatzen dituzten eragileak kroniko bihurtuko ez dituen.

Horren harira, Arartekoak positiboki baloratzen du Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak 2018an deitutako lantaldeak egin duen lana; talde horren helburua zen eztabaidatzea zer ildoren arabera diseinatu beharko litzatekeen Euskadiko espetxe-eredua, aurreikusita baitzegoen eskumenak eskualdatzea. Talde horretan, euskal administrazioetako, unibertsitateko, gizarte zibil antolatuko eta espetxe-administrazioetako adituak bildu ziren, eta abiapuntutzat hartu zituzten Eusko Legebiltzarrak 2003ko azaroaren 7an onartutako “zigor- eta espetxe-arloko erreformei buruzko” legez besteko proposamena eta Justizia Sailak 2006an egindako “**Zigor eta Espetxe Beteazpen Politikaren ildo nagusiak**” izeneko dokumentua.

Adierazi dugunez, Arartekoak 2018az geroztik parte hartu izan du aditu-talde horretan, eta talde horren lanaren emaitza izan zen, hain zuzen ere, **Euskadin espetxe-eredu bat ezartzeko ildo estrategikoaren proposamen teknikoa** —[esteka](#) honetan kontsulta daiteke—.

Proposamenak **helburu estrategiko** batzuk jasotzen ditu EAEko espetxe-eredu propioa ezartzeari begira:

- Espetxeratuena tasa 100.000 biztanleko 40 baino txikiagoa izatea.
- Espetxeratuena % 40 gutxienez araubide irekian egotea.
- Zigoratuena % 30 baino gutxiago berrerortzea.

Helburu horiek betetzeko, honako **ildo estrategiko** hauek finkatu dira:

- Ingurune irekiko zigorrak eta neurriak sustatzea.
- Euskal Birgizarteratze Sarea sortzea.
- Espetxeratuena birgizarteratzerara bideratzea.

Azkenik, eredu horretan, honako printzipio hauek ezarri dira, Euskadiko zigor-arloko beteazpen-sistema osoak oinarri izan behar dituen funtsezko balio gisa:

- Pertsonaren duintasun-printzipioa.
- Espetxearen erabilera murrizteko printzipioa.
- Ereku komunitarioan birsozializatzeko printzipioa.
- Leheneratzeko ikuspegia txertatzeko printzipioa.
- Politika publikoak txertatzeko printzipioa.

4.3. Erakunde honek adierazi nahi du presoekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeak oso kezkatuta daudela, **atzera egin delako hiru lurralde historikoetako foru-aldundien mendeko gizarte-prestazio eta —zerbitzuetara iristeko bidean, zigor— eta espetxe-arloan modu desberdinean aplikatzen ari delako [urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Prestazio eta Zerbitzuen](#)**

Zorroari buruzkoa, eta hainbat zailtasun eta arazo haute-maten ari direlako.

Arartekoak bat egiten du erreklamazioan adierazitakoarekin; izan ere, uste dugu EAEko hiru espetxeetan kondena betetzen ari den inor ez litzatekeela babesik gabe geratu behar komunitatean berriz txertatzeko prozesuan, administrazioari, jatorriari edo ohiko bizilekuari lotutako baldintzak ez bete-tzeagatik. Printzipio hori kontuan hartu beharko litzateke, halaber, EAEn errotuta dauden edo ohiko bizilekua han du-ten eta beste autonomia-erkidego batzuetako espetxeetan kondena betetzen ari diren pertsonen kasuan.

Arazo horren jatorria da 185/2015 Dekretuan, urriaren 6koan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa, ez dela kontuan izan presoak kolektibo espezifikoa direla, eta inguruabar bereziak dituz-tela gizarte-prestazio eta -zerbitzuak gainerako herritarren baldintza berberetan (eta, beraz, diskriminaziorik gabe) es-kuratzeke. Administrazio publikoak behartuta daude ber-dintasun hori eragozten duten oztupoak kentzera, araudia askatasunaz gabetutako pertsonentzat mesedegarriena den zentzuan interpretatuz. Egoitza-baliabideak edo bestelakoak baliatzeko aukerei dagokienez presoek jasaten duten gizarte-bazterketa baloratzeko orduan, kontuan hartu behar da presoek, espetxean egon direla-eta, birgizarteratze-proze-suak hastean, “ostatua eta mantenua” izatea behin-behi-nekoa dela, eta, hain zuzen ere, birgizarteratze-prozesuetan dauden pertsonen artean bizitokia eskuratzeko arazoa dela larrienetako eta ohikoenetako bat. Beste arazo larri bat da “espetxeratzea”⁴ bera ez baloratzeko presoak baztertzeko funtsezko elementutzat. 185/2015 Dekretuaren arau-zehaz-tapenak kontuan izan beharko lituzke espetxean egoteaz gain —bazterketa-faktore erabakigarria da hori—, bazterke-ta pairatzeko beste zenbait arrazoi dituzten presoengurua-bar bereziak. Beraz, hura garatzen duen araudi autonomikoa eta forala aldatu arte, presoak gizarte-baliabideez gozatzeko egindako interpretazioak beren gizarteratze-prozesuak bul-tzatzeko eta haien diskriminazioa saihesteko mesedegarri-ena izan beharko luke.

Horren adibidea da **Bizkaia**n gertatzen ari den egoera. Pre-soen zailtasunetako bat izaten ari da, hain zuzen ere, gaine-rako biztanleei eskatzen zaizkien errola-baldintza berberak exijitzea eta balorazio-sistema berberak aplikatzea, horrek eragotzi egiten dielako baliabideak berdintasunezko baldin-tzetan erabili ahal izatea. **Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) maiatzaren 21eko 59/2019 Foru Dekretu berriaren** xeda-pen gehigarri bakarrean araututa dago sarbide hori. Xeda-pen gehigarri horretan, bi kasu bereizten dira:

Egoitza-zerbitzuetarako sarbidea

Plaza-eskaera bidali behar da, eta BFAko Balorazio Zerbitzuko teknikariek aurrez aurreko elkarrizketa egin behar dute, espetxean, eskatzailearekin, egoitza-zerbitzua erabiltzeko baldintzak betetzen ote dituen diagnostikatzeko.

⁴ Adituen ustez, denbora luzez espetxean egoteak kalte handia eragiten dio askatasunean egin beharreko bizitzari; egoera horrek zaildu egiten du, be-rez, pertsona horien gizarteratzea aske geratzen direnean.

Sistema horrek, praktikan, izugarri zailtzen du presoak ba-liabide komunitarioak erabili ahal izatea, eta, ondorioz, as-katasun-gabetzea urtebetetik gora luzatzen da batzuetan (nahiz eta gradu-bilakaerari buruzko ebazpena irmoa izan), balorazioa egiteko eta plaza esleitzeko zain egoteagatik.

Bide horri jarraituz, Espetxeen Erregelamenduaren 182. artikulua aplikatzearen ondorioz espetxetik atera diren per-tsoei bakarrik ematen zaie arreta, eta alde batera uzten da araubide irekian sartzeko (82., 83., 86.4. artikulua eta abar) eta baldintzapeko askatasuna edo erabateko askatasuna eskuratzeko beste edozein aukera. Horrez gain, ez da aintzat hartzen espetxetik sareko beste izaera bateko egoitza-ba-liabideak behar dituzten pertsonen hasierako gizarte-egoera zein den. Espetxeak emandako baimenetan harrera egiteko egoitza-baliabiderik ere ez da aurreikusten. Egoera horrek desparekotasunak eragin ditzake, eta egoera horretan dau-den presoengurua eskubideei eragin diezake.

Oinarizko sareko egoitzakoez besteko zerbitzuetarako (horretarako aukeratuak) sarbidea

Espetxeko gizarte-langileak zuzenean bidaliko dio plaza-es-kaera prozesua kudeatzen duen erakundeari, eta erakunde horrek artatutako pertsonen hileko zerrenda baino ez dio bi-dali beharko BFAri.

Sarbide-sistema horrek askoz arinagoa eta eraginkorragoa dirudi, are gehiago espetxe-araubidearen mende dauden pertsoez ari garenean, kasu horietan beharrezkoa baita gradu-bilakaera, baimen edo askatasunari buruzko ebazpe-na ematen direnean plaza erabilgarri egotea.

Arartekoak uste du sistema hori egoitza-zerbitzuetara ere heda daitekeela, inkongruentea eta berdintasun-printzi-pioaren aurkakoa delako zerbitzu-zorro bereko baliabideeta-ra sartzeko bi modalitate horiek bereiztea.

4.4. 2019ko azaroan, itxi egin zen Langraiz Okako atal irekia. Ordura arte, atal hori espetxe zaharreko instalazioe-tan zegoen abian, eta herriaren erdigunetik 15 bat minutura zegoen. Atal irekiak espetxe baten (kasu honetan, Arabakoa) parte diren sailak dira, eta haren mende daude administ-ra-tiboki. Hirugarren tratamendu-graduan sailkatutako preso-oi zuzenduta daude; horiek lan- edo prestakuntza-jarduerak egiten dituzte egunean zehar, eta espetxera joaten dira gaua igarotzera. Irekitako atal berria Arabako espetxean (Zaballa esaten zaio) dago. Mendian dago kokatuta, eta, hara iriste-ko, Langraiz Oka herritik abiatu eta autobideak eta errepi-deak zeharkatu behar dira, beraz ez dago oinez haraino iris-terik. Espetxe-arloko gizarte-erakundeek horren berri eman zioten Arabako Foru Aldundiari, garraio publikoa baldintza berrietara egokitu zedin, baina espetxe-administrazioaren eta foru-administrazioaren arteko koordinaziorik ezak egoe-ra hori ekarri du.

Arartekoak uste du atal ireki batek espetxe-instalazio be-riezietan eta hirigunetik gertu egon beharko lukeela, eta behin

eta berriz esan du Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoe-tan gizarteratze-zentro bana jarri beharko lirakeela, Bizkaiko eta Gipuzkoako presoen birgizarteratzea errazte aldera.

4.5. Amaitzeko, Arartekoaren iritziz, garrantzitsua da espetxean bereziki zaugarriak diren bi kolektiboren egoera ikusaraztea, alegia, emakume presoena eta migratzaileen eta pertsona arrazializatuena. Martuteneko Gurutze Gorriaren programaren arabera, Euskadiko migratzaileak maizago sartzen dira espetxean, eta ez dira hain maiz ateratzen. Maizago sartzeko arrazoia ez da delitu gehiago egiten dituztela, baizik eta, kasu askotan, ez dituztela lokalizatzen isun eta kondena txikiak betetzeko, eta, hortaz, haien aurkako bilaketa- eta harrapaketa-aginduak ematen direla. Gainera, ez dira hain maiz ateratzen bizileku- eta lan-baimenak galtzen dituztelako, bai eta pasaportearen ere, espetxean ezin dituztelako horiek berritu. Era berean, urtebetetik gorako zigorrak ezartzen zaizkienean, kanporatzeko agindua ematen da, eta,

inguruabar horren eta gizartean eta familian errotuta ez egotearen ondorioz, kasu gehienetan, kondena osoa espetxean betetzen dute, eta babesgabetasun juridiko, legal eta sozialko egoeran daude.

Emakume presoek dagokienez, erakunde hau kezkatuta dago Arabako espetxeko emakumeen erizaintzako moduluaren egoeratik. Espazioari eta langileei lotutako arazo handiak ditu modulu horrek, eta horrek emakumeak ordu gehiago giltzapetuta egotea dakar.

4.6. Beste urte batez, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak hainbatetan adierazitako beharraren berri eman nahi dugu eta geure egiten dugu, 2016-2020 aldirako beharren artean **Gasteizen espetxe-zaintzarako epaitegia sortzea**, gaur egun dagoen bakarrak lan karga handia duelako eta lan horren zatirik handiena, bere dimentsioagatik logikoa denez, Arabako espetxetik datorrelako.





III. atala

5

Ijitoak eta
beste gutxiengo kultural batzuk

Aurrekariak



Arartekoak arreta berezia jartzen die ijito herriaren zailtasun eta beharriari. Gutxiengo kultural horrek bazterkeria sozial eta politikoa jasan du mendeetan zehar, eta berdintasuna sustatzeko, bereizkeriaren aurka borrokatzeko eta bere nortasun kulturala aitortzeko politikak zor zaizkio. Ijitoei dagozkien Arartekoaren jarduketak azaltzen ditugu atal honetan, eta aurten nabarmendu behar diren elementu adierazgarrietariko batzuk aipatzen ditugu.

1. Arloa kopurutan

Aurreko batzuetan esan bezala, ez dugu ijitoek aurkeztutako kexa-espedienteen kopururik, ez baita erregistratzen etnia edo kulturari buruzko daturik, kexak erakundearen erregistroan jasotzen direnean. Atal honetan, erakundearen lan-esparru desberdinetan —batez ere gizarteratze, hezkuntza eta etxebizitzaren arloetan— tramitatutako kexa batzuk aipatuko ditugu. Ijitoek izaten dituzten arazo asko gainerako herritarrek izaten dituzten zailtasunen antzekoak dira. Hala ere, beren gizarte-desberdintasun egoera dela eta, arazo larriagoak antzeman dira, besteak beste, errolda izena ematea egiaztatzeari, nortasun-dokumentazioa aurkezteari eta etxebizitza bat okupatzea legezkotzen duen titulu juridikoari lotutakoak. Halaber, inprimakiak betetzeko edo dagozkien eskubideak erabili eta mantendu ahal izateko baldintzak eta betebeharrak ezagutzeko behar den informazioa jasotzeko zailtasuna da arazoetako bat.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Bizilagunen arteko harremanak

2019. urtean, Arartekoak ez du esku hartu bizilagunen arteko harremanekin lotutako egoeretan. 2017. eta 2018. urteetan Gasteizko udalerrian izandako arazoak, Arartekoaren urteko txostenetan aipatutakoak, bideratu egin dira; hala ere, jarraitu behar da azpimarratzen garrantzitsua dela behar bezalako elkarbizitza bermatzea helburu duten kulturarteko harremanak hobetzeko eta sustatzeko proposamenak auzoetan aktibatuzko neurriak hartzea. Gutxiengo kulturekoak edo etnikokoak izateari lotutako gorroto-diskurtso, gaitzespen eta indarkeriari aurre egin behar zaie gizarte mailako neurri egokien bidez, baita, hala badagokio, segurtasun-neurrien bidez ere.

2.2. Nortasun-agiriak egiteko zailtasunak

Arartekoak kexa bat izapidetu du, guraso bakarreko ijito-familia errumaniar bateko seme-alabek pasaporterik ez edukitzea dela eta. Seme-alabetako bat Alemanian jaio zen, gainerakoak Espainian jaioak dira. Jaiotza-agirietan hainbat akats daude gurasoen nortasunari dagokionez, eta horrek oztopatzen du Errumaniako herritar gisa nortasun-agiriak izapidetzea. Arartekoak nortasun-agiria tramitatzea ahalbidetuko duten dokumentuak zuzentzeko beharrezkoak izan diren jarduketak bideratu ditu. Kexak agerian utzi du bazterturiko gizatalde horietakoak diren pertsona batzuen zaurgarritasun-egoera, nortasun-agiririk ezaren ondorioz sortzen dena, horrela ezin baitute administrazio publikoekin harremanetan jarri, ezta eskubideen titularrak izan eta zerbitzuak erabili ere. Halaber, bazterturiko gizatalde horiek nazionalitate bat izateko eskubidea gauzatzeko izaten dituzten oztopo larriak azaleratu dira. Herritartasuna izateko eskubidea Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 15. artikuluan jasotako giza eskubide unibertsala da: “*Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea*”. Hura aitortzea ezinbestekoa da gainerako eskubideak baliatu ahal izateko. Herritartasunik ezean, ez dago bizitza duinaz gozatzerik. Hori saihesteko, Nazio Batuek Konbentzioa prestatu zuten, herrigabetasun kasuen kopurua txikiagotzeko; Konbentzioa 1961eko abuztuaren 30ean onartu zen, eta herrialde ugari berretsi zuten, besteak beste, Espainiak. Aipatu nazioarteko tresnak badaude ere, oraindik ere gertatzen dira herrigabetasun kasuak;

halakoetan, elementu konplexuak dituzten espedienteak izapidetu behar dira, interesdunak askotan lekualdatu direlako eta erregistroetan behar bezala identifikatuta ez daudelako. Europako hainbat herrialdetan bizi eta lekuz aldatu diren ijito batzuk daude egoera horretan. Kasu horretan, gainera, oso gaztetan ezkondu izanari lotuta dago. Horretaz ohartarazten du Giza Eskubideen Europako Agentziaren azken txostenak, egoera horrek ondorio larriak dituelako. Kapitulu honen 3. atalean aipatuko da. Txostenaren arabera, baldintza kaltegarrietan oso gazte ezkontzen diren emakume ijitoek bazterketa-arrisku handia dute, gizonekin konparatuta.

2.3. Etxebizitza

Pertsona ijitoekin zerikusia duten kexa gehienek etxebizitza lortzeko zailtasunarekin lotzen dira. Bizileku egokia edukitzea oinarritzko baldintza da edozein pertsonaren bizi-garapenerako, prestakuntza eta lanerako trebakuntza eskuratzeko, baita lan bat izateko edo ekonomian parte-hartzeko ere; hitz batez, gizarteratzeko. Etxebizitzari buruzko atalean xehetasunez aztertzen diren lege- eta zuzkidura-aurreikuspenak gorabehera, etxegabetze kasuetan edo infraetxe arazoetan, etxebizitza bat eskuratzeko oraindik ere oso zaila da; izan ere, udal gizarte-zerbitzuek eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak eskaera ugari jasotzen dituzte horren inguruan.

Etxebizitza babestuen multzoa gaur egun mugatua denez, eskaera aurkezten duten herritarren kopurua askoz ere handiagoa da administrazio publikoen esku dauden eta eskaintzen diren etxebizitzaren kopurua baino, eta horrek are zailago bihurtzen du beste etxebizitza bat aurkitzeko eskaerei erantzutea. Arazo horiek batez ere ijitoei eragiten diete. Gizatalde horrek oztopo larriak izaten ditu alokairu-merkatu pribatura sartzeko. Gaur egun etxebizitza bat alokairuan hartu nahi dutenak asko direnez, jabeek etxebizitza ijito-familiei ez alokatzea erabakitzen dute edo etxebizitzaren kokapenari eta baldintzei dagokiena baino askoz ere prezio altua ezartzen dute.

2.4. Diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak eskuratzeko aukera

Ijitoek, batzuetan, arazoak izaten dituzte diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioei buruzko araudian jasota dauden baldintza jakin batzuk betetzen dituztela egiaztatzeko, nahiz eta egoera txarrean egon eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko [abenduaren 23ko 18/2008 Legearen](#) 1. artikuluan ezarritako baldintzak bete.

Ijitoek izaten dituzten oztopo handienetako bat, hainbat aldiz aipatu bezala, helbide bat egiaztatzea da. Etxebizitza bat lortzea oso gai larria da komunitate honentzat ijitoenganako gaitzespen soziala eta aurreiritziak direla eta, baita komunitateko kideek, batzuetan, etxebizitzaren jabeek alokairua ordaintzeko zailtasunak izaten dituztelako ere. Prestazioak eskatzeko, etxe berean elkarrekin bizi diren pertsonak eta familia-loturak aintzat hartu behar dira, familia-harreman jakin

batzuk dituzten eta etxe beran bizi diren pertsona guztien diru-sarrerak zenbatzen direlako. Arartekoak, jasotako kexak aztertu ondoren, ofiziozko jarduera hasi zuen. Horretan, hainbat gogoeta helarazi zizkion Lanbideri, bizikidetzak-unitatearen (BU) osaera zehazteko orduan aplikatu beharreko araudian aipatzen den **familia-harremanak gehitzea** dela eta. 18/2008 Legearen arabera, bizikidetzak-unitatea elkarrekin bizi diren eta ahaidetasun-lotura duten pertsonak osatzen dute; laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunaren edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunaren bidezko harremanak hartu behar dira aintzat [9.1.b) artikulua].

Gizarte-babesa arautzen duten beste erregulazio batzuetan ez da aipatzen bizikidetzak unitatean familia-harreman horiek egoteko aukera. Lanbideek erakunde honi erantzun dio araudian egin nahi duen aldaketan aintzat hartuko direla etxebizitza berean elkarrekin bizi diren pertsonak, horien arteko harreman juridiko, afektibo edo familiarra eta bizikidetzak eragin duen arazoia alde batera utzita. 2019. urtean, arauzko aurreikuspen berberak indarrean daudenez, antzemandako arazoa ez da desagertu.

Etxebizitza batean bizikidetzak unitate kopurua mugatzen duten betekizunek (adibidez, adingabeak kargura eta familia harremanak daudenean, bi urteko muga dago) edo etxean jasotzen diren DEB kopuruak, bizikidetzak unitateko kideak hiru baino gehiago izan arren kopurua aldatzen ez bada ere, bereziki egiten die kalte

Ijitoen kulturen familia handietan bizitzea eta familia barruko elkartasuna oso elementu esanguratsua da, eta kasu batzuetan ez da ondo konpontzen prestazio horietara sarbidea izan eta mantentzeko betekizunekin ezta babes publikoko etxebizitzaren alokairu-kontratuetako klausulekin ere.

Jasotzen ditugun kexen artean zenbait betebeharrak bete behar zituztela jakin gabe, betebeharrak ez betetzeagatik prestazioak eten edo iraungitze kasuak berriaz nabarmendu behar dira.. Hori dela eta, urtero azpimarratzen dugu kolektibo horren kasuan oso garrantzitsua dela diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrei, baita bizikidetzak-unitateko gainerako kideei ere, dagozkien betekizunak eta betebeharrak betetzeari buruzko eta betekizunak ez betetzeak eragiten dituen ondorioei buruzko nahikoa informazio eta informazio egokia eta egoerari egokitutakoa ematea. Gure iritziz, informazioa eta komunikazioa hobetzeko ahaleginak kudeaketaren eraginkortasuna areagotzen, nahi gabeko ez-betetzeak saihesten eta, gainera, ijitoak gizarteratzen eta laneratzen lagunduko du.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Lehenik, “[Diskriminazioa eta ijitoen komunitatea, 2019](#)” txostena, Ijitoen Idazkaritza fundazioarena, aipatu behar da. Ijitoen komunitateak 2018. urtean Espainian eta Europan jasandako diskriminazio kasu larrienak eta ijitoen kontrako jokabideak jasotzen ditu txostenak, baita jardunbide egokiak, aurrerapausoak eta Espainiako eta Europako jurisprudentzia

ere, urte horretan etnia diskriminazioaren aurka borrokatzen lagundu dutenak.

Europako Parlamentuaren osoko bilkurak ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionalen Europako esparrua 2020. urtetik aurrerako aldirako sendotzeko eta ijitoen kontrako jarreraren aurka borrokatzeko beharrari buruzko [Ebazpena](#) onartu zuen otsailaren 12an.

Europako Parlamentuak ijitoen sustapenean eta haien kontrako jarreraren aurkako borrokan aurrera egiteko hainbat proposamen aurkeztu ditu, eta aitortu du ijitoen egoera hobetzeko ahalegin handiagoak egin behar direla, ijitoen bizibaldintzak eta aukerak hobetzea ekarriko duten helburuak ezarrita eta fondoak esleituta. Horrez gain, diskriminazio anizkoitzari eta interseksionalari behar bezala erantzutea, genero-ikuspegia aintzat hartzea eta haurrei begira dagoen ikuspuntua hartzea proposatu du, baita arreta berariazko taldeetan jartzea ere, hala nola Europar Batasuneko ijitoengan. Azkenik, egia sustatzeko, aintzatesteko eta adiskidetzeko prozesuarekin zerikusia duten neurriak eta ekimenak aipatzen ditu, baita kultura-ekimenak ere.

Europako Batzordeak ijitoak integartzeko estrategia nazionalen garapenean ebaluazio-txostena argitaratu du, hain zuzen, [aurrerapen-txostena, 2019](#), honako hauek oinarri hartu dituena: estatu kideetako harreman-guneen eta [Roma Civil Monitor](#) zentroaren txostenak; Giza Eskubideen Europako Agentziaren datuak; eta Europako Batzordeko Ikerketarako Zentro Bateratuan egindako metaebaluazio bat, gizarteratzeko esku-hartzei buruzkoa.

Txostenak esku-hartzearen lehentasuneko arloetan egiten diren aurrerapasoetan jartzen du arreta nagusia: enplegua, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza, baita diskriminazioaren aurkako borrokan eta ijitoen aurkako jarreraren kontra borrokatzean ere. Txostenaren sorburua Ijitoak Gizarteratzeko Estrategia Nazionalen Europako Esparrua da, 2020an berriro behar dena.

2019ko ekainean, Ijitoen Idazkaritza fundazioak emakume ijitoen berdintasunerako [Cali programaren](#) emaitzak —hiru urtetan lortutakoak— aurkeztu zituen. Programaren helburua emakume ijitoen gizarteratze eta laneratze maila hobetzea da.

Giza Eskubideen Europako Agentziaren [txostenak](#), Europar Batasuneko 9 herrialdeetako (besteak beste, Espainiako) emakume ijitoei buruzkoak, argi erakusten ditu emakume ijitoek gizarte-bazterketa eta diskriminazio-egoeraren ondorioz izaten dituzten zailtasun handienak; izan ere, egoera txarra goan geratzen dira, gizon ijitoekin zein populazio orokorreko emakumezkoekin konparatuta. Ijitoen kontrako jarrerak nola eragiten dien nabarmetzen du txostenak. Gai nagusiak honako hauek dira: hezkuntza, ezkontza goiztiarrak, osasuna, enplegua, diskriminazioa, gorrotoa eta indarkeria.

Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen Katedrak egindako [Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko azken txostenak](#) zehatz-mehatz jasotzen ditu Ertzaintzak erregistratutako gorabeherak, eraso horiek jasan dituzten gizataldeen mapa bat, delitu motak eta non gertatzen diren, lurralde-

banaketa, baita inputatuen, ikertuen, atxilotuen eta biktimen kopuruak ere. Esan beharra dago 2018an, Ertzaintzak gutxira 132 gorroto-gertakari erregistratu zituela; horietatik 130 delitu-egitateak ziren eta 2 administrazio arloko arau-haustekak. Gertakarien %47,6 arrazakeria edo xenofobia izatekoak izan ziren.

Ijitoen eskubideak defendatzeari dagokionez, auzipetze estrategikoa asko balioesten den tresna da; izan ere, giza eskubideen nazioarteko estandarrak betetzea exijitzeko eta ijitoak bizi diren estatuetako administrazio publikoetan gertatzen diren urraketak salatze baliabide juridikoen erabilera eraginkorra sustatzeko balio du.

Aurten, bi epai aipatuko ditugu:

1. Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren [epaia](#), 2019ko urtarriaren 16koa, Madrilgo Udala “La Cañada”ko ijito etniako familia bati 13.000 euro ordaintzera kondenatzen duena, familia horren etxea nahitaezko baimen judizialik gabe eraisteagatik eta ezarritako administrazio-prozedura erabat bazterteagatik. Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak zati batean onetsi du familiak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa eta baieztatu du bizilekuaren bortxaezintasunerako eskubidea urratu izana, etxebizitza eraistea egitate bidezko jarduketa bat baitzen, errekurtsoegileen oinarritzko eskubidea —bizilekuaren bortxaezintasunerako— urratu zuena. Etxea dagokion espedienterik gabe eta —interesdunen oinarritzko eskubideak urratzea saihesteko— eskatzen diren gutxiengo izapideak bete gabe eraitsi zen, eta gainera, inork ez zuen eraisketari buruzko erabaki formalik eman.
2. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren [epaia](#), 2019ko maiatzaren 17koa; **P.H. and Others v. Italy** (application no. 25838/19). Horren bidez, behartu da Italiako gobernuak Vía del Viaticale-tik osasungarritasun-arazoak zirela eta aterarazitako adingabeei eta beren familiei behar bezalako bizilekua berma diezaien. Etxea uzteko aginduaren ondorioz, beren kabuz udalerriri berean beste bizitoki bat bilatu behar izan zuten, eta bizitoki berriak ez zituen egokitasun-baldintzak betetzen. Egoera hori salatu zen, eskubideak urratu zirelako, besteak beste, haurren hezkuntzarako eskubidea; hori dela eta, Giugliano-ko udalerrira auzitara eraman zuten, bizileku duinaren premia bete zezan, eta oinarritzko zerbitzuak erabiltzeko eta haurrak eskolatzeko aukera berme zezan.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziozko jarduerak

Arartekoak ofiziozko jarduera bat amaitu du, honako gai honi buruzkoa: diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea aitortzeko

espedientean, langile autonomoi **gutxieneko etekin faltua egotzea**. Erakunde honek izapidetu dituen hainbat kexatan antzeman duenez, Lanbidek jardueraren fikziozko gutxieneko etekin bat egotzen die langile autonomo guztiei, haiek aurretiaz egindako zerga-aitorpena izan edo ez. Ondorioz, legokiekeen lan-sarreraren prestazio osagarriaren zenbatekoa murriztu, baita ere eten egiten du, eta, gainera, ustez bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatzen die. Arazo horiei buruzko kexak izapidetzean ikusitako akatsak eragin dituzten irizpideak berrikusi eta argituko dituela erantzun du Lanbidek. Pertsona ijito askok autonomo gisa egiten dituzte jarduerak eta, hortaz, aipatu ofiziozko jardueran aztertu diren arazoak pertsona askoren —besteak beste, ijitoen— kexak eragin ditu. [Arartekoaren ebazpena, 2019ko ekainaren 14koa](#).

4.2. Adierazpen instituzionalak

Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Arartekoak [adierazpen instituzionala](#) egin du, Europako ijito gehienek pairatzen duten berdintasunik eza eta gizarte-bazterketa egoerak salatuzko (% 80 pobrezia-arriskuan dago, batez besteko orokorra % 17 izanik). Estrategiak eta planak onartzeak bidea ematen du benetako diagnostikoak, konpromiso lotesleak eta jarduteko proposamen zehatzak izateko. Hori dela eta, aipatu adierazpenean, erakunde honek biziki eskatzen die administrazio publikoek aurrera egin dezatela horiek atzerapenik gabe betetzen, ijito herria merezi duen duintasunez bizi dadin mende honetan. Gainera, gogorarazi du Euskadin ere badirela gorrotzko adierazpenak eta horiei aurre egiteko neurriak ezarri behar direla.

4.3. Bestelako esku-hartzeak

2019. urtean, Arartekoaren erakundea Nazio Batuen errelatore bereziarekin bildu da, gutxiengo gaiei buruz hitz egiteko; gauza bera egin zuten beste erakunde eta gizarte-antolakunde batzuek. Errelatore bereziak 2019ko urtarrilaren 14tik 25era bitartean izandako Espainiarako bisita ofizialari amaiera emateko [adierazpena](#) egin zuen, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeari 2020ko martxoan aurkeztuko dion amaierako txostena egin aurretik. Adierazpenean nabarmendu da, kezka iturri gisa, besteak beste, ez direla biltzen hizkuntza, kultura edo erlijioari buruzko datuak (informazio pertsonala kenduta). Testuaren arabera, interesgarria izango litzateke hobeto bideratutako politika eta programak prestatzeko, eraginkorrak eta gobernu-frogetan oinarrituak izan daitezkeen; izan ere, *“datu horiei esker, gobernuak behar-tsuengana iristen diren programak planifika ditzakete, eta, batik bat, politika eta programen eragina neurtzeko, zaurgarritasun edo marjinazio handieneko egoeran daudenengan, gutxiengoak barne”*.

Adierazpenean, Espainian gertatzen diren gorroto-delituak eta diskriminazio-egoeren aurka borrokatzeko hainbat tresna aipatu ditu errelatoreak, besteak beste, Arraza edo Etnia Diskriminazioa Desagerrarazteko Kontseilua eta gorroto-delituak espezializatuta dauden bulegoak, fiskaltzaren probintzia-bulegoetan. Horren gain, administrazio publikoaren

erakunde nazionalen arteko akordioa aipatu du, zeinean gizarte zibileko erakundeek begirale gisa parte hartzen duten, baita Arrazakeria eta Xenofobiaren Behatokia (OBERAXE) ere, gobernuko funtzionarioak trebatzeko programak eta diskriminaziorik ezaren aldeko ekimenak hainbat arlotan (osasuna, hezkuntza, Internet, eta abar) sustatzeko berriazko programak prestatu dituenak.

Adierazpenean orain arte jorratu ez diren kontu kezkarriak azaldu dira, Arartekoaren urteko txostenetan ere aipatutakoak, hala nola ijitoei buruzko estereotipo negatiboak, kolektibo hori modu negatiboan erakusten duten albisteak, kasu penaletan etnia-jatorria adierazten denean edo Interneten eta sare sozialetan arrazakeria-, xenofobia- edo antisemitismo-mezuak zabaltzen direnean. Azkenik, Espainian bazterketa eta diskriminazioa jasaten duten ijitoak oraindik badaudela esaten du adierazpenak, eta, inplikaziorik ezaren adibide gisa, estatu osorako kalez kaleko salmentari buruzko araudirik eza aipatzen du batetik (horrek zaildu egiten du ijitoen artean nagusia den jarduera ekonomikoki egitea), eta bestetik, ordezkaritza eskasa hautatzen diren organo politikoetan, estatu, eskualde eta udalerritan. Bukatzeko, hezkuntzaren inguruko kezka helarazi du, honako datu hauek nabarmenduz: haur ijitoen % 64k ez dute derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatzen (populazio osoan, gutxi gorabehera % 13 da); bestalde, lurralde batzuetako ikastetxe publikoetan haur ijito ugari daude, ikastetxe inguruetan bizi diren ijitoen populazioa berez oso handia ez den arren, ez behintzat ikasle ijitoen kopurua hain handia izateko moduan.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Etxebizitzaren premia eta eroldari edo prestazio ekonomikoa eskuratzeko aukerari lotutako hainbat arazo, etxebizitzarik ezaren ondorioz, ijitoek aurkezten dituzten kexen arazo nagusiak dira. Etxebizitza publikoaren kopurua nahikoa ez izateak eta alokairu-merkatu pribatura jotzeko beharrak gutxiengo kulturalei eragiten die, eta bereziki, ijitoei, argi baitago diskriminazioa pairatzen dutela etxebizitza eskuratzeko orduan. Egoera argitzen duten arrazoiaren artean, auzokideen presioa dago, etxebizitzak alokairuan ematen dituzten jabeengan egiten dutena. Etxebizitza lortzeko zailtasunei aurre egiteko jarduketak zehatzak behar dira bai sentibilizazioaren arloan, bai bazterkeriaren aurkako borrokan; bidenabar, sarbidea errazteko bestelako neurriak ere behar dira. Etxebizitzak eginkizun soziala du, eta ezinbestekoa da bizitza duinaz gozatzeko; horregatik, konpromiso publiko irmoak behar dira, pilaketak, infraetxeak eta etxebizitza-bazterketa saihesteko.

5.2. Azterlan ugariaren arabera, ijitoek mesfidantza azaltzen dute kexak eta salaketak aurkezteko orduan, besteak beste, legearen edo erakundearen erantzunean konfiantzarik ez dutelako. Ezaugarri horren inguruan hausnarketa egin beharko litzateke, beren eskubideak gauzatzeko oso beharrezkoa den tresna delako.

5.3. Eskolatzeko, laneratzeko, etxebizitza bilatzeko edo beren eskubideei buruzko orientazioa ematen laguntzeko **bitarteko egiturak** lagungarriak dira gizarteratze-ibilbidean lehen urratsak egiteko. Ildo horretan, gizarte-erakundeek eginkizun garrantzitsua betetzen dute, beraz, oso baliagarria da erakunde horien parte-hartze publikoa, haiekin hitz egitea eta garatzen dituzten programak babestea.

5.4. Oraindik ez dira indarrean jarri **tresna arauemaile eraginkorrak** berdintasunaren alde eta diskriminazioaren kontra borrokatzeko.

5.5. Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia (2018-2020 aldikoak) 2021. urtean ebaluatzea aurreikusita dago. Estrategiak jasotzen dituen neurriak eta Espainiako Ijitoak Gizarteratzeko Estrategia Nazionalak (2012-2020) ezarritako neurriak abian jartzea **ezinbestekoa** da ijito herria sustatzeko konpromiso zintzoa baloratzeko.

2020a urte garrantzitsua da, Ijitoak Gizarteratzeko Estrategia Nazionalen Europako Esparrua berri behar delako. Datu bereziak lortzeko zailtasunak egon arren, Giza Eskubideen Europako Agentziarena bezalako txostenei esker, ijitoak gizarteratzeko politika publikoak taxutzeko behar den ezagutza dago, gainera, derrigorrezkoa denez, genero-ikuspegia kontuan hartuta.

Urte hauetan bildutako datuek eta egindako diagnostikoez eta txostenek lagungarriak izan behar dute benetako berdintasuna lortzea eragozten duten oztupoak kentzea helburu duten neurriak eta politika publiko irmoak egiteko.

5.6. Pasa den urteko txostenean jasotako ondorioekin konparatuta, 2019an ez da aldaketa nabarmenik izan; hori dela eta, Arartekoa horri lotzen zaio, indarrean dauden kezka batzuk azpimarratuta:

Ijitoen kontrako jarrera egiturazko fenomeno da, egintza zehatzak eskatzen dituena; bestela, ijitoen gizarte-bazterketa ekartzen du. Gatazkak sortzea eragozte aldera, elkarbizitza egokia, tolerantzia eta auzokideen arteko harremanak izatea, eta ijitoen edo beste edozein komunitateren aurkako gorrotoa sustatzen duen edozein diskurtso baztertzea nahitaezkoa da eskubideak aitortu eta errespetatzeko.

Ijito herriaren irudiak, hedabideetan agertzen denak, oraindik ere estereotipo asko erabiltzen ditu, eta horrek oztopatzen ditu gizarteratzea eta berdintasunezko tratua. Pertsona ijitoak hizpide dituzten albisteen **tratamendu mediatikoaren** garrantzia oso alderdi garrantzitsu gisa hartzen da oraindik ere, gizartean duen eraginagatik gizarte justu eta kohesionatua lortzeko, gutxiengoen eskubideak errespetatuko dituena eta talde ahulenen progresio soziala bultzatuko duena.

Pertsona ijitoen egoera Europa mailan aztertu duten txostenetan oso egoera desberdinak antzeman dira ikertutako estatu edo eskualdearen arabera; bazterkeriaren aurkako borroka eta sustapen politika publikoak erabakigarriak dira.

Agerian geratu diren gabezien artean, **ijitoek —batez ere neskek— hezkuntza-sisteman jarraitzeak** duen garrantzia azpimarratzen da, hori ezinbestekoa baita lan merkatuan sartzeko beharrezko kalifikazioa lortzeko. Horri gehitu behar zaizkio, batetik, banakako beharrak kontuan hartzen dituen lanbide-heziketan sartzeko malgutasuna, eta bestetik, laneratzeko errazteko behar duten laguntza. Prestakuntza-jardueren aniztasunak eta malgutasunak laguntzen du ijitoak lanerako trebatzen. Ijitoek lan arloan jasaten duten diskriminazioa kontuan hartzen duen lan-orientazioa ere, dirudienez, giltzarria da gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbidean.





III. atala

6

Etorkinak eta
kultura aniztasuna

Aurrekariak



Atal honetan Arartekoaren jarduketetako batzuk jaso ditugu, etorkinen eskubideei eragiten dietenak, etorkinak euskal administrazio publikoen politiken xede diren aldetik. Halaber, etorkin eta errefuxiatuen harrera eta integrazioari eta bere eskubideei eragiten dizkieten berritasun nabarmenenak azaltzen ditugu.

Ikuspegiren [azken panoramikaren](#) arabera, 2019ko urtarrilaren 1ean 221.418 atzerritar zeuden EAEn erroldatuta. Azken urtean, jatorri atzerritarreko biztanleen kopuruak gora egin du, eta honezkeru 14.888 lagun gehiago dira (biztanleria osoaren % 10). Horietatik % 52,6 emakumezkoak dira. Beste jatorri nazional bateko pertsonen kopurua oraindik ere Espainiako batez bestekoaren azpitik dago (% 14,3).

Azken urtean Euskadira iritsi diren pertsonen jatorriari dagokionez, gehienak (% 70,8) latino-amerikarrak dira (Nikaragua, Honduras, Kolonbia, Venezuela, Peru, Paraguai, Argentina eta Brasildik etorritakoak). Marokotik eta Senegaldik etorritakoak ere asko dira (% 14,7). EAEn bizi diren atzerritar guztien jatorria aztertuz gero, jatorri latino-amerikarreko pertsonak osatzen dute ehunekorik handiena, eta horien atzetik datoz EBn eta Magreben jaiotakoak. Sexuaren araberako banaketari dagokionez, biztanleen erdia baino zertxobait gehiago emakumezkoak dira.

[Eustaten migrazio-mugimenduen azken estatistikan](#), 2018ko datuei buruzkoan, berretsi da migrazio-saldoa handitu egin dela 2017ko datuekin alderatuta. Hona hemen datu interesgarri bat: kanpoko edo erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoa 5 puntu txikiagoa izan zen Espainiako autonomia-erkidego guztiak aintzat hartuta ateratzen dena baino.

[Estatistikako Institutu Nazionalaren \(INE\) biztanleriari lotutako zifren](#) arabera, 2019ko uztailaren 1ean, Espainiako biztanleria hazi egin zen (163.336 lagun gehiago), eta urtearen lehen erdian, 47.100.396 biztanlera iritsi zen. Atzerriko nazionalitateko biztanleak gehitzearen ondorio izan zen Espainiako biztanleriaren hazkundera, Espainiako nazionalitateko biztanleak gutxitu egin ziren-eta. Atzerritarren kopurua handitu egin zen 2019ko lehen seihilekoan (183.073 lagun gehiago), eta 2019ko uztailaren 1ean 5.023.279 ziren. Espainiako nazionalitatea duten biztanleen kopurua, berriz, murriztu egin zen (19.737 lagun gutxiago). Kolonbiako, Venezuelako eta Marokoko nazionalitatea zuten biztanleak areagotu ziren gehien.

EINen [Biztanleria Aktiboaren Inkesta](#) dela-eta, 2019ko lau garren hiru hilekoan, % 12,83koa zen Espainiako biztanleriaren langabezia-tasa, eta atzerritarrena, berriz, % 19,98koa.

Ikuspegiren [2019ko Barometroak](#), jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzio eta jarrerei buruzkoak, berriz ere erakutsi du euskal gizartearen gehiengoak ez duela gizarte-arazotzat hartzen etorkinen presentzia, eta emaitzak eutsi egin dio 2015ean (krisi ekonomikoaren astindu nagusien ondoren) hasitako ereduari. Tolerantzia-indizea 60,67 punturaino igo da. Euskal gizarteak balioetsi egiten du babes sozialak pertsona guztientzat duen garrantzia, eta eskubide unibertsaltzat hartzen ditu osasun-arreta eta hezkuntza publikoa. Nolanahi ere, ongizate-estatuari eusterik izango ez ote den beldurra zabaltzen duten zurrumurruek eta aurreiritziak ere iristen zaizkio. Balio handikotzat jotzen du administrazio-egoera ondorio guztietarako erregularizatzea, bai zerbitzuak eta prestazioak eskuratu ahal izateko, bai lan egin ahal izateko. Barometroaren emaitzek aukera ematen dute jarrerak aurreikusteko eta jarrera intoleranteen hazkundera saihesteko neurriak diseinatzeko; batez ere jatorri nazional jakin batzuetako pertsonen, hala nola pakistandarrei, errumaniarrei eta magrebtarrei, zuzenduta egon ohi dira jarrera intoleranteak, eta jomugan dauden horiek.

Frontexen 2019ko txostenaren arabera, 2019an egoera irregularrean egonik Europar Batasuneko (EB) kanpo-mugetan hautemandako migratzaileen kopurua 2015etik izandako baxuena izan zen. Aipatu da egoera irregularrean zeuden 139.000 lagun zeudela EBko kanpo-mugetan, hau da, 2018an baino %6 gutxiago eta 2015ean baino %92 gutxiago —orduan gertatu zen “errefuxiatuen krisia”—.

2019an, 118.264 nazioarteko babes eskaera aurkeztu dira, eta, nagusiki, Venezuelako eta Kolonbiako herritarrek aurkeztu dituzte horiek. Horietatik 64.541 gizonek aurkeztu dituzte eta 53.723 emakumeek. Horietatik 4.826 Euskadin aurkeztu dira.

Gainera, 2019an, 1.653 eskaeratan, aldeko ebazpena eman da Errefuxiatuen Estatutua aitortzeari dagokionez, eta 1.503tan, babes subsidiario emateari dagokionez. Halaber, arrazoi humanitarioengatik Espainian bizitzeko 39.776 baimen eman dira. [Barne Ministerioak aurreratu dituen datue](#)tan, balio altueneko aitortpen eta babes tasak banakatu dira.

2018an, 65.000 lagun inguru sartu ziren Espainian modu irregularrean. Aurten ia erdira murriztu da hegoaldeko mugatik sartutakoen kopurua, Marokoko agintarien elkarlanaren eta EBk Marokori emandako babesaren ondorioz. Migrazio-fluxuak Atlantikoko hegalerak lekualdatu dira hein batean, eta, ondorioz, Kanariar Uharteetara iritsitakoak areagotu egin dira.

1. Arloa kopurutan

Etorikinek, gainerako herritarrek bezalaxe, administrazio publikoan jarduketari buruzko kekek aurkezten dituzte, eta azken horiek erakundearen lan arlo guztiekin dute zerikusia. Azpimarra daiteke keka asko gizarte-eskubideei dagozkia; hortaz, kolektibo horrek aurkezten dituen kekek, batez ere gizarteratze, hezkuntza eta etxebizitza arloei eragiten diete, eta gutxiago osasun arloari. Adingabe atzerritarrei dagozkien kekek Haur eta Nerabeen Bulegoko txostenean aztertu dira eta hemendik aurrera txosten horretara joko dugu. Bestalde, Estatuko Administrazio Orokorrekin zerikusia duten kekek Herriaren Defendatzailearen Bulegora bideratzen dira. Hori guztia dela eta, zaila da kolektibo horrek aurkezten dituen kexen kopurua zehaztea.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Iraganbidean dauden migratzaileak

2018ko udan, zenbait herritar-plataformaren eta gizarte-erakunderen kekek jaso zituen Arartekoak. Erakunde horiek adierazi zuten kezkatuta zeudela Andaluziako kostaldetik zetozen immigranteen premia- eta zaurgarritasun-egoeragatik, beste batzuetan baino askoz lagun gehiago iristen ari ziren-eta. “Iraganbidean dauden migratzaileak” deritzo fenomeno horri. Horri erantzunez, Arartekoak hainbat

jarduera egin ditu, fenomeno horren berri izateko eta euskal herri-administrazioek egin dituzten jarduketak aztertze.

Egun garrantzitsua izan zen ekainaren 18a. Izan ere, egun horretan, Saharaz hegoaldeko 46 migratzaile iritsi ziren Donostiako autobus-geltokira. Itxuraz, haien hasierako helmuga ez zen EAE; aitzitik, Europa iparralderantz jarraitu behar zuten bidaia. Hala ere, arazo ezezagunen batengatik, ez zuten beren ibilbidea jarraitu, eta ustekabean geratu ziren autobus-geltoki horretan. Estatuko gobernuak ez zien EAEko agintariei jakinarazi pertsona horiek gurera iristekoak zirenik. Halaber, horren ondoko beste joan-etorri batzuen berri ere ez zuen eman; ez zuen jakinarazi zer inguruabarretan iritsiko ziren migratzaileak Euskal Autonomia Erkidegora, ez eta zenbat lagun etorriko ziren ere.

Ordura arte jakina zen bazirela Europa iparralderantz iraganbidean zeuden migratzaileak, zeinak Estatuaren hegoaldeko mugatik sartzen baitziren. Hala ere, ordura arte lagun gutxi ziren iritsiak.

Egun horretatik aurrera, migratzaileen autobus gehiago iritsi ziren EAera, ez bakarrik Donostiara, baita Bilbora eta Irunera ere. Migratzaileak Estatuaren hegoaldeko mugatik autobusez iritsi ziren hurrengo aldietan, Euskadiko Gurutze Gorriak eman zion horren berri Eusko Jaurlaritzari. Arartekoak badaki euskal herri-administrazioek, hasieratik, arreta emateko zenbait jarduera-ildo abiarazi zituztela, eta lehenengoz koordinatu zirela Euskadiko Gurutze Gorriarekin.

2019an zehar, behera egin zuen gurera iritsitako iraganbideko migratzaileen kopuruak.

Arartekoak hainbat bilera egin zituen Bilboko, Donostiako, Gasteizko eta Irungo udaletako gizarte-zerbitzuekin, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin, jakin nahi baitzuten zer-nolako erantzunak eman zituzten herri-administrazioek.

Era berean, bilerak egin ditu zenbait gizarte-erakundekin, eta hainbat herritar-plataformak eta gizarte-erakunde boluntarioen bidez kudeatutako Bilboko Bizinahi Baliabidea bisitatu du (itxi aurretik).

Aurreko jarduerak txosten labur batean jaso dira. Han, zenbait gogoeta jaso dira koordinatzeko, lankidetzan aritzeko eta eskumenak argitzeko beharri buruz, EAEko herri-administrazioek iraganbideko migratzaileen harrerari lotuta egindako jardueren inguruan eta herritar-plataformek salatutako gabeziei buruz, eta, gainera, harrera-politika publikoak abiarazi beharra planteatu da.

Arartekoak [zenbait ondorio](#) atera ditu, hausnarketa sustatze aldera. Horien artean, nabarmentzekoak dira euskal gizartearen elkartasuna, une hartan Espainiako Gobernuak koordinaziorik ez izatea, eskumen-esparrua argitu beharra eta hizpide dugun gaia euskal agendan eta ekintza politikoa sartu beharra konstituzio-esparrua errespetatuz.

Erakunde honen iritziz, ez da fenomeno iragankorra, egiturazkoa baizik, eta, beraz, zeharkako erantzun estrategikoak

txertatu behar dira, gertakari horri —ezin aurreikusizko:gizarte-dimentsioa du baina giza eskubideak errespetatzen dituen gizarte-eredu baten mende dago— aurre egiteko.

Horregatik, erakunde honen ustez, interesgarria litzateke, besteak beste, argitzea zer eskumen, eginkizun eta zerbitzu dagozkien euskal herri-administrazioei immigrantei harrera egiteari dagokionez. Migrazioaren gizarte-egitateari, fase guztietan (harrera, integrazioa eta gizarteratzea), arreta arduatsua ematea, aniztasuna kudeatzea eta diskriminazioaren aurka borrokatzea funtsezkoak dira migrazioak dakartzan gizarte-garapenari eta gizarte-mugikortasunari begira. Horrek berekin ekarri behar du gizarteratzearekin zerikusia duten zerbitzu jakin batzuk indartzea, hala nola immigrazioaren eta aniztasunaren kudeaketaren arloko jarduera-planak beteko diren konpromiso irmoa hartzea, edo horiek betetzen direla bermatzeko beste tresna arauemaile batzuk ezartzea.

2.2. Familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileak

Arartekoak kexa ugari jaso ditu 2019an, familia-erreferenterik gabeko (adin nagusiko) gazte migratzaile atzerritarrei emandako arreta dela-eta. Aurreko urteetan haurrak babesteko zerbitzuek artatu dituzten adingabe atzerritarren kopuruak gora egin duenez, horiek adin nagusiko bihurtzean, handitu egin da gazteen kopurua hiru lurraldeetan —bereziki Bizkaian—, adingabeak izanik ere han bizi ziren-eta. Ondorioz, tutoretzapean egon ondoren familiaren laguntzarik ez zutela-eta gizarte-arreta eskatu zuten gazteen kopuruak gora egin du urte honetan. Horiez gain, badaude beste gazte atzerritar batzuk dagoeneko adin nagusikoak izanik gurera iritsi badira ere autonomia eskuratzen lagunduko dienik ez dutenak.

Bizkaiko Foru Aldundiak gazte horien premiak asetzeko gazte-estrategia jarri zuen abian 2018ko udan, eta hainbat esku-hartze ildo proposatu zituen. [maiatzaren 21eko 59/2019 Dekretuan](#) (gizarte-inklusioren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duena) daude jasota ildo horiek, eta aipatutako estrategia programa espezifikoko gisa arautzen da dekretu horretan. Programan sartzeak arreta-plan pertsonalizatua egitea dakar. Plan horretan, esku-hartzearen helburuak eta erabiltzailearen konpromisoak jasotzen dira, eta gizarteratze-zerbitzuko erreferentziak profesional batek koordinatzen du planaren betearazpena. Horrez gain, prestazio tekniko, osagarri eta ekonomiko jakin batzuk ematen zaizkie onuradunei.

Hala eta guztiz ere, programa horren inguruko hainbat kexa jaso ditu Arartekoak, adin nagusiko bihurtu eta adingabe atzerritarrentzako egoitza-zentroa utzi behar zuten gazteek, kasu batzuetan, ez zutelako ordezkoko bizilekurik, eta, kasu batzuetan, kalean geratu zirelako. Kexetan, azpimarratu da egoera hori sortu dela ez delako aurreikuspen egokirik egin egoitza-zentrotik ateratakoan gazteei, esku-hartzearen jarraitutasun-printzipioari jarraikiz, emango zitzaizen irtenbidearen inguruan. Hori guztia gazteak zaugarritasun-egoeran egon arren. Izan ere, 18 urte baino ez dituzte, ez dute familiaren laguntzarik, eta, kasu askotan, artean prestakuntza-ikastaroak

egiten ari dira. Kexa batzuei dagokienez, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailak jakinarazi digu, azkenean, plaza esleitu zaiela interesdunei, baina aldi batez kalean bizi izan ondoren. Horixe egiaztatu da, behintzat, izapidetutako kexei erreparatuta. Arartekoari igorritako informazioan, sailak argitu du beharizan-egoeran egoteko betekizuna betetzen duten gazteei eman behar zaiela arreta, eta aplikatu beharreko araudia kontuan hartuta egindako bazterkeria-egoeraren balorazioaren mende dagoela interesdunak baldintza hori betetzen duela jotzea.

Arazo horri dagokionez, gizarte-talde batzuek Arartekoari jakinarazi diote kezkatuta daudela hainbat gazte migratzaile kalean bizi direlako eta artatzen dituzten programak saturatuta daudelako. Programa hauei buruz ari dira: gazte-estrategiari buruz —adingabeak izanik Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza-zentroetan urtebetez bizi izan direla egiaztatzen duten gazteei bideratua—, eta Hemen programan sartzeko itxarote-zerrendari buruz —beste emantzipazio-programa batera sartu ezin diren eta gizarte-zaugarritasuneko egoeran dauden gazteentzat aurreikusia—. Kolektibo horien iritziz, programak saturatuta daudenez eta ordezkoko bizitokirik ez dagoenez, zailagoa da gazteei behar duten gizarte-orientazio eta -laguntza eta bestelako oinarrizko orientabideak ematea, eta orientabide horiek aukera ematen diete gizarteratzeko laguntza-eskaerak edo bizileku-baimena aitortzeko edo berritzeko eskaerak aurkezteko.

Hauxe da egoera txostena itxi den datan: gazteak adin nagusiko bihurtzen direnean, Bizkaiko Foru Aldundiko Haurren Zerbitzuak esku hartzeari uzten dio, eta, beraz, gizarteratze-zerbitzua kudeatzen duen programan sartu ahal izateko, ezinbestekoa da plazak egotea. Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak berretsi du ez duela arreta emateko betebeharririk, eta adin nagusiko bihurtu ondoren irtetzen diren gazteen kopurua handitzeak ez dakarrela berekin inklusio-arloko plazak gehitzea. Azkenik, jakinarazi du asko handitu dela gazteen arretara bideratutako aurrekontua, eta laguntza sozial eta juridikoari lotuta 2019ko abenduan abian jarri dituzten zenbait neurriren berri eman du.

Arartekoak, aurkeztutako kexak ikusita, azterlan bat prestatzeari ekin dio, analizatzeko zein den kolektiboaren egoera eta zer erantzun ematen ari diren administrazio publiko esku-dunak. Azterlanaren helburua da familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileen gizarte-arretaren errealitatea ezagutzea eta administrazio publikoari hobetzeko proposamenak eta gomendioak egitea, erakunde honen lanean ohikoa den bezala.

2.3. Pasaportetik eza

Gero eta ohikoagoak dira pasaportetik ez izateari —dela jatorrizko herrialdeko agintaritzek hura egiten ez dutelako, dela berritzen ez dutelako— buruzko kontsultak; izan ere, pasaporte izatea oso garrantzitsua da administrazio publikoeko harremanetarako, eta nortasun-agiririk ez izateak zaugarritasun handia eragiten du. Ezein herrialdeko agintariek dokumentatu ezin dituzten eta salbuespeneko arrazoi

humanitarioak daudela, interes publikoko kontua dela edo Espainiak hartutako konpromisoak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsonen inskripzio-zedula emateko aukera aurrekusten du ordenamendu juridikoak. Hona hemen Arartekoari jakinarazitako arazoetako bat: zaila dela egiaztatzea dagokion ordezkari diplomatikoak edo bulego kontsularrak ezin diola dokumenturik egin interesdunari, horretarako notario-aktaren bidez jaso behar baita errekerimendua egin arren ez dela hura bete.

Pasaporte iraungi izanari edo pasaporte berritzeko eskatu dela egiaztatu arren hura fisikoki berandu eskuratzeari buruzko kontsultak ere jaso ditugu. Izan ere, horrelakoetan, banku-erakunde batzuek blokeatu egin dituzte interesdunen banku-kontuak, eta, beraz, ezin dituzte beren banku-gordailuak eskuratu. Kontsularen ebazpenetan, ukitutako pertsonen aholkatu zaie banku-erakundeetan erreklamazioa aurkez dezaten, aurretiazko baldintza hori bete behar baita ondoren Espainiako Bankuan kexa aurkeztu ahal izateko.

2.4. Gizarteratzeko laguntzak ukatzea

Antza denez, [Bizkaiko Foru Aldundiak](#) duela urte batzuk hartu zuen bere gain kexagilearen tutoretza. Dagozkion frogak egin ondoren, Fiskaltzaren dekretu batek zehaztu zuen haren adina; hala ere, ez zuen erreferentziatzen hartu interesdunaren jaiotza-data, anaiarena baizik, eta hura bi urte zaharra goa zen. Akats material horren ondorioz, aldundiak adin nagusikotzat jo zuen kexagilea, eta, ondorioz, ukatu egin zion eskatua zuen gizarteratzeko laguntza berezia; aitzitik, hura jasotzeko eskubidea zuen, adingabea zen-eta. [Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 9koa, zeina onartu egin baita](#) adina zehazteko dekretua zuzendu ondoren.

2.5. Diru-sarrerak bermatzeko sistemari buruzko kexak

2.5.1. Lanbide prestazioa eten zion eta jasotako zenbaitekoak itzultzeko eskatu zion Marokon ezkondu zen espainiar nazionalitateko pertsona bati, atzerrian ezkontza erlijio-soak egiteko legez ezarritako baldintzak bete bazituen ere.

Arrazoi hau hartu zen oinarritzat prestazioa eteteko: “ezin zela bizikidetzaren unitatearen osaera zehaztu”. Aitzitik, kexagileak Erregistro Zibilean inskribatzeari zegokionez eta emaztea harekin sartu, bizi eta erroldatu ahal izateko bisatua eskuratzeari zegokionez egin zituzten izapideten berri eman zuen, behar bezala eta epearen barruan. Lanbide, informazio-eskaerari erantzunez, adierazi zion baietsi egin zuela bizikidetzaren unitatearen osaera baliozkoa zela zioen errekurtsoa.

2.5.2. Jatorrizko herrialdera egindako bisita batean, pasaporte galdu zuen, eta zenbait hilabetez itxaron behar izan zuen Espainian —horretarako jarritako postuetatik— sartzeko beharrezko dokumentazioa eduki arte. Lanbide jo zuen eskatzaileak ez zuela egiaztatu egoitza eraginkorrari lotutako betekizuna, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.b) artikuluan jasotakoa, Euskadin 12 urtez baino gehiagoz bizi

izan zen arren eta bertan ez egoteko arrazoia justifikatu zuen arren, hori guztia 8 hilabete eman behar izan zituelako Ekuatore Ginean nahi gabe. Arartekoak berriz ere adierazi zion Lanbideri bestela baloratu beharko zatekeela interesduna 90 egunez baino gehiagoz Espainian egon ez izana, ez baitzen kontuan hartu nahi gabeko egoera izan zela. Hori dela eta, iradokizun bat helarazi zion Lanbideri ([Arartekoaren Ebazpena, 2018ko irailaren 20koa](#)), baina ez du erantzunik jaso, eta, beraz, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari jakinarazi diogu **ez onartutzat** jo dugula.

2.6. Beste arlo batzuei eragiten dieten kexak

Aurten, atzeritarrak tartean zirela poliziak Bilboko San Frantzisko auzoan egindako esku-hartze batzuk diskriminazioletzat jotzen zituzten zenbait kexa izapidetu dira segurtasun-arloan. Kexetan alegatzen zen, halaber, jarduketa horietako batzuetan erabilitako indarra neurritz kanpoko izan zela.

2.7. Herriaren Defendatzailearen bulegora bidalitako kexak

2.7.1. Erakunde eskuduna izategatik Herriaren Defendatzaileari igorri zaizkion kexen artean, Espainiako nazionalitatearen eskaera ebazteko atzerapenari buruzkoak aipatu dira, bai eta asilo-eskaerari edo aberrigabezia-eskaerari buruzkoak ere.

Herriaren Defendatzaileak jakin du talka-plan bat jarri dela abian nazionalitate-eskaerak izapidetzeko orduan izaten den atzerapena arintzeko, eta adierazi du kezkatzen duela plan horretan ezarritako neurriak nahikoak ez izateak. Nabarmendu du atzerapenaren ondorioz pertsona batzuk bide judicialera jotzen ari direla, eta horrek kostu ekonomiko handia dakarrela. Gainera, azpimarratu du 100 euroko tasa ordaindu behar dela prozedura hasteko eskaera egiteko, eta horrek ez duela bermatzen zerbitzu publikoaren garapen jasangarri eta zentzuzkoa. Herriaren Defendatzaileak Justiziako Estatu Idazkaritzari gogorarazi dio honako lege-eginbehar hauek dituela:

“Que le incumbe de asegurar el estricto cumplimiento del plazo de un año para la resolución de los procedimientos de nacionalidad que establece el artículo 11.3 del Real Decreto 1004/2015, de 6 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento que regula el procedimiento para la adquisición de la nacionalidad española por residencia”.

2.7.2. Jaso diren beste kexa batzuetan, salatu da Gasteien ez dagoela hitzordurik atzeritartasun-izapideak egiteko. Badirudi arazo hori zabaldua dagoela geografia osoan, eta, beraz, Herriaren Defendatzaileak jarduerak abiarazi ditu Migrazioen Estatu Idazkaritzarekin eta Lurralde Politikako Estatu Idazkaritzarekin batera, eta, besteak beste, gomendio hau egin dute:

“Revisar de manera urgente la aplicación informática de la cita previa de extranjería de la Sede Electrónica de Administraciones Públicas, adoptando las medidas técnicas necesarias para garantizar el derecho de los ciudadanos a solicitar y obtener en tiempo y forma una cita”.

2.7.3. Azkenik, aipagarria da Bilbon nazioarteko babes-eskaera aurkezteko hitzordua eskatzeko izaten diren ilare buruzko kexa. Herriaren Defendatzaileak Atzerritarren eta Mugen Komisaria Nagusiaren erantzunaren berri eman du. Horren arabera, Bilbon egindako eskaerak ugaritu egin dira, eta erantzuteko gaitasuna gainditu dute, baliabide materialak eta giza baliabideak areagotu badira ere. Jakinarazi duenez, hilean 90 elkarrizketa egitetik 450 elkarrizketa egitera igaro da 2019an. Txostenean aitortu du apirillean eta maiatzean herritar nazionalen eta atzerritarren “ilarak” izan zirela, eta herritar horiek, 150 eta 200 artean egunero, funtsean, gonbidapen-gutunak, nazioarteko babesa eta aberri-gabezia izapidetzen saiatzen zirela. Hori dela eta, zenbakiak banatzen hasi omen ziren, egunean bertan arreta jasoko zela bermatzeko, eta, hortaz, herritarrek ireki baino lehen joaten hasi ziren, egunean bertan arreta jasoko zutela ziurtatzeko. Ondorioz, arreta-eskaria zergatik handitu zen aztertu zuen zerbitzu horrek, neurri jakin batzuk hartu ziren, eta eraginokorrak izan dira.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Eusko Legebiltzarreko Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordeak, 2019ko urriaren 4an egindako bilkuran, 92/2019 [Legez besteko Proposamena](#) onartu zuen, Euskadin pertsona migratzaileei eta errefuxiatuei eskaintzen zaien harrera hobetzeari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak babesa ematen die giza eskubideak errespetatzen dituzten migrazio- eta asilo-politikei, eta bat dator harrera-politikak herrialde-erronkatzat harturik ikuspegi integral eta transbertsaletik egiten diren migrazio-politika publikoen alde egitearekin. Eusko Jaurilaritzari eskatu dio hirugarren sektoreko erakunde eta entitateekin koordinatuta lan egiten jarraitzeko, migratzaileei eta errefuxiatuei arreta egokia ematen zaiela bermatze aldera, eta garatzeko Herriartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana 2018-2020 eta Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020. Gainera, beharrezkotzat jo du harreraren eta integrazioaren arloan erreformak eta hobekuntzak egiteko mekanismoen ezarpenean aurrera egitea, euskal erakundeen eskumenen barruan, hori guztia maila anitzeko ikuspegi integral batetik, eta Euskadira iristen diren migratzaile eta errefuxiatuen harrera- eta integrazio-prozesuetan gizartearen eta herritarren parte-hartzea bultzatuz.

Lehendakariak Integrazioaren aldeko Euskal [Itun Soziala](#) aurkeztu zuen 2019ko azaroaren 29an. Itun horrek diskurtso partekatua eta batasun-irudia finkatu ditu migrazio-erronkei modu positiboan erantzuteko eta demagogia populistari

aurre egiteko, eta etika demokratikoaren eta aurrerapenaren dimentsioa duen harrera-eredua planteatu du, lan- eta demografia-beharrei erantzuteko. Itun horrek aitortu du euskal gizarte anitza dela, eta giza eskubideetan, berdintasunean eta diskriminaziorik ezan oinarritutako ikuspegia sustatu du, genero-berdintasunari bereziki erreparatuz, herritartasun anitz eta inklusiboa bultzatzeko.

Berrikuntzen artean, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Zuzendaritzak, ACNURren, Caritas Euskadiren eta Euskadiko Jesuiten Plataformaren parte-hartzearekin, Euskadin errefuxiatuei harrera egiteko abian jarri duen “babes komunitarioa” esperientzia pilotua aipatu da. Jordaniako birkokatze-programa batetik etorritako hainbat familia hartu ditu proiektu pilotuak. Ekimen horren helburu nagusia da errefuxiatuen inklusio zabal eta integrala lortzea, bai eta errefuxiatuak eta harrera-gizartearen prozesuaren protagonista izatea ere.

SIISen [EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko IV. Azterketaren \(2018\)](#) emaitzen artean datu hau nabarmen da: etxerik gabeko pertsonen artean, atzerritar ugari daude. Pisu erlatiboa %59ra igo da zentzoren batean ostatu hartuta zeuden pertsonen kasuan, eta %75era kalean zeudenen kasuan. Kalean zeuden atzerritarren proportzioak nabarmen egin zuen behera 2012 eta 2016 artean, baina 2018an berriz ere egin zuen gora. Aldiz, aterpetxeetan gaua igarotzen dutenei erreparatuz gero, atzerritarren pisu espezi-fikoa %60 ingurukoa da. Lurraldeka, azken urtean, Bizkaian eta Gipuzkoan gora egin du kalean dauden atzerritarren pisu erlatiboak baina Araban ez. Bestalde, Araban eta Gipuzkoan, atzerritarrek aterpetxeetan duten pisuan gorakada nabarmena izan da baina Bizkaian ez. Sexuari dagokionez, atzerritarren eta oro har biztanleriaren ehunekoak antzekoak dira, genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-zentro eta -pisuetan izan ezik, baliabide horietan arreta jasotzen duten 10 emakumetik 8 atzerritarrek dira-eta. Jatorriari dagokionez, Euskadi osoan, jatorri magrebtarreko pertsonen pisu erlatiboa %31,7tik %45,2ra igo da 2016 eta 2018 artean, kalean eta aterpetxean dauden pertsonak batuz. Aldiz, Europatik etorritakoena %12,6tik %9,1era jaitsi da aldi horretan bertan. Era berean, nabarmen jaitsi da Afrikako gainerako tokietatik etorritako pertsonen pisu espezi-fikoa: 2012. eta 2016. urtean artean, kalean eta aterpetxeetan zeuden pertsona guztien %12 inguru ziren, eta 2018an, berriz, horien %5,2 baino ez dira izan. Erregistratu da Amerikatik etorritako oso pertsona gutxi egon direla aipatutako egoeran, bai 2018an, bai aurreko urteetan. Pertsona horien egoera, beraz, oso bestelakoa da Afrikatik datozen pertsonen errealtatearekin alderatuta. Pertsona horien ehunekoak %3-4koa da. Azterlanean egiturazko arazoak nabarmendu dira, batez ere migrazio-ibilbide zailak eta laneratzeko zailtasunei eta gutxieneko baliabide ekonomikorik ez izateari lotutakoak. Horien atzetik, eta antzeko ehunekoekin, faktore pertsonalak eta harremanei lotutakoak aipatu behar dira, eta, azkenik, faktore instituzionalak —horiek agerian uzten dute hamar etxegabetasun-kasutatik bat izan daitekeela erakunde baten abandonu-egoeraren eta familia-sarerik ezaren ondorio—.

Emakumeen kopurua duela sei urtekoa baino handiagoa da, hain zuzen ere, ostatu hartzeko zerbitzuetan emakume gehiago daudelako; aitzitik, ez dira lehen baino gehiago kalean

dauden edo aterpetxe zein gaueko harrera-zentroetan gaua igarotzen duten emakumeak, horietan haien presentzia oso txikia baita oraindik ere.

Azterlanak

Interesgarria da SIGMADOSek 2019an egindako [Immigrazioari buruzko iritzi publikoaren azterketa](#). Hauek dira, besteak beste, ateratako ondorioak: Espainiako herritar gehienek uste dute Gobernuak onartu egin behar dituela beste herrialde batzuek atzera botatzen dituzten immigranteen itsasontziak, edo, bestela, Espainia NBERen Itun Globalean sartzearen alde agertzen dira, edo beharrezkotzat jotzen dute immigranteen kopurua handitzea eta integrazio-politikak garatzea. Emaizten artean, biztanleen erdiek adierazi dute kezkatu egiten dituela kultura-talkak.

Europako Unibertsitate Institutuak egindako azterlanaren arabera, ez dago loturarik GKEak itsasoan egotearen eta migratzaileak Libiako kostaldetik irtetearen artean, eta, beraz, onartezina da erakunde horiei egiten zaien akusazioa, alegia, haien presentziak erakarrira zeharkatzen dutela migratzaileek Mediterraneoan itsasoa. Azterlanean, Libiatik Italiara 2014tik 2019ko urrira arte izandako migrazio-fluxuei erreparatu zaie.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziozko jarduerak

4.1.1. Salerosketaren biktima diren edo hura pairatzeko arriskuan dauden emakumeen zailtasunak. Arartekoak Herriaren Defendatzaileari zuzendutako ofiziozko jarduna abiarazi du, eta haren helburua da sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren edo hura pairatzeko arriskuan dauden emakumeek eta haien seme-alabek jasaten dituzten hainbat arazoren berri ematea. Hona hemen arazoetako bat: zailtasunak dituzte identifikazio-agiriak lortzeko, eta horien beharra dute, aukera ematen baitiete Espainian bizitzeko eta lan egiteko baimena edo udal-errolan izena emateko baimena eskatzeko. Arazo horri erantzun egokia emateko eskumena duten erakundeak, batez ere, Herriaren Defendatzailearen eskumen-esparrukoak dira. Hori dela eta, jarduketa horri ekin zaio, eta Arartekoak egindako azterlana igorri da, Defentsa Erakunde horrek Estatuko Administrazioako organoen aurrean dagozkion jarduketak egiteko aukera balora dezan, bizkor erantzun ahal izateko sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren edo hura pairatzeko arriskuan dauden emakumeek nortasun-agiririk ez izateari. Txostenean, Estatuko Administrazioari zuzenean eragiten dioten bi neurri proposatu dira. Lehena, Barne Ministerioak azkar izapidetu ditzala inskripzio-zedulak kontsulatuak eta enbaxadek salerosketaren biktimei pasaporte ematen ez dieten kasuetan. Bigarrenik, Estatistikako Institutu Nazionalak eta

Erroldatze Kontseiluak azter dezatela udalei zuzendutako 2015eko martxoaren 16ko Ebazpena (udal-erroldaren kudeaketaren inguruko jarraibide teknikoei buruzkoa) aldatzeko edo alda dadin proposatzeko aukera, pasaporterik ez duten eta sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeak babesteko jarraibideak gehitze aldera.

4.1.2. Bada aipatu beharreko jarduketa bat, eta haren xehetasunen berri jaso da txostenaren Europako eta Nazioarteko Gaietarako Bulegoari buruzko atalean. Horren arabera, Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuko presidentek gutun bat bidali zion Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariei, Arartekoaren ekimen bat oinarri hartuta. Gutun horretan azaltzen da ombudsmanak kezkatuta daudela Sofia operazioaren amaiera eta Mediterraneoeko egoera humanitaria direla-eta, eta, beraz, premiazkoa dela irtenbide bat bilatzea.

4.1.3. Era berean, Arartekoak foru-aldundietako babeszerbitzuei zuzendutako ofiziozko jarduna abiarazi du, eta galdetu die zer jarduketa egin diren adingabe atzerritarren Espainiako nazionalitatea eskatzeko. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostenean, egindako esku-hartzearen berri eman da.

4.2. Bilerak

4.2.1. Aurten, hainbat bilera egin dira Bizkaiko Foru Aldundiarekin gazte estrategiaren inguruan eta programan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten —babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzat aurreikusitako egoitza-zentroetan (2.2. epigrafean aipatutakoak) adin nagusiko bihurtu direla-eta— gazteak onartzeko orduan izandako atzerapenaren inguruan.

Bileran, aurrekontuari eta Enplegu, Gizarteratze eta Berrintzasun Saileko langileei dagokienez egindako ahaleginaren berri eman zen; izan ere, esfortzu horri esker, gazte-estrategia abian jarri eta 2018an izandako plazen kopurua handitu zen. Hala ere, onartu zen neurri hori ez zela nahikoa izan, artatu behar izan zituzten gazteen kopuruaren ondorioz handitu egin zirelako premiak. Ararteko erakundeko langileei jakinarazitako kezken artean, honako hauek nabarmentzen dira: gazteak babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-baliabideetatik irtetea, oso garrantzitsua zela arretaren jarraitutasun-printzipioa errespetatzea, eta beste administrazio publiko batzuen eginkizunak mugatu beharra zegoela, premia ugariri erantzun behar zitzaielako (lehen mailako arreta, osasuna, enplegua, prestakuntza, etxebizitza, agiriaren egoera, eta abar).

4.2.2. Arartekoa Itsas Salbamendu Humanitarioa erakundearekin bildu zen, Aita Mari itsasontziari ukatu egin zitzaion erdialdeko Mediterraneoan salbamendu-lanak egiteko idatzagiria. Elkarteko presidentek bileran adierazi zuen kezkatuta zegoela Europar Batasuneko estatu kideek erdialdeko Mediterraneoan itsasoan jarduera humanitarioak egiteko oztupoak jartzen dizkietelako gizarte-erakundeei, arrazoi

teknikorik eman gabe. Bere ustez, benetako arrazoia da erreskatatutako pertsonak portu seguruetan lehorreratzeak zailtasunak dakartzala; izan ere, nazioarteko araudiaren arabera, horixe da itsasontzietako kapitainen betebeharra hondoratzen ari diren edo hondoratzeko arriskua duten pertsonak erreskatatzen dituztenean.

Bilera horretan bertan jakinarazi zuen ontziak gehienez 120 lagun eramateko baldintzak betetzen zituela eta itsasoan ibiltzeko gaitasuna zuela, nahiz eta ez izan hertsia-hertsian bidaiari-ontzi bat. Azaldu zuen Libiako kostazainek nazioarteko uretan esku hartzen ari zirela EBren adostasunarekin, eta EBk edo estatuak ez zutela salbamendu-operaziorik egiten. Jakinarazi zuen itsasontzietako kapitainen betebeharra zela bidaiariak portu segurura, alegia, beren bizitza arriskuan ez zegoen lekura, eramatea. Malta, Italia eta Tunisia portu seguruak dira; Libia, ordea, ez. Arartekoak kexa igorri zion Herriaren Defendatzailearen bulegoari, eta hark informazioa eskatu zion Merkataritzako Marinaren Zuzendaritza Nagusiari. Ontzi batek idatzagiria eman diezaioeten bete beharreko betekizunen berri eman zuen Zuzendaritza Nagusiak. Horrez gain, aplikatu beharreko nazioarteko zenbait hitzarmen aipatu zituen; horien arabera, estatu sinatzaileen erantzukizuna da itsas salbamendua, eta, beraz, zeinek bere antolaketa- eta operazio-azpiegitura propioa garatu behar du horretarako, igarobidean egonik hurbil dauden ontzietan balia daitezkeen arren. Zuzendaritza Nagusiaren arabera, Espainiako bandera duen ontzi-entresa pribatu bateko ontzi batek itsasoan galdutakoei behatu, bilatu eta erreskatatzeko lanak egin nahi baditu Espainiako jurisdikzioak ez diren uretan, kasuan kasuko SAR eremuen (bilaketa- eta erreskate-eremua) ardura duten agintaritzetara men egin beharko die, eta haiekin akordioak egin beharko ditu, agintaritzekin koordinatuta eta leku seguru bat izanik lehorreratze, itsas-salbamenduari buruzko nazioarteko araudia betez. Aitzitik, Herriaren Defendatzaileak nabarmendu zuen SAR eremuak aintzat hartu behar direla plan eta akordioetan, eta ahal diren ahaleginak egin behar direla bizirik atera diren ontziko bidaiariak lehorreratze akordioak bizkortzeko, ez daitezen egon idatzagiria eman dadin ezarritako elementuak betetzearen baldintzapean, edo salbatzaileek edo salbatutakoek jasan ez dituzten akordioak atzeratzearen, akordiorik ez izatearen edo botere publikoen artean koordinazio nahikorik ez egotearen ondorioak. Azkenik, Herriaren Defendatzaileak adierazi du kontu honek zerikusia duela bai bizitzeko eskubidearekin (Konstituzioaren 15. artikulua), bai Lurreko herri guztien arteko lan-kidetzarekin (Konstituzioaren hitzaurrea).

4.3. Adierazpen instituzionalak

Arraza Diskriminazioa Ezabatze Nazioarteko Egunean, 2019ko martxoaren 21ean, Arartekoak [adierazpen instituzionala](#) egin zuen, eta, horren bidez, dei egin zuen hausnarketa egitera desberdinarekiko gorroto-diskurtsoen ondorio txar eta kontrolaezinei buruz eta diskurtso hori eztabaida publikotik desagerrarazteko baldintzak sortu beharri buruz.

Horregatik, Arartekoak pertsonen arteko elkartzasuna sustatzeko neurriak, politikak, keinuak eta jokabideak bultzatzen aholkatzen du.

4.4. Bestelako jarduerak

Ararteko erakundearen 30. urteurreneko ekitaldien baitan, Caminando Fronterasen sortzaileak, Helena Malenok, migrazio-mugimenduei, migratzaileen eskubideei eta ekin-tza humanitarioei buruzko hitzaldia eman zuen martxoaren 26an.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Euskal administrazio publikoek berdintasunerako eskubidea errespetatzen duten politika publikoak garatzen dituzte, interesdunei eskubide eta zerbitzu publikoak eskuratzeko aukera emanez beren jatorria kontuan hartu gabe, edo berdintasun hori araudi berrian aurreikusiz, hala nola etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboa edo etxebizitzako prestazio ekonomikoa arautuko duen dekretuaren proiektuan. Gainera, **diskurtso publikoak giza eskubideak, bizikidetzaren eta aniztasuna errespetatzen ditu**.

Egindako inbertsio sozialak ez du, batzuetan, jarraitutasunik, plangintza integralik ez dagoelako eta eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzen direlako. Arartekoak, **2020ko urtarrilaren 7ko Ebazpenean** (horren bidez, amaitu egin zuen 2018ko udan iraganbidean zeuden migratzaileen etorrerari lotuta egindako jarduna), honako ondorio hauek planteatu zituen, besteak beste: “[h]arrera- eta gizarteratze-prozesuen ondoriozko premiak direla-eta, eskumen esparrua argitu beharra dago, eta haiek euskal agendan eta ekintza politikoan sartu, esparru konstituzionala errespetatuz, funtsezkoak baitira euskal gizartearen etorkizunerako, gizarte-kohesioari, berdintasunari, aniztasunari eta diskriminazioaren aurkako borrokari eutsi eta aurrera egiteko. Eskumenak argitzeak eta EAeri immigrazioaren, atzerriartasunaren eta bizikidetzaren arloko eskumenak transferitzeko aukera emateak erraztu beharko lukete etorkizunean harrera- eta gizarteratze-politika koordinatua, eraginkorra eta zorrotza gara daitezen EAEn”.

5.2. Immigranteek zailtasun handiak dituzte beren eskubideak bertako biztanleen baldintza berberetan baliatze-ko. Zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko, dokumentazio jakin bat aurkeztu behar da. Esate baterako, diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzeko, jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria aurkeztu behar dute, eta Etxebiden izena emateko, administrazio-egoera erregularrean daudela egiaztatzea behar dute. Zaila izaten da, baina, agiri horiek eskuratzeko. Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenez edo jatorrizko herrialdean egindako ikasketen egiaztagiria homologatzeko arazoak dituztenez, zailtasun handiagoak izaten dituzte hezkuntza- eta prestakuntza-eskaintzak aukeratu ahal izateko, batzuetan aparteko kostua dakarkietelako. Kolektibo horrek arazo handiak ditu bizitoki egokia lortzeko, eta, horrez gain, pertsona horiek enplegu egokia aurkitzeko zailtasunak edo hizkuntza-irisgarritasunari lotutako arazoak

izan ohi dituzte. Halaber, beren eskubideak baliatzea eragozten dieten beste oztopo batzuk ere badituzte, besteak beste mugak dituzte identifikatzen dituen dokumentazioa lortzeari (pasaporte eskuratu edo berritzea) edo bizitzeko eta lan egiteko administrazio-baimena lortzeari dagokienez. Horren ondorioz, batzuetan, gizarte- eta bizitegi-bazterketa larriko prozesuetan sartzen dira. Gai horren berri eman da berriki egindako zenbait azterlanetan, eta emakumei eragiten dieten askotariko arazoak bereizi dira. Bazterketari aurre egiteko premiazko neurriak hartu behar dira, hala nola etxerik gabeko pertsonentzako euskal estrategian (2018-2021) aurreikusitakoak, edo gizarteratzeko zerbitzuak eta prestazioak indartzea.

5.3. 92/2019 Legez besteko Proposamenean, Euskadin pertsona migratzaileei eta errefuxiatuei eskaintzen zaien **harrera** hobetzeari buruzkoan, erronka garrantzitsuak planteatu dira, eta gauza bera egin da Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planean eta Migratorako Euskal Itun Sozialean —horretan, gainera, lan- eta demografia-premiei aurre egite aldera etika demokratikoan eta aurrerapenean oinarritutako ikuspegia duen harrera-eredua planteatu da—. 2020an zehar ikusiko dira aurrerapenak.

Arartekoak, lehen aipatutako ebazpenean, zeinaren bitartez amaitu egin baitzuen 2018ko udan iraganbidean zeuden migratzaileak gurera iritsi izanari lotuta egin zuen jarduketan, interesgarritzat jo zuen honako hau: *“...argitu beharko litzateke zer eskumen, eginkizun eta zerbitzu dagozkien immigranteei harrera egitearen arloan inplikaturako euskal administrazio publikoari eta sailei, horien eraginortasuna hobetzeko eta okerrak saihesteko; izan ere, egitura horrek, orain arte, ez ditu osoki aintzat hartu, gizarte-egitate horren izaera transbertsala eta estrategikoa, eta ezin da aurreikusi zer-nolako dimentsioa izango duen fenomeno horrek etorkizunean. Giza eskubideak errespetatzen dituen gizarte-eredua diseinatuko badugu, EAEk gai izan beharko du fenomeno horri erantzun egokia emateko.”*

5.4. Arartekoa kezkatuta dago familia-erreferenterik gabeko **gazte migratzaileen beharrak** direla-eta; izan ere, adin nagusiko bihurtzean Bizkaian gizarte-arreta eteten dietela salatzen duten hainbat kexa jaso ditu. Gazte horiek zaugarritasun-egoeran daude, ez dute bizitoki egokirik, eta arrisku larriei eta beren etorkizunari buruzko zalantza handiei aurre egin behar izaten diete. Egoera horiei eman beharreko erantzunak zalantza handiak sortzen ditu administrazio publikoek laneko eta gizarteratzeko prestakuntza-ibilbideak lortzeari dagokionez duten erantzukizunari buruz. 18-23 urte bitartekoan hezkuntzan, prestakuntzan eta enplegarritasunean egindako inbertsio soziala erabakigarria da, eragin handia duelako gazte horien etorkizunean; bestela, bazterketa larri bideratuta egongo dira halaberrez. Edonola ere, txikiengan egindako inbertsioak jarraitutasuna izan behar du. Arartekoak txosten bat egingo du 2020an, eta, han, gazte migratzaileen egoera aztertuko da, eta hobetzeko proposamenak eta gomendioak egingo zaizkie tartean diren administrazio publikoari. 2018ko

txostenean planteatu zenez, gazte atzeritarrei 18-23 urte bitarteko aldirian, hau da, familia-banantzea eta traumaz betetako ibilbidea egin ondoren, gizarte-babes egokirik ez ematea ez dator bat euskal administrazio publikoek adostutako plan eta printzipioekin.

5.5. Arartekoak izapidetzen dituen **diru-sarrerak bermatzeko errenta eta gizarte-larrialdietarako laguntzak ukatzeari, iraungitzeari eta erreklamatzeari** buruzko kexa askok agerian uzten dute interesdunak baliabide ekonomiko nahikorik ez duela egiaztatze aldera jatorrizko herrialdeko agintaritzek egindako ondasun-ziurtagiria —itzulita eta legeztatuta— aurkeztu beharrak arazoak sortzen dituela. Hona hemen beste arazo bat: ezkontideek edo ezkontideenaren antzeko harremana duten bikoteek etxebizitza berean elkarrekin bizitzeko betebeharra dute, eta Estatuko Administrazio Orokorrek ez du arrazoi justifikatutzat hartzen familia berrelkartzeko eskaera ukatu izana. Gainera, argi dago arau-aurreikuspen horiek eta haien interpretazioak baldintza larriagoak ezartzen dizkietela diru-sarrerarik ez dutela-eta diru-sarrerak bermatzeko prestazioak eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatzen dituzten atzeritarrei.

5.6. **Diskriminazioaren aurkako borrokan**, neurri egoki eta irmoak hartu behar dira, eremu publikoan zein pribatuan, zuzenean edo zeharka pertsonen tratua desberdina ematea eragiten duten edo gorroto-diskurtsoa bultzatzen duten jokabideei aurre egiteko. Helburua da gertakari arrazistei aurrea hartzea eta kolektibo jakin batzuk estigmatizatzen dituzten sinesmen sozialak sor daitezen saihestea. Ezinbestekoa da diskurtso publikoak giza eskubideak errespetatzea, eta berdintasunerako eskubidea eta zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaren defentsa azpimarratzea. Horretarako, diskurtso estigmatizatzaile populista eta xenofoboak desagiteko datu eta txosten zorrotzak behar dira. Behar-beharrezkoak dira, besteak beste, kulturartekotasunari eta giza eskubideei buruzko prestakuntza-planak, diskriminazioari aurre egiteko neurri eraginkorrak eta zurrumurruen aurkako programak.

5.7. Mediterraneoan zeharkatzen duten pertsonen babesari eta Batasuneko estatu kideen arteko banaketari dagokienez **Europar ados jartzeko zailtasunak** izateak arazo izaten jarraitzen du aurten ere. EBren eta Turkiaren arteko 2016ko martxoaren 18ko akordioa, eremuaren militarizazioa eta Italiaren eta Libiaren arteko akordioa (horren bidez Libiako kostazainek Italiaren eta EBren laguntza logistikoa eta finantzarioa jasotzen dute Europara iritsi nahi duten pertsonak atzeman eta Libiara itzultzeko) eta Marokorekin egindako akordioa **personak Europara irits daitezen eragozten ari dira, haien eskubideak babestu gabe.**

Horrez gain, erreskate-lanak egiten dituzten erakunde humanitarioen itsasontzi jakin batzuei oztopoak jartzen ari zaizkie, hala nola Aita Mariri, nahiz eta OIMek urtez urte adierazi Mediterraneoko ibilbidea munduko arriskutsuena dela, han izaten baitira heriotzen % 50 baino gehiago.

EBk dituen erronka handien artean, honako hauek aipatu dira: asilorako Europako sistema erkidea aldatu beharra; aireko eta itsasoko erreskate-operazioei buruzko sistema adostu, koordinatu eta egonkorra diseinatu beharra; erreskatatutako pertsonak Batasuneko estatuen artean banatu beharra, elkartasun-printzipioaren arabera eta erantzukizuna modu ekitatiboan banatuz; eta giza eskubideen defentsa oinarri izan behar duten beste neurri batzuk. Izan ere, Europar Batasunaren berezko printzipioek eta balioek giza eskubideen defentsa hartzen dute barne, Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularerako Munduko Itunaren helburuekin bat etorriz —itun horrek bizitzak salbatu eta nazioarteko ekimen koordinatuak abian jarri beharra sustatzen du—.

5.8. Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak eta erakundeak zalantzan jartzea eta kriminalizatzea etengabeko kezka da giza eskubideen defendatzaile ororentzat. Europako Parlamentuak, 2018ko uztailean, laguntza humanitarioaren kriminalizazioa saihesteko jarraibideak emateko eskatu zion Batzordeari. Arartekoak jarrera irmo eta aktiboa izan du gai horren inguruan, akusatutako pertsonak defendatuz. Halaber, erakunde honek bere kezka helarazi dio, hainbat aldiz, Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuaren Batzarrari, eta azpimarratu du Arartekoa bultzatzen duen arrazoi bakarra dela gatazketan erantzukizunik izan ez arren horietan nahasita egon diren edo indarkeriatik, gosetik edo miseriarik krudelenetik ihes egin duten gizon, emakume eta haurren sufrimenduarekiko elkartasuna; hori dela eta, erakunde honek eskatu du Europar Batasunean arau-esparru bat ezar dadila, laguntza humanitarioko jarduerak itzuliturik gabe babestu eta modu kristalinoan bereiziko dituen irabazi-asmoa eta gizakien esplotazioa helburu duten jardueretatik.





III. atala

7

Lesbianak, gayak,
bisexualak, transexualak eta intersexualak
(LGBTI pertsonak)

Aurrekariak



Arartekoak arlo honetan egiten duen lanak [Konstituzioaren 14. artikuluan](#) du oinarria; izan ere, pertsona guztiak berdinak direlako printzipioa ezartzen du, eta bereizkeria debekatzen. Era berean, eta eremu horretan egiten duen lanaren bidez, [Yogyakartako printzipioetan](#) ezarritakoa bete eta errespetatu behar dela babesten du Arartekoak; bai eta lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen eta intersexualen eskubideen alde lan egiten duten Europako eta nazioarteko erakundeen erabakiak, jarraibideak eta aholkuak errespetatu behar direla ere. Giza eskubideei buruzko nazioarteko lege-dia ezartzearen ingurukoak dira aipatu Yogyakartako printzipioak, sexu-joerari eta genero-identitateari dagokienez. Sexu-joera edo genero-identitatea ezin da diskriminatzen arrazoi bihurtu, eta euskal botere publikoei dagokie pertsona guztien berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin eragozten duten oztopoak kentzeko betebeharra.

Giza duintasunaren defentsan eta pertsona guztiek sexu-joera eta genero-identitate librea izateko giza eskubidearen defentsan dago oinarrituta eremu honetan egiten den lana. Horrekin, LGBTI pertsonen eskubide guztiak berdintasunez eta guztiz erabiltzen dituztela ziurtatu nahi du Arartekoak. Ildo horretan, euskal herri-administrazioek beharrezko neurri eta jarduerak garatzea bultzatu nahi da, pertsona horiek baztertzeko edozein kausa kentzearen eta haien eskubideak berdintasun osoz gauzatzea lortzearen. Gai horrekin

zerikusia duten kexak izapidetzeaz gain, hainbat jarduera nabarmentzen dira, euskal administrazioetan, talde horren eskubideak erabat integratzearekin loturiko funtzionamendua hobetu eta hobekuntzak bultzatu eta sustatzeko. Hiru xede hauei begira daude jarduera horiek:

- Euskal herri-administrazioek euren jardura guztietan berdintasuna erabat errespetatu dezaten eta sexu-orientazio eta genero-identitatearen ondoriozko bereizkeriarik egin ez dezaten lortzea, eskubide horien gauzatzea benetakoa eta eraginkorra izateko beharrezkoak diren neurriak abian jarri.
- Euskal gizarte osoan, bazterkeriarik ezan eta aniztasun afektibo-sexualari eta genero-aniztasunari lotutako eskubideen errespetuan oinarritutako kultura zabaltzea.
- Homofobia edo transfobiaren aurka borrokatzea (edozein formatan agertzen bada ere), Euskadin LGBTI pertsonen egoeraren gaineko ezagutza eta sentsibilizazioa zabalduz.

1. Kexarik aipagarrienak

2019. urtean Arartekoak jaso du kontsultaren bat LGBTI pertsonen eskubideen inguruan, baina kexarik ez. Halaxe da, zalantzarik gabe, administrazioaren jardunaren eremuan ez direlako erraz antzematen sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen ziozko diskriminazio edo bazterkeria egoera irekiak. Egoera horiek maizago agertzen dira, ordea, partikularren arteko harremanen esparruan. Egia esan, partikularren arteko harremanak erakunde honen kontrolari itzurtzen zaizkio, baina hori ez da eragozpena botere publikoei arreta eta zaintza berezia eskatu ahal izateko eta galdatu ahal izateko, pertsonen sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen ziozko banako diskriminaziozko edo bazterkeriazko gizarte jokabideei edo diskurtsoei aurrea hartzeko. Botere publikoek, ildo horretan, jokabide aktiboa izan behar dute LGBTI pertsonen eskubideen errespetua sustatzeko, eta horretarako, gorroto edo diskriminazio diskurtsoak antzemateko neurriak abiarazi behar dituzte, baita aniztasunean elkarrekin bizitzearen aldeko sentsibilizatorako ekintzak —pertsona guztiek eskubide berdinak dituztela oinarri izanik— edo, hala denean, beharrezkoak diren jarduketa positiboak sustatuz ere.

2. Araudi- eta gizarte-testuingurua

2.1. EAEko eta estatuko esparrua

Milurteko honen hasieratik, LGBTI pertsonen eskubide zibilak legez parekatu dira gure inguruko herrialdeetan, bai sexu bereko pertsonak ezkontzeko aukerari dagokionez, bai transexualen genero-identitatea sentitzen duten sexura legez egokitzeko ahalmenari dagokionez. Hala, gure lurralde-eremu zehatzean, izatezko bikoteak arautzeko [maiatzaren 7ko 2/2003 Legea](#) onartu zen lehendabizi; ondoren, [Kode Zibilarren](#) erreforma, [uztailaren 1eko 13/2005 Legearen](#) bidez egina, zeinak Kode Zibila aldatzen baitu ezkontzeko eskubideari dagokionez; eta azkenik, [martxoaren 15eko 3/2007 Legea](#), pertsonen sexuari buruzko erregistroko aipamena zuzentzea arautzen duena.

Hori dela eta, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko [ekainaren 28ko 14/2012 Legea](#) onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak. Lege horren helburua da transexualeri arreta integrala ematea eta transexualen izaera edo egoera pertsonal edo sozialagatik legedian dauden diskriminazio guztiak gainditzeko bidean aurrera egitea. Azkenik, 2015eko abenduan, [abendua 22ko 234/2015 Dekretua](#) onartu zuen [Eusko Jaurlaritzak](#), transexualen administrazio-dokumentazioari buruzkoa hori. Horren bidez, aipatu 14/2012 Legearen 7. artikulua garatuz, transexualek —nazionalak zein atzeritarrek—, Erregistro Zibilean edo beren jatorrizko herrialdean sexua zuzendu artean, Euskadin erabili ahal izango duten administrazio-dokumentazioa erregulatu da, horrela, modu askean zehaztutako genero-identitatearen arabera tratua jaso dezaten. Arau multzo horren bidez, esparru juridiko egonkorra eratu da EAEn, LGBTI pertsonen eskubideen lege-aintzatespenerako eredu finkatzen duena. Alabaina, errealitateak erakusten digu oraindik eremu askotan urratu egiten direla LGBTI pertsonen eskubideak.

Egia esan, 2019an ez zen emaitzarik izan LGBTI taldeek estatuko zeharkako legea sortzeko eskaeran, hain zuzen ere gorroto diskurtsoari eta sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen zioz beren eskubideak urratuta ikusten dituzten pertsonen askotariko egoerei aurre egiteko. Hortaz, estatu mailan egiteko dagoen zerbait da, zeren eta lege hori hainbat eskumenetan oinarrituta hedatuko bailitzateke, baina eskumen horien gaineko legeak egiteko ahalmen autonomikoa gainditzen da eginkizunotan.

2.2. LGBTI eskubideak Europan

Nazioarteko eta Europako testuinguruak, LGBTI pertsonen eskubideei dagokienez, oso irudi desberdinak utzi ditu 2019an. Nabarmenezkoak dira, alde batetik, genero-identitateari eta ezaugarri sexualei buruzko gaiak, eta, bestetik, erdietsitako eta lortzeke dauden eskubideen aurkako mehatxuen ikusgarritasuna.

Genero identitatearen arloan, Osasunaren Mundu Erakundearen Batzar Nagusiak [Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren hamaikagarren edizioa](#) onartu izana izan da konturik aipagarriena. Edizio berri horretan, “transexualismo” eta “genero-identitatearen nahasmendua haurrangan” diagnostiko-kategoriak ezabatu eta, horien ordez, “genero-inkongruentzia nerabezaroan eta helduaroan” eta “genero-inkongruentzia haurtzaroan” jaso dira⁵. Gainera, kondizio horiek jada ez dira ageri katalogoan jasotako “buruko eta jokabideko nahasmenduen” artean, “sexu-osasunari lotutako kondizioak” izeneko kapitulu berrian baizik. Hala, OMEK ebidentzia hau adierazi nahi izan du: “trans identitateak eta askotariko genero-identitateak ez direla gaixotasun mentalaren kondizioak, eta gaixotasun mental gisa sailkatzeak estigma larriak eragin ditzakeela”. Hala ere, sailkapen berri hori kritikatu dute, esate baterako, [Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioak](#) —haren ustez, ez da erabateko despatologizaziorik izan— eta [Europako Parlamentuak](#) —haren iritziz, “genero-inkongruentzia haurtzaroan” kategoriak bizitzako etapa horretan izandako araz kanpoko jokabideak patologizatzen ditu—. OMEK azaldu du “sailkapenean genero-inkongruentzia sartzaren helburua dela bermatzea pertsona transgeneroek generoa berresteko osasun-zerbitzuak baliatu⁶ ahal izango dituztela eta zerbitzu horiek osasun-aseguramendu egokia izango dutela. Halaber, kondizio hori sailkapenean sartzak agerian uzten ditu genero-identitatearen, jokabide sexualaren, sexu-indarkeriaren eta sexu-transmisiozko gaixotasunen arteko loturak”. OMEK bere komunikazio publikoan adierazi du, halaber, pertsona transgeneroek osasun-premia bereziak dituztela, neurritz kanpo eragiten dietela osasun-baldintza txarrekin, batez ere osasun mentalaren, eta sexu- eta ugalketa-osasunaren arlokoekin, eta arazo horiek transfobia-rekin, diskriminazioarekin eta indarkeriarekin lotuta daudela, osasun-arreta eskuratzeko oztopo baitira.

Horrez gain, genero-identitatearen arloan, nabarmenezkoa da [Giza Eskubideen Europako Auzitegiak “X Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Zaharraren aurka” auzian](#) emandako epaia, zeinaren bidez berretsi baitzen prozedura argi, eraginkor eta eskuragarriak behar zirela generoari buruzko erregistroko aipamena zuzentzeko, pertsona transexualen eta transgeneroen bizitza pribaturako eskubidea babesteko (Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua). Hala ere, epaiak aurrez juzgatu gabe utzi zuen kontu hau: artikulua horrekin bat ote datorren erregistroko aipamena aldatu ahal izateko generoa berresleitzeko kirurgia egiteko betekizuna. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ez du puntu hori ebazti, uste baitu errekurtsogilearen kasuan aipamen hori aldatzea ukatu zuten prozedura nazionaletan ez zela behin betiko erabakirik hartu gai horren inguruan.

Intersexualen eskubideak ikusgarriago eta garrantzitsuago bihurtu ziren 2019an. Otsailaren 14an, [horri buruzko ebazpena eman du Europako Parlamentuak](#), eta, haren bidez,

⁵ OMEK honela definitzen du genero-inkongruentzia: gizabanako batek sentitzen duen generoaren eta esleitu dioten sexuaren arteko inkongruentzia iraunkor eta markatua. Dioenez, genero-jokaera aldatzeko eta lehentasunak ez dira nahikoa genero-inkongruentzia diagnostikatzen.

⁶ OMEren arabera horiek barne hartzen dituzte gizabanakoaren genero-identitatea indartzeko eta berresteko esku-hartze sozialak, psikologikoak, jokabidezkoak edo medikoak, hala nola tratamendu hormonalak edo kirurgia.

estatu kideei eta Batzordeari eskatu die intersexualitatearen medikalizazioari eta patologizazioari buruzko legeria proposa dezatela, sexu-normalizazioko kirurgia debekatze-ko, Maltan eta Portugalen egin den bezala, eta ziurtatzeko adingabeei ez zaiela beharrezkoa ez den kirurgia medikorik egingo. Halaber, exijitu da autodeterminazio pertsonalaren araberrako generoa legez aitortzeko aukera emango duten nortasun-agiriei buruzko legeria indarrean jartzeko, eta generoari buruzko aipamena eta izena aldatzeko prozedura malguak ezartzeko. Era berean, beharrezkotzat jotzen da sexu-ezaugarriak diskriminazio-arrazoitzat aitortzea juridikoki.

LGBTI pertsonen eskubideen inguruko balorazio orokorragoari helduz, ezin da esan gabe utzi oso arlo dinamikoak dela, eta, aurrerapenak eta atzerapausoak egiten direla aldi berean. Horri lotuta, aurten ezagututako bi adierazle nabarmendu behar ditugu. Lehenengoan, hau da, [Diskriminazioari buruzko 2019ko eurobarometroaren](#) arabera, LGBTI pertsonen eskubideen onarpenari dagokionez Europar Batasunean eskuratutako balioak (28 estatu kideen batez bestekoa) pozgarriztat jo daitezke; hala ere, hobetu egin litezke. Azpimarratu behar da, batez besteko horrekin alderatuta, Espainiako iritzi publikoa askoz positiboagoa dela kasu guztietan. Europar Batasuneko herritarren % 76k uste du lesbiana, gay eta bisexualek heterosexualeen eskubide berberak izan beharko lituzketela. Espainian, berriz, % 91k pentsatzen du hori, eta, beraz, hirugarren postuan dago estatu kideen onarpen-mailari buruzko sailkapenean. Europan, % 72k uste du ez dagoela ezer txarrik sexu bereko pertsonen arteko harreman sexualean, eta Espainian, aldiz, % 89k pentsatzen du hori. Espainiako iritzi publikoa da, Europar Batasun osoan, transgenero edo transexualen identifikazio-agiriekin beren sexu-identitatea adieraz dezaten horiek aldatzeko aukera izatearen aldekoen agertzen dena: inkestak % 91 horren alde dago, eta Europar Batasun osoan, berriz, % 59. Identifikazio-agiri publikoetan hirugarren genero bat txertatzea babesteari dagokionez, Espainiako iritzi publikoa bigarrena da, Batasun osoan, horren aldekoen agertzen diren artean; % 63 daude horren alde, eta Europar Batasun osoan, berriz, % 46. Azkenik, Espainiako iritzi publikoa Europako batez bestekoa baino hein askoz ere handiagoan agertzen da eskola-materialean eta klaseetan sexu-orientazioari, transexualitateari eta intersexualitateari lotutako aniztasunari buruzko informazioa jasotzearen alde.

Datu horiek, hala ere, ez dute ezkututzen Europar Batasunaren errealitatea askotarikoa dela; izan ere, herrialde askotan oraindik ere gizartearen gutxiengo batek babesten ditu LGBTI pertsonen eskubideak. Arestian aipatutako adierazleetako bigarrena [ILGA Europak urtero egindako azterlana](#) da; horren arabera, atzerakada orokorra izan da Europako estatuek LGBTI pertsonen eskubideak betetzeari dagokionez lortu duten puntuazioan. Kontuan izan behar da, 2019an, ILGA Europak (Lesbiana, Gay, Bisexual, Transexual eta Intersexualen Nazioarteko Elkarte) balorazio-irizpide berriak gehitu zituela, batez ere pertsona intersexualen egoerari buruzkoak, eta, gainera, puntuazioan baloratutako alderdien pisua aldatu zuela; horrek azaltzen du, neurri batean, eskuratutako puntuazioa aldatu izana. Espainia ez zen libratu beheranzko joeratik, baina beste estatu batzuek

puntu galera nabarmenagoa izan zuten. LGBTI pertsonen eskubideei dagokionez zenbait estatu kideetan dauden egoera kezagarrietako batzuen berri eman du Europako Parlamentuak. [2019ko abenduaren 18ko ebazpenean](#) ohar-tarazi du Poloniako zenbait udalerrri eta eskualde “LGBTI ideologiarik gabeko eremu” izendatu direla, eta Europako Batzordeari eskatu dio azter dezala arau-hauste prozedurak abiarazteko aukera. Halaber, LGBTI pertsonen aurkako gorroto-diskurtsoaren gorakada eta Europar Batasunean pertsona eta erakunde batzuek jasandako erasoak azpimarratu dira ebazpenean. Ebazpenaren arabera, eraso horietako batzuk estatuko instantzietatik edo instantzia politikoetatik datoz.

Egoera hori gorabehera, urte honetan Europar Batasunean egindako aurrerapenak unean unekotzat baino ezin dira jo. [Justizia Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 15eko epai](#) baten bidez, Austriako polizia baten pentsioa berrikusteko eskatu zen; izan ere, nahitaez erretiroa hartzera behartu zuten 70eko hamarkadan, eta, horrez gain, % 25ean murriztu zioten pentsioa, zigor gisa, abusu homosexual lizunak egiteko saiakera egin omen zuela-eta ezarri zioten kondenaren ondorioz. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, Austriako auzitegiekin bat etorritik, jo zuen ekintzen izaera homosexualen oinarritu zela kondena hori. [2000/78 Zuzentaraua, Enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoa](#), aplikatu baino askoz lehenago ezarri ziren kondena eta zehapena, baina pentsioaren murrizketak ondorioak izaten jarraitu zuen zuzentarau hori indarrean egon bitartean. Pentsioaren murrizketa kondenaren diziplina-ondorioa izanenez, zuzentarauaren aurkakotzat jo zen, bereizkeriazko irizpideetan oinarrituta zegoelako. Horregatik, adierazi zen pentsioa murriztu izana berrikusi beharra zegoela. Aipatu behar da, halaber, [Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Zuzentarau](#) berria onartu zela 2018an, eta zuzentarau horren transposizioa egiteko epea 2020ko irailean amaitzen dela. Gorroto-diskurtsoari aurre egiteko ahalegin handiagoa egitea du helburu zuzentarauaren bertsio berriak. Gorrotoa eta indarkeria bultzatzea debekatzen du, eta babesteko arazoak zabaltzen ditu, sexua, desgaitasuna, adina eta sexu-orientazioa barne hartuz, Oinarritzko Eskubideen Gutunarekin bat etortzeko. Azkenik, [Oinarritzko Eskubideen Agentziak LGBTI arloko bigarren inkesta abiarazi zuen](#) 2019ko maiatzean. Bertan, LGBTI pertsonen aurkako diskriminazio-bizipenak eta gorroto-krimenak jasoko dira, bai eta pertsona horien iritziak eta erronkak ere. Inkesta horretan lehen aldiz sartuko dira intersexualak, 2012ko lehen inkestan ez baitzuten parte hartu.

Lorpenak baino gabeziak nabarmentzen dira Europar Batasunean. 11 urteko negoziazioen ondoren, ez da lortu [tratu berdinari buruzko zuzentaraua](#) onartzea, eta, beraz, Europar Batasunaren zuzenbideak erlijio, sinesmen, desgaitasun, adin edo sexu-orientazioagatiko diskriminazioaren aurkako babesa enpleguaren esparruan baino ez du ematen (2000/78 Zuzentaraua), eta ez ditu zeharka babesten bizitzako gainerako esparruak. Europako Batzorde berriak berdintasun-arloko berariazko zorroa du, eta [presidentek hari agindu dio](#) aurrera egin dezala diskriminazioaren aurkako borrokaren inguruko Europar Batasunaren zuzenbidean; hortaz, espero daiteke aipatutako zuzentaraua onartzeko negoziazioei beste bultzada bat ematea.

3. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Arartekoaren ustez, LGTBI eskubideak babesten dituen esparru juridikoa izateak dakartzan abantaila ukaezinak alde batera utzi gabe, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo ezaugarri sexualak direla-eta gizarte-diskriminazioko egoerak prebenitzen dituzten jarduketa publikoko arlo jakin batzuk indartu edo finkatu beharra dago oraindik ere. Horri dagokionez, botere publikoek proaktiboak izan behar dute aniztasun afektibo-sexualaren errespetuaren eta integrazio osoaren kultura sortzeko. Erakunde honen iritziz, hauek dira agenda publikoen lehen planoan egon behar duten eta baztertu ezin diren alderdi garrantzitsuenak:

3.1. Aniztasun afektibo-sexualari eta genero-identitateari arreta ematea hezkuntza-arloan

Haurren eta nerabeen aniztasun afektibo-sexualari lotutako babes eraginkorren premietan aurrera egiteko, Arartekoaren ustez, oso komenigarria da horiek eskolan integraztearen aldeko lan aktiboa egiten jarraitzea. Ezinbestekoa da euskal ikastetxeak eta hezkuntza-erakundeak elkarlanean aritzea, eskolak benetan inklusiboak direla eta haur guztientzat, haien sexu-orientazioa, genero-identitatea edo ezaugarri sexualak edozein izanik ere, toki seguru eta atseginak direla ziurtatzeko tresnak sortze eta mekanismorik eraginkorrenetan sakontze aldera. Helburu horretara bideratutako gero eta gida eta protokolo gehiago daude, horietako asko gure erakundeek argitaratuak. Hala ere, horiek benetan eraginkorrak izan daitezten, ezinbestekoa da dinamika bate-ratuak sortzea, estandar horiek eskolan eta haur eta gazteen hezkuntzan protagonismoa duten eragile guztiek elkarrekin adostuta praktikan jartzeko. Horri dagokionez, “Eskola segurua” bezalako ekimenak (Eusko Jaurlaritzak duela zenbait urte babestua) tresna bereziki erabilgarriak izan daitezke borondate-adierazpenak errealitate bihurtzeko.

3.2. Intersexualen eskubideak jaiotzetik babesteko esparrua ziurtatzeko neurriak

Europako Parlamentuak intersexualei buruz eman berri duen ebazpenaren arabera, ziurtatu behar da adingabeei ez zaiela beharrezkoa ez den kirurgia medikorik egingo. Era berean, nortasun-agiriei buruzko legeriak aukera eman behar du autodeterminazio pertsonalaren arabeko generoa legez aitortzeko, bai eta generoari buruzko aipamena eta izena aldatzeko prozedura malguak ezartzeko ere. Halaber, sexu-ezaugarriak juridikoki diskriminazio-arrazoitzat aitortzearen aldekoa da ebazpen hori. Ekimen horietako batzuk EAEn eskumen-eremutik kanpo badaude ere, ez da alferrikakoa

Euskadin neurri praktikoak hartzea —hala nola osasun-arloan eta familiei emandako orientazioaren arloan—, bermatzeko pertsona horien premiak eta eskubideak ezagutzen direla eta, ahal den neurrian, Europako Parlamentuak finkatutako estandarrak errespetatzen direla.

3.3. Diskriminaziorik eza lan-esparrutik harago sustatzeko neurriak: gizarte-, kultura- eta kirol-esparruak aniztasun afektibo-sexuala erabat txertatzeko espazio gisa

LGTBI pertsonak diskriminazio-egoeretatik edo haien eskubideen urraketatik lan-esparrutik harago babesteko zeharkako legerik ez dagoenez (oraindik ez dago halakorik ez estatuan, ez Europan), gero eta beharrezkoagoa dirudi gizartea sentsibilizatzeko eta diskriminazio horri aurre egiteko neurriak abian jartzea hainbat eremutan, bereziki kultura- edo kirol-arloan. Horretarako, interesgarria litzateke euskal administrazio publikoek honako hauek sustatzea:

- EAEko LGTBI pertsonen oinarrizko eskubideen benetako egoerari buruzko datu fidagarriak, sendoak eta finkoak biltzea, diskriminazioaren kontrako programa egokiak eta berariazkoak egiteko eta neurriak hartzeko oinarriak izan daitezten. Horretarako, besteak autonomia, foru eta toki mailako botere publikoek ikerketa sustatu behar dute;
- LGTBI pertsonen eta euren senideei dagoeneko aintzatetsitako eskubideen eraginkortasuna jarraitzeko eta monitorizatzeko balio duten baliabideak ezartzea, EAEn kasuan, *transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legean* aintzatetsitako eskubideei dagokienez;
- herritarrengan eragina duten neurriak, hala nola aniztasunaren sustapena eta diskriminaziorik ezerako prestakuntza eta sentsibilizazio neurriak, betiere alde aurretik lorturiko datu horiek ikusita garrantzitsuenak diren alderdiak azpimarratuta;
- LGTBI pertsonen eskubideen berdintasuna sustatzeko eta aurrera egiteko funtsezko eragile arduradunei laguntzea;
- LGTBI pertsonen eskubide zibilei dagozkien eta mugaz gaindiko eragina duten gaiak aztertzea.

Botere publikoek, Europar Batasuneko estatuetako gainerako administrazioek bezala, erronka bati egin behar diote aurre, hots, Europako lehentasun horiei erantzuna ematea euren lurralde mailan. Horretarako, nahikoa marko juridikoa dute, eta zalantzarik gabe, hori guztia testuinguru ona da talde horretako pertsonen eskubideen alde lanean aurrera egiteko.



III. atala

8

Adinekoak eta menpekotasun
egoeran dauden pertsonak

Aurrekariak



Kapitulu honetan Arartekoak bi norabideetan egindako jardunak aurkeztuko dira, batzuetan aldi berekoak direnak. Batetik, gizarte zerbitzuek eta zerbitzu soziosanitarioek mende-kotasun egoeran edo arriskuan dauden pertsonen emandako arreta, adinari erreparatu gabe. Horrela, gai honen inguruan jasotako keza guztiak zenbatu dira eremu honetan, baina ezgaitasuna duten pertsonen dagozkienak (65 urtetik behar-rakoak), zehatzago aztertuko dira III.3. atalean, ezgaitasuna duten pertsonen dagokiena, eta mende-kotasuna duten haurrei dagokien ikerketa kualitatiboa Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostenean egingo da.

Bigarrenik, eremuaren interesekoak dira adineko pertsonengan bereziki eragina duten gai guztiak, horien artean mende-kotasuna. Giza-eskubideetan oinarritutako ikuspegi berriek (eskubideen titulartasunaren printzipioa), adineko pertsonen ahaluntasuna azpimarratu nahi dute, eskubidea duten subjektutzat joz, eta ez bakarrik gizarte asistentzia jasotzen duten pertsonak bezala bakarrik. Ikuspegi honek Herritartasun berri bat dakar, beharrezko bermeez gozatzen duena, rol eta aukera berriak hartzen dituena eta euren autonomia sustatu eta indartzen duena.

1. Arloa kopurutan

Arartekoaren jarduerak, adineko pertsonen arloan, aurreko aurkezpenaren ildo beretik, herritarren kexen ikerketa hutsa gainditzeko, sentsibilizatzeko edo, era zabalean, adin-talde horretan sartzen diren pertsonen eragiten dieten politika publikoak hobetzen laguntzeko esku-hartzeak sartzeko. Azken horiei buruz informazio xehea emango da atal honetako 4. idatz-zatian, eta orain herritarrek keza edo kontsulta gisa agertutako kontuei helduko diegu. 2019an **34** izan dira, haiek **guztiak mendetasunari arreta emateko gizarte zerbitzuei (edo soziosanitarioei) lotuta.**

Aurten ere ez da ofiziozko jarduketarik egin alor horretan, eta erreklamazioetako bakarraren titularra zen erakunde bat. Dena den, aurkeztutako kexetatik bitan titularrak pertsona talde baten ordezkari moduan egin zuen, hain zuzen, kasu batean, egoitza bateko erabiltzaileen familien izenean, eta, bestean, mende-kotasun-egoeran zeuden lekaima talde baten izenean.

Izapidetutako espedienteen heren batean baino gehiagotan, kexaren xede zen administrazioa zen Bizkaiko Foru Aldundiaren [Gizarte Ekintza Saila](#), eta ia beste heren bat dago-kio Arabako Foru Aldundiaren [Gizarte Politiketako Sailari](#). Gainerako herena honela dago banatuta: % 12 Gipuzkoako Foru Aldundiaren [Gizarte Politiketako Departamentuari](#), % 6 Eusko Jaurlaritzari eta kasu bana Arrasateko, Barakaldoko, Bastidako, Bilboko eta Mallabiko udaletan.

Ixte-balorazioari dagokionez, 2019an hasitako eta dagoeneko amaitutako jarduketak ez dira gomendatu, ez eta iradoki ere. Horrenbestez, ukitako administrazioak “jarduera okerrik ez” balorazioa eman du, eta kexagileari, ordea, “aholkuak eta informazioa” balorazioa eman dio. Puntu horretan aipatu beharra dago, dena den, 2019an ebazpen bat argitaratu dela, aurrerago zehaztuko dena, 2018an hasitako espediente baten ingurukoa.

2. Kexarik aipagarrienak

Oraindik ere kexak jasotzen dira, **mendekotasunaren balorazioarekin** desadostasuna azaltzen dutenak. Horri dagokionez, Arartekoak adierazten die kexagileei ez duela horri buruz beste balorazio bat egiteko eskumenik, administrazioaren diskrezionalitate teknikoko kasu bat baita; hala, erakunde honek ez du beharrezkoa den ahalmen edo judizio-elementurik diagnostikoari lotutako alderdien gaineko beste iritzi bat eman ahal izateko. Nolanahi ere, kexagileei gomendatzen zaie Mendekotasuna Baloratzeko Baremoa aplikatzearen txosten tekniko eskatu dezaten (esleitutako mendekotasun-maila jasotzen duen ebazpen administratiboarekin batera eman ez bada), administrazioari berariaz adierazi ahal izateko zein lanen edo maiztasunen balorazioarekin ez dauden ados. Izan ere, zaila da balorazio orokorraren berrikuspen batek balorazio ezberdina ematea item bakoitzari emandako puntuazioa aldatzen ez bada.

Egoitza-zerbitzuei dagokienez, pertsona gehien ukitu dituen kexaren xede den gaia da Gipuzkoako egoitza-baliabideetan langileek egindako greba-aldian erabiltzaileek jasotako arreta. Zentzu horretan, esan beharra dago foru-departamentuak zabal eta xehetasunez eman duela grebak ukitutako zentroetan bizi diren pertsonen arreta egokia bermatzeko egindako kontrolaren inguruan eskatutako informazioa. Horrela, beraz, erakunde honek ezagutu ditu zentro horietan guztietan jarraipena egiteko abian jarritako neurriak (greba-egoerako oinarritzako arreta-mailak definitzea; adierazle desegokiak hautematea; aurrez aurreko ikuskaritzak —89, 2019an—; familien kexen ikerketak —34, 2019an—; gutxieneko zerbitzuak areagotzeko eskaera). Horrez gain, badaki erabaki dela grebak arretan eta zainketetan eragina izan duen zentroetako erabiltzaileen ekarpenen zati bat itzultzeko erabakia hartu dela.

Beste kasu kopuru garrantzitsu batean, kexagileei informazioa eman zaie beren kontsulten xede ziren gaien inguruan: familiek eta egoiliarrek parte hartzeko mekanismoak, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren mugak, egoitzen funtzionamendua fiskalizatzeko aurreikusitako neurriak eta abar.

Kexen xede izan den beste zerbitzua da **etxez etxeko laguntza zerbitzua**, udalek emandakoa. Batzuetan, kexaren arrazoia da zerbitzua aktibatzea luzatu egin dela, eta, aztertutako kasu batzuetan, hori egotzi behar zaio zerbitzua esleitze prozedura administratiboaren atzerapen bati, baina laguntza abian jarri arte prestazio ekonomiko bat jarri zaio eskuragarri kexagileari.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua ere izan da **Arartekoaren 2019ko uztailaren 22ko Ebazpena** ekarri duena, **Barakaldoko Udalar** gomendatzen diona berrikus dezan emakume baten mendekotasun-maila aldatzeak etxez etxeko laguntza zerbitzuagatik ordaindutako kuotan duen eragina. Kasu horretan, kexagileak adierazi zuen amari zerbitzua ematen hasi zitzaizkionetik (2016ko urtarrila) kexa aurkeztu zen unera arte (2018ko martxoa) Udalak ez zuela ordaintzen zuen prezioa birkalkulatu, nahiz eta hala eskatu zuten, amaren mendekotasun-egoera larritu egin zen eta II. mailatik

III. mailara igaro zen, eta haren gaitasun ekonomikoa nahiko murriztu zen.

Arartekoaren eskaerari erantzuteko Udalak bidalitako txostenean ziurtatzen denez, nahiz eta, erabiltzaileak egindako ekarpenaren ehunekoari dagokionez salbu, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen ordenantzaren hura eguneratzeko data zehatz bat ezartzen ez den, udalak pentsioei eta zerbitzuaren kostuari buruzko informazioa eguneratzen du urtero eta erabiltzaileen kuota kalkulatzeko du berriz; hala, ia kasu guztietan, kuota hori oso gutxi aldatzen da. Txostenean ere adierazten denez, ondareari eta bizikidetzaren unitateari buruzko datuak eguneratzeko, erabiltzaileek jakinarazi behar diete etxez etxeko laguntza zerbitzuaren gizarte-langile arduradunei edo oinarritzako Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileei zein den beren egoera sozio-ekonomikoa edo egoera sozio-familiarra, horrek guztiak zerbitzuari, haren antolaketari edo prezio publikoaren kalkuluari eragin baitieziaie.

Laburbilduz, udaleko txostenean adierazitakotik ondorioztatu daiteke Barakaldoko Udalar zerbitzuko kuotak berriz kalkulatu dituela eskura ditzakeen datu orokorren arabera (zerbitzuaren kostuan izan daitekeen aldaketa, Gizarte Segurantzaren errentak eta ekarpenaren ehunekoak); hala, erabiltzaileen betebeharra izango da, xede berarekin, ondareari eta bizikidetzaren unitateari buruzkoak eguneratzea.

Nolanahi ere, erreferentzia bat sumatu zen, hain zuzen, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen udal ordenantzaren aipatutako kuota zehazteko laugarren elementuari egindakoa: kenkariak, III. mendekotasun-mailaren balorazioa jaso dutenentzat hilean 120 eurokoak izan daitezkeenak. Aurreikuspen hori irakurritakoan, honako hau ondorioztatu daiteke: ondareari eta bizikidetzaren unitateari buruzko datuekin batera, kenkari hori aplikatzeko beharrezkoa dela erabiltzaileek udalari mendekotasun-mailaren aldaketaren berri ematea.

Interesdunak erakunde honi emandako dokumentuen artean zeuden Udalar 2016ko irailaren eta abenduaren artean bidalitako mezu elektronikoak, jakinarazten zutenak amaren mendekotasun-maila aldatu zela, baita Udalaren beste mezu batzuk ere, jakinarazten zutenak inguruabar horren ondorioz amari emandako zerbitzu orduen igoera, baina ez ordenantzaren xedatutako kenkaria aplikatu izana. Hizpide dugun kasuan kenkari hori aplikatu izan balitz, prezioa ofizioz berrikustearen ondorioz eta toki erakundeak kalkulatuakozko prezio berriaren ondorioz, 2019ko otsailetik aurrera, interesdunaren amak hilean 127 euro gutxiago ordaindu beharko zuen 2016tik ordaindu duenarekin alderatuz (160,25 eurotik 43,09 eurora).

Laguntza teknikoak eta, bereziki, foru-sailak mailegu moduan utzitako artikulua batzuk itzultzea ere izan dira kexa batzuen xede. Edozein kasutan, itxi egin dira, baloratu baita jarduketa ez dela desegokia izan.

Prestazio ekonomikoaren kasuan, irekitako espediente batzuk prestazioa kalkulatzeko moduaren, mendekotasuna duen eta prestazioaren titularraren pertsonaren izenean

— epaile batek ezgaituta egonda ere — banku-kontu bat izateko obligazioaren, eta beste kontu txiki batzuen inguruko kontsultei buruzkoak izan ziren. Atzerapenak hauteman dira zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ordaintzean, atsedeen-zerbitzuen kasuetan, askotariko arrazoiengatik erabilera egokiaren inguruko zalantzak egon direnetan. Behin ikertutakoan eta zalantza horiek argitutakoan, Arartekoak egiaztatu ahal izan du prestazioa ordaindu dela. Azken erreklamazioak, urtearen amaieran formalki amaitu gabekoak, zerkusua du antzeko izaerako prestazio bat dagoelako familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa aldatzearekin eta bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko erreklamazioarekin. Kasu horretan, Arabako Foru Aldundiak akatsak egin izana aitortu du, motibazio egokiaren faltaren ingurukoak. Horrek ukitutako pertsonen eskubideen defentsa eragotzi dezake eta, beraz, prozedura hustzat jo du. Dena den, behin prozedurazko akats horiek konpondutakoan eta komunikazioa modu egokian egindakoan, gaiaren funtsa aztertuko da.

Prestazio ekonomikoaren inguruko kasu garrantzitsuena, dena den, desgaitasuna duten pertsonen alorrekoa izan da, baina familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa du xede eta, zehazkiago, zaintzailearen figura. Elkartu elkarteak Arartekora jo zuen, eta planteatu zuen ez zegoela ados familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa jasotzeko betekizunarekin, 24/2017 Foru Dekretuaren, abenduaren 12koaren, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta zainketa sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituenaren, 10.2.e) artikuluan xedatutakoarekin, uste baitzuen mendekotasunagatiko diskriminazioa zela eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideen inguruko nazioarteko hitzarmenak aitortutako eskubideak eta printzipioak urratzen zituela. Elkarturen iritziz, artikulua horretan % 65eko edo hortik gorako desgaitasuna aitortua duten pertsonak zaintzaile ez-profesional izateko gai ez diren presuntzioa txertatu da. Gainera, aukera hau ukatu egin zaie, gainerako herritarrei ez bezala: udal gizarte-zerbitzuek, abenduaren 12ko 24/2017 Foru Dekretuaren 21.1. eta 9.1.f) artikuluetan jasotako egokitasun-txostenaren bidez, zaintzaile ez-profesional izateko gai ote diren egiaztatutako eskubidea. Zentzu berean, elkarteak gaineratzen zuen muga hori ez zegoela jasota 185/2015 Dekretuan, urriaren 6koan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan.

Lehenik eta behin, komeni da adieraztea 1051/2013 Errege Dekretuak, abenduaren 27koak, autonomia pertsonalerako eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko sistemaren prestazioak arautzen dituena (alegia, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako prestazioak), saiatzen dela bermatzen familia inguruneko zaintzetarako prestazioaren salbuespen izaera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arretaren kalitatea hobetzeko lege horretan ezarritako helburuei jarraituz; horretarako, autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuei intentsitate handiagoa ematen die, esaterako, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoari eta etxez etxeko laguntza zerbitzuari.

Horiek horrela, ezin da zalantza jarri oso garrantzitsua izan dela urte hauetan zehar foru-aldundiak laguntza pertsonalerako prestazioa sustatzeko egin duen apustua, eta bere eraketan eragile erabakigarria izan da Elkartu elkarte bera; hori guztia, Gipuzkoan ezgaitasuna duten pertsonen autonomiarako eta bizitza independenterako eskubidea bermatzeko helburuarekin. Foru-organoak berak emandako datuek egiaztatu egiten dute: laguntza pertsonalerako prestazioagatik egindako gastua handiagoa da familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoarekin egindakoa baino, nahiz eta jende gutxiagok jasotzen duen. Ondorio horietarako, izugarria da Gipuzkoan laguntza pertsonalerako prestazioa jasotzen duten pertsona guztien kopurua, estatuko gainerako tokietan prestazio hori jasotzen duten pertsona guztiekin alderatuta. Adierazten denaren arabera, IMSERSOko 2019ko ekainaren 30ean emandako zifrak kontuan hartuta, estatuan laguntza pertsonalerako prestazioa jasotzen duten 7.353 pertsonetatik 5.939 Euskadikoak dira, eta, horietatik 5.696, Gipuzkoakoak.

Laguntza pertsonalerako prestazioaren aldeko apustu hori, foru-entitatearen arabera, honetan oinarritzen da:

- a) *Zainketa profesionala indartzea eskusiboki familiak zaintzearen aldean.*
- b) *Pertsonen eta familien autonomia izatea hautatzeko zainketen hornitzaileak, maiztasuna, lehentasuna, etab.*
- c) *Ezkutuko ekonomiaren eta iruzur fiskalaren aurka borrokatzea.*
- d) *Zainketen kalitatea bermatzea.*
- e) *Langileen eskubideak.*

Azaldutakoarekin bat, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu du familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa laguntza pertsonalerako prestazio moduan birmoldatzea, batetik, prestazio baten eta bestearen gehieneko zenbatekoen distantziak handituz edo, bestetik, 24/2007 Dekretuan aldaketak eginez familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren arauketan, prestazio hori duten pertsonentzako muga eta betekizunekin, esaterako, zaintzaile ez-profesional izateko gaitasuna mugatuz.

Hori esanda, eta balizko diskriminazioa egoteari dagokionez, interesgarria da gogoraraztea Konstituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan argudiatu duela tratu-desberdintasunak ez dakarrela diskriminaziorik justifikazio objektibo eta arrazoizko bati erantzuten dionean. Beraz, aztertu beharko litzateke justifikazio hori badagoen desgaitasunaren % 65eko muga ezartzean mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko lanak zaintza informalean testuinguruan egiteari dagokionez, muga baztertzaila moduan.

Abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, ezgaitasun-maila aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, ezartzen du ezgaitasun-mailaren kalifikazioa aukerako jarduketak bakarrik dela, hori gauzatzeko eskumena duten taldeei eta balorazioa egiteko baremo erabakigarriekin dagokionez.

Baremoak ezartzen dituen aipatutako dekretuaren I. eranskinak xedatzen duen moduan, % 65eko desgaitasuna duten pertsonen ehuneko hori aitortzen zaie balioespen-taldeak egindako balioespenak ezartzen badu larria dela, 4. mailakoa, hau da, “*Sintomek, zantzuek edo seinaleek edo ondorioek nabarmen murizten dute edo eragotzi egiten dute pertsonaren gaitasuna, egunerokoan oinarritzko jarduera gehienak egitekoa, eta autozaintzako jardueraren bati eragin diezaioke*”.

Hori dela eta, foru-organoak % 65eko ezgaitasun-maila edo handiagoa aitortuta duten pertsonak ezin direla zaintzaile izan dioten berriazko muga bat sartzeak abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretuan ezarritako betekizunari erantzuten dio. Ondoren, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak jasotzen du baldintza hori. Bertan zehazten da zaintzaileak egiaztatu behar duela behar besteko gaitasun fisiko, mental eta intelektuala duela bere kabuz arreta-, zaintza- eta laguntza-eginkizunak behar bezala garatzeko mendeko pertsonaren eguneroko bizitzako jarduerak egiteko orduan. Adierazi dugunez, % 65eko ezgaitasun-maila duten pertsonak ezin dute gaitasun hori egiaztatu, ehuneko horren ondoriozko ebaluazioak berak hala ezartzen baitu.

Puntu honetan, Arartekoak ere uste du Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde honetara igorritako txostenean baliatutako argudioa mahai gainean jarri behar dela, alegia, % 65eko ehunekoak “*actúa como umbral en el acceso a prestaciones económicas periódicas o pensiones relacionadas con la discapacidad, mientras que grados menores, aunque pueden dar lugar a otro tipo de apoyos o ayudas (desgravaciones fiscales, acceso a empleo público, tarjetas de estacionamiento, etc.), sin embargo, no permiten el acceso a ese tipo de prestaciones: el ejemplo más claro es la Pensión no Contributiva por Invalidez*.” Halaber, zehaztu behar da % 65eko edo gehiagoko ehuneko hori eskatzen dela Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoa jasotzeko baldintza gisa, “*seme-alaba ardurapean izateagatik esleipena*” izenekoak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren IX. kapituluak (ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretua) arautua, eta, oro har, seme-alaba ardurapean izateagatik prestazioa esaten zaiona.

Behin gai hori argituta, balioetsi beharko litzateke, mendekotasuna duten pertsonaren ikuspegitik, familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoen mugaketa eta iraungitze-aurreikuspen horiek eragin egiten dioten legeak aitortzen dion eguneroko jardueretarako arreta eta babesa jasotzeko eskubideari, zaintzailearen egokitasun betekizuna betetzen ez bada. Zentzu horretan, eta dekretuak beste aukera batzuk planteatzen dituen (besteak beste, laguntza pertsonalerako prestazioa, zuzkidura ekonomiko handiagoa duena), ez da uste ikuspegi horretatik ere Administrazioaren jarduketa oker baten aurrean gaudenik.

Amaitzeko, apartatu honetan sartu dugu erreklamazio-multzoko bat, elementu komuntzat duena **epaile batek ezgaitutako pertsonen** tutoretza edo kuradoretza duten organismoen funtzionamenduari erreferentzia egitea. Bizkaiko Tutoretza Erakundea, Ondoan fundazioa eta, albo gaitetan, Bilboko Udaleko gizarte-zerbitzuak eta Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea aztertze eskatu dute. Kexak

legearen arabera jotzat joita, guztietan agertzen da ezohiko neurriak hartzeko beharrezko prozedura judizialen ondorioz erabakiak hartzeak jasandako berandutzea.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

3.1. Nazioartean, errepikatu behar da **Nazio Batuek** ez dutela oraindik adinekoen **giza eskubideak** zehazki lantzeko **nazioarteko tresnarik** (hitzarmenik, trataturik, itunik...), aditu independenteak 2016an egindako txostenean — adinekoen giza eskubide guztiez gozatzeari buruzkoan — emandako gomendioa gorabehera (aditua izendatu zuten Giza Eskubideen Kontseiluak emandako 24/30 ebazpenaren bidez, 2013ko irailaren 27an). Txosten horretan, adituak estatuei eskatu zien esfortzu handiagoa egin zezaten adinekoen giza eskubideen babesa indartzeko modurik onena zehazteko, baita aurkeztutako hainbat proposamen aintzat har zitzaten ere, bereziki adinekoen eskubideen inguruko hitzarmen bat egiteari zegoakionez.

Horrelako tresnarik ez dagoenez, mundu osoko adinekoen egoerari buruzko hainbat ebazpen onartu ditu Biltzar Nagusiak, eta ebazpen horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: 46/91 ebazpena; horren bidez, adinekoen aldeko Nazio Batuen printzipioak adierazi ziren. Halaber, ebazpenak “*alienta a los gobiernos a que introduzcan en sus programas nacionales cada vez que sea posible los principios siguientes: independencia, participación, cuidados, autorrealización y dignidad*”.

Europar, **Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunak** berriazko artikulua bat dauka adineko pertsonen eskubideei buruz. Artikulu horrek onartu eta errespetatzen du pertsona horiek bizitza duin eta independentea izateko eta bizitza sozial eta kulturean parte hartzeko duten eskubidea.

3.2. 2019an onartu zen **uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua**, **Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentzuei buruzkoa**, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen aurreko dekretu arautzaileak ordeztu dituena eta, ondorioz, bertan jasotako aurreikuspen batzuk jasotzen dituena. Horrez gain, erantzun publikoa eguneratu egiten du, egungo errealitate sozialera egokitzeko. Arautu egiten ditu mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza guztiek (publikoak eta pribatuak) Euskadin zerbitzua emateko baimena jasotzeko bete behar dituzten betekizunak: materialak, funtzionalak eta langileen ingurukoak.

3.3. **Bizkaian**, **140/2019 Foru Dekretua**, **irailaren 10ekoa**, **zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duena**, onartu da. Prestazio hori aurrekusi da foru-egoitza publiko bateko plazaren onuradun izaera aitortuta duen pertsonentzat, ezin izan bazaie plaza bat eman mendekotasun-edo desgaitasun egoeran dauden pertsonentzako egoitzen

foru-sare publikoko haiek hautatutako zentro batean. Halaber, zaintzaileek urtean 15 eguneko atsedena hartzeko aukera jasotzen eta arautzen du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroan aurreikusitako atsedeen zerbitzuan ezarritako baldintzetan.

[Bizkaiko Foru Aldundiak](#) ere arautu ditu arreta goiztiarraren hainbat alderdi, baina horietaz arituko da, zehatzago, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenean, txosten honen dokumentu osagarri moduan aurkeztutakoan.

3.4. 2018ko azken egunetan, [Pertsona nagusiekiko gobernantzarako euskal estrategia \(2019-2022\)](#), esparru horretako eragile publiko eta sozialekin egindako partaidetza-prozesu luze eta emankor batetik lortutakoa, gainera, aplikazio praktikorako eredu moduan txertatu dena ([Agenda Nagusi](#)). Azken hori Gobernuko agendaren eta hiritarren arteko elkargunea da, eta haren helburua da gizarte zahartu baten erronkei erantzutea, non adinekoek honako alderdi hauek eskatzen baitituzte: zeregin aktiboa izatea bizitza publikoan eta haien bizi-baldintzei eragingo dieten erabaki publikoei ezagutzak emateko ahalmena.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. **EHUren Udako Ikastaroen XXXVIII.** edizioaren esparruan Arartekoak antolatutako [Pertsonen eskubideak bizitzaren amaieran](#) ikastaroan jorrotutako gaiak gehien eragiten zieten nagusiei eta mendekotasuna dutenei, nahiz eta ez zen haientzat bakarrik. Ikastaroaren helburua zen bizitzaren amaieran pertsonak dituzten eskubideen inguruko hausnarketarako eta truke profesionalerako gune bat sustatzea.

4.2. Aurreko paragrafoan aipatutako udako ikastaroa antolatzeak harreman erraza eta hainbat topaketa ekarri zituen [Arinduz Euskadiko zaintza aringarrien elkartearekin](#). Era berean, 2019an zehar, Arartekoaren erakundeak lankidetzaren elkarlanak izan ditu, askotariko intentsitatekoak, [Adostuz Euskadiko Irakasle Jubilatuen elkartearekin](#) eta [Elkarturekin](#).

4.3. **Ekitaldi, foro eta jardunaldietara** bertaratzeara:

- *“Gizarte-zerbitzuak: begirada bat Arartekotik”* hitzaldia, Eusko Jaurlaritzak antolatutako II. “Legeen geroa” Mintegian.
- [Aubixa fundazioaren](#) *“Euskadi jasangarria: zainketa-herrialde baterako belaunaldien arteko itun berri baten alde”* jardunaldira bertaratzeara.
- Gasteizko eta Donostiako [ONCE](#)ren egoitzetan nagusiekin *“Nagusiak, berdintasuna eta giza-eskubideak”* gaiaren inguruan egindako hitzaldia.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Oraindik nabarmentzekoa da euskal herri-administrazioek hartutako konpromisoa, autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko. Konpromiso horrek **finantzaketa-maila gehigarriak** dakartza (Estatuko Administrazio Orokorrak emandako gutxieneko mailen gainekoak), eta gizarte zerbitzuen sistemak mendetasun-egoeran dauden pertsonen emandako arretaren arrazoizko egoera azaltzen du horrek. Edozein kasutan, eta etorkizunari begira, egoera hori mantendu eta bere eraginkortasuna hobetu behar da.

Mendekotasuna duten pertsonen arretaren kalitatea hobetzeko asmo horrekin berarekin aurkeztu zen 126/2019 Dekretua, uztailearen 30ekoa, pertsona nagusientzako egoitzena. Azkenean onartutako testuak kontsultatutako eragile sozial guztien oniritzia ez badu ere, hobekuntzak jasotzen ditu, esaterako, araudi arautzailean lehen aldiz unitate psikogeriatrikoak jasotzea, erakunde honek aurreko urteetan beharrezkotzat jo izan duena.

Dekretuak betekizun gehiago definitzen ditu, eta beste batzuk aldatu egiten ditu, oinarri duen arreta ereduaz azpimarratuz, mendekotasuna duten pertsonen ongizate handiagoa eta arreta egokia bermatzeko helburua duena. Bi urteko aldia aurreikusten da funtzionatzen ari diren egoitza-zerbitzuak dekretuan adierazitakoari egokitzeko. Erakunde honek asmoa du epe hori amaitutakoan aplikazio-maila eta lortutako hobekuntzak aztertzeko.

Era berean, modu positiboan balioetsi behar bida hainbat ekimen —Euskadik ekimen horiek gauzatzeko konpromisoa hartu du—, adineko pertsonen parte-hartzea errazteko eta gizarte aldaketari egindako ekarpena aitortzeko; hala, gizarte esku-hartzean eta bitartekaritzan merezi duten protagonismoa eta gaitasuna emango zaie pertsona horiei. Pertsona nagusiekiko gobernantzarako euskal estrategiak (2019-2022) abian jartzeak edo Euskadi Lagunkoia udalerrri lagunkoien sarearen lan gogorrek erakusten du haien oinarri diren erakundeek konpromiso serio eta egonkorra dutela.

5.2. 2018ko txostenean jasotako hainbat kexa indarraldi batean daude oraindik, eta, horrengatik, berriro aurkeztu dira. Zehazki, honako kexa hauek ari gara:

- Oraindik ere beharrezkoa da **egoitza-baliabideetan (publiko eta/edo pribatuetan)** mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako **plaza-kopuruak handitzea**, erantzuna emateko Gizarte Zerbitzuetako Plan Estrategikoan jasotako helburuei eta neurriei, eta indarrean dauden lurraldeko gizarte-zerbitzuen mapei. Baita plangintza tresna horietan jasotzen den dimentsioan ere. Aipatutako plan estrategikoaren helburuak betetzeko epemuga iristear dagoen arren, erakunde honek jasotako hainbat kexa oraindik ere gune jakin batzuetan plaza publikoa emateko zailtasunez edo itxaronaldi luzeez eta plaza esleitu arte ondarea agortzeaz ari dira. Plan estratagiaren ebaluazioak, aurtengo

aurreikusitakoak, lortutako emaitzak jasoko ditu, eta erakutsiko du non jarraitu behar den lanean.

- Zerbitzuak zuzenean eman beharrean emandako **prestazio ekonomikoaren erabileraren** inguruko hausnarketari helduko zaio, bereziki, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren erabileraren eta eraginaren ingurukoari. Egia da erakunde honek hainbeste aldiz eskatutako arautzea gertatzen ari dela, baina zentzuzkoa da prestazioaren erabilera desegokiagatik edo gehiegizkoagatik tentuz aritzea, egoitzako plazarako eskubidea aitortuta duten pertsonen beharrei erantzuteko beharrezko zerbitzu publikoak sortzeari heldu gabe (plaza publikoak edo plaza pribatuak ituntzea).
- **Bizi-prozesu osoan pertsonari arreta bermatzeak**, alde batetik, antzemate goiztiarraren alderdiak hobetzea dakar, ahultasun, zaugarritasun edo arrisku egoerei ere arreta emateko moduak eman ahal izateko, egun baino askoz lehenagotik. Halaber, horretarako

antolamendu eta buru egiturak eta kulturak ere gainditu behar dira, zeinetan erantzun estankook nagusi baitira, pertsonak euren beharrian aldakorrentzat egokien diren zerbitzu eta programetatik igarotzea zailtzen duelako horrek. Horrek erreferentzia egiten die departamentu barruko eta departamentuen arteko koordinazio-hobekuntzei eta arretan formula berritzaileak sartzeari.

- **Arretaren eredu komunitarioa** bultzatzeko beharra, bereziki sustapenaren eta prebentzioaren ikuspegia, baita hurbileko zerbitzuak ere. Oraindik ere ez da gertatu **etxez etxeko laguntza zerbitzuaren** inguruko hausnarketa beharrezko-beharrezko hori. Garbi dago zerbitzu hori kateatuta dagoela xede dituen pertsonen beharrei modu egokian erantzuten ez dien eredu batean. Horrekin batera, errealitate berriak ari dira sortzen, nahigabeko bakardadea, esaterako, orain arte gutxi ikusarazi direnak, eta erronka latzak direnak komunitatetik erantzuteko.



III. atala

9

Talde terroristen biktimak

1. Arloa kopurutan



2019. urtean talde terroristen biktimen arloarekin lotutako esku-hartze eskaera bakarra jaso dugu.

2. Kexarik aipagarrienak

2019an, [Colectivo de Víctimas del Terrorismo \(Covite\)](#) elkarteak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Gipuzkoako zazpi udalerritan hainbat pintaketa zeudelako, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko [ekainaren 19ko 4/2008 Legearen](#) aurkakoak izan zitezkeenak.

Hain zuzen, lege horren 4.b) artikulua, biktimen duintasun-eskubidea arautzen duenak, honako hau adierazten du: **“Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek biktimak haien eskubideak errespetatuta tratatu ditzaten zainduko dute. Horretarako: b) Neurri egokiak hartuko dituzte biktimen eta haien familiakoen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko, eta, bereziki, **jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko, hala nola, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umiliazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa goreresten dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo****

jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak, eta zehazki aurka egingo diete ezaugarri horiek dituzten pintaketei eta kartelei, eta, hala dagokionean, arau-hauste penala ekar dezaketen ekitaldiak ikertuko dituzte, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskubide horren defentsarako, herri-akzioa baliatzeko aukera zabalik utzita”.

Arartekoak esku hartu du, eta EAeko udal horietako alkateei laguntza eskatu die aipatutako *Terrorismoaren Biktimen Aitorpena eta Erreparazio egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen* 4.b) artikulua aurka doazen pintaketak eta kartelak kentzeko, *Arartekoa Erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen* 23. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz. Erakunde honek udal horien erantzunak jasotzen dituen heinean, entitate kexagileari jakinaraziko dio lege horretan araututako prozeduraren arabera, eta bertan jasotako aukerei jarraituz.

Gai horri dagokionez, gogorarazi beharra dago heldu zitzaioela sakonki 2009an Eusko Legebiltzarrarentzat egindako txosten berezi honetan: [Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta](#).

Orain dela hamarkada batetik gora, Euskadiko herrietako pintadak eta kartelak, biktimen eta haien senideen duintasun-eskubidea urratzen dutenak, eztabaida publikoaren xede izan dira, *ospe ona galaraztea, mespretxua edo umiliazioa* dakartelako. Zehazki, aipatutako txostenean adierazten denez, Eusko Legebiltzarrak 2007ko urriaren 5ean eta 17an egindako osoko bilkuran ebazpen batzuk onetsi zituen terrorismoaren biktimen gainean hartutako erabakiak betetzearen inguruan. Zehatzago, hamaikagarren ebazpenak honako hauxe adierazten du: **“Eusko Legebiltzarrak udalei eskatzen die areagotu ditzatela gure herrietako kale eta plazetatik terrorismoaren biktimak iraintzen eta umiliatzen dituzten pintadak eta kartelak desagerrarazteko ahaleginak; horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskatu ahal izango dute.**

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2005eko otsailaren 17ko erabakiaren 2ñ puntua betearazteko; puntu horretan toki erakundeei zuzendutako diru laguntzak aurreikusten dira, pintadak, kartelak eta abar kentzeko lanari aurre egiteko orduan”.

Beraz, kezkarria da Arartekoarentzat Euskadiko herri jakin batzuetan irautea biktimen duintasuna urratzen duten pintaketek eta kartekek, askoz neurri txikiagoan bada ere. Izan ere, biktimen eskubide funtsezkoenen aurka doaz, eta Euskadiko bizikidetzaren balizko haustura ekar dezakete. Bizikidetzari hori markatu egin dute ez soilik ETAk 40 urte baino gehiagoz sortutako terrorismoak, baizik eta hilketak justifikatzen eta sustatzen zituzten jarrerak eta adierazpenek ere bai. Horiek, aldi berean, biktimak mespretxatzen eta umiliatzen zituzten, eta horrek biktimizazio bikoitza eta mina zekarkien biktima eta senide horiei.

Horregatik guztiagatik, atentaturik gabe 10 urte eman ondoren, legeak ematen dion giza-eskubideen kultura sustatzeko lana betez, Arartekoak uste du funtsezkoa dela gizarte demokratiko bat eraikitzeak eta euskal gizartearen adiskidetzeko prozesuak sustatzeko errespetu osoa erakustea biktimen eta bizirik irten direnen minarekin eta memoriarekin. Horretarako, haien duintasuna zaindu behar da, espazio publikoetan ETAREN terrorismoaren babes eta justifikazio adierazpenak ikusteak dakarren etengabeko mina amaituz. **Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzari eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak** egindako **2017-2020 Bizikidetzari eta Giza Eskubideen Planak** dioenez: *“Pertsona guztien giza eskubideen aldeko defentsa elkartasunari eta giza eskubideen urraketen biktimekiko enpatiar lotuta dago oinarri-oinarrian. Indarkeria mota oro da gaitzesgarria, biktimei konponbiderik gabeko min bidegabera eragiten dielako.*

Gizarte demokratiko bat biktimen alde egon behar da beti. Berebizikoa litzateke sentiberatasun horri eustea, biktimizek egia jakiteko, justizia egiteko eta ordaina emateko duten eskubidea erabili ahal izateko. Eta bereziki, biktima gehiago eragitea ekiditeko, bide demokratiko guztiak erabiliz.”

Bestalde, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko **ekainaren 19ko 4/2008 Legearen** 4.b artikuluan botere publikoei eskatzen zaie: **“jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko, hala nola, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umiliazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa gorensten dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak”**. Beste behin, 2019ko udatik, eztabaida publikoan egon dira **ongietorri** dheritzenak, ETA talde terroristako presoak espetxetik ateratakoan haien omenez egindako harrera eta omenaldiak.

laz urteko txostenean adierazten zen moduan, gai sakon sakon baten aurrean gaude, Zuzenbide Estatu baten funtsezko bi eskubide nuklear erabiltzearen inguruko analisi juridiko bat eskatzen duelako, hain zuzen, biltzeko eta adierazpen askatasunaren eskubidearen⁷ eta terrorismoaren

biktimen eskubideen ingurukoa. Horri kontrajarrita daukagu, aldiz, Zigor Kodearen 578. artikuluko terrorismoa goratzeko delitua izan daitezkeen ekintzak egitea. Kodearen 2015eko erreformaren ondorioz, tipo penalaren mugak zabaldu egin ziren⁸.

laz adierazi genuenez, oro har, Auzitegi Nazionalako instrukzioko epaitegi nagusiek kontu horri erantzun diote, horrelako ekintzak derrigortzeko kautelazko neurriak ez hartzea erabakitzeak autoen bidez. Horien bitartez, epaitegiek Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo edo Segurtasun Sailari eta Estatuko Segurtasun Indarrei eskatu zieten ekintza horiek kontrolatu eta horien jarraipena egin zitzaten, bai eta honako hau egiteko beharrezkoak ziren neurriak hartu zitzaten ere: *“para evitar que en el curso de los mismos se realicen actos que pudieran ser constitutivos de delito de enaltecimiento o justificación de delitos terroristas o de quienes hayan participado en su ejecución o de descrédito, menosprecio o humillación de las víctimas o de sus familiares”*.

Hala badagokio, auzitegi eskudunei dagokie zehaztea, kasu zehatz orotan, ea kartzelatik ateratako presoek harrera egiteko ekintza batean aipatu manuaren kontra egiteagatik ez-zilegi penaltzat jo litezkeen jarduerak egin diren. Beraz, gai judiziala da, eta Arartekoaren esku hartzeko eremutik kanpo dago, Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Botere publikoen eta gizarte zibilaren posizionamenduari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak eta Senatuak 2018an arbuio-adierazpena egin zuten ETA antolakunde terroristako kideekin edo haren jarduketekin lotuta zeudenei egindako omenaldien aurka⁹:

2019an, **Eusko Legebiltzarrak**, harrera horien inguruan berri sortutako eztabaidaren harira, urriaren 3ko saioan onartu zuen kartzelatik ateratzen diren ETAko presoan aitortza nabarmenkeria publikoarekin egiteari uzteko eskaria, eta horiek antolatzen eta sustatzen dituztenei eskatu zien hori egiteari uzteko, biktimen eta haien senideen minaren errespetuagatik.

Lehendakariak, gainera, eztabaida hori tarteko, irmoki gaitzetsi zituen omenaldi publikoak, eta esan zuen euskal

7 21. artikulua.

1. Bilera baketsu eta armarik gabekoak egiteko eskubidea aitortzen da. Eskubide horren egikaritzak ez du aurretiazko baimenik behar.

2. Bilerak iraganbide publikoetan egiteko edo kaleagerraldiak burutzeko, agintariari alde aurretiko jakinarazpena egin behar zaio, eta hark halakoak debekatu ahal izango ditu, soilik, pertsona eta ondasunen arriskuak, ordena publikoa asalatzeko arrazoi oinarritunak daudenean. 20. artikulua.

1.- Hurrengo eskubideak aitortu eta babesten dira:

a) Pentsamenduak, ideiak eta iritziak hitzez, idatziz nahiz beste edozein bidetatik askatasunez azaldu eta zabaltzeko

⁸ Zigor Kodearen 578. artikulua zigortu egiten du *“572. artikulutik 577. erakoetan jasotako delituak edo horiek egiten parte hartu duten pertsonak gorestea edo jendaurrean justifikatzea, edota terrorismo-delituak biktimizek edo beraien senideen izen ona zikintzea edo horiek gutxietsi edo umiliatzea dakarten ekintzak gauzatzea”*.

⁹ Eusko Jaurlaritzak parlamentuko talde gehienaren babesarekin onetsi zuen omenaldiak arbuizatzeko lege besteko proposamenari egindako erdibideko zuzenketa bat, honako hau zioena: *“Eusko Legebiltzarrak errefusatu egiten ditu pertsonen egindako omenaldi publikoak, bai ETAko kide izan izanagatik, bai helburu politikoak lortzeko bide gisa indarkeria erabili edo justifikatu izanagatik direnean. Omenaldi horiek giza eskubideen defentsaren aurkakoak dira, eta biktimen birbiktimizazioa dakarte.”*

Bere aldetik, Senatuak, osoko bilkuran, 2018ko apirilaren 11n egin zen 34 zenbakiko saioan, testu bera onartu zuen: *“1. El Senado manifiesta su rechazo a los homenajes públicos que se realicen a personas bien por su condición de pertenecientes a ETA o bien porque utilizaron o justificaron la violencia como medio para conseguir fines políticos. Dichos homenajes son contrarios a la defensa de los derechos humanos y suponen una revictimización para las víctimas”*.

gizartearen gehiengo bat datorrela ekintza horien errotoiko arbuioarekin, eta horiek desagertzera kondenatuta dauden anakronismo iraingarritzat jotzen dituela.

Foro Sozial Iraunkorrak bost puntuko proposamen bat egin zuen; bertan jasotzen zuen, lehenik eta behin, ongietorriek zorrozki errespetatu behar dutela ETAko biktimen mina eta, aldi berean, Foro Sozialak uste zuen harrera horiek une egokia izan daitezkeela presoan familientzat hainbeste sakabaketa eta salbuespen urtek eragindako sufrimenduari aitor-tza egiteko. Proposamenak ere planteatzen zuen, hirugarren puntu moduan, presoak harrera erabili ahal izatea “ekarpena egiteko bere komunitateari eta giza eskubideen eta bakearen kulturari”; laugarren puntuan, eskatu zuen judizializazio dinamikan ez sartzeko, eta bosgarrenean gomendatu zuen ongietorri horiek gune itxietan egiteko.

Arartekoaren ikuspegitik, omenaldi-ekintza horien tratamenduak irizpide guztiz juridiko-penala du. Erakundeentzat sustatzea berezkoa den giza eskubideen errespetuaren ikuspegitik, eta balio demokratikoak eta etikoak sustatzeko, aurrean ditugu biktimen eta euskal gizartearen zati handi batentzat iraingarriak diren ekintzak, biktimek beraiek sarrirako salatutako berbiktimizazioa dakartenak eta adiskidetzarentz eta bizikidetzarentz aurrera egitea zailtzen dutenak. Uste dugu presoan gizarteratzeko eskubidea eta presoek behin beren zigorrak betetakoan familiek eta lagunek haiei harrera egiteko dutena bete behar dela *biktimak edo beren senideak mespretxatu edo umiliatu gabe*, lehen aipaturako 4/2008 Legearen 4.b) artikulua xedatzen duen moduan. Ondorioz, botere publikoak zaindu egin behar dute eskubide hori biltzeko eta adierazpen askatasunaren funtsezko eskubidearekin haztatzen dela.

Horrenbestez, Zigor Kodearen 578. artikulua araberako balizko delituzko jarduerak gorabehera, biktimen eta haien senideen eskubideekiko errespetua izateko, omenaldi horiek ez liriteke egin beharko Euskadiko herrietako eta hirietako leku publiko eta zentraletan; are gutxiago eraikin publikoak edo ofizialak erabiliz. Edozein kasutan, ekintza horiek ezin dira izan *terrorismoa goratzea, eta terroristen omenaldiak edo haiei sariak publikoki emateko ekitaldiak*.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

2019an nabarmendu beharreko egitate esanguratsua da, terrorismoaren biktimen esparruan, hamarkada bat bete dela Espainiako Estatuan heriotzak eragin zituen ETA talde terroristaren azken atentatutik. 2009ko uztailaren 30ean Palma Novan (Mallorca) bi guardia zibil hil zituen, lapa-lehergailu batekin: Carlos Sáenz de Tejada eta Diego Salvá, 28 eta 27 urtekoak. Hurrengo urtean, 2010eko martxoan, historian lehen aldiz, taldeak polizia frantses bat hil zuen, Jean-Serge Nèrin, taldeko ustezko hiru kide Dammarie-lès-Lysen herriko auto-kontzesionario batean auto bat lapurtzen saiatze ari zirenean. Hura izan zen azken atentatua 2018an desegin aurretik.

Horrez gain, urte horretan, orain arte egin gabeko keinu bat egin zen, Euskadin bake, bizikidetzeta eta adiskidetzeta garai berri bat eraikitzeke esanguratsua izan daitekeena; izan ere, **Etxeratek**, biktimen eta ETAko presoan senideen elkarteak, barkamena eskatu zien talde terroristaren biktimei, gaztelaniaz eta euskaraz irakurritako adierazpen batean.

Komunikatuan adierazi zenez, Etxeratek urte askoan sentitu izan du gizartearen zati baten eta haren ordezkari politikoen indiferentzia, eta horrek bere burua babestera eta besteen minaren aurrean isiltasuna gordetzera eraman du, baita besteengana hurbiltzeko eta haiei enpatia adierazteko gai ez izatera ere.

Bere iritziz, eszenatoki berrian, gatazka politikotik eratorritako indarkeriaren ondorioak pairatu eta pairatzen dituzten guztiei entzun behar zaie behin betikoz, gatazka konpontzen laguntzeko eta berriro halakorik ez gertatzeko.

Bukatzeko, Etxeraten esanean, *“zinez eta benetan barkamena eskatzen dugu, horretaz konturatu gabe, gure urruntasunaren bidez, areagotu ahal izan dugulako senitarteko bat bortxaren eraginez galdu duten ETArekin biktimek jasan behar duten mina”*. *“Sufrikarioekiko distantziakidetasunik ezarri nahi izan gabe, jakinarazi nahi dugu sufrikarioa geure barne-errietatik ezagutzen dugula eta horrek eramaten gaituela zuena aitortzera”*. *“Zubiak eraiki beharra daukagu eta kontakizun polidriko batera hurbilduko gaituen bidean askotariko kontakizunak azaleratu beharra; horrek elkarrengana hurbilduko gaitu, zauriak sendatu eta itxiko ditu, eta bizikidetzaren oinarriak ezarriko ditu”*.

Jarraian, terrorismoaren biktimei aitortutako eskubide batzuk aztertuko dira.

3.1. Memoria eta egiarako eskubidea

Arartekoaren erakundearen funtsezko helburuetako bat da **bakearen kulturari** eta indarkeriaren erabilerari zilegitasuna kentzeari ekarpena egitea. Azken finean, helburua da gertutasuna azaltzea eta entzutea hainbestetan ahaztu ditugun terrorismoaren biktimei, haien eskubideak babesten laguntzen duten hainbat jarduketaren bidez.

Arartekoaren aburuz, terrorismoaren biktimek, banaka zein elkarteetan bilduta, nazioartean modu bateratuan eta uztartuan eskatutakoa merezi dute: **memoria, egia, justizia, erreparazioa eta ez erreparatzeko bermea**.

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legearen 8. artikulua **terrorismoaren biktimek memoriarako duten eskubidea** barne hartzen du. Agindu horretan aitortzen da euskal botere publikoek «bakean eta askatasunean oinarritutako elkarbizitza lortzen eta biolentzia erabat eta errotik deslegitimatzen lagunduko duen memoria kolektiboa finka dadin» sustatzeko ageriko agindua dutela.

Banakako biktimek eta haien elkarteek uste izan dute memoria, biktimen testigantzen bidez, euren eskubideak errespetatzen dituen terrorismoaren amaierarako giltza dela.

Biktimen testigantzak biltzeko funtsezko ariketaren bidez eraikitako memoriak eraman egin behar gaitu Euskadin jasan dugun indarkeriaren inguruan egiazko egia bat eraikitzeko bidea urratzera. Memoria horrek egia komun batera, adostasuneko batera, aurrera egin dezan, hura elkarrekin bakean eta askatasunean bizitzeko eskubidean oinarritu behar da, terrorismoari zilegitasuna kenduz hezkuntzaren bidez, etorkizuneko belaunaldiei indarkeria terrorista saihesteko.

Honako hau azpimarratu zuen [Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta](#) Eusko Legebiltzararentzat Arartekoak egindako txosten bereziak: *“Etorkizuneko biktimizazioak ekiditeko biktimek duten eskubideak eskatzen du herritarrek gorroto eta beldurrik gabe heztea, balio demokratikoak etengabe babesteko konpromisoa hartzea, eta helburu pertsonalak zein politikoak lortzeko bitarteko demokratiko eta baketsuak erabiltzea, horrela bermatuko baita askatasuneko eta justiziako bizikidetasuna”*.

Zentzu horretan, erakunde horrek uste du 2019an positiboa izan dela [Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren](#)¹⁰ bileraren ondoren hasitako elkarriketa-prozesua. Biler horretan, Eusko Jaurlaritzak urte hasieran [Herenegun](#) Euskadiko terrorismoaren hurbileko historiari buruzko hezkuntza-programari egindako 31 ekarpenak. Programa hori hurrengo ikasturtean eramango da ikasgeletara, eta hark lagundu egin beharko du hurrengo belaunaldiak Euskadin azken hamarkadetan izandako indarkeriaren inguruko zentzu kritikoa eta demokratiko batekin hezten, ahal bezainbesteko adostasuna izango duen kontakizun komun bat bilatuz, giza eskubideen eta biktimen memoriaren ikuspegitik eraikitakoa.

3.2. Justizia eta erreparazioarako eskubidea

Justiziarako eskubideari dagokionez, gogorazi beharra dago biktimen elkarteek etengabe planteatu dutela urte hauetan argitu gabe dauden ETaren hirurehun hilketak baino gehiago argitzeko aldarria. Zentzu berean, Auzitegi Nazionalako Fiskaltzak, [Terrorismoaren Biktimen Fundazioak](#) hala eskatuta, 2011n txosten bat egin zuen argitu gabeko ETaren krimenen gainean, eta ondorioetan adierazi zen momentu hartan 349 hildako zeudela ebazpen judizialik gabe.

Erreparazioa justiziarako estu lotutako kontzeptu bat da, baina ezberdina da. Terrorismoaren biktimek, hain zuzen, lehenik eta behin behar dute justizia egitea, zentzu formalean, horrelako ekintza zitalak egiten, antolatzen edo sustatzen dituztenak zigortzea, zuzenbide estatu honek funtzionatzea, alegia. Dena den, erreparazioa kontzeptu zabalagoa da, ahal den

neurrian barruan hartuko dituen sortutako min handi hori arintzea, baita delitua preskribatuta dagoenean edo biktimen zerrendak ezezagunak direnean ere.

Biktimek behar ezberdinak dituzte, baina elementu komunak ere badaude. Biktimek nahi dute biktima izaera ez dadi- la izan beren nortasunaren betiko ezaugarri bat, besterik ez, egoera hori gaingitu ahal izatea eta haiei gertatutakoari esanahia aldatzea. Horretarako, banakako biktimak eta elkar- teak interesik gabe aritzen dira lanean, haiei gertatutakoa etorkizunean beste batzuei gerta ez dakien. Mendekuaren aurrean, eskuzabaltasunez eraldatzen dute beren bizipena, gizarte hobeto bat eraikitzeko funtsezko aktibo sozial moduan.

Bestalde, jakinda biktima bakoitzak bere beharrak dituela, Arartekoak uste du botere publikoek ekimenak sustatu behar dituztela, beste herrialde batzuetako trantsizio-justizia- ren eta justizia erreparazioaren esperientzietan inspiratuta egon daitezkeenak, edo gure ingurukoak, hala nahi duten biktimek eskuragarri izateko beren biktimen erreparazio moral edo zuzeneko, modu erreparatiboan, baldin eta proze- su horiek bideratzen badira biktimen beharretatik abiatuta eta erakunde publikoen babesa duten profesionalak lagun- duta, prozesu guztia beti izan dadin biktimen eskubideen mesederako.

Ekimen horiekin guztiekin batera, ondorio logiko bat lortu beharko litzateke: biktimen askotariko beharrei, memoriari eta egia erreparatuz ikuspegi zabal batetik lan egiten bada, etorkizunean lortu beharko litzateke ez errepikatze- ko bermearen azken helburua betetzea, inoiz gehiago egon ez dai- tezen terrorismoaren biktimak, eta inoiz prozesu hori bakarrik jasan behar izan ez dezaten, eta, askotan, berriz biktimizatu ez ditzagun, botere publikoen ekintza okerraren edo ekintza ezaren ondorioz.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Elkarte eta fundazioekiko harremanak

Erakundearen ordezkariak ekitaldi, foro eta mintegi ezberdi- netara joan dira 2019an. Bertan, terrorismoaren biktimen es- kubideen inguruan eztabaidatu da edo pertsona hauekin lo- tuta politika publikoek jakinarazi behar dituzten printzipioak aldarrikatu dira.

Halaber, Arartekoa gonbidatu zuten *“La cultura de la paz en las víctimas del terrorismo”* VITEPAZ (Victimas del terrorismo por la paz) elkartearen aurkezpen jardunaldia ixteko, Gastei- zen, 2019ko urriaren 22an.

¹⁰ 2010ean sortutako organoaren presidentea José Luis de la Cuesta da, Zuzenbide Penaleko katedratikoa eta Kriminologiako Euskal Institutuko presidentea; eta organoko kideak dira Eusko Jaurlaritzako kideak, bes- teak beste Jonan Fernández, Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzako idazkari nagusia; Eudeleko eta gizarte zibileko ordezkariak, besteak bes- te AVT, Covite, Aserfavite, Zaitu, APAVT, Fernando Buesa fundazioa edo Elkarte Bakezaleen Foroa bezalako biktimen elkarteak.

4.2. Administrazio publikoekiko harremanak

Arartekoak eta bere taldeak [Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, bizikidetzeta eta lankidetzaren Idazkaritza Nagusia](#)-rekin eta [Eusko Jaurlaritzako Biktima eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin](#) izan dituzte bilera eta topaketak, bizikidetzari eta biktimen eskubideei lotutako gaiak jorrazteko.

Horrez gain, Arartekoaren hainbat ordezkari terrorismoaren biktimak oroitze hainbat erakunde-ekitalditan hartu dute parte.

Horrez gain, Arartekoko bulegoaren presoan alorreko arduradunak justizia errestitiboko aditu moduan parte hartu zuen bi ekitalditan, Euskadiko eta Europako terrorismoaren biktimekin:

- [Kriminologiako Euskal Institutuak](#) (KREI) Donostian urriaren 17an eta 18an antolatutako topaketa errestitiboetan parte hartu zen: *“Dialogue circle: encounter on restorative encounters in cases of terrorism and political violence: personal insights and social echoes”*.
- *“The role of Restorative Justice in preventing and responding to violent extremism”* hitzaldiaren aurkezpena Europako Batzordearen Dublineko (Irlanda) Biktimen eta Justizia Errestitiboaren inguruko abenduaren 3ko eta 4ko [European Forum for Restorative Justice](#) eta [Radicalisation Awareness Network](#) eragileek antolatutako mintegian eta lantaldeetan. Aukera izan zuen ere [Fernando Buesa fundazioko](#) ordezkari eta parlamentari banarekin bizikidetzeta eta lan bateratua partekatze. Haiekin, eta Europako eta mundu osoko (Libano, Palestina) adituekin aztertu ahal izan ziren, biktimei bideratutako ikuspegi kritiko batetik, [justizia errestitiboaren](#) aukerak, indarkeria uzteko (*desistance*) eta talde estremistak deserradikalizatzeko prozesua sustatzeko. Ondorioak ondorioen idazki ofizialean kontsultatu daitezke: [The role of restorative justice in preventing and responding to violent extremism](#).

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

- 2019. urtean, erakunde terroristek ez dituzte bizitza, askatasun eta norberaren askatasunerako eskubidea urratu dituzten ekintzarik gauzatu.
- Terrorismoaren biktimek duten justiziarako eta egia-rako eskubideak argitu gabeko hildakoak sortu zituzten ehunka atentatu terroristak argitzea exijitzen du.
- Hezkuntzaren bidez terrorismoari zilegitasuna kentzea funtsezkoa da indarkeria terroristari aurrea hartzeko. Arlo horretan egingo diren ekimenek adostasun zabalena izan behar dute.
- Era positiboan azpimarratu beharrekoak dira terrorismoaren biktimen eta orokorrean euskal gizartearen memoriarako eskubidea sustatzera zuzendutako politika publiko ezberdinak.
- ETako kartzelatik ateratako presoek harrera eta omenaldiak egiteko ekintza publikoak, auzitegien lege-mailako eta/edo zigor bidezko balorazioaz harago, iraingarriak dira biktimek. Halaber, ekintza horiek beharrezkoa ez den kalte erantsia eragiten diete, eta haien biktimizazio bikoitza dakarte. Horrez gain, ekintzok ez dute inondik inora bakearen balioetan oinarritutako eta eragindako kaltea eta biktimen eskubideen errespetua aitortzen duen bizikidetzeta osoa eta demokratikoa biltzeko beharrezko pausuak ematen laguntzen.



IV.

atala

Arartekoaren

beste tresna batzuk

administrazio ona izateko eskubidea sustatzeko

IV. Atala

ARARTEKOAREN BESTE TRESNA BATZUK ADMINISTRATIO ONA IZATEKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO

IV

Herritarrek beren eskubideak urratu direlakoan edo indarreko legea bete ez delakoan administrazio publikoen aurka aurkezten dituzten kexen gainean ebaztea da Arartekoaren oinarritzko eginkizunetako bat.

Bere funtzio adierazgarria hori izanik, Ararteko erakundeak administrazioaren kontrol eta orientazio jarduera proaktibo ugari burutzen ditu asmo orokorreko beste tresna batzuen bidez. Horien helburuak administrazioaren jardueran praktika onak edo aldaketak proposatzea, esparru jakin bateko herritarren eskubideen betetzeari buruzko ikerketa eta eztabaida sustatzea edo horien hedapena bultzatzea dira.

Kapitulu honetan 2019. urtean zehar bideratutako jardueren emaitzaren laburpena gaineratu dugu eta Arartekoaren web orrira bidaltzen ditugu horien inguruko informazio zehatzagoa nahi dituztenak.

1. Txosten bereziak
2. Ikerketa bekak
3. Udako ikastaroa
4. Ararteko erakundearen 30. urtemuga dela eta burututako ekitaldiak
5. Beste topaketa eta jardunaldi batzuk
6. Arartekoaren argitalpenak
7. Aldizkari digitala

1. Txosten bereziak

2019an argitaratutako txostena: Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekotza egitea



Arartekoak arretaz aztertu ditu bitartekotzak Euskadin izandako bilakaera eta finkapena, eta gatazkak konpontzeko ordeko sistema hori bultzatu du gure herrialdean.

Pasa den abenduaren 17an Eusko Legebiltzarreko lehen-dakariari entregatu zaion txosten honetan ebaluatu nahi da EAEn dauden bitartekaritza-programa eta -zerbitzuen ezartze maila, baita bitartekaritza bera ere, justizia tradizionala ordeztzen edo osatzen duen formula gisa; izan ere, hasierako diseinuak abiapuntu hartuta, programa eta zerbitzu horien eraginkortasuna aztertuko da, eragile juridikoei eta tartean dauden erabiltzaileei zenbateraino onartu duten jakiteko. Hori guztia, urte hauetan legerian sartutako berrikuntzak eta estatu mailan eta nazioartean izandako esperientziak kontuan hartuta.

Kontzeptuei dagokienez, txostenak barnean hartzen ditu bai bitartekaritza judiziala (auzitegi barruko bitartekaritza), Lan eta Justizia Sailak kudeatzen duena, bai judizioz kanpoko bitartekaritza, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen ardura dena. Besteak beste, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak burututakoak, baita udalek eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuek, hala nola profesionalen elkargoek, merkataritza-ganberek, elkarteek eta fundazioek burututakoak ere.

Txostenean 22 ondorio eta 21 gomendio bildu dira

Gatazkak konpontzeko orduan, gure autonomia erkidegoak tinko egin du apustu prozesu tradizionalak ez diren metodoak erabiltzearen alde. Azterlanak jasota utzi du egindako lan bikaina, eta ontzat jo ditu garatutako ekimenak eta proiektuak.

Bitartekotza-prozesuetan parte hartu dutenen iritzia aldekoak dira, argi eta garbi; horrek bermatu egiten du bitartekotza bultzatu eta sendotzeko premia.

Hiru galdeketa egin dira: bi bitartekotza-zerbitzu publikoen erabiltzaileei eta beste bat profesional eta operadore juridikoei.

Horien artean, % 78,89k akordio bat onartu zuten bitartekotza-prozesuaren bitartez. Galderei erantzun dieten pertsonetatik ia erdiak “oso ados daude” alde guztien mesederako dela.

% 75en ustez, prozesuak kalitate “ona” edo “bikaina” du, eta berriz erabiliko lukete etorkizunean gatazkarik izango balute. % 82,5ek diotenez, akordioak betetzen ari dira.

Bitartekotza arloko profesionali eta operadore juridikoei egindako inkestak agerian jarri du oso aldeko balorazioa egin dela: % 52k uste dute eragin konpontzailea duela harreman pertsonaletan. % 91k baikor ikusten dute bitartekotzaren etorkizuna Euskadin.

Euskal administrazio publikoak ahalegin handia egin du kalitateko bitartekotza eta justizia konpontzailea eskaintzeko. Erakundeen apustu irmo horri esker, eta arlo horretako profesionalak burututako lanari esker, zerbitzuok sendotu egin ahal izan dira eta EAE horrelako zerbitzu publikoen erreferente bilakatu da, Estatuan nahiz nazioartean.

Administrazioak aurrera egin behar du arlo honetan ikuspegi bateratua lortzeko, sailen eta erakundeen arteko koordinazio eta plangintza estrategietan oinarrituta. Zeharkako ikuspegia behar da, dauden baliabideak ikusgarri egiteko.

Bitartekotzari buruzko araudi orokor bat behar da, Europako oraingo joeran txertatuko dena eta Euskal Herriko Familia Bitartekaritza buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legean hasieran aurreikusi ziren eremuak zabalduko dituen.

Herritarrek bitartekotza-baliabideak eta gatazkak konpontzeko beste bide batzuk ezagut ditzaten sustatu beharko litzateke.

Bitartekotza honela ikusi behar da: **gizarte osoarentzat baliabide erabilgarria,** guztiek eskura dutena eta alderdien interesetarako balio duena, bizikidetzaren hobea izateko eta gizartearen bakea hobeto ezartzeko.

Egiatzatu da euskal administrazio publikoak, bitartekotza-zerbitzuak dituen arren, tresna horiek ez dituela erabiltzen bere barruko eremuan sorturiko gatazketan, ezta ere herritarrekiko harremanetan pizten direnetan.

2. Ikerketa bekak

Ararteko erakundeak hainbat urtez iragarri izan ditu **ikerketa-bekak** giza eskubideen arloan. Horrela, bere eginkizunekin bat etorritik, diziplina arteko ikerlana bultzatu nahi izan du giza eskubideen arloan, gure autonomia erkidegoaren lurralde esparruan. Beka horien helburua da giza eskubideak Euskadin zenbateraino ezartzen diren ikertzea, egoerarik txarrean dauden gizarte-taldeetako bati dagokionez.

2.1. EAeko errefuxiatuei buruzko Arartekoaren ikerketa-beka

Arartekoarentzat betebeharrak bat da euskal biztanleak gaitz hauen gainean sentsibilizatzea: zer-nolako erronka den migrazioaileak hartzea, zenbaterainoko arazoak sortzen diren horien eskubideak benetan gauzatzeko, eta zer erantzun dagoen zenbait instantziatatik.

Instantzia horien artean daude euskal administrazio publikoak ere. Horregatik, gizarteko talde kalteberenen giza eskubideak Euskadin nola ezartzen diren ikertzeko bekaren esparruan, Hautaketa Batzordeak (Arartekoko eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkariak osatutakoa) interesgarritzat jo zuen EAEn errefuxiatutako pertsonen egoerarekin lotutako proiektua, Sofia Lucas, Simona Sobotovicova eta Casilda Zarauz ikerlariek aurkeztutakoa.

Horren bidez aztertu nahi zen Euskal Autonomia Erkidegoak zer zeregin betetzen duen nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak hartzean eta babestean, legez zer eskumen eman dizkioten, zer politika publiko garatu diren eta ea politika horiek betetzen dituzten errefuxiatuak hartzeko baldintzen estandarrak; euskal administrazio publikoek zer-nolako laguntza ematen dioten harrera-sistema orokorrari; zeintzuk diren agian gertatzen ari diren edo gomendagarriak izan litezkeen esperientziak eta jardura egokiak, gizarte zibilak bultzaturiko elkartasun-ekimenak berariaz aipatuz.

Txosten hau ixteko datan, bukatuta dago ikerketa-lana. Beran, 31 ondorio eta hobetzeko proposamen ugari bildu dira eta 2020ko lehen hilabeteetan argitaratu eta aurkeztuko da.

2.2. Arartekoaren beka, sexu-esplotazioa helburu duen pertsona-salerosketari buruzko ikerketa egiteko

Sexu-esplotazioa helburu duen pertsona-salerosketaren fenomenoak, Euskadin ere gertatzen da, ditugun datuak oso mugatuak eta adierazgarritasun gutxiak izan arren. Hori guztia dela eta, Arartekoaren zaurgarritasun bereziko gizarte taldeen giza eskubideak Euskadin aplikatzeari buruzko ikerketarako bekaren markoan, Ararteko erakundearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkariak osatutako aukeraketa-batzordeak interesgarritzat jo zuen Izaskun Orbegozo Oronoz ikerlari andreak aurkeztutako ikerlana.

Ekimen horren bidez, pertsona-salerosketaren biktimen egoera aztertu nahi izan zen, diziplina anitzeko ikuspegitik eta giza eskubideen ikuspuntutik. Ikerlanaren ardatz nagusia sexu-esplotazioa helburu duen pertsona-salerosketa bada ere, askotariko salerosketa egoerak ere aztertzen dira. Ikerlanean sexu-esplotazioa helburu duten salerosketaren EAeko egoera deskribatzen da, baita arazoari aurrea hartzeko, detektatzeko eta biktimak babesteko politika publikoak eta erakunde, gizarte eta elkarte mailako programak ere. Araudia eta protokoloen aplikazioa, gizarte-eragileekin eta erakundeekin lankidetzan-harreman estua, baita izaten diren, izan daitezkeen edo komenigarriak diren esperientziak eta

jardunbide egokiak ikerlanaren parte dira, emakume horiekin lan egiten duten elkarteek sustatutako elkartasun ekimenei buruzko berariazko aipamenak bezala; ekimen horiek maila goreneko eragileak dira, emakume horiek babesteari dago-kionez.

Ikerlana amaitu egin da; 24 ondorio jasotzen ditu, eta 26 hobekuntza proposatzen ditu. 2020ko lehenengo hilabeteetan argitaratuko da.

3. Arartekoaren udako ikastaroa



EHUren Uda Ikastaroen XXXVIII. edizioan, Arartekoak honako izenburuko ikastaroa antolatu zuen uztailaren 4an eta 5ean, Donostiako Miramar jauregian: **“Pertsonen eskubideak bizitzaren bukaeran”**.

Oraingo gizarteek, alegia, gizarte-ongizatearen kulturaren maila aurreratua duten gizarteek, gero eta maizago egin beharko diete aurre biztanleak zahartzeari eta horrek osasun-arloan ekar ditzakeen ondorioei: besteak beste, min kronikorako tratamendua behar duten gaixoen ugaritzea. Hori guztia medikuntzak eta teknologiak etengabe aurrera egiten duten egoeran burutu beharko dute, izan ere, horiei esker, bizitza luzatzen edo mantentzen ari da, orain urte gutxi arte pentsaezina zen moduan.

Aldi berean, hori bezain garrantzitsua den gauza bat aipatu behar da: gizartean gero eta sentikortasun eta kontzientzia handiagoa dago pertsonaren askatasuna eta duintasuna errespetatu eta gaixoen eskubideak betetzearen gainean. Gai horixe kokatu behar da edozein terapia- edo laguntza-erabakiren erdian, gaixoen borondatearen autonomia babestuz. Beraz, aldatu egin dira harreman klinikoaren balioak, eta orain harremanak gaixoaren banakotasunera moldatu behar du. Horren ondorioz, informazioa eman behar da eta gaixoari onespina eskatu behar zaio. Aldi berean, eskubide berriak azalratzen ari dira gaixoen, haien senideen eta haien laguntzen dieten profesionalen duintasuna babesteko, gaitzak dirauen bitartean eta, oso bereziki, bizitzaren bukaeran.

Arartekoak *Arinduz* Zainketa Aringarrien Euskadiko Elkar-tearekin elkarlanean antolatu duen ikastaroaren helburua profesionalen artean bizitzaren amaieran dauden pertsonen eskubideei buruzko hausnarketa egiteko eta iritziak trukatzeko gune bat sortzea izan da. Horretan oinarrituta, pertsona bati gerta dakizkiokeen hainbat egoera eta behar duen arreta motak aztertu dira, arlo askotako erabakiak hartzeko

prozesua barne: lege eta medikuntza arloetako erabakiak, baimen informatua, tratamendu aringarriak, familiakoei laguntzea eta abar).

Jarduera hasteko, bizi prozesu horri eta bere ezaugarriei heltzeko marko etikoari buruzko hausnarketa bat egin zen, Mabel Marijuán bioetika irakasleak garatua, eta jarraian, lehenengo mahai-inguruan, zainketa aringarrien kontzeptua bere konplexutasun osoan aztertzeari ekin zitzaion; halaber, dauden baliabideak eta EAEko herritarren aukerak —baliabide horiek eskuratzeko— aztertu ziren. Mahai-inguruan honako hauek hartu zuten parte: Rafael Mota Vargas, Zainketa Aringarrien Espainiako Elkartearen (SECPAL) presidentea; José Luis Quintas (Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila), Julio Gómez (Arinduz elkartearen ordezkaria) eta Brígida Argote (Lakua Egoitzako zuzendaria).

Lehenengo eguneko goizaren lehenengo zatian, interesgune nagusiak, hain zuzen ere, honako hauek ziren: erabakiak hartzeko prozesua, norberaren autonomia ardatz hartuta, funtsezko elkarrizketak eta ahalegin terapeutikoaren mugak. Horretarako eraturako mahai-inguruan, honako hauek parte hartu zituzten beren iritziak: María Jesús Goikoetxea, giza eskubideetan doktorea; Iñaki Saralegui, Arabako ESIlko Laguntzaren Etika Batzordeko burua; eta Pablo Iglesias, Etxeko Zainketa Aringarrien Unitateko medikua. Arratsaldean, “Los demás días” pelikula ikuskatzean hartu genuen parte, Pablo Iglesiasek (protagonistak) kontatutako egiazko egoerak hurbiletik ezagutzeko.

Bigarren eguneko goizean izandako lehenengo mahai-inguruan, pertsona orori bizitzaren amaieran dagozkion eskubideei buruzko araudiaren esparrua nazioarteko, Europako, estatuko eta autonomia mailakoa— berrikusi zen, baita jardunbide egokiak ere. Hona hemen, mahai-inguruko parte-hartzaileak: Peter Tyndall (Irlandako Ombudsman); Juan José Bestard, Madrilgo Abokatuen Elkargo Ohoretsuko Zuzenbide Sanitario eta Farmazeutiko Ataleko burua; eta Fátima Ansotegi Elordi, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea.

Pazientea artatzearen alderdi espiritualak eta emozionalak aintzat hartzea eta gaixoei zein familiakoei laguntzea azken bi mahai-inguruetan jorratu ziren.

Hain zuzen ere, IV. mahai-ingurua abagune bihurtu zen, batetik, osasun- eta gizarte-arretarako sistemako zentroetan gaixoen duintasuna babesteko eraturako tresnetako batzuk sakonago azaltzeko (horretarako, ekarpenak egin zituzten Lori Thompson psikologo klinikoak, eta Marina Martínez medikuntza aringarrian adituak); eta bestetik, errukian oinarritutako laguntza profesionalaren jardunbideak ezagutzeko, Silvia Fernández Campos Nirakarako Heriotzan Laguntzea programaren zuzendariaren eskutik.

Ikastaroaren azken mahai-inguruan, gaixoei laguntzeko antolakundeek erakundeen, herritarren eta gizarte osoaren eskura jartzen dituzten jardunbide egokiak —familiei lagunduz eta gaixoei lagun eginez, bizitzaren amaierako eskubideak babestea helburu dutenak— ezagutzeko aukera agertu zen; horretan parte hartu zuten Maider Grajalesek (Getxo Zurekin

proiektuaren arduradunak), Iñaki Peñak (Zarautz Herri Zain-tzailea elkarte), Julio Gómezek (Santurce Cuidadora) eta Estibaliz Gutiérrezrek (Vivir Con Voz Propia zerbitzuaren ize-nean).

4. Ararteko erakundea jarduten hasi zenetik 30 urte bete direla eta burututako jarduerak

Erakunde honen 30 urteko ibilbidean, zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak bilakaera izan du, eta eskubide-askatasunak bermatzeko bidean antzeman diren gabeziei erantzun behar zaiela ikusi da; izan ere, eskubideak eta askatasunak ez dira adierazpen formal hutsak, baizik eta benetako bete-behar onuragarriak botere publikoentzat.

2019an barrena, hainbat jarduera eta ekitalditan, Arartekoak gogora ekarri du zein den bere izateko arrazoia orain eta hemen, baita bere ibilbideko gertakirik aipagarrienak ere.

4.1. Apirilaren 2ko ekitaldiak Bizkaiko Abokatuen Elkargoan: hitzaldia Helena Malenorekin, giza eskubideen defendatzailea eta “Caminando Fronteras” elkartearen sortzailea baita, eta “Ikuspuntuak” giza-eskubideei buruzko argazki erakusketa



Urtemuga horren inguruan programatutako jardueren artean, apirilaren 2an, **Helena Malenok** “El naufragio de los derechos humanos” izenburuko hitzaldia eman zuen. Maleno andrea giza eskubideen defendatzailea da, kazetaria eta “Caminando Fronteras” elkartearen sortzailea. Migrazio mugimenduak, migratzaileen eskubideak eta ekintza humanitarioak izan zituen hizpide.

Hitzaldia Bilboko Abokatuen Elkargo Ohoretsuko ekitaldi aretoan izan zen.

Ondoren, giza eskubideei buruzko “**Ikuspuntuak**” argazki-erakusketa hasi zen, Winnipeg-eko (Manitoba) Giza Eskubideen Museotik ekarritakoa. Bi zati ditu: “Adierazpen askatasuna” eta “Aniztasuna eta gizarteratzea”.

Erakusketa hori antolatzen Arartekoarekin elkarlanean aritu ziren Bilboko Abokatuen Elkargo Ohoretsua, Kanadaren Espainiako enbaxada eta Kanada Fundazioa.



4.2. Abenduaren 9an Eusko Legebiltzarrean eta Europa Jauregian antolatutako jarduerak



IV

Ospakizunari hasiera emateko, Arartekoak **protokolozko ekitaldi bat egin zuen Eusko Legebiltzarrean**; bertan, Bakartxo Tejeria ganberaren lehendakariak eta mahaikideek harrera egin zieten jarduneko arartekoari, ararteko ohiei eta Francisco Fernández Marugán jaunari (jarduneko Espainiako herriaren defendatzaileari). Manu Lezertuak herritarrak administrazioaren jardunaren aurrean defendatzeko hain garrantzitsua den erakundearen aurretik ararteko izan zirenak gogorarazi zituen: Juan San Martín, Xabier Markiegi, Mertxe Agúndez, Iñigo Lamarca eta Julia Hernández.

Ohorezko liburuan sinadura jarri ondoren, guztiak Gasteizko Europa Jauregira joan ziren, **Iñigo Urkullu** lehendakaria buru zuen erakunde-ekitaldian parte hartzera. Agintariak eta EAEko erakundearen ordezkariak bertaratu ziren, baita gizartearen ordezkari asko eta Ararteko erakundearen inoiz lan egin zuten edo gaur egun lan egiten duten pertsona ugari ere.

Bere hitzaldian, Manuel Lezertuak adierazi zuen 30 urte horietan Arartekoak 180.000 jarduera baino gehiago eginarazi zituela; horietatik 140.000 kezak izan dira, 164 gomendio orokorrak, 36 txosten bereziak eta 174 argitalpenak. Era berean, hainbat gizarte-erakunderekin (700dik gora) harremanetan jarri da Ararteko erakundeak.

Gizartearen arlo desberdinen ordezkari diren gizarte-erakunde horien balioa azpimarratu zuen, erakundeari herritarren benetako arazoak identifikatzen laguntzen dioten “antena” baitira.

Horrez gain, gizarte zibil antolatuaren 10 ordezkari, baita ararteko ohiek ere, bere lekukotasuna ekarri zuten, eta hitzaldietan Ararteko erakundearen ibilbideko mugarrak aipatu zituzten, bereziki baliagarriak izan ziren jarduerak, gizartearentzat erreferentzia bihurtu zirenak.

Amaierako mintzaldian, erakundearen etorkizuneko erronkak aipatzean, arartekoak arazo sortu berriak aipatu zituen, hala nola berdintasunik eza; migrazio behartuak eta gure herrialdera heltzen diren integrazioa; klima-aldaketaren ondorioak; egun batetik bestera aldatu eta ahultzen diren gizarte-eskubideak errespetatzen direla zaintzea.

5. Beste topaketa eta jardunaldi batzuk

5.1. Ararteko erakundearen ekitaldia eta adierazpen instituzionala, zainketa aringarrien nazioarteko eguna dela eta



Urriaren 12an **Zainketa Aringarrien Nazioarteko Eguna** ospatzen denez, “**Zainketa aringarriak: nire zainketa da, nire eskubidea**” goiburupean, Manuel Lezertua arartekoak eta Alberto Meléndezek, *Arinduz* Zainketa Aringarrien Euskadiko Elkartearen presidentek, Bilbon agertu ziren [Ararteko erakundearen adierazpena](#) eta *Arinduz* elkartearen proposamen bat aurkezteko; azken horri dagokionez, gaixotasun aurreratuak eta terminalak dituzten pertsonen eta beren familien eskubideei buruzko proposamena izan da, duintasuna zaintzen duen arretaren inguruan.

Ekitaldi horretan, Ararteko erakundeak eta *Arinduz*ek helarazi nahi diote euskal gizarte eta erakundeei oso garrantzitsua dela gaixotasun larriak dituzten pertsonen bizitzaren amaieran, baita familiei ere, ematen zaien laguntza.

Topaketaren helburua hauxe zen: **euskal gizarteari, oro har, eta erakundeei argi eta garbi helaraztea oso garrantzitsua dela gaixo larriek — bizitzaren amaieran — eta beharrezko laguntza (afektiboa zein materiala) ematen dieten familiei laguntzea.**

Jarraian, arartekoak **erakunde-adierazpena irakurri zuen**; horren bidez, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen (2003)²⁴ Gomendioa gogora ekarrita, azpimarratu zuen, besteak beste, gomendioari jarraikiz, zainketa aringarriak osasun-laguntzako sistemaren osagai integral bihurtu behar direla, eta osasunaren arloko agintari publikoek zainketa horiek pertsona guztien eskura egotea bermatu behar dutela.

5.2. Zigor Arloko Zuzenbideari buruzko XVI. Jardunaldiak José María Lidónen omenez



Azaroaren 7an eta 8an, *Zigor Arloko Zuzenbideari buruzko XVI. Jardunaldiak José María Lidónen omenez* ospatu ziren Bilbon, “**Genero biontzari aurre egiteko politikak eta praktikak berrikustea**” izenburupean.

Edizio honen antolaketan, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaz eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaz gain, Arartekoa eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoa aritu ziren elkarlanean.

Arartekoaren lankidetzak hainbat mailatan nabaritu zen: erakunde-antolaketan (Ararteko erakundeko Gizarte Harremanetako, Azterlanetako eta Modernizazioko zuzendariak zuzendaritza-lanetan parte hartu zuen); arartekoaren ondokoak eta berdintasun ataleko arduradunak eman zuten hitzaldian; eta, oro har, Ararteko erakundeko langile askok parte hartu zuten jardunaldietan.

6. Arartekoaren argitalpenak

6.1. Arartekoak argitara eman ditu 2019ko uztailean egin ziren XXXVIII. Uda Ikastaroetako ponentziak eta materialak. **Pertsonen eskubideak bizitzaren bukaeran**



Argitalpen horretan bildu dira Arartekoak, joan den uztailean Donostiako Miramar jauregian, antolatu zuen ikastaroko ponentziak.

Ikastaro horren bidez, gizartean eta medikuntzan jarrera baikorra sustatu nahi da, gaixotasun aurreratua eta terminala duten pertsonak artatu eta zaintzeari dagokionez. Giza duintasunean eta arreta profesionalean oinarritutako ikuspegitik begiratuta, gaitzaren bilakaera naturala errespetatu nahi da, horretan lagundu, eta gaixoa zaintzearen alderdi espiritualak eta emozionalak aintzat hartu.

Ikastaroan aztergai izan ziren pertsonen bizitzaren amaieran aurrez aurre izan ditzaketen egoerak eta horietan jaso beharreko arreta, erabakiak hartzeko prozesua barne, alderdi guztietan: legedia, alderdi medikoa, baimen informatua, tratamendu aringarriak, senideei laguntzea, etab.

6.2. Arartekoaren jarduera 30 urteko ibilbidean biltzen duen argitalpena



Ararteko erakundearen 30. urtemuga ospatzeko, erakunde honen jarduera —hiru hamarkada horietan— laburbiltzen duen argitalpena prestatu da.

Argitalpenak laburpen estatistikoa jasotzen du: arreta bulegoetan jaso duten pertsonen kopurua, arreta telefonoz jaso dutenen kopurua, kexa kopurua, espediente eta ebazpenen kopuruak eta abar.

Era berean, ararteko guztien kargua hartzeak eta beren agintaldietan burututako ekimenak deskribatzen ditu argitalpenak.

Azkenik, Ararteko erakundeak argitaratutako txostenak zerrendatzen dira, baita emandako gomendio orokorrak ere, eta 30 urte horietan harremana izan dugun gizarte-erakunde zerrenda jasotzen da.

7. Aldizkari digitala



Arartekoak etengabe egiten du apustu berriztatzearen alde, baita herritarrei gure lanaren berri emateko bideak hobetzearen alde ere, eta, horri esker, 2019an “**e-albisteak**” aldizkari digitala sendotu da. Oso tresna erabilgarria da herritarrei erakunde honek gauzatzen dituen jarduera guztien berri emateko. Bi hizkuntzatan argitaratzen da eta erraz irakurtzen da. Aldizkari honen formatua malgua da, eta, bertan, Arartekoaren jarduerarik garrantzitsuenetako batzuk jasotzen dira: gomendioak, artikuluak, argitalpenak, ebazpenak...

Informazio eguneratua eskaintzeaz gain, aldizkari digitalak, era berean, zuzeneko esteken bitartez [web](#) orriko beste eremu batzuetara sartzeko aukera ematen du; adibidez, Haur eta Nerabeentzako Bulegora, arreta publikoko kolektiboetara, ebazpenetara, gomendioetara, ohiko txostenetara eta ezohiko txostenetara.

Gobernuz kanpoko erakundeak eta gizarte zibil antolatua buletin honen xede garrantzitsua dira, baita herri-administrazioak, komunikabideak eta Arartekoak egiten duen lanaren informazio eguneratua izan nahi duten herritar guztiak ere. 2019an 25.000 bidalketa baino gehiago egin ditugu.



V.

atala

Gizartearekiko

harremanak eta erakundeen arteko

lankidetzarako jarduerak

V. Atala

GIZARTEAREKIKO HARREMANAK ETA ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZARAKO JARDUERAK

1. Gizarte erakundeekiko harremanak

Gobernuz kanpoko erakundeak eta antolatutako gizarte zibila, Arartekoaren ustez, euskal gizartearen arazoari begiak eta belarriak dira. Haien informazioari esker, jardunak hasten ditu ofizioz eta politika publikoen ebaluazio egokiagoa egiten du Arartekoak. Horregatik, erakunde honek beti nabarmendu izan du erakunde horiek eta boluntarioek modu konprometituan eta eskuzabaltasunez egiten duten lan baliotsua.

Gizarte esku hartzeko hirugarren sektorea, une honetan, Euskadin pertsonen eskubideen gizarte sistemaren bideragarritasunaren zutabeetako bat da. Orain bizi dugun krisialdi ekonomiko eta sozialean inoiz baino argiago ikusten dugu haien lana zein garrantzitsua den. Era berean, inoiz baino babes publiko handiagoa behar dute haiek beren baliabide ekonomikoei eusteko, horiei esker esku hartzen baitute gizartean. Bidezkoa da hori aitortzea eta gizartearen eta erakundearen aurrean hala aldarrikatzea. Gizarteak eta erakundeek laguntza eman behar diete egunetik egunera eta trukean ezer eskatu gabe beren lanarekin gizartearen eta baztertuen edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen arazorik larrienak beren gordintasun osoan ager daitezen galarazten dutenei. Bazterketa gero eta zifra kezkarriagoak lortzen ari da, eta gizarte-baliabiderik sekula jaso ez zuten pertsona askori eragiten ari zaie pixkanaka; horrela, eraldatzen ari da krisialdia piztu arte zegoen profila, hau da, pobrezia handian zeuden pertsonena.

Arartekoa pertsonen eta pertsonentzat asmatutako erakundea da, euskal administrazioak kontrolatzeko funtzioa herritarren arazoari arabera betetzen baitu. Horrek Arartekoak hiru planotan jardutea dakar:

- Salatutako administrazioak indarrean dagoen legeriaren arabera jardun duen egiaztatzea.
- Administrazioetan jardunbide egokia bultzatzea, herritarren eskubideei arreta hobea emateko eta tratua hobea eta eraginkorragoa emateko.

- Kasuan bitartekari lana egitea. Izan ere, askotan, administrazioak zuzen jokatu duen arren, gure esku hartzearekin, hurbileko tratua emanez, errealitatearen edo jardun den kasu zehatzaren ikuspegi ezberdina eskainiz edo araua modu malguagoan interpretatuz, pertsonen arazo zehatzak konpondu ahal izaten dira, edota berdintasun ezeko, babesik gabeko eta bidegabeko egoerak eragozten dira.

Eginkizun horiek bete eta lortu nahi diren helburuak lortu ahal izateko, gizarte-elkarteak ezinbesteko lankideak dira. Horregatik sustatzen dugu horiekin harreman jarraitua izatea.

2019. urtean erakundearekin bilerak egin dituzten elkarteak eta taldeak

2019. urtean, Arartekoak gizarte eragileekiko harremana zaintzen jarraitu du bere ohiko jardunean. Batez ere, egoera txarrean dauden pertsonen laguntzeko edo askotariko gizarte arazoak konpontzeko lanean aritzen diren elkarte, erakunde eta taldeekin: giza eskubideen aldeko taldeak, atzeritarrei, presoei edo baztertuta daudenei laguntzekoak, etxerik gabekoei laguntzekoak eta abar.

Urte hauetako esperientziak erakutsi digu, izan ere, erakunde eta talde ugari giltzarriak izan daitezkeela gure gizarteko sektore baztertuen edo oso ahulen eta Arartekoaren eta halako erakundeen arteko bitartekari lanetan; hala, beren eskubideen eta gatazkak konpontzeko bideen jakitunago egin ditzakete, beren aldarrikapenak adierazteko laguntza eman, administrazioei herritarrentzako zerbitzu arretatsua eman dezaten eskatu, eta, modu horretan, erakundeetan konfiantza handiagoa izateko eta gizarte kohesio handiagoa lortzeko modua egin.

Hala, 2019. urtean, Arartekoak lankidetzaren harremanak izan ditu, estuagoak edo ez hain estuak, honako elkarte, erakunde eta gizarte talde hauekin:

- ADAP – Asociación de Ayuda a Personas Presas (pre-soei laguntzeko elkarte)
- Adostuz. Euskadiko irakasle jubilatuaren elkarte
- Adsis fundazioa
- Anaitasuna Uribitarteko auzokide elkarte
- Arabako abokatuen elkargoa - Atxilotuaren laguntzarako txandak
- Arabako basozainen elkarte
- Arabako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala
- Arrats elkarte
- AVPIOP. Industri ondare eta herri laneko euskal elkarte
- Badian Bizi Elkarte
- Bizitegi
- Bizkaiko abokatuen elkargoa
- Bizkaiko basozainen elkarte
- Cáritas Euskadi
- Eguzki
- EIGEF (Euskadiko Ikasleen Guraso Elkarten Federazioa)
- Ekologistak Martxan Araba
- Ekologistak Martxan Bizkaia
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa
- Elkartean
- Etorrintza fundazioa
- Etxerat
- Euskadi Lan Harremanen Kontseilua
- Euskadiko amiantoaren biktimen elkarte
- Euskadiko Diabetes Elkarten Federazioa
- Euskadiko otso taldea
- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
- Euskal Herriko homeopatiaren erabiltzaile eta lagunen elkarte
- Euskalit
- FECAPP
- Foro Soziala
- Gipuzkoako abokatuen elkargoa
- Gipuzkoako Basozainen Elkarte Profesionala
- Goiztiri
- Gurutze Gorria
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia
- IALC
- Irakasle ez diren garbiketako langileak (lanpostu hutsean daudenak)
- Iresgi – Gizarteratze eta Biktimologiako Euskal Institutua
- Itsas salbamendu humanitarioa
- Izan fundazioa
- Jaizkibel Konpainia
- Jupol sindikatua
- Kaleratzeak Stop
- Kidetza
- Lautadako AHT Plataforma
- Loiola etxea
- Makroepaiketa 11/13
- Meatzalde Bizirik
- Munduko medikuak
- Ripa kaleko auzokideak

- Salhaketa
- Sare
- Save the Children
- Sidalava
- Susterra
- Terrorismoaren Biktimen Kolektiboa
- UNICEF
- Urdaneta Ordiziako eskola publikoko familien elkarte
- Yurrita errota sustatzeko elkarte
- Zadorra Bizirik
- Zubietxe
- Zubiko elkarte

Txosten honetako III. ataleko arreta publikoko kolektiboen arloetako ataletan, erakunde horiekiko lankidetzari buruzko erreferentzia zabalagoak daude.

2. Estatuko herriaren defentsa-erakundeei loturiko jarduketak

2.1. Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXXIV. Jardunaldiak



Manuel Lezertua arartekoak, haren ondokoa den Julia Hernándezek eta erakundeko beste hainbat ordezkari Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXXIV. Jardunaldietan parte hartu dute urriaren 15ean, 16an eta 17an. Sevillan eta Tarifan egindako jardunaldi horietan honako hau jorratu dute: *“Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei arreta ematea”*.

Topaketa honen esparruan, gizakien salerosketari, asiloari eta nazioarteko babesari buruz hitz egiteko mahai-inguru bat moderatu du arartekoak, non Gurutze Gorriko, CEAREko eta Sevillako Atzerritarren Brigadako hainbat ordezkari parte hartu duten.

Defendatzaileen aburuz, fenomeno oso konplexu baten aurrean gaude, adingabeek zaugarritasun-egoera berezia bizi dutelako, administrazio askok esku-hartzen dutelako eta, baita ere, gizartean oihartzun handia izaten dutelako. Adingabeen babeserako sistemak modu integrean eta

espezializatuan eman behar die arreta adingabeei, beharri-
zan bereziak dituztelako.

Era berean, herriaren defendatzaileek ondokoa bermatu be-
har dela uste dute: adingabeei arreta emateko erantzukizuna
daukaten administrazioen jarduketaren bidez adingabeen
interes nagusiei erantzutea, betiere atzerritarrek baino lehen
haurrak direla kontuan hartuta.

Herriaren defendatzaileek adierazpenak egin eta ADMINIS-
TRAZIO PUBLIKOEI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK adostu
dituzte. Hona hemen horien laburpena:

- 1) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei arreta emateko
plan estrategiko nazional bat egitea, zeinak jatorrizko
herrialdeekin lankidetzan aritzeko hitzarmenen oinar-
rizko diseinua, ebaluazioa eta finantzaketa barne har-
tuko dituen eta modu integratuean jorratuko dituen pre-
bentzioa, babes- eta, kasuan-kasuan, itzulera, betiere
adingabeen interes nagusia bermatuz.
- 2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarren erregistroan ho-
bekuntzak egitea, baita administrazio zentralak autono-
mia erkidegoen ekarpenen laguntzarekin sortzen dituen
datuak eta estatistikak biltzeko prozesuetan hobekun-
tzak egitea ere.
- 3) Bakarrik dauden adingabe atzerritarren adina ebalua-
tzeko prozedurak erregulatuko dituen Gobernu Dekretu
bat onestea, Haurren Eskubideen Batzordeak egindako
oharrak eta aplikatu beharreko gainerako araudia eta
gomendioak kontuan hartuta. Arau hori autonomia erk-
kidego bakoitzak garatu beharko du araubideari jarraiki.
- 4) Bakarrik dauden adingabe atzerritarren tutoretza era-
kunde publikoek beren gain har dezatela berehala, adin-
gabea identifikatzeko eta bere babesgabetasun-egoera
egiaztatuzko behar den denboratik haratago luzatu
gabe egitatezko zaintza.
- 5) Autonomia erkidegoek sortzen dituzten baliabideak
bete beharko dituzten oinarrizko kalitate-irizpideak
ezar ditzala Estatuko Administrazioak, horrela, adin-
abeei eman behar zaien berehalako arretak haurrei eta
nerabeei aitortutako eskubideak errespetatzen dituela
bermatzeko. Horrez gain, honako gomendio hau eman
dute: autonomia erkidegoek larrialdietako zentroetan
artatutako adingabeak baliabideen sare arruntera bide-
ratu ditzatela, behin mota horretako zentroen helburuak
bete direnean.
- 6) Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe atzerr-
itarren beharri- eta babesgabetasun-egoera egokitzea,
alderdi kuantitatiboetako nahiz kualitatiboetako dagokien-
ez; eta mota guztietako zentroekin (larrialdiak, lehen ar-
reta, emantzipaziorako prestakuntza etab.) behar bezala
hornitutako zentro-sare bat konfiguratzeko, horrela, haur
horien beharri-aldakor eta ebolutiboetako egokitutako
ibilbideak ahalbidetzeko, betiere haurren interes nagi-
sari erantzunez. Halaber, egoitza-harreraz gain beste
programa batzuk sustatzeko eta aurrera eramateko
proposatu dute (familia-harrerak, familia kolaboratzaileak,
besteak beste).
- 7) Atzerritarrei buruzko Legearen erregelamenduan al-
daketak egitea sustatzea, tutoretzapeko adingabe
atzerritarrei egoitza-baimena eskuratzeko eskubidea
mugatzen dien interpretazio murriztailea ezabatzeko.
Horrez gain, gomendatu dute hamasei urtetik gorako
tutoretzapeko adingabeen nortasun-txarteletan lan egi-
teko baimena daukatela adierazi dadila, beste izapide
administratiborik egin behar izan gabe.
- 8) Adin-nagusitasunera iritsi diren tutoretzapeko adingabe
izandakoei arreta emateko plan estrategiko autono-
mikoak egitea eta azterlanak gauzatzea, tutoretzapean
egondako adingabeei (nazionalak eta atzerritarrek)
arreta emateko arazoaren tamaina zein den jakin ahal
izateko. Horrez gain, Atzerritarrei buruzko Legearen
erregelamendua aldatu dadin gomendatu dute, hartara,
egoitza erregularizatua daukaten eta heldutasunerako
trantsizio-prozesu batean parte hartzen ari diren tuto-
retzapean egondako atzerritar gazteek lan egiteko bai-
mena eskatu ahal dezaten aparteko inguruabarrengatik.
- 9) Salerosketaren biktime izandako adingabeak identi-
fikatze protokoloak sakonean berrikustea eta biktime
horiei arreta emateko programa autonomikoak ezar-
tzea, Europar Batasunaren Funtsezko Eskubideentzako
Agentziak ezarritako irizpideei (2015) jarraikiz. Era be-
rean, nazioarteko babesari eta asiloari buruzko lege-
ria nazionalen ACNURen eta UNICEFen gidalerroak
(adingabeen nazioarteko babes-eskaerei buruzkoak)
barne hartu daitezkeen gomendatu dute.
- 10) Administrazioei eskatu diete erantzukizunez jardun
daitezela eta dagokion Konferentzia Sektorialarekin
beharrezkoak diren akordioak formalizatu ditzatela,
hartara, autonomia erkidegoen artean bakarrik dauden
adingabe atzerritarrek modu solidarioan, ordenatuan
eta justuan banatzeko neurriak aztertze lanetan
aurrera egiteko eta neska-mutil horien interes nagi-
saren onerako.



Topaketa honen baitan, halaber, bakarrik dauden haur atzerritarren defentsarako herriaren defendatzaileen adierazpena sinatu dute Tarifan.

Espainiara iristen diren familia-erreferenterik gabeko haur eta nerabe horiek zaurgarritasun- eta babesgabetasun-egoera berezia bizi dute. Esfera fisikoari ez ezik, funtsean, esfera psikologikoari eta emozionalari eragiten dieten beharri- eta

dituzte; horrenbestez, lehen arreta integrala eta espezializatu jaso behar dute. Kolektibo hori oso heterogeneoa da eta euren arreta- eta babes-beharrizanak banan-banan tratatu behar dira.

Herriaren defendatzaileek eskatu dute, besteak beste, adingabeen inguruan hartzen diren erabaki guztietan adingabeen interes nagusiari erantzuna emateko, atzerritarrak baino lehen haurrak direla kontuan hartuta.

Botere publikoei eskatu diete kolektibo horri arreta emateko orduan haurren babeserako ikuspuntua baliatu dadila, Haurraren Eskubideen Batzordeak emandako gidalerroak bere gain hartuz.

Horrez gain, bakarrik dauden gazte eta nerabe atzerritarren kriminalizazioaren aurkako iritzia agertu dute; ildo horretatik, komunikabideei, erakunde publiko eta pribatuei eta, oro har, herritarrei sentikorragoak izan daitezen eskatu diete, informazio faltsu eta alderdikoen bidez ez dadin sustatu aztoramendu soziala eta gazte horien estigmatizazioa.

2.2. Bilera egin du Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren Emakumeen Defentsa-erakundearen Sareko Europako eskualdeak: *Sexu- eta ugalketa-eskubideak eta indarkeria obstetrikoa*



Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren Emakumeen Defentsa-erakundearen Sareko Europako eskualdeko kideak Gasteizen bildu ziren 2019ko ekainaren 13 eta 14an. Bertan, lan-jardunaldiak egin ziren, sexu- eta ugalketa-eskubideak eskualde horretan zer egoeratan dauden aztertzeke. Julia Hernández arartekoaren ondokoa da sare horren Europako eskualdeko koordinatzailea. Sareak denbora luzea darama topaketa horretan aztertu diren gaiak lantzen.

Sexu- eta ugalketa-eskubideak oinarritzko giza eskubideak dira eta osasunerako giza eskubidearen zati bat, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Bilkuran onartu zenez (Kairo, 1994).

Indarkeria obstetrikoa, berriz, emakumeen gorputzean eta ugaltze-prozesuetan egiten den indarkeria da, eta ez da indarkeria fisikoa bakarrik, baizik eta baita indarkeria psikikoa ere. Haurdun dauden emakumeenganako gizatasunik gabeko tratuan ikusten da batez ere, eta osasun sexualean, haurdunaldian, erditzean eta erditu ostean azaltzen diren jokaera mehatxatzaileetan.

Jardunaldieta ateratako ondorioetan, parte-hartzaileek nabarmendu zuten sexualitatearen garapena eta ugaltzeko ahalmena zuzenean lotuta daudela norbanakoaren duintasunarekin eta nortasuna aske garatzearekin, eta oinarritzko eskubideen bitartez babestuta daudela, bereziki norberaren eta familiaren osotasun fisiko nahiz morala eta intimitatea bermatzen dutenen bitartez.

2.3. Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren XXIV. Kongresua: *“Genero-indarkeria eta berdintasuna”*



Julia Hernández arartekoaren ondokoa **Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (OIF)** topaketa horretan parte hartu zuen, Brasilen, azaroaren 28an eta 29an.

Emakumeen Defentsa Erakundearen Sarea —OIFen mendeko organoa da— esperientziak trukatzeko gunea da, eta Latinoamerikako milioika emakumeri eragiten dieten bazterketa-faktoreak ezabatzeko proposamenak egiten dira han.

Aurten, genero-indarkeria eta berdintasuna jorratu dira topaketa horretan, eta parte-hartzaileek ohartarazi dute aurrerapen handia egin dela gizonen eta emakumeen berdintasunaren arloan, baina oraindik bide luzea egin beharra dagoela berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko.

Argi dago desparekotasun horren adierazpenik garrantzitsuenetako bat da genero-indarkeria dela, eta ez soilik ingurune afektiboan egiten dena, baizik eta emakumeen aurka emakumeak izate hutsagatik egiten den edozein motatako indarkeria.

OIFen Emakumeen Defentsa Erakundearen Sareko kideek [adierazpen instituzionala](#) egin dute, eta azpimarratu dute, genero-indarkeriaren biktimen diren emakume askok salaketa jartzen ez dutenez, prebentzioa eta sentsibilizazioa landu eta eskubideak sustatu eta babes integrareko sistemak sortu beharra dagoela, isiltasunaren kultura deuseztatzeko.

Emakumeen Defentsa Erakundearen Sarearen koordinatzaile nagusi izendatu zuten.

3. Beste jarduera batzuk

Arartekoaren eta haren ondokoaren jarduerarik esanguratsuenak, hitzaldiak emateari dagokionez, eta administrazioek eta gizarte erakundeek antolatutako ekitaldietan parte hartzeari dagokionez

Baloreak eta giza eskubideak sustatzeko lanean, Arartekoaren erakundeak urte osoan zehar jarduera ugari gauzatu ditu, adibidez, gizarte-erakundeek antolatutako ekitaldietan parte hartzen du, giza eskubideekin lotutako gaien inguruko foroetan hitzaldiak egiten ditu, erakundearen helburuekin estuki lotuta dauden ekitaldi instituzionaletan esku hartzen du, etab.

Jarduera horien guztien katalogoa [web orrian](#) [dagokion atalean](#) kontsulta daiteke.

Ondoren, **Manuel Lezertua arartekoak garatutako hainbat jarduera** jaso dira, VI. Kapituluaren aipatu direnak osatzeko. Izan ere, azken horretan honako jarduera hauek jaso dira: giza eskubideak nazioarteko eremuan sustatzeko garatutakoak; V. kapituluaren Espainiako herriaren defendatzaileekin zerikusia dutenak; eta txosten honen IV. kapituluaren jasotakoak, Arartekoaren antolatutako jardunaldiak loturikoak:

Agerraldiak Eusko Legebiltzarrean:

- 2018ko urteko txostena Eusko Legebiltzarreko lehendakariari ematea. 2019-04-03.
- Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoko Batzardea. 2019-04-10. Arartekoaren agerraldia, administrazio publikoaren zehatzeko ahazari buruzko lege-proiektuari dagokionez ekarpenak egiteko.
- Lan eta Justizia Batzardea. 2019-05-29. Arartekoaren agerraldia, ekainaren 30eko 7/2015 Legea —gurasoen banantze edo haustura kasuetarako familia harremanei buruzkoak— aldatzeko lege proposamenaren gainean oharak egiteko.
- Giza Eskubide eta Berdintasun Batzardea. 2019-06-03. Arartekoaren urteko txostena, 2018. urteari dagokiona, aurkeztea.

- Giza Eskubide eta Berdintasun Batzardea. 2019-06-03. Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren 2018. urteko txostena aurkeztea.
- Eusko Legebiltzarrearen Osoko Bilkura. 2019-10-24. Arartekoaren 2018. urteko txostena aurkeztea.
- Agerraldia Legebiltzarreko Ponentziaren aurrean, zeina Osakidetzako langileen gaineko politika eta hautaketa-prozesuak aztertze osatu baitzen. 2019-09-19.
- Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzardea. Ekarpinak diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko lege proposamenari buruz. 2019-10-09.
- Erregelamendu eta Gobernu Batzardea. 2019-12-13. Ararteko erakundearen 2020rako ohiko aurrekontuaren proiektua aurkeztea.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Batzardea. 2019-12-10. Ekarpinak Euskadiko ingurumen administrazioari buruzko lege proiektuaz.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekotza egitea* izenburuko txosten berezia Eusko Legebiltzarreko lehendakariari ematea. 2019-12-17.

Arartekoaren esku-hartzeak:

- 2019ko urtarrilaren 21ean eta 22an Eusko Legebiltzarrak “Legeen geroa” II. Mintegia egin zuen, Gizarte Zerbitzuen Legearen 10. urteurrena joratzeko. Manuel Lezertuak “Gizarte-zerbitzuak: Arartekoaren ikuspegia” izenburuko mintzaldiarekin hartu zuen parte.
- Otsailaren 27an, Deustuko Unibertsitatean antolatutako jardunaldiaren esparruan, Arartekoak hitzaldi honetan parte hartu zuen: “Justiziaren mekanismoak eta balioa Europan”.
- EHUren Oinarrizko Eskubideak eta Botere Publikoak masterrean hizlari gisa parte hartzea, maiatzaren 15ean.
- *European Forum for Restorative Justice* (EFRJ) foroak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailarekin eta Deustuko Unibertsitatearekin batera antolatutako Justizia Errestauratiboaren Nazioarteko I. Sinposioari amaiera emateko ekitaldian esku hartu zuen, iazko ekainaren 6an.
- “Herriaren Defendatzailearen erakundeari buruzko Veneziako printzipioak” izeneko seminarioaren programaren baitan (ekainaren 13an egin zen, Ikasketa politiko eta konstituzionalen zentroan), arartekoak honako mahai-inguru honetan parte hartu zuen: “Veneziako Printzipioak kontuan hartuta funtsezko eskubideak babesteko erakundearen etorkizuna”.
- Vitepaz terrorismoaren biktimen bakearen aldeko elkar-teak, urriaren 22an, Ignacio Aldecoa Kultur Etxean, antolatutako “Bakearen kultura terrorismoaren biktimengan” izeneko jardunaldian, arartekoak amaierako esku-hartzea eskaini zuen.
- Urriaren 24an, Espetxe-sistemaren kudeaketa federalaren gaineko mintegia egin zen Bizkaia Aretoan, Giza Eskubideen eta Botere Publikoaren EHUko Unesco Katedrak

antolatuta. Hori zela eta, arartekoak mahai-inguru honetan parte hartu zuen: “Espetxeak Euskadin: egoera-balantzea eta etorkizuneko erronkak Arartekoaren ikuspuntutik”.

- Manuel Lezertua arartekoak hasiera eman zion, abenduaren 2an, Donostian, “**Europako Kontseiluaren 70. Urteurrena: Giza Eskubideak eta Demokrazia**” izenburuko jardunaldiari. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza Sailaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak antolatu zuen.
- “Bubi gutxiengoa: bere errealitateari buruzko hausnarketak” izenburuko jardunaldia, Bilboko Euskalduna Jauregia, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen EHUko Unesco Katedrak antolatuta. Arartekoak hasierako saioan parte hartu zuen, 2019ko abenduaren 3an.

Ekitaldietara joatea:

- Emakunderen jardunaldia: “Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei ematen zaien arretaren nazioarteko kalitate estandarrei buruzko programa”. Lehendakaritza. 2019-01-09.
- Altun mendia 1937-2017 oroimen-ekitaldia. Gogora institutua. 2019-01-10.
- René Cassin-i Bakearen Nobel saria eman zioteneko 50. urteurrena ospatzeko ekitaldia. Estrasburgo. 2019-01-18.
- Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna. Lehendakaritza. Alderdi Ederreko lorategiak. Donostia. 2019-03-11.
- “La mirada del otro” antzerkia. Bilbo. 2019-06-05.
- Kontzertua, Fronteras del Conocimiento sariak zirela eta. Euskalduna Jauregia. Bilbo. 2019-06-17.
- Fronteras del Conocimiento sariak banatzeko ekitaldia. Euskalduna Jauregia. Bilbo. 2019-06-18.
- IALC. Protecting Linguistic Minorities, Building Stronger Societies: The Language Commissioner Model of Human Rights Protection. Toronto. 2019-06-26tik 28ra.
- Arabako foru diputatuak lanpostuaz jabetzea. 2019-07-08.
- Frantziako Errepublikaren Jai Nazionala. Sociedad Bilbaina. 2019-07-12.
- EHUko ikasturte akademikoari hasiera emateko ekitaldia. Gasteiz. 2019-09-11
- Europa Saria 2019 banatzea. Donostiako Udala. 2019-09-19.
- Euskadiko poliziaren buruzagi nagusia lanpostuaz jabetzea. Gobernuaren Ordezkaritza. 2019-09-23.
- Merced Eguna. Arabako espetxea. 2019-09-24.
- Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Mikel Mancisidorren sarrera. Bermeo. 2019-09-26.
- Forum Europa. Iñigo Urkullu. Bilbo. 2019-09-30.
- Urte judizialari hasiera emateko ekitaldia. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia. Bilbo. 2019-10-04.
- Emakume profesionalak eta gizarte-eraldaketa. Bilbo. 2019-10-10.

- Aubixa Fundazioa. “Euskadi jasangarria: zainketa-herrialde baterako belaunaldien arteko itun berri baten alde”. Donostia. 2019-10-19.
- Gernikako Estatutua sinatu zeneko 40. urteurrena ospatzeko ekitaldia. EITB. Bilbo. 2019-10-21.
- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 30. urteurrenaren ospakizuna. Lehendakaritza. 2019-11-20.
- Immigraziorako itun soziala. Lehendakaritza. 2019-11-30.
- Euskararen Nazioarteko Eguna. Euskalduna Jauregia. Bilbo. 2019-12-03.
- EITB maratokia. Bilbo. 2019-12-10.
- Erbesteratutako lehendakariari omenaldia. Gernika. 2019-12-15.
- Iñigo Urkullu lehendakariak euskal gizarteko ordezkariari harrera egiteko ekitaldia. Lehendakaritza. Gasteiz. 2019-12-20.

Julia Hernández Valles arartekoaren ondokoak egindako jarduerak, txostenaren beste atal batzuetan agertzen ez direnak:

- Datuen babesari eta legegintza-ganberei buruzko jardunaldia. Eusko Legebiltzarra. 2019-01-18.
- Bilera Erandioko Tartangarekin (lanbide-heziketako zentro integratua). 2019-01-21.
- *Víctimas contra el terrorismo* liburuaren aurkezpena. Gasteizko unibertsitateko campusa. 2019-01-22.
- Mugarik Gabe. Memoria Eraikiz ekitaldia. Andre Maria Zuriaren plaza. 2019-02-08.
- ONCE. Lurralde Kontseiluko presidente berriaren aurkezpena. 2019-02-12.
- Abagunea elkartarekin bilera. “Paulo Freire” HHI ikas-kuntza-erkidegoa. 2019-02-15.
- Zirgari sariari epaimahaia. 2019-02-19.
- Fernando Buesa Fundazioa. In memoriam. Artium museoa. 2019-02-21.
- Lore eskaintza. Fernando Buesa Fundazioa. Nieves Cano kaleko monolitoa. 2019-02-22.
- Emakumearen Eguneko biltzarra. ONCE Gasteiz. 2019-03-04.
- Emakumearen Eguneko biltzarra. ONCE Donostia. 2019-03-05.
- Zirgari sariak banatzeko ekitaldia. BBK Bilbao. 2019-03-06.
- Isaiás Carrascori omenaldia. 2019-03-09.
- Emakumearen Eguneko ospakizuna. Séneca kultur etxea. 2019-03-10.
- Euskadiko Guardia Zibilaren zonako buruzagi berria lanpostuaz jabetzeko ekitaldia. Sansomendiko kuartela. 2019-03-14.

- Froilán Elesperi omenaldia. Lasarte-Oria. 2019-03-23.
- Juan Priederi omenaldia. Orio. 2019-03-24.
- Tartekari emakume-taldearekin bilera. 2019-03-25.
- RSAP batzarra. UNED. 2019-03-27.
- Gizarte-laneko Estatuko sariak banatzeko ekitaldia. Miramar jauregia. Julio Caro Baroja aretoa. Donostia. 2019-03-29.
- COPE 2019 sariak. Artium museoa. 2019-04-11.
- Berdintasunerako Emakunde saria. Lehendakaritza. 2019-04-16.
- *Resiliencia socialista* liburuaren aurkezpena. Errenteria. 2019-05-03.
- AED enpresa sariak. Bilboko Carlton hotela. 2019-05-07.
- "Ellas resisten" VII. Nazioarteko Poesia Jaialdia. Ignacio Aldecoa Kultur Etxea. 2019-05-17.
- Hirukide familia-jardunaldi solidarioa. Boulevard merkataritza-gunea. 2019-05-25.
- Defentsa Delegazioaren Eguna. Euskal Autonomia Erkidegoko Defentsa Delegazioa. 2019-05-29.
- *Una tumba en el aire* liburuaren aurkezpena. Montehermoso kultur etxea. 2019-05-30.
- Kriskitin lasterketa. Bilbo. 2019-06-08.
- Integraziorako III. Topaketa. 2019-06-08.
- Emakumearen lasterketa. Gasteiz. 2019-06-09.
- "*Sexu- eta ugalketa-eskubideak eta indarkeria obstetrikoa jardunaldian esku hartzea*". Gasteiz. Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren Emakumeen Defentsa-erakundearen Sareko Europako eskualdea. 2019-06-14.
- Extremadurako XXXIII. Jardunaldiak. FAEDE. 2019-06-15.
- Ricardo Mirallesen *Indalecio Prieto. La nación española y el problema vasco* liburua aurkezteko jardunaldia. Eusko Legebiltzarreko Tomás Moro aretoa. 2019-06-24.
- Jardunaldia. "Kooperatiben konpromisoa garapen jasangarriaren helburuekiko". Euskalduna Jauregia. Sala Barria. 2019-07-11.
- Santiago Apostoluaren Eguna, harrera-ekitaldia. Iparreko parkea. 2019-07-25.
- Udaltzaingoa sartzeko oinarrizko ikastaroaren bigarren deialdi bateratuko diplomak banatzeko ekitaldia. Arkaute akademia. 2019-07-30.
- Marokoko Erreinuko kontsul nagusiari harrera egiteko ekitaldia. Bilboko Carlton hotela. 2019-07-30.
- FEEKOR elkartearen jaia. Areatzako parkea. Bilbo. 2019-09-08.
- II. ibilaldi solidarioa: "Tipi-tapa buru osasunaren alde". Espainia plaza. 2019-09-15.
- Euskadiko ONCEren Eguna. Bizkaia Areatoa. Mitxelena aretoa. 2019-09-21.
- Centro Castellano-Leonés. Los Ángeles. 2019-09-22.
- Euskadiko poliziaren buruzagi nagusia lanpostuaz jabetzea. Gobernuaren Ordezkaritza Gasteizen. 2019-09-23.
- Merced Eguna. Arabako espetxea. 2019-09-24.
- Osasunari eta bizimoduari buruzko XIII. jardunaldiak. Gizarte-eraldaketa emakumeen ikuspuntutik: begirada bat etorkizunerantz. EDIREN. 2019-09-26.
- Pertsonen salerosketari eta prostizuoari buruzko jardunaldietan parte hartzea. Emakumeen Defentsa-erakundearen Sarearen Europako Eskualdeak antolatuta. OIF. Tenerife. 2019-10-05 eta 2019-10-06.
- "Etika eta komunikabideak" biltzarra. Villasuso jauregia (Gasteiz). 2019-10-07.
- Osasun Mentalaren Mundu Eguna. Audioko udal-kasinoa. 2019-10-10.
- Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko III. Jardunaldiak Europa Jauregia. Gasteiz. 2019-10-10.
- Pilarreko Andre Mariaren Eguna. Sansomendiko kuartela. 2019-10-12.
- UNEDen ikasturteari hasiera emateko ekitaldia. Gasteiz. 2019-10-24.
- Familia Ugarien IX. Euskal Kontseilua. Europa Jauregia. 2019-10-26.
- Aspanovasen 30. urteurrena. BBK Sala (Bilbo). 2019-11-06.
- José María Lidón Jardunaldiei amaiera emateko ekitaldia. Bilboko Justizia Jauregia. 2019-11-08.
- Memoriaren Eguna gogoratzeko ekitaldia. Eusko Legebiltzarra. 2019-11-14.
- Arabako Domina ekitaldia. Gasteizko Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa. 2019-11-14.
- Joxe Mari Korta Sariak. Lehendakaritza. 2019-11-19.
- Diario de Noticias de Álava egunkariaren 15. urteurrena. Europa Jauregia. 2019-11-21.
- Genero-indarkeriaren aurkako antzerkia. Salburuako gizarte-etxea. 2019-12-02.
- Euskadiko Menina Sariak. Donostiako Miramar Jauregia. 2019-12-04.
- ONCEren sari solidarioak banatzeko ekitaldia. Bizkaia Areatoa. 2019-12-04.
- Adinekoekin solasaldia: "Berdintasuna eta giza eskubideak". ONCE Gasteiz. 2019-12-10.
- René Cassin sariaren banaketa. Lehendakaritza. 2019-12-10.
- Hitzaldia Donostiako ONCEn. "Adinekoak, berdintasuna eta giza eskubideak". 2019-12-12.
- "Gorroto-delituak Euskadin". Bilbo. 2019-12-13.
- Euskal gizarteko ordezkariari harrera egiteko ekitaldia. Lehendakaritza. 2019-12-20.



VI.

atala

Arartekoaren

jardueraren garrantzia

Europa eta mundu mailan

VI. Atala

ARARTEKOAREN JARDUERAREN GARRANTZIA EUROPA ETA MUNDU MAILAN

1. Testuingurua eta kontzeptu-esparrua: Europa mailako eta nazioarteko agertokia 2019an

1.1. Sarrera

Eusko Legebiltzarrak Arartekoaren erakundearen esku utzitako eginkizuna ez da **autonomien edo estatuaren muge-tan geratzen**, baizik eta, gero eta gehiago, **Europa mailako eta nazioarteko konpromisoek** zehazten dute, eta horiek tokiz gairik eta nazioz gairik egoeretan, maila askotariko harremanen bitartez antolatutakoetan, azaldu, gauzatu eta burutzen dira. Alderdi horri dagokionez, Arartekoak, pertsonen eskubideen alde egiteko betebeharrak nagusia izaki, gaur egungo gure munduan aurre egin behar dizkion mundu mailako erronken berri izan behar du, hala nola, **giza eskubideak babestea, gobernantza egokia eta gizarte kohesioa sustatzea** eta **ondasun eta baliabide publikoen kudeaketa jasangarria**; azken hori Nazio Batuen erakundearen mundu mailako helburu nagusia da. Halaber, helburu horren esparruaren baitan, Arartekoak bereziki onartu behar ditu balio, printzipio, politika eta arauetarako sistema komun batek —alegia, **Europar Batasunak**— lotutako estatuz gairik komunitate baten **parte izateagatik planteatzen zaizkigun erronkak**.

Ildo horretan, aipatu behar da **erakunde honen jarduketaren eremua ezarri duen lege-aginduak** —Arartekoa sortu eta arautzeko 3/1985 Legean jasotakoak— erakunde honen **izaera ebolutiboa eta egokigarritasuna** nabarmentzen dituela. Era berean, formalki aldarrikatutako eskubideak benetan gauzatzeko sustatzen du, espresuki aipatzen baitu Arartekoaren jardueraren egokitzeko aukeraren garrantzia; izan ere, erakunde honek hainbat eskariri erantzun behar die, besteak beste, gizarte eta demokrazia-legeen arabera estatuen bilakaeraren ondorioz sortutako eta estatu horrek giza-banakoen eskubideen aldarrikapen hutsa gairiduz eskubide

eta askatasunak bermatzeko bidean erakutsi dituen akatsei, gizarte-eskubideak eta egiazko askatasunak (EAEko Autonomia Estatutuaren 9.2 artikulua) herri-agintarien benetako eginbehar bihurtzen dituztenei. Eusko Legebiltzarraren aipatu legeak, Arartekoa interes orokorraren eta herritarren eskubideen defendatzaile eta administrazio egokiaren bultzatzaile izendatzen duenak, hainbat eginkizun utzi ditu Arartekoaren esku. Horiek guztiak honela laburbil daitezke: administrazio-jardueraren balorazio orokorra. Era berean, legearen arabera, Arartekoa Administrazioaren laguntzaile kritikoa da, eskubideak bermatzeko sisteman halabeharrez agertzen diren hutsuneak betetzen dituenak, eta, hala bada, dagokio, legeak aldatzea bultzatzen duena, herritarren bizikaltatea hobetzeko.

Arartekoak Europa mailako eta nazioarteko dimentsioa erabat onartu du barne araudiari lotutako lanean. Arartekoaren administrazio jokabide egokirako kodea onartu zuen **2017ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren 2. artikulua** honako hau ezarri zuen: “Bere eginkizuna betetzean, giza eskubideen nazioarteko ikuspegia ere hartzen du aintzat, giza eskubideei buruzko nazioarteko tresna juridikoak ezagutu eta ezar daitezkeen bultzatuz eta Ararteko erakundeak nazioartean giza eskubideak bermatzeko beste erakunde batzuekin dituen harremanak sendotuz.” Horrez gain, laugarren artikuluan Arartekoak betetzen dituen funtzioen artean aipatzen du “Lankidetzan aritzen da herriaren defendatzaileekin eta giza eskubideak babesteko sortu ziren nazioarteko erakundeekin”. Dimentsio hori gehitzean, Arartekoak ez du soilik lege dagokion agindua bikaintasunez betetzen; aitzitik, Europa zein nazioarte mailan honelako erakunde bati eskatzen zaiorenarekin lerrotatzen da. **Giza Eskubideen aldeko Erakunde Publikoaren Funtzioei buruzko Parisko Printzipioen** adierazpe-nean zein **Herritarren Defentsa Erakundeak Babestu eta Sustatzeko Veneziako Printzipioetan**, aurrerago hipzide hartuko ditugunak, herriaren defendatzaileengandik espero da nazioarteko hitzarmenetan aitortutako giza eskubideen babesle gisa ere jokatzeko eta elkarri laguntza emateko nazioarteko sareetan kolaboratzea.

Edozein kasutan, Arartekoak, **erakunde gisa, betebeharrak argia** du, besteak beste, **Euskadiko pertsonen giza eskubideak sustatzea eta defendatzea, baita presentzia**

aktiboa eta berritzailea izatea ere, nazioartean giza eskubideen sistema globala ezarri eta garatzeko. Nabarmendu nahi izan dugunez, horren arrazoiak honako hauek dira: erakunde honen iturri den lege-agindua bera; Arartekoa erakunde independentea dela; hiritarrekiko daukan gertutasuna; erakundeak politika eta neurri publikoak beren-beregi aztertze, kontrolatzeko eta zaintzeko hornituta dagoela, baita pertsonen eskubideak sentsibilizatzeko, sustatzeko eta defendatzeko ere; eta erakundearen jurisdikzio-eremua giza eskubideak bermatzeko Europako sistemaren aplikazio-eremuaren barruan dagoela.

Atal honetan Europako eta nazioarteko mailei lotuta 2019an gertatutako zenbait mugari aipatuko dira, hain zuzen ere Arartekoaren jarduna garatzeko nabarmenak izango direnak edo euskal administrazio publikoentzat baliagarriak izan daitezkeenak inspirazio edo informazio iturri gisa. Aipatu ohi ditugun legediak, epaiak, txostenak eta irizpenak estatu espainiarraren eskumenekoak edo horiek betetzeari buruzkoak izaten diren arren —modu globalean hartuta, estatuak erantzuten baitu nazioarteko betebeharrak betetzeari dagokionez—, euskal erakundeentzat garrantzitsuak izan daitezkeen neurriak aipatzen dira, EAEn ere gertatzen diren arazoak argitzen dituztelako edo erkidego mailako, foru mailako edo udal mailako administrazioak har ditzaketan irtenbideak iradokitzen dituztelako, kasuan kasuko eskumen esparruen arabera. Nazioarteko esparrutik iritsitako zenbait gomendio lagungarriak izan daitezke, halaber, Arartekoak bere gomendio eta txostenetan antzemandako gabeziak konpontzeko.

1.2. Nazio Batuen mailan

Nazio Batuen mailan, bi hitzarmen organok aldizkako txostenak eman zituzten kasuan kasuko hitzarmenak zirela bide Espainiako Erresumak hartutako betebeharrak betetzeko mailari dagokionez. Horrez gain, beste bik Espainiar estatua- ren aurka aurkeztutako banakako salaketak ebatzi zituzten.

2019ko maiatzean **Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeak** argitara eman zituen **Espainiako aldizkako bigarren eta hirugarren txosten uztartuei buruzko azken oharrak**. Txostenak positibotzat jotzen ditu Desgaitasunaren aurkako Espainiako 2014-2020 Estrategiaren Ekintza Plana eta autonomia erkidegoek prestatutako planak, baita zenbait lege onartu izana ere, tartean **Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Lege Orokorra** edo **LOREG legea aldatzeko 2/2018 Lege Organikoa**, *desgaitasuna duten pertsona guztien sufragio eskubidea bermatzeko*. Alderdi negatiboak dagokienez, txostenak Espainiako ordenamendu juridikoari kritika orokorra egiten dio, bertan esaten denez, ordenamendu horrek abiapuntutzat hartzen baitu desgaitasunaren eredu medikoa, eta ez giza eskubideetan oinarritutako eredu, zeinaren arabera desgaitasuna aitortzen den gizarte ingurunean dauden gabezia eta oztopoei dagokienez. Bidenabar, oro har, desgaitasuna daukaten pertsonekin maila desberdinetan lan egiten duten enplegatu publikoak eta profesionalek desgaitasuna daukaten pertsonen eskubideen inguruko prestakuntzarik ez dutela salatzen da, eta desgaitasuna daukaten pertsonen haien gain eragina daukaten gai guztietan, bizitza

publikoan zein politikoan, parte hartu eta esku hartzeko aurrerapenak aski ez direla nabarmentzen da. Azkenik, desgaitasuna daukaten pertsonen aurkako bazterketa anitz eta intersektionalari aurre egiteko neurririk eza kritikatzeko da, beste arrazoi batzuen ondorioz ere baztertzeko direnean. Horregatik, txostenean desgaitasuna daukaten pertsonentzako zerbitzuak emateari buruzko lege, politika eta praktika oro berrikusi eta zuzentzeko gomendioa egiten da, maila guztietan eta autonomia erkidego guztietan, hitzarmenaren printzipioetara eta giza eskubideetan oinarritutako desgaitasun eredura egokitze.

Txostenean, gainera, konbentziora jasotako berriarazko eskubideak betetzeari dagokionez sortzen diren arazo zehatzak ere aztertu dira. Ezinezkoa da hemen arazo horiek guztiak aipatzea. Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenetan eragin berezia daukatenez, edo partzialki bat egiten duenez Arartekoak berriki antzemandako arazoei, honako hauek nabarmenduko ditugu: hezkuntza inklusiboa ezartzeko aski aurrerapen ez egitea eta hezkuntza mota hori sustatzeko ekintza planik ez egotea, desgaitasuna daukaten seme-alabadun familiei laguntzeko politika eta zerbitzu egokiak ez izatea, desgaitasuna daukaten pertsonen arteko pobrezia maila altua eta lan merkatuan duten parte hartze urria eta, azkenik, osasun arretako zerbitzuen eskuragarritasun mugatua, bereziki landa eremuetan, baita desgaitasuna daukaten pertsonentzat osasun zerbitzuetan eskuragarri dagoen informazioa eta komunikabide egokiak mugatuta egotea ere. Batzordeak esparru guztietako gomendioak egin dizkio Espainiako estatuari, eta premiazkotzat jo ditu desgaitasuna duten pertsonak haien integritate fisikoaren aurkako erasoetatik babesteko neurriak, egoitza erakundeetan edo osasun zentroetan, baita hezkuntza inklusiboa ere.

Aurten, halaber, **Tortura Prebenitzeko Azpibatzerdearen txostenaren** berri izan dugu, 1984ko Nazio Batuen **Tortura- ren aurkako Konbentzioaren Protokolo Fakultatiboak** sortutako organo da; txostena 2017. urtean Espainiara egindako bisitari buruzkoa da, tartean Basauri eta Donostiako espetxeak ikuskatu zituzten, baita Sestao eta Donostiako Ertzaintzaren ertzain-etxeak ere, eta Euskadiko gizarte erakundeekin bilerak egin zituzten. Berriz ere, txostenaren eduki osoa hemen laburbiltzea ezinezkoa da; alderdi batzuk baino ez ditugu aipatuko, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean bisitatutako instalazioei dagozkienak.

Esparru juridikoari dagokionez, txostenak kritikatu du Zigor Kodean torturak duen tipifikazioan oraindik zenbait elementu ez direla biltzen, hitzarmenean tipifikatu direnak, hain zuzen ere. Horrez gain, gazteei zuzendutako zigor justiziaren sisteman aurreikusitako zigorrak kritikatu dira, gogorregiak direlako, baita taldetik bereizteko diziplina zigorrak ere. Espetxeetan eta CIEtan askatasunik gabeko pertsonen egindako tratu txarren eta torturen adierazpenak eraginkortasunez ikertze aldera neurriak hartzea gomendatzen da, eta bertan dauden pertsonen horrelako tratuen biktimen direnean instantzia arduradunen aurrean keak eta salaketak aurkezteko aukera izatea bermatzea. Erregimen itxi eta espetxeratze inkomunikatuetan babes gehiago jartzea ere gomendatu da; horri dagokionez, denbora muga bat txertatzea eta bertan dauden pertsonen establezimenduko zerbitzu eta instalazioetara sarbidea izatea ere gomendatu da.

Espetxe eta ertzain-etxeetako baldintzei dagokienez, txostenean kritikatu da normalean prebentziozko presoak eta preso zigortuak ez direla bereizten. Horrez gain, frogatu da osasun arloko langileek, oro har, **Istanbuleko Protokoloa** ez dutela ezagutzen. Emakumeen egoerari dagokionez, bazterketa egoera orokortua antzeman da, espazio faltak ez baitu ahalbidetzen sailkapenik egitea eta errespetu moduluetara sarbidea izatean mugak ezartzen ditu. Hala, askatasunik ez duten emakumeek sarbidea izatea bermatzeko neurriak hartzea gomendatzen da, hain zuzen ere, lan jarduerara sarbidea izan dezaten, hezkuntzara, ariketara, kirolera eta aisialdira, gizonen baldintza berdinetan. Gomendio hau, besteak beste, Basauriko espetxeari ere badagokio. Donostiako espetxeari dagokionez, haurrak dituzten amentzat modurik ez dagoela nabarmendu da. Bisitatutako polizia-etxeetan, erkidego mailako poliziarenak barne, antzeman zen ziegak ilunak direla, oso aireztapen eskasa dutela eta kiratsa dagoela, eta komun kolektiboak oso higiegi baldintza txarretan daudela.

2019an zehar **zenbait irizpen eman ditu Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordeak, banakako eskaerekin, Batzordeak ezarri zuenean Espainiar estatuak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena** urratu zuela. Horietako gehienak antzeko kasuei buruzkoak dira, adingabearen interes gorenaren printzipioa eta harengan eragina daukaten erabaki guztietan adingabea entzuteko printzipioa urratu izana aitortu ziren kasuak (Hitzarmenaren 3. eta 12. art.), adina zehazteko prozedurei dagokienez. Hain zuzen ere, prozedura horiek beharrezko bermerik gabe garatu izana aitortu zen, interesdun adingabeek ez baitzuten ez tutore baten, ez lege ordezkari baten laguntzarik izan. Bidenabar, agintariak adingabetasuna erakusten duten dokumentu ziurtagiriaren egiazkotasuna ukatu zuten, ziurtagiriak eman zituzten atzerriko aginteekin kontsultatu gabe. Kasu batzuetan, adina zehazteko prozedura medikoak bideratu ziren, esaterako eskumuturren erradiografiak egitea; adin nagusikoa izatea zehazteko datu eskusibo gisa erabili izan da, horrelako prozeduretan akats tarte bat izaten den arren. Kasu batzuetan, adingabe eskatzaileek ezin izan zituzten asilo eskaerak aurkeztu horretarako tutore legala izatea eskatzen zitzaielako, eta une horretan ez zeukaten horrelakorik. Eskaera heldu gisa aurkeztea onartu zutenean baino ezin izan zuten aurkeztu eskabidea. Horregatik, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 20.1 eta 22. artikulua urratu izana ebatzi zen; artikulua horietan beren familiarik kanpo dauden haurrei eta asiloa eskatzen duten adingabeei babes berezia ematea eskatzen da. Nolanahi ere, horrez gain, **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren Hautazko Protokoloaren (komunikazioen prozedurari buruzkoa)** seigarren artikulua urratu zela adierazi zen; izan ere, Batzordeak kautelazko neurriak hartzeko agindua eman zion Espainia estatuari, eta azken horrek ez zituen praktikan jarri. Horietan guztietan, adingabeen administrazio egoera erregularizatzeko eskatu zitzaion estatuari, adingabeek kasu batzuetan kanporatzeko aginduak jaso baitzituzten; aipatutako urraketak aurrerantzean ez errepikatzeke neurri orokorrak hartzeko ere eskatu zitzaion. Azkenik, Hitzarmena urratu izana (3., 20. eta 37. art.) aitortu zen Melillako hesian 2014an pertsona batzuk berehala kanporatu zirelako. Batzordeak adierazi zuen bakarrik zegoen adingabea zen aldetik haurrari ez zitzaiola eman behar zuten babes berezia, eta kanporatuz gero pairatu zezakeen

kalte konponezinaren inguruan ez zela inolako ebaluaziorik egin. Bidenabar ezarri zenez, adingabearen interes gorena ebaluatu ahal izateko ezinbestekoa da lurralde nazionalera iristea bermatzea eta bere babes beharrezkoak ebaluatzeko aginte arduradunengana eramatea. Horren haritik, estatuari ohartarazi zitzaion **4/2015 Lege Organikoa** erreformatu behar zuela, lege horri esker pertsonak Ceutan eta Melillan berehala kanporatzea posible delako.

Halaber, **Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak** ere **adierazpena kaleratu zuen** 2019an Espainiar estatuaren aurka aurkeztutako salaketa baten inguruan. Familia baten kasua zen; familiak bitokitzat zuen etxebizitza legez kanpo okupatzeagatik zigortu zuen epaiaren ondorioz kaleratu egin zuten. Familiak etxebizitza sozial bat eskatu zuenean, Madrilgo Erkidegoak ukatu egin zion, familia legez kanpo okupatzeagatik zigortuta zegoelako. Horren ondorioz, handik bota ondoren, familiak aterpetxeetan hartu behar izan zuten ostatu. Batzordeak adierazi zuen **Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean** ezarritako etxebizitza eskubidea urratu egin zela; izan ere, Batzordearen iritziz, kaleratzeko aginduak ez zuten aztertu kanporatzean lortu nahi zen helburuaren eta familia eskatzaileari eragindako ondorioen arteko proportzionaltasuna. Eskubide bera urratu izana adierazi zen etxebizitza sozialaren eskatzaile modura familia baztertu zelako, higiezin bat legez kanpo okupatzeagatik, horren ondorioz familiak aldi baterako aterpetxeetan hartu behar izan baitzuten ostatu, edo kalean bizi. Azkenik, Batzordeak adierazi zuen **Banakako Komunikazioei buruzko Hautazko Protokoloa** 5. artikulua urratu zela, estatuak ez baitzituen bete Batzordeak aipatutako kautelazko neurriak. Neurri horien artean zeuden, besteak beste, kaleratzeko neurria bertan behera uztea edo etxebizitza alternatibo egokia ematea. Aterpetxeak ez dira etxebizitza egoki modura hartzen. Batzordeak estatuari gomendatu zion familia eskatzaileari konpentsazio ekonomiko bat eman diezaien, eta etxebizitza sozialerako itxaron zerrendan lehentasuna ematea eta beharrezko egoera berriz ere ebaluatzea (ondoren onartu zen), baita zenbait neurri orokor ere.

Nazio Batuen batzordeen irizpenei dagokienez, banakako salaketen prozeduretan, Auzitegi Gorenaren 2018ko uztailaren 17ko Epai gogorazi behar da; kasu horretan, Auzitegi Gorenak **Emakumeen aurkako Bazterkeria Desagerrarazteko Nazio Batuen Batzordearen** irizpenen eraginkortasunaren inguruan mintzatu zen. Auzitegi Gorenak ebatzi zuen Batzordearen ebazpenak **lotesleak direla Espainiar estatuarentzat**. Espainiako ordenamendu juridikoan aipatutako ebazpenak eraginkorrak izateko bide zehatzik existitzen ez den arren, modu autonomoan betetzea eskatzea ahalbidetuko duena, egia da ebazpen horiek oinarri gaitzailea eratu dezaketela Estatuari ondare erantzukizuneko erreklamazioak formulatzeko, justizia administrazioak modu ezohikoan funtzionatzeagatik. Doktrina hori aplikatu ahal zaie hemen komentatutako erabakiak hartu dituzten batzordeei (eta beste batzuei), horien izaera juridikoa Emakumeen aurkako Bazterkeria Desagerrarazteko Batzordearen izaeraren berdina delako. Aldi berean, Auzitegi Gorenaren epaiak hausnarketa egiteko gonbidapena ekartzen digu, estatuko zein erkidegoetako ordenamendu juridikoetan batzorde horien ebazpenak modu autonomoan gauzatzeko moduak txertatzeko beharrezkoak direlako.

1.3. Europako Kontseilu mailan

Europako Kontseiluaren mailan aipatu behar da, lehenik eta behin, **Herriaren defendatzaileen erakundea babestu eta sustatzeko Veneziako Printzipioak** onartu direla, Arartekoak zein berau integratzen den nazioarteko sare batzuen parte hartzea izan zuen kontsulta prozesu baten ondoren egokitutakoak. Printzipio horiek onartzeak, tamalez, lotura dauka azkenaldian Europako defentsa erakunde batzuek pairatu dituzten presio egoerekin, baita xaxatze egoerekin ere, eta eskakizun maila altua irudikatzen dute independentziari, autonomiari eta eskumenei dagokienez. **Parisko Printzipioekin** lerrokatuta, **defentsa erakundeei eskatzen zaie giza eskubideak babestu eta sustatzeko funtzioak hartzeko bere gain eta, hala, administrazio txarra kontrolatzeko Ombudsmanen kontzeptiorik klasikoena gainditzea**. Horrez gain, herriaren defendatzaileak berariaz animatzen dira nazioartean lankidetzan aritu daitezen eta, horrenbestez, bere jardunean nazioarteko eta Europa mailako dimentsioa indartzearen alde Arartekoak egin duen apustua babestea dakar. Hala ere, alderdi askotan Parisko Printzipioak baino zehatzagoak izanik, Veneziako Printzipioek **Arartekoa behartzen dute erakundearen beraren eta eskumenen zenbait alderdiri buruzko barne hausnarketak egitera, estandar berri hori betetzera ahal bezainbeste gerturatzeko**, zalantza izpirik gabe, jarraitu beharreko eredu bihurtuko baita. Nabarmendu behar da, hala ere, zenbait jarduerari buruzko ataletan azalduko denez, Arartekoak parte hartze aktiboa izan duela Veneziako Printzipioak hobeto ezagutu eta hedatzeko zenbait ekitalditan. Azkenik, garrantzitsua da nabarmentzea Europako Kontseiluaren **Parlamentu Biltzarrek** zein **Ministroen Batzordeak** babestu dituztela Veneziako Printzipioak, eta, hala, Kontseilu barruan erabateko babes eta adostasuna dute.

Europako Kontseiluaren berrikusketa organoen artean, **Ustelkeriaren kontrako Estatu Taldeak (GRECO)** Espainiari buruzko bi txosten plazaratu zituen 2019an: **2014ko txostenean egindako gomendioen jarraipen txostena**; txosten hark ebatzi zuen Espainiak GRECOk egindako gomendioak betetzen hobera egin zuela eta, horrenbestez, ez zela modu globalean bete gabetzat hartu behar. Horrez gain, **ebaluatzeko bosgarren errondari buruzko txosten berri** bat ere eman zen. Bosgarren erronda horrek estatuko segurtasun indar eta kidegoetan eta funtzio exekutibo altuak dituzten karguetan jarri zuen arreta. Bi esparruetan hainbat gomendio egin dira; horietako batzuk aipatu dira:

- **Funtzio exekutibo altuen esparruan**, Estatuko Administrazio Orokorrean aholkulariei aplikagarria zaien araubide juridikoa indartzea gomendatu da, integritate eta gardentasun betekizunak ezarri, funtzio exekutibo altuak dituzten pertsonen bezala. Horren haritik, funtzio exekutibo altuko langileentzako jokabide kodea eta kode hori aplikatzea berrikusten duen Etika Publikoko Batzordea egotea EAEko jardunbide on modura nabarmendu da. Funtzio exekutibo altuko pertsonen eta interes taldeen zerrenden erregulazioan gabeziak antzeman dira. Horrenbestez, horren inguruko arauak ezartzea eta aski informazio hedatzea komeni da, sortzen diren harremanen eta parte hartzaileen helburuari dagokienez. Bidenabar, funtzio

exekutibo altuko jarduera bukatu ondoren jarduera pribatuak egiteko mugak hobeto erregulatzea gomendatzen da.

Oro har, ustelkeriaren aurkako arrisku analisia oinarritutako estrategia holistiko eta sistematikorik ez egotea kritikatu da, eta araudiaren aplikazioa eta eraginkortasuna oso baxua dela nabarmentzen da. Hortaz, aplikatzeko barne estrategia eta ekintza plana sortzea gomendatzen da, ebaluazioa barne hartuz. Gaur egun existitzen diren mekanismoak ere aztertu dira; hala, GRECO pareko ondorioetara iritsi da. **Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseiluaren** edo **Interes Gatazketarako Bulegoaren** lana gutxitu gabe, biak indartu egin behar direla ulertzen da, baliabideetan, eskumenetan, autonomian eta independentzian.

- **Estatuko segurtasun indar eta kidegoen** esparruan, arreta berezia jarri da Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibila genero berdintasunaren gaian; emakumea gehitzea “ezinbesteko gakoa” dela nabarmendu da, “talde dinamika negatiboak eta, horrenbestez, ustelkeria saihesteko”.

Oro har, estatuko segurtasun indar eta kidegoek integritaterako arriskuak identifikatzen ikuspegi proaktiboagoa izatea gomendatzen da; izan ere, ez dago ustelkeria saihesteko estrategiarik. Horrenbestez, existitzen diren arriskuen ebaluazio estrategikoa egitea gomendatzen da, eta bildutako datuak estrategia bat modu proaktiboan diseinatzeko erabilitea, ustelkeriaren aurkako borroka eta integritatearen arloan. Estrategia horren parte gisa, Guardia Zibilean kode etikoa ezartzea gomendatzen da, etika arloan dagoen araudia kodetzeko, eta berau garatzeko. Polizia Nazionalari dagokionez, kasu horretan kidego horrek badu kode etikoa, eta modu eraginkorrean martxan jartzea gomendatzen da. Gomendio zehatzagoak ere plazaratu ziren langileak aukeratzeko prozedurei, barne irregulartasunak salatzen dituztenak babesteari eta barne zehapen prozeduren berme eta proportzionalitateari dagokienez.

2019an, **Ministroen Batzordeak onartu egin zuen Espainiak Eskualde eta Hizkuntza Gutxituen aldeko Europako Karta aplikatzea ikuskatzeko bosgarren txostena**, Guntunen Adituen Batzordeak egindakoa 2018ko abenduko bisitaren ondoren. Txostenean azaldu zen euskararen egoera globala egokia dela, eta, horretarako, **Euskal Autonomia Erkidegoko seigarren inkesta soziolinguistikoaren** emaitzak hartu zituen kontuan. Karta berrestean hartutako konpromiso gehienak betetzat jo dira; hala ere, horietako batzuk partzialki bete direla ulertzen da, eta Arartekoaren ebazpenetan gehienek kritikatu diren hizkuntza eskubideak eguneratzearekin bat datoz neurri handi batean. Euskara prozedura judizialean erabiltzeko zailtasunak eta Osakidetzan, segurtasun indar eta kidegoetan eta justizia administrazioan ezagutza eta erabilera maila oso baxuak izatea dira gehien aipatutako puntuak. Horrez gain, ulertzen da EAEn Estatuko Administrazio Orokorrean euskararen ezagutza eta erabilera ez dela aski. Espainiako estatuari gomendatzen dio **Botere Judizialaren Lege Organikoaren** 231. artikulua premiaz aldatzea, prozedura judizialean hizkuntza koofizialak erabili

ahal izatea bermatzeko, alde batek hala eskatuz gero, eta Estatuko Administrazio Orokorrean euskararen erabilera areagotzeko. Horrez gain, osasun eta polizia zerbitzuetan euskararen erabilera areagotzeko gomendioa ere egin da.

Europako Kontseiluaren esparruan, nabarmendu behar da **Espanian oraindik ez dela berretsi Europako Karta Sozial berrikusia, 1995koa, eta kexa kolektiboen mekanismoa ez da oraindik onartu**. Hala ere, 2019. urtearen hasieran **Ministroen Kontseiluak berresteko baimena adierazteko zilegitasuna eman zuen**; ondoren Gorte Nagusiak desegin egin ziren, eta asmo hura bertan behera geratu zen. Batetik, Espainiak gaur egun lotura du **1961eko Europako Karta Sozialarekin** eta betetzeari buruzko txostenak aurkeztu behar ditu Eskubide Sozialen Europako Batzordearen aurrean, karta horrek ekartzen dituen betebeharrak dagokienez. Bestalde, eta ikusi den moduan, Espainiak Eskubide Sozialen Batzordeko banakako eskaeren mekanismoa onartu du Nazio Batuen mailan. Hala ere, 1995eko Europako Karta Sozial berrikusiak areagotu egin zituen 1961eko gutuneko bermeak; kexa kolektiboen mekanismoak arlo sozialeko politika publikoak berrikusteko mekanismo eraginkor modura funtziona dezake; izan ere, banakako kexen mekanismoak baino izaera sistematikoagoa dauka. Horrenbestez, 1995eko Europako Karta Sozial berrikusia berrestea eta kexa kolektiboen mekanismoa Eskubide Sozialen Europako Batzordearen aurrean onartzea oso urrats positiboak izango dira, zalantza izpirik gabe; gainera, zeharka herritarren defentsa erakundeen funtzionamendua indartuko lukete.

Azkenik, **Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren** (aurreantzean, GEEA) **jarduera juridikzional nabarmenari egiten zaio erreferentzia**. **Haddad vs. Espainiaren** kasuan, Espainia zigortu zuten familia bizitza eta bizitza pribatua izateko gizon baten eskubidea urratu egin zelako, gizon horren alaba adopzio aurreko harreraren jarri baitzen gizonaren baimenik gabe eta gizon horrek jakin gabe. Gizona genero indarkeriagatik salatua zuten, eta emazte eta hiru seme-alabengandik urrutze agindua zuen. Prozesu penalak iraun zuen bitartean, hiru haurrak Madrilgo Erkidegoaren tutoretzapean jarri ziren eta, ondoren, Murtziako Autonomia Erkidegoaren tutoretzapean, amak hala eskatuta, aitortu baitzuen ezin zuela haurren ardura bere gain hartu. Alabarik gazteena adopzio aurreko harreraren jarri zuten, eta, handik gutxira, leporatu zitzaizkion genero indarkeriaren delituetatik absolbitu egin zuten eskatzailea. Handik gutxira beste bi haurren zaintza lortu zuen, baina alabarekin harremana berreskuratzea ezinezkoa izan zen, alaba horren harrera ondoren epaitegiek berretsi baitzuten. GEEAk aitortu zuen **Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren** 8. artikulua urratu egin zela, auzitegiaren aburuz ez Administrazioak, ez epaitegiek ez zuten arrazoi sinesgarriak eman haurren adopzio aurreko harrera eratzeko, ez baitzen gabeziarik antzeman hezkuntzan, maila afektiboan edo arlo materialean aitari dagokionez, tratu fisikoak ez ziren frogatu, ez zen kontuan hartu adopzio aurreko harrerak nolako ondorioak eragingo zituen gurasoen eta alabaren arteko harremanetan, ezta alabaren eta bere neba-arreben arteko harremanetan ere. Epaitegiak ebatzi zuen administrazio aginteek beste neurri arinago batzuk hartu behar zituztela kontuan, eta absoluzioaren ondoren aitaren eskaerak kontuan hartu behar zituela. Hala ere, absoluzioaren ondoren ez zuten aitaren inguruko jarrera aldatu. Kexa bera

plazaratzen da adopzio aurreko harrera berretsi zuten epaitegien kasuan ere. Epaian, GEEAk Espainiari agindu zion epe labur batean eskatzailearen eta alabaren egoera berriz aztertzeko, epaia ikusita, eta neurri egokiak har zitzan adingabearen interes goren gailentzeko.

López Ribalda eta beste batzuk vs. Espainia kasuan, GEEAko Sala Nagusiak 2018ko urtarrilaren salaren epaiaren aurka aurkeztutako errekurtsioa ebatzi zuen, Espainia zigortu zuena eskatzaileen bizitza pribaturako eskubidea urratzea-gatik. Eskatzaileak supermerkatu batean ari ziren lanean eta handik kaleratu zituzten, enplegatzaileak jarritako kameretan lortutako irudiekin salgaiak lapurtu zituztela frogatu zenean. Sala Nagusiak onartu egin zuen Espainiak aurkeztutako errekurtsioa eta aitortu zuen ez zela urratu Hitzarmenaren 8. artikulua ezta 6. artikulua ere, grabatutako materiala barne prozedura judizialean erabiltzeari buruzkoa. GEEAren aburuz, Espainiako epaitegiek egindako ondasun juridikoen haztapena zuzena izan zen eta datuak babesteko arloan legediak ezarritako neurriak aski izan ziren.

Azkenik, 2019ko azaroaren 26ko epai bidez, eta, GEEAren aurreko doktrina aplikatuz, **Berasategui Escudero eta Arriaga Arruabarrena vs. Espainia** kasuan aurkeztutako errekurtsioan Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 6(1) artikulua urratu izana aitortu zen. Auzitegi Konstituzionalaren aurrean aurkeztutako babes errekurtsioak ez onartzean datza urraketak; auzitegi horrek onartezintzat jo zituen ez zirelako aurkeztu jarduketan balio gabetasun gertaeraren aurretik. Bestalde, eskatzaileen eskaerak, zigorrak Frantziaren ezarritako beste zigor batzuekin batzea ukatzeari eta ukapen horri lotutako Hitzarmenaren 5. eta 7. artikuluen urraketari dagokiona, onartezintzat jo ziren.

1.4. Europar Batasunaren mailan

Espainiako eta euskal ordenamendu juridikoetan parte hartzen duten estatuz gaindiko eta nazioarteko maila guztietatik Europar Batasunaren maila da, zalantza izpirik gabe, ulergarriena, hitzarmenek Batasunari ematen dizkieten eskumenak zabalak direlako. Maila honetan egindako lanari erreferentzia sakona egitea ezinezkoa izango litzateke. Horrenbestez, atal hau **Batasunaren ordenamendu juridikoaren berezko oinarriko eskubideei zuzenean lotutako alderdietara mugatuko da, baita legedi eta jurisprudentziako berrikuntza batzuetara ere**.

Batasunaren oinarriko eskubideei dagokienez, nabarmendu behar da **Oinarriko Eskubideen Europako Kartak** 10 urte bete zituela 2019an juridikoki loteslea den tresna modura. Hala ere, badirudi hamar urteko epea ez dela aski izan gutuna estatu kideen ordenamenduan erabat eta modu tinkoan instalatzeko. **Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Agentziaren Oinarriko Eskubideei buruzko 2019ko Txostenak**¹ argi utzi zuen EBko Oinarriko Eskubideen Karta ez dela modu nabarmenean txertatu estatu

¹ Aipatutako txostena 2018. urteari dagokio, ez baita posible agentziaren 2019ko txostena aipatzea, urteko txosten hau idatzi den unean 2019ko txostena argitaratu gabe egon delako.

kideen praktika juridikoan. Epailerek gutxi erabiltzen dute ebazpenak ematean, parlamentuek ere gutxi erabiltzen dute legeak egitean eta gobernuek ere gutxi erabiltzen dute politika publikoak diseinatzean. Agentziak estatu kideei gomendatu zien lege eragileek karta aplikatu eta hobeto ezagutzea sustatzeko politikak eta ekimenak egitea, eta jurisprudentzian eta lege prozeduretan eta araudi xedapenak ematean erabiltzerakoan dokumentatzeko. Horren haritik, eta laguntzeko tresna modura, Agentziak 2018an argitaratutako bi lan gogoratu behar dira: [“Applying the Charter of Fundamental Rights of the European Union in law and policymaking at national level”](#) eskuliburua, kartaren edukiak estatu mailan aplikatzeko egoerak zehazten laguntzen duena, eta 4/2018 litzia, [“Challenges and Opportunities for the Implementation of the Charter of Fundamental Rights”](#). Bi argitalpen hauek oso tresna baliagarria izan daitezke politika publikoak diseinatzeke, legeak emateko eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko; eskumen horitako batzuk kartaren aplikazio esparruan sar daitezke. Arartekoarentzat ere tresna erabilgarria osatuko dute administrazioak kontrolatu eta oinarritzko eskubideak sustatzeko dagokion funtzioan.

2019ko **Europar Batasunaren jardun legegileari dagokionez, uztartzearen eremuan, 2019/1158 Zuzentaraua (EB), ekainaren 20koa, gurasoen eta zaintzaileen familia bizitza eta arlo profesionala uztartzeari buruzkoa**, nabarmendu behar da; zuzentarau horren helburua da *“emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko gutxieneko betekizunak ezartzea lan merkatuko aukerei eta laneko tratuari dagokionez”*, eta horren inguruko erkidego mailako politiketan bultzadak eman ditzake. Horrez gain, **mugak kudeatzeari dagokionez, 2019/1896 Erregelamendua (EB) onartu da, 2019ko azaroaren 13koa, kosta mugetako zaintza europarrari buruzkoa**; funtzio nagusien artean laguntza tekniko eta operatiboa ematea aipatzen du, bilaketa eta salbamendu operazioetan laguntzeko. Operazio horiek, erregelamenduari bat etorritik, mugen kudeaketa europar integratuaren elementuetako bat dira. Arartekoak parte hartze aktiboa izan du arlo horretan Europa mailan, aurrerago ikusiko dugun moduan. **Langileen eskubideen arloan, 2019/1152 Zuzentaraua (EB) onartu zen, abenduaren 20koa, Europar Batasunean lan baldintza gardenak eta legeek ezarritakoaren arabera izateari buruzkoa**, *“lan baldintzak hobetzeko, gardentasun eta aurreikusgarritasun handiagoak eskainiko dituen enplegua sustatuz”*. **Ingurumenaren informazioari dagokionez, 2019/1010 Erregelamendua (EB) onartu zen, ekainaren 5koa, informazio betebeharrak egokitzeari buruzkoa, ingurumenaren legediaren esparruan**; besteak beste, herritarrek ingurumen proiektuen inguruko informazioa sarbidea izatea erraztu eta azkartzea du helburu, eta horren inguruko hainbat erregelamendu eta zuzentarau aldatu ditu. Azkenik, **Europako herritarren eskubideen arloan**, herritarren ekimen europarrari buruzko erregelamendu berri bat onartu da ([2019/788 Erregelamendua \(EB\)](#)), EBren eremuan ekimen legegile herrikoia *“eskuragarriago egoteko, ez horren neketsua eta errazagoa izan dadin”*. Haien eskumenean esparruan eragina daukaten neurrian, euskal administrazioek adi jarraitu beharko dituzte ekimen legegile berri hauek, zuzen aplikatzea bermatze aldera.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jardun juridikozionalan bi ebazpen nabarmendu behar dira:

Euskal Autonomia Erkidegoarentzat bereziki garrantzitsua da, **arlo fiskalean, 2019ko ekainaren 12ko epaia, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) emandakoa Oro Efectivo SL eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko C-185/18 auzian**. Judizio aurreko gaia Auzitegi Gorenak aurkeztu zuen, berretsi nahi baitzuen bateragarriak direla [3/1989 Foru Arauko 7. eta 8. artikulua](#) eta [1/2011 Foru Arauko 9. eta 10. artikulua](#) eta BEZari buruzko [2006/112/EE Zuzentaraua](#). Xedapen horietan oinarrituz, Bizkaiko Foru Ogasunaren aburuz, sozietate errekurtsio egileak partikularrei urrezko eta beste metal batzuetako objektuak erosi izana, ondoren beste enpresa batzuei saltzeko, objektu horiek eraldatu eta berriz ere merkataritza zirkuituan txertatzeko, aipatutako erosketak horiek Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren mende zeuden. Justizia Auzitegiak adierazi zuen foru arauak BEZaren Zuzentzararekin bat zetozela, zuzentzarau horrek aukera ematen duela beste zerga batzuk (BEZarekin batera) mantentzeko edo ezartzeko, betiere zerga horiek ez badira negozio bolumenaren gainekoak. Jurisprudentziak berak BEZaren inguruan egindako kontzeptuarekin bat etorritik, EBJAK ondorioztatu zuen Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga ezin dela negozio bolumenaren gaineko zerga gisa kalifikatu. BEZaren arloan neutraltasun fiskalaren printzipioari dagokionez, auzitegiak nabarmendu zuen printzipio hori soilik aplikatzen dela BEZaren Zuzentzarauak ezarritako sistema harmonizatuaren esparruan. Foru zerga ez dagoenez harmonizaturik, neutraltasun printzipioa urratzea ez da posible.

Hizkuntza eskubideen esparruan, Espainiak auzitara jo zuen Europako Parlamentuaren aurka, eta arrakastaz bukatu zuen, hautapen prozesu bati dagokionez; prozesu horretan, **Europako Parlamentuak** hautagaitzak aurkezteko interfaze elektronikoa bat sortu zuen, baina interfazea ingelesez, frantsesez eta alemanez baino ez zegoen. Teorikoki hautagaitzaren hainbat atal edozein hizkuntzatan bete ahal ziren, baina Justizia Auzitegiaren aburuz, balizko hautagaiak logikoki pentsa zezaketen soilik aipatutako hiru hizkuntzak zirela onargarriak eta, horrenbestez, beste hizkuntza batzuetako hiztunak desabantaila egoeran zeuden. Langileen Erregelamendua berariaz ahalbidetzen du hizkuntza eskubideak mugatzea eta modu desberdinean tratatzea hizkuntzaren arabera; muga hori aplikatzeko justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa behar da, eta Europako Parlamentuak ez zuen horrelakorik eman. Deitutako lanpostuak betetzeko nahitaez jakin beharreko Batasuneko bigarren hizkuntza bakarrak ingeleza, frantsesa eta alemana izateko muga ere ez zen justifikatuzat jo. Bestalde, Justizia Auzitegiak gogorarazi zuenez, **Europar Batasunaren Tratatu** hainbat artikuluk (3. art.(3)), **Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu** artikulua (24. art.) eta **Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Kartaren** zenbait artikuluk (22 eta 41(4)) Batasuna behartzen dute hizkuntza aniztasuna errespetatu dezan, baina horrek ez du esan nahi Zuzentzararen printzipio orokor bat dagoenik mundu osoari haien intereseko edozein gauza haien hizkuntzan eskuratzeko eskubidea ematen diona, edozein inguruabarretan, ezta erakunde guztiak Batasuneko hizkuntza ofizial guztiak inguruabar guztietan erabiltzera behartuta daudenik ere.

1.5. Estatu mailan

Bukatzeko, Espainiar estatuko sistema juridikoko auzitegi gorenetakoa batzuek 2019an hartutako zenbait **erabaki** aipatuko dira, **nazioarteko eta estatus gaindiko zuzenbideak barne zuzenbidean duen eragina mugatzen dutenak**.

Europar Batasuneko Zuzenbideari dagokionez, nabarmendu behar da Auzitegi Konstituzionalaren **martxoaren 26ko 37/2019 Epaiaren bitartez** Auzitegi Konstituzionalak prozesu bat berme guztiekin izateko eskubidea urratu zela ezarri zuela (EKren 24.2 art.), judizio aurreko gaia ez zelako bideratu Europar Batasuneko Justizia Auzitegira argitutako egintzaren doktrina betekizunak betetzen ez zirenean, doktrina horrek gai hori aurkezteaz salbuesten baitu. Judizio aurreko gaiaren omisioak ekarriko luke Auzitegi Gorenak indarrean zegoen zuzenbide nazionalen arau bat ez aplikatzea, batasuneko zuzentarau baten xedapen baten aurkakotzat jo zelako. Auzitegi Konstituzionalaren aburuz, hala jokatzeko arau nazional baten preterizio arbitrarioa egin zen. Aipatutako epaian, Auzitegi Konstituzionalak nabarmendu zuen aurkakoa gertatuz gero, hau da, Europar Batasuneko Zuzenbideko arau baten preterizioa gertatuz gero, judizio aurreko gaiaren omisioaren ondorioz, horrek berme osoko prozesu bat izateko eskubidea urratzea ere eragin ahalko lukeela: Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak benetako interpretazioa egiten duenean, Auzitegi Konstituzionalaren lana izango da Batasunaren Zuzenbidea gailentzea zaintzea. 37/2019 AKEn doktrina berriz ere aplikatu zen, emaitza berberekin, beste ebazpen batzuetan, esaterako Auzitegi Konstituzionalaren **81/2019** eta **84/2019** epaietan, biak ekainaren 17koa. Auzitegi Konstituzionalak Batasunaren Zuzenbidea gailentzeko zaindari gisa jokatu zuen **martxoaren 26ko 31/2019 AKEn**; bertan ezarri zenez, tutoretza judizial eraginkorrerako eskubidea urratu egin zen, lehen instantziako epaitegi batek ez zuelako aplikatu Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak zuzentarau jakin baten inguruan egindako interpretazioa, eta horrek ere ez zuen judizio aurreko gaia aurkeztu. Hala, epaitegi horrek interpretazio zentzugabea eta arbitrarioa egin zuen prozesuan aplikatutako araudiari dagokionez eta EBko Zuzenbidea gailentzeko printzipioa urratu zuen Horrenbestez, argi geratu denez, horrelako epaietan EBko Zuzenbidea ez aplikatzeak herritarren oinarriko eskubideen mailan ondorioak ekar ditzake.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak (GEEA) barne zuzenbidean duten ondorioei dagokienez, iazkoa izan arren, nabarmendu behar da Auzitegi Konstituzionalaren **abenduaren 18ko 131/2018 Autoa**, bertan aipatzen denez beste estatu batzuen aurkako prozedurei buruzko GEEAko epaiak *“no actúa[n] de forma directa sobre nuestro sistema de protección de los derechos fundamentales, exigiendo una proyección automática de la ejecución de la[s] misma[s].”* Beste estatu batzuen aurkako gaietan GEEAko emandako epaiak, ostera, badute interpretatutako gauzen eragina. Autoan argitu denez, hala ere, GEEAko epai horiek GEEAko Sala Nagusiaren aurrean errekurtsua jartzeke daudenean, interpretatutako gauzen eragina ez da gertatzen. Horrenbestez, auto horrek, errekurtsoen zain dauden GEEAko epaien ondorioak argitzeaz gain, Espainiar estatuen

aurkako gaietan emandako GEEAko epaien ondorioak zein izan daitezkeen azaldu du. Auzitegi Konstituzionalak zeharka aipatutako ondorio horiek berretsi egin ditu **Auzitegi Gorenaren 2019ko urriaren 28ko Epaiak**; epai horretan, Auzitegi Gorenak onartu egin zuen desobedientziagatik zigortu zituen 2008ko Auzitegi Gorenaren epaiaren aurka Juan María Atutxa, M.^a Concepción Bilbao eta Gorka Knorrek aurkeztutako berraztertze errekurtsua. Hiru errekurtsu egileek Espainiar estatuaren aurkako GEEAko epaiak irabazi zuten, eta **Prozedura Kriminalaren Legeari 41/2015 Legeak emandako bertsioaren** 954.3 artikularen babespean, epai zigortzailearen aurka berraztertze errekurtsua aurkeztu zuten. Auzitegi Gorenarentzat aski da Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak aitortutako eskubide bat urratu izana ezarri duen GEEAren epaiaren existentzia egiaztatze hutsa berraztertze errekurtsua onartzeko eta 2008ko epai zigortzailea baliogabea zela aitortzeko.

* * *

Nazioarteko jardun nabarmenaren iruzkin honetan, osatuga-bea den arren, euskal administrazioaren eta herritarren eskubideen jardun eremuan zuzenean eragin dezakeen jarduna aukeratu da, eta agerian uzten du, izaera partziala duen arren, nazioarteko eta Europa mailako esparrutik iristen diren bultzaden aberastasuna. Dagokion misioa zuzen betetzeko, Arartekoak nazioarteko gaurkotasan juridikoa jarraitu eta aplikatu egin behar du.

2. Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoa: 2019an helburuak eta estrategia-ardatzak garatzea

Betebehar bermatzailea duen erakunde bati, alegia, Arartekoari lotutako testuinguruak sortutako behar operatiboaren eraginez, **antolakuntzarako barne-egitura sortu zen 2018an**, Arartekoaren ustez aurreko puntuan laburtutako erronketatik eratorritako eginkizunak betetzeko, betiere modu antolatuan, zeharka eta ikuspegi estrategikoarekin. Antolakuntzako barne-egitura hori **Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoa** da (ingelesezko siglak erabiliz, EIAD, hau da, European and International Affairs Department). Arartekoak 2018ko martxoaren 23an egindako ebazpen baten bidez eratu zen, eta barne-unitatea da, zeinari esker Arartekoak nazioartean eta Europan ikusgarritasuna izan duten jardueren instituzional handiak gauzatu baititu azken bi urteetan, dedikazio handiagoarekin eta modu antolatuan.

Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoa (EIAD) erakunde honen menpe dago zuzenean, Arartekoak egiten dituen eta Europa eta nazioarte mailan eragina duten

jardueren administrazio-egitura arduraduna den aldetik, baita beste erakunde edo pertsona batzuekin batera eginiko jarduerak ere.

2019an, Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak helburu eta ardatz estrategikoak modu zehatzagoan formulatu ditu, hurrengo bi urteetan praktikan jartzeko helburuarekin, beti 2018ko Urteko Txostenean iragarri ziren bulegoaren funtzio eta helburuen esparruaren barruan. **Hiru ardatz estrategiko nagusi** aukeratu dira:

Arartekoaren nazioarteko jardunaren kanpo dimentsioari dagokionez, Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak aukeraketa metodologia bat plazaratu du, hain zuzen ere ahal bezain zehatz hautatzeko zein foro eta ekitalditan parte hartzea komeni den, kontuan hartuz jarduera horietatik lortutako bultzadak eta ezagutzak, erakundearen misiorako daukaten garrantzia eta eskuragarri ditugun baliabideak. Hala, nazioarteko eszenan parte hartzeari ahal bezain probetxurik handiena lortzea da helburua. Agertoki horretan jarduteko beste esparru bat giza eskubideen nazioarteko erakundeekin truke eta kolaborazio harremanek eratzen dute, esaterako NBEko batzordeak, EBko Oinarriko Eskubideen Agentzia edo Europako Kontseiluaren Giza Eskubideen komisarioa. Erakunde horiek eskaintzen dituzten aukeren mapa lana egitea proposatzen du Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak, informazioa lortzeko eta trukatzeko, ikuskatze prozeduretan parte hartzeko edo garapenean laguntzeko, eta, ondoren, estrategia eta hautapenari ekiteko.

Barne dimentsioari dagokionez, Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak eragile gisa jokatu nahi du nazioarteko eta Europako dimentsioa erakundearen lanean txertatzeko. Horretarako, lan egiteko metodo berriak planeatu dira, hain zuzen ere, izapidetzen ari diren gaietan Europa mailako eta nazioarteko alderdiak identifikatu eta txertatzeko hainbat arlori laguntza emango dien babes eta aholkularitza baliabide gisa finkatzeko, baita prestakuntza eta dokumentu arloko laguntza ematea ere, prestakuntza eta dokumentazio baliagarria hautatuz eta aholkularitzaren esku jarriz, nazioarteko erakunde nabarmenen jurisprudentzia, doktrina eta gaurkotasuna ezagutzeko. 2019. urtean zehar, bulegoak dagoeneko martxan jarri ditu ardatz estrategiko honetan kokatutako jardueretako batzuk: aholkularitza eskaini die hainbat arlori eta informazio, dokumentu eta prestakuntza baliabide ugari sortzen hasi da.

Azkenik, Europa edo nazioarteko eremuetatik iritsitako eza gutza eta berrikuntza **euskal gizarte eta administrazioei helarazteko Arartekoaren bitartekaritza lana** indartzea ere proposatu du Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak, oinarriko eskubideen eta gobernantza onaren arloan, dimentsio hori indartzeko kanpo komunikazioan eta oihartzun publikoa daukan Arartekoaren jardunean.

Ardatz estrategiko hauek martxan jartzeko, Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak 2020an eta 2021ean zenbait jarduera zehatz planteatuko ditu, eta bukatu ondoren horien eragina ebaluatuko da.

3. Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoaren (EIADen) jarduerak 2019an

Aurretik adierazitakoaren bat, 2019an, European eta nazioartean garrantzia izan duen Arartekoaren jardueraren helburua Euskadi eta hango erakundeen iritziz honako alderdi haueetatik eratorritako erronkei aurre egitea izan da: nazioarteko zuzenbidearen bilakaeratik, Europar Batasuneko zuzenbideetik eta pertsonen eskubideak bermatzeko sistematik. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak berea du sistema hori, bereziki giza eskubideen alde egiteari dagokionez, nozio horren gaur egungo osotasun osoan, baina baita gobernantza hobetzeari, zerbitzu publikoak hobetzeari eta bizitza demokratikoak kalitate handiagoa izango duela ziurtatzeari dagokionez ere.

Proiektio hori Arartekoak garatu du, nola European hala nazioartean, eta, horretarako, honako jarduera hauek egin ditu: **hainbat foro eta saretan hartu du parte; hainbat proiektu eta ekimen bultzatu eta garatu ditu, sare horien esparruaren barruan; eta harremanak ezarri ditu beste herrialde batzuetako eragileekin.** Horrez gain, proiektio hori garatzeko, Arartekoak zenbait **jardunalditan eta gogoeta egiteko gunetan parte hartu du EAEn**, eta horien helburua zen bermeak argitzea, giza eskubideek gure inguruan duten egoeraren inguruan sentsibilizatzea eta gobernantza gutzitza demokratiko eta parte-hartzailea lortzeko tresnak hobetzea.

Arartekoak European eta nazioarteko mailan ikusgarritasuna lortzeko xedez 2019an egin dituen jardueren artean, haien **garrantzia edo eragina** kontuan hartuta, jarraian azalduko direnak azpimarratu behar ditugu, jardunaren esparru materialen araberako sailkapenari jarraikiz. Kontuan izan behar da urteko txosten honetan jasotako lan-esparruei buruzko epigrafeetan ere azaldu dela jarraian aipatuko diren jarduera horietako batzuen edukia, xehetasun gehiagoz gainera:

3.1. Ingurumen egokirako eskubideari buruzko eremuan

- Arartekoak iaz egindako lanaren nazioarteko jarraipen eta luzapen modura, **aurten nazioarteko hedapena eman nahi izan zaio trantsizio energetikoari buruzko Arartekoaren ezohiko txostenari; Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen 2018an.** Horretarako, **“Trantsizio energetikoa Euskal Autonomia Erkidegoan: eredu iraunkor baterantz” izenburua zuen txosten aipatuaren laburpena ingelesera itzuli zen.** Itzulpena Arartekoak 2018an Gasteizen antolatutako biltzarrean parte hartu zuten defentsa erakundeen artean hedatu zen; biltzarrearen izenburua zen **“Ingurumen arloko gobernantza egokia: Ombuds erakundearen eginkizuna ingurumen-eskubideak babesteko orduan.”** Bideanabar, itzulpena Arartekoak parte hartzen duen Europa mailako sareetan ere luze eta zabal zabaldu zen.

3.2. Haurren eskubideak babesteari buruzko eremuan

- **Haurrak Defendatzeko Europako Sarearen (ENOC, ingelesez) barruan, ingurune digitaleko eskubideei buruzko lantaldean parte hartzea.** Gaia ENOCeko Batzar Nagusiak aukeratu zuen 2018an, 2019rako lan esparru modura. Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren bitartez inplikatu zen Arartekoa, lantalde horrek 2019ko urtariletik irailera arte egin zuen lanean.
- **Batzar Orokorrean eta Haurrak Defendatzeko Europako Sareak (ENOCek) ingurune digitaleko eskubideen inguruan egindako 23. Biltzarrean parte hartzea.** Topaketa horretan [ingurune digitaleko eskubideei buruzko adierazpena](#) onartu zen; hala sarearen urteko lana bukatu zen. Bestalde, ENYA 2019 foroan Bruselan parte hartu zuten defentsa erakundeetako Haurren Kontseiluko gazteek [ENYA gomendioak](#) aurkeztu zituzten. [Adingabe migranteei askatasuna kentzeari buruzko adierazpen bat](#) ere onartu zen. The Northern Ireland Commissioner for Children and Young People (anfitrioiak) erakundearen eta Europako haurren defentsa erakundeekin kolaboratzea. Belfast, irailak 25-27.
- **“Let’s Talk Young, Let’s Talk about Children’s Rights in the Digital Environment” izenburuko ENYA 2019 proiektuan parte hartzea, ENOC Europako Sarearen jardueren esparruaren barruan.** Urtean zehar, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak, Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluarekin batera, haurren eta gazteen ingurune digitaleko eskubideei buruzko hainbat jarduera egin zituen (bilerak, tailerrak, bideoak, gomendioak), eta jarduera horien emaitzak ENYA 2019 foroan aurkeztu ziren, Bruselan, ekainaren 25ean eta 26an. Foroan, parte hartu zuten haur eta gazteek gaiari buruzko zenbait gomendio adostu eta prestatu zituzten, eta, aldi berean, ENOCen adierazpenean bildu ziren, aurreko atalean aipatutako urteko batzarrean onartutakoa. Le Délégué Général aux Droits de l’Enfant de la Communauté française (Valonia-Brusela, Belgika) erakundearen (anfitrioiak) eta Europako eskualde eta estatu mailako defentsa erakundeekin kolaboratzea.

3.3. Europako errefuxiatuen eta migratzaileen eskubideen eremuan

- **Grezia eta Herbehereetako Ombudsman erakundeekin batera txosten bateratua lantzen jarraitzea, errefuxiatu eta asilo eskatzaileen integrazioari buruzkoa; Ombudsman Nazioarteko Institutuaren (IIO) Europako atalaren jardueren esparruan abiatu zen.** Urtean zehar, Arartekoak dagokion txosten atalaren egitura proposatu zuen, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei emandako arretari buruzkoa (BDAA), aipatutako IIO Europako esparruan onartutakoa. Arartekoa bideratzen ari den azterketaren helburua bakarrik dauden adingabe atzerritarrei Europako herrialdeetako administrazioek emandako arretaren praktikarik onenak bildu eta aztertzea da, ikuspuntu integraletik, baita

bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dagokien administrazio jarduna kontrolatzen defentsa erakundeen praktikarik onenak biltzea ere. 2019an zehar, Arartekoaren Haur eta Gazteentzako Bulegoak eta Nazioarteko Bulegoak bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zuzendutako arretari buruzko nazioarteko estandarren oinarri finkoa identifikatzeko egin du lan, Europako eta nazioarteko organismo eskudunek ezarritakoak; horrekin, Europako defentsa erakundeetatik jasotako informazioa konparatuko da, identifikatutako estandarretatik abiatuz galdetegi bat erantzuteko eskatu baitzaie. 2020ko maiatza baino lehen txostena prestatzen ari diren hiru defentsa erakundeak berriz bilduko dira, eta txostena azkenean IIOko Mundu Biltzarrean aurkeztuko da, 2020ko maiatzean, Dublinalan.

- Aosta Eskualdeko Ombudsman erakundeak 2019ko martxoan antolatutako IIO tailerra zela bide, **Europako defentsa erakundeen arteko eztabaida, Arartekoak proposatuta, “Sophia operazioa” bertan behera uztearen balizko eragin humanitarioaren inguruan egin zen;** EBko itsas patruilen operazio bat zen, eta arriskuan zeuden migranteak zeramatzen ontziak erreskatatzeko agindua zuen. Eztabaida bateratu horren ondorioz, Europar Batasuneko Segurtasun eta Kanpo Politikarako goi ordezkari Federica Mogheriniri gutun bat bidaltzea erabaki zen, aipatutako “Sophia operazioa” bertan behera utzi izana salatuz. IIOko Ombudsmanen foro horretan adostu zenez, gutuna IIO Mundialeko presidenteak igorri zuen, Peter Tyndallek. Arartekoak gutuna idazten kolaboratu zuen, ekimena ere berea izana kontuan hartuz.
- Parte hartu zuen **Europako Batzordeak antolatutako tailerretan, gizarte bazterketa eta pobrezia aurre egiteko “Haurrentzako bermea” sortzeari buruzko azterketaren parte gisa.** Tailerra Malmö ospatu zen urriaren 10ean eta 11n, eta haur eta gazte migranteek pairatzen dituzten arazoak landu ziren, arreta, osasuna, hezkuntza, ostalua eta nutrizioa jasotzeko sarbideari dagokionez; bidenabar, jarduteko zenbait politika eta lehentasun adostu ziren, irtenbidea lortzen saiatzeko.

3.4. Kulturaren eta hizkuntza eskubideen eremuan

- **Hezkuntza elebidunaren inguruko mintegian parte hartzea, Europako Batzordeak antolatutakoa Galesko Ombudsman erakundearekin batera; Cardiffen izan zen, urtarrilaren 22tik 24ra.** Georgia eta Abjasiako gizarte zibil eta erakundeen ordezkariak zegoen zuzenduta, eta helburua hizkuntza gutxituak hezkuntzaren bitartez babesteari buruzko hausnarketa egitea zen. Topaketa hau beste topaketa berdinekin bati jarraipena emateko antolatu zen; beste ekitaldi hori Arartekoak antolatu zuen eta Gasteizen egin zen 2017an. Hezkuntza elebiduneko hainbat eredu aurkeztu ziren, besteak beste, Irlandakoa, Galeskoa eta EAEkoa; aurkeztutako Arartekoko hizkuntza eskubideen arloko arduradunak egin zuen, eta gure ereduak desberdinen arteko bizikidetzeta eta gizarte kohesioan laguntzearen aldeko bokazio argia duela azaldu zuen, hizkuntza eskubideak ikuspegi

zibikotik babestuz, horren arabera titularrak ez baita talde etniko bat, baizik eta, aniztasunean, desberdintasunen arteko bizikidetzak integratzaileari buruzko oinarriko adostasuna partekatzen duen gizarte bat. Ekarpenean haiek adostasun zabala lortu zuten eta harrera positiboa izan zuten Europako Kontseiluaren ordezkarien artean, mintegiak helburu zituen herrialdeetan parte-hartzeak eratuak garatzeko oinarri modura.

- **Hizkuntza Ordezkariei Nazioarteko Elkartearen (IALC ingelesez) urteko biltzar eta bilera** parte hartzea eta panelean hitzaldia eskaintzea: “The Founding Principles and Successful Investigations”. Biltzarrean zehar **“Constitutional Pioneers. Language Commissioners and the Protection of Official, Minority and Indigenous Languages”** liburua aurkeztu zen. Arartekoak ere parte hartu du liburu horretan, “Protecting Language Rights in Euskadi: The Basque Ombudsman’s Experience” izenburua duen atalarekin. IALCtik sortutako lehen argitalpen bateratua da, eta hizkuntza politikaren ardura duten instantzien informazio hobea ematea du helburu, baita gizartearena ere. Kolaborazioa The Ombudsman of Ontario (anfitrioiak) erakundearekin eta beste hizkuntza erakunde batzuekin. Toronto, ekainaren 26-28.

3.5. Datu pertsonalak babesteari buruzko eremuan

- IIOko **“General Data Protection Regulation and its challenges from human right’s aspect”** workshopen parte hartzea, IIOk eta Letoniako Herriaren Defendatzaileak antolatutakoa Rigan, urriaren 16an eta 17an. Mintegi horretan Datuak Babesteko Erregelamendu Europarra indarrean sartu ondoren aplikatzeak ekarriko dituen erronkak landu ziren; erronkak ez dira soilik defentsa erakundeentzat izango, baita mintegi horretan ordezkartuta egon ziren Europar Batasuneko estatuetako bestelako administrazioetarako ere. Berezik, kazetaritza lanean adierazpen askatasunari jarritako mugen gaia jorratu zen.

3.6. Gizakien salerosketaren eremuan

- **“La trata de mujeres con fines de explotación sexual”** jardunaldi transnacionalean parte hartzea, **Ombudsman Federazio Iberoamerikarraren (FIO)** Emakumeen Defentsa Sareak antolatutakoa. Arartekoa federazio horren koordinatzailearen ondokoa da. Jardunaldia Santa Cruz Tenerifekoan ospatu zen, urriaren 3an eta 4an. Arartekoaren ondokoa mahai inguru batean parte hartu zuen berdintasunaz arduratzen diren defentsa erakundeen beste ordezkari ondoko batzuekin, eta fenomeno horren inguruan Arartekoak duen ikuspegia azaldu zuen. Arartekoak beste euskal erakunde batzuekin kolaboratu du, esaterako Emakunderekin, eskubide urraketa larri hau pairatu duten emakume eta neskei babesa emateko estrategia berriak garatzeko. Kanaria Uharteetako herriaren defendatzailearekin kolaboratzea.

3.7. Genero indarkeriaren aurkako borrokaren eta berdintasunaren eremuan

- **Ombudsmanen Federazio Iberoamerikarraren XXIV. Biltzarrean** parte hartzea; Rio de Janeiron ospatu zen azaroaren 26tik 28ra, “Genero indarkeria eta berdintasuna” lemapean. Biltzar horretan Arartekoaren ondokoa FIO 2019 txostena aurkeztu zuen, “Genero indarkeria eta berdintasuna” izenburupean. Brasilgo Procuradoria Federal dos Direitos do Cidadão erakundearekin (anfitrioiak) kolaboratzea.

3.8. Erakundeen arteko lankidetzaren eremuan eta Ombudsman erakundeei dagozkien eginkizunetan sakontzeko sare-lanaren eremuan

- **Ombudsmanen Nazioarteko Institutuaren “Working network: Experience and perspectives of an upcoming reality”** workshopen parte hartzea. Mintegi horretan defentsa erakundeen arteko koordinazio eta lan bateratua landu zen, baita ematen dituen etekinak ere, hiru mailatan: herrialde desberdinetako defentsa erakundeen artean, estatu berean estatu azpiko defentsa erakundeen artean, eta hainbat lan arloren ingurukoak, esaterako osasuna eta zerbitzu sozialak. Arartekoak mintzaldi bat eskaini zuen Espainiako erkidego mailako defentsa erakundeen eta herriaren defendatzailearen arteko kolaborazioaren inguruan. Kolaborazioa II Defensore Civico della Regione Autonoma Valle d’Aosta eta IIOko kide diren beste defentsa erakunde batzuekin. Aosta, martxoak 28 eta 29.
- **Herrien Defendatzaileen Europako Sarearen (ENO) urteko hitzaldian** parte hartzea; Bruselan egin zen, European Ombudsmanek antolatuta, apirilaren 8an eta 9an **“Europako demokraziaren egoera: demokrazia parte hartzaileari zentzua ematen”** izenburupean. Aipatutako topaketaren osoko saioetan batez ere herritarren parte hartzerako bideak landu zituzten, une honetan Europako demokrazietan garatzen ari direnak eta horrek politika publikoak diseinatzen eta erabakiak oro har hartzen duen eragina aztertu zen, baita defentsa erakundeek parte hartze hori sustatzeko izan dezaketen rola ere. Horrez gain, Arartekoa erakundearentzat bereziki interesgarriak diren beste gai batzuen inguruko hausnarketak eta esperientziak trukatzeko lantaldeak antolatu ziren, tartean zahartze demografikoak osasun, etxebizitza eta hirien sistemetarako dituen ondorioak, edo prestazio sozialek, familiakoek edo osasun prestazioek mugaz gaindiko testuinguruetan eragiten dituzten arazoak.
- Erresuma Batuko Parliamentary and Health Service Ombudsman erakundeak **elkar ikuskatzeari buruz antolatutako mintegian** parte hartzea, IIOrekin batera, irailaren 23an Londresen. Mintegi horretan defentsa erakundeen arteko ikuskaritza edo auditoretza

metodologia aurkeztu zen; dagoeneko eremu britainiarreko defentsa erakundeen artean bi aldiz garatu eta jarri da martxan. Defentsa erakundeek elkar ikuskatzean datza metodologia, eta, batez ere, hiru abantaila nagusi dakartza: Lehenik eta behin, ikuskatutako defentsa erakundeak erakunde ikuskatzaileen esperientziaren etekina jasotzen du, erakunde diren aldetik erakundeak sakonago ezagutzen baitituzte aholkulari komertzialek baino, azken horiek sektore pribatua ikuskatzen ohituago baitaude. Bigarrenik, aipatutako esperientzia eta ezagutza kostu txikiagoan lortzen da, elkar ikuskatzea doan egiten baita, eta ikuskatutako erakundeak ikuskatzaileen bidaia eta mantenu gastuak baino ez dituelako ordaindu behar. Azkenik, bi erakundeek lortzen dute prozesu horren etekina, bi erakundeentzat ezagutza sakona eragiten baitu. Horrelako ikuskaritza lanak desiragarriak izan daitezke, esaterako, defentsa erakunde baten egoeraren diagnostikoa egiteko, egindako erreformak ebaluatzeko edo egituraren aldatzeko egiteko prestatze aldera. Mintegi horretan eremu britainiarrean egindako elkarrekiko bi ikuskaritzen metodologia, prozesua eta emaitza azaldu ziren, eta hortik aurrera jardunbide onen dokumentua idatziko da, metodologia hau probatu nahi duten beste erakunde batzuei orientazioa eskaintzeko.

- **“Ombudsman tools” izenburua zuen tailerrean parte hartzea, defentsa erakundeen tresnei buruzkoa:** II Oren mintegien esparruan antolatu zuen Herbehereetako Ombudsman erakundeak, Hagan, azaroaren 1ean. Hainbat defentsa erakundetako ordezkariak bertaratu ziren, eta elkarrekin eztabaidatzeko abagunea izan zuten, besteak beste, erakunde horiek dagoenik lana betetzeko haien esku dituzten lan metodologiengatik. Hizpide izan zituzten gaien artean aipa daitezke kexak onartu eta sailkatzeko prozedurak, jokabide zaileko kexagileen tratamendua, ebazpenak emateko oinarritzat hartutako araudi iturri desberdinak erabiltzea edo komunikazio estrategiak. Bertaratutako defentsa erakundeek haien esperientzia partekatu, besteekin erkatu eta elkarrengandik ikasteko aukera izan zuten.
- **“The Venice Principles in strengthening the Ombudsman Institutions” biltzarrean parte hartzea,** Txipreko Giza Eskubideak Babestu eta Administrazio Erakundeak antolatutakoa [Mediterraneoko Ombudsman Elkartearekin](#) eta Veneziako Batzordearekin batera (Nikosia, abenduaren 10a). Biltzar horretan Veneziako Printzipioek eragindako eskakizunak landu ziren, lehenago ere aipatu ditugunak, herritarrak defendatzeko erakundeak, baita erakunde horiek egin beharko dituzten moldaketak ere, horiek bete ahal izateko. Europako Kontseiluaren barruan ikuskatze mekanismo bat ezartzeko aukera ere aipatu zen, Veneziako Printzipioen betetze maila ebaluatzeko.
- Haur eta gazteen eskubideen eremuan, Haur eta Gazteentzako Bulegoak ENOC sarearen kide diren hainbat defentsa erakunderekin kolaboratu du haurrak eta gazteak babesteari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoko legedi eta politikengaineko informazioa eskainiz. 2019an jasotako hainbat informazio eskabidek honako

gai hauek landu dituzte: haurren pobrezia desagerrarazteko politika, kalean dauden haurrak, edo haurrak babesten esku hartzen duten zerbitzuen arteko lankidetzaren mekanismoak. Informazio eskaerak beste estatu batzuetako egoerari buruzko informazioa nahi duten defentsa erakundeetatik iristen dira, eta ENOCen idazkaritzatik hedatzen dira.

3.9. Erakundeen arteko lankidetzaren eremuan, harreman estrategikoak ezartzeko, erakunde publikoen gobernantza eta funtzionamendua hobetze aldera

- **Bakearen Nobel Saria René Cassini eman izanaren 50. urteurrena omentzeko ekitaldian** parte hartzea, Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuan, Estrasburgon, urtarrilaren 18an. Arartekoak hartu zuen parte eta, ekitaldi sinboliko modura, Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zen institutuko lorategian.
- **Europar Batasunean Zuzenbide Estatuari buruzko topaketan parte hartzea,** Madrilén, maiatzaren 31n. Europar Batasunean Zuzenbide Estatuari buruzko komunikazio berria prestatzeko prozesuan, Batzordeak kontsulta bira bat antolatu zuen estatu kideetan, eta akademiko eta erakunde interesatuak deitu zituen. Arartekoa Madrilén egindako kontsultara gonbidatu zuten, eta bertan herrien defentsa erakundeek duten betebeharrak nabarmendu zuen, botere exekutiboak kontrolatzeko instantzia modura eta Zuzenbide Estatu babesteko funtsezko aliatu gisa, baita EBko Zuzenbidea betetzeko ikuskari bezala ere, herritarrengandik gertu dagoenez abantaila baitu. [Zuzenbide Estatuari buruz Batzordearen uztailaren 17ko Komunikazio](#) berriak berriaz aipatzen du herritarren defentsa erakundeen betebeharrak.
- **Veneziako Printzipioei buruzko mintegian parte hartzea, Ikerketa Politiko eta Konstituzionalen Zentroak antolatutakoa,** Madrilén ekainaren 13an. Mintegi honetan akademikoak, oraingo zein aurreko herritarren defendatzaileak edota Veneziako Batzordeko kideak bildu ziren, eta printzipioak prestatzeko prozesuaz eta defentsa erakundeen etorkizunerako ekarriko dutenari buruz hitz egin zen. Arartekoak azken gai horri buruzko mahai inguruan hartu zuen parte. Eskainitako mintzaldian Europako Kontseiluak 70eko hamarkadatik prestatutako esparru arautzaile zabalari Veneziako Printzipioek egindako ekarpenak aztertu zituen, herritarren defentsa erakundeek dagokienez, printzipio horiek izaera zorrotzagoa baitzuten Parisko Printzipioekin erkatuta eta defentsa erakundeek garatutako jardueraren zenbait alderditan ondorio zehatzak izan zituzten. Estatu azpiko izaeradun defentsa erakundeetarako duten esanahia ere hizpide hartu zuen.
- **Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Agentziari buruz hasitako kontsultan parte hartzea, 2021erako lan programari dagokionez.** Uztailen, Oinarriko Eskubideen Agentziak eskaera egin zuen

interesatutako eragileek parte har zezaten Agentziak 2021erako prestatutako lan planari buruzko iritzia emate aldera. Kontsultak Agentziaren lanaren funtsezko alderdiak aipatu zituen, esaterako datuak batzea, Europako eta estatu mailako erakundeen aholkularitza eta eskubide eta balioak sustatzea. Arartekoak parte hartu zuen Agentziak igorritako galdetegia erantzunez. Agentziaren lanak balio handia dauka EBn oinarritzko eskubideen egoera hobeto ezagutzeko eta hobeto aplikatzeko.

- **Europako Kontseiluaren ikuskatze organismoen buruzko informazio saioan parte hartzea**, garrantzitsuak badira haur eta gazteen eskubideak defendatzeko. Saioa Belfasten antolatu zen urriaren 24an, Haurrak Defendatzeko Europako Sarearen (ENOC) biltzarraren aurreko hitzordu modura. Saio hartan ikuskatzeko hiru mekanismo aurkeztu ziren: [Eskubide Sozialen Europako Batzordeak Europako Karta Sozialaren](#) kide diren estatuen jarduna ikuskatzen du, partikularrek aurkeztutako kexen eta aldizkako txostenen bitartez; [Gizakien Salerosketaren aurkako Adituen Taldeak](#) zaintzen du [Gizakien Salerosketaren aurka borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena](#) betetzea, hitzarmenaren zenbait alderdi lantzen dituzten bira tematikoen bitartez; eta [Adingabeen aurkako Sexu Abusuak Saihesteko Hitzarmenaren parte diren estatuen Batzordeak hitzarmen](#) hori betetzea ikuskatzen du, hitzarmenaren zenbait alderdi lantzen dituzten ikuskatze bira tematikoen bitartez. Hiru ikuskatze mekanismoen funtzionamendua azaldu zen, eta herritarren defentsarako erakundeen arteko kolaborazio aukerei buruz ere hitz egin zen; ikuskatze mekanismoen lana lagundu dezakete informazioa bidaliz edo betetzen ez den egoerak jakinaraziz. Halaber, ikuskatze mekanismo horien txostenak eta ebazpenak baliagarriak izan daitezke defentsa erakundeen eguneroko lanean, nazioarteko betebeharrak betetzeko egoeraren ebaluazioa eman dezaketelako dagozkion gaietan, baita nazioarteko tratatuen interpretazio baimenduak ere, herritarren defentsarako erakundeek kexak ebazteko edo txostenak egiteko argudio juridikoetan txertatu ahalko dituztenak.
- Herritarren interesak dituzten edo Euskal Herrian egoitza duten beste herrialdeetako enbaxada eta kontsulatuekin aritu zen elkarlanean, eta harremanak ezarri ziren haiekin:
 - Errumaniako kontsul nagusiarekin bilera Bilbon, ekainaren 6an.
 - Bilera Frantziako enbaxadorearekin, enbaxadako gai politikoko kontseilariarekin eta Frantziako kontsul nagusi berriarekin Bilbon, Frantzia eta EAEren arteko balizko kolaborazio aliantzei dagokienez. Gasteiz, urriak 1.
 - Boliviako enbaxadorearekin bilera urriaren 11n, Bilbon.
- Mintzaldia [Europako Kontseiluak Donostia hiriarri emandako Europa Sariaren](#) ekitaldian, hiri horretako udaletxean, irailaren 19an.

- **“Europako Kontseiluaren 70. urteurrena (1949-2019): Giza eskubideak eta Demokrazia”** biltzarraren irekiera Donostian, 2019ko abenduaren 2an; Eusko Jaurlaritzak antolatutako ekitaldia, Europako Kontseiluaren ordezkarien presentzia eta parte hartzearekin. Eskainitako mintzaldian arartekoak Europako Kontseiluaren ibilbidea birpasatu zuen eta gaur egungo testuinguru geopolitikoan duen garrantzia nabarmendu zuen.
- **“Bubi gutxiengoa Ekuatore Ginean: bere errealitateari buruzko hausnarketak”** jardunaldiaren irekiera, UPV/EHUko Giza Eskubide eta Botere Publikoen UNESCO katedrak eta Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta Bizikidetzeta Idazkaritzak antolatutakoa, Bilbon, abenduaren 3an. Arartekoak giza eskubideak babesteko Afrika barnean existitzen diren eskualde mailako mekanismoak aipatu zituen eskainitako mintzaldian.

3.10. Justiziaren eremuan

- [European Forum for Restorative Justice](#) (EFRJ) lantaldean parte hartzea, **“Violent Extremism”** gaitzat hartuta, azaroaren 26an Lovainan (Belgika). Lantaldea eratzeko helburua esperientziak eta praktika onak partekatzea da, justizia errestitutiboa erabiltzean delitu horientatik espetxean dauden pertsonen muturreko indarkeria eta erradikalizatzea saihesteko, “desistantze” sustatuz.
- **“The role of Restorative Justice in preventing and responding to violent extremism”** mintzaldia [Radicalisation awareness network](#) sareak antolatutako jardunaldietan, abenduaren 3an eta 4an Dublinen (Irlanda), biktimei arreta eskaintzeko (bereziki terrorismoaren biktimei) eta presoak gizarterako Europako profesionalekin.

4. Arartekoak Europako eta nazioarteko dimentsioko jardueretan parte hartu izanaren balorazioa

Erakunde honek 2019an egin duen jarduera biziak, Europan eta nazioarteko mailan ikusgarritasuna izan duenak, honako hau ahalbidetu du, zalantza izpirik gabe: **gaur egungo erakundeak** —gurea, besteak beste— **aurre egiten ari diren erronka berriei buruzko jakintzak sakontzea**. Hala ere, eta horrez gain, **giza eskubideen alde egiteko helburuari** eta botere publikoekin *lankide kritiko* gisa lan egiteko funtzioari **dagokionez aurrerapausoak ematea** ahalbidetu du. Hori guztia lortu da zerbitzu publikoak eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko ahalegina egin delako beti, baita Euskadiko demokrazia sakontzen laguntzeko ere, kontuan izanda elkarloturiko mundu batean bizi garela.

4.1. Arartekoaren konpromiso aktiboa defentsa erakundeen nazioarteko sareetan: emakumeen, migratzaileen eta haurren eskubideak babestea, baita hizkuntz eskubideak ere

Aurretik laburbildutako jarduera ugariak direla eta, Arartekoak, **gaur egungo defentsa erakundeetako eskubide osoa duen kide izaki** —defentsa erakunde horietan lan egin du 2019an zehar, modu guztiz aktiboan—, gaur egungo erakunde guztiei **inporta zaien gai ei buruz eztabaidatu eta gai horien inguruko nazioarteko gogoeta egin nahi izan du**, eta, era berean, **erakundea bera aberastu** egin du. Horretarako, Europako eta nazioarteko estandarren ezagutza hobetu du, eta jardunbide egokiak trukatu ditu esparru horretan diharduten beste hainbat eragile homologorekin.

2019an zehar arartekoak **hizkuntza eskubideen** arloan izandako jarduna nabarmendu behar da, IALCen eta beste foro batzuetan izandako parte hartze aktiboagatik; batez ere **“Constitutional Pioneers”** liburuari egindako ekarpenean ikus daiteke. Arartekoaren jardunari esker, hizkuntza eskubideak babestu eta sustatzeko euskal eredu nazioartean ezagutzera eman da, eta Eskualde eta Hizkuntza Gutxituen aldeko Europako Kartaren Adituen Batzordeak egiten duen ebaluazioaren arabera, eredu arrakastatsutzat jo daiteke.

Arartekoak, horrez gain, inplikazio berezia izan du **genero indarkeriaren eta gizakien salerosketaren aurkako** borrokaritza buruzko nazioarteko eztabaidan; izan ere, koordinazio lanak bete ditu gai honi buruzko FIOko lantaldean, gai horien inguruko ikuspegia eskainiz, txosten honetan emakumeen integritate eta berdintasunari buruzko atalean xehetasun handiagoz eskaini den moduan.

Migrazio eta asiloaren eremuan, Arartekoak bere konpromisoari eutsi dio **bakarrik dauden adingabe atzerritarrei eskainitako harreraren praktika onei buruzko txostena eginez**; nazioarteko estandar eta jardunbide onen bilduma baliotsua eskainiko du, eta baliagarria izango da harrera horretan inplikaturako pertsona eta aginteentzat. Maila politikoan ere ekimenak bultzatu ditu, Europar Batasunaren esparruan, Mediterraneoan pertsonak salbatzea bermatzeko.

Azkenik, nabarmendu behar da Arartekoa **haurren eskubideak babesten** inplikatzeko delako, hain zuzen ere gaurkotasan pil-pilean dagoen arlo digitalean. Arartekoak ENOCen lanari ekarpena egin dio **“Childrens’ Rights in the Digital Environment”** izenburua duen ebazpen garrantzitsu bat hartzeko; horrez gain, Haur eta Gazteen Kontseiluko haur eta gazteek gai honi buruz Europa mailan dauden eztabaidetan parte hartzea ahalbidetu du, **ENYA sarearen bitartez**.

4.2. Ezagutzak eta jardunbide egokiak nazioartean trukatzeko: Veneziako Printzipioak eta defentsa erakundeen arteko kolaborazioa, erakunde gisa dagozkien funtzioak etengabe hobetzeko

Halaber, Arartekoak ezagutzak eta jardunbide egokiak trukatu ditu Europako eta nazioarteko beste defentsa erakunde batzuekin, eta hainbat topaketatan hartu du parte. Topaketa horien helburua izan zen arazoei nahiz erronka komunei buruzko gogoeta egitea elkarrekin, lurralde- edo nazio-inguruneak defentsa erakundeek ematen dizkien ikuspuntu anitzak aintzat hartuta. Topaketa horietatik guztietatik, honako hauek nabarmenduko ditugu, topaketa horietan landutako gaien garrantzia, eztabaiden aberastasuna eta erakunde hau hobeto ezagutzeko eztabaidok izandako eragin positiboa dela eta:

Europako Kontseiluak onartutako Veneziako Printzipioak berrikuntza garrantzitsua dira nazioarteko herrien defentsa erakundeetarako. Nazioartean orain arte erabili gabe zeuden zenbait estandar finkatzen ditu; estandar zorrotzak eta modernoak dira. Estandar horiek aplikatzeak eta ikuskatzeak soka luzea ekarriko du datozen urteetan, eta defentsa erakundeak haien buruari buruzko hausnarketa egitera bultzatuko ditu; halaber, etengabe hobetzeko prozesuetara ere bultzatuko ditu, independentzia eta eraginkortasuna bezalako alderdi garrantzitsuak indartzeko. Arartekoa iaz ere inplikatu zen printzipio hauek prestatzeko alde aurreko kontsultetan, eta aurtun, estatu mailan zein nazioartean, dagoeneko gertatzen ari diren eztabaidetan ekarpena egin du, printzipio horiek defentsa erakundeen betebeharrean izango duten eragina zehazte aldera. Europa mailako herritarrek defendatzeko gainerako erakundeek bezala, Arartekoan ere bere buruari buruzko hausnarketa egin behar da Veneziako Printzipioei dagokienez, erreformak *de lege ferenda* egin beharra ekar dezakeelako.

Arartekoaren partaidetza duten sareek emandako aukerak ere baliatu ditu gure erakundeak metodologia berriei buruzko ezagutza lortzeko, etengabeko erakunde hobekuntza lortzeko, esaterako IIOko defentsa batzuek martxan jarritako **“peer review” esperientzia**; horren bitartez, defentsa erakundeen arteko kolaborazioa lortu nahi da, berdinen arteko berrikusketa lortzeko, erakunde funtzioak eta, azken buruan, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak etengabe hobetze aldera. Arartekoak, hala, ezagutza iturrietara sarbidea izatea lortzen du, hain zuzen ere bere kalitate prozesuetarako oso baliagarriak izan ahal zaizkionak, beti herritarrei gero eta zerbitzu hobea eskaintzeko bokazioarekin.

* * *

Mundu erabat globalizatu honetan, nazioarteko erakundeek, GKEek, eskubideen defentsan diharduten estatu mailako eta maila apalagoko erakundeek elkarri entzun, elkar ezagutu, helburuak partekatu eta beren jardunean sinergiak sortu behar dituzte, helburu komuna —pertsonek eskubideak defendatzea— betetzeko.

Sinergia horiek, dudarik gabe, areagotu egin dira Arartekoarentzat 2019an. Izan ere, erakunde hau modu aktiboan inplikatu da Euskadi inguratzen gaituen munduarekin lotzen duten jarduerak sustatzen. Horren ondorioz, **Arartekoak Europako eta nazioarteko inguruarekin partekatu duen agenda** garatu du: ingurumen-eskubideak eta baliabideen kudeaketa jasangarria, planetaren erronka nagusi

gisa; emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-indarkeria desagerraraztea; migratzaileak eta errefuxiatuak hartzea eta haien giza eskubideak guztiz defendatzea; erronka berriak, zerbitzuak egitean kalitate handiagoa ziurtatzeko eta inguru digitalean haurren eskubideak eta beharrak bermatzeko; kultura eta hizkuntz eskubideen alde egitearen garrantzia, gizarte baketsuak eta guztiz demokratikoak bermatzeko; eta, horrekin guztiarekin batera, gai honetaz gogoeta egitea: Ombudsman erakundea inguru horretan, eta bere garapena erronka horiei aurre egiteko. Azken batean, agenda horren bitartez, sakonago hausnartu nahi da zeintzuk diren tresnarik onenak une bakoitzean erantzun egokia emateko denon asmo honi: kalitate demokratiko gero eta aurreratuagoa lortzea.

VII.

atala

Arartekoaren

gomendioak eta iradokizunak
zenbateraino bete diren

VII. Atala

ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK ZENBATERAINO BETE DIREN

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legeak —otsailaren 27koak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoari dagokio: *“Dagokien ihardutze-sailei, herrilariari edo hoien lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriazko egintzak zuzentzen edo Arduralaritza-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko”* (sic).

Horregatik, kexak aztertzean administrazioaren jokaera ez dela zuzena izan ondorioztatzen dugunean, gomendio edo iradokizun bat bidaltzen diogu kexak eragindako administrazioari, bere jokaera alda dezan eskatzeko.

Gomendioak ordenamendu juridikoa urratu dela, legez kontra jokatu dela edo hutsegite larria izan dela ikusten denean egiten dira eta, horien bidez, delako jarduera berrikusteko eskatzen zaio kasuan kasuko administrazioari. Formula honen pean egiten dira, orobat, legeak bete behar dela gogorarazteko oharrak.

Iradokizunak, aldiz, honelako kasuetan egiten dira: eragindako administrazioak legeei jarraiki jardunda ere, eskubiak babestearren edo administrazio egokia bermatzearen, beste era bateko jarduera behar denean. Kategoria honetan barneratzen dira, orobat, administrazio bakar bati zuzenduta dauden eta kexa-espeditente jakin batekin zerikusia duten arau aldaketako proposamenak ere.

Hala ere, adierazi nahi dugu beti ez dela beharrezkoa izaten gomendioa edo iradokizuna egitea. Askotan, administrazioak bere jokaera jakin bati buruzko informazioa eskatzeko idazkia jaso eta bere jokaera legezkoatasunarekin bat ez zetorrela egiaztatu ondoren, bere jokaera ez dela zuzena izan aitortzen du, luzamendutan ibili gabe, eta kexagileari urratutako eskubidea berrezartzen dio. Arazoak konpontzeko modu honen bidez, ez da beharrezkoa gomendio edo iradokizun bat beren-beregi egitea; horri esker, irregularitasunak antzeman diren administrazio-jardueretatik ia % 80 gomendio edo iradokizunik egin gabe konpondu dira.

Egindako gomendio eta iradokizunak betetzeari dagokionez, 2019. urtean egindako 97etatik eta 2018ko txosteneko datuen arabera erabakitzeke zeuden beste 35etatik, 37 onartu egin dira; 63 ez dira onartu, 29 erantzunaren edo azken erabakiaren zain daude eta 3 bertan behera utzi dira.

Bete diren ala ez jakiteko aztertu ditugun gomendio eta iradokizunen kopurua 2018. ekitaldikoaren antzekoa izan da.

Egindako gomendio eta iradokizunen onarpen-maila orokorrak zertxobait gora egin du 2018. urtekoaren aldean. Hala ere, oraindik % 50 inguru mantentzen da onartu gabeko gomendioen kopurua.

Azken urteotan ohikoa denez, gizarteratze arloko gomendioak egindako guztien % 54 pasatxora iritsi dira 2019an. Jakina, beti bezala, Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen ondorioz sortu ziren prestazio ekonomikoen gainean espeditente asko bideratu direlako gertatu da hori, aurreko ekitaldian gertatu zen moduan. Gomendio horiek bereziki Lanbideri eragin diote. Gomendio horiei gizarteratze arlo honexetan 2018an erantzunaren edo erabakiaren zain geratu ziren gomendioak gehitzen badizkiegu, nabarmendu behar da onartu gabeko gomendioen kopurua % 70 ingurukoa dela. Alabaina, informazio hori osatuz, zehaztu beharra dago 2019an itxi diren Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin lotutako espeditenteetatik ia % 73 gomendiorik edo iradokizunik egin behar izan gabe konpondu direla, izan ere, Arartekoaren esku-hartzearen ondorioz, Lanbidek bere hasierako erabakia aldatu du.

Emaitza horiek aintzat hartzean, ezin dugu ahaztu erakunde honek egindako gomendio edo iradokizunak ez direla lotesleak eta, ondorioz, limurtzea edo pertuasioa besterik ez dugula laguntza eskatu diguten pertsonen egoera juridikoak konpontzen saiatzeko.

Horregatik, aipatu nahi dugu erakunde honek garrantzi handia ematen diola administrazio publikoetara bidaltzen dituen

erabakiak behar bezala arrazoitzeko beharri, batez ere erabaki bat edo esku hartzeko irizpide batzuk aldatzeko eskatzen denean. Beti esan izan dugu behartzeko gaitasunik ez izateak ahalegin dialektiko handiagoak egitera behartzen gaituela, gure analisisetan sakontzera, desadostasun juridikoak egiaztatzen eta gure argudioak errepikatzen, gure gomendioak eta gogorarazteko oharrak betetzeko orduan bidegabeko aitzakiak jartzen direla ikusten dugunean.

Beti onartu dugu Ararteko erakundeak administrazio jokoera bat aldatzea gomendatu edo iradokitzen duenean, administrazioak ez duela zertan onartu gomendioaren eta/edo iradokizunaren interpretazio juridiko hori, eta ados ez egoteko arrazoiak zeintzuk diren argudia dezakeela.

Batzuetan, eragindako administrazioak ez du adierazten gomendia edo iradokizuna onartzen duen ala ez. Kasuok bestelako balorazioa merezi dute, eta halakoetan, erantzunik ezak gomendia edo iradokizuna ez betetzeko asmoa estaltzen duela susmatzen da, eta, hortaz, administrazioari adierazten zaio erantzunik ez emateko jarrerari eusten badiu, ez onartutzat joko dela gomendia edo iradokizuna, eta zertzelada hori jakinaraziko dela Legebiltzarrari egiten zaion urteko txostenean. Aurten, 2019an, 16 gomendio jo dira onartu gabetzat erantzunik jaso ez delako.

Espedienteak bukatzeko beste modu desegoki bat zera da: eragindako administrazioak gomendia ez onartzea eta bere ezezkia oinarritzeko argudio nahikorik ez ematea.

Egoera horrek kezkatzen gaituenez gero, berriz ere adierazi beharra daukagu horrelako jokoerek urratu egiten dutela Eusko Legebiltzarreko erakunde ordezkari gisa eman dizkiguten eginkizunak onartzea. Era berean, gure iritziz, jokoera horiek begirunerik eza erakusten dute Zuzenbideko Estatuak arazoak konpontzeko eman duen tresnetako bat erabiliz beren eskubideak aitor diezazkieten eta legeria bete dadin erakunde honetara babes eske etorri diren herritarrekiko. Ildo horretan, gogorazi behar da onartu gabeko gomendio edo iradokizun bakoitzak, erakunde honen bermatze lanerako oztupoa izateaz gain, batez ere legea ez betetzen edo herritarren eskubideak urratzen jarraitzea dakarrela berekin, herritarrei legez dituzten eskubideak berrezartzea galaraziz.

Ohikoa denez, atal honetan aipatuko dugu zein egoeratan dauden 2019an egindako gomendio eta iradokizunak, baita 2018ko txostena bukatu genuenean erabakitzeke geratu zirenak ere. Aipamen hori hiru kategoriatan bildutako gomendioen azaleko deskribapena baino ez da izango. Hiru kategoriak honako hauek dira: 1) Administrazioak onartu dituenak; 2) Administrazioak onartu ez dituenak (erantzun ez direnak argi adieraziz); 3) txosten hau amaitutakoan, administrazioaren azken erabakiaren zain daudenak; eta 4) bertan behera utzi direnak.

Ebazpen guztiak, oso-osorik, gure web orrialdean kontsulta daitezke.

1. Onartutako gomendioak eta iradokizunak

A) EUSKO JAURLARITZA

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari gomendatzen zaio, sail horretako "Elebide" Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuak jardun bat berriz abiaraz dezala banketxe batek arreata euskaraz eman ez izanaren harira.
2190/2018/QC espedientea

Hezkuntza Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatu zaio hala eskatutako pertsoneri eman diezaien Euskaren Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko azterketetako ahozko probaren grabaketan kopia.
922/2018/QC espedientea

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko maiatzaren 15ekoa. Horren bidez, Lan eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriki dezala nahiko arau babesik ez izateagatik diru-kopuru jakin bat itzuli beharri buruzko adierazpena, ez baitago egiaztaturik bidegabe jaso zirela prestazio ekonomikoak.
1428/2015/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko ekainaren 12koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio hobekuntza jakin batzuk egin ditzala Lanbideko bulegoetan herritarrek artatzean.
1715/2016/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 19koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezan etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egin izana adierazteko ebazpena.
1187/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 26koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena.
2298/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 28koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpen bat berrazter dezan.
2294/2017/QC espedientea

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko abuztuaren 20koa. Horren bidez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari iradoki zaio XX Fundazioaren patronatuko kideei helaraz diezaien Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzan aurkeztutako inbentarioa osatzen duten dokumentu grafikoaren kopia bat.
1020/2016/QC espedientea

Ogasun eta Ekonomia Saila

Eustat

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 31koa. Horren bidez, EUSTATI gomendatu zaio beharrezko neurriak har ditzan dagokion Erregistro Zibilean jatorrian EAEn jaiotako herritar gisa inskribatutako adingabe adoptatua atzerriko pertsona immigrantei buruzko datu pertsonalen fitxategietatik kentzeko.
2320/2018/QC espedientea

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko urriaren 22koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako espediente bati aitortutako puntuazioa.
2198/2016/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko azaroaren 29koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio “Etxebide” Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroko baja bat indargabetzeko.
676/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 10koa. Horren bidez, “Etxebide” Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan egin zen inskripzio baten antzintasuna berri-kusteko gomendatu zaio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.
590/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 21koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen diogu etxebizitzarako prestazio ekonomikoa ezesteko ebazpen bat ikuska dezan.
64/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 8koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari iradokitzen zaio berrazter dezala zuzkidura-bizitokia aldatzeko berariazko premia aitortzeko eskaera bat ukatzeko erabakia.
1150/2019/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 12koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio indarrrik gabe utz dezala herritar bati “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan baja emateko erabakia.
352/2019/QC espedientea

B) FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Politiken Sailari

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 14koa. Horren bitartez, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari gogorarazi zaio berehala eman behar diela arreta dokumenturik ez duten nerabe/gazte atzeritarrei, ezin baldin bada ziur esan adingabeak diren ala ez.
2481/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 12koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari gomendatzen zaio berma dezala eskatzailearen premia soziosanitarioak aintzat hartuko direla haren profilera egokitutako egoitza-baliabide batean, alegia, baliabide egokian.
2168/2018/QC espedientea

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 17koa. Horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatzen zaio berriz azter dezala dokumentu baten kopia autentifikatua (sarrera-data, -ordua eta -zenbakia biltzen dituen) emateko prozedura, bai eta azaldutako gaiari lotutako beste kontu batzuk ere.
1084/2018/QC espedientea

Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 9koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari gizarteratzeko laguntza bereziaren ezeste-espedientea ikuska dezan gomendatzen zaio.
2098/2018/QC espedientea

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 19koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari zehapen-ebazpenaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa ebaztea gomendatzen zaio; zehapena Gorlizko udal-mugaratean glifosatodun produktu fitosanitario bat herbizida gisa aplikatzean egindako arau-hausteagatik egin zen.
1893/2018/QC espedientea

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Bide Azpiegituren Departamentua

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 23koa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren departamentuari gomendatzen zaio gaitasun handiko A-15 eta N-1 errepideen zenbait zati erabiltzearen kanona ez ordaintzeagatik jarritako salaketetan jarraitzen diren prozedurak bereiztea.
1293/2018/QC espedientea

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UDALAK

Artziniegako Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 1ekoa. Horren bidez, Artziniegako Udalari gomendatzen zaio egindako eskaerari erantzun diezaiola, eta dagokion administrazio espedientea abiaraz dezala Barratagurengo auzoko Tejerako eraikuntzen eta Mendieta auzoko Santo Tomas elizaren kontserbazio egoera ebaluatzeko.
2550/2018/QC espedientea

Guardiako Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 26koa. Horren bidez, Guardiako Udalari gomendatzen zaio behar bezala izapidetu dezala udal bide publiko baten zati bat okupatzeagatik salaketa.
2482/2018/QC espedientea

Okondoko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 8koa. Horren bidez, Okondoko Udalari gomendatzen zaio bere sarbide nagusietan hirigune eta erakundeak behar bezala errotula ditzala eta udalerrri guztiko posta-helbideen euskarri izateko kartografia digitala egunera dezala.
20/2018/QC espedientea

Orozkoko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 16a. Horren bidez, Orozkoko Udalari dagokion zehapen-espedientearen hasieraren auzia berariaz eta arrazoituz ebaztea gomendatzen dio, animaliak edukitzearen araudia hausteagatik aurkeztutako salaketan ondoretarako.
701/2019/QC espedientea

BIZKAIKO UDALAK

Bilboko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko urriaren 24koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Bilboko Udalari gomendatzen zaie neurriak har ditzatela eskolak kirol entrenamenduetarako eta eskolaz kanpoko ordutegian erabiltzearen inguruan.
559/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 26koa. Horren bitartez, Bilboko Udalari gomendatu zaio, hala badagokio, berriz azter dezala irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateei Aste Nagusian txosnak jartzeko baimena emateko baldintzen plegua.
1765/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 14koa. Horren bidez, Bilboko Udalari gomendatzen zaio legeriara egokitu ditzala azokak eta azoka txikiak egiteko baimena eskuratzeko prozedura eta indarrean dagoen espazio publikoari buruzko ordenantza.
1285/2018/QC espedientea

Getxoko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 21ekoa. Horren bidez, Getxoko Udalari gomendatzen zaio eskatzaileari eta haren familiari 2019ko otsailaren 18tik aurrera alta eman diezaiela erroldatzea eskatu duten etxebizitzan.
280/2019/QC espedientea

Leioako Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailearen 15ekoa. Horren bitartez, Leioako Udalari gomendatzen zaio, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailarekin koordinaturik, (...)ko eremuari eragiten dion hirigintza-antolamendua Lamiakoko ibai azpiko tunelerako aurreikusitakoari egokitu dakion susta dezala.
171/2019/QC espedientea

GIPUZKOAKO UDALAK

Bergarako Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko azaroaren 26koa. Bergarako Udalari gomendatzen zaio dagozkion neurriak har ditzan, ostalaritza establezimendu batek eragiten dituen eragozpenak saihesteko, eta lehenbailehen eska diezaion jarduera horri ingurumen arloko legeria betetzeko.
2859/2017/QC espedientea

Donostiako Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko abenduaren 13koa. Horren bidez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio obra lizentzia bat ukatzearen aurka aurkeztutako errekurtsioa berriaz ebatz dezala.
604/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 1koa. Horren bidez, Donostiako Udalari gomendatu zaio erantzun eraginkorra eman diezaien hirigintzako lizentziarik gabe balkoiak ixteagatik egindako hirigintzako salaketei.
710/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 11koa. Horren bidez Donostiako Udalari gomendatzen dio Alde Zaharrean terrazak instalatzean irisgarritasunaren arloan eta bestelako alderdietan legezkotasuna bete dezan.
2822/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 16koa. Horren bitartez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio, bi trastelekuren etxebizitza-erabilera klandestinoaren harira hirigintza-arloko legezkotasuna berrezar dadin jarritako salaketari erantzun diezaiola.
2462/2017/QC espedientea

Hondarribiko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 13koa. Horren bidez, Hondarribiko Udalari gomendatzen dio, udalerriko autokarabanei eta ibilgailu astunei egoerari buruz udal talde batek eskatutako dokumentazioa entrega dezala.
2521/2017/QC espedientea

Oñatiko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko irailaren 4koa. Horren bidez Oñatiko Udalari gomendatzen zaio udalerriko hiri barruko bide batean oinezkoen segurtasuna bermatzeko.
2979/2017/QC espedientea

2. Onartu ez diren gomendioak eta iradokizunak

A) EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko urriaren 24koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Bilboko Udalari gomendatzen zaie neurriak har ditzatela eskolak kirol entrenamenduetarako eta eskolaz kanpoko ordutegian erabiltzearen inguruan.
2183/2018/QC espedientea
Erantzun gabe

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko martxoaren 13koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berrius dezala kexagileak etxebizitzarako prestazio osagarriagatik bide gabe jasotako diru-kopuruak itzuli beharra adierazi izanaren ondorioz itzuli beharreko diru-kopurua.
2349/2016/QC espedientea
Erantzun gabe

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko apirilaren 17koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpen bat berrazter dezan.
2584/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko ekainaren 13koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, guraso bakarreko familia bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko erabakia mantentzea berrius dezala, bai eta ordaindutako prestazio guztiak erreklamatzeko ere ordenamendu juridikoarekin bat ez etortzeagatik.
719/2016/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko irailaren 7koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria bukatzea eta horien prestazioak erreklamatzeko ebazten dituzten ebazpenak, enpleguetako bati uko egiteko arrazoi justifikatua dagoelako, hau da, haurdun egotea arrisku obstetrikiko altuarekin.
60/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko irailaren 12koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio berrazter dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko, eta, horren ondoren, iraungitzea, erabakia.
1073/2017/QC espedientea
Erantzun gabe

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko irailaren 20koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio berrazter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea ukatzeko erabakia; izan ere, iritzi zaio pentsio konpentsatzaileari uko egiteak ez duela esan nahi aurretiaz eskubide ekonomikoa baliarazteko baldintza bete ez denik.
299/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko irailaren 20koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki diogu ebazpen bat berrazter dezala; izan ere, ebazpen horren bidez, herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzak ukatu zizkion sail horrek eta jakinarazi zion ezin zituela prestazio horiek berriro eskatu 2019ko martxora arte.
2672/2017/QC espedientea
Erantzun gabe

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko urriaren 25ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ezespren-ebazpena berrikusteko eta kexagileak eskatutako laguntza aitortzeko. Hain zuzen ere, kexagileak kargura duen bigarren semearengatik laguntzaren mantentzeko egin du eskaera, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren arabera.
1381/2017/QC espedientea
Erantzun gabe

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko abenduaren 14koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki diogu enpleguan borondatez baja emateko arrazoi justifikatuak daudelako diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzearen ebazpena ikuskatzea.
460/2018/QC espedientea
Erantzun gabe

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko abenduaren 19koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentari eta etxebizitzarako prestazio osagarriari dagozkion zenbateko batzuk, bidegabe jasotakoak, itzultzeko ebazpena.
812/2018/QC espedientea
Erantzun gabe

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 10ekoa. Horren bitartez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berrazter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera bat ukatu izana. Izan ere, erakunde honen ustez, Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legearen arabera, irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakunde baten gizarteratzeko programa batean parte har dezake interesdunak.
2699/2019/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 25ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzen dituen ebazpen bat.
2094/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako prestazio modura ordaintzen duen zenbatekoa.
446/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta 12 hilabetez eteten duen ebazpena, ez baitago etetea erabakitze arrazoirik, ezta etenaldiaren iraupena kalkulatzeko sistema baliozkotu dezakeen nahikoa lege-oinarririk ere.
422/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 26koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezala iraungitze-ebazpena eta, modu subsidiarioan, honako hau gomendatzen zaio: diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak eskatzeko ezintasuna gertatzen den urtea zenbatzeko data bat etortzea prestazioaren ordainketa eteteko datarekin.
545/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 2koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki nahi dio indarrik gabe utz dezala prestazioak eteteko ebazpena, erakunde honek uste baitu posiblea izango zatekeela enplegu-eskaera epez kanpo onartzea kasu honetan, eta, horrenbestez, iraungitze ebazpena berrikusi dezala ere iradoki nahi dio. Halaber, Arartekoak 2017ko txosten-diagnostikoa emandako gomendioa errepikatu nahi du, alegia, prestazioa eskatzea ezinezkoa izan zen urtea zenbatzeko kontuan hartu beharreko egunak bat egin dezala prestazioaren ordainketa bertan behera utzi zen egunarekin.
1609/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 12koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta bat eta etxebizitzarako prestazio osagarri bat jasotzeko eskubidearen ukapena berrikusi dezala.
1770/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 13koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio aukera eman dezala etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima izatera gizarte-txostenaren bidez egiaztatzeko. Izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko araudiaren arabera, bestelako dokumentazioa aurkeztuta egiazta daiteke etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima izatera.
2226/2016/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 15ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko erabaki bat, herritarrek enpleguari bere borondatez uko ez ziola egin uste baita.
2848/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 17koa.

Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpen bat berrikustea, eskubide edo prestazio ekonomiko bat erabiltzeko betebeharra ez delako bete, bere genero-indarkeriako egoera, osasun, polizia eta judizio txostenen bidez egiaztatuta dagoena, eta adingabearen interes gorenerako eskubidea behar bezala haztatzen badira.

2469/2018/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 20koa.

Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, berriz azter dezala pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpena.

2321/2018/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 28koa.

Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, ondorioz gabe utzi dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko ebazpena, babesgabetasun egoera sortu baitu horretarako oinarri gisa balio izan duen polizia-txostenaren kopia alde aurretik ez ematean.

1263/2017/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 4koa.

Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio, bidegabe jasotako zenbait prestazio itzultzeko beharra adierazten duen ebazpen bat berrikus dezala eta umezurtz-pentsio baten titularrak pensiodunen bizikidetz-unitateen artean sar ditzala, lanerako ezintasun iraunkorra izateagatik prestazio hori aitortu zaienean.

567/2018/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 6koa.

Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio, berrikus ditzala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako zenbateko batzuk itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpena; izan ere, ez da egiaztatu prestazioren bat bidegabe jaso denik.

2786/2017/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 4koa.

Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzen dion ebazpena, prozedura iraungi egin baita.

1735/2017/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 11koa.

Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpena, babesgabetasun egoera sortu baitu horretarako oinarri gisa balio izan duen polizia-txostenaren kopia alde aurretik ez ematean eta, beraz, kexagilearen babeserako eskubidea ez bermatzean.

2448/2018/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 22koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzeko erabakia berrikus dezala, kexagileak premia-egoera larriagatik harretan hartzeko betekizuna betetzen duela uste baitu.

381/2019/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 23koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpena berrikusteko.

2580/2017/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 23koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezala etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko erabakia.

1840/2018/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 30koa.

Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari honako hau gomendatzen zaio: berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubide subjektiboa ukatzeko ebazpena; horren arabera, kexagileak ez du bete eskubide ekonomikoak baliarazteko betekizuna, ez baitu egiaztatu epai judizialean erabakitako gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak betearazteko eskaera egin izana.

2256/2018/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 7koa.

Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria onartzeko eskaera ezezten duen erabakiari buruzko ebazpena berraztertu dezala, lanaldi osoko lanaren truke kexagileak, genero-indarkeriaren biktimak, lanaldi partzial mugagabea zuen lana utzi zuelako, arrazoia justifikatua izanda.

411/2017/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 25koa.

Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena.

445/2018/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 30koa.

Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio kexagileari jakinaraz diezaiola zergatik ez zen bere hautagaitza aukeratu Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egindako enplegu-eskaintzak (erreferentzia-zenbakiak: 132017006146, 162017007933 eta 162017010825) kudeatzeko prozeduran parte hartzeko.

2133/2017/QC *espedientea*

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 9koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egin zuela jotzeko ebazpena, dokumentazio-errekimendua okerreko helbidean jakinarazi ziotelako, eta berriz azter ditzala etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko arrazoiak, betetzen baititu prestazio horren onuradun izateko betekizunak.

89/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 14koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko ebazpen bat berrikus dezala; izan ere, uste du lan baldintzen aldaketa ukatzeko arrazoi justifikatua dagoela (lanaldi partzialeko etxeko langile izatetik etxe barruko langile izatera pasa da), eta aldaketa hori bere semearen zaintzarekin bateraezina zela.

1056/2019/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 8koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko emandako ebazpena eta, horren ondorioz, ustez bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko eskakizuna.

2427/2016/QC espedientea

Gobernantza Publikoa eta Autogobernu Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 28koa. Horren bidez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari gomendatzen zaio, parte-hartzaile bati eman diezaiola lanpostuak betetzeko prozedura baten espedientean dagoen dokumentazioa.

1328/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 29koa. Horren bidez, titulu akademiko jakin bat lortzeko egindako ikasketa planaren edukiari erreparatzeko gomendia egin zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailari, lanpostuak betetzeko prozesu jakin batzuetako merezimendu gisa.

2188/2018/QC espedientea

HAEE

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 16koa. Horren bidez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (HAEE) gomendatzen zaio, aitortu dezala pertsona batek euskaren ezagutzaren B2 maila egiaztatuta duela; izan ere, hautapen-prozesu batean maila horri dagokion proba gainditu zuen.

2613/2017/QC espedientea

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 9koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari iradokitzen zaio berriz azter dezala merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa programari lagatako etxebizitza bati eragindako kalteei buruzko erreklamazioaren inguruko jarduketa.

2025/2017/QC espedientea

URA - Uraren Euskal Agentzia

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 25koa. Horren bidez, URA - Uraren Euskal Agentziari gomendatzen zaio berrikus dezala aldi baterako ur-ikuskatzaileen aldi baterako beharrak betetzeko lan-politza sortzeko deitutako hautapen-prozesua.

2379/2018/QC espedientea

B) FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazio Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 27koa. Horren bitartez, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazio Sailari gomendatzen zaio foru enplegatutako batek ordainsariak emateko egindako eskaera berriz aztertu eta baietsi dezala.

1901/2018/QC espedientea

Gizarte Zerbitzuen Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 11koa. Horren bidez, Gizarte Zerbitzuen Foru Sailari gomendatzen zaio, hautapen-prozesu bateko administrazio espedientean dagoen dokumentazioa pertsona bati eman diezaiola.

1663/2018/QC espedientea

Erantzun gabe

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 19koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari gomendatzen zaio Administrazioako azpi-eskalako lan-poltsatik Administrazio laguntzailearen kategorian Administrazio azpi-eskalako lan-poltsatik hautatutako pertsonen kontratazioa berrikus-tea, Administrazio azpi-eskalako lanpostuak betetzen eta azpi-eskala horretako ordainsariak jasotzen baitzituzten, eta urriaren 30eko Bizkaiko Diputatu Nagusiaren 172/2018 Foru Dekretuaren bidez deitutako hautapen-prozesuaren merezi-mendu-baremoak aplikatzeari dagokion balorazioari dagokion epeen mende jartzea.
2418/2018/QC espedientea

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UDALAK

Amurrioko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko urriaren 22koa. Horren bidez, Amurrioko Udalarari iradoki dio ikuskapen eta kontrol prozedura bat ezar dezala bizitegi-eraikinetan salatutako zarrak modu eraginkorrean eta objektiboan egiaztatzeko.
2078/2017/QC espedientea

Gasteizko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko irailaren 10ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalarari iradoki zaio berrazter dezala herritar bati gizarte-behar larrietarako laguntza bat ukatu izana, eta hobetu dezala arrazoiaren atala, erabaki hori hartzea ekarri duten zuzenbideko oinarri zehatzak aipatuz.
1290/2017/QC espedientea
Erantzun gabe

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko abenduaren 3koa. Horren bidez, Gasteizko Udalarari trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala 4.1.3. artikuluan aldatzea gomendatzen da, ibilgailu historiko eta zaharretarako aurrez ikusten diren hobarien onuradun izateko orduan baldintza bat ez dadin izan klub edo elkarte baten barruan egotea.
954/2018/QC espedientea
Erantzun gabe

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko abenduaren 20koa. Horren bidez, udaltzain baten jardunaren inguruko kexari erakunde honen gomendioekin bat tratamendua ematea eta, bide batez, kexagileari jarri zitzaion zehapena ikuskatzea eskatzen zaio Gasteizko Udalarari. Udaltzainak salatu zuen bere jardunean trafikoaren araudia arau-hausteagatik.
2864/2017/QC espedientea

ARABAKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK

Ibargurengo Administrazio Batzarra

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 7koa. Horren bidez, Ibargurengo Administrazio Batzarrari gomendatzen zaio bete dezala auzolanen ordenantzan ezarritako prozedura.
450/2018/QC espedientea
Erantzun gabe

BIZKAIKO UDALAK

Barakaldoko Udalarari

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko urriaren 29koa. Horren bidez, kexagileari OHZren kuotaren gainean aplikatutako %40ko errekaru gehigarria ikuskatzea gomendatzen zaio Barakaldoko Udalarari. Egokitu eta alokairuan jartzeko erosi zuen etxebizitza eta erosketa horretatik 4 hilabete igarotzeak ez du adierazten errekaruaren bitartez zergapetu behar den ahalmen ekonomiko handiagoa duenik, herritarraren jardura higiezinaren jardueran nagusi izan behar duen gizarte helburu baten barruan kokatzen baita.
1333/2018/QC espedientea
Erantzun gabe

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailearen 22koa. Horren bidez, Barakaldoko Udalarari gomendatzen zaio, berrikus dezala kexagilearen amaren mendekotasun graduaren aldaketak (2016ko irailean jakinarazi zitzaion udalarari) data horretatik 2019ko otsailera arte ordaindu zuen etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kuotan izandako eragina.
401/2018/QC espedientea

Durangoko Udalarari

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 5ekoa. Horren bitartez, Durangoko Udalarari gomendatzen zaio itzul dezala errekaruarekin igorritako kuota bat, hain zuzen ere 2017ko iraileko ikastaro bati zegokiona.
2326/2018/QC espedientea
Erantzun gabe

Erandioko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 11koa. Horren bidez, Erandioko Udalarari gomendatu zaio behar diren neurriak har ditzala zenbait ostalaritza-establezimenduk baime-nik gabe jarri dituzten terrazak kentzeko.
1113/2018/QC espedientea

Galdakaoko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 7koa. Horren bidez, Galdakaoko Udalarari gomendatzen zaio beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzala "skate" pistaren erabilera legez-tatzeko eta dagozkion kalitate akustikoko mailak betetzen dituela ziurtatzeko.
1262/2017/QC espedientea
Erantzun gabe

Gernika-Lumoko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 10ekoa. Honen bidez Gernika-Lumoko Udalarari iradokitzen zaio neurri egokiak har ditzala ostalaritza establezimendu batek eragin-dako balizko irregulartasunak inguruko auzokoei eragiten ari lekizkiekeen kalteak ekiditeko.
1326/2016/QC espedientea

Ortuellako Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko azaroaren 14koa. Horren bidez, Ortuellako Udalarari behar ez bezala hartutako udalaren ondasun bat berreskuratzeko dagozkion jarduerak egitea gomendatzen zaio.
128/2017/QC espedientea

Portugaleteko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko urriaren 29koa. Horren bidez, Portugaleteko Udalarari gomendatzen zaio alda dezala kirol-zerbitzuen prezio publikoa arautzen duen legea, ez dadin errolda kontuan hartu igerilekuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoen zenbatekoa ezartzeko irizpide gisa.
1352/2018/QC espedientea
Erantzun gabe

Santurtziko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko abuztuaren 2koa. Horren bidez, Santurtziko Udalarari iradokitzen zaio OHZ arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa abiarazteko, hain zuzen, menpekotasuna jasotzeko errekaruaren aplikazioa salbuesteko kausa objektibo gisa eta, horrez gain, eragindako familiari konpentsazio ekonomikoko neurriak ezartzeko aukera azter dezan.
130/2018/QC espedientea
Erantzun gabe

GIPUZKOAKO UDALAK

Bergarako Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko azaroaren 26koa. Horren bidez, Bergarako Udalarari gomendatzen zaio ostalaritza establezimendu baten jarduera legeztatu dezala.
2972/2017/QC espedientea

Donostiako Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko azaroaren 12koa. Horren bitartez, Donostiako Udalarari gomendatzen zaio neurri egokiak har ditzala, luze gabe, kexan salatutako trafikoko araudiaren urraketa zuzentzeko.
1686/2015/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 9koa. Horren bidez, Donostiako Udalarari gomendatzen zaio erantzun arrazoiak eman diezaiela kale bat ibilgailuen nahiz oinezkoen zirkulazioari itxi izanaren inguruan aurkeztutako idazkiei.
2560/2017/QC espedientea
Erantzun gabe

Oiartzungo Udalarari

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 9koa. Horren bidez, Oiartzungo Udalarari iradoki genion beharrezkoak ziren neurriak har zitzan, ostalaritza establezimendu batek izan zitzakeen irregulartasunek aldamenean bizi ziren pertsonen kalterik ez eragiteko.
1449/2016/QC espedientea

3. Erabaki gabe dauden gomendioak eta iradokizunak

A) EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 6koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio ebalua dezala Ordiziako haur eta lehen hezkuntzan funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan 2019-2020 ikasturterako jada onartu diren plangintza-erabakiek zer eragin izan dezaketen, eta neurri zuzentzaileak har ditzala ikastetxe horien artean eskolatutako ikasleak banatzean, oreka handiagoa sustatzen laguntzeko.
597/2019/QC espedientea

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena.
2234/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaera batean interesdunak atzera egin duela dioen ebazpena.
229/2019/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 21ekoa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio berriz azter ditzala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eten dizkion ebazpena eta jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezarri diona, betebehara guztiak bete dituelako.
2716/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 1ekoa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi izana, erabaki hori hartzeko arrazoirik ez dagoela-eta.
380/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen dio berrazter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko ebazpen bat; izan ere, bere ustez, Lanbidek antolatutako ikastaro baterako deialdiaren prozedurak ez du nahikoa bermerik izan administratuarentzat.
439/2019/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 20koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea bigarren aldiz etetea eta, horren ondorioz, iraungitzea erabakitzen duen ebazpena, enplegu-eskatzaille gisa alta emanda jarraitzeko betebeharretik salbuesten duen arrazoi justifikatua dagoelako.
2133/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 20koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpen bat; berraztertze hori egitea beharrezkoa da zer-nolako gabeziak hauteman diren ikusita, haien artean, erreklamazioaren prozedura iraungi izana.
2865/2017/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 27koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena.
645/2019/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 10ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpena, prozedura iraungita eta preskribatuta dagoela ikusten delako.
635/2019/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 12koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen dio berrikeri dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea azkentzeko ebazpen bat; izan ere, uste du kexagileak bete zituela aurretiaz berrabiarazteko betekizunak eta bete zuela Administrazioari laguntzeko betebeharra, diru-sarrera nahikorik ez zuela frogatzeko agiriak aurkeztuz.
496/2019/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 13koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko ebazpena, egiaztatu baita etxebizitza bat erosteko sinatu zuela mailegua, eta, beraz, ez zuela larriagotu bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoa. Halaber, ebazpen horren bidez, ohartarazi da Lanbidek eta gizarte-zerbitzuek lankidetzan aritu behar dutela.
2022/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 26koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio prestazioak erreklamatzeko prozedura bat berrikeri dezala, ez baitira bete jakinarazpena burutzeko aurreikusten diren berme formalak, eta, ondorioz, erreklamaturiko zorra preskribatzea erabaki dezala.
501/2019/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 26koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki dio alda ditzala Lanbidearen 1/2015 Zirkularrean, "bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko baldintzak zehazteari buruzkoan", jasotako irizpideak.
723/2019/QC espedientea

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza bateko hozkailua konpontzeagatik emandako faktura ez ordaintzeko erabakia.
378/2018/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 25ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari iradokitzen zaio berrikeri dezala etxebizitza aldatzeko berariazko premia aitortzeko eskaera ukatzeko erabakia.
914/2019/QC espedientea

B) FORU ADMINISTRAZIOA BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ekintza Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 13koa. Horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari gomendatu zaio babes-espedienteen administrazio-izapideak bizkortzeko, batik batik babesgabatasun-egoera aitortzekoak eta tutoretza norberaren gain hartzekoak, eta, horretarako, beharrezkoa bada, egiteko hori betetzen duten lantalde teknikoak indartu ditzala.
124/2019/QC espedientea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 13koa. Horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari gomendatu zaio babes-espeditenteen administrazio-izapideak bizkortzeko, batik bat babesgabetasun-egoera aitortzekoak eta tutoretza norberaren gain hartzekoak, eta, horretarako, beharrezkoa bada, egiteko hori betetzen duten lantalde.

125/2019/QC espeditentea

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

BIZKAIKO UDALAK

Abanto-Zierbenako Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 25ekoa. Horren bidez, Abanto-Zierbenako Udalari gomendatzen zaio berariaz eta arrazoiak emanez ebatz dezala hirigintza-araudia lur zatien arteko itxitura-elementuen altuerari dagokionez interpretatzeko irizpidea berrikusteko eskaera.

1240/2019/QC espeditentea

Barakaldoko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 11koa. Horren bidez, Barakaldoko Udalari iradoki zaio OHZ arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa abiaraz dezala; hain zuzen, mendekotasuna jasotzeko errekararen aplikazioa salbuesteko kausa objektibo gisa eta, horrez gain, familia ukituari konpentsazio ekonomikoko neurriak ezartzeko aukera azter dezala iradoki zaio.

2071/2018/QC espeditentea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 13koa. Horren bidez, Barakaldoko Udalari gomendatzen zaio, kexagilearen OHZren kuotari aplikatutako %40ko errekaru gehigarria berrikus dezala; izan ere, herritarren jarduna ez da era gehigarrian kargatu beharrek gaitasun ekonomiko handiago baten adierazle (errekaru baten bidez), higiezin baten jabetzan egon beharrek helburu sozial baten barnean sartzen baita, eta alokairuko merkatuan 7 urtez egoteaz gain, titularraren ohiko bizilekua da.

685/2019/QC espeditentea

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 2koa. Horren bitartez, Barakaldoko Udalari gomendatzen zaio berriaz azter dezala hartutako erabakia, eta ofizioz balio gabetu dezala OHZren kuota likidoaren gaineko errekaru dela-eta kexagileei igorritako likidazioa; izan ere, kexagileen jarduerak ez du adierazten ahalmen ekonomiko handiagoa dutenik, eta, beraz, karga handiagoa ezarri behar zaienik errekaruaren bidez, etxebizitza bat jabetzan izateak nagusiki bete behar duen funtzio sozialean sartzen da-eta.

713/2019/QC espeditentea

Durangoko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 8koa. Horren bidez, Durangoko Udalari eta Bartolome Ertzilla musika eskola kudeatzen duen administrazio-erakunde autonomoari gomendatzen zaie udalaren musika-eskolako tarifak ikuskatzeko. Hori guztia, eroldaren erreferentzia baztertzeko udal zerbitzu publiko honetako erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoak zenbatzeko irizpide gisa.

1851/2018/QC espeditentea

Getxoko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 5ekoa. Horren bidez, Getxoko Udalari gomendatzen zaio modu kongruentean ebazteko trafikoko araudiaren arau-hausteategatik salaketa boluntario bati emandako tratamenduari buruzko informazio-eskaera.

82/2019/QC espeditentea

Gorlizko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 17koa. Horren bitartez, Gorlizko Udalari gomendatzen zaio berriaz azter dezala ibilgailuak aparkatzea mugatzeko eta antolatzeko kontrol-zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantza, errolatutako egoiliarrei eta oportetako egoiliarrei ematen zaien tratuari dagokionez, eta era koherentean erantzun diezaiola 2018ko zerbitzuaren kudeaketaren ondoriozko bidegabeko diru-sarrerak itzul diezazkioten kexagileak egin duen eskaerari.

1227/2018/QC espeditentea

GIPUZKOAKO UDALAK

Hondarribiko Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 12koa. Horren bidez, Hondarribiko Udalari gomendatzen zaio ofizioz balio gabetu ditzala OHZ zela-eta kexagileari igorritako likidazio errekarugunak, etxebizitza errentan emanda zegoelako.

2425/2018/QC espeditentea

Irungo Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko azaroaren 19koa. Horren bidez, Irungo Udalari gomendatzen zaio berriaz ditzan udal kiroldegiko tarifak, guraso bakarrek familien (kide gutxiko familiak barne) sustapenaren ikuspegi integratzailetik.

209/2018/QC espeditentea

D) BESTE ERAKUNDE PUBLIKO BATZUK

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko azaroaren 19koa. Horren bidez, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari zerga-ordenantza aldatzea eskatzen zaio, egun putzu septikoekin higiezinaren titularrei bidaltzen zaien saneamendu-tasaren konfigurazioak gainerako erabiltzaileekin berdintasun-baldintzetan zerbitzuaren prestazio eraginkorrari ez baitio erantzuten.
248/2018/QC espedientea

Arabako Abokatuen Elkargoa

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 3koa. Horren bitartez, ebazpenak arrazoitu ditzala gomendatzen zaio Arabako Abokatuen Elkargoari.
298/2019/QC espedientea

4. Bertan behera utzitako gomendioak eta iradokizunak

A) EUSKO JAURLARITZA

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2018ko abenduaren 17koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aldi batez etetea erabaki duen ebazpena berrikus dezala, zalantza objektiboak baitaude titularren konkurrentziaren inguruan.
325/2017/QC espedientea

B) FORU ADMINISTRAZIOA BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 30ekoa. Horren bidez, erakunde honek Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak Sailari gomendatzen dio deialdi horretako proba fisikoak atzeratzeko eskaera ez onartzeko kasua berrikus dezala (Bizkaiko Ahaldu Nagusiaren uztailaren 27ko 129/2018 Foru Dekretuaren bitartez), eta aukera eman dezala pertsona horrek aipatu probak egin ditzan eta prozesuan jarraitu ahal izateko.
582/2019/QC espedientea

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA GIPUZKOAKO UDALAK

Getariako Udala

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 18koa. Horren bidez, Getariako Udalari gomendatzen zaio, (...)an landetxe bat eraikitzeko lizentzia eskaera bat ukatzeko erabakia balio gabetu dezala, eta espedientea atzera eraman dezala proiektuaren hirigintza bideragarritasuna, nekazaritza eta ingurumeneko bideragarritasuna aztertzeko unera.
386/2018/QC espedientea



VIII.

atala

Eranskinak

◀ Aurrekoa ikusi





VIII. atala

1

Eman diren ebazpenak

VIII. Atala

ERANSKINAK

Eman diren ebazpenak

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 9koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari iradokitzen zaio berriz azter dezala merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa programari lagatako etxebizitza bati eragindako kalteei buruzko erreklamazioaren inguruko jarduketak.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 10ekoa. Horren bitartez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berrazter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera bat ukatu izana. Izan ere, erakunde honen ustez, Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legearen arabera, irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakunde baten gizarteratzeko programa batean parte har dezake interesdunak.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 10ekoa. Horren bidez, "Etxebide" Etxebizitza Babestuaren Eskaeren Erregistroan egin zen inskripzio baten antzintasuna berri-kusteko gomendatu zaio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 25ekoa. Horren bidez, amaiara ematen zaio Osakidetzako 2016-2017ko LEParen inguruko ofiziozko jarduerari.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 29koa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatzen zaio behar diren jarduketak egin ditzala Gipuzkoara heltzen diren eta familiarik gabe dauden adingabe atzeritarrei harre-
ra egokia emateko.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 13koa. Horren bidez, Hondarribiko Udalari gomendatzen dio, udal-erriko autokarabanei eta ibilgailu astunei egoerari buruz udal talde batek eskatutako dokumentazioa entrega dezala.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 19koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezan etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egin izana adierazteko ebazpena.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 25ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzen dituen ebazpen bat.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 26koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 28koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpen bat berrazter dezan.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako prestazio modura ordaintzen duen zenbatekoa.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatu zaio hala eskatutako pertsona eman diezaien Euskaren Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko azterketetako ahozko probaren grabaketan kopia.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plan-gintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen diogu etxebizitzarako prestazio ekonomikoa ezesteko ebazpen bat ikuska dezan.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta 12 hilabetez eteten duen ebazpena, ez baitago etetea erabakitze arrazoirik, ezta etenaldiaren iraupena kalkulatzeko sistema baliozkotu dezakeen nahikoa lege-oinarrikeria ere.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 26koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezala iraungitze-ebazpena eta, modu subsidiarioan, honako hau gomendatzen zaio: diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak eskatzeko ezintasuna gertatzen den urtea zenbatzeko data bat etortzea prestazioaren ordainketa eteteko datarekin.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 1ekoa. Horren bidez, Donostiako Udalarari gomendatu zaio erantzun eraginkorra eman diezaien hirigintzako lizentziarik gabe balkoiak ixteagatik egindako hirigintzako salaketei.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 2koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki nahi dio indarririk gabe utz dezan prestazioak eteteko ebazpena, erakunde honek uste baitu posiblea izango zatekeela enplegu-eskaera epez kanpo onartzea kasu honetan, eta, horrenbestez, iraungitze ebazpena berrikusi dezan ere iradoki nahi dio. Halaber, Arartekoak 2017ko txosten-diagnostikoan emandako gomendioa errepikatu nahi du, alegia, prestazioa eskatzea ezinezkoa izan zen urtea zenbatzeko kontuan hartu beharreko egunak bat egin dezan prestazioaren ordainketa bertan behera utzi zen egunarekin.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 11koa. Horren bidez Donostiako Udalarari gomendatzen dio Alde Zaharrean terrazak instalatzean irisgarritasunaren arloan eta bestelako alderdietan legezketasuna bete dezan.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 12koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta bat eta etxebizitzarako prestazio osagarri bat jasotzeko eskubidearen ukapena berrikusi dezan.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plan-gintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza bateko hozkailua konpontzeagatik emandako faktura ez ordaintzeko erabakia.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 7koa. Horren bidez, Galdakaoko Udalarari gomendatzen zaio beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzala "skate" pistaren erabilera legeztatzeko eta dagozkion kalitate akustikoko mailak betetzen dituela ziurtatzeko.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 9koa. Horren bidez, Donostiako Udalarari gomendatzen zaio erantzun arrazoitua eman diezaiela kale bat ibilgailuen nahiz oinezkoen zirkulazioari itxi izanaren inguruan aurkeztutako idazkiei.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 9koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte-ratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari gizarteratzeko laguntza bereziaren ezeste-espeditentia ikuska dezan gomendatzen zaio.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 13koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio aukera eman dezan etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima izaera gizar-te-txostenaren bidez egiaztatzeko. Izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko araudiaren arabera, bestelako dokumentazioa aurkeztuta egiazta daiteke etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima izaera.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 15ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko erabaki bat, herritarrak enpleguari bere borondatez uko ez ziola egin uste baita.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaera batean interesdunak atzera egin duela dioen ebazpena.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 16koa. Horren bidez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde-ari (HAEE) gomendatzen zaio, aitortu dezala pertsona batek euskararen ezagutzaren B2 maila egiaztatuta duela; izan ere, hautapen-prozesu batean maila horri dagokion proba gainditu zuen.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 16koa. Horren bitartez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio, bi trastelekuren etxebizitza-erabilera klandestinoaren harira hirigintza-arloko legezketasuna berrezar dadin jarritako salaketari erantzun diezaiola.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 17koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpen bat berri-kustea, eskubide edo prestazio ekonomiko bat erabiltzeko betebeharra ez delako bete, bere genero-indarkeriako egoera, osasun, polizia eta judizio txostenen bidez egiaztatuta dagoena, eta adingabearen interes gorenerako eskubidea behar bezala haztatzen badira.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 17koa. Horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatzen zaio berriz azter dezala dokumentu baten kopia autentifikatua (sarrera-data, -ordua eta -zenbakia biltzen dituen) emateko prozedura, bai eta azaldutako gaiari lotutako beste kontu batzuk ere.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 20koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, berriz azter dezala pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpena.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 21koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio berriz azter ditzala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eten dizkion ebazpena eta jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezarri diona, betebeharrak guztiak bete dituelako.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 21koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari gomendatzen zaio, sail horretako "Elebide" Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuak jardun bat berriz abiaraz dezala banketxe batek arreta euskaraz eman ez izanaren harira.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 27koa. Horren bitartez, Lanbideko bulego batek hitzordua eskuratzeko doako telefono-zenbakia jakinarazi ez izana salatzen duen kexa baten harira egindako esku-hartzea amaitu da.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 28koa. Horren bidez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari gomendatzen zaio, parte-hartzaile bati eman diezaiola lanpostuak betetzeko prozedura baten espedientean dagoen dokumentazioa.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 28koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, ondorioz gabe utzi dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko ebazpena, babesgabetasun egoera sortu baitu horretarako oinarri gisa balio izan duen polizia-txostenaren kopia aldeztu aurretik ez ematean.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 4koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio, bidegabe jasotako zenbait prestazio itzultzeko beharra adierazten duen ebazpen bat berri-kustea eta umezurtz-pentsio baten titularrak pentsiodunen bizikidetzaren unitateen artean sar ditzala, lanerako ezintasun iraunkorra izateagatik prestazio hori aitortu zaienean.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 6koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio, berri-kustea ditzala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria gisa bidegabe jasotako zenbaterako batzuk itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpena; izan ere, ez da egiaztatuta prestazioen bat bidegabe jaso denik.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 7koa. Horren bidez, amaitu egin da erakunde honek kexa baten harira egindako jarduna. Araubide orokorreko babes publikoko etxebizitza egokitu bat eskuratzeko salerosketa kontratuari oniritzia eman ez izanak eragin zuen kexa.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 11koa. Horren bidez, Barakaldoko Udalari iradoki zaio OHZ arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa abiaraz dezala; hain zuzen, mendekotasuna jasotzeko errekaruaren aplikazioa salbuesteko kausa objektibo gisa eta, horrez gain, familia ukituari konpentsazio ekonomikoko neurriak ezartzeko aukera azter dezala iradoki zaio.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 11koa. Horren bidez, Gizarte Zerbitzuen Foru Sailari gomendatzen zaio, hautapen-prozesu bateko administrazio espedientean dagoen dokumentazioa pertsona bati eman diezaiola.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 13koa. Horren bidez, Barakaldoko Udalari gomendatzen zaio, kexagilearen OHZren kuotari aplikatutako % 40ko errekaru gehigarria berri-kustea; izan ere, herritarren jarduna ez da era gehigarriaren kargatu beharreko gaitasun ekonomiko handiago baten adierazle (errekaru baten bidez), higiezin baten jabetzan egon beharreko helburu sozial baten barnean sartzen baita, eta alokairuko merkatuan 7 urtez egoteaz gain, titularraren ohiko bizilekua da.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 14koa. Horren bitartez, amaitu egin da ofizioz izapidetutako espediente baten harira erakunde honek egin duen jarduna. Espediente horren xedea da Lanbidek, diru-sarrerak bermatzeko errentaren ondorioetarako, alegiazko etekina egozteko norberaren konturako langileei.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 18koa. Horren bidez, Getariako Udalari gomendatzen zaio, (...)an landetxe bat eraikitzeko lizentzia eskaera bat ukatzeko erabakia baliogabetu dezala, eta espedientearen atzera eraman dezala proiektuaren hirigintza bideragarritasuna, nekazaritza eta ingurumeneko bideragarritasuna aztertzeke unera.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 26koa. Horren bitartez, Bilboko Udalari gomendatu zaio, hala badagokio, berriz azter dezala irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateei Aste Nagusian txosnak jartzeko baimena emateko baldintzen plegua.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 1ekoa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi izana, erabaki hori hartzeko arrazoirik ez dagoela-eta.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 4koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzen dion ebazpena, prozedura iraungi egin baita.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 11koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, berrikeria dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpena, babesgabetasun egoera sortu baitu horretarako oinarri gisa balio izan duen polizia-txostenaren kopia alde aurretik ez ematean eta, beraz, kexagilearen babeserako eskubidea ez bermatzean.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 15koa. Horren bitartez, Leioako Udalari gomendatzen zaio, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailarekin koordinaturik, (...)ko eremuari eragiten dion hirigintza-antolamendua Lamiakoko ibai azpiko tunelerako aurreikusitakoari egokitu dakion susta dezala.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 22koa. Horren bidez, Barakaldoko Udalari gomendatzen zaio, berrikeria dezala kexagilearen amaren mendekotasun graduaren aldaketak (2016ko irailean jakinarazi zitzaion udalari) data horretatik 2019ko otsailera arte ordaindu zuen etxex etxeko laguntza zerbitzuaren kuotan izandako eragina.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 22koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzeko erabakia berrikeria dezala, kexagileak premia-egoera larriagatik harrean hartzeko betekizuna betetzen duela uste baitu.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 23koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utzi dezala etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko erabakia.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 23koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpena berrikusteko.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 29koa. Horren bidez, titulu akademiko jakin bat lortzeko egindako ikasketa planaren edukiari erreparatzeko gomendioa egin zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailari, lanpostuak betetzeko prozesu jakin batzuetako merezimendu gisa.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 30ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari honako hau gomendatzen zaio: berrikeria dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubide subjektiboa ukatzeko ebazpena; horren arabera, kexagileak ez du bete eskubide ekonomikoak baliarazteko betekizuna, ez baitu egiaztatu epai judizialean erabakitako gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak betearazteko eskaera egin izana.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 31koa. Horren bidez, EUSTATI gomendatu zaio beharrezko neurriak harritzan dagokion Erregistro Zibilean jatorrian EAEn jaiotako herritar gisa inskribatutako adingabe adoptatua atzerriko pertsona immigranteei buruzko datu pertsonalen fitxategietatik kentzeko.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 1ekoa. Horren bidez, Artziniegako Udalari gomendatzen zaio egindako eskaerari erantzun diezaiola, eta dagokion administrazio espedientearen abiaraz dezala Barratagurengo auzoko Tejerako eraikuntzen eta Mendieta auzoko Santo Tomas elizaren kontserbazio egoera ebaluatzeko.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 7koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria onartzeko eskaera ezezten duen erabakiari buruzko ebazpena berraztertu dezala, lanaldi osoko lanaren truke kexagileak, genero-indarkeriaren biktimak, lanaldi partzial mugagabea zuen lana utzi zuelako, arrazoia justifikatua izanda.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 8koa. Horren bidez, Okondoko Udalari gomendatzen zaio bere sarbide nagusietan hirigune eta erakundeak behar bezala errotula ditzala eta udalerrri guztiko posta-helbideen euskarri izateko kartografia digitala egunera dezala.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 8koa. Horren bidez, Durangoko Udalari eta Bartolome Ertzilla musika eskola kudeatzen duen administrazio-erakunde autonomoari gomendatzen zaie udalaren musika-eskolako tarifak ikuskatzeko. Hori guztia, erroldaren erreferentzia baztertzeko udal zerbitzu publiko honetako erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoak zenbatzeko irizpide gisa.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 12koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berma dezala eskatzailearen premia soziosanitarioak aintzat hartuko direla haren profilerako egokitutako egoitza-baliabide batean, alegia, baliabide egokian.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 28koa. Horren bitartez amaiera ematen zaio hurrengo kexa honi: euskarazko zerbitzu egoki bat ematearen beharra Amorebieta-Etxanoko Udalean.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 10ekoa. Horren bidez, Usansoloko herritarrak banandu eta Galdakaoko udal-erri independente bihurtzeko ekimenari lotuta egindako jarduna amaitu da.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 11koa. Horren bidez, Erandioko Udalari gomendatu zaio behar diren neurriak har ditzala zenbait ostalaritza-establezimenduk baime-nik gabe jarri dituzten terrazak kentzeko.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 16a. Horren bidez, Orozkoko Udalari dagokion zehapen-espeditentearen hasieraren auzia berriaz eta arrazoituz ebaztea gomendatzen dio, animaliak edukitzearen araudia hausteagatik aurkeztutako salaketan ondoretarako.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 19koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari gomendatzen zaio Administrazio azpi-eskalako lan-poltsatik Administrazio laguntzailearen kategorian Administrazio azpi-eskalako lan-poltsatik hautatutako pertsonen kontratazioa berrikus-tea, Administrazio azpi-eskalako lanpostuak betetzen eta azpi-eskala horretako ordainsariak jasotzen baitzituzten, eta urriaren 30eko Bizkaiko Diputatu Nagusiaren 172/2018 Foru Dekretuaren bidez deitutako hautapen-prozesuaren merezi-mendu-baremoak aplikatzeari dagokion balorazioari dago-kion epeen mende jartzea.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 19koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Inguru-ne Naturala Zaintzeko Sailari zehapen-ebazpenaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa ebaztea gomendatzen zaio; zehapena Gorlizko udal-mugartean glifosatodun pro-dukto fitosanitario bat herbizida gisa aplikatzean egindako arau-hausteagatik egin zen.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 23koa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren de-partamentuari gomendatzen zaio gaitasun handiko A-15 eta N-1 errepideen zenbait zati erabiltzearen kanona ez ordain-tzeagatik jarritako salaketetan jarraitzen diren prozedurak bereiztea.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 25ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari iradokitzen zaio berrikus dezala etxe-bizitza aldatzeko berriazko premia aitortzeko eskaera ukat-zeko erabakia.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 25ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politike-tako Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 27koa. Horren bitartez, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazio Sailari gomen-datzen zaio foru enplegatu batek ordainsariak emateko egin-dako eskaera berriz aztertu eta baietsi dezala.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 30ekoa. Horren bidez, erakunde honek Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Ad-ministrazioa eta Erakunde Harremanak Sailari gomendatzen dio deialdi horretako proba fisikoak atzeratzeko eskaera ez onartzeko kasua berrikus dezala (Bizkaiko Ahaldu Nagu-siaren uztailaren 27ko 129/2018 Foru Dekretuaren bitartez), eta aukera eman dezala pertsona horrek aipatu probak egin ditzan eta prozesuan jarraitu ahal izateko.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 30ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio kexagileari jakinaraz diezaiola zer-gatik ez zen bere hautagaitza aukeratu Arabako Gizarte On-gizaterako Foru Erakundeak egindako enplegu-eskaintzak (erreferentzia-zenbakiak: 132017006146, 162017007933 eta 162017010825) kudeatzeko prozeduran parte hartzeko.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 3koa. Horren bitartez, ebazpenak arrazoitu ditzala gomendatzen zaio Ara-bako Abokatuen Elkargoari.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 7koa. Horren bitartez, amaitu egin da erakunde honek kexa baten harira egindako jarduna. Hain zuzen ere, interesdunari "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena ema-teko egin zuen eskaera ukatu izanak eragin zuen kexa.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 9koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskae-ran atzera egin zuela jotzeko ebazpena, dokumentazio-erre-kerimendua okerreko helbidean jakinarazi ziotelako, eta berriz azter ditzala etxebizitzarako prestazio osagarria ukat-zeko arrazoiak, betetzen baititu prestazio horren onuradun izateko betekizunak.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 9koa. Horren bidez, amaitu egin da kexa baten harira erakunde ho-nek egindako jarduna; izan ere, kexagilea ez zegoen ados Alokabide sozietate publikoak "Bizigune" Etxebizitza Hutsen Programako etxebizitza batean ur-berogailu elektriko baten aldaketaren faktura ez ordaintzeko hartutako erabakiarekin.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 14koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio dirusarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko ebazpen bat berrikus dezala; izan ere, uste du lan baldintzen aldaketa ukatzeko arrazoi justifikatua dagoela (lanaldi partzialeko etxeko langile izatetik etxe barruko langi-le izatera pasa da), eta aldaketa hori bere semearen zaintza-rekin bateraezina zela.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 21ekoa. Horren bidez, Getxoko Udalarari gomendatzen zaio eskatzaileari eta haren familiari 2019ko otsailaren 18tik aurrera alta eman die-zaiela errolatzea eskatu duten etxebizitzan.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 5ekoa. Horren bitartez, Durangoko Udalarari gomendatzen zaio itzul dezala errekaruarekin igorritako kuota bat, hain zuzen ere 2017ko iraileko ikastaro bati zegokiona.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 5ekoa. Horren bidez, Getxoko Udalarari gomendatzen zaio modu kongruentean ebazteko trafikoko araudiaren arau-hauste bategatiko salaketa boluntario bati emandako tratamenduari buruzko informazio-eskaera.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 6koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio ebalua dezala Ordiziako haur eta lehen hezkuntzan funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan 2019-2020 ikasturterako jada onartu diren plangintza-erabakiek zer eragin izan dezaketen, eta neurri zuzentzaileak har ditzala ikastetxe horien artean eskolatutako ikasleak banatzean, oreka handiagoa sustatzen laguntzeko.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 7koa. Horren bidez, Iburgurengo Administrazio Batzarrari gomendatzen zaio bete dezala auzolanen ordenantzan ezarritako prozedura.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 8koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari iradokitzen zaio berrazter dezala zuzkidura-bizitokia aldatzeko berriazko premia aitortzeko eskaera bat ukatzeko erabakia.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 8koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala Lanbideko kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko emandako ebazpena eta, horren ondorioz, ustez bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko eskakizuna.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 12koa. Horren bidez, Hondarribiko Udalarari gomendatzen zaio ofizioz balio gabetu ditzala OHZ zela-eta kexagileari igorritako likidazio errekaragudunak, etxebizitza errentan emanda zegoelako.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 14koa. Horren bidez, Bilboko Udalarari gomendatzen zaio legeriara egokitu ditzala azokak eta azoka txikiak egiteko baimena eskuratzeko prozedura eta indarrean dagoen espazio publikoari buruzko ordenantza.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 15koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen dio berrazter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria etete-ko ebazpen bat; izan ere, bere ustez, Lanbideko antolatutako ikastaro baterako deialdiaren prozedurak ez du nahikoa bermerik izan administratuarentzat.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 20koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpen bat; berraztertze hori egitea beharrezkoa da zer-nolako gabeziak hauteman diren ikusita, haien artean, erreklamazioaren prozedura iraungi izana.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 20koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea bigarren aldiz etetea eta, horren ondorioz, iraungitzea erabakitzen duen ebazpena, enplegu-eskatzaile gisa alta emanda jarraitzeko betebeharretik salbuesten duen arrazoi justifikatua dagoelako.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 25ekoa. Horren bidez, URA - Uraren Euskal Agentziari gomendatzen zaio berrius dezala aldi baterako ur-ikuskatzaileen aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsa sortzeko deitutako hautapen-prozesua.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 25koa. Horren bidez, Abanto-Zierbenako Udalarari gomendatzen zaio berriaz eta arrazoiak emanez ebatz dezala hirigintza-araudia lur zatien arteko itxitura-elementuen altuerari dagokionez interpretatzeko irizpidea berrikusteko eskaera.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 26koa. Horren bidez, Guardiako Udalarari gomendatzen zaio behar bezala izapidetu dezala udal bide publiko baten zati bat okupatzeagatiko salaketa.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 27koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 2koa. Horren bitartez, Barakaldoko Udalarari gomendatzen zaio berriz azter dezala hartutako erabakia, eta ofizioz balio gabetu dezala OHZren kuota likidoaren gaineko errekarua dela-eta kexagileei igorritako likidazioa; izan ere, kexagileen jarduerak ez du adierazten ahalmen ekonomiko handiagoa dutenik, eta, beraz, karga handiagoa ezarri behar zaienik errekaruaren bidez, etxebizitza bat jabetzan izateak nagusiki bete behar duen funtzio sozialean sartzen da-eta.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 5ekoa. Horren bidez, amaitu egin da erakunde honek ofizioz abiarazitako jarduna jaraunspenean jasotako ondasun higiezinak diru-sarrerak bermatzeko errentaren ondorioetarako duten tratamendua dela eta.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 10ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpena, prozedura iraungita eta preskribatuta dagoela ikusten delako.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 12koa.

Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen dio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea azkentzeko ebazpen bat; izan ere, uste du kexagileak bete zituela aurretiaz berrabiarazteko betekizunak eta bete zuela Administrazioari laguntzeko betebeharra, diru-sarrera nahikorik ez zuela frogatzeko agiriak aurkeztuz.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 12koa.

Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plan-gintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio indarrrik gabe utz dezala herritar bati "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan baja emateko erabakia.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 13koa.

Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko ebazpena, egiaztatu baita etxebizitza bat erosteko sinatu zuela mailegua, eta, beraz, ez zuela larriagotu bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoa. Halaber, ebazpen horren bidez, ohar-tarazi da Lanbidek eta gizarte-zerbitzuek lankidetzan aritu behar dutela.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 17koa.

Horren bitartez, Gornizko Udalari gomendatzen zaio berriz azter dezala ibilgailuak aparkatzea mugatzeko eta antolatzeko kontrol-zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantza, erroldatutako egoiliarrei eta oporretako egoiliarrei ematen zaien tratuari dagokionez, eta era koherentean erantzun diezaiola 2018ko zerbitzuaren kudeaketaren ondoriozko bidegabeko diru-sarrerak itzul diezazkioten kexagileak egin duen eskaerari.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 26koa.

Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki dio alda ditzala Lanbideren 1/2015 Zirkularrean, "bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko baldintzak zehazteari buruzkoan", jasotako irizpideak.

Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 26koa.

Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio prestazioak erreklamatzeko prozedura bat berrikus dezala, ez baitira bete jakinarazpena burutzeko aurreikusten diren berme formalak, eta, ondorioz, erreklamaturiko zorra preskribatzea erabaki dezala.





VIII. atala

2

Grafikoen eta taulen aurkibidea

◀ Aurrekoa ikusi

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	
Arartekoari 2019an egindako kexak eta kontsultak	21
2. grafikoa.	
Arartekoaren jarduera guztiak 2019an	22
3. grafikoa.	
Aurrez aurreko kexak eta kontsultak eta telefono bidezko aholkuak arreta zuzeneko bulegoetan	23
4. grafikoa.	
Onartu gabeko kexa idatziak eta egoerak	23
5. grafikoa.	
Bideratutako espedienteen banaketa, eragindako administrazioen arabera	25
6. grafikoa.	
Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteen banaketa, sailen arabera	26
7. grafikoa.	
Foru erakundearen aurka bideratutako espedienteen banaketa, lurraldeen arabera	27
8. grafikoa.	
Erregistratutako kexa-espedienteen lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera (2008-2019)	30
9. grafikoa.	
Erregistratutako erreklamazio idatziak lurraldez lurralde, 10.000 biztanleko (2005-2019)	30
10. grafikoa.	
2019an bukatu diren espedienteak	31

11. grafikoa.	
Kexa-espedienteen egoera.....	32
12. grafikoa.	
Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera.....	34
13. grafikoa.	
Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera.....	34
14. grafikoa.	
Kexen banaketa, herritarrek erabili duten bidearen arabera.....	34
15. grafikoa.	
Nolakoa iruditu zaizu Ararteko erakundeko langileek eman dizuten arreta (laguntzeko prest egotea, tratua, enpatia...)?.....	35
16. grafikoa.	
Oro har, nolakoa iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...).....	35
17. grafikoa.	
Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekora joateko gomendatuko zenioke?.....	35
18. grafikoa.	
Nolakoa iruditu zaizu kexa egin zenuenetik tramitazioa bukatu arteko denbora?.....	36
19. grafikoa.	
Nolakoa iruditzen zaizu Ararteko erakundeko pertsonen profesionaltasuna?.....	36

Taulen aurkibidea

1. taula.	
Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun-maila.....	22
2. taula.	
Hasitako kexa-espedienteen banaketa, jarduera-arloaren arabera	24
3. taula.	
Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteen banaketa, arloen arabera	26
4. taula.	
Foru erakundeen aurka bideratu diren espedienteen banaketa, arloen arabera.....	27
5. taula.	
Tokiko administrazioen aurka bideratutako espedienteen banaketa.....	28
6. taula.	
Autonomia erkidegoko udalen eta administrazio batzarren aurka bideratutako espedienteak	28
7. taula.	
Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka bideratutako kexa-espedienteak.....	29
8. taula.	
Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek egin dituzten kontuan hartuta	31
9. taula.	
Ofiziozko espedienteen banaketa, arloen arabera.....	32





VIII. atala

3

Arartekoaren argitalpenak

◀ Aurrekoa ikusi

Arartekoaren argitalpenak

Txosten bereziak

- *Kalabozoak. Ertzaintzaren eta udalen atxiloketa egoitzak.* 1991.
- *Psikiatrikoak. Ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera.* 1992.
- *Adinekoen egoitzak Euskal Autonomi Elkartearen (1992-1993).* 1994.
- *Euskal Herriko Ararteko Erakundearen lehen bost urteak (1989-1994).* 1994.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia (1994-1995).* 1996.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoera.* 1996.
- *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak.* 1997.
- *Adin txikiko lege-hausleak.* 1998.
- *Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urtegietan.* 1999.
- *Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera EAEn.* 1999.
- *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo.* 2000.
- *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna.* 2001.
- *Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan.* 2002.
- *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn.* 2003.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna.* 2003.
- *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn.* 2003.
- *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak.* 2005.
- *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn.* 2005.
- *Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna.* 2006.
- *Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan.* 2006.
- *Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn.* 2007.
- *Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak. Hurbilketa.* 2008.
- *Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzak.* 2008.
- *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta.* 2009.
- *Adingabekoei balioak transmititzea.* 2009.
- *Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin.* 2009.
- *EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan.* 2010.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera.* 2010.

- *EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa*. 2011.
- *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak*. 2011.
- *EAEen norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa*. 2011.
- *E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea*. (CD-ROM). 2013.
- *Askatasunik gabe dauden pertsonen buruko osasunari EAEen emandako arreta soziosanitarioa*. (CD-ROM). 2014.
- *Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak*. (CD-ROM). 2014.
- *Udal gizarte zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Egungo egoera eta hobetzeko proposamenak*. (Internet). 2016.
- *EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoa*. (Internet). 2017.
- *Euskal Herria energia-eredu iraunkor batera igarotzea*. (Internet). 2018.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekotza egitea*. (Internet). 2019.
- *XV Jornadas de Coordinación de Defensores del Pueblo*. 2000.
- *Ararteko erakundeak 20 urte bete ditu*. 2009.
- *25 urte lanean pertsonen eskubideen alde*. (USB). 2014.

Faksimilak

- *Jaquin-bide Iritarautia* - 1820. Kadizko Konstituzioari buruz euskaraz idatzitako eskuizkribu argitaragabea, irakaskuntzarako moldatua. 1991.
- *Gaioren Institutionum*. 1992. (Gaztelaniazko lehen argitaralditik aterea, Madril, 1845).
- *Aita Frantzisko Vitoriakoaren De indis insularis. De iure belli*. 1993. (Lyonen 1557an egindako lehen argitaralditik aterea).
- *Valentín de Forondaren Cartas sobre la policía*. 1998. (Iruñean 1820an egindako bigarren argitaralditik aterea).
- *Miguel de Lardizábal y Uriberen Apología por los Agótes de Navarra y los Chuetas de Mallorca, con una breve digresión á los vaqueros de Asturias*. 2000. (Madrilen 1786an egindako lehen argitaralditik aterea).
- *Manuel de Lardizábal y Uriberen Discurso sobre las penas contrahido á las leyes criminales de España, para facilitar su reforma*. 2001. (Madrilen 1782an egindako lehen argitaralditik aterea).
- *Xabier Maria Muniberen Discursos inéditos*. 2002.
- *Rita de Barrenechea eta beste emakume batzuk. Catalin y otras voces de mujeres en el siglo XVIII*. 2006.

Urteko txostenak

- *Liburukiak*: 1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018, 2019.

Gomendioak

- *Gomendio eta iradokizunak*: 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996.
- *Gomendioak*: 2002, 2003, 2004.

Bestelako argitalpenak

- *Idatz arauak / Normas de redacción*. 1992.
- *Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra. Herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia*. 1993.
- *Esanak eta eginak / Dichos y hechos*. Juan San Martín, Arartekoa. 1994.
- *Euskal Herriko Ararteko erakundearen lehen bost urteak: 1989-1994*. 1994.

«Padre Francisco de Vitoria» Giza eskubideen saila (Bekadunen lanak)

- *E. J. Ruiz. El derecho al ambiente como derecho de participación*. 1993.
- *M. Á. Encinas. Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991)*. 1994.
- *G. Varona. La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos*. 1994.
- *A. Bergara. Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean*. 1996.
- *M^a J. Fernández de Landa. El control interinstitucional en la Unión Europea*. 1996.

- I. P. Sánchez. *Rechazo social hacia las personas seropositivas en la CAPV*. 1998.
- J. Morquecho. *Intervención comunitaria en Euskadi. Acercamiento a la acción social sobre la exclusión*. 1999.
- G. Moreno. *Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto*. 2003.
- A. Olarte. *Alternativas a la cárcel en Euskadi: el trabajo en beneficio de la comunidad*. 2006.
- B. Sicilia. *Derechos fundamentales y Constitución Europea*. 2006.
- J. Zarauz. *Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular*. 2007.
- I. Mujika. *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi*. 2007.
- J. L. Fuentes, T. L. Vicente. *Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan. Egoera eta itxaropenak*. 2007.
- F. J. Leturia, N. Etxaniz. *Adinekoen eskubideak eta tratatu desagokiaren prebentzioa*. 2009.
- I. Orbegozo, A. I. Pérez, L. Pego. *Gizabanakoari eskubideak etetea terrorismo kasuetan: arreta berezia atxiloaldi inkomunikatuari*. 2009.
- A. Gozalo, E. Jiménez, L. Vozmediano. *Adingabeak edo atzerritarak? Esku hartzeko politiken azterketa, lagundu gabeko adingabe atzerritarren gainekoa*. 2010.
- M. Arnoso, M. Mazkieran, A. Arnoso, S. Luciani, A. Villalón, A. Otaegi. *Etorkinek zerbitzu eta prestazioetara dutensarbidea, Euskal Autonomia Erkidegoan*. 2011.
- Farapi: Ana Beatriz Rodríguez Ruano, Oihane García Santiago, Amaia Benito Pumarejo, Aritz Rodríguez Gutiérrez, Nerea Elías Muxika, Begoña Pecharromán Ferrer. *Aplicación de los derechos de las personas usuarias y consumidoras en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. (CD-ROM). 2012

«Padre Francisco de Vitoria» Giza eskubideen bilduma

Hausnartzeko eta parte hartzeko foroak

- *Eskolako bizikidetasuna eta gatazkak*. 2008.
- *Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan*. 2008.
- *Cannabisa. Erabilerak, segurtasun juridikoa eta politikak*. 2012.

Jardunaldiak

- *Eskubide sozialen egungo egoera*. 2008.
- *Politika publikoen erronkak demokrazia aurreratu batean*. 2011.
- *Eskubide sozialak krisi garaian*. (CD-ROM). 2012.
- *Estatu soziala eta bizitza duina*. (CD-ROM). 2015.

«Juan San Martín» Giza eskubideen bilduma (Bekadunen lanak)

- J. M. Septién. *Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*. 2006.
- A. Bacigalupe, U. Martín. *Osasun arloko gizarte desberdintasunak EAEko biztanleen artean*. 2007.

Material didaktikoak

- G. Azkarate, L. Errasti, M. Mena. *Giza Eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak* (Bigarren Hezkuntza). 2000.
- Zenbait egile (IPE). *Gure eskubideak* (Lehen Hezkuntza). 2001.
- E. Acero, I. Mier. *Giza eskubideak jokoan* (Bigarren Hezkuntza). 2001.
- Mugarik Gabe. *Sortuz / Generando*. (CD-ROM). 2004.
- Ikasleen lanak. *Gure eskubideak / Nuestros derechos*. 2004.
- *Ziber Bullying-a. Teknologia berrien bidezko jazarpenera prebenitzeko material didaktikoa*. (CD-ROM). 2008.
- *Leihoak. Abentura ERREALA Mundu BIRTUALEAN. Gozatu internetez... Sarean erori gabe*. (CD-ROM). 2008.

«Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma (Uda ikastaroak)

- *El derecho a la no discriminación por motivo de raza*. 1997.
- *Vigencia y futuro de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en su 50 aniversario*. 1998.

- *Los derechos no caducan con la edad: el año internacional de las personas mayores.* 1999.
- *Una cultura de paz: cimiento para los derechos humanos.* 2000.
- *Responsabilidad penal de los menores: una respuesta desde los derechos humanos.* 2001.
- *Derechos humanos y nuevas tecnologías.* 2002.
- *La prevención y erradicación de la tortura y malos tratos en los sistemas democráticos.* 2003.
- *El trabajo en el siglo XXI: perspectivas de futuro.* 2004.
- *Familia berriak eta berdintasun printzipioa: eztabaida irekia.* 2005.
- *Arartekoa: XXI. menderako Ombudsmana.* 2006.
- *Herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzea. Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko IV. Foroa: Herritarren partaidetza: fikzioa ala errealitatea?* 2007.
- *Osasun mentala eta pertsonen eskubideak.* 2008.
- *Haurrak babesteko sistemak eta horien erronkak.* 2009.
- *Lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten laguntzeko politika publikoak berriz aztertzeko bidean.* 2010.
- *Gaixotasun arraroak: arreta publikoa behar duen errealitate baten argi-itzalak.* 2011.
- *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta enpresa pribatuek interes orokorreko zerbitzuak egitea.* (CD-ROM). 2012.
- *Pertsonen eskubideak babestea finantza-erakundeekin dituzten harremanetan.* (CD-ROM). 2013.
- *Familiak eta beraien beharrak eta erronkak oraingo gizarte- eta ekonomia-egoeran: botere publikoen erantzuna.* (CD-ROM). 2014.
- *Euskal gazteen zailtasunak beren hiritar eskubideak egiaz baliatzeko, batez ere bizimodu autonomoa egiteko proiektua eraikitzearekin lotutakoak.* (CD-ROM). 2015.
- *Europa, asilo lurraldea? Erronkak eta erantzunak.* (CD-ROM). 2016.
- *Euskadin kultura-ondasunak babesteko araubideak berekin dakartzan arazoak.* (Internet). 2017.
- *Haurrenganako sexu-abusua. Gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua.* (Internet). 2018.
- *Pertsonen eskubideak bizitzaren bukaeran.* (Internet). 2019.

aRaRteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

www.ararteko.eus